



Zurrumurruen
Aurkako Sarea

Red Vasca
antrumores

Migratio



CARLOS GIMÉNEZ ROMERO

ANTROPOLOGIA, ESKUBIDEAK ETA ETIKA
MIGRAZIOAREN AURREAN

**Nire hiritarkideei,
atzerritar jatorrikoak barne**

Giza eskubideak errespetatzen dituzten
eta egiazko informazioan oinarritutako
pentsamendu propio eta kritikoa duten
hitar demokratikoei eta gizarte zibilari

EGILEA

Carlos Giménez Romero

DOKUMENTAZIO LANETAN

Felipe Manchón Campillo

ISBN

978-84-19064-50-9

ARGITARAPEN URTEA

2024, Bilbo



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Eskerrak

Nire kideko Xabier Aierdi Urraza eta Andrea Ruiz Balzolari, *Zer da immigrazioa* (2003) eta baita lan horretan jasotako iritziak eguneratzeko abentura honi heltzera gonbidatzeagatik eta animatzeagatik.

Felipe Manchón Campillo ikertzaile laguntzaile bikainari, egin duen lan dokumental apartagatik.

Beren mintegietara gonbidatu nauten pertsona eta erakundeei, mintegi horietan gai horiei buruz hitz egin eta hausnartu baitugu, eta dokumentazio ugari eta aberasgarria eman baitidate; bereziki, zurrumurruen aurkako gidak. Asko dira eta gaizki legoke batzuk bakarrik aipatzea; badakite oso esker oneko nagoela haiekin.

Espero dut haiek gizarte inklusibo eta kulturartekoaren, justizia sozialaren eta bizikidetzaren demokratikoaren alde egiten ari diren lana fidagarritasunez jaso izana.

Sarrera // 10. o

01.

Eztabaida publikoak, gizarte-zientzia inplikaturik eta immigrazioa // 11. o

02.

Azterketa zientifiko-sozialak iritziruzkinekin lotzea // 12. o

03.

Zer aldatu den eta zerk dirauen migrazioen alorrean (2003-2023) // 14. o

04.

Nazioarteko testuingurua: inklusio-agendak, -itunak eta arauak *versus* xenofobiaren gorakada eta mugako erregimenak // 16. o

05.

Herraldeko testuingurua: inklusio-planak eta hirugarren sektore solidarioa *versus* eskuin-muturraren gorakada // 18. o

06.

Berrikuspena eta eguneraketa: premisak eta irizpideak // 20. o

Zer esaten ari da.

Aurreko iruzkinak eta haien eguneraketa // 22.0

— Sarera // 23.0

01.

“Immigrazioa arazo handi bat da”

// 24.0

02.

“Migrazioak eragotzi behar dira”

// 33.0

03.

“Lehen, migrazioak beste zerbait ziren”

// 38.0

04.

“Jendeak gosez akabatzen dagoelako migratzen du” // 44.0

05.

“Hain gaizki bizi badira, zergatik geratzen dira?” // 49.0

06.

“Immigrazioak delituak eta segurtasunik eza areagotzea eragiten du” // 58.0

07.

“Immigrazioa identitate nazionalerako mehatxua da” // 67.0

08.

“Zenbat immigratzaile integra ditzake gizarte batek? Zein da tolerantzia-atalasea?” // 73.0

09.

“Integratu ezin diren kulturak daude” // 81.0

10.

“Lanpostuak kentzen dituzte. Langabezia egonda, ez dut ulertzen nola egon daitekeen immigraziorik” // 89.0

11.

“Gizarte-segurantzarik eta kontraturik gabe egiten dute lan: horrek ez al du lan prekarioa sustatzen” // 96.0

12.

“Legez daudenak, bai, ondo da, baina legezketasunik eza ezin da onartu” // 102.0

13.

“Immigratzaileek hemengo arauak bete behar dituzte” // 108.0

14.

“Immigratzaileek eta haien familiek gizarte-laguntzak bereganatzen dituzte” // 119.0

15.

“Lehentasuna ematen zaie immigratzaileei, programa gehienak haientzat dira” // 126.0

16.

“Espainiarrok arrazistak gara?” // 133.0

17.

“Prestatuta al gaude Espainian immigrazioari aurre egiteko?” // 142.0

Iruzkin berriak: inklusioaren eta bazterketaren artean // 148. o

— **Sarrera** // 149. o

01.

Zergatiak // p. 150

02.

Aztergaia // p. 150

03.

Ikuspegi hirukoitza: zientzia, zuzenbidea eta etika // p. 151

04.

Beste norabide bat eta egitura berria // p. 153

— I. BLOKEA

Inklusioaren alde. Kulturarteko bizikidetzaren eta kohesioaren aldeko esanak eta proposizioak // 154. o

18.

“Mugak ezabatzea utopia da agian, baina ez da kimera” // 155. o

19.

“Ororen gainerik pertsonak dira, duintasun bereko gizakiak eta subjektu eskubidedunak” // 161. o

20.

“Migrazioaren auziak eragin zuzena du zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoa deritzonaren muinean eta garapenean” // 171. o

21.

“Migratzaileak eta migrazioak garapenaren eragile eta koprotagonistak dira” // 180. o

22.

“Immigrazio gabe, krisi demografikoa are larriagoa litzateke” // 189. o

23.

“Kultura-aniztasuna aberasgarria da” // 194. o

— II. BLOKEA

Esklusioaren alde. immigrazioaren aurkako esanak eta proposizioak // 199. o

24.

“Immigrazioa stop!” // 200. o

25.

“Lehenbizi etxekoak!” // 204. o

26.

“Horrek erakartze-efektua eragiten du” // 210. o

27.

“Lanean ari badira, tira; baina bestela, doazela hemendik, ezta?” // 216. o

28.

“Mena horiek delinkuenteak dira, bortxatzaileak, pribilegiatuak” // 220. o

29.

“Gure arteko bizikidetzaren nahikoa zaila ez eta... pentsa hain jende desberdinarekin bizitzea” // 227. o

— **Glosario** // 236. o

— **Taulen aurkibidea**

01. **Erregulatu beharreko zenbait alderdi espezifiko eta haien isla Munduko Itunean (2018)** // 34. o
02. **Konpondu beharreko zenbait alderdi negatibo eta haien isla Munduko Ituna (2018)** // 35. o
03. **Espainiako atzerritarrak, 2000–2021 (guztizko kopuruak)** // 52. o
04. **Delituen bilakaera Espainian.** Guztizko datuak eta nazionalitateen araberako ehunekoak // 62. o
05. **Espainiako delituei buruzko datu globalak.** Azpitalde bakoitzeko biztanleriaren proportzioaren araberako ehunekoak // 62. o
06. **Pertsonen segurtasunaren aurkako delituak.** Guztizko datuak eta nazionalitateen araberako ehunekoak // 63. o
07. **Pertsonen segurtasunaren aurkako delituak.** Azpitalde bakoitzeko biztanleriaren proportzioaren araberako ehunekoak // 64. o
08. **Jabetzaren aurkako delituak.** Guztizko datuak eta nazionalitateen araberako ehunekoak // 64. o
09. **Jabetzaren aurkako delituak.** Azpitalde bakoitzeko biztanleriaren proportzioaren araberako ehunekoak // 65. o
10. **EBko herrialdeetako atzerritarrak** // 74. o
11. **Espainian bizi diren atzerritarren kopuruaren bilakaera** // 74. o
12. **Aldi baterako eta lanaldi partzialeko okupazioa, bertakoak eta atzerritarrak bereizita (2018)** // 99. o
13. **Lan-ezgonkortasuna eta behin-behinekotasuna.** Etxe baten bizi diren landunetatik, aldi baterako kontratua dutenen ehunekoa // 99. o
14. **Eraikineko bizikidetzaren arauen betetze-mailari buruzko pertzepzioa (2017)** // 113. o
15. **Lurraldeko bizikidetzaren arauen betetze-mailari buruzko pertzepzioa (2017)** // 113. o
16. **Estatuko eta toki-esparruko laginen arteko alderaketa, bizikidetzaren arauen ez-betetzeari buruzko pertzepzioari dagokionez (2017).** Betetzen ez direla uste dutenen ehunekoak // 114. o
17. **Espainiako errealitatearen indarguneak eta ahulguneak, Estatua soziala izateari dagokionez** // 177. o
18. **Espainiako errealitatearen indarguneak eta ahulguneak, Estatua demokratikoa izateari dagokionez** // p. 178
19. **Espainiako errealitatearen indarguneak eta ahulguneak, Estatua zuzenbidezkoa izateari dagokionez** // 178. o

Sarrera

Zer da immigrazioa? (***Qué es la inmigración***, RBA 2003) aurreko lanaren eguneratze- eta zabalitze-testu bat da hau. Bigarren zatian, immigrazioari, atzerritarrek diren pertsonen eta haien integrazioari buruzko gai sensibleak eta eztabaida publikoa landu ziren. Hortik aurrera, liburu hau hango leku tematikoetara itzulera bat da, berrikuste bat eta elkarrizketa baten jarraipena: egileak bere buruarekin eta aspaldi azaldu zuenarekin izandako elkarrizketa bat eta, batez ere, irakurleekin elkarrizketa berri bat migrazioaren auzian dauden iritzi, zurrumurru, faltsukeria, lelo eta beste elementu diskurtsibo batzuen inguruan.

01.

Eztabaida publikoak, gizarte-zientzia inplikaturak eta mmigrazioa

Duela hogeita bi urte (2003an), **Qué es la inmigración** (hau da, **Zer da mmigrazioa?**) liburua argitaratu atera zen. Garai hartan, RBA argitaletxeak honelako gonbidapena egin zidan: liburua idaztea "ez akademikoentzat edo adituentzat, baizik eta irakurleko askoz zabalago batentzat". Oraindik gogoan dut haien espezifikazioa: "Idatzi Espainian egunkaria astean gutxienez pare bat aldiz irakurtzen duten horiek kontuan hartuta, milioi bat pertsonako multzo hori, alegia".

Gogo handiz ekin nion lanari, bi arrazoiengatik. Lehenbizikoak gizartearekin du zerikusia, herrialdearekin: **migrazioaren auzia** funtsezko gaia zen ordurako eztabaida publikoan; izan ere, jada 1990eko hamarkadaren hasieratik jorratzen zen gai hori. Lan honetan, "**migrazioaren auzia**" aipatzen da. Hau adierazi nahi dugu horren bidez: atzerritar jatorriko pertsonak etorri eta kokatzearekin eta pertsonarteko harreman eta gizarte-harreman berriak ezartzearekin lotutako arazo, gai eta erronken multzoa. Arazo, gai eta erronka horiek askotarikoak dira, alderdi asko sartzen dira jokoan (soziopolitikoak, lan-arlokoak, juridikoak, mugetakoak, dibertsifikazio soziokulturalaren arlokoak, eskubideak, itzulerak, bizikidetzak, etab.) eta auzi horrek gizarte-aldaketako prozesu konplexuak dakartza berekin.

Beraz, migrazioaren auzia mmigratzaileetatik harago doa, zerbait askoz zabalagoa da eta gizarte osoa hartzen du. Mmigratzaileez gain, hauek dira subjektu protagonistak: biztanleria hartzailea, administrazioak, gizarte-erakundeak, alderdi politikoak, enpresaburuak, hedabideak, unibertsitateak eta ikerketa-zentroak.

Bigarren arrazoiak nire lanbidearekin (antropologoa naiz) eta lanbide hori ulertzeko eta praktikatzeko moduarekin du zerikusia: proposamen editorial hura aukera bikaina zen **antropologia inplikaturak** eta orientabide publikokoa egiteko. Guretzat, korrante hori arazo publiko garrantzitsuak, sentsibleak eta gori daudenak lantzen dituen gizarte-zientzia da, eta, ezinbesteko zorrotzasun metodologikoaz eta kalitate zientifikoaz gain, bi ezaugarri hauek izan behar ditu:

- a. planteatutako egoera, arazo edo erronka egoki eta ondo oinarrituta landu dadin laguntzeko helburua izan behar du, azterketak eta ezagutzak baliatuta, eta
- b. ekarpen hori audientzia zabal baterako moduko formatu eta hizkuntzan adierazi behar da.

"Egoki eta ondo oinarrituta" lantze hori gauzatzeko modua, nire ustez, erronka soziopolitikoak eta etikoak modu demokratikoan eztabaidatzea da; hau da, bakean, errespetuz eta pluralismoz, seriotasunez, egiazko informazioa erabiliz eta argudiatuz; beraz, eskura dauden ezagutzak zientifikoak kontuan hartuta.

Hala ere, gaur egun, migrazioei buruzko gaietan, sarritan, oinarri gabeko iritziak (benetako oinarri gabeko) adierazten dira, eta, gainera, garrantasuna, probokazioak, zurrumurru faltsuak eta gezurrak izaten dira. Gero eta gehiago, iritzi jakin batzuk – diskurtso politikoetan, sare sozialetan, zenbait hedabidetan, solasaldi informaletan – modu erasokorrean eta ahozko indarkeriaz ere adierazten dira. Beraz, bitan pentsatu gabe onartu nuen nire lagun eta kideko Xabier Aierdi Urrazak eta Andrea Ruiz Balzolak egindako gonbidapena, aurreko lan hura berrikusteko.

02.

Azterketa zientifiko-sozialak iritzi iruzkinekin lotzea

2003ko lan hartan, bi zati daude nahasita. Alde batetik, bederatzi laburpen-kapitulu, gizarte-zientziek giza mugikortasunari eta, zehazki, nazioarteko migrazioei buruz egindako ekarpenei buruzkoak. Lehen kapitulua “Migrazioen izaera” zen, eta bederatzigarrena, berriz, “*Arrazakeriatik kulturartekotasunera*”.

Kapitulu bakoitzean, migrazioei buruzko literatura zabalean jasotako funtsezko informazioa laburbildu nuen, dibulgazio-lan bat zelako, funtsezko gaiak biltzen zituena: migrazioen kausak eta ondorioak; integrazioa eta harekin lotutako politikak; migrazioen lan-alderdiak eta alderdi juridikoak: familiarekin, generoarekin eta belaunaldiekin lotutako alderdiak; ongizate-estatuaren eta immigrazioaren arteko loturak. Amaitzeko, aniztasun soziokulturalaren kudeaketari buruzko kapitulu bat idatzi nuen.

Kapitulu bakoitzaren ondoren, “Iritzi-iruzkinak” gehitu nituen; hamazazpi, guztira. Zer dira “iritzi-iruzkin” horiek? Aipatutako liburuaren sarreran, testua “iritzi publikoan gehien zabaldutako **iritzi eta kezka** ohikoenak oinarri hartuta” antolatuta zela adierazi nuen.

Eta hau gehitu nuen: “Kapitulu bakoitzean, bi testu-mota aurkeztuko ditugu: **gogoeta orokorrak**, batetik, eta iritzi-iruzkinak, bestetik. Kapitulu bakoitzaren hasieran, funtsezko zenbait gogoeta egiten ziren, gizarte-zientzietako ekarpenetan oinarrituta, eta jarraitzeko, behin eta berriz egiten diren galdera

horietako baten enuntziatua adierazten zen (esaterako, zein diren migrazioen kausak, edo ea “tolerantzia-atalaserik” dagoen), edo zabaldutako iritziren bat (adibidez, delinkuentziaren gorakada oso lotuta dagoela immigrazioarekin, edo beste kultura bateko kolektiboen presentzia arrisku-faktore bat dela identitate nazionalerako)” (2003, 16).

Beraz, azterketa ugarien edukiez gain, esparru publikoko galderak eta iritziak hartzen ziren kontuan. Jarduteko modu horrek balorazio ona izan zuen, eta lana zenbait eztabaida-gunetan erabili zen eta erabiltzen da. Nire bizitza profesionalean izan ditudan berri pozgarrienetako bat izan zen jakitea liburu hori, eta, batez ere, **iritzi-iruzkinak** erabilgarriak izan zirela eragile-multzo anitz batentzat. Unibertsitateko zein Bigarren Hezkuntzako institutueta irakasleek, giza eskubideen aldeko aktibistek eta gizarte-erakundeetako kideek idatzi zidaten edo esan zidaten material hori han-hemen erabili zutela, ikasgeletan, tailerretan eta abarretan.

Halaber, erabilgarria izan zen egin ziren zenbait gidaliburutarako; batez ere, esparru akademikoan eta intelektualean izandako eragina edo aprobetxamendua nabarmenduko ditut. Lehen aipatu dudana nire kideko Xabier Aierdi Urrazak –Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta soziologoa, eta Ikuspegiko zuzendaria urte askoz–, hamazazpi **iritzi-iruzkinen** edizio bikain bat egin zuen. Xabier Aierdi Urrazak berak eta Andrea Ruiz Balzolak –antropologoa, migrazioei buruzko aditua,

eta UNED Bizkaiako irakaslea– animatu naute material hura eguneratzera eta berriz zabaltzera.

Nire kideko eta lagunen gonbidapen hori onartuta, testu berri hau iruzkin haien berrikuspena, zabalkundea eta eguneraketa da. Beste behin, eskertzen dudan aukera bat, garrantzi publiko, instituzional eta sozialeko gaiak lantzeko, bai eta lan akademiko bat egiteko, justizia sozialaren aldeko konpromisoa izanda, eta orientabide publikoko antropologia eta gizarte-zientzia garatzen jarraitzeko ere.

03.

Zer aldatu den eta zerk dirauen migrazioen alorrean (2003-2023)

Berrirakurtzeko eta berrikusteko lan honetan nola jokatu dugun testuinguruan jartzeko eta azaltzeko, beharrezkoa da identifikatzea migrazioaren auziko zer alderdik dirauten edo ez diren funtsean aldatu, eta zer faktoretan izan diren berritasunak eta aldaketak. 2003tik, oro har, gauza asko aldatu dira munduan eta Espainian, bai eta migrazioen arloan ere, baina beste batzuek iraun egin dute. Bi terminoak, iraunkortasuna eta berritasuna (zerk iraun duen eta zer aldatu den), baliagarriak izan zaizkigu iritzi-iruzkinak eguneratzeko eta zabaltzeko.

Neurri handi batean, egoera oso desberdina da, duela hogeituro urteko egoeraren aldean: batetik, erronka handiagoak dakartza, jarrera xenofoboei dagokienez, eta, bestetik, inklusiorako mekanismo berriak daude. Hamarkada hauetan zenbait krisi gertatu dira. 2008tik hasita, eta gutxienez 2015era arte, krisi ekonomiko eta sozial sakon bat izan genuen. Krisi horren eraginak oraindik dirau, eta ondorio hauek izan zituen: murrizketa-politikak eta gizarte-desberdintasunen gorakada. Ondorio horiek biztanleriaren sektore askori eragin zieten, eta migratzaileei, berriz, are gogorrago.

Krisi horren beste ondorio bat izan zen “migrazioaren auzia” ez zela apenas aipatu indar politikoen diskurtsoan, ia hamarkada batez, hauteskunde-kanpainetan egindako erabilera xenofoboren bat kenduta. Agenda publikoaren ardatz nagusiak langabeziaren hazkunde izugarria eta haren ondorio larriak ziren; beraz, askok pentsatu zuten ez zela giroa beste gaiak aipatzeko.

Bestela esanda, horrelako egoeran hobe zela immigrazioaz ez hitz egitea. XXI. mendearen hasieran, migrazioa-zikloa fasez aldatzen ari zen erabat, baina 2008an hasitako krisi horrek ez zuen uzten hori ikusten, eztabaidatzen eta horren arabera jarduten. Izan ere, krisia baino askoz lehenago, milioika pertsona kokatzeko edo errotzeko prozesua gertatzen ari zen –ekonomia-sektore eta biztanle gune jakin batzuetan–, eta horrek egiaztatzen zuen migrazio fenomenoaren ez dela zerbait koitunturala, egiturazkoa baizik.

Mendearen hasieran, Espainian bizi ziren atzerritarrak bi milioi eta erdi inguru ziren, baina azken bi hamarkadetan, biztanleria horrek hiru milioi pertsonako hazkundera izan zuen, eta haren pisu demografikoa bikoiztu egin zen, guztizko biztanleriaren %5,6 izatetik %11,3 izatera¹. Hauek dira osaera soziodemografikoan izandako gehitze- eta aldatze-prozesu etengabe horretako seinale batzuk:

- a. familiak berrelkartzeko prozesu sakon eta etengabea (izatezkoa, zuzenbidezkoa baino gehiago),
- b. “bigarren belaunaldien” hazkunde handia,
- c. immigratzaileen kolektiboak barruti eta auzo jakin batzuetan kontzentratzea (kasu batzuetan, hiperkontzentrazioa ere gertatzen da), eta
- d. nazionalizazio-kopuruaren apurka-apurkako hazkundera.

1. Estatistika Institutu Nazionalaren biztanleria eroldaren arabera, Espainian, 2002ko urtarrilaren 1ean, 2.334.099 atzerritar bizi ziren, guztizko biztanleria 41.035.271 pertsonakoa izanik (atzerritarrak % 5,59 ziren). 2021eko urtarrilaren 1ean, 5.375.917 atzerritar bizi ziren, guztizko biztanleria 47.394.223 pertsonakoa izanik (beraz, % 11,3 atzerritarrak ziren).

Azken bi hamarkadetako prozesu horretan, erritmoak eta fluxuak ez dira beti berdinak izan. 2008an hasitako krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioz, immigrazio-fluxua gelditu egin zen, immigratzaileetako batzuk beren herrialdeetara itzuli ziren, eta Espainian bizi ziren atzerritarren kopuruak behera egin zuen. Aldi berean, espainiarrek atzerrira emigratu zuten.

Migrazioekin lotutako gaiei berriz heldu zitzaizenean eta iritsiera-fluxuak berrezartzen ari zirenean (2015etik), beste krisi bat sortu da, planetarioagoa eta globalagoa: COVID 19ak eragindako krisi sanitario, ekonomiko eta soziala. Oraindik horretan gaude, eta krisialdi horrek

desberdintasunen eta zaurgarritasun-egoeren gorakada berri bat ekarri du, eta, pertsoez gain, erakunde sozialak ere jasaten ari dira krisiaren ondorioak. Erakunde horiek funtsezkoak dira harrera-prozesuetan, egoera ahulenean daudenen premien arretan, eta gizarte-integratioko/-inklusioko prozesuetan.

Bi krisi orokor horiez eta krisiok migrazio-gaietan izan dituzten ondorioez gain, beste gauza asko gertatu dira. Hau ez da horren guztiaren azterketa sakona egiteko lekua, baina aldaketa batzuk bai, aipatu behar ditut, eztabaidako testuingurua izateko eta aldaketa horiek diskurtso publikoan zernolako eragina duten kontuan hartzeko.

04.

Nazioarteko testuingurua. Inklusio agendak, -itunak eta- arauak *versus* xenofobiaren gorakada eta mugako erregimenak

Nazioartean, eta itzalen aldean, ezaugarri aipagarriena **xenofobiaren gorakada eta eskuin muturraren presentzia publiko eta instituzional handiagoa da**, ez soilik Europan, baizik eta beste herrialde batzuetan ere, hala nola AEBn eta Brasilen. Lan honen gaiari dagokionez, ezaugarri horren ondorio da, besteak beste, “politikoki zuzena” delakoa gutxitu edo desagertu egin dela, zenbait liderrek, presio-taldek eta gizarte-sektorek eskusioaren aldeko beren jarrera argiago eta nabarmenago adierazten baitute.

Azken urteotan, halaber, funtsezko kontzeptu eta eztabaidak azaleratu dira arlo honetan, eta nazioartean garatu dira, komunikazio-sareetan oso presentzia handia izanik. **Egia-ostearen** kontzeptuaz eta *fake news* delakoen errealitateaz ari naiz. Gezurra esateko ohitura sortu eta ugaritu egin da, eta mundu-mailan eragin handia duten liderrek sistematikoki erabiltzen dute, hala nola Estatu Batuetako presidente Donald Trumpek eta beste batzuek.

Bestalde, azken urteotan eta gaur egun, iritzi publikoa –testu honek iritzi horretan eragiteko helburu xumea du– **mugetako albisteen eta irudien** eraginpean dago etengabe. Nazioartean, prozesu, egoera eta gertaera nabarmenetako eta eragin-ahalmen handienetako batzuk

“errefuxiatuen krisia” delakoan izandako heriotzak, pilaketak, erreskateak eta beste hainbeste irudi gogor eta gertaera tragikoak dira; edo Erdialdeko Amerikatik Estatu Batuetarantz etsi-etsian joaten diren *karabana* etengabeak; edo, duela gutxiago, testu hau amaitzeko unean, Bielorrusiaren eta Poloniaren arteko mugan dauden pertsonen egoera bidegabea.

Horrekin guztiarekin batera, Espainiako hiritarrek, egunero, itsasoan hildakoei, desagertuei eta erreskatatuei buruzko albisteak izaten dituzte, bai eta beste hainbat albiste ere: Kanarietako pilaketak, Ceutako eta Melillak hesiak zeharkatzeko jauziak, edota Ceutan Marokoko gazte asko eta asko sartzean izandako gertaera larriak, Marokoko gobernuak muga ireki ondoren. Migrazio-fenomenoaren zati txiki bat izan arren, mugako egoera horiek oso eragin handia dute pertzepzioetan, iritzietan eta jarreretan.

Nazioarteko eta herrialdeetako egoera horiek azterketetan **mugako erregimenak** deiturikoetan kokatu behar dira; hau da, gobernuak mugen kontrolerako eta kudeaketarako erabakitzen dituzten politiken, jarraibideen eta xedapenen multzoan, edo, ikuspegi zabalago baten arabera, espazio horietan –mugatik askoz harago iristen dira– parte hartzen duten eragileen arteko harreman multzoan.

Gai sentsibleei heltzeko eta eztabaida publikoetan eragiteko, kontuan hartu behar da polarizazio sozial eta politiko handiko egoera dagoela, eta, beraz, mezu xenofobo esplizituei, migrazioaren auziari buruzko manipulazioei eta zenbait gezur eta faltsukeriari aurre egin behar zaiela..

Argien aldetik, nazioarteko egoeran, nabarmenduko dugu mundu-mailako bi akordio landu eta onetsi direla: **Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda** (Nazio Batuak, 2015eko iraila) eta haren 17 helburuak (GJHak), batetik, eta **Migrazio Seguru, Antolatu eta Erregularrerako Mundu Ituna** (Nazio Batuak, 2018ko abendua) eta haren 23 helburu nagusiak, bestetik. Bi mundu-akordio horietako printzipio, planteamendu eta jarduketaraino iritzi-iruzkinetarako argudio-sorta garrantzitsua eskaintzen dute.

Nazioarteari dagokionez, Europako esparruko hiru zuzentarau- eta akordio-ildo garrantzitsu gehituko ditut. Lan honetan landutako gaietarako duen garrantziagatik, lehenik eta behin, Europar Batasunak emandako xedapen ugariak nabarmendu behar dira. **Europako Kontseiluak tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan emandako zuzentaruak** izenpean multzokatu ditugu².

Zuzeneko eta zeharkako diskriminazioari eta, batez ere, jazarpenari buruzko xedapen horiek herrialde bakoitzera eraman dira, Espainiara ere bai, eta erakunde publiko eta elkarte politiko guztiek nahitaez betetzekoak dira, eta hori oso kontuan hartu behar da eztabaida publikoetan eta hiritartasunerako hezkuntzan.

2010ean, duela urte-pare bat lehenago hasitako krisia jada izugarria zenean, **Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna** onetsi zen (2010). Aurkeztuko ditugun iruzkinen ardatzetako

bat pertsona nabarmentzea izango da, eta, zehatzago esanda, pertsona guztiak berdina direla duintasunari dagokionez, eta ez soilik balio unibertsaleko printzipio etikotzat hartuta, baizik eta arau juridikotzat hartuta ere.

Bada, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren (1948) ildotik, hau adierazi da Europako Gutunaren hitzaurrean: "Europar Batasuneko hiritartasuna eratzean eta askatasun-, segurtasun- eta justizia espazio bat sortzean, **pertsonak jarduketan ardatz bihurtzen ditu**". Horrekin bat eginez, artikulu asko "pertsona guztiek eskubidea dute..." esamoldearekin hasten dira. Esamolde hori hogeita bat aldiz errepikatzen da³.

Azkenik, EBk emandako beste arauen multzo bat –beraz, Espainian ere aplikatzekoa–, **gorroto intzidente eta -delituei** buruzko xedapenak dira⁴. Kategoriatu horrek aukera ematen du eskusio sistema oso desberdinak biltzeko: matxismoa, klasismoa, xenofobia, antisemitismoa, antigitanismoa eta islamofobia, besteak beste. Finean, 2003ko iritzi-iruzkinak eguneratzean, xenofobiaren gorakada, polarizazio-maila handiagoa eta mugetako tentsioak kontuan izanda, estatistikez eta azterketez gain, eskubideen eta migrazioei buruzko araugintzaren arloetako akordioak ere kontuan hartuko ditugu.

2. Batez ere, honako hauek: 1) 2000/43 zuzentaraua, 2000.6.29koa, tratu berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa pertsonaren arraza- nahiz etnia-jatorria dena delakoa izanda ere aplikatzeari buruzkoa; 2) 2000/78 zuzentaraua, 2000.11.27koa, enpleguan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzkoa (erlijio-arrazoiengatik edo konbikzioengatik, desgaitasunagatik, adinagatik edo sexu orientazioagatik izan daitekeen diskriminazioaren aurkako); 3) 2006/54 zuzentaraua, 2006.6.5eko, gizonen eta emakumeen artean tratu berdintasunaren printzipioa aplikatzeko, enpleguarekin eta okupazioarekin zerikusia duten gaietan.

3. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren ezaugarrien analisi zehatuagoa ikusi nahi izanez gero, ikusi Giménez (2021)

4. Ikusi, adibidez, 15. gomendio orokorra, Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordearena (ECRI), gorrotora bideratzeko adierazpideen aurkako borrorakako jarduketaraino buruzkoa.

05.

Herrialdeko testuingurua. Inklusio-planak eta hirugarren sektore solidarioa *versus* eskuin muturraren gorakada

Munduko eta Europako esparruak, haren argi-itzalekin, eragin handia du Espainian eta bertako eztabaida publikoan. Herrialde-mailan, adierazitakoarekin bat, zenbait itzal edo eskusio-adierazpen ditugu. Nagusia eskuin-muturraren gorakada da. Ideologia horrek aurrekari ugari eta askotarikoak izan ditu, baina azken urteotan, estatu-mailako indar politiko gisa antolatu da, gorantz egiten ari da eta presentzia handia du erakundeetan.

Pateren etorrera, migratzaileek gizarterbitzuak eskuratzea, bidaidetik gabeko adingabeak, musulmanen otoitz-lekuen irekiera, atzerritarrek egindako delituak edo latinoen banden arteko borrokak, besteak beste, eztabaida publiko orokorretako gaiak dira duela denbora dezente, eta jarrera xenofobo esplizituak ere badaude horien guztien aurka, baina, gaur egun, gai horiek eta beste batzuek argudio-multzo gero eta esplizituagoa osatzen dute eskuin-muturreko alderdien kanpainetan.

Argien aldean, herrialdean gizarte inklusiboaren eta kulturartekotasunaren alde egiten dutenen artean –eta antolamendu juridikoa betetzearen alde ere bai, ez dezagun ahaztu–, aipatu beharreko jardunbide onen bi multzo daude, biak funtsezkoak baitira

eztabaida publikorako eta lan honen argudiaketarako. Azken urteotako zenbait jarduketaz ari naiz, erakundeek zein eskuhartze sozialeko eragileek egindakoak, onarpenaren eta inklusioaren ikuspegitik denak ere. Jarduketa horiek eragin zuzena dute hemen lantzen ari garen gaian: imajinarioak eta pertzepzioak, immigrazioarekiko aurreiritziak, zurrumurruak eta zurrumurruen aurkako estrategiak, etab.

Politika publikoen esparruan, erreferentziazko plan eta programa ugari daude administrazio zentralaren zein autonomia-erkidegoetako eta tokiko administrazioen esparruetan. Nabarmenduko dugu *Primer Plan Estratégico de Ciudadanía e Inmigración*, PEI, 2007- 2010 (hau da, **Hiritartasunerako eta Immigraziorako Lehenbiziko Plan Estrategikoa**) onartu zela, Lan eta Immigrazio Ministerioak proposatuta, krisi ekonomikoa eta sozialaren garaian. Plan hartan, migrazioen gaia hiritartasunaren araberako ikuspegitik aztertu zen. Alderdi hori funtsezkoa da eztabaidei heltzeko, migrazioen gaia hiritartasun demokratikoaren garapenean kokatzen baitu, eta arrazoiketa instituzionala eta gobernurako arrazoiketa ematen baitu, eskubideen eta erantzukizunen ikuspegian oinarrituta.

Hurrengo ataletan, plan horretako planteamendu batzuk aipatuko ditut. Izan ere, nire ustez, erabat baliagarriak eta beharrezkoak dira oraindik ere. Planaren ebaluazioaren ondoren, PECE II (2011- 2014) plana⁵ prestatu zen, parte-hartze bidez hori ere, eta 2011ko irailaren 23ko Ministro Kontseiluan onartu zen. Nolanahi ere, bigarren fase hori ez zen aplikatu, 2011ko abenduan gobernu zentrolean izandako aldaketaren ondorioz, beste alderdi politiko batek hartu baitzuen aginte.

Halaber, autonomia-erkidegoetako eta udaletako administrazioetan, migrazioekin lotutako plan ugari daude. Gehienak –denak ez badira– hiritarren parte-hartzearekin egin dira, eta zenbait alderdi desberdinak nabarmentzen dituzte, izendapen desberdinekin (**integrazioa, kulturartekotasuna, bizikidetz, kohesioa, gizarte-garapena**, etab.), eta, hor, erakundeek onetsitako printzipioak, balioak eta irizpideak adierazten dira. Ikusi da aldaketa dagoela integrazioaren aldeko planteamenduetatik inklusioaren aldeko planteamenduetara, eta gero eta gehiago nabarmentzen direla bizikidetzaren aldekoak. Hori guztia balio handikoa da eztabaida publikorako eta espektro zabaleko adostasunak adierazteko.

Hemen lantzen ari garen gaiari dagokionez, nire ustez, udal-planen artean, Bartzelonako Udalaren 2011ko *Pla de Interculturalitat* –hau da, Kulturartekotasun Plana– bereziki berritzailea eta garrantzitsua izan zen. Batetik, herrialdeko bigarren hiri garrantzitsuenean jarri zen martxan, eta bestetik, lehen aldiz adierazi ziren esplizituki kulturartekotasun-printzipioak eta, gainera, planaren ardatzetako bat, zehazki, **zurrumurruei eta zurrumurruen aurkako estrategiei** buruzkoa zen.

Geroztik, esku-hartze sozialaren arloan eta eraginkortasun handiz, lan handia

egin da lan-ildo horretan. Zurrumurruen aurkako estrategia *Red de Ciudades Interculturales* (RECI) ekimenean –hau da, Kulturarteko Hirien Sarea– txertatu zen. Sare hori europar esparruko ekimena da eta garapen handia du Espainian. Ildo horretan, beste ekimen batzuk martxan jarri ziren eta egiten ari dira, hala nola *Stop rumores* kanpaina, *Andalucía Acoge* ekimenekoa, edo *Red Vasca Antirumores ¡Zas!*– **Zurrumurruen Aurkako Sarea**. Argitalpen hau sare horren baitan egiten ari gara.

Zurrumurruen aurkako estrategia, berriz, Proyecto de Intervención Comunitaria Intercultural (Proyecto ICI)⁶ proiektuko –hau da, Kulturarteko Komunitateko Esku-hartze Proiektua (KKE proiektua)– esku-hartzeko lurralde batzuetan txertatu zen. Zenbait erakunde, hala nola *PorCausa* fundazioa, arlo horretako argudiaketaren eta kontraargudiaketaren gaia sormenez lantzen ari dira.

Esan didatenez, eta eskerrak ematen ditut horregatik, 2003ko laneko **iritzi-iruzkinak** aurrekari bat izan ziren lan-ildo horretan.

5. Lan honen egileak PECE I planeko ebaluazio-lanak koordinatzeko eta PECE II planeko prestatze-lanetan aritzeko aukera paregabea izan zuen..

6. Obra Social La Caixa-k 2010etik 2020ra bitartean bultzatutako proiektua, udal eta erakunde sozialen sare zabal batekin. 32 udalerritako 42 toki-lurraldetan (barrutiak eta auzoak) gauzatu zen.

06.

Abiapuntuko premisak eta irizpideak

Hori guztia kontuan hartuta, honela jardun dugu. Batetik, eta hau liburuaren lehen zatia da, 2003ko hamazazpi iruzkinak erreproduzitu ditugu, bai eta eguneratu ere, datuak eta estatistikak, azterketetako emaitzak eta argudio berriak gehituta. Azken finean, gaur egungo ikuspegia txertatu dugu, azterketa berrietatik, garapen juridikoetatik eta eragileen jardunbideetatik lortutako informazioa eta argudioak abiapuntu hartuta. Bestetik, bigarren zatian, hamabi iruzkin berri gehitu dira, azken bi hamarkadetan sortu diren kezkei eta iritziei buruzkoak, gaur egun eztabaida publikoan puri-purian daudenak.

Sarrera hau amaitzeko, baliatu ditugun abiapuntuko premisak eta iruzkinak egiteko irizpideak aipatuko ditugu:

A. Abiapuntuko premisak:




- ▶ Migrazioen fenomeno **errealitate konplexua** da, alderdi anitzekoa, eragile-multzo handi bati eragiten dio, modu askotan, eta **aldaketa-prozesuak** dakartza berekin, zenbait arlotan. Beraz, logikoa da fenomeno horrek erronkak eta arazoak sortzea. Horrenbestez, ez zaio modu sinple batean heldu behar –are gutxiago zabarkeriaz, aurreiritziekin eta modu manipulatzaile batean–, baizik eta diziplina arteko **pentsamendu konplexua** eta holistikoa baliatuta.
- ▶ **Immigrazioarekiko jarreretan**, hiru multzo handi bereiz daitezke (hirurak barne-aniztasun handikoak dira):

- a. sektore minoritario bat, onarpena, tolerantzia eta inklusiorako borondatea duena;
 - b. beste muturrean, beste sektore minoritario bat, gaitzespen-jarrerak eta immigrazioaren aurkako jarrerak dituena;
 - c. sektore anibalente handi bat, muturreko bi poloen artean dabilena.
- ▶ Immigrazioa **aukera-multzo** bat dela (migratzaile eta haien familientzat, baina biztanleria eta gizarte hartzailearentzat ere bai) irmo pentsatuta eta defendatuta ere, ez ditugu nazioarteko migrazioekin lotutako **arazo zehatzak** ahaztu behar, fenomeno konplexu orotan eta aldaketa soziokulturaleko prozesu orotan gertatzen baitira horrelakoak.
 - ▶ Hiritarrek honako hauek izateko eskubidea dute:
 1. egiazko informazio kontrastatua eta osoa izateko eskubidea,
 2. Espainiakoa eta nazioartekoa, eta
 3. ez soilik **gertatzen denari** eta **esaten denari** buruzkoa, baizik eta **egiten denari** buruzkoa eta dauden jardunbide eta alternatibei buruzkoa: planak, politikak, proiektuak, ekimenak
 - ▶ Eztabaida publikoan, hauek dira eskusio-jarrerak dituztenen estrategia nagusiak:
 - a. datuak eta gertaerak faltsutzea (gezurrak, faltsukeriak, *fake news*),

- b. errealitatea distortsionatzea, informazioa desitxuratuz eta funtsezko alderdiak baztertuz,
 - c. oinarririk gabeko adierazpen orokorrak egitea,
 - d. nahasmendua sortzea, gauza batzuk eta besteak nahasita (*totum revolutum*), eta
 - e. banakakoen plano eta plano kolektiboa ez bereiztea.
- ▶ Guk geuk akats horiek ez egiteko, hau eta hura ez nahasteko, iruzkinak egitean, bereizi egin behar dugu zer dugun aurrean: komentatzen ari garenak oinarririk gabeko zurrumurruak, albiste faltsuak (*fake news*), aurreiritzi negatiboak, gertaera edo errotutako sinesmen edo konbikzio batzuei buruz arinegi ateratako ondorioak; okerreko pertzepzio distortsionatuak, oinarririk gabeko iritzi alderdikoiak, antipatia- edo etsaitasun-jarrerak...
 - ▶ Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka ez da borroka **ideologikoa eta hezkuntzako** soilik, borroka **soziopolitiko**a ere bada: legearen aplikazioa, ongizate-estatuaren eta demokraziaren garapena eta defentsa, migratzaileen parte-hartzea eta udal-hauteskundeetan botoa emateko eskubidea, etab.
- B. Iruzkin berriak egiteko irizpideak:**
- ▶ Argudiaketa nagusia **sektore anbibalente** handira bideratzea, batez ere, baina ez bakarrik.
 - ▶ Posizio guztietakoei **irekitasunez entzutea**, "migrazioen aurkakook" direnak estigmatizatu gabe, eta xenofobotzat besterik gabe eta arinegi kalifikatu gabe.
- ▶ **Bereiztea**, batetik, borondate onez eta erasorik gabe, kritikak, desadostasunak, larritasuna, kezak edo zalantzak adierazten dituztenak, eta, bestetik, eskusio-jarrerak eta modu erasokorrak baliatuta, kontuz hartu beharreko errealitateak (langabezia, kriminalitatea, etab.) xaxatzen dituztenak, migratzaile **guztiak** usurpatzailatzat, arrisku-faktoretzat, lege-urratzailetzat eta abartzat aurkezteko.
 - ▶ **Informazio objektiboari eta egiazkoari**, estatistika-iturriari eta azterketa zorrotzei dagokien garrantzi osoa ematea
 - ▶ Giza **eskubideen ikuspegia**, bakearen aldeko kultura eta interseksionalitatearen ikuspegia aplikatzea.
 - ▶ Erabateko garrantzia ematea **"legearen inperioari"**, arrazoiketan nazioarteko eta herrialdeko legedia kontuan hartuta, diskriminazioaren eta gorroto-delituen aurkako zuzentarauek nabarmenduta.
 - ▶ Argudiaketaren funtsezko ildo nagusietako bat **migratzaileen eta garapenaren arteko lotura da**; zehazki, immigrazioak eta immigratzaileek demografian, ekonomian, zerga-arloan eta kulturean egiten dituzten ekarpenak.
 - ▶ **Etorkizunari begiratzea**, eta, horretarako, joerak eta egoerak identifikatzea, gazteen belaunaldien jarrerak eta arazoak azpimarratuta. Belaunaldi horietakoak dira, hain zuzen ere, migratzaileen ehunka mila seme-alabak, gehienak Espainian jaiotakoak.

Zera esaten da.

Aurreko iruz- kinak eta haien eguneraketa



Sarrera

Qué es la inmigración (hau da **Zer da immigrazioa?**, RBA, 2003) liburuko kapituluetarako idatzitako 17 iritzi-iruzkinen hitzez hitzeko erreprodukzioaren ondoren, orain, **hiru elementu berri** gehitu ditugu haien ondoren.

Lehenbizi, **laburpen-taula bat**. Hor, orain berriz landuko dugun argudiaketaren funtsezko ideiak jaso dira. Kontsulta puntualak egitea eta argudioak "eskura" izateaz gain, hau da taula horien helburua: gogoeta berrien eta gehitutako elementuen **abiapuntua** finkatzea.

Hain zuzen, laburpen-taula bakoitzaren ondoren, dagokion eguneratze testua dago, dela gaiarekin eta haren bilakaerarekin lotutako informazioa, dela gehitzeko egoki iruditu zaizkidan argudio edo gogoeta berriak.

Irakurleari gomendatzen diogu 2003ko testua irakurtzeko, **eguneratze testua** irakurri aurretik, gehitu denaren egokitasuna ikus dezan, bi hamarkada hauetan gertatutakoaren ikuspegitik, betiere, eta gaur egungo egoeraren diagnostikoaren eta interpretazioaren arabera.

Atal bakoitzaren amaieran, zerrenda bat dago: **Iturriak eta materialak**. Hor, kontsultatutako dokumentu nagusiak ageri dira, eta ez dira azaldutakoaren **erreferentzia eta oinarriak** izateko soilik; izan ere, irakurle, talde edo elkarteentzako **material** eta **dokumentu** baliagarriak izan daitezke, landutako gaietan sakontzeko, tailerrak antolatzeko, beren gidekin alderatzeko, etab. Material horiek errazago kontsultatzeko, dagokion web orrirako **esteka** jarri dugu.

01.

“Immigrazioa arazo larria da”

LANDUTAKO GAIAK

pertzepzioak; arazoaren birformulazioa; aukerak; migrazioen ikuspegi positiboa

Abiapuntuko testua ~2003

Esaldi horrek ideia eta pertzepzio maioritario bat laburbiltzen du. Honako hauekin osatzen da: “immigrazioa XXI. mendeko arazo larriena izango da”, “gure gizartearen arazo larrienetako baten aurrean gaude”, “terrorismoarekin batera, immigrazioa herrialde honetako arazo nagusia da”.

Gehientzat, hau da immigrazioaren irudia, egunero telebistaren, prentsaren eta irrtiaren bitartez iristen dena: paterak, atxilotetak eta Gibraltarreko itsasartean hildakoak; txalupak noraezean; gizakiekin trafikatzeko duten “mafiak”; hango edo hemengo diskoteketako istiluak; hango edo hemengo auzoko borrokak, kontu-garbitzeak edo hilketak; atzerritarrak barneratzeko zentroei buruzko albisteak; Kanarietatik Penintsulara bidalitako immigratzaileak; eta Atzerritarrei buruzko Legearen xedapenak gogortu izana.

Egunero argitaratuta ageri den guztia ez da hain negatiboa, zalantzarik gabe. Badaude albiste neutroagoak, hala nola ideia sozial berriren baterako bultzada, immigratzaile atzerritarren kopuruaren gorakada, Ramadanari buruzko informazioen bat, etab. Albiste positiboak ere izaten dira, honako hauek plazaratzen dituztenak: nazioarteko erakundeen adierazpenak, immigratzaileen beharrari buruz; kulturarteko bizikidetzarako jaiak hango eta hemengo auzoetan; Gizarte Segurantzarako kotizazioen gorakada onuragarria, langile atzerritarren afiliazioari esker; edo Almeríako berotegietako langile afrikarrak Galiziara joan zirenekoa, Prestige itsasontziak isuritako txapapotea biltzera.

Albisteekin batera, eztabaidak eta editorialak plazaratzen dira, funtsezkoagoak diren gai batzuei buruz, gobernuaren politiken kontra edo alde egiten dela. Telebista-kateen kasuan, immigrazioaren irudi gogorra, kezagarria eta tragikoa izaten da nagusi. Gordintasun osoz erakusten da, irudien bidez, eta hitz edo argazki soilak (batzuetan, benetan latzak izaten dira) erabili ordez, erreportaje osoak egiten dira, eta hor ikusten dira hondartzetako gorpuak, itsasontzietan pilatutakoak, sarekadaren batean atxilotutako prostitutak edo itxi den lantegi klandestinoen bat.

Hemen ez ditugu immigrazioari buruzko pertzepzio eta diskurtso guztiak aztertuko. Aldiz, gehiengoak, oro har eta ia erabat, gizarte-fenomeno konplexu horri buruz duen irudia hitz bakar batean laburbilduko dugu. Immigrazioa **arazo gisa** hartzen da, batez ere; are gehiago, **arazo larri gisa** hartzen dela esango nuke. Hori esatean ez dugu ezer berririk asmatu, zezenari adarretatik heldu baino ez dugu nahi, eta, erretorikarik gabe, honako hau galdetu: immigrazioa arazo bat al da benetan? Hamabost urtetik gora daramagu solasaldi askotan aldarrikatzen

immigrazioa, arazo bat baino gehiago, aukera bat dela, eta horrela pentsatzen dugu oraindik ere, nahiz eta badirudien erantzun horrekin ez zaiela migrazioekin lotu ohi diren arazo larriei heltzen. Beraz, arazo horiei heltzen hasteko, honako hauek zehaztuko ditugu:

Lehenik eta behin, **migrazio-fenomenoa egoera bat da, arazo bat baino gehiago**, izatezko egoera bat, egiturazko egoera bat. Hori dela eta, sormenez, justiziaz eta eraginkortasunez heldu behar zaio.

Egoerek hobera edo okerrera egiten dute, baina ez dute konponbiderik; arazoek bai. Arazoetarako konponbideak aurkitzeko, lehenik eta behin, egoera onartu behar dugu. Adibidez, migrazioak negatiboak direla edo eragotzi behar direla pentsatuz gero (ikus 2. iruzkina), nekez egingo dugu aurrera.

Bigarrenik, **logikoa edo normala** da immigrazioarekin **lotutako arazoak egotea**. Fluxuen erregulazioarekin, gizarte-arretarekin, sasoiko langileentzako etxebizitzak antolatzearekin, gizarte bizikidetzarekin, arrazakeriarekin, giza trafikoaekin edo era guztietako gehiegikeriekin lotutako arazoak. Gizarte-fenomeno orok, eta konplexuak direnak are gehiago, zailtasunak eta erronkak dituzte bertako biztanleriarentzat. Horren adibideak dira, besteak beste, auzo berrien eraketa, hezkuntza-erreformen ezarpena edo osasun zerbitzuen berrantolaketa. Hala eta guztiz ere, bertako biztanleriarentzat, arazo horiek **immigratzaileen arazoak**, dira, zailtasunak sor ditzaketen gauzak, eta ez dute ikusten horri aurre eginda hobekuntzak lortzen direnik. Aldiz, **immigrazioaren arazo** nahi izan ez den zerbaite dela pentsatzen da, **kanpotik etorritako zerbaite**. Horregatik, nork sortu duen sakon aztertu behar dugu, noren arazoa den, eta zer abantaila dakartzan migrazioak.

Hirugarrenik, gauzak bereizi behar dira, dena *totum revolutum* batean nahasi gabe:

- a. Arazoak (nahi ez dugun eta konpondu egin behar den zerbaite) **zailtasunetatik, gabezietatik eta erronketatik** bereizi behar ditugu. "Immigrazioaren arazoaren" barruan sartzen ditugun gauza asko, erronkak eta desafio berriak dira, arazoak baino gehiago.
- b. Halaber, gainerako biztanleekin (ez-immigratzaileak edo bertakoak) **partekatutako arazoak** eta immigratzaileen **arazo espezifikoak** bereizi behar ditugu. Hori funtsezkoa da gauzak ez puzteko. Zenbait arazo ez dira immigrazio-arazoak soilik, denonak dira, denoi eragiten digute; esate baterako, etxebizitzak prestatzea (urriak badira), giza eskubideak antolatzea (behar adina ez dauden lekuetan), aniztasunarekiko errespetua lantzea (eskola-curriculumeko ildo gidari gisa), eta eku publikoetan gehiegizko kontzentrazioak erregulatzea. Immigrazioerik gabe ere arazo horiek egongo litzateke. Bestalde, mugak kontrolatzeko premia (ezkutuko immigrazioa eragozteko), giza trafikoa aritzen diren sare mafiosoek aurre egitea, edo ikasturtearen barruan eskolan sartzeko antolaketa-lanak, horiei bai, migrazio-fluxuekin zuzenean lotutako arazoak dira, eta, immigrazioerik gabe, ez lirateke egongo.
- c. Gainera, egokia izango litzateke immigratzaileak **sor ditzakeen arazoak** eta immigrazioaren arazoak bereiztea. Aipatu ditugun guztiak migrazio-fenomenoen zailtasunak dira, baina ezin zaizkie lanera eta lan egiteko gogoz etortzen diren atzerritarrei leporatu. Immigratzaile batek delitu bat egiten badu, arau bat betetzen ez badu edo gizalegez jokutzen ez badu, kargua hartu behar zaio, bertakoei bezalaxe, baina hori baino ez: akatsa da jokabide hori, immigratzaile horren jokabide hori, immigratzaileen jokabide orokortzat, immigratzaile guztien jokabide orokortzat hartzea.

Laugarrenik, **“immigrazioaren arazoak”** direlakoetako asko gauzak guztiz ondo egiten ez direlako gertatzen dira. Gauzak ondo eginez gero, arazo horiek eragotziko lirateke, edo, behintzat, haien garrantzia eta oihartzuna txikiagoak izango lirateke. Ez dira, berez, immigrazioaren arazoak, baizik eta immigrazio-politika txar batek sortutako arazoak, bai ekonomiaren eta lan-merkatuaren aseezintasunak eragindakoa, bai biztanleria-sektore jakin batzuen ezjakintasunak eta jarrera gaitzesgarriek eragindakoa. Immigratzaile batzuk oso etxebizitza txiki batean pilatuta bizi edo zortzi orduko txandatan ohe berean lo egitea ez da immigrazioaren ezinbesteko ezaugarri bat, baizik eta immigrazio-esperientzia askotan gertatu ez den zerbait. Eragozteko moduko zerbait da, gainera, ikuskapenen, kontrolen eta beste zenbait neurriren bidez.

Bosgarrenik, migrazioa ez da **gauza negatiboa** multzo bat, eta hori ez da haren **ezaugarri nagusia**, migrazioak alderdi positibo nabarmenak eta askotarikoak baititu. Idazki honetan migrazioen eta immigratzaileen zenbait ekarpen ekonomiko, demografiko, fiskal eta soziokultural adierazten dira, bai orain bizi diren eta lan egiten duten gizarterako, bai immigratzaileen jatorriko herrialdeetarako.

Seigarrenik, lehen aipatu dugunez, migrazioa **aukera** bat da, **batez ere**. Hortxe dago gakoa immigrazioaren irudi problematikoa eta negatiboa dagokion lekuan kokatzeko, murrizteko eta gaitzetzeko. Zeren aukera? Norentzat? Migratzaileentzako aukera, beren bizitzak hobetzeko, familiari laguntza bidaltzeko, beste herrialde bat ezagutzeko, ikasketak egiteko eta esperientziak izateko, itzultzean baliagarriak izango direnak. Izan ere, horrela gertatu da ehunka mila emigratzaile espainiarrekin. Aukera bertakoentzat ere. Hain zuzen ere, immigrazioari esker, zenbait lanpostu betetzen dira, familiak aurrera ateratzeko

beharrak asetzen dira, eta familiako beharrei (haurrak edo adinekoak zaintzea) aurre egiten laguntzen dute. Kasu batzuetan, zirkunstantzia horri esker, bertako emakumeek etxetik kanpo lan egin dezakete. Azken arrazoi horrek ez du esan nahi jarduera-mota horiek emakumeen ardura eskusiboa direnik edo atzerritarrek egoteak bertako emakumeentzat soilik dela lagungarria, familia osoarentzako aukera baita, gizonezkoentzat ere bai.

Bertakoentzat aipatu ditugun aukerez gain, beste batzuk aipatu behar dira, hala nola enpresa txiki eta ertainak mantentzea edo garatzea (nekazaritzan, ostalaritzan, eraikuntzan edo jatetxe-arloan). Izan ere, immigratzaileen lan-indarrik gabe, itxi egin beharko lukete edo askoz zailtasun gehiago izango lituzkete. Baina migrazioa, garapen ekonomikorako aukera izateaz gain, garapen sozial eta kulturalerako aukera da. Izan ere, **immigrazioak aukera** ematen du beste izatera batzuk ezagutzeko, beste musika- eta dieta-mota batzuek gozatzeko, eta geure burua beste ikuspegi batez ikusteko.

Ikuspegi hori integrazioerako eta bizikidetzarako lagungarria izateko, haren argudioen erabilera gaiztoa eragotzi behar da. Izan ere, aurreko gogoetek ez lituzkete honelako pentsamoldeak sortu behar: “immigratzaileak bai, baina bertakoentzat baliagarriak badira; baliagarriak ez diren unean, joan daitezela, beren bizitza hemen egin badute ere”. Arriskua dago immigratzaileak bertakoen helburu baterako bitarteko edo tresna gisa ikustea, kontuan hartu gabe immigratzaileak eskubideen subjektuak direla eta beren beharrak, ilusioak, arazoak eta espektatibak dituztela; hau da, bertakoak bezalako gizakiak direla eta bizirauteko eta bizitzeko eskubide berberak dituztela.

Arrazoiketaren laburpena

~2003

- 01 Migrazio-fenomenoa egoera bat da, arazo bat baino gehiago.
- 02 Egoera **konplexua** da, eta gizarte-prozesu horrek berekin dakartzan aldaketak direla eta, logikoa edo normala da immigrazioarekin lotutako arazoak egotea.
- 03 Honako hauek **bereizi** behar dira: a) "arazoak" eta "zailtasunak, gabeziak eta erronkak", b) partekatutako arazoak eta arazo espezifikoak, c) pertsona jakin batek (migratzaileak) sortutako arazoak eta immigrazioaren arazoak.
- 04 "Immigrazioaren arazoak" direlakoetako asko **gauzak ondo egiten ez direlako** gertatzen dira.
- 05 Migrazioa ez da "gauza negatiboan" multzo bat, eta hori ez da haren ezaugarri nagusia, migrazioak **alderdi positibo** nabarmenak eta askotarikoak baititu.
- 06 Immigrazioa, batez ere, **aukera** hirukoitz bat da: migratzaileentzat, jatorriko lurraldearentzat eta gizarte hartzailearentzat.

Eguneraketa

~2023

Hain ohikoa den esaldi horri orain berriz heltzean, eta han-hemen duen presentzia aztertu ondoren, zenbait gogoeta gehituko genituzke: batetik, etengabe irauten duela, eta, bestetik, ikuspegi hori kritikatzeko zenbait argudio sortu direla, eta, aldi berean, gero eta gehiago hartzen dela immigrazioa aukera gisa.

1. **Immigrazioa arazotzat hautematen da oraindik ere.** 2018ko uztaildean, El Mundo egunkariak Espainian migrazioei buruz dagoen pertzepzioak aztertze inkesta bat egin zuen, *Aquarius* itsasontzia Valentziako portura iritsi ondoren, gobernu zentralak egindako eskaintza onartuz. Inkesta horretan galdetutakoen % 39,6k immigrazioa "arazo larria" zela esan zuen; % 37,1ek "arazoa" zela, "baina ez larria" zioen; eta % 20,1ek, berriz, "arazoa ez zela" esan zuen.

Olga Sanmartín kazetariak esan bezala, **kezka eta, aldi berean, elkertasuna zegoen:** % 72k esan zuen "gobernuak ondo egin zuela Valentziako portua eskaintzean",

eta % 65,8k, berriz, uste zuen Italiako gobernuaren jarrera "onartezina" izan zela (immigratzaileei Italiako portuetan lehorreratzen ez uztea). Immigrazioa arazo gisa –eta zer neurritan– kalifikatzeari dagokionez, interesgarria da ikustea zer nolako korrelazioa dagoen inkestatuen iritzien eta aurreko hauteskundeetan emandako botoen artean.

Batez beste, % 39,6k uste zuen immigrazioa "*arazo larria*" dela, baina Alderdi Popularrari (PP) botoa eman ziotenen artean, ehuneko hori handiagoa zen (% 54,8), eta txikiagoa zen Espainiako Langile Alderdi Sozialistari (PSOE) eta Unidas Podemos (UP) alderdiari botoa eman ziotenen artean (hurrenez hurren, % 33,7 eta % 22,8). Beste muturrean, immigrazioa "*arazoa ez dela*" uste zutenak % 20,1 ziren, batez beste, baina ehuneko hori txikiagoa zen PPri (% 9,4) eta PSOERI (% 16,7) botoa eman ziotenen artean, eta handiagoa, berriz, UPri botoa eman ziotenen artean (%33,6).

2. Komentatzen ari garen esaldia –“**immigrazioa arazo larria da**”– edo antzekoren bat behin eta berriz esaten da esparru guztietan. Behin eta berriz esaten da, etengabe, migrazioekin lotuta. Arlo akademikoan eta ikerketen ondorio gisa ere bai. Duela gutxi, 2020ko azaroan, immigrazioari buruzko jardunaldi batzuetan, kideko batek egindako azalpenagatik egin dut adierazpen hori. Hain zuzen, azaldu zuen hori zela Danimarkan immigrazioari buruz aurkeztu berri zen txosten baten ondorioa, danimarkar gehienek immigrazioa arazotzat hautematen zutela, alegia.

Denbora gutxi genuen arren, galderen txandan, galdera hau egin nion txostengileari (ikerketaren egilea zen): “Bai, bai, jakina, aspalditik dugu horren berri, eta hori esaten da, baina zein da arazoa? Nola definitzen dute danimarkarrek, nola adierazten dute, zer dela-eta daude kezkatuta?”

Izan ere, proposizio hori behin eta berriz esaten denez, uste dut, migrazioak aukera bat direla azpimarratzeaz gain, gaiari zuzenago heldu behar zaiola. Bai, noski, aitor dezagun argi eta garbi: immigrazioa arazo bat da; are gehiago, arazo larria dela ere esan dezakegu, edo, zehatzago esanda, arazo-multzo bat. Behin eta berriz esaten den esaldi hori entzutean, hau esan dezakegu, eta esan beharko genuke: Noski baietz! Eta, gero, hau galdetu:

- a. Zein da, zehazki, arazoa?
- b. Norentzat da arazoa?
- c. Zergatik da arazoa?

Eta azkenik, arazoa hori bada,

- d. Zein da konponbidea?

Gure abiapuntua da migrazioak ez direla **arazo bat** soilik, baizik eta **arazo-multzo** bat; beraz, lau galdera horiek arazo bakoitzerako egin behar ditugu. Izan ere, **zer gizarte-prozesu garrantzitsuk ez dakartza zenbait arazo?** Eta gogoeta hori

maila pertsonalera heda dezakegu: gure bizitzetan, ba al dago “arazorik” gabeko erronka edo aldaketarik? Etxealdaketak, lanbide-aldaketak, bikoteen banantzeak edo dibortzioak, gaixotasun gogorren bati aurre egitea, negozio berri bat hastea, bakarrik bizitzen jartzea, norbaitekin bizitzen hastea, etab.

Migrazioak, Marcel Mauss etnologoak eta soziologoak XX. mendearen hasieran emandako definizioaren arabera, **erabateko gizarte-egitateak** dira, sakontasun historikoko fenomenoak baitira, alderdi anitzekoak eta oso konplexuak, **eta zenbait mailatako gizarte aldaketako prozesuak dakartzate:**

- ▶ jatorriko herrialdeetan zein harrera-herrialdeetan,
- ▶ ez soilik stocketan baizik eta fluxu aldakorretan,
- ▶ zerbitzu publikoko sistemetan,
- ▶ auzoetako eguneroko bizitzan eta bizitza sozialean,
- ▶ aldaketak migratzaileentzat eta haien familientzat,
- ▶ aldaketak bertako biztanleentzat eta bertako administrazioentzat,
- ▶ politika publikoetan eta hauteskunde-erabakietan, etab.

3. Beraz, logikaz, migrazioak erronkak, desafioak, zailtasunak eta arazoak dakartza berekin. Nire ustez, **arazoa, neurri batean behintzat, arazoaren kategorian datza**. Gatazketako bitartekaritzaren eta konponketen arloan metatutako esperientziak dio aldeak ez direla bat etortzen beren arazoaren formulazioan. Izan ere, Harvardeko ereduan –negoziazio- eta bitartekaritza-metodologia klasikoa da jada, eta nahitaezko erreferentzia-, lehenbiziko fasea “pertsonak arazotik bereiztea” da, eta, hasierako fase

horretan, erabilgarriak dira –are gehiago, ezinbestekoak– aldeek auzia, gatazka, arazoa **nola ikusten duten adierazteko galderak. Izan ere, horretan ere ados ez badaude, nola helduko diote arazoari?**

Bitartekaritzako teknika erabilgarrienetako bat **birformulazio positiboa da;** hau da, auzian dagoen gaia, eztabaidatzen ari den gaia, beste modu batean planteatzea, gaiari hobeto heltzeko, edo, besterik gabe, heltzeko aukera emango duen kalifikazio edo ikuspegi bat gehitzea. Horixe egin nuen immigrazioarekin 2003ko ditxosozko liburuan, aukera gisa planteatzea. Izan ere, **Zer da immigrazioa?** izenburuaren ondoren, lehenbiziko izenburuazpia **arazoa ala aukera?** zen. Agian, arazoaren kategoriari dagokionez, lagungarria izan daiteke birformulazio positibo hau: **behin identifikatuta, hobetzeko aukerak ematen dituen egoera hori.**

4. Immigrazioa arazo gisa hautematen jarraitzen dela egiaztatuta, eta zenbait iturri azertu ondoren, ikusi dugu kalifikazio hori –eta, batez ere, kalifikazioak dakarren erredukzionismoa eta negatibismoa– **dezente bilakatu dela azken bi hamarkadetan.** Berritasuna da migrazioak ulertzeko eta kalifikatzeko modu horrekiko ahots **kritikoak daudela,** eta horietako batzuek ere adierazten dute migrazioa ez dela **“arazoa”, baizik eta konponbidea,** edo, gutxienez, konponbidearen zati bat.

Ildo horretatik, kontuan hartu behar da iritzi publikoaren inkestetan **“immigrazioaren arazoa” ez dela beti postu berean agertzen.** Immigrazioari buruzko pertzepzioa eta, hain zuzen, immigrazioa “arazotzat” hartzea faktore hauen arabera aldatzen den zerbait da:

- a. dagokion **une eta testuinguru soziopolitiko,** eta
- b. **gizartearen edo gizarterako arazotzat**

hartzen den edo banakoei eragiten dien gauzat hartzen den.

Ildo horretatik, adibidez, Cristina Mongek gogoeta hau egiten du: “Immigrazioa arazo gisa ikusarazten tematzen direnek haien iritzia sostengatu dezakeen argudio bat aurkitu dute aurten: CIS erakundearen arabera, espainiarrek uste dute immigrazioa herrialdearen bosgarren arazo handiena dela. **Datu horri bi ohar egin behar zaizkio.** Lehenik eta behin, norberaren bizitza pertsonalean gehien eragiten duen arazoari buruz galdetzen denean, kezka hori bederatzigarren postura jaisten da.” (enfasia jatorrizkoan)

Hor lehenbiziko aldaketa dugu, oso garrantzitsua. Alderdi sozialaren eta pertsonalaren arteko dikotomia, pertzepzioen eta gertaeren arteko dikotomia, kontuan hartu beharko lirateke.

Mongek hau gehitzen du: “Eta bigarrenik, iaz –aurreko urteetan ez– zer gertatu zen aztertzen badugu, ikusiko dugu migrazioagatiko kezkak gora egiten duela udan, eta behera neguan, eta horrek galdera asko sorrarazten ditu. 2017an, uztailoko barometroan, immigrazioa zazpigarren arazoa zen, baina abenduan, hamabigarren postura jaitsi zen. Eta amaitzeko: “Azterketa sakon bat egin beharko litzateke, ondorioak atera ahal izateko; baina, lehen begiratuan behintzat, komeni da erabateko baieztapenekin zuhurtziaz jokatzeko.”

5. Immigrazioa arazo gisa hautematen den jakiteko inkestetatik eta galderetatik harago (kontuan izan galderaren formulazioak berak ikuspegi hori berekin dakarrela) **analisi kuantitatiboetan ere landu da gai hori.**

Hala, adibidez, 2004an, bere garaian argitaratu genuen eta orain eguneratzen ari garen testutik urtebetera, Lleidako Unibertsitateko Antonio Morell irakasleak

“*La inmigración como problema: un análisis de las prácticas discursivas de la población autóctona*” lana argitaratu zuen. Saiakera horretan, aztertzen du zenbateraino hautematen den “immigratzailea mehatxu gisa” eta “immigratzailea lehiakide gisa” jardunbide diskurtsibo horietan”.

6. Zenbait azterketak frogatu dute **zer-nolako eginkizuna duten hedabideek immigrazioari buruzko pertzepzio horiek sortzeko prozesuan**. Mariza Sobrados-ek, Sevillako Unibertsitateko Komunikazio Fakultateko ikertzaileak, ABC eta El País egunkarietan immigrazioaz egiten den trataeraren konparaziozko azterketa egin zuen (2010), eta hau adierazi zuen: “Espainiako hedabideek immigrazioaz egiten duten irudikapen negatiboak eragin erabakigarria du immigrazioa gizarterako arazotzat hautemateko”.

Eta hau gehitu zuen: “Diskurtso horretan, praktikan, ez dira fenomenoaren ekarpen kultural eta ekonomikoak aipatu ere egiten; batzuetan arrazakeria eta diskriminazioa esplizituki gaitzesten diren arren, jarrera hori ez da nahikoa gertaera gatazkatsuen aldeak gertatzen direnean”.

7. Beste batzuek migrazioak arazotzat jotzearen aldeakartasuna kritikatzin dute, beste ikuspegi batetik: immigrazioa gizarte hartzaileetako lan-merkatuaren **egiturazko beharra dela diote**.

Horren adibide dugu José Antonio Montenegrok CNN katean (espainieran) 2019ko martxoan argitaratutako artikulua. Testu horretan hau adierazi zuen: **hesiei eta karabanei** buruzko albisteez izenburuak bereganatzen dituzte (Estatu Batuetakoak, Mexikokoak eta Erdialdeko Amerikakoak, baina Afrikako iparraldekoak ere bai), baina “badago erabateko beste errealitate bat, askoz gutxiago aipatzen dena: Estatu Batuetako, Japoniako, Alemaniako edota Txinako ekonomiek

immigratzaileak behar dituzte beren etorkizuna bermatzeko”.

8. Bestalde, batzuen ustez, **ikuspegi hori da arazoa, hain zuzen ere**. Hala planteatzen da, adibidez, Sara Ortegak PorCausa fundaziorako egindako artikuluan (2020). Izenburu iradokitzailea du: “*El grave problema de la inmigración es considerar a la inmigración como un problema*” (hau da, “Immigrazioaren arazo larria immigrazioa arazotzat jotzea da”). Kazetariak elkarrizketatutako pertsonaren (Christian Orgaz soziologoa) hitzetatik hartu zuen izenburua. Elkarrizketako azken galderan –“**nola ulertu beharko litzateke migrazioen errealitatea?**”–, hau erantzun zuen Orgazek: “gizarte-arazoek gizarte-problematizazioko prozesuak jasan dituzte, eta, prozesu horietan, zenbait eragilek beren diskurtsoak, jardunbideak eta ekintzak ezarri dituzte, eta horien ondorioz sortu da gaur egun dugun *status quo*”.

Eta hau gehitu zuen: “Migrazioa **nolakoa izan zitekeen** planteatzeko, migrazioaren arazoa nola eraiki den planteatu beharko genuke. **Izan ere, migrazioa ez litzateke arazo bat izan behar**. Jendeak lurralde bat zeharkatzea, lurralde horretan egotea edo lurralde horretatik joatea ez litzateke arazo bat izan behar. Hori izan beharko luke helburu ideala” (letra etzana geuk gehitua).

Amaitzeko: “Esango nuke immigrazioaren arazo larria immigrazioa arazotzat hartzea dela. Eta hori egiteak gizarterako benetan larriak diren beste arazo batzuk ezkutatzin ditu. Immigrazioa arazotzat hartzea pobretu egiten gaitu eta, hori dela eta, ahaztu egiten dugu giza mugikortasuna berezko zerbait izan dela Historia osoan. Europarrok gara gehien mugitu izan direnak; hor daude kolonizazioak.”

9. Immigrazioa arazotzat kalifikatzearen idearen bilakaeran, ideia horren iraunkortasuna eta egiten diren kritikak

nabarmentzeaz gain, adierazi behar da **immigrazioa aukera bat dela dioen ideia errotzen ari dela** eta zenbait eragilek erabiltzen dutela. Ikus ditzagun bi adibide/ artikulu –beste asko aipa ditzakegu–, non **arazoa/aukera binomioa** lantzen den eta izenburuan ere adierazten den.

Hala, Segismundo Álvarez notarioak “*La inmigración: ¿oportunidad o problema?*” izeneko artikuluari (hau da, “Immigrazioa, aukera ala arazoa?”; *El notario del siglo XXI* aldizkarian argitaratu zen, 2006ko urtarrila-otsaileko alean), migrazioekin lotutako funtsezko gaietako batzuk landu ondoren, ondorio hau atera zuen: “gaiaren garrantzia eta gai horretan dugun eginkizuna azpimarratu nahi ditut. Hiritarrak eta notarioak garen aldetik, estatuarekin lankidetzan aritu ez ezik, integrazioaren alde egiteko moduak bilatu behar ditugu, bai gure lanaren bidez, bai gure gogoeten bidez, **immigrazioa aberasgarria (ekonomian eta gizartean) izan dadin, eta ez arazo bat.**” (letra etzana geuk gehitua).

Ikus dezagun beste adibide bat, duela gutxiagokoa, Arsenio Escolarrek *ElDiario.es* egunkarian 2018ko abuztuan argitaratutako artikulu hau: “*La inmigración, un problema y una oportunidad*” (hau da, “Immigrazioa, arazo bat eta aukera bat”). Nazioarteko zenbait erakundek Espainiak, bere pentsio-sistema bermatzeko, 2050. urtera arte 5,5 milioi immigratzaile hartu beharko lituzkeela abiapuntu hartuta, eta migrazioen ekarpen demografiko eta fiskalari buruzko arrazoiketa egin ondoren, ondorio hau adierazi zuen: “Arazo bat, bai. Ordena publikoko eta segurtasuneko arazoa ere izan daiteke. Baina, beste modu batean kudeatuz gero, aukera bat ere izan daiteke, arazo askoz larriago bat konpontzeko: gure krisi demografikoaren konponbidea.” (letra etzana geuk gehitua).

Azken finean, gaur egun, uste dugu nabarmen esan daitekeela hiru iritzi-lerroak irekita daudela:

- a. oraindik ere, gehienek immigrazioa arazotzat hautematen dute,
- b. gero eta kritika gehiago egiten dira, esanez adierazpen hori partziala dela eta ñabardura asko egin daitezkeela, eta, gainera, ideia distortsionatua dela, eta, horrexegatik ere, problematikoa, eta
- c. immigrazioa aukera handi bat edo aukera-multzo bat dela dioen ideak hedapen edo eragin handiagoa du.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

"La inmigración es un problema grave para el 40%" (El Mundo egunkariak 2018ko uztailan argitaratutako inkesta, Aquarius itsasontzia Espainiara iritsi ondoren. Inkesta Espainian migrazioez dauden pertzepzioei buruzkoa zen, <https://bit.ly/2TTUmpi>)

"Inmigración: problema y necesidad" (José Antonio Montenegroren artikulua, 2019ko martxokoa, CNNEspanian argitaratua. Artikuluan, azaltzen da albisteetan aldebakartasuna izaten dela eta ez dela adierazten migrazioa premia ere badela, <https://cnn.it/3jd7HS5>)

"El grave problema de la inmigración es considerar a la inmigración como un problema" (Sara Ortegaren artikulua, 2020ko irailekoa, Público egunkarian argitaratua. Artikuluan, elkarrizketa egiten zaio Christian Orgaz-i. Christian Orgaz Atzerritarrak Barneratzeko Zentroei buruzko tesi baten egilea da, <https://bit.ly/3yw1FSQ>)

"La inmigración, un problema y una oportunidad" (Arsenio Escolarrek El Diario egunkarian idatzitako artikulua, 2018ko abuztuko, migrazioek Espainian duten trataerari buruzkoa, <https://bit.ly/3yIMtaw>)

"¿Por qué hacemos de la inmigración un problema?" (Cristina Mongek Infolibre egunkarian idatzitako artikulua, 2018ko abuztuko. Espainiako migrazioak nola tratatu beharko lirakeen jorratzen da artikuluan, <https://bit.ly/3lrXTGN>)

"Migration is not a problem to be 'managed'" (Politico webguneko artikulua, 2018ko urrian argitaratua, hedabide horretan bertan argitaratutako beste artikulua bati erantzuteko. Artikulu honetan, adierazten da arazoa ez dela migrazioa, baizik eta desberdintasunak, <https://politi.co/3C3EUrL>)

"La inmigración: ¿oportunidad o problema?" (El notario del siglo XXI aldizkariako artikulua, Espainian migrazioek duten trataerari buruzkoa, <https://bit.ly/2TMxGqK>)

"La inmigración no es el problema, es la solución" (El Plural egunkariako artikulua, 2017ko abuztuan argitaratua, migrazioak helmuga-gizarteentzat izan ditzakeen abantaileri buruzkoa, <https://bit.ly/3xgejnH>)

"Inmigración: problema y necesidad" (CNNren webgunean 2019ko martxoan argitaratutako artikulua. Artikuluan, egileak iritzi hau adierazten du: migrazioa arazoa eta premia dela aldi berean, <https://cnn.it/3jd7HS5>)

~gizarte-erakundeak

"El verdadero problema de la migración y su verdadera solución" (Observatorio de Legislación y Política Migratoria behatokiko artikulua, 2014ko urtarrilean argitaratua, Estatu Batuetako migrazio-egoerari buruzkoa, <https://bit.ly/3lq65ai>)

~akademia

"La inmigración como problema: un análisis de las prácticas discursivas de la población autóctona" (Lleidako Unibertsitateko Antonio Morell irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioen aurkako diskurtsoen eraketari buruzkoa, Papers, 74, 2004, 175.-201. orrialdeak. <https://bit.ly/3zZWPOb>)

"La inmigración como problema. Percepciones sociales y representaciones mediáticas" (Sevillako Unibertsitateko Maritza Sobrados irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioez dagoen pertzepzioari buruzkoa, Prisma Social, 6. zenbakia, 2011ko ekain. <https://bit.ly/3A6Fpjb>)

"La inmigración, ¿problema o reto?" (Murtziako Unibertsitateko Carmen Bel eta Josefa Gómez irakasleen artikulua akademikoa. Migrazio-arazoaren konponbideak aztertzen dira artikuluan, <https://bit.ly/3C7AQQP>)

"Migration: a global issue in need of a global solution" (Christine Lagardek idatzitako artikulua, 2015eko azarokoa, Nazioarteko Diru Funtsetan blogean argitaratua. Artikuluan, migrazio-krisirako konponbideak proposatzen dira, <https://bit.ly/3lnnhgS>)

"La inmigración como problema. Percepciones sociales y representaciones mediáticas" (Sevillako Unibertsitateko Maritza Sobrados irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioez dagoen pertzepzioari buruzkoa, <https://bit.ly/3A6Fpjb>)

"La inmigración como problema: un análisis de las prácticas discursivas de la población autóctona" (Lleidako Unibertsitateko Antonio Morell irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioen aurkako diskurtsoen eraketari buruzkoa, <https://bit.ly/3zZWPOb>)

"La inmigración en los tiempos del virus" (Carmen González Enriquezen artikulua akademikoa, 2020ko maiatzekoa, Elkano Errege Institutuaren webgunean argitaratua, COVID-19ak migrazioetan eta migrazioen inguruko pertzepzioan izandako eraginari buruzkoa,, <https://bit.ly/3yn25eg>)

02.

“Migrazioak eragotzi behar dira”

LANDUTAKO GAIAK

alderdi negatiboak; garapenerako lankidetzak; erregulazioa: Munduko Ituna; konponbideak

Abiapuntuko testua ~2003

Hemen, pertsona askok partekatutako beste ideia bat dugu. Normalean, ez da baieztapen esplizitu bat, baizik eta errotutako ikuskera bat. Honela laburbil daiteke: “Ai, immigrazioa amaituko balitz, pertsonentzako bidegabekeriak, sufrimendua eta deserrotzea ekartzeko baititu, eta jatorriko herrialdeak pobretzea eragiten baitu”. Ados, onar dezagun gauza txarrak eta negatiboak galarazi behar direla, baina migrazioak zerbait txarra eta negatiboa al dira? Eragotzi behar direnak immigrazioarekin lotutako alderdi negatiboak dira: mafiak, esplotazioa, eskubide-urraketa, prekarietate juridikoa...

Azter ditzagun migrazioak eragozteko ikuspegi horren ohiko bi garapen. Batzuek honela pentsatzen dute: “Arazoari errotik heldu behar zaio, jatorrian. Immigratzaileekin hemen dagoen arazoak hitz egin baino lehen, harira etorri behar da, eta aitortu arazo larria han dagoela: hango garapen urria eta gobernu ustelak”. Asmo oneko pertsonen entzun diegu argudio hori adierazten, salatu nahian herrialde garatuenetako gobernuak ez dutela behar adinako konpromisoa hartzen, migrazioa igortzen duten herrialdeen

demokratizazioaren eta justiziaren alde presionatzerakoan. Ongi etorriak izan daitezkeen kritika horiek; izan ere, gehienok ados gaude horrekin. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da argudio horietan a) ez dela ezer esaten hemen eta orain egin beharrekoari buruz, eta b) beste behin, azpigarapenik gabe jendeak emigratuko ez lukeela hartzen dela abiapuntutzat.

Hau da migrazioak eragozteko nahiak eragindako beste baieztapen bat: “Migrazioak geldiarazteko, garapenerako lankidetzak bultzatu behar da immigratzaileen jatorriko herrialdeekin”. Garapenerako lankidetzak areagotu eta hobetu behar dela, bai, denok egongo gara ados ideia horrekin, baina bi ñabardura garrantzitsu egin behar dira. Alde batetik, ez da kontuan hartzen lankidetzak eragin mugatua izaten duela herrialde jakin baten garapenean; herrialde horien garapen orokorra da ahalbidetu behar dena, kanpo-zorra barkatuz eta birnegoziatuz, eta nazioarteko merkataritza bidezkoago baterako oinarriak ezarriz. Bestalde, lankidetzak-proiektuek nazioarteko migrazioa ere susta dezakete. Hona hemen adibide bat: demagun Afrikako herrialde batek harreman gutxi duela Espainiarekin eta ez direla herrialde horretako immigratzaileak etortzen Espainiara. Halako batean, hamar edo hogeit hamar lankidetzak-proiektu jartzen dira martxan herrialde horrekin; esaterako, ureztatze sistemak, eskolak eta osasun-zentroak. Bada, horien bidez Espainiaranzko lehenbiziko emigrazio-fluxua sortuko litzateke herrialde horretatik, teknikoek eta kooperanteek bertako langileekin izandako lan-harremanen bidez, eta berrikuntzen ondorioz. Pertsona-fluxu bat eta migrazio-kate eta -sare berri bat sortuko litzateke, emigrazioa prebenitzeko esperientzia batetik abiatuta! Ea argudioa ondo ulertzen dugun: kontua ez da garapenerako lankidetzak geldiaraztea, inola ere, oso beharrezkoa baita, baizik eta, lehenik eta behin, immigrazioarekin beti lotzen diren ondorio negatiboak eragozten jakitea, eta, bigarrenik, lankidetzak hori ez aurkeztea fluxuak geldiarazteko mekanismo nagusi gisa, mekanismo nagusi hori herrialdeko garapen globala baita.

Arrazoiketaren laburpena ~ 2003

- 01** Ez dira migrazioak eragotzi behar, baizik eta izan ditzaketen **alderdi negatiboak**.
- 02** Bai, **“arazoak jatorrian konpondu behar dira”**, baina horrekin: a) ez da esaten zer egin behar den hemen (harrera-herrialdean), eta b) azpigarapenik gabe migrazioerik ez zela egongo dioen ideia hartzen da abiapuntutzat, eta hori funsgabeko ideia da.

- 03** **Garapenerako lankidetz**a ondo dago eta beharrezkoa da, bai, baina ez ditu migrazioak geldiarazten: a) haren eragina mugatua da; jatorriko herrialdearen garapena eta hura ahalbidetzeko neurriak dira benetan eraginkorrak direnak; eta b) lankidetz-a-proiektuek migrazioa ere sustatu dezakete (neurri batean).

Eguneraketa ~ 2023

Migrazioak galaraztearen aldeko jarrera oso hedatuta dago eta oso erabakigarria da migrazioen aurkako jarreretan; beraz, hemen berriz aztertzeaz gain, bigarren zatian ere sartuko dugu, gaur egungo beste bertsio batzuetan; batez ere, *“Stop inmigración”* leloari buruzko iruzkinean.

Oraingoz, hiru gogoeta gehituko ditugu: lehenbizikoa, immigrazioa “galarazteari” buruzkoa; bigarrena, “alderdi negatiboari” buruzkoa; eta hirugarrena, berriz, garapenerako lankidetzaren bideari buruzkoa.

- 1.** Hau da gai hori kokatzeko esparrua: **mundu-mailan dagoen adostasuna da immigrazioa ez dela galarazi/eragotzi behar, baizik eta arautu**. Hala dago xedatuta, hain zuzen, Migrazio Seguru, Antolatu eta Erregularerako Mundu Itunaren (Nazio Batuak, 2018ko abendua) 23 helburu nagusietan. Espainiak sinatutako nazioarteko dokumentu horren ikuspegian, arautzea da xedea eta ildo gidaria. Nolanahi ere, hori zehazki adierazten duten helburu batzuk nabarmenduko ditugu.

1 taula. Erregulatu beharreko zenbait alderdi espezifiko eta haien isla Munduko Itunean (2018)

Arautu beharreko alderdia	Munduko Itunaren (2018) helburuak
Emigrazio-bideak	Helb. 5 ▶ “Migrazio erregularerako bideen eskuragarritasuna eta malgutasuna areagotzea”
Migrazio-zikloa	Helb. 14 ▶ “Babes, laguntza eta lankidetz
Mugak	Helb. 11 ▶ Mugak modu integratuan, seguruan eta koordinatuan kudeatzea.
Zerbitzu publikoak eskuratzea	Helb. 15 ▶ “Migratzaileei oinarritzko zerbitzuak ematea”
Bidalketak	Helb. 20 ▶ “Bidalketen transferentzia bizkorragoak, seguruagoak eta merkeagoak sustatzea eta migratzaileen inklusio finantzarioa bultzatzea”
Itzulera	Helb. 21 ▶ “Lankidetzan aritzea itzulera eta berronartzeak segurtasun- eta duintasun-baldintzetan egitea errazteko, bai eta berrintegrazio jasagarria errazteko ere”

2. Nazioarteko migrazioekin lotutako alderdi negatiboak dagokienez (behartutako migrazioa, pertsonen trafikoa, heriotzak eta gehiegikeriak itsasaldietan eta gainerako lekualdatzeetan, trafiko-sareak, legez kanpoko sarrerak, lan-esplotazioa, irregulartasun-egoerak, diskriminaziozko jardunbideak, etab),⁷ Migrazio Seguru, Antolatu eta Erregularrerako Mundu Ituneko zenbait helburutan jorratzen dira.

7. Ez ditut garrantziaren arabera ordenatuta adierazten (kaltetutako kopurua, urratutako eskubideen larritasuna, eragozteko zailtasunak, etab.), baizik eta migrazio-zikloaren arabera.

2 taula. Konpondu beharreko zenbait alderdi negatibo eta haien isla Munduko Itunean (2018)

Araututako beharreko alderdia	Munduko Itunaren (2018) helburuak
Behartutako migrazioa	Helb. 2 ▶ "Jendea jatorriko herrialdeetatik irtenaraztera behartzen duten egiturazko eta kontrako faktoreak minimizatzea".
Pertsonen trafikoa	Helb. 9 ▶ "Migratzaileen legez kanpoko nazioarteko trafikoaren aurkako erantzuna sendotzea"
Heriotzak, erasoak, tratu txarrak lekualdatzeetan	Helb. 8 ▶ "Bizitzak salbatzea eta desagertutako migratzaileei buruzko nazioarteko ekimen koordinatuak abiaraztea"
Trafiko-sareak	Helb. 10 ▶ "Pertsonen trafikoari aurre hartzea, haren kontra borrokatzea eta hura desagerraraztea nazioarteko migrazioaren testuinguruan"
Legez kanpoko sarrerak	Helb. 11 ▶ "Mugak modu integratuan, seguruan eta koordinatuan kudeatzea".
Irregulartasuna	Helb. 4 ▶ "Migratzaile guztiak beren identitate juridikoaren frogak eta dokumentazio egokiak dituztela zaintzea.
Lan-esplotazioa	Helb. 6 ▶ "Kontratazio ekitatibo eta etikoak erraztea eta lan duina bermatzen duten baldintzak babestea".
Diskriminazioa	Helb. 17 ▶ "Diskriminazio-forma guztiak desagerraraztea eta migrazioari buruzko pertzepzioak aldatzeko diskurtso publikoa sustatzea, oinarri enpirikoak baliatuta".

Iturria: Geuk egina

Hautapen berri bat egin dugu. Hau erakutsi nahi dugu: bidegabekeriako, gizarte problematikako eta eskubide-urraketak errealitate horiek guztiak landuta daudela, eta ez soilik nazioarteko legedian eta konstituzioetan, edo politika publikoetan eta gizarte ekimenetan, baizik eta baliatu eta betearazi behar diren munduko itunetan ere. Itun horietan, gainera, helburuak, jarduketak-ildoak, neurriak eta adierazleak jasota daude.

3. 2003an jada adierazitako argudioak erabiliz, garapenerako lankidetzari buruzko zerbait gehitu nahiko nuke; zehazki, lankidetzaren migrazioak galarazteko antidotoa edo konponbidea dela dioen jarrerari buruz. Zalantzarik gabe, jatorriko herrialdeen garapena babestea eutsi beharreko ildo estrategiko bat da; izan ere, Europar Batasunean, migrazio-politiken hirugarren ardatza izan da, kontrol-politikekin (mugak, baimenak,

etab.) eta integrazio-politikekin (inklusioa, kulturartekotasuna, etab.) batera. Eztabaidagaia ez da garapenerako lankidetzaren egokia eta beharrezkoa den ala ez, baizik eta lankidetzaren eta migrazioak geldiaraztearen arteko loturarik dagoen edo egiten den lotura okerrekoa den.

Oraindik ohikoa da esatea garapenerako lankidetzak nazioarteko migrazioak geldiaraz ditzakeela. Nolanahi ere, ikusten da beste ideia hau –errealitatea hobeto islatzen duena– erakundeen diskurtsoan txertatzen ari dela: nazioarteko garapenerako funtsak lagungarriak izan daitezkeela, baldin eta jatorriko herrialdean garapena izateko plan zabalago batean kokatzen badira. Ikus dezagun joera horren adibide bat. Lankidetzarako estatu-idazkariari 2020ko uztailan egindako elkarrizketa batean, “Lankidetzaren kudeaketa egokiak zenbateraino geldiaraziko lituzke migrazioak?” galdetu zioten eta hauxe erantzun zuen: “2005ean eta 2006an, Barne Ministerioan aritu nintzen, immigrazioaz arduratzen, Afrikatik jende asko iristen ari zen garaian. Garai hartan, hauxe argi eta garbi ikusi genuen: beren herrialdeetatik joateko gogoia ez izateko moduko baldintzak sortzen ez badira, azkenean joan egiten dira. Eta Kanpo Ministerioak Afrikarako lehenbiziko plana egin zuen. Ordutik hona, asko hobetu da. EBk oso estrategia landua du gazteek herrialde horietan beren modus vivendi aurkitu ahal izateko. Garrantzitsua da kontrolik gabeko migrazioak eragozteko, segurtasun arrazoiengatik ere bai. Bizi-kalitate egokia aurkitzen ez badute, indar erradikalek oso erraz errekrutatuko dituzte.” (letra etzana jatorrizkoan).

Argudio nagusiari uko egiten ez badio ere –ez direla migrazioak geldiarazi behar–, adierazten du “garrantzitsua dela **kontrolik gabeko** migrazioak eragozteko”, eta behar bezala bereizten ditu osotasuna (migrazioak) eta zati bat (kontrolik

gabeko migrazioak), lehen aipatu dugun arautzearen ildotik. Bestalde, erantzuten duenak zer kargu duen kontuan hartuta, badirudi –inplizituki– lankidetzak migrazioak geldiarazten dituela, baina, erantzunean, behinik behin, EBren estrategiak eta zenbait plan, hala nola Afrika Plana, aipatzen dira.

Hala da, bai, beharrezkoa da “beren herrialdeetatik joateko gogoia ez izateko moduko baldintzak sortzea” eta “bizi-kalitatea hobetzea”, baina, berriz esango dugu,

- a. lankidetzaren proiektuek oso neurri txikian lortzen dute hori, eta
 - b. askoz neurri handiagoan lortuko litzateke, honako ildo estrategikoak aplikatuko balira, besteak beste: gutxieneko errenta izateko politikak zabaltzea (migrazioa igortzen duten herrialdeetan ere bai), garapen-plan orokor eta ekitatiboak irmotasunez babestea, nazioarteko merkataritzarako oinarri orekatuagoak eta bidezkoagoak ezartzea, kanpo-zorra barkatu edo birnegoziatzea, edo herrialde mugakideek elkarrekiko eta baterako garapenerako hitzarmen binazionalak egitea.
4. Nolanahi ere, zergatik eragotzi neurri handi batean aukera bat den zerbait? Noski, adostasuna dago immigrazioa arautzeari eta mugak kontrolatzeari dagokionez, giza eskubideak errespetatuta, baina ez da ulertzen immigrazioak galarazteko jarrera, lan-indarraren eskaria dagoenean; hau da, **lan-arloko beharrak daudenean eta immigrazioaren ondorioak, oro har, positiboak** direnean, baina alderdi hori bigarren zatiko zenbait iruzkinetan garatuko dugu.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

"La 'España fortaleza' gasta ocho veces más en detener y expulsar migrantes que en integrarlos" (Público egunkariko artikulua, 2020ko uztailakoa, Espainiak migrazioen aurkako borrokan egiten dituen gastuei buruzkoa, <https://bit.ly/3C9WwSI>)

"The tetherball effect: how efforts to stop migration" (New Security Beat blogean argitaratutako artikulua, herrialdeek migrazioen aurka aplikatzen dituzten politiken ondorio negatiboetarako buruzkoa, <https://bit.ly/3llRuwx>)

"Las medidas más crueles para frenar la migración" (El País egunkariko artikulua, Estatu Batuetan eta Erdialdeko Amerikan migrazioak eragozteko aplikatzen diren neurri gogorrenetako batzuk laburbiltzen dira, <https://bit.ly/3C9OSYu>)

"Cuentas y no cuentos: lo que el inmigrante aporta a la economía" (El País egunkariko artikulua, 2019ko azarokoa. Artikuluan, pertsona horiek helmugagizarteetan duten pisuari buruzko zenbait estatistika ageri dira, <https://bit.ly/372UeXu>)

"El veredicto es claro: la inmigración favorece a la economía" (Banco Interamericano de Desarrollo bankuaren blog batean argitaratutako artikulua. Gaiari buruzko informazio laburra dago artikuluan, <https://bit.ly/3kVCRQv>)

"Los inmigrantes aportan más de lo que reciben" (El Diario egunkariko artikulua. Artikuluan, migratzaileek harrera-gizarteetan duten eraginari buruzko zenbait zurrumurru gezurtatzen dira, <https://bit.ly/3y5YW2v>)

"15 iconic American things that wouldn't exist without immigrants" (Buzzfeed webguneko artikulua, 2017ko otsailean argitaratua. Artikuluan, adierazten da zernolako eragina duten migrazioek Estatu Batuetako gizarteko eguneroko bizitzan, <https://bzfd.it/37ez88x>)

"Without immigrants, the US economy would be a 'disaster', experts say" (ABC News hedabideko artikulua, 2017ko otsailean argitaratua. Hipotesi hau aztertzen da artikuluan: Migratzailerik gabe, zer gertatuko litzateke Estatu Batuetan?, <https://abcn.ws/37jLkok>)

"These U.S. industries can't work without illegal immigrants" (CBS News hedabidean 2019ko urtarrilean argitaratutako artikulua. Artikuluan, aipatzen da migrazioak ezinbestekoak direla Estatu Batuetako zenbait industriarentzat, <https://cbsn.ws/3A2Vqgy>)

~gizarte-erakundeak

"Cómo "resolver" la migración: una guía práctica" (Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen dokumentu ofiziala, giza fluxuak kudeatzeko konponbideei buruzkoa, <https://bit.ly/3C4UrHV>)

"Europe's expensive and ineffective efforts to stop migration" (Instituto de Desarrollo de Ultramar institutuaren bideoa, Europako herrialdeetako migrazio-politiken ondorio negatiboetarako buruzkoa, <https://bit.ly/3igffEr>)

~akademia

"La inmigración y su contribución a la riqueza cultural" (Ankarako Unibertsitateko Hadi Adanali irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioek kultura-aberastasunari egiten dioten ekarpenari buruzkoa, <https://bit.ly/3loEht3>)

~txostenak

"El nuevo pacto migratorio europeo: Europa eleva los muros de su fortaleza" (Médicos sin Fronteras erakundearen webgunean argitaratutako dokumentua. Dokumentuan, Migrazioari eta Asiloari buruzko Europako Ituna eta itun horrek migratzaileengan duen eragina aztertzen dira, <https://bit.ly/2Vn5cV2>)

~kasu-azterketak

"Es importante ver las migraciones descontroladas" (Lankidetzarako estatu-idazkari Ángeles Moreno-ri egindako elkarrizketa, 2020ko uztailakoa, El País egunkarian argitaratua. Migrazioen gaia jorratzen da elkarrizketan, <https://bit.ly/3rOsBEG>)

03.

“Lehen, migrazioak beste zer bait ziren”

LANDUTAKO GAIAK

ezkutuko ekonomia; konparaziozko metodoa; iraganaren idealizazioa; ikuspegi historikoa; gaur egungo migrazioen elementu espezifikoak

Abiapuntuko testua ~2003

Baieztaipen hori gaiari buruz dakiten pertsonak esan ohi dute, dela Europako beste herrialde batzuetara emigratu dutelako, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, dela ekonomiako, historiako edo beste arlo batzuetako ikasketak/azterketak egin dituztelako. Ideia osoa honela adieraziko litzateke: “Lehen, nahita egindako migrazioak ziren, kontratuarekin, industriadako, etab. Orain, klandestinoak dira, kontraturik gabe, ezkutuko ekonomiarako edo prostituziorako”. Adierazpen horiek errotuta daude, adibidez, esparru politiko eta sindikaletan. Izan ere, pentsatzen da kapitalismoak gero eta baldintza okerragoak sortzen dituela lan-baldintzetan eta migrazioetan. Beste arrazoiketa bat migrazio-**mota hori** gaitzestearekin dago

lotuta: “Espainiarrek emigratzen zutenean, beste modu horretan egiten zuten, ez oraingoek bezala, eta horregatik gaitzesten dugu immigrazioa”.

Hori esatean, zer bait laudagarria lortu nahi da; izan ere, langile atzerritarrak hartzen dituzten Europako gizarteek – Espainiakoa barne– ezkutuko ekonomiako sektore zabalak sortu dituztela salatzen da, eta lan-indar horren zati handi bat ezkutuko ekonomia horretan aritzen dela. Baina, alderaketa hori zuzena da? Kasuan kasu ikusi beharko litzateke (herrialdeak, garaiak, sektoreak), eta baliteke horietako batzuetan zuzena izatea. Halaber, esan behar da iragana idealizatzen dela, eta oraina gaitzetsi. Zalantzarik gabe, Espainiatik Frantziako mahats-bilketan, Alemaniako industrian edo Suitzako ostalaritzan aritzeko migrazioa gaur egungoa baino formalagoa eta hobeto antolatua zen –bide batez, gaur egun, apenas aritzen dira emigratzaileak industrian–. Baina, iraganean ere, egoera penagarriak izaten ziren, kontratu faltagatik edo pilotuta egoteagatik. Gogoan izan behar dugu Espainiatik Latinoamerikara emigratu zuten askok eta askok ez zutela kontraturik.

Gaur egungo egoerari dagokionez, **atzerritar jatorriko biztanleria aktiboa ez dute kualifikazio maila txikiko langileak behar dituzten sektoreetako langileak soilik osatzen;** langile espezializatuak, zenbait arlotako espezialistak eta merkatari txiki eta ertainak ere badaude, bai eta jatorriko herrialdean lanbide-maila altuagoa zituzten langileak, Espainian dituzten lanpostuetan duten kualifikazioa baino –langile horiek beren lan-egoera hobetu ahal izango dutela espero da, denborak aurrera egin ahala–.

Arrazoiketaren laburpena ~2003

- 01 Zer bait laudagarria adieraz dezake: gizarte hartzaileek ezkutuko **ekonomiako eta prekaritate handiko sektore zabalak** sortu dituztela salatzen da, eta hor aritzen direla langile atzeritar gehienak.
- 02 Alderaketa hori baliagarria den ikusi behar da, **tentuz eta zehazki**, alderatzen diren herrialdeen, garaien eta sektoreen araberakoa baita.
- 03 **Iragana idealizatzen da** (adibidez, lehen ez zen beti kontratupean egiten) eta oraina gaitzesten da (adibidez, gaur egun, migratzaile guztiak ez daude baldintza txarretan).

Eguneraketa ~2023

Duela hogeitaz urte idatzitako hura berriz irakurri ondoren, bi gogoeta gehitu nahi ditut. Lehenbizikoa denboran egindako alderaketari buruzkoa da, komentatzen ari garen esaldian laburbiltzen da eta Historia baliatzea dakar –hori funtsezkoa da gaur egungo eztabaidetan–. Bigarrena, berriz, gaur egungo globalizazioaren garaiko migrazioetako elementu bereizgarri, berezi edo espezifikoei buruzkoa izango da.

1. Ikuspegi historikoaren harira.

“Lehen, migrazioak beste zer bait ziren”: historia eta, zehazki, **emigrazioen historia** baliatzea osasungarria da. Ikuspegi historikoa izatea ezinbestekoa da errealitatea ulertzeko. Hori agerikoa da gizarte-zientzietan. Gaur egungo eztabaidan, presentismo gehiegi dago, eta ikuspegi historikoa gutxi edo gaizki baliatzen da.

Migrazioei dagokienez, historiari erreparatzeak aukera ematen du *ikusteko giza mugikortasuna ez dela gizadiaren bilakaera osoan gertatzen den zer bait soilik, giza espeziearen funtsezko ezaugarri berezgarrietako bat baita*. Migrazioen historia –mundukoa, Europakoa edo herrialdekoa– esparru askotan aztertzen ari dira, ez soilik esparru akademikoan⁸, baizik eta, zorionez, erakunde publikoetan⁹, zenbait gizarte-erakundetan¹⁰ eta hedabideetan ere¹¹.

8. Adibidez, ikusi honako hauek: 1) Anitha, Sundari (2013) “A history of migration” Striking Women. University of Leeds /University of Lincoln; edo bestela, 2) Vicente Castelló (2008) “Las migraciones desde una perspectiva histórica”, Revista de Treball, Economia y Societat, 49 zenbakia, 9.-13. orrialdeak. 3) Heinz Fassmann, “European migration: Historical overview and statistical problems”, liburu kolektibo honetan: H. Fassmann, U. Reeger eta W. Sievers (editoreak) Statistics and Reality. Concepts and Measurements of Migration, Amsterdamgo Unibertsitatea; 4) Blanca Garcés-Mascareñas eta Rinus Penninx (editoreak) Integration processes and policies in Europe. Contexts, Levels and Actors. Imiscode/ Springer Open

Mugitzen den espeziea gara, Lur osoan hedatu dena. *Homo sapiens* espezieko nitxo ekologiko guztietan gaude: haran emankorretan eta oihanetan gaude, basoetan eta sabanetan bizi gara, giza komunitateak daude basamortuetan eta oasietan, eta eremu izoztuetan eta tropikoetan ere bai, eta lautadetak eta mendietako kulturak daude, bai eta penintsula eta uharteetakoak ere. Harresiak, hesiak eta alanbre-hesiak sortzea, geopolitikarekin, migrazioekin, arazo militarrekin eta abarrekin lotutako arrazoiengatik –dela Estatu Batuaren eta Mexikoren arteko mugan (mugako 3.200 kilometroen herenean jada), dela Israelen eta Zisjordaniako Palestinar Lurraldean artean (2002an hasi ziren), dela gure mugetan (Ceuta eta Melilla), beste leku eta **mugako erregimen**¹² askoren artean–, gizakiak banantzen ditu, ez da eraginkorra eta ondorio kaltegarriak ditu, eta gainera, giza espeziearen historiaren eta bilakaeraren kontrakoa da, gizakia asko eta mundu osoan mugitu eta mugitzen baita.

Migrazioen ikuspegi historiko hori funtsezkoa da Espainiaren kasuan eta eskolan ere kontuan hartu beharko litzateke, bai eta hiritarren hezkuntza orokorrean ere. Gure iragana ulertzeko, feniziarak, greziarrak eta kartagotarrak

etorri zirela kontuan hartu behar da, jada erromatarren aurretik. Gero, biztanle-multzoo berrien kolonizazioa eta kokapena gertatu zen, erromatarren konkista eta kolonizazioaren garaian, eta aurretik zegoena erabat eraldatu zuen. Ondoren, beste herri migratzaile eta kolono berriak iritsi eta hedatu ziren eta eragina izan zuten gizartean eta kulturaren: bisigodoak, sueboak, alanoak eta Europako erdialdeko eta ekialdeko beste herri batzuk.

Eta giza mugikortasunaren aurrekari nabarmen horiek hartu ondoren, bi prozesu are sakonagoak gertatu ziren. Batetik, VIII. mendearen hasieratik, zenbait boladatan, arabiarak, berberek, almohadeak eta almorabideak iritsi ziren Iberiar penintsulara.

Erdi Aroan izandako barne- eta kanpo-mugikortasuna ere aipatu behar da (bidaiariak, merkataria, itzultzaileak, etab.), eta 1415aren edo 1425aren inguruan lehenbiziko ijitoak iritsi zirela, Europako beste leku askotan ibili ondoren¹³. Bestalde, XVI. eta XVII. mendeetan, kolonietarako **emigrazio handia** izateaz gain –Amerikako kolonietara, batez ere, baina baita Asiako eta Afrikako kolonietara ere–, **barne-mugikortasun** handia izan zen, bai eskualdeen eta hirien artean, bai landatik hirietara.

9. Honako hauek kontsultatu daitezke: 1) “Datos sobre migración en Europa”, Migration Data Portal atariko dokumentua. Migrazioei buruzko estatistikak daude, gaur egungoak zein historikoak, 2) “Migraciones”, Estatistika Institutu Nazionalaren dokumentua, Espainiako migrazioen bilakaerari buruzkoa; edo 3) “Historia, presente y prospectiva de las migraciones en España”, Merkataritzako Estatu Idazkaritzaren dokumentua, 2005ean argitaratua.

10. Ekarpenen ordena kronologikoa kontuan hartuta, honako hauek kontsultatu daitezke, besteak beste: 1) ACCEM (2008) “Análisis de las migraciones: España como “emisor” y “receptor” de migrantes. 2) Comisión Española de Ayuda al Refugiado (CEAR) (2016) “Movimientos migratorios en España y Europa”, Migrazioetarako Zuzendaritza Nagusiak eta Integrazioetarako Europako Funtsak (Europar Batasuna) finantzaturak; 3) Rodrigo Lastraren artikulua (2020): “La historia de las migraciones es la historia de la humanidad”, *Encuentro y Solidaridad* elkartearen blogean, 2020.9.27

11. Esate baterako, 1) Miguel Garcia-ren artikulua eta mapifikazioa (2016): “Las grandes migraciones de la historia en mapas”, *Vozpópuli*, 2016ko maiatza; eta 2) “España, historia de migrantes”, Inesem aldizkari digitaleko artikulua, 2017ko urtarrilekoa. Migratu zuten pertsonen profila ageri da.

12. Beste harresi, hesi eta alanbre-hesi batzuk: Ipar eta Hego Korearen arteko mugan, 1954tik; Zipren, 1964tik, uhartea bi gizartetan banatzen duena; Belfasten, Ipar Irlandan; Kuwaiten, Irakeko mugan, 1990eko inbasioetik; Uzbekistanen, Afganistango eta Tajikistango mugetan, 1990ean izandako atentatu baten ondoren; Indian, Xaxmirreko mugetan, Pakistango istiluen baitan; Saharan, Marokotik eraikitako harresia; Hungarian, Serbiako mugan, 2015ean, etab.

13. Zenbait adituk data horiek aipatzen dituzte, eta Aragoiko erregeek, hala nola Alfontso V.ak eta Fernando V.ak, sinatutako dokumentuak baliatzen dituzte hori arrazoitzeko –dokumentuak erromeseraz ibiltzeko baimena emateko dira–.

Jada Aro Garaikidean, hiru emigrazio-fluxu handi daude Espainiako historian:

- a. Hispanoamerikarako emigrazio handia, zenbait unetan (XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen lehen hamarkadetan; Gerra Zibilaren garaiko eta gerraosteko erbesteratzea; eta duela gutxiago, "langabeziaren Espainiaren" garaian),
- b. landatik hirirako emigrazioa, bi milioi pertsonatik gorako nekazari-exodoa, 1950eko hamarkadaren erdialdean eta 1960ko hamarkadan (oso handia, "desarrollismoak" eragindakoa), eta
- c. garai horretan ere, Frantziarako, Alemaniarako, Suitzarako eta Europako beste herrialde batzuetarako emigrazio handia (1974tik aurrera, itzultzeko prozesua ere izan zen), eta, horrez gain, gaur egungo emigrazio-fluxua, 2008ko krisiak eragindakoa.

Horregatik guztiagatik, baliagarria izango litzateke imajinario publikoan eta hiritarren imajinarioan zabaltzea Espainiako historian zein herrialdearen gaur egungo koiunturan migrazio-zikloen hiru ereduak ageri direla:

- a. **barne-mugikortasun** handiko askotariko uneak;
- b. **atzeriranzko emigratioak**, eta
- c. **atzeritik etorritako immigratioak**. Migrazio-errealitateko hiru mota horien elementu komunak eta espezifikoak ikertzea eta zabaltzea –hau da, mugikortasunaren antzekotasun eta alde historikoak eta gaur egungoak– lan-ildo edo ataza garrantzitsua da, ez soilik zientziaren aldetik, baizik eta eztabaida publikorako eta hiritarren pedagogiarako ere.

2. Gaur egungo migrazioen elementu espezifikoak buruz.

"Lehen, migrazioak beste zerbaitez ziren"

esaten denean, badirudi alderaketa hori Europara egindako migrazioekin egiten dela. Migrazio horietan, hain zuzen, kanpainak antolatu ziren (helmuga-herrialdetik ere bai) eta espainiar emigratzaile gehienak industrian aritu ziren, ez soilik zerbitzuetan, eta kontratua zuten.

Eztabaida publikoan eta pedagogia zibiko edo soziopolitikoan, garrantzitsua da hiritarrek, audientzia handiek, **gaur egungo migrazioen ezaugarri bereizgarrien** berri izatea. Besteak beste, bederatzi aipatuko ditugu.

- ▶ Migrazioak **zabalduta eta orokortu egin dira**: iraganean, herrialde gutxi batzuetatik beste herrialde gutxi batzuetara emigratzen zen; azkenaldian, askoz herrialde gehiagotik –edo guztietatik– emigratzen da, beste herrialde eta leku askotara.
- ▶ Gero eta gehiago,aldi berean **emigratio- zein immigratio-herrialde** direnak daude, eta batzuk, **igarotze-herrialdeak** ere badira (adibidez, Ekuador, Maroko, Espainia eta beste asko).
- ▶ Gaur egun, inoiz baino gehiago, migrazioak lotura garrantzitsuenetako batzuk dira **globalizazioan eta sare eta eremu transnazionalak** sortzeko prozesuak eragiten dituzte: bi bizileku eta bizileku asko dituzten familiak; munduko bazter guztietan egoitza duten elkarrekin; identitate mistoak, baturakoak, hibridoak edo askotarikoak; logistika transnazionala duten enpresak, etab.
- ▶ Juridikoki, **prekarietate juridikoko eta irregulartasuneko** egoerak zabalduta eta erreproduzitzen dira, eta gerora **sortutako irregulartasuna** ere planteatzen da.

- ▶ Migrazioen **feminizazioa**. Oso ohikoa da emakumea “migrazioaren burua” (lehen emigratzen duena) izatea. Zenbait herrialdetako kolektiboetan, migratzaile gehienak emakumeak dira, eta generoarekin lotutako arrazoiak gehitzen zaizkie arrazoi ekonomikoei eta lan-arlokoiei.
- ▶ Mugitzen ari diren pertsonen sektore handiak **ahultasun** handiagoko egoeran daude: gehiegikeriak, erasoak eta indarkeria jasaten dituzte pertsonen trafikoan aritzen diren erakunde eta sareengandik.
- ▶ **Mugako erregimenak** ezarri eta gogortu egin dira (harresiak, hesiak eta alanbre-hesiak; jauziak eta ezkutuko sarrerak; inbertsio handiak mugen zaintzan, gobernu kanpoko erakundeen esku-hartzeetan, etab.)
- ▶ Migrazioak gero eta gehiago erabiltzen dira herrialdeen arteko kanbio-moneta, jaurtitzeko arma eta **negoziazio- eta presio-faktore gisa**.
- ▶ Lehen aldiz, **migratzaile klimatikoak** daude; hau da, ingurumen-aldaketak beren bizitzetan eragindako ondorioengatik lekualdatzen diren pertsonak.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

La historia de las migraciones es la historia de la humanidad (Encuentro y Solidaridad mugimenduaren blogean argitaratutako artikulua, migrazioen bilakaera historikoari buruzkoa, <https://bit.ly/3rMJozP>)

La migración humana: consecuencia de guerras, desastres y ahora, del clima (National Geographic-en webgunean argitaratutako artikulua, 2019ko martxokoa, migrazioen historiari eta kausei buruzkoa, <https://bit.ly/2V7dS2g>)

Las grandes migraciones de la historia en mapas (Vozpópuli egunkariako artikulua, 2016ko maiatzean argitaratua. Artikuluan, migrazioen historiari buruzko mapak daude, <https://bit.ly/3ywgUew>)

España, historia de migrantes (Inesem-en aldizkari digitalean argitaratutako artikulua, 2017ko urtarrilekoa, Espainiako migrazioen bilakaera historikoari eta migratzaileen profilari buruzkoa, <https://bit.ly/3xhnB2Y>)

~akademia

Las migraciones desde una perspectiva histórica (Valentziako Jaume I Unibertsitateko Vicente Castelló irakaslearen artikulua akademikoa. Artikuluan, migrazioen ikuspegi historikoa azaltzen da, <https://bit.ly/3fmLla8>)

European migration: Historical overview and statistical problems (Amsterdamgo Unibertsitateko Heinz Fassmann irakaslearen liburu bateko atala, migrazioen bilakaera historikoari buruzkoa, <https://bit.ly/3iiuzAj>)

Integration processes and policies in Europe (Blanca Garcés-Mascreñasen eta Rinus Penninx-en liburua. Besteak beste, Europako migrazioen historia aztertzen da, <https://bit.ly/2TReEzG>)

~txostenak

Los movimientos migratorios del siglo XX en Europa (artikulu horretan, Europako migrazioen laburpen orokorra azaltzen da, <https://bit.ly/3rNDcpG>)

A history of migration (Artikulu horretan, munduko migrazio-mugimenduen laburpena egiten da, eta arreta berezia ematen zaie migrazioen kausei, <https://bit.ly/3C78pZP>)

~gizarte-erakundeak

Movimientos migratorios en España y Europa (CEAR erakundearen dokumentua, Espainiako eta Europako migrazio-joerei buruzkoa, <https://bit.ly/374N3Of>)

Análisis de las migraciones: España como "emisor" y "receptor" de migrantes (Accem GKEaren artikulua, Espainiako migrazio-fenomenoari buruzkoa, <https://bit.ly/3fmTUHH>)

~estatistikak

Datos sobre migración en Europa (Migration Data Portal atariko dokumentua. Migrazioei buruzko estatistikak daude, gaur egungoak zein historikoak, bai eta gaiari buruzko zenbait erreferentzia ere, <https://bit.ly/3llUARE>)

Migraciones (Estatistika Institutu Nazionalaren dokumentua. Espainiako migrazioen bilakaerari buruzko estatistikak daude, <https://bit.ly/3rLZmIQ>)

Historia, presente y prospectiva de las migraciones en España (Merkataritzako Estatu Idazkaritzaren dokumentua, 2005ean argitaratua. Espainiako migrazioei buruzko estatistikak ditu, <https://bit.ly/3iow13b>)

04.

“Jendeak gosez akabatzen dagoelako migratzen du”

Abiapuntuko testua ~2003

Azalpen hori sarritan entzuten dugu. Honela osa daiteke: “Immigratzaileak miseriatik, beren herrialdeetan dituzten bizi-baldintza txarretatik ihes egiteko etortzen dira”. Hori horrela al da? Zenbateraino da egia? Gizartean oso zabaldua dagoen ideia eta uste sendoa da, eta funtsezkoa da immigrazioari buruz sortzen den ikuspegian dituen ondorioengatik. Sen onean oinarritutako nozioa da; izan ere, logikoa dirudi pentsatzea inork ez litzukeela bere gauza guztiak hartuko beste leku batera joateko, premia handia izango ez balu. Pentsamolde horretan, immigratzailea edozer gauza egiteko prest dagoen pertsona da, etsipenak jota jarduten duena, eta hori ere ez dator bat errealitatearekin.

Emigrazioaren eta miseriaren arteko loturaren ideia telebistako irudiek elikatzen dute, iritsi berriak kikilduta eta akituta erakusten baitira. Halaber, zenbait GKEren mezuek ere elikatzen dute lotura hori; izan ere, migrazioen arloan aritzen diren erakunde eta boluntarioek sarritan esaten

dute “pertsona pobre horientzat” migrazioa dela haien jatorriko lurraldean duten biziraupen-egoera tragikoaren irtenbide bakarra. Immigratzailea gosez akabatzen dagoen norbait delako uste sendo horrek (*mort de gana*, esaten zen Katalunian, Andaluziako edo Murziako immigratzaileei buruz hitz egitean) eragina izango zuen, halaber, sentsibilizazio-kanpainetarako erabiltzen diren irudietan (desnutrizioak jotako haurrak edo katastroferen batek hondatutako herrixkak). Hori ikustean, teleikusleen buruan honelako mezuek sortuko dira: “Noski, hortik datoz. Hara nola bizi diren pertsona horiek! Normala da hona etorri nahi izatea”. Migrazioak gosearen eta miseriaren ondorio gisa azaldu ohi dira, baina gerta liteke ideia hori emigratzaileen kontakizunek elikatzea, eta kontakizun horietan jatorriko herrialdeko baldintza txarrak nabarmentzeko joera izatea.

Bada, oro har, ideia hori ez dator bat errealitatearekin, faltsua da. Zuzena da migratzaileen sektorearen baten kasuan, baina ez immigratzaile gehienek kasuan, inola ere. Migrazioen kausa miseria dela adieraztean, badirudi alde batera uzten direla nazioarteko migrazioen kausak eta mekanismoak. Jendeak ez du emigratzen miseria-egoeran dagoelako, baizik eta desproporzio handia dagoelako beren herrialdeetan dauden aukeren eta helmuga-herrialdeetan ustez izan ditzaketen aukeren artean. Biziraupeneko egoeraren muga-muga daudenek ezin dute emigratu; **emigratzeko, baliabideak izan behar dira**. Informazioa, bidaiaren gastuei aurre egiteko dirua edo diru hori utziko diezaiokeen norbait dutenek emigratzen dute.

Bai, emigratzaile batzuek, baliabide horiek ez badituzte ere, beren buruak hipotekatzen dituzte eta “doan” egiten dute lan denbora-tarte batez, emigrazioak eragindako gastuak itzuli ahal izateko.

Kasu horiek apustu arriskutsuak dira:

dena ala batere ez. Aurrera egin dezakete, apurka-apurka, baina, sarritan, egoera bereziki gogor edo marjinaletan egoten dira, eta itzultzea ez da beti erraza edo posible izaten. Dena dela, horrelako kasuak gutxiengo dira.

Ez dugu gaizki-ulerturik sortu nahi, ez dugu nahi irakurle batzuek honako hau ondorioztatzea, orain arte esandako gauzetatik: "Beren herrialdean hain gaizki ez badaude, bada, ez daitezela etorri".

Oro har emigratzen dutenak egoera txarrean daudenak ez direla esateak ez du esan nahi emigratzen dutenek egoera onean daudenik. Migrazioen atzean ia gizaki guztiok, edo denok, hobetzeko dugun gogoia dago. Nahi horietatik dator bizirauteko eskubidea, bai eta bizi-kalitate hobea lortzeko gogoia ere.

Arrazoiketaren laburpena ~2003

- 01 Errealitatearekin bat ez datorren** ideia bat da, faltsua: migratzaileen sektore minoritario bati dagokio, baina ez gehiengoari, inola ere.
- 02** Horrela pentsatzean, **ez dira** migrazioen benetako **kausak** eta mekanismoak **kontuan hartzen**.
- 03** Migratzen duten gehienak **ez dira muturreko pobrezia eta miseriako egoeran dauden gizarte-sektoreetakoak**, baina horrek ez du esan nahi bizi-baldintza onak edo onargarriak dituztenik.
- 04** Ez da emigratzen miseria egoteagatik, baizik eta **desberdintasun handiak** sumatzen direlako jatorriko eta helmugako lurraldeetako egoera eta aukeren artean.
- 05** Biziraupeneko egoeraren muga-muga daudenek ezin dute emigratu; emigratzeko, **zenbait baliabide izan behar dira**.

Eguneraketa ~2023

Orduan, gosez akabatzen daudenek ezin dutela emigratu arrazoitzen genuen, bai eta "Arrazoiketaren laburpenean" ageri diren beste alderdi batzuk ere. Berriz irakurtzean, pentsatu dugu egokia dela jendeari **zergatik emigratzen** den zuzenean azaltzea. Bestela esanda,

migrazioaren auziari buruzko eztabaida publikoan zein funtsezko errealitate horren kontzientzia eta irudikapen kolektiboan eragiteko, ezinbestekoa da **migrazioen kausak behin eta berriz aztertzea**.

Migrazioei buruzko teorien ikuspegitik, kausa horiek gero eta gehiago argitu eta zehaztu dira. Sinplifikatze aldera¹⁴, **modernizazioaren teoriak** –mikroegiturak nabarmentzen ditu– **bultzada edo kanporatze-faktoreen** (*push*) eta **erakartze-faktoreen** (*pull*) arteko konbinazioa azpimarratu zuen. Mendekotasunaren teoriak –makroestruturala da, batez ere–, berriz, adierazi zuen munduko aberastasunaren eta boterearen banaketa desorekatua funtsezko elementua zela migrazio fluxuak azaltzeko. Duela gutxiago, azken hamarkadetan, **transnazionalismoaren teoriak** ideia hau erantsi diote ikuspegi horri: migratzera bultzatzen duen arrazoia pertsonen sentitzen dituzten **desberdintasunak** edo **kontrasteak** dira; hain zuzen ere, beren bizilekuan (ez) dituzten aukeren eta atzerrian hautematen dituzten espektatiben arteko aldeak, desberdintasun horiek errealitatearekin bat etorri edo ez.

Gaian sakontzeko interesa dutenek, eskuragarri dagoen literatura zientifiko-sozial ugarian kontsultatu dezakete¹⁵. Hemen, migrazioen kausak beste ikuspegitik aztertu nahi ditugu, eztabaida publikoaren parte gisa, publiko zabal baterako edo hiritarrentzako argudioak gehituta, eta ez soilik akademiko edo adituentzat.

Pobreenek emigratzen dutela dioen ideia hori zuzentzeaz gain, zer falta da, gure ustez, imajinario kolektiboan, migrazioen arrazoiari buruzko ideia izateko, gaur egun dakizkigun gauzetan oinarrituta? Gure ustez, hiru puntu hauek kontuan hartzea falta da:

1. Migrazioen kausak ez daude jatorriko lurraldean soilik, baizik eta **gizarte hartzailean** ere.
2. Migratzeko arrazoi nagusiak ekonomikoak eta lan-arlokoak badira ere, **askotarikoak** dira eta migratzaile bakoitzaren historian uztartu eta nahasten dira.

3. Gero eta **nahaste handiagoa** dago mugitzen ari diren pertsonen profiletan: migratzaile ekonomikoak, desplazatuak, iheslariak, asilo-eskatzaileak.

1. Pertsona gehienek, iritsi diren itsasontziei/txalupei, Espainian, beren hirian edo komunitatean dauden atzerriaren kopuruari, sasoiko langile atzeritarrekin lotutako gertaerei, eskoletako eta ikasgeletako multikulturalismoari eta abarri buruzko albisteak entzutean, pentsatzen dute, arrazoi osoz, migratzaile horiek ez direla ondo bizi beren jatorriko herrialdeetan, eta, noski, hobeto bizi nahi dutela eta “horregatik etortzen direla hona”. Edonork ulertzen du hori, logikoa da, zentzukoa. Eta jasotako kasu eta istorioen ikerketa eta azterketa kontaezinek behin eta berriz erakusten dutenaren arabera, zuzena da, baina egiaren zati bat baino ez da. Ikuspegi partziala da.

Erreferentzia gisa hartzen dugun pertsona horrek, herrialdeko hiritar arrunt horrek, “han ondo ez bizitze” horretan elementu edo faktore asko sartzen direla onartuta ere –hala nola langabezia eta azpienplegua, oso soldata txikiak eta erosahalmenik eza, ase ezin diren familia premia berriak, azpigarapena, etab.–, ikuspegi hori partziala da. Eta, batez ere, hala da kontuan hartzen ez duelako **migratzaileak gure gizarteak sortzen duen erakargarritasunagatik ere etortzen direla**, gizarte hartzaileak sortzen duen erakargarritasunagatik –ai, harrera-gizartea deitzerik bagenu!–. Faktore hauek bultzatuta etortzen dira migratzaileak: hemen lanpostu eta soldata hobeak daudelako, bizi-

14. Hemen, hiru teoria nagusi soilik aipatuko ditugu, baina beste ikuspegi batzuek gai horren inguruan proposatutakoa ere kontuan hartu beharko litzateke:

15. Laburpen bat kontsultatu daiteke hemen: “Las causas y los motivos de las migraciones” (2. kapitulu), Giménez (2003) *Qué es la inmigración*, RBA, 41.-51. orrialdeak.

kalitatea hobea delako, askatasuna eta segurtasuna handiagoak direlako. Hori dakite edo horri buruzko informazioa dute, nolabaiteko zehaztasunez edo modu nahasian.

Badirudi gure hiritar arruntak hori guztia jada kontuan hartu duela "han gaizki bizi dira eta hemen hobeto bizi nahi dute" pentsatzen duenean. Hala bada, bikain, azterketek erabat erakusten duten zerbaitez jabetzen baita: eskusio-faktoreez gain (jatorrian, han), erakargarritasun-faktoreak (helmugan, hemen) ere badaudela, lehen aipatu dugun moduan. Eta kontuan hartzen bada erakartze-faktore horiek ez daudela soilik lotuta ekonomiarekin eta lan-arloarekin (enplegua, diru-sarrerak, etab.) edota bizi-kalitatearekin (zerbitzu publikoak, askatasunak, segurtasuna, etab.), are hobeto.

Nolanahi ere, funtsezko zerbait falta da, solasaldi publikoetan, hedabideetan eta sare sozialetan "nekezago" agertzen den zerbait: **atzeritarren lan-indarraren eskaria dagoela, migratzaileak behar direla**. Eta erakarpen hori ez da lan-arloko eskariak eta premiak eragindakoa, gizarte hartzailean beste elementu batzuk ere badaudelako; esaterako, honako bi hauek:

- a. jatorrian modu esponenzialean iristen zaizkien informazioak eta irudiak, komunikazioen iraultzaren ondorioz, eta
- b. familiakoek eta lagunek (migrazio-katea) eragindako erakarpena

2. Migrazioen kausa eta arrazoen errealitatea hobeto islatzen duen ikuspegi hori, jatorriko eta helmugako herrialdeetako faktoreak kontuan hartzen dituzenez, hobeto egokituko da, halaber, azterketek planteatzen dutenera, motibazio ekonomikoak eta lan-arlokoak kontuan hartzeaz gain beste hauek ere kontuan hartzen badira:

a. motibazio soziopolitikoak

(jazarpenetik, presioetatik, segurtasunik ezatik, indarkeriatik eta abarretatik ihes egitea edo haiek atzean uztea);

b. sexuarekin eta generoarekin

lotutako motibazioak (tratu txarrak, atsekabea, bizimodua ateratzeko zailtasunak, alarguna edo ama ezkongabea izateagatik, homofobia, etab.); edo

c. beste aukera pertsonal batzuk

(maite den pertsonarekin bizitzera joatea, abentura, etab.).

Zalantzarik gabe, zerrenda partziala da eta beste sailkapen batzuk egin daitezke, baina arrazoi, motibazio eta kausa horiek gero eta gehiago ageri dira migratzaileei egindako elkarrizketetan.

Bestalde, migrazioen ikuspegi mikroestrutural horretan –pertsonek eta familien mailan (herrialdeetako kanporatze- eta erakarpen-faktoreen ikuspegi makroestruturala osatzen du)– kontuan izan behar da motibazio horiek elkargurutzatu egiten direla pertsona bakoitzaren migrazio-errealitatearen errealitatean eta ibilbidean.

3. Azkenik, migrazioen kausekiko hurbilketa fidagarrienak –migrazioak gizakien mugikortasunaren alde substantiboa direla– kontuan hartu behar du migrazioetan –iraganean baino gehiago, eta, batez ere, zenbait fluxutan–, lotura, bereizetasuna edo aldeberekerotasuna dagoela gatazka- edo klima-arrazoiengatik migratutakoen, migratzaile ekonomiko-laboralen eta iheslari eta asilo-eskatzaileen profilen artean.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

"Why do people migrate?" (BBCren artikulua, nazioarteko migrazioak eragiten dituzten kausei buruzkoa, <https://bbc.in/2V6zSdD>)

~akademia

"¿Por qué motivos emigran los españoles? Tipología y evolución reciente" (Huelvako Unibertsitateko Juan Manuel Romero-Valiente irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioen kausei buruzkoa, <https://bit.ly/3yeU3UR>)

"Causas fundamentales de la migración" (John C. Wester artzapepizkuaren artikulua akademikoa, nazioarteko migrazioak justifikatzen dituzten faktoreei buruzkoa, <https://bit.ly/2TUcHTa>)

"Causas de la emigración española: la "movilidad exterior" y la incidencia de la crisis económica" (Huelvako Unibertsitateko Juan Manuel Romero-Valiente irakaslearen artikulua akademikoa, Espainiako emigrazioaren kausei buruzkoa, <https://bit.ly/2Vj8s3Y>)

"Causas, consecuencias, efectos e impacto de las migraciones en Latinoamérica" (Buenos Airesko Unibertsitateko Roberto S. Aruj irakaslearen artikulua akademikoa, Latinoamerikako migrazioen arrazoiei buruzkoa, <https://bit.ly/3C1hZxn>)

~estatistikak

"Flujo migratorio de España de 2010 a 2020" (Statista atariko estatistika-taula, <https://bit.ly/3foUwwH>)

~kasu-azterketak

"Los hombres emigran por razones económicas y las mujeres por motivos familiares" (Elkarrizketa Virginia María Fuentes-i, A vueltas con las migraciones. Estrategias de migración familiar. Una vida desde el Trabajo Social a propósito de las familias bolivianas txostenaren egileari. 2015eko urtarrilean argitaratu zen txosten hori, <https://bit.ly/3lmiOG5>)

~gizarte-erakundeak

"Refugiados, refugiadas e inmigrantes" (Amnistia Internazionalaren artikulua, Espainiarako migrazioen atzean dauden kausa orokorreari buruzkoa, <https://bit.ly/37bX5xn>)

"Cinco motivos por los que los niños y niñas migran" (Save the Children erakundearen webguneko artikulua, 2018ko abenduan argitaratua, neska-utileen migrazioen kausei buruzkoa, <https://bit.ly/3lAStcD>)

"¿Por qué migran las personas?: 11 razones sorprendentes" (Global Citizen aldizkariko artikulua, 2014ko abenduan argitaratua. Migrazioen kausa nagusietako batzuk azaltzen dira, <https://bit.ly/2TMKGwA>)

~txostenak

"Explorar las causas de la migración: ¿por qué migran las personas?" (Europako migrazioen kausei buruzko artikulua, Europako Parlamentuak 2020ko uztailean argitaratua, <https://bit.ly/3A07sk7>)

"14 razones por las que las personas emigran" (Migrazioen kausak azaltzen dituen artikulua, <https://bit.ly/3ChFxE>)

"¿Por qué España es un país de inmigración?" (Espainiarako migrazioen kausei eta zirkunstanziei buruzko artikulua, <https://bit.ly/3jgEtlg>)

"Root causes of migration" (Nazioarteko migrazioen push eta pull faktoreak aztertzen dituen artikulua; faktore ekonomikoak, ekologikoak eta sozialak bereizten dira, <https://bit.ly/2TRipoM>)

05.

“Hain gaizki bizi badira, zergatik geratzen dira?”

LANDUTAKO GAIAK

| bizi- eta lan-baldintzak; zaugarritasuna

Abiapuntuko testua ~2003

“Pilatuta, paperik gabe, esplotatuta, beren lurraldetik eta jendearengandik urrun bizi badira, zergatik geratu nahi dute Espainian? Zergatik ez dira itzultzen?” Har dezagun benetako kasu hau: nigeriar mutil gazte batek txinatar jatetxe batean egiten du lan, kontraturik gabe, eta egunean hamar eta hamabi orduko lanaldiak ere izaten ditu. Gero, gauean, beste zazpi edo zortzi hirikiderekin partekatutako etxebizitza batera joaten da, atsedean hartzera. Beltza izateagatik, erasoak jasaten ditu, eta bere andregaiarengandik urrun dago, eta urteak igarotzen dira hura hona ekarri ezin gabe, eta hala ere, hemen jarraitzen du. Edo beste hau, benetakoa ere: Latinoamerikako emakume bat tratu txarrak ematen zizkion bikotekidetik ihes egiteko etorri zen, lur jota, bere hiru seme-alabak amonarekin utzi behar izan baitzituen. Espainiara heldu eta hilabete gutxi batzuetara bortxatu egin zuten festa batean. Bortxatzaileak salatu zituen, baina haiek hilko zutela mehatxatu zuten, eta lana utzi eta udalerritik presaka eta korrika alde egin behar izan zuen, eta ez zuen etxe batean har zezaten lortu,

immigratzaile irregularra zelako. Hala eta guztiz ere, hemen jarraitzen du, lan gogorrek egiten eta paperik gabe, urteak joan urteak etorri, eta auskalo noiz izango duen bere familia berriz ikusteko aukera.

Orduan, jende askok galdera hau egiten du: “Zer dela-eta merezi die horrenbesteko sufrimendua, hain bizi-baldintza txarrak, horrenbesteko esplotazioa? Zergatik ez dira beren herrialdeetara itzultzen? Ez al lirateke hobeto egongo han? Gutxienez, beren familiekin egongo lirateke, ingurune ezagun batean, beren gauzez gozatzen”. Ulergarria da horrela pentsatzea eta sentitzea, baina badirudi ez direla funtsezko hiru gauza kontuan hartzen. Batetik, nazioarteko migrazioen logika ekonomikoa: soldata-desberdintasunak oso handiak dira, eta, horregatik, ahalegin handiko eta bakardadeko aldiak bizitzeak zentzu handia izan dezake, familiakoei dirua aldizka bidaltzeko aukera izateko. Diru hori oso beharrezkoa da jatorriko herrialdeko ekonomian eta haren erosahalmena bereziki garrantzitsua da. Esate baterako, guraso migratzaileen kasuan, bere seme-alabak hazteko eta hezitzeko baliabideak bidali ahal izateak baldintza zailei aurre egiten laguntzen die.

Bestetik, badirudi ez dela kontuan hartzen zenbat balioesten duten immigratzaileek hemen aurkitzen dutena (edo lortzen saiatzen direna): kontsumo-aukerak, baliabideak dituzten eskolak, osasungintza hobea (oro har), etab. Azkenik, itzultzeko eta han beste bizimodu berri bat abiatzeko zailtasunak:

- a. horretarako baliabideak izateko zailtasunak; izan ere, sarritan etxebizitza, negozio bat edo beste ondasun batzuk hipotekatu edo saldu egin dituzte emigratzeko kostuak ordaindu ahal izateko;
- b. jatorriko herrialdean lan bat lortzeko zailtasunak, egoera txarrari galdu diren harremanak gehitu behar baitzaizkio, eta horren ondorioz, laneratzea zailagoa izaten da;

c. aipatutako kasuetan, immigratzaileak kualifikazio-maila txikiagoko lanetan aritzen dira harrera herrialdean jatorriko herrialdean baino, eta emigrazio-aldian lanbide horretan ez jarduteak –eta horrek dakarren praktika, antzinatasun eta eguneratze faltak– zailtasunak dakartza lanbide berean aritzeko edo emigratu aurreko gizarte-maila bera izatea lortzeko. (Lehenago jada esan dugu emigrazioan lortutako esperientzia oso onuragarria izaten zaiela kasu askotan).

Hemen badaude –askotan iristeko zailtasun handiak gainditu ondoren– eta hemen geratzen badira, merezi dielako da. Eta merezi die atzean utzi dutena gogoko ez dutelako, hemen jatorriko herrialdean daudenentzat gauza asko lor ditzaketelako, eta hemen bizi-espektatiba onak izan ditzaketelako; beraz, ikasi egiten dute, hemen finkatuta daudelako, beren seme-alabekin, eta hemen bizi-proiektu bat dutelako. Baina hori guztia ulertu ahal izateko, emigrazioari buruzko ikuspegi negatiboa, problematizatua eta katastrofista gainditu behar da.

Arrazoiketaren laburpena

~2003

- 01 Zailtasun handiak izanda ere zergatik geratzen diren ulertzeko, honako hauek hartu behar dira kontuan, gutxienez:
1) nazioarteko migrazioen logika ekonomiakoa, 2) harrera-lurraldeko testuinguruaz egiten duten balorazioa, eta 3) itzultzeko zailtasunak.
- 02 Soldata-desberdintasunak, eta diru-sarrerak jatorriko lurraldeko dibisetara bihurtzeko eta aldizkako bidalketak egiteko aukera dira zailtasunak gainditzen **laguntzen duten faktore eta arrazoi**tako batzuk.
- 03 Migratzaileek harrera-herrialdeko zenbait alderdi **balioesten dituzte**, eta asko.
- 04 Itzultzea ez da erraza, eta **baldintza onetan** egiteko, besteak beste, baliabideak behar dira, bai eta jatorriko herrialdean lan-espektatibak izatea ere.
- 05 Azken finean, **merezi die**, atzean utzitako egoera atsegina ez zelako, hemen bizi-espektatibak dituztelako, eta jada finkatuta daudelako, gehienak familiarekin, eta harrera-herrialdean jaiotako seme-alabak ere badituzte.

Eguneraketa

~2023

Ohar haietan adierazitako azalpenek aukera ematen dute –edo, behintzat, hala uste dugu– ulertzeko zergatik jarraitzen duten migratutako pertsonak harrerako herrialdean bizitzen, zailtasun handiak izanda ere. Gaia bi hamarkada geroago

berraztertuta, egokia da zenbait iruzkin berri gehitzea. Lehenbizikoa **itzulerekin** lotuta dago. Izan ere, 2008an abiatutako krisiaren ondorioz, migratzaile asko beren herrialdeetara itzuli ziren, eta horrek adierazten du harrera-herrialdean bizitzen

"jarraitze" horrek mugak dituela, edo, bestela esanda, ez dela kosta ahala kosta egiten.


Bigarren oharra **bizi-kalitate konparatiboari** buruzkoa da, bosgarren iruzkin honen izenburuko esaldiak gaurkotasuna baitu berriz ere. Adierazle sozioekonomikoen multzoaren azterketak erakusten du biztanle atzerritarren egoera, konparazioan, **biztanle espainiarrena baino okerragoa dela**. Eguneraketako gogoeta hauek amaitzeko, hauek azalduko ditugu berriz: migratzaile guztiak ez direla "hain gaizki bizi", eta, batez ere, Espainian bizitza merezi diela, asko, nahiz eta, oro har (eta batezbesteko estatistiketan), espainiarrek baino bizi-kalitatea okerragoa duten.

1. 2008ko krisi ekonomikoaren ondorioz, migratzaile asko beren herrialdeetara itzuli ziren. Grafikoan eta taulan ikus daitekeenez, lau tarte bereiz daitezke 2000. urtetik. Lehenbiziko tarte 2000. urtetik 2008. urtera izan zen: **hazkunde handia** izan zen, eta jada aurretik zegoena luzatu zen. Zenbait urtetan, hala nola 2003an, 2005ean eta 2008an, biztanle atzerritarren kopurua

asko handitu zen: 700.000 pertsona urte batzuetan, eta gehiago ere bai. Hazkunde handiena 2008an izan zen, nazioarteko eta herrialdeko krisiaren hasierako urtean, hain zuzen ere, eta atzerritar nazionalitateko biztanleen kopuruak 749.208 pertsonako saldo positiboa izan zuen.

Bigarren tarte (2009-2011), **migrazio-saldoak eta etorritako pertsonen kopuruek** behera egin zuten; krisiaren ondorioak hautematen hasi zen (langabeziaren gorakada, murrizketak, etab.), baina hala ere, joandako atzerritarren kopuruak (bajak) ez ziren etorritakoen kopuruak (altak) baino handiagoak izan. Geroago, hirugarren tarte (zortzi urtekoa, 2010etik 2017ra), krisiaren ondorio larrienak zirela eta, **biztanle atzerritarren kopuruak behera egin zuen edo nazioarteko migrazio-saldoa negatiboa izan zen**; hau da, joandakoak/itzulitakoak iritsitakoak/etorritakoak baino gehiago izan ziren). 2018tik aurrera, laugarren tarte abiatu zen (horretan gaude gaur egun). Urte horretan, saldoa positiboa eta goranzkoa izan zen berriz ere, 2021eko datuetan izan ezik (COVID 19aren pandemiaren ondorioak).

1 **grafikoa.** Atzerritarrak Espainian (2000 - 2021)



3 taula. Espainiako atzerritarrek, 2000-2021 (guztizko kopuruak)

Urtea	Atzerritarren kopurua	Aldea urtetik urtera
2000	923.871	-
2001	1.370.652	446.781
2002	1.977.944	607.292
2003	2.664.168	686.224
2004	3.034.326	370.158
2005	3.730.610	696.284
2006	4.144.166	413.556
2007	4.519.554	375.388
2008	5.268.762	749.208
2009	5.648.671	379.909
2010	5.747.734	99.063
2011	5.751.487	3.753
2012	5.736.258	-15.229
2013	5.546.238	-190.020
2014	5.023.487	-522.751
2015	4.729.644	-293.843
2016	4.618.581	-111.063
2017	4.572.807	-45.774
2018	4.734.691	161.884
2019	5.036.878	302.187
2020	5.434.153	397.275
2021	5.440.148	5.995

Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

Jatorriko eremu geopolitiko eta kulturei erreparatuta, bilakaera orokor hori ez da berdina izan. Bereizgarritasun horiek labur aztertuko ditugu, eredu desberdinak erakusten baitituzte itzuleretan. Horrek zerikusia du –beste faktore batzuen artean–, krisiaren eraginarekin, loturen sendotasunarekin eta sare transnazionalaren hedadurarekin.

Interesgarria da ikustea Europako kolektiboak (errumaniarrak, italiarrak, ingelesak, errusiarrak...; 430.370 pertsona 2000. urtean eta **2.179.998**, berriz, 2020an) irizpide hori bete duela, baina saldo negatiboa 2013tik 2017ra soilik izan da. Kontinenteen arabera, amerikarrek osatzen dute Espainian dagoen bigarren kolektibo handiena (batez ere, Ekuadorreko, Kolonbiako eta Hego Amerikako beste

herrialde batzuetako migrazioengatik; 26.835 ziren 2000an eta **1.554.087**, berriz, 2020an). Kolektibo horren migrazio-saldoa negatiboa izan zen 2102tik, baina ez 2017ra arte –hala ageri da taulan–, baizik eta 2016ra arte. Horrek adierazten du lotura estuak eta migrazio-sare sendo bat daudela: ahal bezain laster, berriz itzuli ziren Espainiara edo migratzaile berriak etorri ziren.

Afrikarrei dagokienez (batez ere, magrebtarrak, baina senegaldarrak, nigeriarrak, kamerundarrak... ere bai; 228.972 ziren 2000an **eta 1.193.407**, berriz, 2020an) saldoa negatiboa zen 2010ean jada, beste kontinenteetako kolektiboak baino bi urte lehenago. Hori eragin zuten faktoreak konparatiboki zaugarriagoak izatea eta jatorriko etxeetatik eta komunitateetatik gertuago egotea izan zitezkeen.

Bereizgarritasun edo salbuespen bat: aipatutako bilakaera eta ildo orokor hori ez da gertatu asiarren kasuan (txinatarrak, pakistandarrak, bangladeshtarrak, etab.; 56.017 pertsona ziren 2000. urtean eta **500.009**, berriz, 2020an). Serieko urte guztietan –2010etik 2017ra bitarteko tartean ere bai–, haien migrazio-saldoa positiboa izan zen; beraz, oro har, esan daiteke ez direla beren herrialdeetara itzuli, eta horrek merkataritzaren faktorearen eragina eta, agian, kohesio intraetnikoa adieraz ditzake.

Nolanahi ere, bilakaeraren ikuspegi orokorra eta eremukakoa izateaz eta zer unetan eta joeratan gauden kokatzeaz gain, hau da egin dugun fluxu-azterketaren helburua: **itzuleren garrantzi handia erakustea, baldintzak hain txarrak direnean**, ez baitu merezi edo ez baita ikusten harrerako herrialdeko kokapenari eta migrazio-proiektuari eusteko aukera. Beste modu batean esanda: atzerritar jatorriko pertsonen zailtasun eta neke handiak izanda ere harrera herrialdean jarraitu dezakete, zenbait faktorek bultzatuta, (hasierara itzuli nahi ez izatea; gauza berriak balioestea; lorpenengatiko poza eta espektatibak; seme-alabak harrera-herrialdean hazten izatea, etab.), baina hori ez da zerbait absolutua eta bere mugak ditu, eta halaxe erakusten dute itzulerek.

2. Adieraziko ditugun iturri eta materialetan, migratzaileen bizi- eta lan-baldintzen defizit batzuei buruzko dokumentazio ugaria eta anitza aurkitu daiteke. Interesgarria iruditzen zaigu baldintza horiek bertako biztanleen baldintzekin alderatzea.

"La Caixa"-ren behatoki sozialaren bi txosten baliatuta laburbilduko dut hori. Txosten horietako lehenbizikoan (*Inmigración: retos y oportunidades* du izenburu; hau da **Immigrazioa: erronkak eta aukerak**, eta 2020ko urrikoa da), alderaketa hori egiten da, zenbait adierazletan: pobrezia-arriskua, errenta, lan-merkatua, hezkuntza, etxebizitza eta osasungintza.

Bada, adierazle horietan guztietan, alde nabarmenak daude bi biztanleria-sektore horien artean, eta migratzaileak maila baxuagoetan daude. Alde deigarrienak adierazle hauetan daude (datu guztiak 2018koak dira):

- ▶ **Pobreziako eta gizarte-esklusioko arriskuan dagoen biztanleriaren proportzioa:** 25-54 urteko adin-tartean, arrisku hori % 22,6koa da bertako biztanleentzat, eta % 48,4koa atzerritar jatorrikoentzat; hau da, pobrezia-arriskua 26 puntu portzental handiagoa da atzerritarrentzat;
- ▶ **errenta mediana¹⁵ baliokidea¹⁶ 20-64 urteko biztanlerian:** % 37,8 txikiagoa ere izan daiteke atzerrian jaiotako pertsonentzat.
- ▶ **okupazio-tasa (24-64 urte):** goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen multzoa hartzen badugu, tasa hori 9,2 puntu txikiagoa da atzerritarren kasuan.
- ▶ **langabezia-tasa:** bereziki garrantzitsua da, nazioarteko migrazioetan motibazio ekonomikoek eta lan-arlokoek garrantzi handia baitute: 2018an, bertako gizonen artean, %12,3koa zen, eta gizon migratzaileen artean, berriz, % 18,6koa; bertako emakumeen artean, %15,6koa zen, eta emakume migratzaileen kasuan, berriz, % 21,9koa.
- ▶ **behin-behinekotasuna eta aldi baterako lanak:** 2018an, atzerritarren artean, biztanleria landunaren %37,1ek aldi baterako kontratuak zituen, eta %19,3k, berriz, lanaldi partzialeko kontratuak (hurrenez hurren, bertakoek baino 13 eta 6 puntu portzental gehiago).

15. Txosten-Barometroan zehaztutakoaren arabera: **Errenta mediana delakoaren balioa jakiteko, lagineko banako guztiak ordenatzen dira, diru-sarreraren handienetik diru-sarreraren txikienera, eta errenta mediana erdiko balioa izango da; hau da, bezainbeste balio izango dira medianaren gainetik zein azpitik**" (2020, 11, enfasia jatorrizko testuan)

16. "Etxe- edo familia-mota desberdinak hobeto alderatzeko, errenta baliokidearen kontzeptua erabiltzen da. Etxeko/ Familiako errenta errenta baliokide bihurtzeko, nazioartean, kontsumo unitatearen kontzeptua aplikatzen da. Kontzeptu horrek kontuan hartzen ditu etxeko gastuak elkarbanatzen dituzten pertsonen kopuruaren eta adinen arabera sortzen diren eskala-ekonomiak" (2020, 11, enfasia jatorrizko testuan)

Desberdintasun eta zaurgarritasun handiagoko eredu hori honako hauetan ere gertatzen da:

- ▶ **hezkuntza:** 17 puntu portzentual gehiago eskola-uzte goiztiarreko tasan.
- ▶ **ikasten eta lanik egiten ez duten gazteak:** 15-29 urteko adin-tartean, 8 puntu portzentual gehiago gizonen artean, eta 14 puntu gehiago ere emakumeen artean,
- ▶ **etxebizitza ordaintzeko gainkarga:** atzerritarren % 30,4 bizi diren etxeetan, errenta eskuragarriaren % 40tik gora erabili behar da etxebizitzaren gasturako.

Hala, beste adierazle batzuk azter ditzakegu, gai desberdinei buruzkoak (esaterako, pilaketa etxeetan edo hortzetarako arretaren eskuragarritasuna). “*La Caixa*”ren behatoki sozialaren txostenak 2018rako eskaintzen duen konparaziozko adierazleen barometro hori “*Análisis de las necesidades sociales de la población inmigrante*” txostenarekin osatzen da –2020ko azaroan argitaratu zen, konparaziozkoa da, eta datu interesgarriak ditu 2006-2018 aldiko eboluzioari buruz–.

Txosten osagarri horretan aztertutako hamar adierazleetan ere, migratzaileen egoera okerragoa da konparazioan; ez adierazle batean edo bestean, baizik eta guztietan. Jada aztertutakoez gain, beste adierazle batzuk gehituko ditugu –bilakaerari buruzko datuak izanda–; esate baterako:

- ▶ **lan-kolokatasuna (edo etxeko landun guztiek aldi baterako kontratua izatea, ehunekotan):** 2018an, bertako biztanleen % 9,1 eta migratzaileen % 16,8 zeuden horrelako egoeran;
- ▶ **atzerapena alokairuaren edo hipotekaren ordainketan:** 2018an, bertakoen etxeen %2,8 eta migratzaileen etxeen % 14,7.

Egoera sozioekonomikoko eta bizi-egoerako alde horiek azaltzen dituzten faktoreak honako hauek dira: batetik, lan-egoerak bultzatutako migrazioen izaera bera –arlo horretako **defizitek eta zailtasunek** abiatutako **migrazio-prozesu edo -ibilbide bat** izan ohi da–, eta, batez ere, atzerritar jatorriko biztanleriaren sektore zabalak **lan-merkatuaren bigarren mailako segmentuetan** kokatuta egotea (hori xehetasun handiagoz aztertuko dugu 10. eta 11. iruzkinetan).

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da **alderaketa bi sektoreak osorik aztertuta egiten dela:** bertakoak eta atzerritar jatorrikoak (biak ere aniztasun handikoak dira). **Migratzaile guztiak ez daude egoera txarrean.** Askok denbora luze daramate Espainian eta hobekuntza handiak lortu dituzte lanari, diru-sarrerei eta bizi-baldintzei dagokienez. Iruzkina hau sorrarazi zuen esamoldea hartuta, denak ez dira **“hain gaizki”** bizi, inondik ere.

Immigrazioa pobreziarekin edo eskusio-arriskuarekin identifikatzea oinarririk gabeko orokortzeetako bat da, eta, gainera, migrazioen irudia negatiboa izatea eragiten du, bai eta migrazioak arazo edo mehatxutat hautematea ere. Erredukzionismo nabarmenetako bat da; izan ere, **galarazi egiten du migrazio-proiektu askoren arrakasta eta migrazio eta migratzaileen ekarpen positiboak balioestea.**

3. Migrazioen kudeaketa positiboaren ikuspegitik –proaktiboa eta gizarte-kohesioaren aldekoa– eta eztabaida publikoaren ikuspegitik, oso interesgarria da jakitea nolako den migratzaileen eta ez-migratzaileen bizi- eta lan-baldintzen arteko aldeen bilakaera. Egoera hobetzen ari da ala okerragoa da? Zer joera dago? Bertakoak eta migratzaileak berdintzekoa ala aldeak handitzekoa?

Adierazle horiek ikerketaren aldirako (2006-2018) aztertzean, ikusten da aldagai batzuetan aldeak gora egin duela, beste batzuetan berdin jarraitzen duela, eta beste batzuetan, berriz, behera egin duela. Zenbait aldagaitan, bilakaera aldakorra izan da, batzuetan gora, eta beste batzuetan behera.

Desberdintasunak areagotu diren faktoreetako bat **lan-pobrezia** da: pobrezia-atalasetik beherako familia-errenta duten etxeetan bizi diren pertsona landunen ehunekoa. 2006an, alde hori 19 puntu portzentualekoa zen, eta 2018an, berriz, 23koa.

Bilakaera dibergentea duen beste adierazle bat –bertakoen eta atzerritarren arteko aldea handitze aldera– **“behar adinako hezkuntza-maila ez lortzea”** da, edo, zehatzago esanda, 25-64 urteko adin-tartean, bigarren hezkuntzako maila lortu ez duten pertsonen ehunekoa.

Zorionez, ehuneko horrek behera egin du bi biztanleria-sektore horietan, baina bertakoen kasuan, % 22,3tik (2006) % 8,3ra (2018) jaitsi zen, eta migratzaileen kasuan, berriz, % 23,3tik %17,5era baino ez zen jaitsi. Hain zuen, adierazle hori ia inolako alderik ez egotetik 9,5 puntu portzentualeko aldea egotera bilakatu zen.

Familia-errentarekin eta hezkuntza-mailarekin lotutako baldintzetan aldeak areagotzeko joera horiek beste batzuekin konpentsatzen dira: batzuetan aldeak ez gora ez behera daude (pobrezia monetarioaren arriskua, pilaketa – etxeetan–, eskola-uzte goiztiarra...), eta beste batzuetan aldeek behera egin dute. Garrantzi handia dutenez, berdintasun handiagoa lortze aldera egiten duten joera horiek aztertuko ditugu. Hain zuzen ere, joera hori ikusten da adierazle hauetan: “etxeke guztiak lanik gabe”, lan-kolokatasuna eta etxebizitza-gastuetarako gainkarga.

“Etxeko guztiak lanik gabe” adierazleak hau neurtzen du: biztanleria aktiboko etxeke guztiak lanik gabe dauden familietan bizi diren pertsonen ehunekoa. 2006an –kontuan hartutako seriearen hasierako urtea–, proportzioa ia berdina zen (% 2,4 bertakoen kasuan, eta % 2,9 immigratzaileen kasuan); 2008ko krisiaren ondorioz, alde horrek gora egin zuen, 6,6 puntu portzentualekoa izan arte 2012an; eta, hortik aurrera, beherantz egin zuen, 3,2 puntukoa izan arte (2018).

Aldean izandako beherakada lineal eta nabarmenagoa da **“lan-kolokatasuna”** adierazlean, **lanaren behin-behinekotasunari** dagokionez. Adierazle horrek haur neurtzen du: etxe batean bizi diren landunetatik, aldi baterako kontratua dutenen ehunekoa. 2006an, biztanle autoktonoen % 10,7 prekarietate-egoera horretan zegoen. Migratzaileen kasuan, berriz, ehuneko hori % 29,7 zen. Beste modu batean esanda, 2006an, hiru migratzailetik batek aldi baterako kontratua zuen. Hamabi urte geroago, 19 puntuko alde hori 8ra jaitsi zen, migratzaileen behin-behinekotasunak “behera egitearen” ondorioz (% 16,8ra). Horrelako datuek hiru irakurketa dituzte, nire ustez osagarriak direnak:

- a. migratutako biztanleriaren sektore horren hobekuntza txikia adierazten du, alderdi zehatz horretan;
- b. kezka garria da gehiengoak, herrialde hartzaileko biztanleriak, alderdi horretan hobekuntzarik ez izatea;
- c. batzuek eta besteek arazo eta erronka berdinak dituztela adierazten du.

Lan-arlotik (lana ez izatea edo aldi baterako izatea) etxebizitzaren esparrura aldatuta, **“etxebizitzarako gastuen gainkarga”** aldagaian, bertakoen eta immigratzaileen arteko aldeak beheranzko joera du. Adierazle horrek honako hau neurtzen du: “etxebizitza-

gastu garbietarako –hau da, etxebizitza-gastuetarako izan daitezkeen laguntzak kenduta– etxeko errenta eskuragarriaren %30tik gora behar duten etxeen ehunekoa” (2020, 7. orrialdea). 2006an, aldea 42 puntukoa zen (% 59,7 immigrazioarekin lotutako etxeetan, eta % 17,6, berriz, migratzaileek gabeko etxeetan); 2018an, berriz, alde hori 32 puntu murriztu zen, migratzaileen sektorean izandako beherakadagatik

4. Migratzaileen egoera okerragoa izate horrek –oro har hartuta, bai eta batezbesteko estatistikoetan ere– amaierako bi gogoeta egitera bultzatzen gaitu. Batetik, inklusio-politiketan asmatu behar da –batez ere, lan-eskubideen eta –baldintzen parekotasunaren arloan–, eta, bestetik, hezkuntza, osasungintza eta, oro har, gizarte-zerbitzuak eta –laguntzak eskuratzea ahalbidetu behar da. Azken gai hori 14. eta 15. puntuetan jorratu dugu, baina hemen aurreratu egingo dugu migratzaileek horretarako eskubidea dutela, pertsonak eta biztanle/hiritar eta kolektibitateko kide berriak direlako.

Inklusio-politika horietan asmatzen ez bada, bertakoen eta migratzaileen arteko aldeak areagotu egingo dira, aztertu ditugun zenbait parametrotan gertatzen ari den moduan. Aldiz, eskubide- eta aukera-berdintasunerako eta kulturarteko bizikidetzarako politika eraginkorrak egiten badira, alde horiek beherantz egingo dute –hala egiten ari dira zenbait esparrutan– eta gizarte-kohesioa lortuko da.

Bestalde, prekarietate- eta zaurgarritasun-egoera handiagoa dela- eta, hasierako galdera egingo dugu berriz: “hain gaizki bizi badira, zergatik geratzen dira?” Denak “hain gaizki bizi” ez direla esan behar dugu berriz, eta galdera horren erantzunerako, kontuan hartu behar da immigratzaileek ez dutela harrera-herrialdeko biztanleen egoerarekin alderaketa egiten, **beren buruarekiko**

alderaketa baizik, hiru norabidetan; hau da, iragana, oraina eta etorkizuna kontuan hartuta:

- a. **jatorriko lurraldean zuten egoera** defizitario eta atsekabea. Hortik ateratzeko, migrazio abenturari ekin zioten;
- b. **gaur egun duten egoera**. Migratzaile gehienak edo, gutxienez, sektore handi bat gauzak lortzen ari dira, hemengo eta hango familientzat; eta,
- c. **etorkizuneko egoera**. Hobera egiteko gogoak eta migrazio-proiektuak etorkizun hobe baten bila bultzatzen dituzte.

Iturriak eta materialak

~akademia

"Vivienda y condiciones de vida de los inmigrantes en España" (Iñaki Iriondoren eta Marta Rahonaren artikulua akademikoa, 2009an argitaratua, Espainiako migratzaileen ostatu-baldintzei buruzkoa, <https://bit.ly/3jzR1V>)

"Calidad de vida en migrantes latinoamericanos y caribeños asentados en Madrid, España"

(Universidad Autónoma del Estado de México unibertsitateko Víctor Hugo Rentería-Pedraza irakaslearen artikulua akademikoa, Espainiako migratzaileen kolektibo baten bizi-baldintzei buruzkoa. 2019an argitaratua Papeles de Población aldizkarian, <https://bit.ly/37fpoMO>)

"Condiciones de trabajo y salud de los trabajadores inmigrantes en España. Revisión bibliográfica"

(Elena Ronda-Pérez, Andrés Agudelo-Suárez, María José López-Jacob, Ana García eta Fernando G. Benavides unibertsitate-irakasleek idatzitako artikulua akademikoa, Espainian bizi diren migratzaileen bizi-baldintzei buruzkoa, <https://bit.ly/3C1ofFn>)

"España y la inmigración extranjera"

(Gloria Lora- Tamayoren artikulua akademikoa, Espainiako immigratzaile atzeritarrei buruzkoa. Artikuluan, migrazio-fluxuei buruzko estatistikak daude, <https://bit.ly/3jiEJ3l>)

"La condición migrante en España. Posiciones básicas en torno a la ciudadanía"

(Carlos Pereda, Miguel Ángel de Prada eta Walter Actis-en artikulua akademikoa, Papeles 2008/2009 aldizkarian argitaratua, Espainian bizi diren migratzaileen egoerari buruzkoa, <https://bit.ly/3iiop3j>)

~gizarte-erakundeak

"¿Cuál es la situación de la migración en España?"

(Ayuda en Acción GKeren webgunean argitaratutako artikulua, 2016ko ekainekoa. Artikuluan, Espainiako migrazioari buruzko datuak daude, <https://bit.ly/3rlcoac>)

"Informe 2021: las personas refugiadas en España y Europa"

(CEAR Comisión Española de Ayuda al Refugiado erakundearen dokumentua. Artikuluan, Espainiako migrazio-egoerari buruzko ikuspegi orokor bat aurkezten da, <https://bit.ly/3BM2bOO>)

~prentsa / komunikabideak

"La ONU condena que España permita condiciones de vida para los trabajadores inmigrantes que no toleraría para los españoles" (elDiario.es egunkariko artikulua, 2020ko uztailean argitaratua. Artikuluan, elkarrizketa egiten zaio NBEko muturreko pobrezia errelatore bereziari, hark Espainia bisitatu ondoren) <https://bit.ly/3ymQpZ3>)

"¿Quién es el inmigrante en España? Una radiografía del "otro" (El País egunkariko artikulua, 2019ko martxokoa, Espainian bizi diren migratzaileen bizi-baldintzei buruzkoa, <https://bit.ly/3xiUyMg>)

"La inmigración da vida a la España vaciada"

(Euronewsen artikulua, 2020ko abuztuan argitaratua, Espainiako landa-eremuetan bizi diren migratzaileen bizi-baldintzei buruzkoa, <https://bit.ly/3C6FhBM>)

"Cómo es ser inmigrante en España: Félix, Lina y Hernán nos lo cuentan"

(La Sexta telebista-kateko artikulua, 2018ko uztailean argitaratua. Artikuluan, Espainian bizi diren migratzaile atzeritarren testigantza pertsonalak eta esperientziak ageri dira, <https://bit.ly/3C6FW6e>)

~txostenak

"La inmigración en España: efectos y oportunidades"

(Espainiako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak argitaratutako txostena, Espainiako migrazioari buruzkoa. Azterketa zehatza egiten da, sektoreka, <https://bit.ly/3eYSzGN>)

"Las condiciones de vida de los hogares inmigrantes en España"

(EAE Business School-en lanerako dokumentua, 2017ko abuztuan argitaratua, Espainiako immigratzaileen bizi-baldintzei buruzkoa, <https://bit.ly/3ynkRIK>)

"El mapa de la inmigración en España"

(El Orden Mundial hedabidean 2021eko martxoan argitaratutako mapa, Espainiara heltzen diren immigratzaileen nazionalitate ohikoenei buruzkoa, <https://bit.ly/3rWgn6A>)

06.

“Immigrazioak delinkuentzia eta segurtasunik eza areagotzea eragiten du”

LANDUTAKO GAIAK

delituak eta delitugileak; segurtasuna eta haren ikuspegia; eragiten duten faktoreak

Abiapuntuko testua ~2003

Espainiako delinkuentziaren gorakadari buruzko parlamentu-erabakidaren ondoren –2002ko apirilean egin zen–, erabakia hau abiatu zen: ea immigrazioa zen delinkuentziaren gorakadaren eragilea edo ez, eta ea faktore erabakigarria zen kaleetako segurtasunik eza. Oposizioaren kritikari erantzuteko –azken urteetan delinkuentziak gora egin zuela salatu zuen oposizioak, gobernuak kontrako agindu bazuen ere–, gobernuak azaldu zuen immigrazioaren gorakadaren ondorioa zela, eta atzerritar presoehuneko handiei buruzko datuak aurkeztu zituen, bai eta ez-nazionalak egindako delituen kopuru handiei buruzko estatistikak ere. Parlamentu-erabakidaren eta erabakia publikoaren hasieran, immigrazioa eta delinkuentzia aipatzen ziren, besterik gabe. Geroago, zorionez, zehaztu zen immigrazio irregularrari buruz ari zirela. Duela gutxi

egindako inkesta batean, adierazi zen hiritarren segurtasunik eza eta immigrazioa direla, hurrenez hurren, espainiarrei gehien kezkatzen dieten hirugarren eta laugarren arazoa, eta espainiarren % 56k delinkuentziaren gorakada immigrazio irregularrekin lotzen dutela.

Benetan dago lotura hori ala ez? Kausa/ondorio erlazio bat al da benetan? Immigrazioaren kudeaketa positiboaren ikuspegitik –immigrazioa ez da arazotzat hartzen, baizik eta aukeratzat–, datuak kezkarriak dira, izatezko errealitate bat adierazi edo ez. Estatistika horiek izatezko errealitate bat adierazten badute –hau da, delitu gehiago daudela immigratzaile irregular gehiago daudelako–, gaia oso larria da. Estatistikak islatzen dutena –guk hala uste dugu– pertzepzio bat baldin bada, eta ez izatezko errealitate bat, immigrazioaren irudi negatiboa –eta bidegabekoa– adierazten da, eta horrek gizarte-integrazio prozesua zaildu eta galarazi ere egiten du.

Gizarte jakin batean dauden jarrerak, eta zehazki immigrazioa onartzeko edo gaitzesteko jarrerak, zerikusia dute jendearen zuzeneko esperientziarekin (norbaitek immigratzaile irregular baten eraso izan badu edo erasotutako norbait ezagutzen badu), batetik, eta botere-posizioetan daudenek, indar politikoek, hedabideek eta beste iritzi-eragileek “argitaratutako eta sortutako iritziarekin”, bestetik. Gobernuaren kanpainaren eragina handia izan da, eta hor, ez gaude biztanleriak izandako sentimenduen edo pertzepzioen aurrean –10. eta 11. iruzkinetan lanari eta enpleguari buruz aztertutako alderdietan, edota 14. eta 15. iruzkinetan gizarte-laguntzei buruz aztertutakoetan, bai, hor biztanleriaren sentimenduak eta pertzepzioak hartu dira kontuan–. Aldiz, oraingo hau gobernu ingurunean sortutako tesi bat da, iritzi publikoan errotu dena. Espainian behintzat, immigrazioa ez da delinkuentziak eta segurtasunik ezak gora egitearen arrazoi

nagusia. Elkarren artean zerikusirik ez duten errealitate sozialeko alderdiak lotzea da akatsa. Arazoa ondoz ondoko lau ardatzen arabera aztertuko dugu.

Lehenik eta behin, immigratzaile irregular delitugileak eta atzerritarren delinkuentzia erabat bereizi behar dira.

Gauza bat da lan egitera etorri den norbaitek delitu bat egitea eta beste gauza bat da nazioarteko delinkuentzia. Nahastea zenbait lider politikok, agintarik, arduradunek edo kazetarik gauzak nahasi eta zaku berean sartzen dituztenean sortzen da, ez baita berdina, adibidez, latinoamerikar, errusiar edo Saharaz hegoaldeko herrialderen bateko hiritar batek, Espainian egoitza- eta lan-baimenak izanda, bost urtez bizi ondoren delituren bat egitea, eta mafia edo talde kriminal batean dabilen atzerritar bat lapurreta bat, legez kanpoko negozio bat edo hilketa bat egitera etortzea. Zergatik nahasten da hori? Zer helburu lortu nahi da horrela?

Nazioarteko delitugileak alde batera utzi, eta biztanle atzerritarrak soilik kontuan hartzen baditugu, egokia da adierazitako bereizketa gogoratzea (atzerritarrak, batetik, eta immigratzaileak, bestetik), biztanle atzerritar guztiak ez baitira immigratzaileak, lanera etorri direnak edo pertsona horien senideak direnak soilik baitira immigratzaileak. Bidegabekoa da immigratzaileak ez diren atzerritar biztanleek egindako delituak edo faltak immigrazioari leporatzea. Hala, interesatzen zaigun kolektiboa aztertzeari helduko diogu: immigratzaile atzerritarrak direnak (lan egiteko edo beren senideei lagun egiteko etorritako horiek) eta benetan delituren bat egin dutenak. Nahaste horretan, halaber, ez da bidezkoa denbora-tarte jakin batean egindako delituak eta faltak estatistiketan bereizi gabe zenbatzea. Alde horretatik, jabetzaren aurkako delituak (lapurretak, ebasketak, tiraldiak; zalantzarik gabe,

eragin kaltegarria dute biktimentzat eta haserrea sortzen dute) merkataritzaren arloko arau-hausteeekin (mantero gisa aritzea eta kalean baimenik gabe saltzea) eta, batez ere, dokumentazio faltarekin –erraz uler daitekeenez, ez dute zuzeneko kalte fisikorik eragiten eta ez dute segurtasunik eza sortzen kalean-zenbatzen dira. Berriz, zalantzak sortzen zaizkigu: Zergatik nahasten da dena? Zer lortu nahi da horren bidez?

Arazoaren muinari heltzen badiogu –hau da, pertsonentzako kalteak sortu dituzten delituak benetan egin dituzten atzerritar immigratzaileak-, zentzuzkoa da puntu hauek kontuan hartzea:

- a. delitugileak diren neurrian, atxilotu, epaitu, zigortu eta birgaitu behar dira (gure sistema judizialaren oinarrien arabera), beste edozein arau-hausterekin egiten den moduan;
- b. denak ez dira berrerorleak, ezta delinkuentzia antolatuko talde edo jokabideekin lotutako pertsonak ere;
- c. gutxiengo txikia dira immigrazioaren multzo osoaren barruan (beraz, zergatik egiten zaio hain kalte handia eta izaten zaio errespetu falta hori immigratzaileen gehiengoari?);
- d. ez dira delinkuentziaren gorakadaren eragile nagusiak ezta horren kausa ere; eta
- e. inor errugabetzen saiatu gabe, etorkizunari begira, hau da kontuan hartu beharrekoa: zergatik egin zuten delituren bat (edo zergatik bihurtu diren immigratzaile batzuk delitugile), lan egiteko etorri baitziren, eta, beraz, zer akats egon daitezkeen gizarte-integratzearako politiketan eta zer prebentzio-elementu sartu behar diren. Delinkuentziari dagokionez, berdintasunezko tratua ematearen eta pertzepzio zintzoa izatearen beharra azpimarratzea oso lan-ildo lagungarria izan daiteke.

Nolanahi ere, gai horretan aurrera egitearen funtsa ez da kriminalitatearen eta segurtasunik ezaren gorakadaren turko-buru bat aurkitzea, ezta gastu publikoa murriztea ere, politika kontserbadore neoliberalen parte gisa. Oso jokabide erraza (eta bidegabea, koldarra eta arduragabea) da

immigrazioari kalte guztien errua leporatzea. Kopla-burukoa edo turko-burukoa seinalatzearen mekanismo ezaguna da, besteari erru guztia leporatzea. Hori ez da kaltegarria immigratzaileentzat bakarrik, gizarte osoarentzat da kaltegarria, eta gainera, gure izena zikindu egiten dugu horrela.

Arrazoiketaren laburpena

~2003

- 01 Pertzepzio** bat da, izatezko errealitate bat baino gehiago.
- 02 Irudi negatiboa –eta bidegabea–** da, eta gizarte-integrariorako prozesua zaildu eta galarazi ere egiten du.
- 03** Espainian behintzat, immigrazioa **ez da** delinkuentziak eta segurtasunik ezak gora egitearen **arrazoi nagusia**.
- 04** Estatistikak aztertzean, ez dira honako hauek nahasi behar: 1) nazioarteko delinkuentzia eta migratzaileek egindako delituak, 2) **delituak** (pertsonek edo jabetzen aurka) eta **faltak** (merkataritza-urraketak, dokumentazio-faltak)

Eguneraketa

~2023

Segurtasunik ezaren/delinkuentziaren eta immigrazioaren aurkako loturari buruz idatzi genuenetik igarotako bi hamarkadetan, gaia, apaldu beharrean, berotu eta intentsifikatu egin da. Baina hori ez da gertatu Espainian segurtasunik ezak/delinkuentziak izugarri gora egin duelako, ezta migratzaileek egindako delituen proportzioa handiagoa delako (hala erakutsiko dugu estatistiken bidez). Segurtasunik eza *versus* immigrazioa gaiak eztabaida publikoan presentzia handiagoa izatearen arrazoi nabarmena

da jarrera politiko batzuen aldekoek behin eta berriz planteatzen dutela.

1. Besteak beste, gogora dezagun, adibide gisa, Alderdi Popularreko hautagaiak Badalonako udal-hauteskundeetan egindako kanpaina. Kanpaina horretan kaleratutako bideo batean, udalerriko segurtasunik eza immigrazioarekin lotzen zen zuzenean. Hona hemen beste adibide bat. Oraingoan, ez da bideo bat, baizik eta zifra faltsuak. 2021eko urtarrilaren 28an, *Twitter* plataformak Vox alderdiaren kontuaren funtzionalitateak

murriztu zituen, gorrotarako bide ematen zela pentsatu baitzuten; izan ere, "inportatutako delinkuentzia" terminoa erabili zen alderdiak argitaratutako txio batean. Txio hori VOX alderdiak Kataluniako hauteskundeetarako egindako kanpainaren parte zen (*#StopIslamización*), eta migrazioari eta delituei buruzko datu faltsuak eman ziren: txio horretan, esan zuten magrebtar immigratzaileak "[biztanleriaren] % 0,2 zirela eta salaketan % 93ren erantzule zirela".

Horren harira *verificartve* plataforman agertutako artikuluan, adierazi zuten Kataluniako Estatistika Institutuko datuek "oso datu desberdinak erakusten zituztela biztanleriari eta delituei dagokienez". Hain zuzen, 2019ko udal-eroldaren arabera, Kataluniako biztanleriaren %15ek zuen atzerritar nazionalitatea, eta Magrebeko herrialdeetakoak % 3 ziren. "Estatistika Institutu Nazionalak Katalunian erregistratutako delituei dagokienez, %56 espainiar nazionalitateko delitugileek egindakoak ziren, eta **% 13, berriz, Afrikako herrialdeetako nazionalitatea zuten delitugileek egindakoak**; beraz, VOXek adierazitako bi baieztapenak faltsuak dira". Hau gehitu zen *verificartve* plataformako artikuluan: "Vox-ek lehenago ere erabili ditu datu horiek (% 0,2 eta % 93); izan ere Voxen taldeko pertsona batek lehenago argitaratutako bi txiotan ageri ziren (**2020ko ekainean eta 2021eko urtarrilaren 24an**)."

2. Behin eta berriz gertatzen ari denaren erakusle bat baino ez da. Hori bai, eztabaida politiko eta publikoaren esparruan egiten diren esajerazio, faltsukeria eta manipulazio horien salaketa egin behar da, noski, baina horrek ez du galarazi behar atzerritarrek egindako delituen zenbakizko pisu adierazgarria identifikatzea, kezka handiz. Oro har eta batezbesteko estatistikoaren arabera, pisu demografikoaren arabera legokiekeena baino handiagoa da –orain aztertuko dugu hori–.

Lehenbizi, Espainian egindako delitu guztien bilakaera ikusiko dugu, eta, gero, xehetasun handiagoz, pertsonen aurkako delituak (hilketak, erasoak, etab.) eta jabetzaren aurkako delituak (lapurretak, ebasketak, etab.) aztertuko ditugu. Multzorietako bakoitzean, honako hauek kontuan hartu behar dira:

1. espainiarren
 - a. EBko nazionalitatea duten biztanleen
 - b. eta EBtik kanpoko biztanleen
 - c. pisu proportzionala, eta
2. hiru azpitalde horietako bakoitzean, delituak egin dituztenen ehunekoak.
3. 2013an, 273.070 delitu izan ziren guztira, eta 2020an, berriz, 304.630. 2013tik 2019ra, gora egin zuten, eta 2020an, pandemiaren urtean, asko jaitsi ziren. Egia da gorakada dagoela, zoritxarrez, baina **gorakada arina da, eta ezin da, inola ere, "segurtasunik ezako krisi" bat dagoela edo "herrialdean askoz delinkuentzia gehiago" dagoela esan.** Hori egitea ez dator bat kaleko eta zenbakiek adierazitako errealitatearekin, zerbait demagogikoa da, arduragabea, asmo txarrekoa eta gizarte-kohesiorako kaltegarria. Bestalde, gorakada arina da, Espainiako biztanleriak ere gora egin zuen aldi batean, eta 2008an hasitako krisiaren ondorio sozialak oraindik irauten ari zirela.

Migratio

4. taula. Delituen bilakaera Espainian. Guztizko datuak eta nazionalitateen arabera ehunekoak

Urtea	Guztizko datuak	Espainiarrak %	EBkoak Espainia gabe %	EBtik kanpokoak %
2013	273.070	76,02	7,65	16,33
2014	275.490	77,37	7,48	15,15
2015	285.746	77,64	7,68	14,68
2016	360.913	77,79	7,99	14,23
2017	389.317	78,01	7,83	14,16
2018	400.405	76,90	8,37	14,73
2019	404.906	75,97	8,16	15,87
2020	304.630	76,32	6,67	17,01

Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

* Europar Batasunetik kanpoko nazionalitateetan, amerikarrak, afrikarrak, asiarrak eta ozeaniarrak sartzen dira.

Biztanle atzerritarrek egindako delituen proportzioari dagokienez, Europar Batasunekoek eta EBtik kanpokoek egindako delituak batuta, tartearen % 22tik % 24ra bitartekoa da. Ehuneko hori adierazgarria eta kezagarria da, biztanle-multzorik horien pisu demografikoari

dagokiona baino askoz handiagoa baita (Espainiako guztizko biztanleriaren % 12 inguru dira). Zenbait azterketaren arabera, horren azalpena –baina ez justifikazioa– da immigratzaileen sektore batzuen pobrezia- eta marjinaltasun-egoeran daudela.

5. taula. Espainiako delituei buruzko datu globalak. Azpitalde bakoitzeko biztanleriaren proportzioaren arabera ehunekoak

Urtea	Guztizko datuak	Espainiarrak %	EBkoak Espainia gabe %	EBtik kanpokoak %
2013	273.070	0,52	1,18	1,65
2014	275.490	0,53	1,21	1,79
2015	285.746	0,55	1,31	1,87
2016	360.913	0,70	1,75	2,33
2017	389.317	0,76	1,88	2,43
2018	400.405	0,77	2,08	2,40
2019	404.906	0,77	2	2,34
2020	304.630	0,59	1,48	1,72

Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

* Europar Batasunetik kanpoko nazionalitateetan, amerikarrak, afrikarrak, asiarrak eta ozeaniarrak sartzen dira

Halaber, garrantzitsua da arau-
hausleen ehunekoa kalkulatzeko haien
azpitaldearen guztizkoarekiko. Espainiarren
kasuan, tarte hori % 0,52tik (gutxienekoa)
% 0,77ra (gehienekoa) bitartekoa da; hau
da, espainiarren % 1ek baino gutxiagok
egiten dituzten delituak. Europar Batasuneko
hiritarren kasuan, adierazle hori zertxobait
igotzen da, tarte % 1,18tik % 2ra bitartekoa
baita, eta EBtik kanpoko hiritarren kasuan,
berriz, zertxobait handiagoa da (%1,65etik
% 2,40ra).

Beste behin, adierazle hori kezagarria
da, baina kontuan hartu behar da
hau esan nahi duela: EBtik kanpoko
immigratzaileen % 1ek edo 2ak soilik egin
duela delituren bat. Beste modu batean
esanda, **immigratzaileen % 98k edo
%99k ez du inoiz deliturik egin.** Eztabaida
publikoan “immigrazioa” “delinkuentziaren
gorakadaren” kausatzat aurkezten
saiatzea zerbait faltsua, estigmatizatzailea,
xenofobia eta arduragabea da.

4. Guztizko delitu-kopuruen azterketa egin on-
doren, azterketa zehatzagoa egingo dugu,
delitu-motaren arabera, honako hauek
bereizita: pertsonen segurtasunaren aur-
kako delituak (hilketak, etab.) eta jabetzaren
aurkako delituak (lapurreta, etab.).

Pertsonen osotasun fisikoaren aurkako delituei dagokienez, haien kopuruak gora egin zuen 2013tik 2019ra, eta horiek ere asko jaitsi ziren 2020an, pandemiaren urtean. Hor, atzerritarrek egindako delituen proportzioa pixka bat jaisten da: guztizko delituetan, tarte %22tik % 24ra bitartekoa zen, eta honako hauetan, berriz, tarte %15etik %18ra bitartekoa da (nolanahi ere, pisu demografikoaren arabera legokiekeen intzidentzia baino handiagoa da). Eta ehunekotan, EBtik kanpoko multzoan, %0,30etik %0,59ra bitartekoa izan zen. Horrenbestez, **Europar Batasunetik kanpoko immigratzaileen % 1ek egin zituen pertsonen aurkako delituak** edo, bestela esanda, **immigratzaile horien %99,5ek baino gehiagok ez zuen horrelako deliturik egin.**

6. taula. Pertsonen segurtasunaren aurkako delituak. Guztizko datuak eta nazionalitateen arabeko ehunekoak

Urtea	Guztizko datuak	Espainiarrak %	EBkoak Espainia gabe %	EBtik kanpokoak %
2013	54.041	78,19	6,74	15,07
2014	55.479	79,67	6,47	13,87
2015	61.937	79,72	6,78	13,50
2016	90.762	80,58	6,47	12,95
2017	105.493	81,02	6,25	12,72
2018	108.819	80,15	6,54	13,31
2019	111.363	79,30	6,39	14,31
2020	86.576	78,68	5,54	15,78

Iturria: Estadística Instituto Nazionale

* Europar Batasunetik kanpoko nazionalitateetan, amerikarrak, afrikarrak, asiarrak eta ozeaniarrak sartzen dira

Migratio

7. taula. Pertsonen segurtasunaren aurkako delituak. Azpitalde bakoitzeko biztanleriaren proportzioaren arabera ehunekoak

Iturria: Estadística Instituto Nacionala

Urtea	Guztizko datuak	Espainiarrak %	EBkoak Espainia gabe %	EBtik kanpokoak %
2013	54.041	0,11	0,21	0,30
2014	55.479	0,11	0,21	0,33
2015	61.937	0,12	0,25	0,37
2016	90.762	0,18	0,36	0,53
2017	105.493	0,21	0,41	0,59
2018	108.819	0,22	0,44	0,59
2019	111.363	0,22	0,43	0,58
2020	86.576	0,17	0,35	0,45

* Europar Batasunetik kanpoko nazionalitateetan, amerikarrak, afrikarrak, asiarrak eta ozeaniarrak sartzen dira

Jabetzaren aurkako delituei dagokienez, horiek ere gora egin zuten aztertzen ari garen zortzi urteko aldi horretan: 2013tik 2015era, oso gutxi; 2017an eta 2018an, dezente gehiago; 2019an, pixka bat jaitsi ziren, eta 2020an, berriz, asko, pandemiak eragindako konfinamendu-egoeraren eta murrizketen ondorioz, segur aski.

Hor, atzeritarrek egindako delituen proportzioa pixka bat jaisten da: guztizko delituetan, tartea % 22tik % 24ra bitartekoa zen, eta honako hauetan, berriz, tartea % 15etik % 18ra bitartekoa da (2017. urtean izan ezik, serieko zifra anomaloa izan baitzen).

Eta EBtik kanpoko multzoan % 1,23tik % 1,75era bitartekoa izan zen (2017an izan ezik, lehen esan bezala). Beraz, gutxiengoari erreparatzen badiogu, **Europar Batasunetik kanpoko immigratzaileen % 2k baino gutxiagok egin zituzten jabetzaren aurkako delituak** edo, gehiengoari erreparatuta esaten bada, **%98k baino gehiagok ez zuten deliturik egin.**

8. taula. Jabetzaren aurkako delituak. Guztizko datuak eta nazionalitateen arabera ehunekoak

Iturria: Estadística Instituto Nacionala

Urtea	Guztizko datuak	Espainiarrak %	EBkoak Espainia gabe %	EBtik kanpokoak %
2013	209.196	75,78	7,20	17,02
2014	210.476	77,13	7,04	15,84
2015	213.376	77,48	7,21	15,31
2016	258.389	77,15	7,90	14,95
2017	365.458	57,44	5,81	36,75
2018	289.509	73,39	8,21	18,40
2019	281.044	75,01	8,26	16,73
2020	240.346	78,85	5,70	15,45

* Europar Batasunetik kanpoko nazionalitateetan, amerikarrak, afrikarrak, asiarrak eta ozeaniarrak sartzen dira

9. taula. Jabetzaren aurkako delituak. Azpitalde bakoitzeko biztanleriaren proportzioaren arabeko ehunekoak

Urtea	Guztizko datuak	Espainiarrak %	EBkoak Espainia gabe %	EBtik kanpokoak %
2013	209.196	0,40	0,85	1,31
2014	210.476	0,40	0,87	1,43
2015	213.376	0,41	0,92	1,46
2016	258.389	0,50	1,24	1,75
2017	365.458	0,53	1,31	5,91
2018	289.509	0,53	1,47	2,17
2019	281.044	0,53	1,41	1,71
2020	240.346	0,48	1	1,23

Iturria: Estadística Instituto Nacionala

* Europar Batasunetik kanpoko nazionalitateetan, amerikarrak, afrikarrak, asiarrak eta ozeaniarrak sartzen dira

5. Segurtasunik ezaren eta delinkuentziaren gorakada esponentzialari buruzko faltsukeriak gezurtatu ondoren –gorakada hori “immigrazioak” eragindakoa dela ere gezurtatuta–, eta, aldi berean, delituak migratutako biztanlerian duen intzidentzia nabarmenagatikoz kezka azaldu ondoren, egokia da zenbait ñabardura egitea, bai eta amaierako gogoeta bat egitea, horren guztiaren kausei buruz.

Ñabardurei dagokienez, 2003an jada egindakoak gogoratuko ditugu. Batetik, ez dira nazioarteko delinkuentzia eta migratzaileek egindako delituak nahasi behar, edo, beste modu batean esanda, iturriak berrikustean eta interpretatzean, **kontuan hartu behar da estatistika horietan “atzerritar” kategorian, immigrazioarekin zerikusirik ez duten pertsonak zenbatzen direla.**

Bestetik, ez dira nahasi behar berezko **delituak** (pertsonek, jabetzen eta abarren aurkakoak) eta **faltak** (merkataritzaren arloko arau-hausteak, dokumentazio faltak). Beste ñabardura bat gehituko dugu, zenbaitek egiten ari direna: **adin-tarteen arabeko alderaketa egin beharko litzateke;** izan ere, biztanleria immigratzailea autoktonoa baino askoz gazteagoa da, eta biztanleria guztira alderatzea ez da erabat adierazgarria, eta baliteke hori izatea atzerritarrek delituen proportzioan ehuneko handiagoak izatearen kausetako bat.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar delituen eta migratzaileen arteko benetako lotura horrek –delituen bat egin dutenak gutxiengo izanda ere– zerikusia duela, biztanleria autoktonoaren kasuan bezala, gizarteko zenbait sektore pobrezia-, eskulio- eta marjinaltasun-egoeran egotearekin.

Nolanahi ere, baliteke azalpen hori nahikoa ez izatea gizarte-sektore askorentzat, migrazioen aldeko batzuk ere barne hartuta. Horren arrazoia da zenbait delituk, hala nola sakelako telefonoen, diru-zorroen, bizikleten eta beste gauza batzuen lapurretak oso gogaikarriak direla. Beste sektore batzuek horrelako delituak manipulatu egiten dituzte, migrazioaren aurkako diskurtso estigmatizatzaileak eta xenofoboak eratzeko. Eta, askotan, jatorri bereko pertsona eta erakundeek egindako “eskularru zuriko” delituen aurrean, berriz, ez ikusiarena egiten dute.

Ezin dira delinkuentzia-mota horrek sortutako eragozpenak minimizatu, horrelakoak egiten dituztenen prekarietate- eta zaurgarritasun-egoera argudiatuta. Baina delituak jatorri edo kultura-jokabide jakin batzuekin lotzea, hori bai, hori eragotz dezakegu; izan ere, zoritxarrez, ebasketak zerbait unibertetsala dira. **Delituak egitea pertsonen gauza da, ez kulturena.**

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

"Lo que las estadísticas nos dicen sobre inmigración y crimen en EE.UU." (CNNren artikulua, 2019ko urtarrilean argitaratua, migrazioarekin eta segurtasunarekin lotutako estatistikei buruzkoa, <https://cnn.it/3C8VRRJ>)

"Inmigración y delincuencia: ojo a estos datos falsos" (RTVE telebista-kateak argitaratutako artikulua, 2019koa, Kataluniako hauteskundearen harira. Hor, VOX alderdi politikoak zabaldutako zurrumuru nagusiak gezurtatzen dira, <https://bit.ly/3x5BrVO>)

"Tres gráficos para entender si es verdad que los extranjeros cometen más delitos sexuales" (El Confidencial egunkariko artikulua, 2019ko abuztuan argitaratua, migrazioaren eta sexu-delituen arteko ustezko loturari buruzkoa, <https://bit.ly/3lqoHaf>)

"Lo que dicen los datos sobre el supuesto vínculo entre inmigración y delincuencia agitado por Vox en campaña" (El Diario egunkariko artikulua, 2019an argitaratua. Hor, Vox alderdi politikoak immigrazioari buruz egindako adierazpenei erantzuten zaie, <https://bit.ly/3i2RZcJ>)

"Las estadísticas de la UE sobre inmigración y delincuencia desmienten a Trump" (EFE agentziaren artikulua, 2018ko ekainean argitaratua, Donald Trumpek migrazioari eta delinkuentziari buruz zabaldutako zurrumuruaren harira, <https://bit.ly/3jLYAPf>)

"Delincuencia y migración: mitos y realidades" (Espacio Público plataformako artikulua, delinkuentziaren eta migrazioaren arteko loturaren inguruko mitoei eta errealtateei buruzkoa, <https://bit.ly/3xjrep6>)

"Tres de cada cuatro delitos en España son cometidos por españoles" (El Periódico egunkariko artikulua 2019an argitaratua. Hor, espainiarrek eta atzerriarrek egindako delituei buruzko estatistikak ageri dira, <https://bit.ly/2VgENZa>)

"¿La inmigración aumenta el crimen? Esto dicen los datos al respecto" (CNNren artikulua, 2018ko azaroan argitaratua, Estatu Batuetako delitu-estatistikei eta migrazioek estatistika horietan duten inpaktuari buruzkoa, <https://cnn.it/3jkBFDB>)

"La delincuencia y la inmigración: dos fenómenos sin relación" (El Diario egunkariko artikulua, 2018ko otsailean argitaratua, immigrazioaren eta delinkuentziaren arteko loturari buruzkoa, <https://bit.ly/3s31rAB>)

~akademia

"Inmigrantes venezolanos, crimen y percepciones falsas" (Artikulu akademikoa, Kolonbian, Perun eta Txilen Venezuelako immigratzaileei buruz duten pertzepzioaren harira, <https://bit.ly/3ymZhhq>)

"Inmigración irregular y crimen organizado en España" (Instituto Universitario de Investigación sobre Seguridad Interior institutuko Mauricio Rubio ikertzaileak idatzitako artikulua akademikoa, Espainian immigrazioari buruz dagoen pertzepzioaren harira, <https://bit.ly/2VagSOx>)

"Comparing crime rates between undocumented immigrants, legal immigrants, and native-born US citizens in Texas" (Princetoneko Unibertsitateko Michael T. Light, Jingying He eta Jason P. Robey irakasleek Texasako delitu-estatistikei buruz idatzitako artikulua akademikoa, <https://bit.ly/3lpYBnH>)

~txostenak

"Migración, seguridad y crimen: Estudio confirma que extranjeros no encabezan delitos" (Servicio Jesuita a Migrantes de Chile erakundearen blegean argitaratutako dokumentua, immigrazioaren eta segurtasunaren arteko loturari buruzko azterketa baten harira, <https://bit.ly/2TWenLu>)

~estatistikak

"Delitos según nacionalidad" (Estatistika Institutu Nazionalak emandako datuak. Herrialde bakoitzeko hiritarrek Espainian egindako delituak xehatzen dira, <https://bit.ly/3kSsVXX>)

07.

“Immigrazioa identitate nazionalerako mehatxua da”

LANDUTAKO GAIAK

identitate kolektiboak, identitate nazionalak; identitateak immigrazioan, beldur-sentimendua

Abiapuntuko testua ~2003

Zenbaitek immigratzaile atzerritarrek leku batera iristeak eta bertan kokatzeak leku horretako identitatea eta izaera aldatu edo hautsi dezakeelako kezka adierazten dute. Oro har, argudio hau baliatzen dute beldur hori azaltzeko: kanpotarrek beren kulturak, hizkuntzak eta erlijioak dituztela, eta horren ondorioz, ez dituztela harrera-gizarteko balioak, sinboloak eta sentimenduak bereganatuko eta bereari eusten saiatuko direla, eta, batzuen esanetan, balio, sinbolo eta sentimendu horiek inposatu ere egingo dituztela. “Horra hor meskita horiek, emakumeak goitik behera estalita, nesken zapiak eta gure izaerarekin zerikusirik ez duten ohitura horiek”.

Pentsamolde hori zenbait politikarik eta intelektualek sustatzen dute, edota sortu ere bai. Politikari dagokionez, espektroa nahiko zabala da. Batetik, Europako arrazakeria berriaren* politikari nabarmenenak daude, hala nola Le Pen, Haider, Bossi edo Fortuyn

–zorigaitoz erail zuten– eta haien alderdiak. Immigrazioaren aurkako diskurtsoan, mehatxatutako identitate nazionalaren formula politikoa baliatzen dute. Aldian behin, lider nazionalistek ere adierazten dute identitate eta izaera nazionala galdu edo desitxuratzeko arriskuaren argudioa. Espainian, horren adibide nabarmenetako bat Esquerra Republicana de Catalunya alderdiko Heribert Herrera politikari betereoaren adierazpenak izan ziren, edota Jordi Pujol Generalitateko presidentearen emazte Marta Ferrusolak egindakoak ere, musulmanen presentziak Katalunian eragiten zuen arriskuari buruz. Beste kultura batzuek identitate nazionalerako ekar zitzaketen arriskuen aurkako defentsaren testuinguru horretan sar daitezke Aznarrek multikulturalismoari eta “ghetto kulturei” buruz egindako aipamen kritikoak. Aipamen horiek multikulturalismoaren aurkako zenbait saiakera plazaratzearekin batera izan ziren.

Izan ere, immigrazioaren mehatxuaren aurkako argudiaketa politikoa gizarte-zientzietako testuen hedapenarekin sendotu da. Horietatik, agian, Giovanni Sartoriren *La sociedad multiétnica* (2000) lanak izan du oihartzun handiena. Sartoriren ustez, multikulturalismoa gizarte plural eta ireki baten kontrako zerbait da, multikulturalismoak gizartea elkarren artean loturarik ez duten talde kultural itxitan zatikatzen duelako. Hori aintzat hartuta, Sartorik argudiatzen du zenbait kultura integratzeak direla (9. iruzkinean helduko diogu gai horri), Europako gizartearen kultura demokratiko eta pluralistarekin talka egiten duten printzipio eta jardunbideak dituztelako (erlijioaren nagusitasuna, ablazioa, etab.). Espainian, Sartoriren lanaren inguruko eztabaidaren ostean, Immigratzaileen. Gizarte Integrazioarako Foroaren presidente Mikel Azurmendik egindako adierazpenak sortutako polemika izan zen, “multikulturalismoa gizartearen gangrena” zela esan baitzuen.

Hitz-tarte txiki bat Espainiako kasuari buruz: bitxia da kanpoko kulturek bertako identitatean eragin kaltegarriak izateko arriskua orain aipatzea, herrialde pobregoetako immigratzaileak iristean, baina ezer ez esatea milaka eta milaka frantziar, ingeles, aleman edo suediar kostaldeko udalerrietara bizitzera etorri zirenean. Migrazioaren auziarekin oso sarritan gertatzen den bezala, mehatxatutako identitate nazionalaren inguruan horrelako erreakzioa izateak gehiago esaten digu autoktonoei buruz, atzerritarrei buruz baino, gehiago islatzen dizkigute atsekabetu edo beldurtu egiten denaren etxeko gorabeherak, kanpokoek dakartzaten mehatxuak edo estrategiak baino. Beldurraren pertzepzio horren sorrera ulertzeko, ez da ahaztu behar mehatxatutzat jotzen den identitate nazional hori aldaketa sakoneko prozesuan dagoen zerbait dela. Immigratzaileak hartzen ari diren gizarteak aldaketa sakonak izaten ari dira: batetik, estatu nazionalen berriraketa gertatzen ari delako, eraikitze-prozesuan dagoen Europar Batasunean; eta, bestetik, egoera eta prozesu berriak gertatzen ari direlako familia-egituretan, sexu-orientazioetan, bikote-motetan, eskolako portaeretan eta abarretan.

Nolanahi ere, kulturak eta identitateak ez dira migrazio-bolada batek desagerrarazi ahal izateko bezain ahulak. Benetan uste al dute Barrerak eta Ferrusolak, adibidez, Katalunian kokatutako magrebtarrek identitate katalana arriskuan jarriko dutela? Izan ere, identitate horrek indar handia du eta gorantz egiten ari da, Espainiako milioika immigratzaile ere integratu ditu lehenago, eta mila urteko historia du eta hainbat eta hainbat egokitzapen egin ditu jada. Ez dugu ahaztu behar, halaber, orain hartzaileak diren lurraldeen identitateak immigrazioaren bidez ere eratu direla. Hori agerikoa da Euskadin, Galizian edo Kanarrietan, bai eta Katalunian ere.

Historian identitate nazionalen bat eraldatu edo hautsi denean, ez da langileek eta beren familiek lan-arrazoiengatik egindako immigrazioaren ondorioz, baizik eta inbasioen ondorioz (hori bai), herrialde, eskualde edo kontinente oso baten konkista militarra eta kolonizazio ekonomiko, politiko eta ideologikoa egin denean, eta hain zuzen ere, europarrek gauzatu dituzte horrelako prozesuak hainbat eta hainbat aldiz. Are gehiago: mende asko iraun duten inbasioen, mestizajeen eta berrantolamenduen kasu horietan ere, erresistentzia kulturala miresgarria izan da, hala nola Latinoamerikako kultura eta herri indigenen erresistentzia.

Komeni da gogoratzea migrazio-prozesuan gerta daitekeen eraldaketa kultural handiena migratzaileek eta beren familiek izaten dutena dela, herrialde hartzaile batera egokitzen baitira, beharrak, konbentzimenduak edo batak zein besteak bultzatuta.

Arrazoiketaren laburpena

~2003

- 01 Funtsezko baieztapena eta posizioa da **Europako arrazakeria berrian**.
- 02 **Beldur**-sentimenduan oinarritutako pertzepzioa da.
- 03 Beldur hori ulertzeko, komeni da ez ahaztea, besteak beste, gizarte hartzaileak **aldaketa sakonak** izaten ari direla (eta ez daudela lotuta immigrazioaren fenomenoarekin).
- 04 Kulturak eta identitateak **ez dira** migrazio-bolada batek desagerrarazi ahal izateko **bezain ahulak**; historian badaude erresistentzia kultural handiko adibideak, inbasio-, mestizaje- eta berrantolamendu-egoeretan.
- 05 Orain hartzaileak diren lurraldeetako gizarteak eta identitateak, **immigrazioaren ekarpenen bidez ere eratu dira** (Euskadi, Katalunia, etab.).
- 06 Identitate-aldaketa eta -haustura prozesuak **ez dituzte migrazioek eragin**, baizik eta konkista militarreko eta kolonizazio ekonomiko, politiko eta ideologikoko prozesuak.
- 07 Migrazio-prozesuak eragiten duen eraldaketa kultural handiena **migratzaileek berek eta beren familiek izaten dutena da**.

Eguneraketa

~2023

Aurreko iruzkineko gaia bezala, gai honen presentzia areagotu egin da orain eztabaida publikoan. Eta segurtasunik ezaren / immigrazioaren kasuan gertatzen ari den moduan, kasu honetan ere areagotze hori ez da gertatu migratzaileen kolektiboek "identitate nazionala mehatxatu" dutelako; esaterako, ohitura eta usadio tradizionalak ez errespetatuz, ikur nazionalai, hala nola banderari edo himnoari, errespetu falta izanez, edo gaztelania eta hizkuntza koofizialak ikasteari uko eginez. Hau da gaiaren presentziaren areagotze horren arrazoi nagusia, beste behin: populismo ultrakontserbadoreek eta eskuin-muturrekoek gero eta gehiago erabiltzen dutela izenburuko baieztapena, immigrazioaren aurka egiten dituzten diskurtso eta jardunbideetan.

1. Horrela pentsatzen dutenek, agian, zentralismo indartsua eta homogeneotasun-nahia duen Espainia dute buruan -beren gogoan edo proiektu politikoan-. Baina Espainia hori jada gainditu dute Konstituzioak, autonomia-estatutuek eta haiek garatzeko legeek eta, batez ere, pentsamoldeen bilakaerak. Hau da geroago aipatzen diren azterketetako baten ondorioa: "Espainiako gizarteak jada identitate kolektibo txikiagoa eta aurreiritzi gutxiago ditu, eta kosmopolitagoa da" (González Enrique, 2016), Komentatzen ari garen esaldia berriz kontuan hartzen badugu -**"immigrazioa identitate nazionalerako mehatxua da"**- eta gaur egungo ikuspegitik aztertzen badugu, dagoen informazioan eta literaturan oinarrituta, ikusiko dugu ekuazio horren terminoak berak - immigrazioa *versus*

identitate nazionala– eta haien artean ezarritako lotura eutsiezinak direla hau da, mehatxua edo immigrazioa identitate-galeraren faktore edo kausa gisa. Izan ere, baieztapenaren bi terminoak gaizki planteatuta daude: “immigrazioa”, oso askotarikoa izan daitekeelako, eta “identitate nazionala” zer den argi ez dagoelako eta estatikoa ez delako.

2. Duela jada denbora–puska bat, Sami Nair-ek (2001) adierazi zuen ez zela immigrazioa politizatu behar, ezta identitate–arazo bihurtu behar ere. Ildo horretatik, hasierako bi gogoeta egin nahi ditut: bat, makroegiturazkoa, migrazio–fenomenoari buruzkoa, eta bestea, berriz, mikroegiturazkoa, migratzaileei eta beren familiei buruzkoa.

Migrazio–fenomenoaren funtsean, ez dago harrera–gizarteko identitatea edo identitateak mehatxatzeko edo suntsitzeko helburua duen ezer.

Nazioarteko migrazioak gauza asko dira, nolabait esateko, baina ez dira fenomeno identitario bat, ezta harrera–lurraldearen identitatea eraldatzeko akzioen multzo bat. Noski, migrazio–prozesuetan badaude identitate eta pertenezia–alderdiak, baina prozesu horien logikak, dinamikak eta mekanismoek honako hauekin dute lotura: bizi–kalitatea hobetzeko ahalegin eta proiektuekin, kokapen–irizpideekin (jomuga–herrialdean banaketa kontzentratua eginez) edo sare eta esparru transnazionalak sortzearekin.

3. Mikroegiturazko mailan –atzerritar jatorriko pertsonak, haien senideak, eta haien artean sortzen diren sareak–, haien migrazio–proiektuan, interesetan, nahietan eta espektatibetan, ez dago harrera–lurraldeko biztanleriaren eta gizartearen identitateak aldatzera edo mehatxatzera bideratutako ezer. Migratzaile gehienek harrera–gizartean integratzeko asmoa eta helburua dute, edo, beste modu batera esanda, nahiago izanez gero,

gizarte horretan sartu eta egokitu nahi dute. Hori, pertsona horien jokabideen eta testigantzetan ikusten da.

Horren froga bat adieraziko dugu, nahiko “bitxia”, eta baliteke hau irakurtzen duenari harrigarria iruditzea ere. Herrialde bereko pertsonen sektore batzuek beren hirikideekiko izaten duten gaitzeste–jarreraz ari naiz. Hain zuzen ere, atzerritar jatorriko zenbait biztanleria–sektorez ari gara, ezaugarri hauek dituztenak: denbora luze daramate harrera–herrialdean, estatus juridiko egonkorra dute, nazionalizatuta daude, helmuga–herrialdean jaiotako seme–alabak dituzte, etab. Jarrera hori behin eta berriz ikusi da migrazioen antropologian eta soziologian. Barne elkartasuna eta –kohesioa edo elkartasun eta kohesio intraetnikoa ez daude bermatuta. Aldiz, neurri handiagoan edo txikiagoan, maiztasun handiagoz edo txikiagoz, gaitzeste–jarrerak ikusten dira norberaren jatorri bereko taldeko pertsonetikiko.

Kolektibo guztietan gertatzen da, eta sektore jakin batekiko jarrera kritikoak erakutsi ohi dira: esate baterako, zenbait marokoarrek bidaidetik gabeko adingabeekiko, zenbait errumaniarrek errumaniar ijitoekiko, zenbait txinatarrek beste hirikide batzuekiko, Espainiako kulturak erabat “asimilatu” dituztela uste dutelako, etab. Hori zerbait negatiboa eta kritikagarria da, oinarririk gabeko kritika eta eskusio–jarrera izan daitekeen heinean, baina gertatu, gertatzen da. Hemen aipatu badugu, harrera–herrialdeko “identitate nazionalarekiko” aiherraren edo, gutxienez, neutraltasunaren eta errespetuaren aldeko argudioaren oinarri gisa erabiltzeko izan da.

Bide batez, datu edo gertaera hori oinarri hartuta, **konfrontazio–binomioak** (haiek/guk, immigratzaileak/nazionalak) **gainditzeko** behararen alde egin nahi dugu, nabarmena

baita talde nazional bakoitzaren barruan azpitaldeak, aniztasuna, jarrera desberdinak eta tentsioak daudela. Esaldia bera –**“immigrazioa identitate nazionalerako mehatxua da”**– sinplifikazio eta konfrontazioko planteamendu erredukcionista baten adibide nabarmena da.

4. Migrazioen historiak erakusten du, zenbait garai eta lekutan, pertsonak **bat egiten dutela eta balio komunak partekatzen dituztela, denborak aurrera egin ahala**. Noski, prozesu hori zaildu, geldotu edo desitxuratu daiteke, gaitzespena eta xenofobia nagusi badira. Hor, **Pigmalion efektua** edo **iragarpen autobetea** gertatuko litzateke berriz: migratzaileak baztertu, bereizi eta estigmatizatzen dira, eta, gero, hau esaten da: “ikusten, ez dute integratu nahi, berea baino ez dute egin nahi, ez dituzte gure kultura eta identitatea errespetatzen”.

Gizarte-talde oro bezala, herrialde jakin bateko migratzaileek beren loturak eta sareak sortu eta mantentzen dituzte, eta, horren guztiaren ondorioz, azkenean, **kolektibo nazionalak** edo **migratzaileen komunitateak** presentzia izaten dute gizarte hartzailean. Hori bai, hori erreferentzia bat besterik ez da, beste batzuen artean. Garrantzitsua da hori ulertzea eta kontuan hartzea. Beste pertsonekin gertatzen den moduan, kanpotik etorritakoek loturak ezartzen dituzte, ez soilik beren hirikideekin, baizik eta beren auzoko biztanleekin, lanbide bereko langileekin, beste merkatari eta profesionalekin, erlijio-komunitateko kideekin eta abarrekin ere, eta, **denborak aurrera egin ahala**, gero eta espazio, elkarre, sare eta abar gehiagotan sartzen dira, bizilekua eta bizimodua duten gizarte nagusian.

Eta hor dago migrazioaren auziaren eta gizarte inklusiboan izan dezakeen integrazio egokiaren zenbait alderdi

ulertzeko kontuan izan behar den beste gako bat. Kolektibo nazional edo komunitate migratzaile hori –gizarte guztietan daude horrelakoak– **erreferentzia nagusi bihur daiteke, eta korporazio soziokulturalaren izaera izan dezake, eta itxia ere izan daiteke, ingurunean eskusiorik egonez gero**. Eskusio-politikak eta -jardunbideak zenbat eta zabalagoak eta irmoagoak izan, orduan eta gehiago bilduko dira migratzaileak korporatiboki komunitate endogamiko edo itxietan

Iturriak eta materialak

~akademia

"El declive de la identidad nacional española"

(Carmen González Enríquez-en artikulua akademikoa, Espainiako nazio-identitatearen bilakaerari buruzkoa. 2016ko ekainean argitaratu zen, Elcano Errege Institutuaren webgunean, <https://bit.ly/3rOqCXr>)

"Identidad y migración: la formación de nuevas identidades transculturales"

(Granadako Unibertsitateko Francisco Díaz Bretones irakaslearen artikulua akademikoa, migratzaileen identitatearen eraketari buruzkoa, <https://bit.ly/3rS5Ju8>)

"La construcción de la identidad española:

simbolos, mitos y tipos" (Rafael Núñez-en artikulua akademikoa, espainiar identitateak historian izandako eratzeprosuari buruzkoa, <https://bit.ly/3ihQnw6>)

"La problemática identidad del inmigrante"

(CSIC agentziako Juan Carlos Velasco ikertzailearen artikulua akademikoa, migratzaileek Espainian duten identitateari eta migrazioek identitate nazionalen duten eraginari buruzkoa, <https://bit.ly/3jggya>)

"Immigration and national identity: constructing the Nation"

(Roxanne Lynn Dotty-ren artikulua akademikoa, migratzaileen identitate nazionalaren eraketari buruzkoa. Review of International Studies-en argitaratu zen, 1996ko uztailan, <https://bit.ly/3A4bRT5>)

"Las migraciones internacionales, nuevas identidades, nuevas ciudadanía"

(Comillasko Universidad Pontificia-ko Jesús Labrador irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioek identitate nazionalen eraketan duten eraginari buruzkoa, <https://bit.ly/2WRc79O>)

"La construcción del Otro: identidad e inmigración en la historia argentina"

(Estela Erausquin-ek 2002an argitaratutako artikulua akademikoa, immigrazioari eta identitate nazionalari buruzkoa, Argentinako kasua kontuan hartuta, <https://bit.ly/37ir9Y8>)

"Migración e identidad: emociones, familia y cultura"

(Colimako Unibertsitateko Susana Preciado irakasleak 2009an argitaratutako artikulua akademikoa, Mexikoko migratzaileen identitateari buruzkoa, <https://bit.ly/3fqgRO>)

"Migración e identidad cultural"

(Mexikoko Universidad Nacional Autónoma unibertsitateko Diana Chávez irakasleak argitaratutako artikulua akademikoa, Mexikoko migrazioei buruzkoa, <https://bit.ly/3xk545Z>)

"Identidad e inmigrantes: casos particulares, procesos generales"

(Mexikoko Universidad Nacional Autónoma unibertsitateko Héctor Francisco Vega irakaslearen artikulua akademikoa. Migratzaileek helmugagizarteetan izandako integrazio eta identitateeraketako prozesuen adibide zehatzak jorratzen dira, <https://bit.ly/2TR5oLP>)

~txostenak

"Ciudadanía e identidades nacionales. Reflexiones sobre el futuro europeo"

(Jürgen Habermas-ek idatzitako testua, identitate nazionalaren eraketari buruzkoa, <https://bit.ly/3imd6qK>)

"Migración irregular e identidad: más que documentos"

(Migrazioen Nazioarteko Erakundearen blogean argitaratutako artikulua, identitate nazionalak migrazioetan duen eraginari buruzkoa, <https://bit.ly/3ihR6gO>)

"La identidad nacional en España"

(Ikerketa Soziologikoen Zentroak 2006ko abenduan egindako azterketa, Espainiako nazio-identitateari buruzkoa, <https://bit.ly/3lpMjvD>)

~prentsa / komunikabideak

"Identidad y diversidad: así son los jóvenes españoles hijos de inmigrantes"

(Verne webgunean 2018ko abenduan argitaratutako artikulua, migratzaileen semealaba gazteen identitate nazionalari buruzkoa, <https://bit.ly/37ewGPm>)

"Inmigración e identidad"

(Artículo de Sami Naïren artikulua, identitate nazionalari eta migrazioek identitate horren eraketan duten eraginari buruzkoa. El País egunkarian argitaratu zen, 2001eko martxoan, <https://bit.ly/3frN5V1>)

08.

“Zenbat immigratzaile integra ditzake gizarte batek? Zein da “tolerantzia-atalasea?”

LANDUTAKO GAIAK

immigratzaile-kopurua; pertzepzioak; integrazio-maila; tolerantzia; migratzaile
gorakadaren aurrean hartzeko neurriak

Abiapuntuko testua ~2003

Hona hemen integrazioaren pertzepzio kuantitatibo bat. Integrazioaren erronkari kopuru-kontua balitz bezala heltzen zaio. Ehunka mila batzuk neurri batean integra daitezke, baina miloi batzuk ez, badirudi hori dagoela kezka horren atzean. Gutxi batzuk, bai, baina asko ezinezkoa da: ez dago horrenbeste jenderako gizarte-baliabiderik. Bestalde, esaten da munduko gizarte oro bertakoentzat pentsatuta dagoela, eta, kanpoko jende gehiago etortzen bada, dena hankaz gora jartzen dela.

Horregatik, galdera hau entzuten da berriktaldi askotan: “Zenbat integra ditzakegu?” Edo beste hau: “Immigratzaileak baldintza onetan integra ditzakegu, mugarik gabeko kopurutan etortzen badira?” Hori dela-eta sortzen da tolerantzia-atalasea ustezko terminoa.

Noski, immigratzaileen kopurua, atzerritar biztanleen kopurua, ez da garrantzirik gabeko gaia: eragina du presentzia publikoan eta gizarte-ikusgarritasunean; lan- eta egoitza-baimenak emateko eta berritzeko egin behar diren izapideen bolumenean; ikasle berriak eskoletan txertatzerakoan; gaixo berriei arreta ematerakoan... Noski eragiten duela! Baina hori ez da kontua, kontua da integratzeko aukera zuzenean kopuruaren araberakoa den ala ez, eta ea kopuru jakin batetik aurrera batere tolerantziarik izan behar ez den.

Tolerantzia-atalaseari buruzko galdera hori Espainiak, Europako beste herrialde batzuen aldean, immigratzaile gutxi izanda planteatzen da:

10. taula. EBko herrialdeetako atzerritarrak

Herrialdea	Biztanle	Absolutua	Ehuneko
1	Alemania	7.314.000	8,90
2	Austria	517.000	6,60
3	Belgika	890.400	8,75
4	Dinamarka	237.600	4,70
5	Espainia	801.320	2,04
6	Finlandia	73.000	1,40
7	Frantzia	3.596.000	6,30
8	Grezia	161.000	1,50
9	Irlanda	114.400	3,10
10	Italia	884.600	1,50
11	Luxemburgo	142.900	34,20
12	Herbehereak	679.900	4,40
13	Portugal	172.900	1,70
14	Herresuma Batua	2.121.000	3,60
15	Suedia	526.600	5,95

Iturria: Eurostat. Demographia Statistics 1999

Egia da Espainian bizi diren atzerritarren kopurua asko handitu dela azken urteotan, baina ezin da esan "inbasioa" izan denik.

11. taula Espainian bizi diren atzerritarren kopuruaren bilakaera

Urtea	Azteritarrak	Gutzizkoaren %
2001	1.109.060	2,87
2000	895.720	2,27
1999	801.320	2,04
1995	499.773	1,27
1991	360.655	0,93
1981	198.042	0,53

Iturria: Anuario de las Migraciones. Barne Ministerioa. Atzerritarren Zuzendaritza Nagusia, 2002.

Zenbatutako atzerritarrei ustez egoera irregularrean daudenak gehitzen badizkiegu, 1.600.000 atzerritar inguru izango genituzke guztira. Horrenbestez, gaur egun (2003ko martxoa), Espainiako biztanleriaren % 4,1 atzerritarrak dira. Zifra hori beste herrialde batzuetakoa baino askoz txikiagoa da, eta, zalantzarik gabe, "integratzeko modukoa" da. Are gehiago, biztanleriaren zati baten egoera ekonomikoa Espainiako biztanleen batez bestekoa bezain ona edo hobea dela kontuan hartzen badugu.

"Arazo kuantitatibo" horretan, hau da benetan deigarria: duela zenbait urtetik planteatzen da, 1990eko hamarkadaren hasieratik, gutxienez, eta, orduan, atzerritarren ehuneko ez zen biztanleria osoaren % 2ra iristen. **Hori esatean, adierazi nahi dugu gai edo arazo hori planteatzen dutenek ez dutela egiten aniztasunaren gizarte-kudeaketari buruzko kezka legitimo batek bultzatuta, baizik eta immigrazioa gaitzesteko amarru bat izateko.**

Jarraian azalduko ditugun argudioak gauzak argi izan nahi dituztenentzat edo beste batzuei argudioak azaldu nahi dizkietenentzat dira.

Ez dago zuzeneko edo kausazko loturarik honako hauen artean:

- a. herrialde, autonomia-erkidego edo udalerrri jakin batean dagoen immigratzaile kopurua, eta
- b. integrazio- edo marjinazio-maila. Esaterako, badaude arazo handiak (ghettoak, erasoak, gaitzespena) dituzten lekuak, immigratzaile gutxi izanda ere. Beste leku batzuetan, aldiz, immigratzaile gehiago daude, baina arazo gutxiago. Nola azaltzen da hori? Beste behin esango dugu immigratzaile-kopuruak eragina duela gerta daitezkeen integrazio-egoeran eta marjinazio prozesuetan, baina biztanle atzerritarren kopuru hori edo *quanta* ez da eragiten duen gauza bakarra, ezta faktore nagusia ere. Badaude immigratzaileen gizarte-integrazioaren mailan eta kalitatean eragiten duten beste faktore batzuk; esate baterako:
 - a. gizarte hartzaileak une horretan duen egoera,
 - b. politika publikoak eta gizarte-programak egotea edo ez, eta
 - c. migrazio-erritmoa eta -mota (kantitatea baino gehiago).

Immigratzaile-bolumena handiagoa edo txikiagoa den alde batera utzita, garrantzitsua da zer-nolako koiuntura historikoa duen herrialde, eskualde edo udalerrri horrek langile atzerritarrak eta haien familiak hartzeko unean. Ez da gauza bera milioi bat immigratzaile identitate-krisi larria duen gizarte batean sartzea edo gizarte egonkor batean sartzea; edo hiritar gehienek arreta nahiko ona duten gizarte batean sartzea edo jende asko eskusio-egoeran duen gizarte batean sartzea; edo langabezia indize handia duen gizarte

batean sartzea edo langabezia gutxi duen gizarte batean sartzea.

Halaber, integrazioarako funtsezkoa da ea ondo bideratutako ekimenak eta proiektuak martxan jarri diren, nahikoa baliabide izanda eta martxan jarri behar dituzten langileek (esku-hartze sozialaren arloko profesionalak, irakasleak, medikuak) etengabeko prestakuntza dutela; hitz batean, funtsezkoa da helmuga-gizarteak integrazioarako baliabideak eta mekanismoak izatea, eta, modu orokorragoan, gizarte-ongizaterako sistema publikoa izatea edo ez.

Faktore garrantzitsuenetako bat, beraz, ez da immigratzaile-kopurua, baizik eta haien iristeko eta kokatzeko erritmoa (milioi bat immigratzaileen kopuru hori bost urtetan iritsi zen ala urte batean) eta migrazio-mota (banakakoak edo familiak, sasoiko langileak edo langile iraunkorrek, irregularren proportzioa, lanbide-sektoreak, etab.). Bi alderdi horiek lotura dute aurrekoekin: migratzaileak iristeko erritmoa bizia balitz eta haien osaera konplexuagoa balitz (beharren eta gizarte-dinamiken aldetik), are eta ganora handiagoz heldu beharko litzaioke gai horri, egiturazko fenomeno batek, ez-koiunturalak, behar dituen sormena, aktibismoa eta imajinazioa baliatuta. Batzuentzat, "immigrazioa da arazo nagusia, terrorismoarekin batera"; orduan, zergatik ez dute gehiago eta hobeto lantzen? Baina ez da arreta errektibo bat edo kontrako arreta behar, baizik eta arreta positiboa, integrazio-borondatea izanda.

Azken finean, **integrazioa edo marjinazioa harreman-kontua da, zenbakizko zerbait baino gehiago**. Demagun gertuko eta eguneroko bizitzako egoera hau: zenbait etxe eta familiatan, gure semea edo alaba eskolako lagun batekin etortzen bada, eta lagun hori ijitoa, beltza edo indiarra bada, arazo bat sortzen da, gizabanako bakarra izanda ere. Zorionez, beste etxe eta familia

batzuetan, “horrelako” hamar lagun etorri-
ta ere ez da inolako arazorik sortuko, leku
falta edo haurren jolas-gelan sortuko den
zalaparta berezia kenduta. Hor aldatzen
dena ez da haur-kopurua, hori ez da alda-
gai nagusia, baizik eta gurasoen jarrera eta
balioak, etxe horretako abegikortasun-mai-
la, familia horren irekitasun-ahalmena.

“Tolerantzia-atalasea” esamoldea
nahiko alferrikakoa da, zenbaki bat
finkatzeko edo mugatze-lerro kuantitatibo
bat zehazteko ezintasunari buruz esan

dugun guztiagatik. Esamolde arriskutsua da,
halaber, aditzera eman dezake-eta lerro edo
muga horretatik aurrera zilegi dela tolerantzia
ez izatea. **Integrazioa kopuru-kontua ez
bada, tolerantzia are gutxiago. Beste arraza,
kultura edo erlijio batekoak, edo kontrako
pentsamendua edo ideia politikoak
dituztenak onartzen ditugu, baina ez bat,
bi edo ehun mila izateagatik, baizik eta
konbentzituta gaudelako berdinen arteko
tolerantzia aktibo hori gabe ezinezkoa
dela errespetua, duintasuna eta bizitza
demokratikoa izatea.**

Arrazoiketaren laburpena

~2003

- 01 Migratzaile-kopurua **ez da garrantzirik gabeko gaia**, eragin asko eta garrantzitsuetan eragina baitu, baina ez da integrazio-prozesuko faktore bakarra, ezta faktore nagusia ere.
- 02 Integrazio-aukerak ez daude faktore horren mende, ez zuzenean ez funtsean, **ez baitako zuzeneko edo kausazko erlaziorik** honako hauen artean; a) immigratzaile-kopurua eta b) integrazio-edo marjinazio-maila.
- 03 Immigratutako biztanleriaren bolumenaz gain, **beste faktore batzuek eragin handiagoa dute** integrazio-prozesuan; esaterako, a) gizarte hartzailearen une historikoa, b) politika publikoak eta gizarte-

programak izatea edo ez, edo c) migrazio-erritmoa eta -mota.

- 04 Bolumen hori une jakin batean oso handia, zentzuzko kantitate bategik gorakoa, izateak **eusteko eta sendotzeko neurriak** hartzea justifikatzen du, baina ez “zero tolerantziako” politikak.
- 05 Azken finean, integrazioa edo marjinazioa **harreman-kontua** da, zenbakizko zerbait baino gehiago.
- 06 “Tolerantzia-atalasea” esamoldea **alferrikakoa** izatea ez ezik, arriskutsua da: **Integrazioa kopuru-kontua ez bada, tolerantzia are gutxiago.**

Eguneraketa

~2023

Iruzkina hau idatzi genuenean, migratzaile gutxi zeuden Espainian, bai kopuru absolututan, bai Europako beste herrialde batzuetako kopuruaren aldean. 2001ean, erregistratutako biztanleria atzerritarra

gutziko biztanleriaren %2,87 soilik zela adierazi genuen. Egoera irregularrean egon zitekeena gehitu genion, eta 2003ko martxoan proportzio hori % 4,1ekoa zela idatzi genuen -data horretan idatzi genuen

gogoeta horiek biltzeko testua-. Zer dugu ia hogei urte geroago? 2021ean, Espainian 5.440.148 atzerritar bizi ziren, guztizko biztanleriaren % 11,4.

Hazkunde handia izan da, eta oso erritmo bizkorrean, eta horrek justifikatzen du "tolerantzia atalasearen" gaia berraztertzea, eta, modu zabalagoan, berraztertzea zer-nolako eragina duen biztanleria atzerritarraren tamainak, kopuru absolutuak eta erlatiboak kontuan hartuta. Demografia hazkundeaz gain, argudio horiek eguneratzeko eta gai hau berraztertzeke beste arrazoi bat *Stop inmigración* kanpaina xenofoboa da. Kanpaina horri buruzko iruzkin berezi bat egingo dugu lan honen bigarren zatian.

Iruzkin hau eragin duten galderak bi gai desberdinei buruzkoak dira, baina lotuta daude: alde batetik, eztabaida publikoan behin eta berriz agertzen den gai bat, biztanleria atzerritarraren benetakoa tamaina eta haren pertzepzio soziala (oro har, oso distortsionatua izaten da), eta, bestetik, **immigratzaileen integragarritasuna edo integrazintasuna**, zenbaki edo magnitude horren arabera, eta horrek guztiak tolerantzia-jarrerekin duen lotura.

1. Duela urte askotik, azterketa ugarian frogatzen ari dira distorsio handia dagoela migrazio fluxuen magnitudearen pertzepzioaren inguruan. Esperimentu pertsonal bat azalduko dut, zuen baimenarekin. Eman ohi dudana "*Antropología de las migraciones*" (hau da, "Migrazioen antropologia") izeneko ikastaroaren hasieran, **munduan zenbat migratzaile dauden** galdetzen diet ikasleei. Irakurleari une bat hartzeko eskatu nahi diot, eta, jarraitu aurretik, galdera horri erantzuteko: Zenbat migratzaile daude munduan? Eta Europar Batasunean? Eta Espainian?, etab.

Munduan 7.700 milioi pertsona baino zertxobait gehiago bizi garena¹⁶ esaten diet, eta, horren arabera, batzuek kalkulatzan

dute 1.500 migratzaile daudela; beste batzuen ustez, 2.000 milioi inguru daude; beste batzuek uste dute biztanleriaren "heren bat" dela, etab. Ezusteko handia hartzen dute beren herrialdetik kanpo bizi direnak askoz gutxiago direla esaten diedanean, gehienez jota 300 milioi¹⁷ direla; hau da, guztizkoaren %4 baino gutxiago. Izan ere, ez zuten espero **gizadiaren % 96 bere herrialdean egongo zenik**.

Ezustekoak jarraitzen du Europar Batasunean, zifrak biribilduta, beste herrialde batzuetako 23 milioi biztanle inguru daudela esaten diedanean, eta nazionalizatuta zein egoera irregularrean daudenak batuta, atzerritar jatorriko 30 milioi biztanle inguru daudela¹⁸. Laster ohartzen dira **Europar Batasuneko migratzaile horiek munduko migratzaile guztien % 10 baino ez direla**, nolahi ere. Horren ondoren, azaltzen diet **immigratzaile eta iheslari gehienak ez daudela migrazio-sistema euromediterraneoan, baizik eta beste sistema batzuetan** (Ipar Amerikako, Persiar golkoak, Ozeaniako -Australia da gune nagusia-, Amerikako Hego Konoko, Mendebaldeko Afrikako... sistemak).

Zergatik gertatzen dira distorsio handi eta pertzepzio-akats horiek? Informazio falta da arrazoi bat, baina hori ez da gakoa, Gai horren inguruan egin diren analisiak laburbilduta, bi kausa nagusi nabarmendu ditzakegu. Batetik, biztanleriaren sektore askoren ikusmoldea dago -eta egunero edo behin eta berriz izaten dituzten bizipenak-, migrazioa arazo bat dela uste baitute, zerbait kezagarria, mehatxatzailea, etab.

16. Nazio Batuen demografia datuen arabera (World Population Report), 2017an, 7.722.727 milioi biztanle zituen munduak; 2020an, 7.800.124 milioi ziren jada.

17. Migrazioen Nazioarteko Erakundea (IOM ingelesez) Nazio Batuen erakunde elkartua da, eta 2020. urtearen erdialderako, kalkulatzan zuen nazioarteko 280,6 milioi migratzaile zeudela, munduko biztanleriaren %3,6.

18. Europako Kontseilua. "Estadísticas sobre la emigración en Europa" (hau da, "Europako emigrazioari buruzko estatistikak"): 2020ko urtarilaren 1ean, Europar Batasuneko 447,3 milioi biztanleetatik, 23 milioi beste herrialde batzuetako hiritarrak ziren; hau da, EBtik kanpoko herrialdeetakoak.

Bestetik, aurrekotik bereizezina, iritzi publikoan oso eragin handia duten bi faktore daude:

- a. **faktore mediatikoa**, zenbait hedabidetan eta sare sozialetan immigrazioaren trataera negatiboa, partziala eta, batzuetan, alarmista ere egiten baita; eta,
- b. **faktore politikoa**, immigrazioaren aurkako diskurtso politikoak egiten baitira, ez soilik hauteskunde-kanpainetan eta parlamentu-etzabaidetan, baizik eta erakunde publikoetan ere (hori areagotu egin da azkenaldian, eskuin-muturrekoen kanpaina xenofoboak direla eta).

2. Immigratzaile-kopuruaren eta haren pertzepzio distorsionatuaren gaia azalduta, azter dezagun orain “tolerantzia-atalasearen” gaia. 2003an aztertu genuen, eta, orain, bi gogoeta gehituko ditugu: bat **idea horren sorrerari, testuinguruari eta ondorioei buruz, eta bestea, berriz, tolerantziaren nozio baliotsua indargabetzeak dakarrenari buruz.**

Dakigunaren arabera, “tolerantzia-atalasea” nozioa eta esamoldea 1970eko hamarkadan sortu zen, **immigrazioari buruzko Frantziako diskurtso eta eztabaida publikoan**; hau da, 1973ko krisi ekonomikoaren (“petrolioaren krisia”) eta gaur egun nagusi den neoliberalismoaren aldeko apustuaren hasieraren testuinguruan. Duela gutxiko testu batean, Emmanuel Sebono-k (2016) nozio horren sorrera eta garapena azaltzen ditu. Sorrera Frantziako Azterketa Demografikoetarako Institutu Nazionalak (INED) egindako azterketa batean kokatzen du, ideia hau antolatuta nahian: “biztanleria orokorrean atzeritaren presentzia maila jakin batetik gorakoa bada, tirabirak sortuko dira ezinbestean”.

Egile horrek hau dio horri buruz: “INEDek egindako “iritzi publikoko” inkestan, immigrazioa “arazotzat” hartu zen esplizituki; hasieratik, **zehaztu nahi izan zen**

zer “atalasetik” aurrera bihurtzen zen immigratzaileen presentzia jasanezina hiri batean, kolektibo batean edo eskola batean. Adibidez, inkestatuei egindako galderetako bat zen, hogeita hamar ikasleko ikasgela bat kontuan hartuta, ea atzerriko haurren zer proportziotik aurrera aldatuko zituzten beren seme-alabak ikastetxez. Galdera horren erantzuna % 10 izan zen. Azkenean, % 10eko proportzio hori zabaldu zen iritzi publikoan.” (letra etzana geuk gehitua).

Eta ondorio hau atera zuen: “Zehaztasun zientifikoz apainduta, idea ia arau unibertsal bihurtu zen, eta horren arabera, tasa horretatik gora, biztanleriaren arteko koexistentzia oso zaila izango zen”.

Gaitzespen-fenomenoek eta haien adarkadura arrazistek azalpen bat izan zuten horrela, “problematikotzat” jotako biztanleriaren gehiegizko kontzentrazioetarako”. Beraz, “tolerantzia-atalasearen” teoria **immigrazioa kondentzateko argudio** bihurtu zen” (letra etzana geuk gehitua).

Espanian, duela urte asko zeharkatu genuen atalase “zientifiko” hori, biztanleria atzeritarrak 2007an gainditu baitzuen guztizko biztanleriaren % 10 hori, eta are gehiago dira nazionalitate bikoitza dutenak gehitzen baditugu. “Teoria” horren arabera, “zero tolerantzia” jada martxan jarrita izan beharko genuen, edo, argiago esanda, “intolerantzia.

3. Immigrazioaren aurka egiteko eta esklusioa legitimatzeko erabiltzen zela –diskurtso eta jardunbide xenofobo eta arrazistak normalizatzen saiatzeko– salatzeaz gain, teoria horrekiko kritikoei atalase horren alderdi manipulatzailea erakutsi zuten, jada 1970eko hamarkadan, zenbait politikariek eta egunkariek horretarako erabiltzen baitzuten, gaitzespen arrazistaren erantzukizuna iritzi publikoari leporatuta. Gure aldetik, gehituko dugu nozio horrek nahasi egiten dituela **tolerantzia**¹⁹ hitza eta haren kategorioa.

Nozio, bertute eta ideal etiko hori –Lockek eta Voltairek jada aztertu zuten, Europako erlijio gerren harira; Kantek, Voltairek berak eta beste batzuek ere landu zuten, ilustrazioan; eta mendez mende jorratu da, etika- eta demokrazia-tratatu asko eta askotan– oso garrantzitsua eta funtsezkoa da gizarte plural eta irekia lortzeko bidean, bai eta demokraziaren defentsan ere; beraz, saiatu behar dugu tolerantzia ez nahasten edo faltsutzen uzten, “tolerantzia atalasea” eta antzeko nozioekin.

Denbora-puska bat eman nuen tolerantziaren historiari eta tolerantzia ulertzeko moduei buruz ikertzen²⁰, premisa hau kontuan hartuta: “Gutxienez, tolerantzia ulertzeko bi modu daude eta oso desberdinak dira bata eta bestea. **Modu menderatzaile eta paternalista, batetik, eta modu igualitario eta bizikidetzazkoa, bestetik** daudela esan dezakegu. Tomás y Valiente irakasleak –tolerantziaren eredu zen eta terrorista batzuek 1996ko urtarrilean erail zuten, unibertsitateko bulegoan zegoela–, hil baino zertxobait lehenago argitaratutako artikulu batean²¹, **planteatu zuen gaitzetsi egiten zuela tolerantzia menderatzaileak menderatuari egiten dion dohaintzat ulertzen duen ikuspegiari, ikuspegi aldebakar horri**. Jarrera hori esaldi honetan laburbil daiteke: “tolerantea naiz zurekin, baina baliteke horrelakoa izateari uztea” (2000, 393-394) (letra etzana geuk gehitua).

Tomás y Valientek adierazitako lehenbiziko adierarekin bat etorritik, kontuan izan tolerantzia atalasearen esamoldean eta sasiteorian tolerantziaren adiera negatiboa ulertzen dela, menderatzeko funtzionaltasunerako erabiltzen dela: “toleratzen zaitut” esaldiaren adierak hauek izango lirateke: “jasaten zaitut”, “zer erremedio!”, “jasaten zaitut, gogoz kontra bada ere”, “marra hori zeharkatzen ez baduzu, toleratu beharko zaitut, baina zeharkatzen baduzu...” Tolerantzia sendagai bat balitz bezala. Atzerritarrek kopuru jakin bat gainditzen ez badute, ondo, baina bestela...

Gure irakasle maiteak eta konstituzionalista bikainak egindako bereizketa egoki horren ondoren, beste erreferentzia hau gehitu nuen nire testuan: “Ildo berean, Innenarity-k (1995)²² planteatu du kontua **aldi berean errespetua eta eztabaida izatea dela**” (letra etzana geuk gehitua). Hain zuzen ere, hori nabarmendu nahi dut “tolerantzia-atalasearen” harira. Egon daitekeen eztabaidak ez dakar errespetu falta berekin, inoiz ez.

Atzerritar jatorriko biztanleria asko eta bizkor hazten bada, edo haren presentzia edo kontzentrazioa handia bada –dela bizitegi-arloan, eskolan, osasungintzan edo gizarte zerbitzuetan–, edo kostalde jakin batean aglomerazio puntualen bat gertatzen bada, kezka, eztabaidak eta jarrera eta proposamen desberdinak eta elkarren kontrakoak izango dira, noski, eta konponbideak eta errefortzu-neurriak adostu beharko dira, eta eraginkortasunez jardun, baino horrek ez du esan nahi intolerantziak jokatu behar denik. Giza eskubideak errespetatzeko, nazioarteko legedia betetzeko eta balio demokratikoak erabat onartzeko ez da inolako tolerantzia-atalaserik behar, eta giza eskubideak, nazioarteko legedia eta balio demokratikoak ez dira arau horren mende jarri behar.

Hori eginez gero, tolerantzia indargabetu egiten da, eta galdu egiten da tolerantziak pluralismo demokratikoaren eta gizarte-bizikidetzaren funtsezko balio eta bertute gisa duen benetako zentzu historikoa. “Tolerantzia-atalasearen” ideia eta justifikazioa faltsutze hori ahalbidetzen dute.

19. Tolerantziari eta hura zehazki aztertu eta neurtzeari dagokionez, honako hau kontsultatu daiteke: *“Immigrazioaren aurreko tolerantzia-indizea: tipologia bat”* (Ikuspegi, 2015)

20. “Tolerancia” kapitulua, in G. Malgesini eta C. Giménez (1997) *Guía de conceptos sobre migraciones, racismo e interculturalidad*, Madril, La Cueva del Oso.

21. Tomás y Valiente, Francisco (1995) “Contra ciertas formas de tolerancia”, *El País*, 1995eko maiatzak 30.

22. Innenarity, Daniel (1996) “La tolerancia y sus equívocos amigos”, *El País*, 1995eko ekainaren 14a.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

"Crece la intolerancia hacia los migrantes en todo el mundo, según una encuesta de Gallup" (El País egunkariko artikulua, 2020ko irailean argitaratua, munduan immigrazioarekiko dagoen tolerantziari buruzkoa, <https://bit.ly/2WFom67>)

"Violaciones e inmigración: datos frente a bulos y prejuicios de Vox" (El País egunkariko artikulua, 2020ko martxoan argitaratua. Artikuluan, Vox alderdiak migrazioen harira esandako gezurrak salatzen dira, gezur horiek eragina baitute migrazioekiko gizartetolerantzian, <https://bit.ly/2VvjWBg>)

"Migración, tolerancia y democracia" (Diario Estrategia egunkariko artikulua, 2019ko urrikoa. Artikuluan, aztertzen da zer-nolako tolerantzia dagoen Txilen migrazio-mugimenduei buruz, <https://bit.ly/3AasbBX>)

"Noruega es el país europeo más tolerante con los inmigrantes" (Diario Responsable egunkariko artikulua, 2018ko martxoan argitaratua, Europako herrialdeek migrazioekiko duten tolerantziari buruzkoa, <https://bit.ly/3xndCZZ>)

"Qué es la política de "tolerancia cero" detrás de la separación de niños de sus padres en la frontera de Estados Unidos" (BBCren artikulua, 2018ko ekainean argitaratua, Estatu Batuetan migrazioen aurka onartutako neurriei buruzkoa, <https://bbc.in/3C884WK>)

"España: un país tolerante a la inmigración, pero vulnerable a los medios" (PorCausa fundazioaren artikulua. Espainian immigratzaileekiko dagoen tolerantziari buruzko inkesta bat azaltzen da, <https://bit.ly/3A7oBZ4>)

"World tolerance for migrants on decline" (TRT World albiste-kanaleko artikulua, 2020ko irailean argitaratua. Artikuluan, Gallup-en inkesta bat aztertzen da, munduan migrazioekiko dagoen tolerantziari buruzkoa, <https://bit.ly/3ikFSlj>)

~gizarte-erakundeak

"Índice de Tolerancia a la Inmigración: una tipología" (Ikuspegik 2015ean argitaratutako dokumentua, migrazioekiko gizarte-tolerantziari eta tolerantzia horrek urteen joanean izandako bilakaerari buruzkoa, <https://bit.ly/3jyDNrR>)

~txostenak

"Francia: El "umbral de tolerancia" como pretexto para renunciar a los valores republicanos" (Emmanuel Debonok 2016an argitaratutako artikulua. Artikuluan, "tolerantzia-atalase" terminoaren historia aztertzen da, bai eta termino horren erabilera ere, herrialdean migratzaileen aurkako neurri sendoak aplikatzeko, <https://bit.ly/2WL72Qd>)

"Voces de inmigrantes" (Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantza Ministerioaren dokumentu ofiziala, migratzaileek beren integrazioari eta Espainiako hiritarrek migratzaileekiko duten pertzepzioari buruzkoa, <https://bit.ly/37f3UOy>)

"Percepción social de las migraciones en España" (Fundación de Cajas de Ahorro fundazioaren blogean argitaratutako artikulua, 2017ko martxokoa, Espainiako biztanleriak migrazioez duen pertzepzioari buruzkoa, <https://bit.ly/3Cl4Nnh>)

"Immigration, tolerance and identity" (Institut de Recherche Économique et Fiscale institutuaren artikulua. Honako hauek lantzen dira: migratzaileen identitatea helmuga-herrialdeetan, eta zer tolerantzia dagoen herrialde horietan migratzaileekiko, <https://bit.ly/3yprfxyl>)

~akademia

"El impacto de la inmigración en la sociedad receptora" (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Carlota Solé, Sònia Parella eta Francesc Gibert irakasleen, Rovira i Virgili Unibertsitateko Amado Alarcón irakaslearen eta Bartzelonako Unibertsitateko Valeria Bergalli irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioen gizarteeraginari buruzkoa, <https://bit.ly/3A7jgBo>)

"La política de inmigración en España: reflexiones sobre la emergencia del discurso de la diferencia cultural" (Belén Agrelaren artikulua akademikoa, Espainian bizi diren immigratzaileen zirkunstantzietan eta pertsona horien integrazioari buruzkoa. Belén Agrela Kaliforniakoa Unibertsitateko irakaslea da, San Diegon, <https://bit.ly/2WRQZAF>)

09.

“Integratu ezin diren kulturak daude”

LANDUTAKO GAIAK

kulturaren kontzeptua, kultura-bateragarritasuna; erlatibismoa; tolerantzia; migrazioaren edo migrazioko kulturak, integrazioa *versus* inklusioa; gutxiengoak eta gehiengoak

Abiapuntuko testua ~2003

Gizarte-zientzien arloko egile garrantzitsuak planteatzen ari dira kontzepzio hori, eta, gero, lider kontserbadoreek bere egin eta bultzatzen dute. Beste batzuk bezala, azkenean, iritzi publikoaren sektoreetan txertatuko da, jada txertatu ez bada. Baieztapen horren atzean dagoen ideia “gure gizartean oinarri diren balioen aurkakoak” dituzten kulturen kontra egitea da; hau da, Mendebaldearen eta erregimen demokratikoen balioekin bat ez datozen kulturen kontra egitea. “Gizarte eskubideak ukatzen dituzten” kulturen kontra egiten du, eta argudiatzen da klitoriaren ablazioa egiten dutela, emakume adulteriogileak harrika hiltzen dituztela, edo adingabeak gurasoen aginduz ezkonarazten dituztela. Bateriaezintzat jotzen dira, halaber, kultura “teokratikoak, non politika edo bizitza zibila erlijioaren mende jartzen den”. Tesi horren ondorio praktikoa garrantzitsuak dira: epe laburrera, kultura horietako pertsona eta kolektiboekiko jarrera negatiboa

izaten da, eta, horregatik, uko egiten da haiek hartzeari eta –hemen badaude– legitimotzat jotzen da haiek kanporatzea.

Esan behar dugu giza eskubideen defentsan muturreko erlatibismo kultural* oro gainditu behar dugula, eta eskubide horiek urratzen dituen jardunbide oro –ustetan edo benetan kulturala izanda ere– gaitzetsi behar dela, emigratio-gizarteetan, immigratio-gizarteetan, edota llargian ere. Toleranteak izateak ez du esan nahi jardunbide ororekin ados egotea, edo jardunbide horiek egiten uztea edo onartzea, jardunbideak antzinakoak, tradizionalak edo bereziak izanda ere. Baina, immigratzaileen kultura eta kolektibo batzuen “integrazintasunaren tesian”, gauza asko nahasi, baztertu eta ahaztu egiten dira.

Lehenik eta behin, kontuan izan behar da horrela pentsatzean dena nahasten dela; agian, gaitzesteko asmoekin. **Erlijioa eta kultura nahasten dira, oso indarrean dagoena eta indar gutxi duena**, eta minoritarioa dena eta jende askok eta askok egiten duena. Azter dezagun ablazioen kasua. Jardunbide horrek oinarri erlijioso islamikoa duela uste ohi da, baina hori ez da egia. Historian, emakumeen edo gizonen mutilazio genitalak askotarikoak izan dira. Horietako batek, klitoridektomiak –mota askotakoa izan daiteke–, Saharaz hegoaldeko zenbait herrialdetan dirau, batez ere, gizarte eta kultura-arauetan, baina ez erlijio bat batean ere. Gizarte-eta kultura-arauetan dagoela esan dugu –eta hori garrantzitsua da kultura-bereizgarri orori buruzko ikuspegiak aztertzeke–, haurtzarotik sozializatzen den eta ikasten den jokabidea baita. Arau batzuen arabera da, bere sinbologia du, taldearen balioetan oinarritzen da eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen da.

Ablazioaren gisako jardunbideak desagerrarazteko emaitza onenak lortu dituzten ekimenak jardunbide horiek

egiten dituzten gizarteen barruan martxan jarritakoak dira, jardunbide horien eta haiek egiten dituztenen funtzioa/rola ulertuta. Madrilgo *Círculo de Bellas Artes* elkartearen 2001eko azaroaren 22an egindako mahainguru batean, Fatoumata Diakané-k –Maliko Emakumeen Aurrerapenerako eta haien Eskubideen Defentsarako Elkartekoa– adierazi zuen lanean ari zirela eszisia egiten duten emakumeei beste gizarte-rol bat emateko, beren gizarte-osperei eusteko modukoa. Halaber, emakumeen pentsamoldea, oro har, aldatzen ere saiatzzen ari dira –izan ere, ablazioa beharrezkotzat jo ohi da, gizartean onartuak izateko–. Diakané-k, halaber, esan zuen Mendebaldeko hedabideetan ablazioari ematen zaion trataera sentsazionalistak arazoa konpongaitzago bihurtzen duela.

Integrazio-ezintasunaren aldekoak kultura-bereizgarriak eta kulturaren osotasuna nahasten dituzte. Gauza bat da herrialde edo gizarte jakin batean jardunbide gaitzesgarri bat egitea, hala nola ablazioa –hain zuzen, Giza Eskubideen Adierazpena (1948) eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (1989) urratzen ditu, ia herrialde guztietako legedian debekatuta dago, eta delitua da Espainian–, eta beste gauza bat da herrialde eta pertsonan horien kultura aberatsek giza eskubideen aurka egotea. **Banakakoen plano**a eta **plano kolektiboa** nahasten ari **dira**. Gauza bat da zibilizazio-eremu, erlijio-tradizio edo komunitate etniko jakin batean jardunbide jakin bat egitea, eta beste gauza bat da, oso bestelakoa, haiekin lotutako pertsona guzti-guztiek jardunbide hori egitea, orain eta beti. **Kulturak aldatzen direla ahazten da**. Elkarrekiko egokitzapena, gizarte- eta kultura-aldaketako aukerak ahazten dira. Iraganean ere esan zen immigratzaileen zenbait kolektibo integratzen zirela, eta, hala ere, gaur egun ondo kokatuta daude. Are gehiago, arrakasta-eredu ere bihurtu dira, hala nola asiarrak Estatu Batuetan –zehazki, txinatarrak eta korearrak–.

Gainera, kultura han eta kultura hemen nahasten dira edo, bestela esanda, jatorriko kultura eta migrazio-kultura* edo immigrazioan izaten den kultura. Jatorriko herrialdean jardunbide jakin bat egoteak ez du esan nahi harrera-herrialdean jardunbide hori hedadura eta indar berberaz erreproduzituko denik. Azken finean, integratu ezin diren kulturak daudela planteatzen denean, **kulturen funtsa ahaztu egiten da**, edo, gutxienez, kulturaren* kontzeptu antropologikoak bildu nahi duena: giza kolektiboen izateko, jarduteko eta pentsatzeko moduak, berez balio berdina dutenak.

Amaitzeko, bi galdera eta baieztapen bat egingo ditugu. Ez al dira giza eskubideak eta oinarrizko eskubideak urratzen immigrazioa hartzen duten gizarteetan eta kulturetan (ere)? Oinarrizko eskubideen urraketak egiten utziko dugula pentsatzen al dugu? Baieztapena ikasle batena da.

Hauxe esan zuen ikasgelan, eztabaida batean: “integratio osoa izateko, lehenbizi bestea pertsona gisa onartu behar da, ez atzerritar gisa”. Kontua da besteak immigratzaile eta norbait arrotz gisa ikusten uztea, eta lankide, guraso edo bizilagun gisa onartzea.

Arrazoiketaren laburpena ~2003

- 01 Aurretiko premisa: **giza eskubideen defentsan, muturreko erlatibismo kultural** oro gainditu behar dugu. Toleranteak izatea ez du esan nahi ados egotea edo edozein jardunbide egiten uztea edo onartzea.
- 02 "Zenbait kulturaren integrazintasunaren" tesian, gauza asko "**nahasi, baztertu eta ahaztu egiten dira**".
- 03 Horrela pentsatzean, **dena nahasten da**: a) erlijioa eta kultura, b) oso indarrean dagoena eta indar gutxi duena, eta c) minoritarioa dena eta jende askok eta askok egiten duena.
- 04 Halaber, bereizgarri **kulturala kulturaren osotasunarekin** nahasten da, eta **banakako plano**a, berriz, **plano kolektiboan**.
- 05 Ez da kontuan hartzen edo ahaztu egiten da **kulturak aldatzen** direla, elkarrekiko egokitzapeneko prozesuak eta gizarte- eta kultura-aldaketarako aukerak daudela.
- 06 Ez dira behar bezala bereizten **kultura han** (jatorriko herrialdean) eta **kultura hemen** (harrera-herrialdean).
- 07 Migrazioen historiak eta zenbait herrialdetan egindako kasu-azterketek honako hauek erakusten dituzte: a) oso kultura desberdinetako kolektiboan **integrazioaren arrakasta**, eta b) kulturen eta identitateen **izatezko bateragarritasuna**, bai gizarte-mailan, bai banakoen mailan.

Eguneraketa ~2023

Europako arrazakeria berria delakoa kulturala da –1980ko hamarkadan sortu zen (Balibar, Taguieff, Meillasoux, Miles, Wieviorka...), eta Franz Fanon (1956) eta beste batzuk ditu aurrekari-, eta ez arrazialista soilik; xenofobia da, eta ez barne-arrazakeria soilik; eta instituzionala da, eta ez soziala soilik²³. Arrazakeria horren adierazpenetako bat kulturen arteko bateraezintasuna da eta, azkenaldian, eztabaida publikoan, behin eta berriz ageri dira zenbait kultura-bereizgarri buruzko polemikak (*hiyab*-aren erabilera edo ablazioa, adibidez); beraz, egokitzat jo dugu gai horiek berriz aztertzea eta zenbait arrazoiketa gehitzea.

Gai horretan, bi plano bereizi ditzakegu: bat, orokorragoa –migrazioekin bateraezintasun-egoerak sortzen direla dioen adierazpena; immigrazioaren

aurkako jarrerak argudiatzen dute-, eta bestea, askoz espezifikagoa, zenbait jardunbideren aurkako gizarte-gaitzespeneko adierazpenak, jardunbide horiek harrera-gizartearen arau eta axiologiaren (balioak) kontratztat hartzeagatik. Azter ditzagun bi plano horiek.

1. **Kulturaren kontzeptu antropologikoa** baliatuta (eta kultura guztiek duten ezaugarria: **errealitate aldakorretarako egokitzapen-mekanismoak izatea**) eta aldaketa soziokulturalei buruzko literatura zientifiko-sozial ugarian oinarrituta, horren inguruan izaten diren nahasteak adierazi genituen 2003an.

23. Horri guztiari buruz, arrazakeriaren eta arrazakeria berriaren harira idatzi nituen artikulua ("Racismo" eta "Nuevo Racismo") kontsultatu daitezke, hemen: G. Malgesini eta C. Giménez (1997) *Guía de conceptos sobre migraciones, racismo e interculturalidad*, Madril, La Cueva del Oso.

Idea hau zen gure abiapuntua, eta oraindik ere horri eusten diogu: kulturen arteko bateraezintasuna adierazten denean, "kultura-bereizgarria eta kulturaren osotasuna nahasten dira, bai eta banakakoen plano eta plano kolektiboa ere". Hau gehitu genuen: "ez da kontuan hartzen edo ahaztu egiten da kulturak aldatzen direla, elkarrekiko egokitzapeneko prozesuak eta gizarte- eta kultura-aldaketarako aukerak daudela". Bada, **azter dezagun hori geure historian**, ikusteko nola izan diren kultura-ondare asko eta asko, nahasita eta elkarri eraginda, inola ere bateraezin izan gabe.

Gaur egungo Espainiari bertako kulturen ikuspegitik erreparatzen badiogu, iruzkin hura idatzi eta hogeitaz geroago, ikusiko dugu orain **aniztasun handiagoko herrialdea dela. Halakoa izan zen beti, modu zabal eta sakonean.**

- Historian, Iberiar penintsulako lurralde eta ekosistemetan, herri asko eta askoren kultura desberdinak gehitu dira, estratuak balira bezala, baina ez estratu geologikoak, baizik eta ondare-estratuak: nekazari paneuroparrak (horien artean, baskoien aurrekariak); Tartesoko zibilizazioa, hegoaldean, K.a. XII. eta V. mendeen artean; iberiar herriak, herri zeltak eta haien nahasketak; feniziarren, greziarren eta kartagotarren koloniak; erromatarak eta erromanizazio sakona; juduen diaspora, erromatar Hispaniaren garaitik; bisigodoak, sueboak, alanoak eta Europako erdialdeko beste herri batzuk, V. mendearen hasieratik; berberek eta arabiarrek, VII. mendetik hasita, zortziehun urtez²⁴; ijitoak, XV. mendetik; XVIII. mendeko alemaniar kolonoak; ingelesen komunitateak, hegoaldean batez ere...

Etnogenesiaz gain –hau da, lurralde eta herri bakoitzean historian sortutako eta asmatutako kultura eta tradizioak– eta herrien arteko interakzioez gain –kultura-eragin eta –mailegu ugariak izan dira, bai

eta sinbiosi-, uztartze- eta sinkretismo-prozesu ugari ere–, **Iberiar penintsulako aniztasun sakon eta izugarriaren arrazoiak dira, garrantzitsuena agian, migrazioak dira**, gizakiaren etengabeko mugikortasuna. Era guztietako migrazio-fluxuez ari gara, 3. iruzkinean jada aipatu duguna: Penintsularen barrualdean, kanporantz, kanpotik jasoz...

Sormenak eta asmamenak, harremanak eta elkarreraginek, egokitzapenak eta berregokitzapenak, kanpo- eta barne-mugikortasunak... horien guztien ondorioz, berezko kultura-adierazpenak sortu dira Andaluzian, Gaztelan, Leonen, Galizian, Kanarietan, Katalunian, euskal lurraldeetan, Balearretan, Murtzian, Valentzian, Nafarroan, Extremaduran eta beste leku batzuetan; hainbat gutxiengo etniko daude, hala nola ijitoak, maragatoak, agoteak, pasiegoak, bakeiroak eta txuetak; askotariko azpikulturak, hizkuntzak eta dialektoak, eta hizkerak eta azentuak daude, bai eta aberastasun handiko ondare material eta ezmateriala ere, arlo asko eta askotan: arkeologia, dokumentazioa, artea, arkitektura, literatura, gastronomia, artisautza, herri-kultura, etab.).

Kulturak bateraezinak izan balira, nolakoa izango liriteke Espainia gaur egun? Nolakoa izango zen haien interakzioa, bat-egitea eta hibridismoa?

- Azter dezagun berriz gaur egungo garaiko egoera. Ondare soziokultural, konplexu eta anitz horri –dinamikoa eta aldakorra da gainera, eta etengabeko bilakaera-prozesuan dago, ez ahaztu

24. Bikingoen eta normandiarren erasoak, konkistak eta harpilatzeak ere aipa daitezke, baina kokapenak eta kultura aztarna nabarmena utzi zituzten kolonizazioak soilik aipatu ditugu.

hori!-, **azken hirurogeita hamar urteetan, atzerritarren hainbat multzoren ekarpen soziokulturalak gehitu zaizkio.** Lehenik eta behin, 1960ko hamarkadan jada etorri eta kokatu zirenak, irekitasunaren, desarrollismoaren eta eskala handiko turismoaren hasieraren ondoren (Europako iparraldekoak, erdialdekoak, Herbehereetako jendea, etab.)

"Lehen Munduko egoiliarak" dira, eta presentzia eta eragin-ahalmen handia dute, kostaldeko eremuetan eta uharteetan batez ere. Garai horretan ere, beste talde batzuk iritsi ziren, bakoitza bere arrazoiengatik, hala nola Ekuatore Gineako hiritarrak (espainiar nazionalitatekoak), kubatar erbesteratuak, lehenbiziko sefardiak (Espainiara etortzea itzulera gisa bizi zuten), Trásos- Monteseko portugaldarrak eta irakiar profesionalak (medikuak, batez ere).

Zertxobait geroago, 1970eko hamarkadaren erdialdetik, mundu-krisiaren ondoren eta Gerra Hotzaren garaian oraindik ere, beste migrazio ekonomiko batzuk eta erbesteratze-prozesuak (Latinoamerikako Hego Konotik) izan ziren. Fluxu horiek handiak ziren, erritmo gero eta bizkorragoak: Andeetakoak eta beste latinoamerikar batzuk, magrebtarrak, errumaniarrak eta Europako ekialdeko beste kolektibo batzuk, txinatarrak, pakistandarrak, bangladeshtarrak eta Hindustango beste talde batzuk, senegaldarrak, nigeriarrak, kamerundarrak eta Saharaz hegoaldeko lurraldeetako beste talde batzuk...

Finean, giza mugikortasunaren eta migrazioen ondorioz, dibertsifikazio soziokulturalako prozesuak bizirik jarraitu du. Oraingoan -garrantzitsua da horren esanahi osoa ulertzea-, **dibertsifikazio berri** bat da, testuinguru berri batean (globalizazioa). Bizi-adierazpide eta -estilo berri horiek iraupen luzeko aniztasun historikoari gehitu zaizkio. Izan ere,

nazioarteko migrazioek aniztasun sozio arraziala, etnikoa, linguistikoa, erlijiosoa ekartzen ari dira dendetara, auzoetara, janzkerara, gastronomiara, musikara eta abarretara. Migrazioaren gaiaren alderdi kulturala ulertzeko eta hari buruzko zentzuzko ikuspegi bat izateko, **komeni da, aniztasunaz hitz egiteaz gain, dibertsifikazioaz** ere hitz egitea. Aniztasuna, gertaera bat izateaz gain, prozesu bat ere bada, prozesu irekia, tirabirak eta eztabaidak eragiten dituen.

Hau da argudiatzen ari garena: lehenik eta behin, Historiak erakusten duela kultura-ondareak -pentsatzeko, sentitzeko jarduteko modu partekatu horiek, eta ikuspegi, balorazio eta bizi estilo desberdin horiek-, oso anitzak izan arren eta **bateraezinak edo elkarren aurkakoak direla iruditu arren, elkarreragiten dutela, nahasi egiten direla, uztartu egiten direla.** Eta horren guztiaren korolario, hau ere argudiatzen dugu, bigarren mailan: **dibertsifikazio soziokulturalako prozesu zabal horietan, eztabaida, konfrontazioa, gatazka edo tirabirak sorrarazten dituzten alderdi espezifikoak daudela.**

Kulturak ez dira bateraezinak. Alderdi edo ezaugarri bat edo bestea dira bateraezinak, edo, zehatzago esanda, jokabide edo ohitura batzuk hautematen dira bateraezintzat edo integratzeazkotzat. Baina, **bateraezinak zerekin? Integraezinak non edo zertan?** Azter dezagun orain bigarren maila hori, hiritarren eguneroko bizitzako esperientzien maila zehatzago hori

4. "Integratu ezin diren kulturak daudela" pentsatzen dutenak eta irmo uste dutenak ez dira immigrazioko kultura-adierazpideen multzoari buruz ari, baizik eta kolektibo jakin batzuei buruz, zehazki, arabiarren eta musulmanen kolektiboari buruz (arabiarren-berbereak musulmanak esatea zehatzagoa izango litzateke).

Hartu kontuan, garrantzitsua baita, bereizgarritasun erlijiosoa (erlijio musulmana) gehitu zaiola hor kalifikazio kultural edo etnikoari. Halaber, eztabaida-testuinguru honetan, txinatarren kolektiboa ere aipatu da noiz edo noiz, eta iragazgaiztasuna adierazi da, aparte geratzen direla, ez dutela harremanik izaten espainiarrekin, edo harreman gutxi dituztela.

Nolanahi ere, bateraezintasun kultural hori argudiatzeko, kultura horien balio jakin batzuk eta berezko jardunbideen –“integratu ezin direnak”– eta kultura hartzailearen berezkoak kontrajartzen dira. Puntu horretan aurrera egiteko, lagungarria izan daiteke **inklusio hitza erabiltzea, integrazio hitza erabili ordez**, gertatzen ari den lekualdatze terminologikoa eta semantikoa baliatuta. “Integrazioaren” nozioa 1960ko hamarkadan hasi ziren erabiltzen –Frantzia, batez ere, bai eta Latinoamerikako politika indigenistetan ere– eta zenbaitek “asimilazio”²⁵ terminotik bereizteko ahaleginak egin dituzte. Erabilera horien ondoren, 1989. urtearen inguruan hasi ziren terminoa definitzen, Europar Batasunean, eta migrazio-politiken bigarren ardatz gisa agertzen hasi zen.

Bada, **inklusio-politika, -plan edo -sailen** nozioa gero eta gehiago erabiltzen da, bai eta **gizarte inklusiboa** kalifikazioa ere, eta **inklusio-jardunaldiak** eta abar antolatzen direnean ere erabiltzen da. Termino horren abantailetakoa bat da “inklusioak” osotasuna –gizartea– nabarmentzen duela, eta ez zati bat –besteak, migratzaileak, ijitoak–; hau da, “integratu **behar dutenak**”. Beste abantaila bat da, hain zuzen, “inklusio” terminoa argiago bereizten dela asimilazioaren noziotik.

Aipatzen ari garen gaian aplikatuta, zerbait interesgarria eta argigarria ikusi

daiteke. “Integratu ezin diren kulturak daude” esan beharrean, “sartu ezin diren kulturak daude” (inklusioa) esaten badugu, garrantzitsutzat jotzen dudana zerbaitez ohartuko gara. “Frogatu beharraren karga” –ustezko ezintasuna probatzeko eginkizuna– jada ez dagokio besteari edo gutxiengoari –hau da, “integratu ezin den kulturari”–, baizik eta gizarte osoari eta gehiengoari; hain zuzen ere, harrera-gizarteari –biztanleriak zein erakundeek eta administrazioek osatzen dute hori–. Izan ere, horri dagokio, harrera-poloari, ez erabat baina bai gehienbat, kultura-bereizgarritasun hori sartzen den (inklusioa) edo ez erabakitze borondatea eta ahalmena.

Noski, gutxiengoek –kasu honetan, atzeritar jatorriko gutxiengoek, kanpokoek edo aloktonoek– egoki egin beharko dute bizi diren gizarte nagusira (eta nagusian). Nolanahi ere, kultura-bereizgarri jakin bat (familia-mota, erritualak, etab.) “integragarria” izatea edo ez **gizarte osoaren izaera inklusiboaren edo baztertzailaren** mende egongo da.

5. Atzeritar pertsona eta familiak latitude eta jatorri urrun eta berezietatik hamarkadatan eta hamarkadatan iritsi eta kokatzen aritu ondoren, Espainiako gaur egungo dibertsifikazio soziokultural berriko prozesua, **nabarmena eta erakargarria izateaz gain, konplexua da eta erronka handia sortzen du**. Azken urteotan, autonomia-erkidegoetako eta toki administrazioen erakundeek aniztasunaren aldeko plan ugari egin dituzte, eta hori etapa berri horren adierazle ona da.

25. Horri buruz, G. Malgesiniren eta C. Giménez-en aipatutako laneko (1997) “Asimilación” eta “Integración” kapituluak kontsultatu daitezke.

Plan horien multzo handi eta aberatsari begiratu orokor bat eginez gero, labur-laburra bada ere, leku gutxi baitugu, hor zer "integra" daitekeen eta zer ez identifikatzen saiatu gaitzke. Noski, ez dut uste integrazio-egintza edo haren adierazpen politikoena eta baztertzailena (kulturen bateraezintasuna, alegia) aipatzen dutenek hori esatean musika, errezeta edo hizkera berriei buruz ari direnik, baina jantzi-mota bati buruz adierazten dute ezintasun hori: emakume musulman batzuen jantziari buruz, eta ez soilik *hiyabari* buruz, baizik eta *burkari* eta antzeko beste jantzi batzuei buruz ere. Gogoan izan *burkaren* erabilerari buruzko eztabaida handi eta garrantza, *burkaren* erabilera minoritarioa izanda ere.

Ez dut uste erritualei buruz ere hori planteatuko dutenik, beste kolektibo, identitate eta kultura batzuetakoek gero eta gehiago adierazten baitute beren burua horrelakoen bidez.

Espainiako festa-ziklo trinkoko erritu ikusgarriez gain (Eguberria eta Erregeak, Aste Santuko prozesioak, tokian tokiko jaiak, etab.), orain Urte Berri Txinatarra, Inti Raymi andetarra, Ramadana eta ziklo musulmaneko beste jai batzuk, juduen Hanukkah eta abar ditugu, besteak beste. Baina ez dira erritual guztiak onartzen, eta duela hamarkada batzuetatik, polemika dago emakumeen mutilazio genitalaren inguruan (ablazioa edo klitoridektomia).

Kultura-bateraezintasunaren ustezko arazo orokorra horrela kokatuta, zehatzago eta arazoa jardunbide jakin baten onarpenean edo gaitzespenean zehaztuta, konponbidea, edo, gutxienez, arazoa bideratzeko modua ikusten da. **Giza eskubideen kontrakoak diren** jardunbideen kasuan –kultura aloktonoetan edo autoktonoetan jada zeudenak, hala nola ablazioa–, gaitzespena, justifikatuta egon ez ezik, beharrezkoa da, ezinbestekoa. Ez dago

bateratu edo toleratu beharreko ezer, giza eskubideekin bateraezina baita.

Eta giza eskubideen kontrakoak ez diren jardunbideen kasuan, bertako ohituretan edo arauetan tirabirak edo tentsioak sortzen badituzte, eta, beraz, eztabaida sortzen badute –adibidez, *hiyab*-aren erabilera eskolan edo lantokian–, horretarako alternatiba, gure ustez, aldean arteko elkarrizketa-espazioak sortzea da, bitartekaritaz babestuta, eta jardunbide horiek arautzeko ados jartzea. Jada badaude jardunbide onak ildo horretan.

Iturriak eta materialak

~akademia

"Sobre la integración/no integración de los musulmanes en España" (Universidad Nacional de Educación a Distancia unibertsitateko Antonio Gutiérrez irakaslearen artikulua akademikoa, 2012koa, Espainian bizi diren musulmanen integrazioari buruzkoa, <https://bit.ly/3zMIbKd>)

"Luces y sombras en la integración de los migrantes en España" (Carmen González Enriquez-en artikulua akademikoa, Espainiako migratzaileen integrazioaren ezaugarri buruzkoa. 2016ko maiatzean argitaratu zen, Elkano Errege Institutuaren webgunean., <https://bit.ly/3xlvQuP>)

"Las políticas de integración social de inmigrantes en España" (Nafarroako Unibertsitate Publikoko Miguel Laparra eta Antidio Martínez de Lizarrondo irakasleen artikulua akademikoa, Espainian mmigratzaileen gizarte-integrazioaren arloan aplikatzen diren politikei buruzkoa, <https://bit.ly/2WQgCBv>)

"La integración de inmigrantes en España: el modelo Patchwork" (Nafarroako Unibertsitate Publikoko Antidio Martínez de Lizarrondo irakaslearen artikulua akademikoa, migratzaileen integrazioaren esperientzia zehatz bati buruzkoa, <https://bit.ly/37hcqWz>)

"La inmigración en España, ¿una integración con pies de plomo?" (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Sara Moreno-Colom eta Ramon de Alós irakasleen artikulua akademikoa, Espainian bizi diren migratzaileen integrazioaren errealitateari buruzkoa, <https://bit.ly/2TVrjlc>)

~estatistikak

"Integration of migrants into destination Society" (Migration Data Portal atariko dokumentua. Migrazioen integrazioari buruzko estatistikak eta joerak daude, <https://bit.ly/3y9tksV>)

"Migrant integration statistics" (Eurostaten estatistikak, Europako migratzaileen integrazioari buruzkoak. Integrazio hori hartzen duten zenbait gizarte-esparru xehetasunez aztertzen dira, <https://bit.ly/3rOTn66>)

~txostenak

"El fenómeno migratorio en España. Reflexiones desde el ámbito de la seguridad nacional" (Segurtasun Nazionalerako Departamentuaren dokumentua, 2019ko martxoan argitaratua, Espainiako migratzaileen egoera orokorrari buruzkoa, <https://bit.ly/3BQUt67>)

"La integración de los inmigrantes en España: una propuesta de medición a escala regional" (Observatorio Permanente de la Inmigración behatoki lanerako dokumentua, Espainian bizi diren immigratzaileen integrazioari buruzkoa, <https://bit.ly/3rEpigr>)

"Informe Anual del Defensor del Pueblo 2019. Volumen II: La contribución de la inmigración a la sociedad española" (Espainiako Arartekoaren dokumentu ofiziala. Dokumentu horretan, migratzaileen aurkako zenbait zurrumurru gezurtatzen dira, datuak baliatuz, <https://bit.ly/3BKdl1a>)

"Las políticas de integración en España según el índice MIPEx" (Barcelona Center for International Affairs aditua argitaratutako lanerako dokumentua, 2020ko abendukoa, migratzaileak Espainian integartzeko neurri buruzkoa, <https://bit.ly/3iXqWix>)

"Crecer en España. La integración de los hijos de inmigrantes" (Caixaren gizarte-ekintzaren dokumentua, immigratzaileen seme-alabak Espainiako gizartearen integrazeari buruzkoa, <https://bit.ly/2VnpAFM>)

~prentsa / komunikabideak

"La mayoría de los hijos de musulmanes se sienten integrados en España" (Diario de Sevilla egunkari artikulua, 2017ko azaroan argitaratua, Espainian bizi diren immigratzaileen seme-alaben integrazioari buruzkoa, <https://bit.ly/375xvKs>)

"España: modelo de integración de inmigrantes, a pesar del lenguaje" (Sputnik albiste-agentziaren artikulua, 2021eko apirilean argitaratua, migratzaileak integartzeko Espainiako ereduari buruzkoa, <https://bit.ly/3fnbz1K>)

10.

“Lanpostuak kentzen dituzte. Langabezia egonda, ez dut ulertzen nola egon daitekeen immigraziorik”

LANDUTAKO GAIAK

migrazioen ekarpen ekonomikoa; osagarritasuna *versus* ordezkapena; utilitarismoa

Abiapuntuko testua ~2003

Gutxitan esaten da immigrazioak enplegua dakarrela, beste batzuek lana izatea errazten duela eta beste batzuek lanbide-mailan gora egiteko aukera ematen duela. Enplegua dakar, atzerritarren lanindarra ezinbestekoa baita zenbait enpresa, ustiategi, negozio eta jardueratarako, langile atzerritarrak erabiltzeari esker egiten baitute aurrera, eta, batzuetan, langile horiei esker egin daitezke jarduera horiek. Horren adibide dira nekazaritzan langile atzerritarrak erabiltzen dituzten familia-ustiategi txikiak. Atzerriko langileak horri eusten laguntzen dioten heinean, beste lanpostu batzuei eustea ere laguntzen dute. Beste batzuek lana izatea errazten dute, beste batzuek

lana izateko aukera ematen dutelako. Esate baterako, bertako emakume asko atzerriko etxe-langileak dituztelako joan daitezke lanera (1. iruzkinean aztertu eta zehaztu dugu hori). Azkenik, immigratzaileek lanpostu jakin batzuk betetzeak aukera ematen dio bertako biztanleria aktiboari hobeto balioetsitako lanpostuak lortzeko. Adibidez, bertako jornalariak enpresa merkaturatzaileetako plantako lanpostuak eskuratu ditzakete. Horiek dira harrera-gizarterako inpaktu ekonomiko positiboetako batzuk. Baina heldu diezaiogun zuzenean arazoari, ustez kentzen dituzten lanpostuei.

Pertsona batzuek, nahi ez duten lan-egoera batean egonda (langabezia, azpikontratatura edo prekarietate-egoeran daudelako), harriduraz ikusten dute gero eta atzerritar gehiago daudela etxe langile, jornalari, zaintzaile, zerbitzari, mezulari edo igeltsero gisa lan egiten. Beste batzuek, gogoko lana izan arren, uste dute “oso bidegabea dela immigratzaileak kontratatzea, Espainian hainbesteko langabezia egonda”. Eta hau galdetzen dute: “Nola egon daiteke immigrazioa? Nola liteke gobernuak, urtero, kontingenteak edo langile atzerritarren kupoak antolatzea, hainbeste langabezia egonda?”. Hemen, berriz ere, bereizi egin behar dira zalantza osasuntsu eta kezka ulergarri bat erakusten dutenen eta jarrera xenofoboak dituztenen artean. Azken horiek, hain zuzen, lanaren gai delikatua baliatzen dute immigratzaileak ondasun urri baten usurpatzaileak direla esateko, bertako hamar langiletik batek lanik ez duelako.

Langabezia eta atzerriko emigrazioa aldi berean egoteak (herrialde guztietan gertatzen da hori) badu azalpena. Hain zuzen ere, langabezia dagoen biztanleria aktiboak ez du immigratzaileek betetzen dituzten lanpostu horietan jardun nahi izaten, batez ere langabezia-prestazioak kobratzen eta eskaintza hobeen zain egonez gero. 1989an, Espainian

nekazaritzako immigrazioari buruz egin genuen lehen landa-lanean, fruta asko biltzen den probintzia bateko Lan Ministerioko ordezkariak jakinarazi zigun aurreko urtean hegoaldeetik ehun jornalari baino gehiago joan zirela probintzia horretara (hitzarmenaren arabera kontratua, ostatuaren eta abar izanda), baina urte horretako kanpainarako sasoiko zazpi langile baino ez zirela joan.

Laneratzeari buruzko estatistiken arabera, eztabaida ezina da immigratzaileak, gehienbat, lan merkatuko bigarren mailako sektoreetan aritzen direla. Hor, soldatak txikiagoak dira; sarritan, kontraturik eta prestaziorik gabe jardun behar izaten dute; eta lan-baldintzak gogorragoak dira. Beraz, **ez da egia lehiakideak edo usurpatzaileak direnik**. Langile atzeritarrak zenbait lanpostutan aritzea zerbait osagarria da; ez dira bertako langileak ordeztu. Esan ohi denez, "espainiarrek egin nahi ez dituzten lanak egiten dituzte".

Baina, kontuz, zenbait gauza zehaztu behar baitira hainbestetan lasaitzeko eta immigrazioa positiboa dela adierazteko erabiltzen den esaldi horren inguruan.

Oro har zuzena bada ere (sektorekako eta eskualdekako azterketa egin beharko litzateke), ez da sentsibilizatzeko argudio ona, honela uler daiteke-eta: "Noski, onartu behar ditugu, baina lan txarrenak egiten dituzten bitartean". Argudio hori arriskutsua da, lanbideak nazionalitateen arabera segmentatzea legitimatzen duen heinean, eta, epe luzera, ondorio gaizto hau izan dezake: eskusioa legitimatzea, immigratzaileek lan-mailaz igotzeko aukera dutenean eta bertako langileek betetzen dituzten lanbide-nitxoetan sartzen direnean. Beraz, esaldi hori ondo amaitu beharko litzateke: **"espainiarrek baldintza horietan bete nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituzte"** (soldata, ordutegiak, kontraturik eza). Alderdi hori hurrengo iritzirik iruzkineko gaian sartzen da.

Finean, bi eskusio-prozesu eragotzi behar dira:

- a. immigratzaileek lan-mailaz igotzeko aukera dutenean, hori ez lortzea diskriminatzen dituztelako, eta
- b. lan-mailaz igotzeko aukera izaten hasten direnean, bertako langileek aukera horiek lehia negatibotzat hartzea eta jarrera xenofoboak izatea.

Arrazoiketaren laburpena

~2003

- 01 Aurretiko premisa: ez da esaten, eta esan beharko litzateke, immigrazioak, aldiz, **lana dakarrela**, beste batzuek lana izatea **errazten duela** eta beste batzuek **mailaz igotzeko** aukera ematen duela.
- 02 **Herialde guztietan** daude immigrazioa eta langabezia aldi berean.
- 03 Hori, neurri handi batean, bertako biztanleria langabeak lanpostu jakin batzuk **bete nahi ez dituelako** gertatzen da.
- 04 Migratzaileak, gehienbat, **lan-merkatuko bigarren mailako sektoreetan** aritzen dira (soldata txikiagoak, sarritan kontraturik gabe, lan-baldintza gogorragoak...).
- 05 **Osagarritasuna** da nagusi, erabat, **ordezkapenaren** gainetik.
- 06 **Ez da etikoa eta**, gainera, **kaltegarria** izan daiteke argudio hau sentsibilizazio positiborako erabiltzea: "espainiarrek egin nahi ez dituzten lanak egiten dituzte".

Eguneraketa

~2023

Hel diezaiogun berriz -iruzkin honetan eta hurrengoan- **lanaren funtsezko auziari**: enplegua eta langabezia, eta immigrazioaren fenomenoarekin dituzten loturak. Erabat ez bada ere, nazioarteko migrazioak **migrazio ekonomikoak eta lan-arrazoiengatik migrazioak** dira. Atzerritarrak gainera, eskubide-subjektuak (eta betebeharrak-subjektuak) dira, **langileak, merkataria eta enpresaburuak**, eta hori -migratzaileen kasuan bezala- haien identitatearen eta ezaugarrien parte da.

Gizarte hartzailean **sartzeko, integratzeko edo barneratzeko** prozesuaren lehen alderdia laneratzea da. Enpleguarekin eta langabeziarekin lotutako gaiak, bestalde, **oso delikatuak** dira iritzi publikoan, herrialdean langabeziako eta enplegu-prekarietateko tasak altuak baitira. Izan ere, enplegu/langabeziaren eta immigrazioaren arteko lotura Europako eskuin-muturraren hitzaldietako *leitmotiva* edo gai nagusietako bat da.

Arazoi horiengatik guztiengatik, eta ez dira bakarrik, funtsezkoa da eztabaida publikoan giza mugikortasunarekin lotutako laneko gaietara heltzea -behin eta berriz-. Izan ere, azken bi hamarkadetakoa argitalpenak berrikusita, argi dago gai hori aztertzen jarraitzen dela; are gehiago, gori-gorian dagoen gaia da, eta, hor, eztabaidak eta ikuspegiak norgoerak izaten dira, immigrazioaren aurkako kanpainetan erabiltzen denean, batez ere.

Immigratzaileek lanpostuak kentzen dituztela esaten da oraindik ere? Zer bilakaera izan du migratzaileen laneratzeak azken bi hamarkadetan? Zer ondorio eragiten ari da hori ekonomian? Immigrazioak krisian dauden sektoreak mantentzen al ditu oraindik ere? *Eragin osagarria* al du oraindik ere?

1. Duela hogeita urte, jada esaten zen "immigratzaileek lanpostuak kentzen dituztela", eta oraindik ere esaten da. Izan ere, behin eta berriz esaten den zerbait da. 1980ko hamarkadan, immigrazio-zikloaren hasieran, hori esaten hasi ziren jada, garai hartan oso immigratzaile gutxi egon arren! Garai hartako egunkari-zati batzuk ditut gordeta, eta, atzerriko lan-indarra gutzitzekoaren % lera iristen ez bazen ere, batzuek bertako lanpostuen mehatxutzat hartzen zuten dagoeneko.

Baina ikus ditzagun duela gutxiagoko datuak. 2014an, Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) immigrazioarekiko jarrerari buruz egindako inkestan, immigratzaileek espainiarrei lana kentzen ote dieten galdetuta, % 42k nahiko ados edo oso ados zeudela erantzun zuten. Immigratzaileek bertakoek egin nahi ez dituzten lanak egiten ote dituzten galdetuta, berriz, % 67k baietz erantzun zuten. Interesgarria eta adierazgarria da hori. Hau da, **alde batetik, hutsune bat betetzen dutela onartzen da, eta, bestetik, lanpostuak kentzen ari direla esaten da.**

Kontraesan horrez gain, "lana kentzen digute" adierazpenean badago beste bereizgarri nahiko harrigarri bat: **aldi berean esaten da migratzaileek ez dutela lanik egiten eta langabeziagatik prestazioaz abusatzen dutela.** Esate baterako, 2014an, Gasteizko alkate Javier Marotok hau esan zuen: "gure hirian, zenbait nazionalitatekoak gizarte-laguntzetatik bizi dira, batez ere, eta ez dute inolako interesik lan egiteko edo integratzeko"²⁶.

26. Moha Gerehou-k idatzitako artikulua honetan aipatzen da hori: *La paradoja del inmigrante de Schrödinger: acusar a los extranjeros de robar trabajos y también de ser vagos que viven de ayudas*, *elDiario.es*, 2019.11.30.

Handik gutxira, 2015eko otsailean, Madrilén, esaldi hau zuen afixa ageri zen: “*seis millones de inmigrantes, seis millones de parados. ¡No es racismo, son matemáticas!*” (hau da, “sei milioi immigratzaile, sei milioi langabe. Ez da arrazakeria, matematika da!”), *Lo Nuestro* (Gurea) hashtag-a gehituta. Horrek *Primero los de casa* (Lehenbizi, etxeokak) eta *Stop a la inmigración* (Gelditu immigrazioa) kanpaina xenofoboak iragartzen zituen jada. Iruzkin espezifikoak egingo ditugu kanpaina horiei buruz (lanaren bigarren zatian).

2. Espainian azken bi hamarkadetan atzerritarren kopuruak gorakada nabarmena izatearekin batera (ikusirik aurreko iruzkinetako datuak), lan-merkatuan ere, noski, haien presentzia areagotu egin zen. 2019ko bigarren seihilekoan, 19 milioi pertsona zeuden Espainian lanean. Horietatik, **% 87,9 espainiarrak ziren; % 7,3 EBtik kanpokoak ziren, eta % 4,8, berriz, EBko herrialdeetakoak.** Bestela esanda: Espainian lan egiten duten ehun pertsonatik hamabi atzerritarrak dira. Langabezia-prestazioak kontuan hartzen baditugu, proportzio bera dago: 2019ko urrian, adibidez, prestazio horien % 89,8 espainiarrentzat ziren, eta % 10,2, berriz, atzerritarrentzat²⁷.

Hori bai, oraindik ere, migratzaileak kualifikazio-maila txikiagoko lanetan laneratzen dira, batez ere; hau da, lan-merkatuko bigarren mailako segmentuetan, 2003an aipatu genuen moduan. Hori erakusten dute egin diren zenbait azterketak. Adibide gisa, har dezagun *Un arraigo sobre el alambre* txostena. Comillasko Universidad Pontificiako Migrazioen Institutuko talde batek egin zuen, Cáritasentzat, eta 2020ko irailean aurkeztu zuten²⁸.

Hau da azterketa horren ondorioa: **kontraesana dago atzerritar jatorriko biztanleriaren zati handi baten errotze-maila altuaren eta mendeko**

posizio sozioekonomikoaren artean.

Kontraesan horretan garrantzi handiena duten datuetako batzuk azpimarratuko ditut. Pertsona horien %42 gutxienez 15 urte daramate Espainian, %23k goimailako ikasketak dituzte (espainiarren antzeko ehunekoa, espainiarren artean %29k baitute ikasketak-maila hori), hirutik batek espainiar nazionalitatea du jada, eta galdetutakoen %94k Espainian jada onartu dutela pentsatzen du, baina hala ere, lan-merkatuan prekaritate eta ezegonkortasun handiko egoeran daude.

Datu horiek bat datoz, ez soilik zenbait adierazleren analisi konparatiboan lehenago aztertu ditugun datuekin (ikusirik 5. iruzkina), baizik eta –eta hori da kezkarria– 2003ko gure testuan eta beste hainbat azterketatan eta ikerketatan adierazitakoarekin ere. Hau da, **atzerriko biztanleriaren errotze-maila handiagoa** da (antzinatasunean, familietan, nazionalizazioetan, etab.), eta ekonomian, lan-arloan, merkataritzan, komunitatean, hezkuntzan, artean eta, finean, gizartean eta kulturaren **presentzia handiagoa** dute, baina, hala ere, **haien egoera sozioekonomiko nagusiak bere horretan dirau**, ez dator bat errotze-mailan eta presentzian izandako aldaketekin.

Aurreko horrek ez du esan nahi ez dela migrazioen arloan hobekuntza eta aurrerapen partikular zein kolektiborik egon, nabarmena baita egon direla, baina argi erakusten du egiturazko erronka bat dagoela eta integrazio- eta inklusio-prozesuak hauskorak direla. Migratzaileen sektore handi bat prekaritate juridikoko egoeran dago, eta xenofobia gora egiten ari da Europako eta Espainiako gizartean.

27. “*Mercado laboral*” izeneko dokumentuan (Andalucía Acoge erakundearen Stop Rumores estrategia).

28. Juan Iglesias irakasleak (IUEM/UPC) gidatutako ikerketa. 2017ko urtarrileko INEren udal-eroldaren analisisia egin zuten, banakako 1.200 kasu aztertuta sei autonomia-erkidetotan.

Faktore horiekin batera, migratzaile gehienak lan-merkatuaren bigarren mailako segmentuetan aritzea da gizarte-integraziorako eta gizarte inklusiboa lortzeko bidea eragozten, geldotzen eta, batzuetan, galarazten duen beste faktore bat.

3. Immigrazioak ez ditu lanpostuak kentzen; aldiz, onuragarria da zenbait ekonomia-sektore mantentzen laguntzeko:

etxe-zerbitzuak, zaintza eta garbiketa; hurbileko merkataritza auzoetan; ostalaritza eta eraikuntza; nekazaritza eta abeltzaintza, etab. Migratzaileak sektore horietan eta beste batzuetan aritzeak aukera ematen du lanpostuak eta okupazioak mantentzeko eta sortzeko. Enpleguaren gaineko zuzeneko ondorio hori onuragarria da sektore, lan-esparru eta enplegu-nitxo horietan jarduten duen biztanleria hartzailearentzat ere, immigrazioerik gabe nekez iraungo baitzuten.

Zenbait azterketak eta txostenek frogatzen dute hori. Alde horretatik, txosten sendo bat aipatuko dugu: UGT sindikatuaren *TrabajoLibreDeBulos*²⁹ txostena, 2019an aurkeztua. Hona hemen txosten sindikal horretan ateratako hiru ondorio:

- ▶ "Immigrazioak **ondorio positibo garrantzitsuak izan ditu, jardueratan, zuzenean zein zeharka.**"
- ▶ "Immigrazioak **mugikortasuna ekarri dio Espainiako lan-merkatuari** eta enpresek aipatu izan dituzten **zurruntasunetako batzuk konpontzea eragin du**".
- ▶ "Immigratzaileak etxe-zerbitzuko lanetan eta haurrak eta adinekoak zaintzen aritzea **lagungarria izan da lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko** Espainian, eta horrek bultzada handia eman dio ekonomiari (enplegua, zergak, kontsumoa...)."

Izan ere, migratzaileen okupazioak enpleguan duen zuzeneko eragin positibo horrez gain, **ekonomia osoaren onurarako eragin orokorra gehitu behar da, eta hori, aldi berean, onuragarria da biztanleria osorako.** Oro har, biztanleria gaztea da, laneko adinean dagoena –migratzaileen artean, oso gutxi dira 65 urtetik gorakoak eta/edo erretirodunak–, eta egiten duten ekarpena (kotizazioak, PFEZa, kontsumoaren gaineko zergak...) jasotzen dutena (langabezia-prestazioak, erretiroak, gizarte-zerbitzuak...) baino handiagoa da; hau da, migratzaileen ekarpenak handiagoak dira sortzen dituzten gastuak baino. Hurrengo iruzkinean zehaztuko dugunez, migratzaileen ekarpenek Gizarte Segurantzaren defizita murrizten lagundu dute.

Immigrazioa arazoa, mehatxua edo gizarteko gaitzen kausa dela esaten denean, badirudi ahaztu egiten dela –edo, hobeto esanda, ez dela ikusi eta kontuan hartu nahi– Espainian bizi diren immigratzaileek **ongizate-estatuari eusten laguntzen dutela, neurri handian**, bai Gizarte Segurantzarako kotizazioen bidez, bai zergen bidez.

Eta ez soilik bide horien bidez: **eragin positiboa dute biztanleria aktiboaren guztizko kopuruan zein guztizko kontsumoan.** Bi alderdi horiek aipatutako txostenean eta beste azterketa batzuetan adierazten dira:

29. Txostena sindikatu horrek "zenbait antolakuntza politikoren edo hedabideren diskurtso faltsu edo desitxuratuaren aurka egindako kanpainaren barruan kokatzen da, immigratzaileen edo atzerritar nazionalitate edo jatorriko pertsonen aurkako aurreiritziak eta gaitzespena bultzatzen baitute" (enfasia jatorrizko testuan).

Biztanleria aktiboari dagokionez, jada aipatu dugu immigrazioak **biztanleria-piramidea gaztetzea eragin duela**, eta hori oso garrantzitsua da Espainian: “10 urteko denbora-tartean, 65 urtetik gorako biztanleria %16,6tik %19,4ra handitu da.” Eta hau gehitzen dute txostenean: “Espainian jaiotako espainiarrak soilik kontuan hartuko bagenitu, ehuneko hori %21,3 izango litzateke”.

Zahartze-prozesua arintzeko ondorio demografiko horrek **biztanleria aktiboa ez galtzea dakar berekin** eta, beraz, **“klase” aktiboen eta pasiboen arteko oreka hobetzea lortzen da**. Hori, beste behin, erabakigarria eta funtsezkoa da: “2019ko hirugarren hiruhilekoan, lan egiteko adinean zeuden 23.088.700 pertsonetatik, 3.011.200ek nazionalitate atzerritarra zuten, eta 819.300ek, berriz, nazionalitate espainiarra eta beste nazionalitate bat, migrazio mugimendu baten ondorioz, batez ere”. Ondorioa oso argia da: **“...biztanleria aktiboak 3.830.500 pertsona galduko lituzke, guztizkoa 19.258.200 pertsona izanik % 16,5 gutxiago”** (guk geuk gehitutako enfasia).

Kontsumoari dagokionez, **“ekonomiako kontsumoaren % 8 immigratzaileei dagokie”**. Hona hemen kalkulua eta zenbatekoak: “2018an, familien guztizko gastua 556.432.591.000 euro izan zen. Nazionalitatea kontuan hartuz gero, nazionalitate atzerritarreko sostengatzaile nagusia duten etxeek 32.018.019.000 euroko gastua egin zuten, eta nazionalitate espainiar eta atzerritarreko sostengatzaile nagusia duten etxeek, berriz, 14.504.854.000 euroko gastua egin zuten guztira. Biak batuz gero, 46.522.873.000 euro izango lirateke, guztira”.

Finean, “immigratzaileek lanpostuak kentzen dituzte” dioen lelo eta ideia interesatuaren oinarrian, oso zabaldua dagoen pertzepzio hau dago: ekonomiak eta lan-merkatuak tarta finko, estatiko

eta mugatu bat osatzen dutela, eta immigratzaile horiek tarta horri puska bat kentzen diotela. Baina hori ez da horrela. Ekonomia eta lan-merkatua dinamikoak dira, eta immigrazioa funtsezkoa da haien hazkunderako.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

"El 75% de los migrantes desempeña trabajos elementales y precarios, según un informe de Cáritas" (El País egunkariko artikulua, 2020ko irailekoa, Cáritasek migratzaileen inklusio sozioekonomikoari buruz egindako txosten baten harira, <https://bit.ly/3y1NwwC>)

"La paradoja del inmigrante de Schrödinger: acusar a los extranjeros de robar trabajos y también de ser vagos que viven de ayudas" (El Diario egunkarian argitaratutako artikulua, 2019ko azarokoa, Espainian migratzaileei ematen zaien tratuan sortutako paradoxari buruzkoa, <https://bit.ly/3ymkU17>)

"Nos quitan el trabajo" (El Salto Diario egunkariko artikulua, 2021eko martxoan argitaratua, migratzaileek Espainiako hiritarrei lanpostuak kentzen dizkietelako zurrumurruei buruzkoa, <https://bit.ly/2WUYMNT>)

"¿Los inmigrantes nos quitan el trabajo?" (Politikon webguneko artikulua, 2015eko irailan argitaratua. Immigratzaileek espainiarrei lanpostuak kentzen dizkietelako gezurra jorratzen da, <https://bit.ly/3jj1DHN>)

"Trabajadores migrantes en España, una importante fuerza laboral en el campo" (France 24 webguneko artikulua, 2020an argitaratua, migratzaileek merkatuan duten eraginari buruzkoa, <https://bit.ly/2VFVJZ2>)

"Los inmigrantes ocupan trabajos menos cualificados e inestables que los españoles no quieren, según un estudio de CCOO" (Europa Press agentziako artikulua, 2019ko abenduan argitaratua, migratzaileek Espainian duten enplegu-motei buruzkoa, <https://bit.ly/3ymxJsD>)

~gizarte-erakundeak

"Mercado laboral" (Andalucía Acoge erakundearen Stop Rumores strategiako artikulua. Hor, lan-merkatuari eta migratzaileei buruzko gezurrak salatzen dira, estatistika eta datu zehatzak erabiliz, <https://bit.ly/2VmJg0J>)

"Los trabajadores migrantes ganan en promedio un 13% menos que los nacionales" (Nazio Batuen Erakundearen blogean argitaratutako artikulua, langile migratzaileen soldaten estatistikei buruzkoa, <https://bit.ly/3xqChwt>)

~kasu-azterketak

"La idea de que los inmigrantes quitan el trabajo a los autóctonos es errónea" (Elkarrizketa Kaliforniako Unibertsitateko Giovanni Peri irakasleari, migrazioaren inguruko zurrumurruei buruz; hain zuzen ere, lan-arloko zurrumurruei buruz, <https://bit.ly/3lqrb8w>)

~txostenak

"El trabajo es el motor de las migraciones" (Langileen Batasun Orokorraren webgunean 2021eko apirilean argitaratutako artikulua, migratzaileek Espainiako lan-merkatuan duten eraginari buruzkoa, <https://bit.ly/3CbHFr7>)

"Inmigrantes extranjeros en el mercado de trabajo español: ¿más resilientes o más vulnerables al impacto de la crisis?" (Instituto Universitario de Estudios sobre Migraciones institutuko aldizkarian argitaratutako artikulua, Espainiako migratzaileen lan-kolokatasunari buruzkoa, <https://bit.ly/3fu4WdY>)

"Residir y trabajar en España" (Lan eta Ekonomia Sozial Ministerioak argitaratutako dokumentua, migratzaileek Espainian lan egin ahal izateko eman behar dituzten urratsei buruzkoa, <https://bit.ly/3ijj8ZA>)

~estatistikak

"Estadísticas de inmigración y emigración" (Lan eta Ekonomia Sozial Ministerioak argitaratutako estatistikak, Espainiako migratzaileen enplegu-mailari buruzkoak, <https://bit.ly/2VgM1MQ>)

~akademia

"Migración, trabajo y derechos precarios: perspectivas histórica y actual" (Oxfordeko Unibertsitateko Stephen Castles irakaslearen artikulua akademikoa, migratzaileen lan-perspektibe buruzkoa, <https://bit.ly/2VmXSsN>)

11.

“Gizarte segurantzarik gabe eta kontraturik gabe egiten dute lan: horrek ez al du enplegu prekarioa sustatzen?”

LANDUTAKO GAIAK

afiliazioak eta kotizazioak; kontratazioa; prekarietatea; behin-behinekotasuna eta lanaldi partzialeko lana; gehiegikeriak eta lan-esplotazioa; ekintza sindikalak; lan ikuskaritza; onarpen-egiturak; aliantzak eta akordioak

Abiapuntuko testua ~2003

Batzuetan, immigrazioak lan-baldintzetan eragin negatiboa duelako ideia inguruan sortzen dira kezka. Sindikalistek, erakunde sozialetako liderrek eta egoera ahulenean dauden biztanleen bizieta lan-baldintzak hobetu nahi dituzten beste pertsona batzuek kezka dituzte norabide horretan izan daitezkeen ondorio kaltegarriengatik. Batzuk –egiazatu dugu– nolabaiteko harriduraz bizi dute hori, eta kontraesan gisa. Diskurtsoaren eta jarreraren beste muturrean, esklusioaren

aldeko diskurtso xenofoboan jada, immigrazioarekiko gaitzespena adoretu eta indartu egiten da, argudiatuta etorkinek oso baldintza txarretan eta lau txakur txikiren truke lan egiten dutela, eta hori guztia kaltegarria dela eta atzerapauso bat dela.

Beste gai batzuetan bezala, hemen ere arazoari aurrez aurre begiratzea da onena, eta aitortzea lan merkatuan langile atzerritarrak egoteak enplegu-prekarietateko estrategia politikoak eta enpresa estrategiak eragin ditzakeela. Hori gai zaharra da.

1866an, Marxek adierazi zuen oso zaila izango zela Ingalaterrako langile-klaseak bere eskubideen alde egiteko bat egitea, Ingalaterran seiehun mila irlandar lan egiten egon bitartean.

Langile atzerritarren presentziak eragin negatiboa izan dezake langile guztien soldatetan (beherantz) eta lan-baldintzetan, atzerritarrak izan edo ez. Hauek dira kontuan hartu beharreko galderak: Horrela al da beti, ezinbestean? Nor dira horren arduradunak? Nola eragotz daiteke hori? Noski, ezin zaie hori leporatu immigrazioari edo immigratzaileei. Hori gertatzen bada, arrazoi hauengatik da: **enplegatzaileek egoera hori neurririk gabe baliatzen dutelako, sindikatuak aldarrikapen hori behar adina indarrez egiten ez dutelako edo**, eginez gero, kasurik egiten ez zaielako, eta, batez ere, **gai horretan eskumenak dituzten agintariak** (lan-ikuskaritza, etab.) **eskatu behar litzaiekeen zorrotasunez eta eraginkortasunez jarduten ez dutelako**. Immigratzaileen lan-esplotazioa galaraztea ez da erraza; besteak beste, langile immigratzaileen eta haien enplegatzaileen interesek bat egiten dutelako zenbait puntutan. Burawoy-ek **onarpen-egiturak** deitu dio horri. Migrazio proiektuan kontuan hartutako ideia izan daiteke lan-baldintza prekarioetara moldatzea denbora tarte labur batean, aurrezki-helburuak lortzeko. Atzerritarrak hemen irabazten duenaren eta

jatorriko herrialdean irabazten duenaren artean egiten duen alderaketa hartu behar da kontuan. Hori enpresaburuen beharretara egokitzen da. Egokitze hori ez da immigrazio-testuinguruetan soilik gertatzen, bertakoen artean era gertatzen da. Pentsatu, adibidez, prekarietate handiko lan baldintzak onartzen dituzten unibertsitate-ikasleetan (askotan, unibertsitatean bertan), hori egiteak beren gastu pertsonalak ordaintzeko

eta familiaratik jasotzen duten laguntza osatzeko aukera ematen dielako; aldi berean, ikasle horiek kontratatzen dituztenek zenbait behar asetzen dituzte, lan-baldintza "normalak" eskainiz gero ordaindu ezin izango lituzketenak.

Gobernuaren, sindikatuen, enplegatzaileen eta immigratzaileen elkarrean arteko lankidetzak emaitza onak izan ditzake gai honetan.

Arrazoiketaren laburpena ~2003

- 01 Bai, egia da, immigrazioak aukera **eman dezake** enplegu prekarioa sustatzen duten estrategiak erabiltzeko.
- 02 Nolanahi ere, **ondorio negatibo hori ez da migratzaileen errua**.
- 03 Izan daitekeen ondorio hori, honako hauen-gatik gertatzen da: a) enplegatzaileen gehiegikeriengatik, b) sindikatuen eraginkortasunik ezagatik, eta c) agintarien geldotasunagatik (ikuskapenak, etab.)
- 04 Immigratzaileen lan-esplotazioa galaraztea ez da erraza, besteak beste, **onarpen egiturengatik** (ikusi glosarioa).
- 05 Erronka horri heltzeko, gobernuaren, enplegatzaileen, sindikatuen eta erakunde sozialen arteko **lankidetz**a behar da.

Eguneraketa ~2023

Aurreko iruzkinean, "Iana kentzen digute" esamoldea okerra dela azaldu dugu; orain, beste ikuspegi desegoki bati helduko diogu berriz: immigratzaileen lana ezkutukoa dela, kotizazio-sistematik eta lan-harremanetatik kanpokoa, eta horrek ondorio negatiboak eragiten dituela.

Lehenik eta behin, esaldiaren lehen zatia aztertuko dugu, Gizarte Segurantzarako ekarpenak eta hari buruzko pertzepzioak kontuan hartuta. Lehen aipatu dugu, baina orain xehetasun handiagoz aztertuko

dugu. Gero, ondorio negatibo hori (prekarietate handiagoa) gertatzen den edo ez aztertuko dugu, bai eta zer-nolako rola (positiboa eta negatiboa) betetzen duten hor eragileek. Hirugarrenik, ikusiko dugu ea erronka horri aurre egiteko lankidetzarik izan den.

1. Langile migratzaileen sektore batek, bai, kontraturik gabe egiten du lan (hori autoktonoen artean ere gertatzen da), baina gehienek lan-kontratu dute eta, ikusi dugun moduan, haiek Gizarte Segurantzarako eta PFEZrako egiten dituzten ekarpenak funtsezkoak dira.

Gizarte Segurantzarako kotizazioei dagokienez, UGT sindikatuaren *Trabajo Libre De Bulos* txostenean (2019ko abendua) jasotako informazio garrantzitsua eta eztabaida ezina aipatuko dugu: “...kontuan izanda Gizarte Segurantzak **kotizazio sozialengatik** izandako diru-sarrerak 108.308.470.000 euro izan zirela 2018an, zenbateko horri langile atzeritarren eta haien enplegatzaileren kotizazioak kentzen badizkiogu, zenbatekoa 97.492.683.974 eurora jaitsiko litzateke; hau da, **% 9,9 txikiagoa izango litzateke (10.815.786.026 euro gutxiago)**” (enfasia jatorrizkoan).

Bestalde, txosten horretan, aipatzen da langile atzeritarrek Gizarte Segurantzarako ekarpenen %9,9 ordaintzen dutela, baina “sistemaren gastuaren %0,9 soilik jasotzen dute pentsioen bidez.” Logikoa denez, denborak aurrera egin ahala, atzeritar jatorriko pertsona gehiago jubilatuko dira eta beren pentsioak kobratuko dituzte Gizarte Segurantzatik.

Migratio-fenomenoaren berezko iaeragatik, biztanleria gazteagoa da, biztanleria hartzailearen batez besteko adinetik beherakoa; hori dela eta, migratio-zikloaren fase luze batean –fase horretan gaude oraindik ere–, gutxi jasoko dute pentsio hori: 2018ko datuen arabera, “9 milioi pentsiodunetik, 27.000 baino gutxiago dira beste herrialde batzuetakoak”.

PFEZaren bidezko ekarpenei dagokienez, hauxe zioen aipatutako txostenak: “...**PFEZagatik diru-sarrerei** dagokienez, 2018an 82.859.000.000 euro izan ziren. Langile atzeritarrek ordaindutako zergak gabe, %4,5 gutxiago bilduko zen, eta bildutako zenbatekoa 78.323.567.404 eurokoa izango zen”.

Laburbilduz, **Gizarte Segurantzaren ez daudela gezurra da, gehienak sisteman**

daude eta, eta gainera, erabat sartuta daude Espainiako zerga-sisteman, eta haien ekarpenak garrantzitsuak dira: Gizarte Segurantzarako kotizazioen % 10 inguru eta PFEZko zergen %4,5 inguru³⁰.

Hortik, korolario gisa, **erregularizazio-bideak sustatzeko beste arrazoi bat** ondorioztatzen da –bide batez, Migratio Seguru, Antolatu eta Erregularerako Mundu Itunean adostuko zerbaite da (Nazio Batuak, 2018ko abendua; 4. eta 5. helburuak batez ere)–. Zuzenbidearen, etikaren eta inklusioaren alde jokatzeko arrazoiez gain, erregularizazioak herrialde hartzailearen zerga sistamarako ekarpen berriak dira, eta hori onuragarria da gizarte osoarentzat.

- Immigratioa eta gizarte-segurantzaren gaia aztertu ondoren, prekaritatearen gaiari helduko diogu. Enplegu prekarioak gora egin al du hogeitau urte hauetan? Hala izan bada, immigratioagatik gertatu al da hori? Jarraian ageri den taulan prekaritatearen bi aldagai erakusten dira –aldi baterako kontratazioa eta lanaldi partzialeko lana–, 2018. urterako, eta bi alderaketa egin dira: lehenbizikoan, Europar Batasuneko eta Espainiako prekaritatearen batez bestekoa alderatu dira, eta bestean, berriz, prekaritatea migratzaileen eta ez-migratzaileen kolektiboetan.

Ikus daitekeenez, bi aldagaietan, prekaritate-maila handiagoa da Espainian, batez ere aldi baterako kontratuei dagokienez: 11,8 puntu portzentual handiagoa da Espainian

³⁰. En una comparecencia ante la Comisión de Trabajo, Inclusión, Seguridad Social y Migraciones del Senado, la Vicesecretaria General de UGT, mostró, con datos de la última quincena de marzo de 2021, que “la población de nacionalidad extranjera representaba el 20 5% de las pérdidas de alta en la afiliación y el 49% del total de caídas de contratos indefinidos”.

Europar Batasunean baino. Beraz, Europan eta are gehiago Espainian, **herrialde hartzaileko langileei (gehiengoa) zein migratzaileei (gutxiengoa) eragiten dien arazoa da; hau da, bi kolektiboei eragiten dien egoera eta erronka da.**

Eta, arazo komun horretan, **atzeritar jatorrikoak egoera okerrean daude;** izan ere, behin behinekotasuna ia 12,8 puntu portzentual handiagoa da langile atzeritarren artean. Lanaldi partzialeko okupazioaren adierazleari dagokionez, 6,1 puntu portzentual handiagoa da langile atzeritarren artean, langile autoktonoen artean baino.

12. taula. Aldi baterako eta lanaldi partzialeko okupazioa, bertakoak eta atzeritarrek bereizita (2018)

		Autóctonos	Extranjeros	Diferencia
Aldi baterako kontratu bidezko okupazioa	Europar Batasuna	12.5	17.7	+ 5.2
	Espainia	24.3	37.1	+ 12.8
Lanaldi partzialeko okupazioa	Europar Batasuna	17.7	23.7	+ 6.0
	Espainia	13.2	19.3	+ 6.1

Iturria: Inmigración: retos y oportunidades txostenean oinarrituta, Observatorio Social de La Caixa, 2020, 12 (Eurostat-en oinarrituta, 2019)

Baina, lan-ezegonkortasunaren eta behin-behinekotasunaren adierazlearen bilakaeraren ikuspegi longitudinala kontuan hartzen badugu, **ikusten da autoktonoen eta migratzaileen arteko tartea edo aldea gutxitzen ari dela.** Hala adierazi dugu bi talde horien bizi- eta lan baldintzen azterketa konparatiboa egitean (5. iruzkina).

13. taula. Lan-ezegonkortasuna eta behin-behinekotasuna. Etxe baten bizi diren landunetatik, aldi baterako kontratua dutenen ehunekoa

Urtea	Bertakoak	Atzeritarrek	Aldea
2006	10.7	29.7	19.0
2009	7.9	20.3	12.4
2012	7.9	16.6	8.7
2014	8.4	16.8	8.4
2017	9.2	17.6	8.4
2018	9.1	16.8	7.7

Iturria: Análisis de las necesidades sociales de la población inmigrante txostenean oinarrituta, Observatorio Social de La Caixa, 2020, 6.

2008ko krisiaren aurretik, aldea 19 puntukoa zen; krisiaren ondoren, murriztuz joan zen (7,7 puntukoa izan zen 2018an). Zer dela-eta gertatu da hori? Ez da herrialdeko hiritarren etxeetan izandako aldaketagatik (familien % 8tik % 10ra bitartean, batez beste, etxeko landun guztiek aldi baterako kontratua dute, proportzio hori ez da aldatu), baizik eta ezaugarri horrek behera egin duelako migrazio-prozesuarekin lotutako familietan.

Eta zergatik gertatu da hori? Hemen hipotesi bat baino ezin dut adierazi: atzerritar jatorriko biztanleriaren errotze-prozesua sakonagoa izan ahala (familietan, komunitatean...), immigratzaileek gizarte hartzailea eta haren harreman-sareak hobeto ezagutu ahala (ez soilik beren hirikideekin izaten dituztenak) eta beren eskubideak erabili ahala, lehenago aipatu ditugun **onarpen-egiturak** (ikus Glosarioa) ahuldu egiten dira, edo, batez ere, iritsi berriei soilik eragiten dizkiete. Kontuan izan atzerritarren %56 Espainian jada 10 urte baino gehiago daramatzatela.

3. Prekarietatearen ondorioak ez dira aldi baterako lana eta lanaldi partzialeko lana soilik, beste lan-baldintza batzuetan ere ageri baita prekarietate hori: lanaldi luzeak eta soldata txikiak izatea, edo oporrik ez izatea, besteak beste. Argudiatu daiteke prekarietate-egoerak mantentzen direla, lan-merkatuan immigratzaileak daudelako. Jada 2003an, argudiatu genuen balizko ondorio negatibo hori, nolana ere, zenbait faktore batera izatearen ondorioa zela: enplegatzaileen sektore baten gehiegikeriak, lan-ikuskaritzaren mugak edo eraginkortasunik eza, gizarte-mobilizaziorik edo sindikatuen presiorik ez egotea edo behar adinakoa ez izatea...

Azken urteotan hartutako zenbait neurrik erakutsi dute zer-nolako eragina duten erakundeen borondateak eta ekintzek prekarietatearen bilakaeran, prekarietatea handiagoa edo txikiagoa izateko. Pandemiaren hasieratik hartuta, honako hauek aipa ditzakegu, besteak beste:

- a. aldi baterako enplegu-erregulaziorako espedienteen (ABEEE) formularen aplikazioa,
- b. lanbide arteko gutxieneko soldataren (LAGS) igoerak, eta, batez ere,

- c. lan-erreforma berriaren onespena Diputatuen Kongresuan, testu hau amaitzeko unean, hain justu. Erreforma horren ildo nagusietako bat, hain zuzen, gehiegizko prekarietatea gainditzea da, kontratazio mugagabea sustatzearen bidez.

Prekarietate-egoerak eta onarpen-egiturak alderantzikatzeko zailtasunak aipatzean, 2003an idatzi genuen beharrezkoa zela “gubernuaren, enplegatzaileen, sindikatuen eta gizarte erakundeen arteko lankidetzatza”. Eta hori da orain nabarmendu nahi duguna. Lankidetzarako elkarrizketa luzeak eginez (topaketak, proposamenak, amore-emateak, zuhurtziaz jokatzera, etab.) eta zailtasun handiak gaindituta (interes desberdinak, presioak eta abar), gobernuaren eta eragile sozial eta ekonomikoen arteko akordioa lortu da, eta hor jasotakoa Parlamentuan onetsi da, ozta-ozta izan bada ere.

Hemen ez ditugu lan-erreformaren edo aurreko beste erreforma batzuen ildoak azalduko, are gutxiago baloratuko. Argudiatu nahi duguna da ezin zaiela migratzaileei edo, oro har, immigrazioari leporatu lan-merkatuaren zenbait ezaugarri, ekonomiaren funtzionamenduak, eragileen jokabideak eta hartzen diren erabakiek eragindakoak direnean.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

"El 75% de los migrantes desempeña trabajos elementales y precarios, según un informe de Cáritas" (El País egunkariko artikulua, 2019koa, Cáritasek migratzaileen inklusio sozioekonomikoari buruz egindako txosten baten harira, <https://bit.ly/3y1NwwC>)

"Extranjeros atrapados en una ratonera por la precariedad laboral" (El Periódico egunkariko artikulua, 2017ko abuztuan argitaratua, gazte atzerritarrek lanmerkatuan txertatzeari buruzkoa, <https://bit.ly/3iinBeC>)

"Precariedad laboral: los inmigrantes, condenado a un trabajo temporal" (El Boletín egunkariko artikulua, 2020ko ekainean argitaratua, migratzaileek lortzen dituzten aldi baterako lanpostuei buruzkoa, <https://bit.ly/3jdywWi>)

"Los extranjeros aportan el 10% a la Seguridad Social y solo reciben el 0,9 por ciento" (EFE agentziaren artikulua, 2019ko abenduan argitaratua. Artikuluan UGT sindikatuaren TrabajoLibreDeBulos hashtag-en berri ematen da, eta migratzaileek Gizarte Segurantzari egiten dizkieten ekarpenak aztertzen dira, <https://bit.ly/3A2Vruj>)

"Sin los inmigrantes, las cotizaciones sociales a la Seguridad Social serían de un 10% menos" (Nueva Tribuna egunkariko artikulua, 2019ko abenduan argitaratua, migratzaileek Gizarte Segurantzari duten migratzaileei buruzkoa, <https://bit.ly/3xnUTNE>)

~txostenak

"Condiciones laborales y precariedad de los inmigrantes. El caso de los colombianos en tres comarcas de la provincia en Barcelona" (Barcelona Center for International Affairs ikerketa-zentroaren lanerako dokumentua, Kolonbiako migratzaileek Bartzelonan dituzten lan-baldintzei buruzkoa, <https://bit.ly/37inmdu>)

"Contratos registrados de trabajadores extranjeros" (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuak, Espainian legezko egoeran lan egiten duten atzerritarrei buruzkoak, <https://bit.ly/3lFyREF>)

"A precarious position. The labor market integration of new immigrants in Spain" (Migration Policy Institute erakundearen lanerako dokumentua, Espainian bizi diren migratzaileen lan-baldintzei buruzkoa, <https://bit.ly/37ejjie>)

~akademia

"La precariedad laboral en inmigrantes en situación irregular en España y su relación con la salud" (Victoria Porthé-ren eta beste unibertsitate-irakasleen artikulua akademikoa, 2009an argitaratua, Espainian bizi diren migratzaileen lan-prekarietateari buruzkoa, <https://bit.ly/3rQEGzT>)

"Migración internacional y precariedad laboral. El caso de la industria de la construcción en Chile" (Alberto Hurtado Unibertsitateko, Arturo Prat Unibertsitateko – Iquique– eta Londresko Unibertsitateko irakasleen artikulua akademikoa, Txileko eraikuntza-sektoreko langileen lan-prekarietateari buruzkoa, <https://bit.ly/3rOwOK6>)

"New dimensions of precarious work among migrants: A qualitative meta-analysis of current research" (Dominica Polkowska-ren artikulua akademikoa, 2019ko abenduan argitaratua. Artikuluan, migratzaileen lan-prekarietateari buruzko adierazleak aztertzen dira, <https://bit.ly/37wOndj>)

"En la horma de otros zapatos. Los trabajadores inmigrantes y el enfoque de la nueva precariedad étnica" (Comillasko Universidad Pontificiako Juan Iglesias irakaslearen artikulua akademikoa, Espainian bizi diren migratzaileen lan-baldintzei buruzkoa. Política y Sociedad aldizkarian argitaratu zen, <https://bit.ly/2WS5NyQ>)

"El mercado laboral de la población inmigrante en España, un estudio de caso" (Carmen Marina López Pinoren artikulua akademikoa, Espainian bizi diren migratzaileen lan-baldintzei buruzkoa, <https://bit.ly/3lo89zG>)

~legeria

"Migración, mujer y precariedad: un reto para la reivindicación social" (Yuveli Muñoz-en artikulua, emakume migratzaileek lan-merkatuan sartzeko duten prekarietate bikoitzari buruzkoa. Yuveli Muñoz kolonbiar abokatua da, eta giza eskubideen alde jarduten du, <https://bit.ly/2VlWk2n>)

12.

“Legez daudenak, bai, ondo da, baina legezkatasunik eza ezin da onartu”

LANDUTAKO GAIAK

irregularitasuna; atzerritarrei buruzko legedia; erregularizazio-bideak

Abiapuntuko testua ~2003

“Legezkatasunaren kultura behar da; ezin da onartu jendea paperik gabe egotea, dokumentaziorik gabe”. Ados horrekin, funtsezkoan. Inori ez zaio legezkatasunik eza ondo iruditzen, eta badakigu legearen inperioa dela sistema demokratikoaren oinarrietako bat. Atzerritarrei buruzko Legearen (4/2000 Legea) eta hura aldatzeko 8/2000 Legearen eztabaidatik, Alderdi Popularraren gaur egungo gobernuak azpimarratu du “legezkatasunaren kulturak” immigrazio-politikaren funtsezko elementu izan behar duela. Modu inplizituan, printzipio gidari hori adieraztean, aurreko gobernu sozialisten kudeaketa erosotzen zuen Alderdi Popularrak, uste baitzuen gobernu sozialistak ez zirela behar bezain zorrotzak izan immigrazio irregularrarekin. Aldi berean, legedian eta politika publikoetan immigratzaile erregularren eta irregularraren arteko muga argi eta garbi bereizteko

lerroa zehazten ez dutenen aurkako kritika egiten zen. Gobernuaren jarrera horretatik, badirudi hau dela eztabaidaren ardatza: legezkatasuna soilik ala biak (legezkatasuna eta legezkatasunik eza) onartzen diren.

Baina, gure ustez, hori ez da benetako eztabaida, baizik eta beste hau:

- a. zer faktorek eragiten duten ehun milaka langile atzerritarren irregularitasun etengabea,
- b. zer egin beharko litzatekeen irregularitasun hori gainditzeko,
- c. zer legezkatasunik ezaz ari garen, eta
- d. zer dakar, praktikan, legezkatasunik eza ez onartzeak.

Has gaitezen kausak aztertzen. Irregularitasunaren erantzukizuna ez dagokio migratzaile irregularrari soilik eta migratzailea ez da egoera horren erantzule nagusia. Sistema ekonomikoan nagusi diren interes ekonomikoak eta legediaren beraren akats eta hutsuneak dira irregularitasunaren erantzule nagusiak. Migratzaile irregularrak egotea funtzionala da sistema ekonomikorako, sistema horretan ekonomia ezkutuko sektore bat baitago, sistemarako funtsezkoa dena. **Immigrazioa ezkutuko ekonomiarekin batera dago;** 2003ko martxoan, Europako Kontseiluaren azterketa bat zabaldu zen, eta, hor, hamabost herrialde kideetako immigrazioa alderatu zen. Azterketa horretan adierazi zuten **immigrazio irregularrak ez duela ezkutuko ekonomia sortzen; aldiz, ezkutuko ekonomia dela irregularitasun-egoeran dauden migratzaileei enplegua ematen diena.** Gutxi eztabaidatu da immigratzaileak baliatzen dituen ezkutuko lanak Espainiako gizarterako dakartzan kalteak, gizarte-segurantzari, zergei eta beste ekoizleekiko legez kanpoko lehiari dagokienez. Laburbilduz, immigratzaileen enpleguarekin egiten diren irregularitasunak sistema ekonomikoaren eta juridikoaren egiturazko

elementuetako bat da, eta denbora luzez izango dira immigratzaile irregularrak, baina horrek ez du esan nahi ez dela egoera hori arintzeko eta galarazteko ahaleginik egin behar. Beraz, giza eskubideei buruzko legedia unibertsalarekiko koherentziaz jokatzeko eskatu behar da, bai eta pragmatismoz eta eraginkortasunez jokatzeko ere.

Irregularitasuna gainditzeko –edo, gutxienez, arintzeko– bitarteko nagusiak ez dira mugetako kanpo kontrolak (bisak, hesiak, zaintza), ezta immigratzaile irregularraren presentziarako barne-kontrolak ere (polizia gehiago, sarekadak, barneratze-zentroak, kanporatzeak). Immigrazio-tradizio luzea duten herrialdeen nazioarteko esperientziak erakusten du bitarteko horiek, behinik behin, ez direla nahikoak. Beste estrategia batzuk behar dira, honako hauek oinarri hartuta: tresna juridiko egokien garapena (erregularizazioa errazten duten tresnak, egokia denean, eta irregularitasuna ugaritzea eragozten dutenak) eta zenbait mekanismo ekonomikoren aldatzea. Bi ildo horiek estatutu juridiko egonkor bat eta erregularizazio-bide malguak ezartzera eta, orain bai, irregularitasun-egoeren aurrean

irrotasunez jokatzera bideratu beharko liriateke, egoera horiek ez gertatzeko ahalegin guztiak egin direnean.

Aipatzen ari garen legezkotasunik ezei dagokienez, hauek bereizi behar dira: klandestinitatea (dokumentaziorik *ab initio* ez izatea) eta gerora sortutako irregularitasuna edo irregularitasun administratiboa (lehenago aipatu dugu). Irregularitasun-egoeren zati handi bat Europako eta herrialdeko legediak berak eragindakoa da. **“Legezkotasunaren kulturak” legezkotasunik eza guztiak jazartzea izan beharko luke, bai enplegatzaileek egiten dituztenak (kontraturik eza, Gizarte Segurantzari ez ordaintzea, lan-esplotazioa eta laneko gehiegikeriak, laneko diskriminazioa), bai funtzionarioek egiten dituztenak (diskriminazioa, arbitrariotasuna eta utzikeria izapideetan).** “Legezkotasunaren kultura” nahi bada, zergatik onartzen dira enplegatzaileen gehiegikeriak laneko legedia betetzen ez dutenean, edo zergatik onartzen da adingabeei dokumentazioa emateko betebeharra ez betetzea? Azkenik, gauza bat da migratzaile irregularrak eta irregularrak bereiztea, eta beste bat migratzaile irregularrei oinarritzko eskubideak ukatzea – hori egiten du 8/2000 Lege Organikoak–.

Arrazoiketaren laburpena

~2003

- 01 Eztabaida zentratzeko** honako hauek aztertu behar dira: a) irregularitasun etengabearen kausak, b) iraunkortasuna nola gainditu, c) zer “legezkotasunik eza” ari garen, eta d) zer dakar legezkotasunik eza ez onartzea.
- 02 Klandestinitatea eta gerora sortutako irregularitasuna** bereizi behar dira.
- 03** Irregularitasuna ez da migratzaileen **erantzukizunagatik** soilik gertatzen, eta hori ez da irregularitasunaren kausa nagusia; irregularitasuna, neurri handi batean, Europako eta herrialdeetako legediak eragindakoa da.
- 04** Migratzaile irregularraren sektore baten existentzia **funtzionala da sistemarentzat**; sistema ekonomikoaren eta juridikoaren egiturazko elementu bat da.
- 05** Immigrazio irregularrak ez du **ezkutuko ekonomia** sorten; aldiz, ezkutuko ekonomia da irregularitasun-egoeran dauden migratzaileen enplegua elikatzen duena.
- 06** Irregularitasuna gainditzeko edo, gutxienez, arintzeko, bitarteko nagusiak ez dira mugen kanpo- eta barne-kontrolak: bitarteko horiek, behinik behin, **ez dira nahikoak**.

07 Beste estrategia batzuk behar dira, **tresna juridiko egokien garapenean eta zenbait mekanismo ekonomikoren aldaketan** oinarrituta.

08 **Estatutu juridiko egonkor bat eta erregularizazio-bide** malguak ezartzea.

09 **Irregularitasunarekiko irmotasuna** bai, baina, lehenago, irregulartasunik **ez gertatzeko ahalegin guztiak** egiten direla bermatzea.

10 **“Legezkotasunaren kulturalak”** legezkotasunik eza guztiak barne hartu behar ditu, enplegatzailen eta funtzionarioen artean daudenak ere bai.

11 Erregularren eta irregularren arteko bereizketak **ez du justifikatzen** irregularrei beren eskubideak ukatzea.

Eguneraketa

~2023

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (Nazio Batuak, 1948), 6. artikulua.

“Pertsona orok nortasun juridikoa izateko eskubidea du”

Ikus daitekeenez, oraingoan, kostatu egin zaigu laburpen labur bat egitea, Beste iruzkin batzuetan, oinarritzko ideiak bost edo sei lerrotan sartu ditugu, baina orain hamaika behar izan ditugu. Eta hori zerbaitengatik izan da. Migratzaileen estatutu juridikoa **behin eta berriz aipatu den gaia da, eta oso zabala eta bereziki konplexua da**. Aurreko bi iruzkinetan (10.a eta 11.a), adierazi dugu laneratzea integrazio-prozesurako funtsezko eta aurretiko alderdi bat dela. Gauza bera gertatzen da alderdi juridikoarekin. Nazioarteko migratzaileen (egiturazko) **bereizgarritasuna** bikoitza da: batetik, **alde etnokulturalak** –beste jatorri eta esparru geopolitiko eta kultural batzuetakoak baitira–, eta, bestetik, **alde juridikoa**, ez-nazionalak eta kanpokoak baitira; hau da, atzerritarak.

“Paperak eta lana” ekuazioa ziurtatuta –hau da, estatus juridiko egonkorra eta lana izanda, biztanleria orokorraren antzeko baldintzetan– integratiorako bide egin ahal izango da, zailtasunekin, zalantzarik gabe, baina oinarri irmo batzuk

gutxienez izanda. Aldiz, marjinaltasuna eta marjinazio juridiko-laborala handia bada, migratzaileek dokumentaziorik ez badute eta/edo lanik ez badute, edo izatekotan, esplotazioko baldintzetan eta sektore berean jarduten duten langile autoktonoek baino prekaritate-baldintza handiagotan, **orduan integrazio- eta inklusio-prozesuak oso oinarri ahulak izango ditu**, eta kontraesanez eta errefluxuez beteta egongo da, bai eta ezinegonez, laztasunez eta sufrimenduz beteta ere.

Hau ez da irregularitasunaren gai zabal eta konplexua berraztertzeke lekua: amaieran, zenbait azterketa eta iturri aipatu dira. Eta ez ditugu jada adierazitako argudioak berriz azalduko. Eguneraketa honetan, azalduko dugu garrantzitsua dela **legez kanpokoak** terminoa ez erabiltzea, baizik eta **agirik gabeak edo irregularrak** terminoak erabiltzea.

1. Hasteko, aurretiko xehetasun eta bereizketa egin behar dugu, ezinbestekoa: ez dago legez kanpoko pertsonarik, baizik eta irregularitasun juridikoko edo administratiboko egoeran dauden pertsonak. Halaxe adierazi dute giza eskubideen aldeko zenbait erakundek eta aktibistek: “gizaki bat bera ere ez da legez kanpoko”.

Lider jakin batzuen diskurtso politikoetan, hauteskunde-kanpainetan batez ere, ohikoa da honelako esamoldeak entzutea: "legez kanpoko immigrazioa desagerrarazi behar da", "legez kanpokoak deportatu egin behar dira". Hala gertatu da, adibidez, Donald Trumpek presidentetzarako egindako kanpainetan. Horrelako esamoldeak, diskurtso eta mitinetan ez ezik, alderdi politiko batzuen programetan ageri dira, bai eta parlamentuetan eta udal korporazioetan aurkeztutako mozio eta idazkietan ere.

2. Esamolde hori politikoki erabiltzen duen gutxiengoari –estigmatizatzeko eta mezu xenofobo bat zabaltzeko helburu argiarekin, gizarte- eta hauteskunde babesa lortze aldera–, ez diegu ezer esango. Lotsatu egiten gara, eta haien jarrerak eta jokabideak kondenatzen ditugu, eta legeak betetzeko eskatzen, diskriminazioarekin eta gorrotoarekin lotutako deliturik izanez gero. Baina esamolde hori haren inplikazioez eta ondorioez jabetu gabe erabiltzen dutenei, gogoeta hauek kontuan hartzeko esango genieke.

Lehenik eta behin, **hizkuntzak eragina duela gure pertzepzioetan**, eta, horregatik, erabiltzen ditugun terminoak eta hitzek jarrerak eta portaerak ere eratzen dituztela. Hitzak ikusten eta bizitzen dugun errealitatearen funtsezko elementuak dira. Jada aipatu dut migratzaile kopuruari sarritan izaten den pertzepzio okerra. Eta guk ere, "tolerantzia-atalasearen" nozio azientifikoak eragindako distortsioak erakutsi ditugu" (8. iruzkina). Orain, eragotz dezagun "legez kanpokoak" esamoldearekin lotutako pertzepzio negatiboa eta eskusio-jarrera.

Dokumentaziorik gabe edo egoera irregularrean dauden migratzaileak legez kanpokotzat jotzean:

- ▶ dokumentaziorik gabe edo administrazio-irregularitasuneko egoeran dauden pertsonen buruzko **irudi partzial eta diskriminaziozkoa** sortzen da,
 - ▶ **migrazio irregularren eta kriminalitatearen arteko lotura** bidegabea eta faltsua bultzatzen da,
 - ▶ **esklusioaren ideologia** sustatzen da, besterik gabe; hau da, immigratzaileen presentziaren, existentziaren, eskubideen eta duintasunaren aurka egiten duen ideologia,
 - ▶ gizartetik kanpo uzten dira, "eskubiderik gabeen" munduan, eta **haien gizatasuna murrizten da**.
3. Posizio hori –immigratzaileak irregularizat edo dokumentaziorik gabetzat jotzea, eta ez legez kanpokotzat– oso onartuta dago nazioarteko hainbat instantzian. Adibide bat.

Dokumentaziorik Gabeko Migratzaileei buruzko Nazioarteko Lankidetzarako Plataformak (PICNH), migrazio-lexikoari buruzko kanpainan, "*sarrera irregularra*" erabiltzea proposatu du, mugak behar den dokumentaziorik gabe zeharkatzen diren kasuetan, eta ez "legez kanpoko sarrera": "persona guztiek babesa bilatzeko eskubidea dute, baina "legez kanpoko sarrera" terminoak automatikoki adierazten du zenbait pertsonak ez dutela babesa bilatzeko eskubiderik".

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA) gomendio hori babesten duela adierazi du. Morten Kjaerum zuzendari ohiaren hitzetan: "Funtsezkoa da erne egotea gutxiengo etnikoak deskribatzeko erabilitako hizkuntzan izan daitezkeen aurreiritzi intrintsekoak hautemateko. EBren kanpo-mugak zeharkatzen dituzten gizakiak "legez kanpokoak" direla esatea da, zalantzarik gabe, aurreiritzi horietako bat; beraz, FRAk PICUMen kanpaina erabat babesten du".

4. Legez kanpoko³¹ buruzko eta haien kontrako esamolde bidegabe eta gogor horretan zein “legezkotasunik eza” ez onartzearen eskakizunean, badago erreskatatu daitekeen zerbait. Legezkotasunik ezak berekin dakar legezkotasuna aipatzea; beraz, zuzenbidezko estatua eta legearen inperioa. Bitartekaritzan esan ohi dugun moduan, egin dezagun irregulartasunagatik kezkatuta daudenen asmo oneko artegatasunaren “birformulazio positiboa”, eta esan dezagun honako hau: ados, bai, bultzatzen dezagun **“legezkotasunaren kultura.”**

Hori bai, legezkotasunaren kultura horrek ez du esan nahi “legez kanpokoak” estigmatizatu behar direnik eta haien kanporatze masiboak egin behar direnik, ez, legez kanpoko jokabideak zigortzen dituzten legeak bete behar direla esan nahi du, eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (1948), Eskubideei buruzko Nazioarteko Itunean (1966), nazioarteko hitzarmen eta gutunetan –hala nola Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean (1950) eta Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunean (2010)– xedatutakoak urratzen dituzten jokabideak jazarri behar direla, bai eta Espainiako Konstituzioan (1978), autonomia erkidegoetako legedietan, udaletako araudietan eta abarretan xedatutakoak urratzen dituztenak ere.

5. “Legezkotasunaren kulturak” kezkatzen gaituela eta harekiko konpromisoa dugula abiapuntu hartuta, eta giza eskubideei buruzko nazioarteko sistemak eta zuzenbidezko estatuak emandako legezkotasun horrekiko errespetuarekin koherentzia jokatu, ikusiko dugu zer sustatu beharko litzatekeen **migrazioen arloaren legezkotasunari** dagokionez. Bada, prekaritate juridikoaren kausak eragozteaz eta Migrazio Seguru, Antolatatu eta Erregularrerako Mundu Itunean (2017) xedatutako erregularizazio-bideak sustatzeaz gain³¹, egokia da honako hauek egitea:

- ▶ jatorriko herrialdeetan giza eskubideen arloan eta gizarte- eta ingurumen- legedian egiten diren urraketak kritikatzeko, migrazioak eta iheslariak izatearen arrazoi nagusietako batzuk baitira
- ▶ eskubideak errespetatzea, bai mugetan eta migratzaileak iristen diren lekuetan, bai itsasoan eta zeharkaldietan;
- ▶ lan-esplotazioa jazarri eta desagerraraztea eta langileen eskubideak errespetatzea;
- ▶ migratzaileen legez kanpoko trafikoaren aurka borrokatzea;
- ▶ pertsonen trafikoak jazarri eta desagerraraztea –nazioarteko migrazioen testuinguruan gertatzen dena ere bai–;
- ▶ diskriminazio-forma guztiak desagerraraztea, diskriminazio arrazista eta xenofoboak barne;
- ▶ gorroto-delitu guztiak jazarri eta epaitzea, bai eta izaera xenofoboa dutenak eta etniarekin eta arrazarekin lotutakoak direnak ere;
- ▶ bidaiderik gabeko migratzaile adingabeen eskubideak errespetatzea, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenarekin bat (1989);
- ▶ atxilotu guztiak justiziaz tratatzea, delituak egiten dituzten atzerritarrek barne;
- ▶ erroldatzeari buruzko tokiko legedia betetzea, etab.

31. 4. helburua: “Migratzaile guztiak beren identitate juridikoaren frogak eta dokumentazio egokiak dituztela zaintzea”. 5. helburua: “Migrazio erregularrerako bideen eskuragarritasuna eta malgutasuna areagotzea”.

Iturriak eta materialak

~estatistikak

"Migración irregular" (Portal de Datos Mundiales sobre la Migración atarian argitaratutako dokumentua. Dokumentu horretan, munduko migrazio erregularrei buruzko estatistikak, definizioak eta azterketak lantzen dira, <https://bit.ly/3jrFhUK>)

"Número total de inmigrantes regulares e irregulares que llegaron a España entre 2015 y 2020" (Statista atariko estatistika-taula, <https://bit.ly/3jpJpVg>)

~prentsa / komunikabideak

"Illegal: más que solo una palabra" (Animal político webgunean argitaratutako artikulua, 2020ko urrikoa, migratzaileei buruz hitz egitean legez kanpokoa terminoa erabiltzearen inplikazioei buruzkoa, <https://bit.ly/3xng1Xy>)

"¿Cuántos inmigrantes irregulares hay realmente en España?" (COPE irrati-katearen artikulua, 2018ko urriaren argitaratua, Espainian egoera irregularrean dauden immigratzaileen kopuruari buruzkoa, <https://bit.ly/3fMYpLV>)

"Extranjeros, sin papeles e imprescindibles: Una fotografía de la inmigración irregular en España" (PorCausa fundazioaren ikerketa-dokumentua, Espainian egoera irregularrean bizi diren migratzaileei buruzkoa, <https://bit.ly/3iiLt1L>)

"Entre la legalidad y la utilidad: la política migratoria según el gobierno" (El Salto Diario egunkariko artikulua, 2020ko otsailean argitaratua, Espainiako Gobernuaren migrazio-politikari buruzkoa, <https://bit.ly/3xyqhJL>)

~gizarte-erakundeak

"Por qué son tan importantes las palabras" (Plataforma para la Cooperación Internacional sobre los Migrantes Indocumentados plataformak egindako kanpaina, emigrazioekin lotutako lexikoari buruzkoa, <https://bit.ly/3rCtK8A>)

~akademia

"Migración irregular: causas, tipos y dimensiones regionales" (Sydneyko Unibertsitateko Stephen Castles irakaslearen artikulua akademikoa, munduko immigrazio irregularrei buruzkoa, <https://bit.ly/3ly4i30>)

"Inmigrantes y extranjeros regulares e irregulares en España: una comparativa entre autonomías" (Valentziako Generalitateko Integraziorako eta Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiko Mónica Ortégaren artikulua akademikoa. Artikuluan, aztertzen da nola banatzen diren Espainian bizi diren migratzaile erregular eta irregularrak autonomia-erkidegoka, <https://bit.ly/3jgell8>)

"Discurso mediático, inmigración e ilegalidad: legitimando la exclusión a través de las noticias" (Castellóko Jaume I Unibertsitateko Andreu Casero irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioen gizarteirudikapenari buruzkoa, <https://bit.ly/3fwgIVr>)

"El inmigrante mediático. Representaciones en prensa española" (Santiago de Compostelako Unibertsitateko Marlén González irakaslearen artikulua akademikoa, Espainiako prentsan migratzaile irregularrez egiten den irudikapenari buruzkoa, <https://bit.ly/3ltkum8>)

"Sobre 'ilegales', 'irregulares' y 'sin papeles'. La lucha por la regularización documentaria de los inmigrantes extracomunitarios en España" (Silvana Santi Pereyraren artikulua akademikoa, 2018an argitaratua. Artikuluan, Espainiako migrazioak aztertzen dira, <https://bit.ly/2VeSLKS>)

"La funcionalidad de lo ilegal en las experiencias de migrantes mexicanos" (Mexikoko Centro de Investigaciones y Estudios Superiores en Antropología Social zentroko Edel J. Fresneda irakaslearen artikulua akademikoa, Mexikoko migrazio-esperientziei buruzkoa, <https://bit.ly/3jpKQ65>)

"El estatus 'irregular' de los/as inmigrante como una construcción socio-política" (Granadako Unibertsitateko Zuzanna Jaegermann irakaslearen artikulua akademikoa. Artikuluan, migrazioei buruzko hizkeraren izaera politikoa aztertzen da, <https://bit.ly/3ycBhNR>)

13.

“Immigratzai- leek hemengo arauak bete behar dituzte”

LANDUTAKO GAIAK

bizikidetzaren alderdi normatiboa; delituak, faltak eta arau-haustea; eguneroko bizitza auzoetan; desberdintasunekiko errespetua; gatazkaren kultura zibikoa; elkarrizketa eta bitartekaritza

Abiapuntuko testua ~2003

Esaldiak bertako pertsonei askotan hitzez hitz entzuten dieguna biltzen du (konbentziturata esaten dute, uste dutelako logikoa hori dela, eta ezer gutxi gehitu daitekeela). Atzerritarrek beste hainbestetan entzuten dute, nolabaiteko harriduraz, admonizio gisa. Esaldia ia guztiz bat dator Hezkuntza, Kultura eta Kirolak Ministerioko goi-kargu publiko batek San Lorenzo de El Escorial-eko (Madri) eskolatu gabeko adin txikiko neska baten kasuaren inguruan sortutako eztabaida handi eta orokortuan. Neska hori, hain zuzen, eskolatu gabe zegoen eskolara zapi islamikoarekin (*hyjab*) joaten utzi nahi ez ziotelako. Badirudi hau pentsatzen dela: “Gizarte honetara

etortzen badira, hemen bizi nahi badute, logikoa da hemengo moldeetara egokitzea eta gure izaera errespetatzea. Ez bazaie gustatzen, zergatik geratzen dira?”.

“Zoazen lekura zoazela, jokatu bertakoak bezala”, dio esapideak. Leku batera iristen denak, errespetatu egin behar du. Horri buruz ez dago zalantzarik. Izan ere, immigratzaile gehienek horixe egiten dute: kokatu diren hiri eta herrietako ohiturak eta arauak errespetatzea. Hori egiten dute beren baimenak eskatu eta berritzen dituztenean; erroldatzen direnean; beren seme-alabak eskolatzen dituztenean, ordutegi, arau, curriculum, kalifikazio-sistema, ikuspegi eta diziplina-jardunbideetara egokituta –izan ere, askok diziplina-jardunbide horiek onberak edo lausoegiak direla uste dute–. Arauak bete, horixe egiten dute, oro har, egunero, beren lanbideetan, etxebizitzetan, kaleetan. Egokitu, horixe egiten dute, oro har, guraso- edo auzo-elkarteetan sartzeko ahaleginak egiten dituztenean, nahiz eta, sarritan, haien funtzionamendua ulertzeko zailtasunak dituzten (hizkuntza menderatzen ez dutelako, gaiei buruz hitz egitean gauzak azkar eta zuzenean lantzen direlako, lantzen denari buruzko aurrekarien eta erreferentzien berri ez dutelako).

“Oro har” esaten dugu, administrazioko, auzokideen erkidegoko edo eskolako arauen bat edo beste betetzen ez duten immigratzaileak badaudelako –noski, eta horrela izatea dagokio–. Izan ere, Espainian denok betetzen al ditugu arauak? Ez, ez hemen ez inongo gizartean, eta hala erakusten dute psikologia sozialeko eta antropologiako azterketek. Immigratzaileek hemengo arauak derrigorrez bete behar dituztela diotenenk, pentsatu al dute noizbait zer kalte egiten zaien horrekin egokitzen saiatzen ari diren pertsonei eta haien irudi publikoari? **Ez**

al litzateke egokiagoa, bidezkoagoa eta integratzaileagoa gehienek behar bezala jokatzeko dutela aintzat hartzea eta ospatzea, eta salbuespenak gainerako arau-hausteak bezala tratatzea? Zergatik erreparatzen diogu beti % 0,01i eta ez %99,99ri?

Hori ez dela kontua kontraargudia daiteke, ez-betetze jakin bati buruz ari garela, eta, beraz, pertsona horri araua gogorarazi behar zaiola eta kito. *Hyjab*aren kasuari berriz heltzen badiogu, hau argudia daiteke: eskola batean, neska-mutil guztiek uniformeak jantzi behar badute, neska horrek, hor egon nahi izanez gero, uniformeak jantzi beharko du, besteak bezala, eta, beraz, zapia kendu.

Puntu hori berriz aztertzen hasi baino lehen, hori adierazten duenari hiru gauza galdetu behar zaizkio, gutxienez. Lehenik eta behin, ea badakien zer esan nahi duen ohitura horrek, ea badakien zergatik jantzen duten zapia. Demagun badakiela; bestela, horri buruzko informazio ona ematea lagungarria izan daiteke. Bigarrenik, zer iritzi duen arazoari buruz, alegia, ea immigratzailearen arazo bat den –kasu horretan, neskek beloa jantzita eraman nahi duelako sortzen den arazoa; hau da, erlijio-agindu bat eta tradizio bat bete nahi duelako sortzen den arazoa– ala bi alderdiren arteko arazoa: eskola-erakundea, batetik, eta ikaslea eta haren familia, aurretik adierazitako integrazioaren kontzeptua gogora ekartzen badugu, jada jakingo dugu konponbidea bigarren bide horretan dagoela. Hirugarrenik, ea baduen norberaren identitatea eta kultura ahal den neurrian errespetatzeko begirunea. Ezetz erantzuten badu, badirudi ezer gutxi egin daitekeenik. Onenean, jarrera asimilazionista edo, agian, eskusio-jarrera duen pertsona da, besterik gabe. Errespetatzeko kezka eta begirunea badu –hori izango da, segur aski, gehiengoaren jarrera–, orduan asko dago hitz egiteko

eta lantzeko, aurrerapenak lortze aldera. Kasu horretan, ados egongo gara ideia honekin: pertsona batek lan egiten duen eta bizi den gizarteko arau zibiko eta ohituretara egokitzeak eta haiek errespetatzeak ez luketela zertan ekarri norberaren izaerari uko egitea, norberaren usadio eta ohiturak erreprimiteza, norberaren hizkuntza jendaurrean ez hitz egiteko debekua nork bere buruari jartzea, edo jantzi bereizgarriak ezin jantzea (*hyjaba*, turbantea, sari-a edo txinatar jaka; edo piercing-a, galtza bakeroak edo minigona).

Immigratzaileak harrera-lekuko ospakizun- eta erritu-ziklora egokitzeak ez du esan nahi uko egin behar dietela, jatorriko lekura itzuli arte, beren erlijio- edo kultura-jaiak ospatzeari. Horren adibide bat dugu, esaterako, Lavapiés auzoan: hirugarren urtez segidan, urte berri txinatarraren ospakizun publikoak egin dituzte. Bizikidetzan hori onartzen ez badugu, asimilazionismoa bultzatzen ari gara, eta hori, bidezkoa ez izateaz gain (kultura-galera, besteak ukatzea), ez da batere eraginkorra (politika asimilazionistek porrot egin dute; neurri handi batean, migratzaile gehienek ez dituztelako beren identitatea eta kultura alde batera hain erraz uzten). Desberdintasunekiko errespetuaren muga bakarra giza eskubideak, oinarrizko eskubideei buruzko nazioarteko itunak eta konstituzio antolamenduak dira.

Bi printzipio horiek finkatu ondoren –a) arauak denontzat dira, eta b) desberdina izateko eskubidea errespetatzea–, zer egin behar da gatazka bat sortzen denean (adibidez, beloaren gatazka)? Batez ere, hitz egin, eta ez inposatu. Elkarrizketa bestearen jarreraren berri izatea da (horretarako, entzun eta galdetu behar da), posizioak hurbiltzen saiatzea, bateraezina dirudiena bateratzeko modua ikustea eta alderdi guztien artean aukera partekatua bilatzea. Hori egitea aurrerapen handia da, eta

–konponbidea eta ados jartzea lortzen den edo ez alde batera utzita– **gatazkari buruzko kultura zibikoa** delakorantz aurrera egitea da. Hori oso beharrezkoa da Espainian, are gehiago kulturarteko bizikidetzatza –eta demokrazia bera ere– eratu eta sendotu nahi badugu. Ez gara lortu ezinezko ameskeria batez ari. Lan horren adibide praktiko bat dira udalerritaskotan duela zenbait urte gauzatzen ari diren kulturarteko bitartekaritzarako ekimenak. Atzerritar jatorriko pertsonak eta bertakoak prestakuntza jasotzen ari dira komunikazioan, gatazkak konpontzearen arloan, itzulpengintza linguistikokulturalean eta beste zenbait arlotan, hiritar berrien, bertako biztanleen eta zerbitzu publikoen arteko zubi-lana egin ahal izateko.

Parte-hartzaileak benetan ados badaude adierazitako bi printzipioekin, eta benetan hitz egiten badute, ulertzeko formulak, akordioak eta neurriak aurkitu ahal izango dira. Horrela gertatu da beti. Egin dezagun araei eta migrazio-fenomenoari buruzko azken gogoeta bat: **aniztasun soziokulturaleko egoeretan, egokitzapen normatiborako sormenezko prozesuak jarri behari dira martxan**, zenbait arau immigraziorik egon baino lehen ezarri baitziren. Beraz, egokitu

gabe daude edo ez dago inolako araurik gizarte-errealitatean sortu diren alderdi berri ugari buruz. Beloaren kasuak, adibidez, baliagarria izan beharko luke eskolan aniztasunaren trataerarako mahaiak antolatzeke, eta, hor, parte-hartzaile guztien artean (ikastetxeetako zuzendariak, ikasleak, gurasoak, ikuskaritza, adin txikikoen defendatzailea, elkarleen ordezkariak eta erlijiosoak), jantziei, dietari eta abarri buruzko akordioak adostea, apurka-apurka, eta dagoen araudia sormenez eta adostasunez garatzea, kultura-, hizkuntza- eta erlijio-aniztasun handiago baten markora egokitzeko. Hala, ez lirateke konponbideak korrika eta presaka inprobisatu beharko –sarritan, eskandalu publikoak sortzen dituzte–, gertakizun kritikoren bat sortzen den bakoitzean eztabaida arrazoituak eta konstruktiboak egin beharrean. Era berean, beste esparru batzuetan jardun daiteke, hala nola osasun-arloan eta auzo komunitateetan.

Azken finean, zibismoaz, errespetuaz, demokrazia parte-hartzaileaz eta kulturarteko elkarrizketaz ari gara, besterik gabe: beti burutu gabe dauden erronkak eta lanak, inoiz amaitzen ez direnak.

Arrazoiketaren laburpena

~2003

- 01 Eta horixe egiten dute: migratzaile gehienek gizarte hartzaileko usadioak, ohiturak eta arauak **errespetatzen** dituzte, egunero.
- 02 Salbuespenak, ez-betetzeak egiten dituztenen jokabide minoritarioak, **gainerako arau hausteak bezala** tratatu behar dira, egiten dituenak egiten dituela ere.
- 03 Gizarte hartzailearen arau zibiko eta ohituretara egokitzeak **ez du zertan ekarri** norberaren izaerari uko egitea edo norberaren usadio eta ohiturak erreprimitzea.
- 04 Desberdintasunekiko errespetuaren **muga** bakarra giza eskubideak, oinarriko eskubideei buruzko nazioarteko itunak eta konstituzio-antolamenduak dira.

05 **Bi printzipio** hartu behar dira kontuan: a) arauak denontzat dira, eta b) desberdin izateko eskubidea errespetatu behar da.

06 **Gatazka eta intzidente larriak egonez gero:** hitz egin, jarrerak hurbiltzea, eta ados jartzeko moduak eta aukerak bilatzea.

07 Gatazkaren **kultura zibikora** bultzatzea eta, oro har, **bitartekaritza** sustatzea, eta, bereziki, kulturarteko bitartekaritza.

08 Aniztasun soziokulturalako egoeretan (eskolan, auzoan, osasun-arloan, etab.), **egokitzapen normatiborako** sormenezko prozesuak behar dira.

Eguneraketa

~2023

6. iruzkinean –“Immigrazioak delinkuentzia eta segurtasunik eza areagotzea eragiten du”–, delituekin lotutako alderdiak azertu ditugu. Iruzkin honetan, berriz, normatibitatea lantzen da, adiera zabalenean; hau da, gizarte-bizitzako eta eguneroko bizitzako ohitura eta usadioak, komunitate eta herriek duten ohiturazko zuzenbide idatzi gabe hori. Halaber, lege eta ordenantzetan jasotako alderdiak aztertuko ditugu, falta eta arau-hauste izan daitezkeenak, baina ez delituak.

Arauekin lotutako desadostasun, tentsio edo gatazkez ari gara, honako hauekin lotuta: salmenta ibiltariak, merkataritza-lokalen itxiera-orduak, parke eta kirol-jokalekuen erabilerak, zaborra jaistearen betebeharra, zarata jakin batzuk edo usain txarrak ez sortzea, etxeetako jaiekin eta musika ozen jartzearekin lotutako alderdiak, eskola edo ospitaleetako arauak, nork bere burua behar bezala identifikatzeko betebeharra, etab. Finean, eremu publiko eta komunitarioetarako, erakunde publikoetarako edo merkataritza-jardueretarako idatzizko zein ohiturazko arau eta preskripzioen betetze-maila edo ez-betetze maila aztertuko ditugu.

1. “Immigratzaileek hemengo arauak bete behar dituzte”. Bai, noski, jakina, horixe bakarrik behar genuen, etab., arauak betetzeko daude, baina pertsona guztiek betetzeko. Esaldi labur horiekin, gure glosa amaitua izango genuen. Baina, kasu honetan ere, egokia da gaiari berriz heltzea eta gogoetak osatu eta eguneratzea, bi arrazoi nagusirengatik, behintzat. Batetik, diskurtso publiko eta sozialean, atzeritarrek zenbait arau betetzen ez dituztelako susmoa eta errezeloa azaleratzen da, bai eta horrekin lotutako zuzeneko akusazioak ere. Zenbaitetan, **“beren kultura inposatu nahi digute”** esamoldea ere erabiltzen da, eta horrek, kasuen arabera, kritika, gaitzespena eta beldurra adierazten ditu.

Bestetik, arauak betetzea –bai eta arauak jakitea, berrikustea eta etengabe aldatzen ari den testuinguru soziokulturalera egokitzea ere (testuinguru aldakorra da, besteak beste, migrazioengatik)– garrantzi handiko gaia da, **bizikidetzari zein hiritartasunari buruzko planteamenduei dagokienez**, eta bi kategoria horiek –*bizikidetzari eta hiritartasunari*– erabat funtsezkoak dira

migrazioaren auziarekin eta aniztasunaren kudeaketarekin lotutako politika publiko, plan eta programetan.

Beste leku batzuetan aztertu dudan moduan³², araugintza (arauak, irizpideak, etab.) **bizikidetzaren orotarako funtsezko alderdietako bat** da, nazioan, auzoan, eskolan zein familian. Eta hiritartasun demokratiko, parte-hartzaile, inklusibo eta kulturartekoa sustatzeko proposamenei dagokienez, eskubideen titulartasuna ez ezik, betebeharren, eginbeharren eta erantzukizunen titulartasuna da hiritartasun horretarako ardatz nagusietako bat³³.

2. Hasteko, atzerritar jatorriko pertsonak arauak hausten dituzten ala ez aztertu behar dugu. Lehenik eta behin, sen onaz jokotuta, argudiatu daiteke **Espainian sei milioi atzerritar baino gehiago daudela; beraz, logikoa izango da baten batek arau bat edo beste ez betetzea!** Beste askotan gertatzen den moduan, **gehiegi orokortzeak sortzen du arazoa.**

Halaber, defendagarria da, lehenik eta behin, hori guztia **oso minoritarioa dela, nolahi ere** –hala adierazi genuen 2003an–, eta honako hauek frogatzen dute hori: batetik, horrelako oso kasu gutxiren berri dagoela, eta, bestetik, migrazioen eta haien protagonisten munduekin eta zirkunstantziekin zenbait hamarkadaz harreman zuzenean izan garenon testigantza eta esperientzia sakona (erakunde sozialetan, azterketak eginez, etab.).

Baina hori ez da nahikoa. Gizarte-gai eta –erronka guztietan bezala, **migrazioak versus normatibitatea** gaiarekin lotutako alderdiak zientifikoki jorratu behar dira, azterketa zorrotzak eginez, eta baliatzen diren frogek adierazgarriak izan behar dute, bai estatistikaren aldetik, bai analisi kualitatiboari, landa-lanari eta esku-hartzeko lanari dagokienez.

Deigarria da ia azterketarik ez egotea gai horren inguruan, ikusi dugunaren arabera behintzat. Hala ere, badago gaia sakon eta modu sekuentzialean jorratu duen azterketa bat; hau da, denboran zehar izandako aldaketak aztertuta. Hain zuzen ere, *“Encuestas sobre Convivencia Intercultural en el Ámbito Local”* izeneko sei inkestak (hau da, Tokiko esparruko kulturarteko bizikidetzari buruzko inkestak), 2010., 2012., 2015. eta 2017. urteetan egindakoak, *Proyecto de Intervención Comunitaria Intercultural* (ICI proiektua)³⁴ proiektuaren barruan –hau da, Kulturartekotasunaren arloko eskuhartze komunitariorako proiektua (ICI proiektua)–. Proiektu horren zuzendari zientifikoa izateko ohorea eta aukera izan nituen. Serie horretako bi urtetan –2012an eta 2017an, hain zuzen ere–, esku-hartzearen lurraldeetako bakoitzeko inkestez gain, herrialde-esparruko beste batzuk egin ziren, Espainia osorako lagin adierazgarriak erabiliz, proiektua baliatzen zen **“aniztasun handiko lurraldeen”** emaitzak Espainia osoko batezbestekoekin alderatzeko.

Galdetegia esku-hartzearen lurraldeetako **“bizikidetzaren sozial eta kulturartekoaren egoera”** nolakoa zen jakiteko diseinatu zen, eta bizikidetzaren bederatzi alderdietarako galderak sartu ziren, proiektuaren kontzeptu-markoarekin bat³⁵. Alderdi horietako bat, hain zuzen, **alderdi normatiboa** izan zen.

32. Giménez C., J. Alamo eta F. Pérez Del Olmo, (2015) *Convivencia y cohesión social, Juntos por la Convivencia* bildumako 1. liburukia. Madril, Obra Social La Caixa, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa. Halaber, Giménez, C. (2022) *Convivencia y gestión intercultural de la diversidad. Juntos por la Convivencia II* bildumako 2. liburukia..

33. Hemen kontsultatu daiteke: Giménez C., “Movilidad Humana y ciudadanía global”, CTXT/ Público, 2020ko abendua. Hemen ere aztertu dut: *“Inmigrantes como nuevos ciudadanos. Derechos, responsabilidades, pertenencia, institucionalidad y participación”*, 65.-88. orrialdeak, Fundación Sevilla Acoge: Migratorias. Miradas. Perspectivas. Propuestas. Sevilla, Ediciones Ad Libitum

34. ICI proiektua La Caixaren gizarte-ekintzak sustatu zuen, 32 udalekin eta 34 erakunde sozialekin hitzartuta. 2010etik 2020ra bitartean gauzatu zen. Hasieran, 23 barruti edo auzotan egin zen, eta beste 17 gehitu ziren 2014tik aurrera..

35. Alderdietako bakoitzerako, adierazle bakunak, konposatuak eta konplexuak sortu ziren, eta Bizikidetzaren indize orokor bat egin zen adierazle guztiekin.

Ondoren, jorratzen ari garen arloari dagozkion emaitza eta ondorio garrantzitsuenak laburbilduko ditugu:

► **Biztanle gehienek uste dute arauen betetze-maila onargarria dela.**

Galdetutako pertsona bizi zen eraikinari dagokionez, bizikidetzara- arauak betetzen ziren galdetu zen; hain zuzen, alderdi hauekin lotutakoak: "zaratarik

ez egitea", "garbitasuna", "auzokideen erkidegoko bileretara joatea" eta bizilagunen arteko "gizalegeko edo errespetuzko tratua" izatea. 2017rako -azken inkestaren data-, galdetutakoen %60tik %80ra (kontuan hartzen den aldagaiaren arabera) uste zuten betetze-maila osoa zela; %25etik %31ra, betetze-maila tartekoa zela; eta %5etik %19ra, berriz, betetze-maila nulua zela

14.taula. Eraikineko bizikidetzara- arauen betetze-mailari buruzko pertzepzioa (2017)

	Guztiz	Hala moduz	Batere ez	ED/EE
Zaratarik ez egitea	59.7	31.3	7.3	1.7
Garbitasuna	66.4	27.9	4.6	1.1
Erkidegoko bileretara joatea	42.3	25.3	18.8	13.5
Gizalegeko edo errespetuzko tratua	80.7	16.5	1.9	0.9

Iturria: Encuestas sobre Convivencia Intercultural en el Ámbito Local", Proyecto ICI, Obra social La Caixa, 2017.

Halaber, ingurunearekin lotuta -hau da, elkarrizketatutako pertsonen bizilekuen auzoarekin edo barrutiarekin lotuta-, galdetu zen ea beste alderdi batzuk kontuan hartzen ziren, hala nola "garbitasun- eta higiene-ohiturak izatea" eta "espazio publikoak behar bezala erabiltzea".

Kasu horretan, % 80k-% 84k (kontuan hartzen dugun aldagaiaren arabera) **baietz** erantzun zuten, eta % 14k-% 19k, berriz, **ezetz**.

15.taula Percepción del cumplimiento de normas de convivencia en el territorio (2017)

	Ez	Bai	ED/EE
Garbitasuna- eta higiene-ohiturak	14.1	84.0	1.9
Gune publikoak behar bezala erabiltzea	19.2	77.9	3.0

Iturria: Encuestas sobre Convivencia Intercultural en el Ámbito Local, Proyecto ICI, Obra social La Caixa, 2017

► **Herrialdeko batez besteko ehunekoak baino handiagoak dituzten esku-hartzearen lurraldeak, arauak ez-betetzeari dagokionez.**

Hori espero izateko modukoa zen, eta hala adierazi genuen 2012an eta 2017an, udalerrri, barruti eta auzo horietan bat egiten baitute prekarietate sozioekonomiko handia eta aniztasun soziokultural handia (barne-migrazioak, atzerritar jatorriko biztanleria, ijitoak). Edo, bestela esanda, desberdintasun sozial

handiak eta komunitate-gabeziak daude, bai eta desberdintasun etnokulturalak ere, jatorriari, bizi-estiloari, hizkuntzei edo erlijioei dagokienez.

Taula honetan, alderaketa hori erakusten da, 2017rako, eta hor, errazago irakurtze aldera, erantzun kritikoena edo atsekabe handiena adierazten dutenen datua hautatu da; hau da, bizikidetzara arauak betetzen ez direla uste dutenen erantzuna.

16.taula. Estatuko eta toki-esparruko laginen arteko alderaketa, bizikidetzara arauen ez-betetzeari buruzko pertzepzioari dagokionez (2017) Betetzen ez direla uste dutenen ehunekoak

Esparrua	Aldagaia	Estatu-esparruko lagina	Esku-hartzearen lurraldeak
Eraikineko arauak	zaratarik ez egitea	7.3	13.4
	garbitasuna	4.6	13.8
	gizalegeko edo errespetuzko tratua	1.9	5.7
Lurraldeko arauak	garbitasuna- eta higiene-ohiturak	14.1	51.7
	gune publikoak behar bezala erabiltzea	19.2	46.9

Iturria: Encuestas sobre Convivencia Intercultural en el Ambito Local. Proyecto ICI. Obra social La Caixa, 2017.

Beste elementu batzuekin batera, datu konparatibo horrek –zenbait biztanle gunetan arazo handiagoak daudela frogatzen du–, etorkizunerako prebentzioa egitera bultzatu behar gaitu, bai eta orainerako kohesio-neurriak hartzera ere, **oso aniztasun** handiko auzo horietarako (Stephan Vertovec-ek sortutako kontzeptua).

► **Estatistika-alde esanguratsuak, zenbait kontrol-aldagaien arabera** (adin-tarteak, hezkuntza-maila, jabe izatea ala alokairuan egotea, antzinatasuna lurraldean, edo ideologia politikoa).

Ikus ditzagun zenbait datu eta adibide adierazgarri. Hasteko, eraikinari dagokionez –eguneroko bizikidetzara

ingurune gertukoena da–, “zaratak ez egiten saiatzea” lehen aldagaitzat hartuta, betetze-maila handiena **adinekoen eta etxebizitzaren jabeen** multzoan izaten dela ikusi da. Aldiz, betetze-maila txikiaren pertzepzioa **atzerritar jatorriko biztanleria-proporzio handiena duten eraikinetan** ikusten da.

“Garbitasunari eusteari” (eskailerak, zaborrak, etab.) dagokionez, zenbait aldagaitan izandako emaitzetan oinarritutako analisiak erakusten du inkestatuek betetze-maila handiagoa adierazten dutela etxebizitzak **erositakoak** direnean, etxebizitza lagatuen edo alokatuen aldean. Berriz, **eraikinean atzerritar jatorriko biztanleriaren**

proporzioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ez-betetze maila handiagoa hautematen dute elkarrizketatuek, bizilagun gehienak espainiarrak direnean baino. Badago beste korrelazio adierazgarri bat: **eskolatze-urteen** kopurua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta betetze-maila handiagoa hautematen da eraikinaren garbitasunari dagokionez.

“Errespetuzko tratua” aldagaiari dagokionez, parametroak aurrekoen antzekoak dira. Halaber, azken aldagaiari dagokionez –“auzokideen erkidegoaren bileretara bertaratea”–, azpimarratuko dut betetze-maila handiagoaren pertzepzioa dutela **lurraldean denbora gehiago** daramatenek, eta betetze-mailaren pertzepzio txikiagoa dutela, berriz, **hezkuntza maila** txikiago dutenek.

Pertsonaren ingurune gertukoaren orde z –hau da, etxebizitza-blokea–, soziabilitate esparru zabalagoa (auzoa edo barrutia) kontuan hartzen badugu, lehen aldagaiari dagokionez –“garbitasun-ohiturak lurraldean”–, emaitzek honako hau erakusten dute:

- a. pertzepzioa okerragoa da eraikinari buruzkoa baino,
- b. **biztanle autoktonoek** betetze-maila txikiagoa hautematen dute, **immigratutako biztanleek** baino, eta
- c. gauza bera gertatzen da **maizterren** kasuan **jabeekiko**.

Azkenik, “espazio publikoen erabilera egokia” aldagaiari erreparatuz gero, estatistiketan, ez da alde esanguratsurik ikusten adin-tartearen, hezkuntza-mailaren edo ideologia politikoaren arabera, baina balorazio kritikoagoak egiten dituzte **Espainian jaiotakoek, alokatutako edo lagatako etxebizitza** batean bizi direnek eta **lurraldean** hamar **urtetik** gora daramatenek.

Hortik, ondorio garrantzitsu bat ateratzen da: **autoktonoa/immigratzailea binomiotik kanpo, badaude pertzepzio desberdinak beste aldagai batzuen arabera; esaterako, aurreko paragrafoetan letra etzanez adierazitako aldagaien arabera.** Modu arruntagoan esanda, **ez dugu tematu behar herrialdekoen eta atzerritarren arteko alderaketa egiten, alderaketa garrantzitsu bakarra balitz bezala, beste batzuk ere adierazgarriak baitira,** hala nola lehen aipatu ditugunak. Kasu honetan, biztanleria eta hiritarrak multzokatzeko beste bereizketa eta modu horiek garrantzitsuak dira arauari dagokienez, baina berdin gertatzen da beste gai batzuetarako ere.

Hori lagungarria izango da azterketan biztanleria edo hiritarrak multzo osotzat hartzeko, eta hor **auzokide berriak, hiritar berriak** eta, nazionalizatuz gero, espainiar berriak ere sartuko dira. Migratzaileak ez dira migratzaileak soilik, beste pertsonak bezalakoak dira: biztanleak, langileak, merkataria, gurasoak, auzokideak, kontsumitzaileak, zergapekoak, ospitaleetako pazienteak, etab. Beste leku batzuetan planteatu dudan moduan, **identitate zibikoak azpimarratzea** (eta ez soilik identitate etnokulturalak) **eta rol komun eta partekatutako azpimarratzea** hiritartasuna nabarmentzen duen kulturartekotasunaren ikuspegi soziopolitikoaren eta etikoaren parte da, edo, hala nahi izanez gero, hiritartasun inklusiboaren parte. Bietan, hain zuzen, zertan garen berdinak azpimarratu eta balioesten da.

Adierazitakoak adierazita ere, bizikidetzara arauen arloan immigratzaileen aurka izaten diren mesfidantza edo akusazioak aztertzen ari garenez, hel diezaiogun 2010–2017 aldiko inkesta serie zabal horren azpilaginean alderaketari: autoktonoen eta migratzaileen azpilaginean (biak estatistikoki adierazgarriak dira inkesta-serie horretan).

▶ **Biztanle autoktonoek arauen betetze-maila txikiagoa hautematen dute migratutako biztanleek baino.**

Hori jada ikusi dugu lehenago. Hori jada ikusi dugu lehenago, eta, agian, honako arrazoi hauek azaldu dezakete (hipotesi gisa soilik adierazten dut):

- a. autoktonoen exijentzia-maila handiagoa da –bai auzoan errotuago daudelako, bai bizi kalitateko espektatiba handiagoak dituztelako–, edo
- b. migrazio-egoera eta –proiektuetan gai hori (eraikineko arauak, irizpideak edo erregelak) ez da hain funtsezkoa.

▶ **Gehiengoaren pertzepzio kritikoa immigrazio-sektore edo –kolektibo jakin batzuekiko.**

Batez ere, galdera honi emandako erantzunak interesatzen zaizkigu. “Zure ustez, auzoko edo barrutiko (lurraldearen izena zehazki adierazten zen) pertsona guztiek berdin errespetatzen al dituzte bizikidetzara- arau horiek?”. Galdetutako pertsonak ezetz erantzuten bazuen, galdera hau egiten zitzaion: “zure ustez, nork errespetatzen ditu gutxien?”. Galdera irekia zen, aukerak murriztu gabe, eta, gero guk geuk multzokatzen genituen erantzunak.

2015eko inkestan³⁶, gai hori xehetasun handiz aztertu genuen eta ondorio hauek atera genituen: “Bizikidetzara-harremanen azterketan, funtsezkoa da identifikatzea ea kolektibo jakin batzuk problematikoagotzat jotzen diren edo estigmatizatzen diren. Izan ere, kolektibo batek edo harekin lotutako pertsonak –dela bertako gutxiengoek, immigratzaileek edo adin-tarte jakin bateko pertsonak– bizikidetzara- arauak sistematikoki betetzen ez dituztela, hori da beste talde batzuek beren gorroto-diskurtsoetan gehien baliatzen duten elementuetako bat.” (2015, 143).

Hitzaurre horren ondoren, hau gehitu genuen: “Bertakoen ustez, nork errespetatzen ditu gutxien bizikidetzara- arauak? Bertako 4 biztanletik ia hiruk bizikidetzara- arauak hobeto edo txartoago betetzen dituztenen artean bereizi dute –eta pertsona edo kolektibo jakin batzuk aipatu dituzte–, eta hirutik batek soilik uste du denek, oro har, berdin errespetatzen dituztela.” (berdin, 143-144).

“Pertsona edo kolektibo jakin” horien artean, honako hauek aipatu ziren: immigratzaileak, oro har, bai eta kolektibo espezifiko batzuk ere, hala nola “afrikarrak”, “latinoamerikarrak” eta “errumaniarrak”, bai eta turistak ere; “musulmanak”; espainiarrak ere bai, eta, zehatzago, “ijitoak”, “gazteak”, “adineko jendea”... Migratzaileei dagokienez, espainiar nazionalitatea duten pertsonen azpilagina soilik kontuan hartuta, emaitza hau atera zen: “...*bizikidetzara arauak gutxien errespetatzen dituztenen harira, aztertutako lurraldeetako espainiarren % 67k immigratzaileen kolektiboren bat aipatzen du, neurri batean,*” (berdin, 1144).

- 3. Ikusi dugu nolabaiteko mesfidantza dagoela iristen direnekiko, ezarritakoa betetzeari dagokionez. Mesfidantza eta kritika, minoritarioak badira ere, aurrez aurreko akusazio bihurtzeko ahalmena dute, zenbaiten ekintza politiko eta mediatikoen bitartez. Oinarri gabeko manipulazio eta orokortze bidegabe horren aurkako argudioak azaldu ditugu, sen ona, metatutako esperientzia kolektiboa eta azterketak baliatuz. Hori bai, argi daukat erronka horretan askoz harago joan behar dela: eztabaida publikoan gehiago sartu behar da, eta, agian, eraginkortasun handiagoz, eta hiritarren multzo osoarengana iritsi behar da, eta, batez ere, migrazioaren auziak sortutako erronkei buruz anibalente direnengana edo zalantzak dituztenengana.

36. C. Gimenez, J. Lobera, T. Mora eta D. Roche (2015) *Encuesta 2015 sobre Convivencia Intercultural en el Ámbito Local*, Proyecto ICI, Obra social La Caixa.

Baina, nola egin hori? Aurreko iruzkinean –bitartekaritza asko erabiltzen den teknika batean oinarrituta–, “legezkotasunik ezarekiko” kezka eta “legezkotasunaren kulturaren” aldarrikapenaren inguruko **bir-formulazio positiboa** egitea proposatu dut, baina, orain, gatazka-konponketan erabilitako beste tresna bat hartuko dugu oinarri gisa: **birkontestualizazioa**. Birkokatu dezagun arauen eta arau-betetzearen gaia, gizartearekin eta besteekin ditugun betebeharrak komun eta partekatuen ikuspegitik.

Horretarako, hau da hemen proposatzen den lan-ildoak: **bizikidetzaren demokratikoaren alderdi normatiboari arretoa eraginkorra ematea, elkarrekiko erantzukizunaren ikuspegia** baliatuta (erakunde publikoen eta gizarte zibilaren arteko elkarrekiko erantzukizuna, eta gizarte zibilaren barruan, erakunde soziojuridikoen zein gizabanakoen erantzukizunak). Pertsona guztien elkarrekiko erantzukizuna esan nahi dugu; beraz, herrialdekoen eta atzerrikoen elkarrekiko erantzukizuna, edo, bestela esanda, hiritar autoktonoen eta atzeritar jatorriko hiritarren arteko elkarrekiko erantzukizuna.

Eta nola ulertu behar dira betebeharrak, eginbeharrak eta erantzukizunak? **Giza Erantzukizunaren eta Betebeharren Adierazpenaren** hitzaurrean –Valentzian onetsi zen, 1998an, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren (1948) 50. urteurrena ospatzeko³⁷, **“betebeharrak eginbehar etiko eta moral bat”** dela zehaztu zen, eta **“erantzukizuna”**, berriz, **“nazioarteko zuzenbidearen arabera legeko lotura duen eginbeharra”**. Bereizketa hori –“betebeharrak” etikarekin eta moralarekin lotzen da, eta “erantzukizuna”, berriz, alderdi legal eta juridikoekin– interesgarria eta baliagarria iruditzen zaigu, baina, hala ere, erantzukizunaren adiera zabalagoa erabiltzea nahiago dugu, alderdi etikoak ere sartzeko, askatasunaren printzipio eta balioarekin, demokraziaren bizipenekin,

eta norberaren, besteen eta planetaren zaintzarekin lotuta.

1998ko Deklarazioan, betebeharrak, eginbehar eta erantzukizun ugari adierazten dira. Migrazioekin lotura zuzenena dutenak hautatuko ditut.

- ▶ **Erlijio-, sinesmen- eta kontzientzia-**askatasuna errespetatzeko eta bermatzeko betebeharrak eta erantzukizuna.
- ▶ **Berdintasunezko eta diskriminazio gabeko tratua** errespetatzeko eta bermatzeko eginbeharra.
- ▶ **Arraza- eta erlijio-berdintasuna** bermatzeko eginbeharra eta erantzukizuna.
- ▶ **Gutxiengoaren eskubideak** errespetatzeko eta babesteko betebeharrak eta erantzukizuna.
- ▶ **Behar bezala ordaindutako lanazateko** eskubidea sustatzeko betebeharrak eta erantzukizuna.
- ▶ **Bizi-kalitatea eta bizi-maila egokia** sustatzeko betebeharrak eta erantzukizuna. (guk geuk gehitutako enfasia)

Hautapen labur eta partziala da, eta helburu bikoitza du: batetik, pertsona guztiei eragiten diela erakustea, haien jatorria edo beste aldagai batzuk dena delakoak izanda ere; eta, bestetik, argudio edo oinarri bat eskaintzea proposatutako birkontestualizatorako. Finean, “immigratzaileek hemengo arauak bete behar dituztela” jakindakotzat emanda, eta gehienek hala egiten dutela behar adina aldiz azalduta ere, gure lana, batez ere, **ikuspegia zabaltzea da, elkarrekiko erantzukizunaren etikarekin konpromiso orokorra lortze aldera.**

³⁷Adierazpen hori eta eskubideekin eta betebeharrekin lotutako beste adierazpen batzuk kokatzeko, hau kontsultatu daiteke: Giménez C., (2021) “Inmigrantes como nuevos ciudadanos. Derechos, responsabilidades, pertenencia, institucionalidad y participación”, 65.-88. orrialdeak, in *Fundación Sevilla Acoge Migratorias. Miradas. Perspectivas. Propuestas*. Sevilla, Ediciones Ad Libitum

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

"Tres gráficos para entender si es verdad que los extranjeros cometen más delitos sexuales" (El Confidencial egunkariko artikulua, 2019ko abuztuan argitaratua, migrazioaren eta sexu-delituen arteko ustezko loturari buruzkoa, <https://bit.ly/3lqoHaf>)

"Inmigración y delincuencia: ojo a estos datos falsos" (RTVE telebista-kateak argitaratutako artikulua, 2019koa. Hor, VOX alderdi politikoak zabalduko zurrumurru nagusiak gezurtatzen dira, <https://bit.ly/3x5BrVO>)

"Lo que dicen los datos sobre el supuesto vínculo entre inmigración y delincuencia agitado por Vox en campaña" (El Diario egunkariko artikulua, 2019an argitaratua. Hor, Vox alderdi politikoak immigrazioari buruz egindako adierazpenei erantzuten zaie, <https://bit.ly/3i2RZcJ>)

"Tres de cada cuatro delitos en España son cometidos por españoles" (El Periódico egunkariko artikulua 2019an argitaratua. Hor, espainiarrek eta atzerritarrek egindako delituei buruzko estatistikak ageri dira, <https://bit.ly/2VgENZa>)

~legeria

"Real Decreto 2393/2004, de 30 diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social" (Atzerritarrei buruzko Espainiako legezko testua, <https://bit.ly/3imFKb8>)

"Código de extranjería" (Espainian migrazioen arloan indarrean dauden lege-xedapenen multzoa, <https://bit.ly/3CfA7Ub>)

~txostenak

"La inmigración en España: efectos y oportunidades" (Espainiako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak argitaratutako txostena, Espainiako immigrazioari buruzkoa. Azterketa zehatza egiten da, sektoreka, <https://bit.ly/3eYSzGN>)

~akademia

"Inmigración y delincuencia" (Floridako Unibertsitateko Ramiro Martínez-en eta Akroneko Unibertsitateko Matthew T. Lee-ren artikulua, immigrazioaren eta delinkuentziaren arteko loturari buruzkoa, <https://bit.ly/3LzWNJ7>)

"Inmigración y delincuencia" (Juan Avilés-ek idatzitako artikulua akademikoa, Elkano Errege Institutuak 2003ko irailean argitaratua. Atzerritarrek espainiarrek baino delitu gehiago egiten dituztela dioen ideia azpimarratzen da, <https://bit.ly/3CdYzoS>)

~estatistikak

"Delitos según nacionalidad" (Estatistika Institutu Nazionalak emandako datuak. Herralde bakoitzeko hiritarrek Espainian egindako delituak xehatzen dira, <https://bit.ly/3kSsVXX>)

"¿Cometen los extranjeros más delitos que los españoles?" (Espainiarrek eta atzerritarrek egindako delituei buruzko estatistikak dituen artikulua, <https://bit.ly/3zFEqpV>)

"La inmigración ilegal en España. Datos estadísticos" (Statista atariko estatistika-taula, <https://bit.ly/3rWKrf1>)

~gizarte-erakundeak

"Estadística, delito e inmigración" (FUHEMen webgunean argitaratutako dokumentua – prentsaanalisi bat egiten da dokumentuan, Espainiako prentsan migratzaileei buruz ageri den pertzepzioaren harira-, <https://bit.ly/37i8j38>)

"Los inmigrantes en España" (Cáritas España erakundearen webgunean 1986an argitaratutako dokumentua, Espainiako migratzaileen egoera orokorrari buruzkoa, <https://bit.ly/3jpSoqT>)

14.

“Immigratzai- leek eta haien familiek gizarte- laguntzak bereganatzen dituzte”

LANDUTAKO GAIAK

gizarte-prestazioak eta -laguntzak; eskubideei buruzko legedia eta ikuspegia; baliabideetan inbertitzea; murrizketak; gezurrak; zurrumurruen aurkako estrategia eta gidak; arauak eta eskakizunak

Abiapuntuko testua ~2003

Asko zabaldutako iritzia da immigrazio-herrialde guztietan, eta lehenago edo geroago beti agertzen den diskurtso baten parte da. Batez ere, immigratzaile gehien dauden eremuetan adierazten da iritzi hori. **Gogoan izan dezagun immigrazioa fenomeno kontzentratu bat dela, bai bizitegiari dagokionez, bai lanari dagokionez.** Leku batzuetan, itxarongeletan, jendeari arreta emateko ilaretan edo medikuen kontsultetan, biztanle eta erabiltzaileek beste jatorri batzuetako gero eta gizon-emakume gehiago aurkitzen dituzte. **Orduan, pertzepzio hau sortzen da: immigratzaileak gizarte-baliabideak eskuratzeko lehian ari direla, eta hori eragozpen edo kezka gisa bizitzen dute**

zenbait sektorek. Izan ere, uste dute baliabide horiek jada urriak direla haientzat, eta are urriagoak izango direla beste familia batzuk, premia handia dutenak, baliabide horiek eskuratzen hasten badira. Larriena da, beste kasu batzuetan bezala, pertzepzio eta uste oso hori oso erraz sorrarazi, handiagotu eta manipulatu daitekeela –beste behin– eskusioa lortzeko diskurtso xenofobo menderatzaileen bidez.

Lehenik eta behin, gizarte-zerbitzu bakoitzaren egoera nolakoa den ondo jakin behar da, informazio egokia izanda, jakiteko zer-nolako bilakaera duten benetan programek eta baliabideek, bai eta nola banatzen diren ere, lehenago eta oraingo biztanleen, familia-moten, nazionalitateen eta beste aldagai batzuen arabera. Bestetik, zalantzarik gabe, eskubide-kontua da hori: immigratzaileak langile, auzokide, ikasleen guraso, paziente eta gizarte-zerbitzuen erabiltzaile **berriak** dira eta arreta horretarako eskubidea dute, beste guztiok bezalaxe.

Errealitatea ondo ezagutzeaz gain eta eskubide-azui bat dela ez ahazteaz gain, beste gauza batzuk har daitezke kontuan. Gure ustez, arazoaren gakoa honako hau zehaztea da: immigratzaileen presentzia arreta-testuinguru jakin batean gero eta handiagoa izatean, ea neurri berean areagotzen diren giza baliabideak eta baliabide ekonomiko eta logistikoak, eta ea dagozkion doikuntzak egiten diren arauetan, prozeduretan, langileen prestakuntzan, eta informazioko, komunikazioko eta parte-hartezko jardueretan. Horrekin ez dugu baliabideen kantitatea soilik esan nahi, kalitatea eta jardunbide onak ere bai.

Baliabideak ez badira eskariaren proportzioan handitzen, eta lan egiteko eta arreta emateko modua ez badira egoera berrietara egokitzen, tirabirek eta alde guztien frustrazioak gora egingo dute apurka-apurka, ezinbestean. Gai

honi dagokionez, zero defiziteko eta zerbitzu publikoen pribatizazioko politika publikoak ez dira batere lagungarriak. Horrelakoetan, biztanleria autoktonoak izan dezakeen pertzepzio hori –batzuetan azkarregi edo oinarririk gabe izaten dena– egiaztapen bihurtuko da. Biztanle autoktono horien kasuan, immigratzaileek haien eguneroko bizitzan eragin kaltegarria dutelako susmoa haserre eta protesta bihurtuko da. Eta gauzak horrela bilakatuz gero, egoera benetan larria sortu daiteke. *Pigmalion efektua* gertatuko litzateke, *profezia edo iragarpen autobetea*. Psikologia sozialeko azterketetan hauteman denez, haserre dauden biztanleei “ez zaitez hain xenofoboa izan” esaten bazaie, orduan sektore batzuek hau pentsa dezakete: “bada, hori arrazakeria bada, arrazista izango naiz, baina kontua da ez zaidala batere gustatzen nola dauden gauzak”.

Azken bi hamarkadetan, Espainia immigrazio-herrialdea bihurtu denean, tresna eta bitarteko gehiago jarri dira martxan, berriak ere bai. Administrazioaren esparru guztietan ahalegin handiak egiten ari dira, eta handiagoak udalerrietan. Horrekin batera, eta sarritan administrazioak berak baino lehenago,

gizarte-erakundeek immigratzaileentzako programa eta babes- eta arreta-modu asko lantzen dituzte. Puntu horri buruzko azterketa zorrotzak egin beharko dira, egiaztatzeko ea benetan egin diren inbertsio publikoak (eskoletan, osasun-arretan, gizarte-zerbitzuetan, etxebizitzan), atzeritar jatorriko pertsonen eskari handiago horren proportzioan.

Azpimarratu behar da etxebizitza-arloko zailtasunek edo hezkuntzako problematikek immigratzaileei zein biztanle autoktonoei eragiten dietela, eta, nolana ere, komeni da gogoratzea immigratzaileek ez dutela jasotzen soilik, ekarpenak ere egiten dituztela; ez dira erabiltzaileak eta pazienteak soilik, zergak ere ordaintzen dituzte. Lehen aipatu dugunez, zenbait azterketak frogatzen dute ongizate-estatuari egiten dizkieten ekarpenak handiagoak direla estatutik lortzen duten baino. Ekarpene horiek errentaren gaineko zergaren, Gizarte Segurantzarako kotizazioen, BEZaren eta ibilgailuen eskualdaketaren gaineko zergaren (autorik izanez gero) bidez egiten dituzte, eta, oro har, edozein ondasun edo zerbitzuren gaineko tasa eta prezio publikoen bidez.

Arrazoiketaren laburpena

~2003

- 01 Beharrezkoa da dauden programei eta baliabideei eta haien banaketari buruzko **ezagutza xehatua eta eguneratua** izatea, zenbait aldagai kontuan hartuta.
- 02 **Eskubideen kontua** da, eta migratzaileek –pertsonak, langileak, gurasoak, pazienteak eta erabiltzaileak diren aldetik– eskubidea dute arreta hori izateko, beste pertsona guztiek bezala.
- 03 **Arazoaren gakoa** da ea honako hauek proportzioan izaten diren zehaztea, immigratzaileen presentzia arreta-testuinguru jakin batean handitu ahala: a) giza baliabideak eta baliabide ekonomiko eta logistikoak **areagotzea**, eta b) **doikuntzak** arauetan, prozeduretan, langileen prestakuntzan, eta informazioko, komunikazioko eta parte-hartzezko jardueretan.
- 04 Kontua ez da (baliabideen) **kantitatea** soilik, baizik eta **kalitatea** eta egokitasuna ere (jardunbide onak).

- 05 Zerbitzu publikoen **murrizketen eta pribatizazioen** aldeko politika publikoak ez dira batere lagungarriak.
- 06 **Pertzepzioa egiaztapen** bihurtzea eragotzi behar da.

- 07 **Azterketa zorrotzak** egin behar dira, jakiteko ahalegin instituzionalak, profesionalak eta solidarioak **proportzionalak eta egokiak** izaten ari diren.
- 08 Gogoan izan: a) zailtasunak partekatatuak dira, eta b) migratzaileek ez dute soilik jasotzen, ekarpenak ere egiten dituzte.

Eguneraketa ~2023

"Gizarte-laguntza guztiak bereganatzen dituzte", "Espainiara etortzen dira, pagotxa delako", "paga bat ematen zaie immigratzaile izateagatik, besterik gabe".

Beste behin, behin eta berriz azaltzen den gaia da, eta, segur aski, beti azalduko da immigrazioa aztertzean. Immigratzaile askoko herrialde, eskualde edo udalerrietan, honako hauek behin eta berriz planteatuko dira: ea baliabideak eskuratzeko lehia dagoen, ea immigratzaileen presentzia biztanleria hartzailearentzat kaltegarria den, eta gai horien antzeko eta ondoriozko beste polemika batzuk. **Bidegabekeria konparatibo** hori, oinarririk gabeko pertzepzioa da ala benetan gertatzen da? Zer eskubide dituzte migratzaileek eta zer baldintzatan? Espainiarrek jasotzen dituzten laguntza berak jasotzeko eskubidea dute?

Gai hori behin eta berriz sortzen da, baina zerbait berria dago. Azken bi hamarkadetan, migratzaileek jasotzen dituzten gizarte-laguntzekin lotutako zurrumurruak, gezurrak eta faltsukeriak **zabalduta eta areagotu egin dira**, segurtasunarekin eta delituekin lotutakoak (ikus 6. iruzkina) eta lanarekin eta langabeziarekin lotutakoak (10. iruzkinean aztertu ditugu) bezalaxe.

Argudio berri batzuk gehituko dizkiegu 2003an egindako gogoetei, hurrengo iruzkinerako (15. iruzkina) arrazoiketarekin batera. Iruzkin horretan gai beraren bertsio bat aztertzen da: "Lehentasuna ematen zaie immigratzaileei. Programa gehienak haientzat dira". Iruzkin honetan, lehenik eta behin, zurrumurru faltsu horien gorakadaren **testuingurua** zehazten saiatuko gara. Gero, begiratu bat egingo diegu aldizka ageri diren **albiste eta izenburu** horiei. Esaldi honetan bildu ditugu: "immigratzaileek eta haien familiek gizarte-laguntzak bereganatzen dituzte". Gero, azken hamarkadan aplikatutako **zurrumurruek aurkako estrategiak** azalduko ditugu, eta, amaitzeko, horren kontra egiteko ildo nagusiak adieraziko ditugu.

1. Gutxienez, testuinguruarekin lotutako **lau faktorek** azaltzen dute mezu horien hazkunde esponentziala. Lehenik eta behin –azaldu dugu jada–, immigratzaileen eta atzerritar jatorriko kolektiboen **presentzia kuantitatiboa eta kualitatibo handiagoa** herrialdearen bizitza publikoan. Ez soilik gehiago direlako, baizik eta gero eta presentzia handiagoa dutelako: eguneroko bizitzan, auzoetan, etxebizitzetan, merkataritzan eta komunitateetan, zerbitzu eta espazio publikoen erabileran, eta, batez ere, hedabideetan barra-barra ageri diren albisteetan (horietako asko problematikoak eta kezagarriak dira, bai eta tragikoak ere).

Berez, horrek ez dakar ezinbestean gezur gehiago izatea, baina gezur horien testuingurutik –**krisialdian** izaten dira, batez ere– helduko gara bigarren faktorerara. 2008an abiatutako krisialdiaren urte gogorretan, politika publikoetan, murrizketa handiak egin ziren aurrekontuetan, programetan eta langile-kopuruan. Desberdintasunen eta gizarte polarizazioaren gorakada gertatu zen. Geroago, 2020ko otsailetik, beste krisi bat sortu da, Covid 19ak eragindako osasun-krisia eta krisi sozioekonomikoa, desberdintasunak areagotu egin dira, eta egoera horrek are gehiago eragin die egoera ahulenean daudenei, immigratzaileen biztanleria-sektore handiei, besteak beste.

Immigrazioari buruzko diskurtsoen eta pertzepzioen ikuspegitik, **krisiek bi alde dituzte**. Batetik, krisi guztiek (pertsonalak edo sozialak), ondo heltzen bazaie, **aurrera egiteko aukerak** ematen dute. Gure arloan, aukera horietako bat migratzaileen ekarpenak ikusarazteko aukera da, beti lehen lerroan, eta lan zailenak egiten, estimazio gutxien duten lanetan, jendeak egin nahi ez dituenetan. Nolanahi ere, krisietan badago beste alderdi bat, eta jende askok oso gaizki pasatzen duenez, zenbait kolektiboren eta pertsonaren profilen aurkako **erruduntz mekanismoak sustatzen dira**: beste behin, zoritxarrez, estigmatizazio-jarrerak sortzen dira, eta errudunak eta **turko-buruak** bilatzen dira.

Eta eguneroko bizitzan presentzia handiagoa izan ahala, zenbait krisi gainjarriak izanda, gezurrak eta zurrumurruak lehergailu ezin hobea dira iritzi publikoa sutan jartzeko. Eta lehergailu hori **xenofobiaren aurrerakada** eta Europako eta Espainiako eskuin-muturrekoek **immigrazioen aurka egindako kanpainak** dira. Hor daude, eta hor egongo dira, pertzepzio, polemika eta iritzi horiek sortzeko eta diskurtsoetan,

politikan eta hauteskundeetan baliatzeko tentazioa eta aukera. Azken urteotan, eskuin neokontserbadoreen eta eskuin-muturreko populismoen posizio ideologikoetakoak hori baliatzen ari dira, argi eta garbi, multzo handi horretan ñabardurak badaude ere.

2003an jada, horrelako zurrumurruei buruz idatzi genuen, baina orain jokabide hori zuzenagoa eta erradikalagoa da, erasokorra, eta disimulurik gabe egiten da. Immigrazioaren aurkako posizioetatik, kanpaina eta lelo xenofoboak antolatzen dira, hala nola *Stop inmigración, Primero los de Casa edo Alimentos solo para españoles* (hurrenez hurren, **Stop immigrazioa, Lehenbizi etxeokak eta Elikagaiak espainiarrentzat soilik**). Lan honen bigarren zatian, iruzkin berriei buruzkoan, aztertuko ditut.

Koktela osatzeko, laugarren osagaia dugu, zurrumurruek eta gezurrak areagotzea eta are erasokorragoak izatea azaltzen duena: **komunikazio telematikoa eta birtualaren egokitasuna** –hau da, sare sozialen egokitasuna– eskusio- eta gorroto-diskurtsoak zabaltzeko. Hori bai, laster ikusiko dugunez, komunikazioaren teknologia berri horiek (IKT) aukera ematen dute, halaber, **zurrumurruen aurkako estrategiak** baliatzeko, eta zurrumurruek gezurtatzeko ez ezik, egia, giza eskubideen eta gizarte inklusiboaren alde argudiatzeko ere erabil daitezke.

2. “Marokotik etorritako musulmanen %80 gizarte-laguntzetatik bizi dira”, “legez kanpoko immigratzaileek ABEEko egoeran dauden langileek baino laguntza gehiago jasotzen dituzte”, “paga bat jasotzen dute immigratzaile izateagatik, besterik gabe”, “7.000 pertsonak Generalitatean laguntzak jasotzen dituzte Marokotik”, “asilo-eskatzaileei ordainsari bat ematen zaie, gehienek irabazten duten soldata baino handiagoa” eta abar, eta abar.

Hori zenbait hedabidek argitaratutako, sare sozialetan zabalduetako edo zenbait ordezkari politikok disimulurik gabe esandako adierazpen, gezur edo faltsukerien lagin txiki bat baino ez da.

Ikus daitekeenez, mezu horietan, zalantzan jartzeko moduko zenbait ildo daude. Batzuetan, horretaz bizitzen dela adierazten da; hau da, migratzailea lanik egiten ez duen noizbait dela esaten da, sistemaren parasittoa dela, migrazioa ekarpenak egiteko eta aberastasuna sortzeko fenomeno gisa aurkeztu beharrean, jatorrian zein helmugan garapen-faktore gisa aurkeztu gabe. Beste batzuetan, **legez kanpoko zer bait adierazten da** –hemen terminoa egokia da–; esaterako, laguntzak jasotzea Espainiatik kanpo.

Kasu gehienetan, adierazpenetan **migratzaileen eta herrialdekoen arteko alderaketa egiten da**; hau da, **bidegabekeria konparatibo bat egiten da**; kolektibo jakin batek jasotakoa gizarte-politikaren baterako (benetan edo ustez) esleitutako baliabideekin alderatzen da. Horren adibide da Vox alderdiak Madrilgo Erkidegorako hauteskunde kanpainen ateratako kartel probokatzailea eta polemikoa, non “gure amonatzaren” erretiro-pentsioa alderatzen baitzen bidaiderik gabeko adingabeen arretaren guztizko kostuaren (ustezko) hainbanaketarekin.

3. Faltsukeria eta gezur horiei aurre egiteko, Espainian, ekimen asko plazaratu dira. Sarritan, **zurrumuruen aurkako estrategiak** izenburupean biltzen dira. Bartzelonako Udalak 2011n onartutako *Plá de Interculturalitat* planean, jarduketa-ildo hori planaren eta udal-politika berriaren ardatz nagusietako bat zen jada³⁸. Han sortu ziren esperientziak, metodologiak eta taldeek gaur egun arte jarduten jarraitu dute.

Gezurrek sortutako erronka gero eta handiagoa denez, eginkizun hori gizarte inklusiboaren aldeko lanerako oso funtsezkoa denez, eta eragiteko bide bideragarri eta eraginkor bat eraikitzen joan denez, balio handiko ekimen ugari sortu ziren. Hauek dira, besteak beste, horietako batzuk: *Stop Rumores* (Andalucía Acoge), *PorCausa* fundazioaren artikuluak, *ZAS! Zurrumuruen Aurkako Sarea/Red Vasca Antirumores*, *Euskadin* (lan honen sustatzailea), *elDiario.es* egunkariko Desalambre atala; *verifica.Rtve* atala; eta UGT sindikatuaren *TrabajoLibreDeBulos* saileko txostenak. Ikus daitekeenez, askotariko ekimen sortzaile eta konprometituak daude, elkarrekin, sindikatuek, hedabideek eta abarrek martxan jarritakoak.

Eta jardun-ildo hori errotu egin da udal-ekintzetan eta barruti eta auzoetan egiten den lanean. Hala, zurrumuruen aurkako estrategiak *Red de Ciudades Interculturales* (RECI; hau da, Kulturarteko Hirien Sarea) sarearen funtsezko osagaiak dira. Sare hori Europako Kontseiluak bultzatu zuen, 2011tik, eta presentzia du Europar Batasunean eta Espainian. Halaber, egiaren aldeko lan egiteko modu hori aniztasun handiko lurralde-sorta handi batean garatu da³⁹, *Proyecto de Intervención Comunitaria Intercultural* (Proyecto ICI) proiektuan –hau da Kulturarteko Komunitateko Esku-hartzeko proiektua (KKE proiektua); 13. iruzkinean aipatu dugu–.

38. Jada orduan (2011), Dani de Torresen zuzendaritzapean – Bartzelonako Udaleko immigrazio-gaietarako ordezkaria zen– eta Gemma Pinyol-ek koordinatuta –politologoa eta politika publikoetarako aholkularia da–, “Guía práctica para combatir los rumores y prejuicios sobre la diversidad cultural” prestatu zen (hau da, “Kultura-aniztasunari buruzko zurrumuruen eta aurreiritzien kontra borrokatzeko gida praktikoa”). Duela gutxi, egileek berrikusi eta eguneratu dute, Fundación ACSAR fundazioarekin batera.

39. Esaterako, La Cañada Real Galiana eta San Cristóbal de los Ángeles auzoetan, Madrilen, Leganés udalerrian, Taco (Tenerife) eta Jérez Sur auzoetan, eta Zaragozako alde zaharrean

4. Instantzia horietatik zurrumurru eta gezur guztiak jaso dira, eta prentsa-oharrak, artikulua eta kanpainak jarri dira martxan. Hau ez da gezurra ezeztatzen dituzten datuak eta informazioak behar adina xehetasunez lantzeko lekua. Gai horretan interesa duten pertsonak adierazi ditugun iturri eta materialak kontsultatu ditzakete (ikusirik honen eta hurrengoaren amaieran; testu horietan, berriz, beste erreferentzia batzuen berri ematen da). Eta, batez ere, aipatutako kanpainak eta erakundeek plazaratutako **gidak** eta beste produktu batzuk baliatu ditzakete. Zurrumurru bakoitza aztertu gabe, jarraian, erakunde horien argitalpenetan zurrumurruei kontra egiteko ageri diren ildoetako batzuk adieraziko ditut:
- ▶ Kontua **legeetan xedatutakoa betetzea da**, besterik ez
 - ▶ Hau dio Atzerritarrei buruzko Legeak: herrialdean “bizi diren atzerritarrek gizarte-zerbitzuak eta -prestazioak eskuratzeko eskubidea dute, **bai zerbitzu eta prestazio orokorrak eta oinarrizkoak, bai espezifikokoak, espainiarrek dituzten baldintza beretan**” (14. artikulua, guk geuk gehitutako enfasia)
 - ▶ Immigratzaile “irregularrei” dagokienez-irregularitasun-egoera administratiboan dauden atzerritarrak edo dokumentaziorik ez dutenak-, Atzerritarrei buruzko Legea gogoratuko dugu berriz ere: “atzerritarrek, **haien administrazio-egoera dena delakoa izanda ere**” -hau da, paperekin edo paperik gabe- “**oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta -prestazioak**” jasotzeko eskubidea dute (guk geuk gehitutako enfasia)
 - ▶ Migratzaile irregularrentzat, gizarte-laguntzak (ez-larrialdikoak) eskuratzeko bide bakarra **erregularizatzea da**.
- ▶ Espainian, laguntzak ez dira jatorriaren edo nazionalitatearen arabera ematen, baizik eta **irizpide sozioekonomikoen arabera**, eta irizpide nagusietako bat **errenta-maila** da.
 - ▶ Aurrekoaren korolariorik, Espainian ez daude atzerritarrek atzerritar izateagatik jaso dezaketen gizarte-laguntzak, ezta espainiarrak kanpo uzten dituzten prestazioak ere. Beste modu batean esanda, **ez dago immigratzaileentzat soilik den gizarte-prestaziorik**.
 - ▶ **Ez dago faborezko tratuerik:** horrelakorik egonez gero, salatu eta zigortu egin behar da, faborezko beste edozein tratu bezala

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

"Todas las ayudas sociales se las llevan los inmigrantes": un bulo que se repite no solo en España (Maldita Migración kolektiboaren artikulua, herrialdeetan migratzaileentzako laguntzen harira esaten diren gezurrei buruzkoa. Artikulua Diario.es egunkarian argitaratu zen, 2019ko urrian, <https://bit.ly/2WTngvf>)

"Ni roban el trabajo ni las ayudas: bulos económicos contra inmigrantes" (Verificartve atariko artikulua, 2021eko apirilean argitaratua. Artikuluan, immigratzaileen aurkako zenbait gezur ezeztatzen dira, <https://bit.ly/3zPKqMW>)

"Somos funcionarios y estamos hartos de oír que los inmigrantes tienen más ayudas" (El Confidencial egunkariko artikulua, 2019ko martxoan argitaratua. Artikuluan, funtzionarioek migrazioei buruzko zurrumurrak ezeztatu egiten dituzte, <https://bit.ly/3l7PR5z>)

"¿Es cierto que los migrantes acaparan todas las ayudas sociales?" (Humanizar aldizkari digitalean argitaratutako artikulua, migratzaileek gizarte-laguntza guztiak bereganatzen dituztelako zurrumurruari buruzkoa, <https://bit.ly/3imVTgP>)

"Inmigrantes y ayudas sociales en España" (2020ko abuztuan Acampa Madrid blogean argitaratutako artikulua, migratzaileek Espainian lor ditzaketen gizarte-laguntzei buruzkoa, <https://bit.ly/3xicLJW>)

"¿Las personas inmigrantes abusan de las ayudas públicas? Derrumbamos el mito" (Save a Hater blogean 2019ko ekainean argitaratutako artikulua, migratzaileei Espainian ematen zaizkien laguntza publikoei buruzkoa, <https://bit.ly/2VuMpqS>)

"Monasterio dice que los 'inmigrantes ilegales' reciben más ayudas que los trabajadores en ERTE, pero es falso" (Newtral egunkariko artikulua, 2021eko apirilean argitaratua. Artikuluan, Vox alderdiko Madrilgo presidente Rocio Monasteriok migratzaileek Espainian jasotzen dituzten laguntzen harira zabalduak zurrumurrak gezurtatzen dira, <https://bit.ly/3rQnnyy>)

"Solo el 1,7% de los inmigrantes cobran ayudas sociales" (El País egunkariko artikulua, 2019ko abenduan argitaratua. Artikuluan, Madrilgo Erkidegoko migrazioen harira egindako inkesta bati buruzko informazioa ematen da, <https://bit.ly/3lyLLs6>)

"Datos: qué ayudas reciben los inmigrantes en España" (Newtral egunkariko artikulua, 2019ko urtarrilean argitaratua. Artikuluan, migratzaileek Espainian ustez jasotzen dituzten gizarte-laguntzei buruzko gezurrak ezeztatzen dira, <https://bit.ly/3l3HPuy>)

~akademia

"Inmigración y servicios sociales. Entre el estereotipo y la realidad" (Valentziako Generalitateko Gizarte Ongizateko Saileko Xavier Montaguden eta Valentziako Unibertsitateko Francesc Torres irakaslearen artikulua akademikoa, 2002an argitaratua, migratzaileek Valentziako gizarte-zerbitzuetan integratzeari buruzkoa, <https://bit.ly/3fa0PDJ>)

"Los inmigrantes quitan trabajo y abusan de las ayudas sociales. Gestión de la inmigración laboral e integración social en España" (Valentziako Unibertsitateko Ángeles Solanes irakaslearen artikulua akademikoa, 2016ko urtarrilean argitaratua, Espainiako immigrazioaren kudeaketari buruzkoa. Arreta berezia ematen zaie pertsona horiek jasotzen dituzten lagun, <https://bit.ly/3inlRkh>)

~gizarte-erakundeak

"Rumor: ¿los inmigrantes reciben más ayudas sociales?" (Málaga Acoge elkartearen webguneko artikulua, migratzaileek jasotzen dituzten gizarte-laguntzen inguruko zurrumurruei buruzkoa, <https://bit.ly/3jjsEuB>)

~txostenak

"¿Qué ayudas reciben las mujeres inmigrantes en España?" (Emakume migratzaileek Espainian jasotzen dituzten laguntzei buruzko artikulua. Artikuluan, egoera horren azterketa egiten da, <https://bit.ly/3xnwKHd>)

"Subvenciones" (Migrazioen Idazkaritza Nagusiaren webgunean argitaratutako dokumentu ofiziala. Artikuluan, migratzaileek Espainian jasotzen dituzten diru-laguntzak zehazten dira, <https://bit.ly/3yBZb5P>)

15.

“Lehentasuna ematen zaie immigratzaileei. Programa gehienak haientzat dira”

LANDUTAKO GAIAK

pribilegioak, bizi-kalitatea, ongizate-estatua, arrazakeria xenofoboaren kostuak, eskubideen ikuspegia; erabiltzaileak eta zerga-ordaintzaileak; egia eta egiazkotasuna

Abiapuntuko testua ~2003

Madrilgo Lavapiés auzoko atzerritarrei buruz egin genuen ikerketako eztabaida-taldeetako batean, auzoan bizitza osoa zeraman emakume bat –bizimodua etxeak eta eraikinetako eskailerak garbitzen ateratzen zuen eta seme-alabak lanik gabe zituen– kexatu egin zen auzoko banketxeek immigratzaileei kredituak errazago ematen zizkietelako. Amaitzeko, “immigratzailea ez bazara, jai daukazu” esan zuen. Aurreko iruzkinean bezala, hemen bi hipotesi bereizi behar ditugu: bidegabekeria konparatibo hori oinarririk gabeko pertzepzioa den, besterik gabe, ala horrelako benetako egoerak gertatzen diren. Biztanleriako zenbait sektorek sentipen hori izan eta elika dezakete, nahiz eta errealitatearekin bat

etorri ez. Hori egiten dute beren beharrak behar bezala asetzen ez direla uste dutelako; esaterako, beren seme-alaben enplegu- eta etxebizitza-premiak asetzen ez direla ikusten dutelako. Halaber, horren arrazoia beldurra izan daiteke, orain dutena galtzearen edo gutxitzearen beldurra –14. iruzkinean aztertu dugu hori–. Zaila izango da pertsona horiek konbentzitzea immigratzaileek “pribilegioak” ez dituztela esanez. Dena dela, ahaleginak egin behar dira, eta informazio ona beti da baliagarria, baina hiritarrok jasotako arretarekin pozik egoteko lan egitea da benetan garrantzitsuena.

Ondorioa erraz ateratzeko modukoa da, baina premiazkoa ere bada: funtsezkoa da ongizate-estatuak ondo eta hobeto funtzionatzea, bai hiritar guztien premien eta eskubideen ikuspegitik, bai arrazakeria, xenofobia eta gizarte-gatazka desarautua eragozteko. Arrazakeria berriaren ikuspegitik, argudiatzen da oso garestia dela immigratzaileei behar bezalako arreta ematea; immigratzaileak hiritar gisa integratzearen alde eta kultura arteko bizikidetzaren alde gaudenok, berriz, erantzun dezakegu xenofobiak eragindako gizarte-gatazka dela benetan garestia, eta gatazka horrengatik egin behar diren inbertsioak (barneratze-zentroak, polizia, abokatuak, fiskaltza, epaitegiak), eta gizarte-sormena eta ekintzailtza-energia izugarri galdu edo xahutzen dela. Langile atzerritarren diskriminaziorik eta eskusiorik ez balego, immigratzaileekin lotutako programa asko ez lirarteke beharrezkoak izango, genero-desberdintasunekin gertatuko litzatekeen modu berean: genero-desberdintasunik ez balego, aukeraberdintasuna bultzatzeko edo genero indarkeriaren aurka egiteko programak ez lirarteke beharrezkoak izango.

Beste batzuetan, immigratzaileen ustezko pribilegioarekin lotutako bidegabekeria konparatiboarekiko jarrerak benetako egoera bat islatu dezake. Izan

ere, batzuetan honelako hutsuneak egiten dira:

- a. **baliabide jakin batzuk immigratzaileen artean soilik banatzea** –esate baterako, horrela egin da ikastetxe batzuetan eskola-jangelarako laguntzekin, bai eta zenbait gizarte-zerbitzutan, jaioberrientzako esne-hautsarekin ere;
- b. **baremoak ezartzean, onuradunen konplexutasun osoa jasotzen ez duten irizpideak erabiltzea**; esaterako, etxebizitzak edo beste ondasun batzuk esleitzean, prekarietate ekonomikoaren eta familia-beharren arabera irizpide bakarrak zehaztean.

Hori egiten bada, gerta liteke bertakoek kanpoan geratu direla edo baztertu egin zaiela sentitzea. Esate baterako, udalerrri bateko gizarte-etxebizitzaren banaketan gertatutakoa aipatuko dugu. Kasu horretan, ez ziren kontuan hartu jendeak bertan bizitzen zeraman denbora edo etxebizitza horren zain zeraman denbora. Bertako

biztanleriako asko 1960an Andaluziatik migratutako jendea zen –denbora asko zeraman zain, immigratzaile atzerritarren baino batez besteko diru-sarrera handiagoak dituzte eta familia ugariak gutxiago dira haien artean–, diskriminatuta sentitu zen eta protesta handia izan zen.

Horrelako kasuetan, akats horiek onartu behar dira, esperientziatik ikasi, eta gizarte-baliabideen esleipena ondo neurtuz eta irizpide inklusiboen arabera arautu. Aipatu nahi dugu berriz, eta hor proposatutako integrazioaren kontzeptua. Bidezko irizpideak, nahikoa baliabide eta eraginkortasuna behar dira. Ez dugu ahaztu behar biztanleriak errealitateak nahi dituela, argudioak baino gehiago, edo argudioak errealitateekin osatzea. Hori guztia esanda, **bidegabea izango litzateke ez gogoratzea bertako biztanleriako sektore behartsu batzuek noizean behin sentitzen duten bidegabekeria konparatiboko egoera hori egunero izaten dutela atzerritar jatorriko pertsona askok.**

Arrazoiketaren laburpena

~2003

- 01 Estatistikek, protokoloek eta azterketek erakusten dute baieztapen hori **ez datorrela bat errealitatearekin.**
- 02 Noizean behin, iritzi horrek **laguntzen banaketan** edo baremoak ezartzeko irizpideetan **egindako akatsak edo erroreak islatu ditzake.**
- 03 Kasu horietan, hutsuneak egin direla aitortu behar da, **esperientziatik ikasi**, eta gizarte baliabideen esleipena neurritz eta modu inklusiboan arautu.
- 04 Gizarte hartzaileko edo bertako biztanleriako sektore batzuek mezu horren alde egin dezakete: a) **beren beharrak asetzen ez direla** sentitzen dutelako (enplegua, etxebizitza, etab.) eta/edo b) orain dutena **galtzearen edo gutxitzearen** beldur direlako.
- 05 Horregatik, oso zaila da **pribilegioak edo lehentasunak ez daudela** sinestaraztea, eta garrantzitsua da haiek egiaztatzea beren bizi-kalitatea mantentzen dela edo are hobetzen dela.

06 Ongizate-estatuak ondo eta hobeto funtzionatzea ezinbestekoa da, ez soilik hiritarren multzoaren bizi-kalitatea bermatzeko, baizik eta **arrazakeriaren, xenofobiaren eta gizarte gatazka desarautuaren gorakada eragozteko** ere.

07 Benetan garestia eta kaltegarria dena **arrazakeria xenofoboa** da, honako hauek eragiten baititu: a) gatazka eta gizarte-tentsioa areagotzea, eta b) sormena eta ekintzailtza-energia galtzea.

08 Arrazakeria, legez kanpoko eta etikaren aurkakoa izateaz gain, **garestia da**. Diskriminaziorik eta eskusiorik ez balego, programetako asko ez lirateke beharrezkoak izango.

Eguneraketa

~2023

“Espainiarrek baino laguntza gehiago dituzte”, “ezohiko laguntzak baliatzen dituzte”, “lehenetasuna dute Madrilgo alokairuetarako zerrenda batean”, “laguntza gehiago lortzen dituzte”...

Iruzkin hau (15.a) aurrekoaren jarraipena da, baina gizarte-pertzepzioarekin eta imajinario publikoarekin lotutako funtsezko elementu bat gehitu dugu.

“Immigratzaileei lehenetasuna ematen zaie”, “programa gehienak haientzat dira” eta antzeko adierazpenetan, gizarte-laguntzen banaketari buruzko eztabaidaz gain eta atzerritarrek eta haien familiek laguntzak bereganatzen dituztelako ideiaz gain, beste gai bat sartzen da: immigratzaileen **lehenetasuna**; hau da, ustezko **pribilegioa**.

Horregatik, ideia horiek (**pribilegioa, lehenetasuna eta bidegabekeria konporatiboa**) eskusio diskurtsoetara gehitzearen esanahia eta funtzionaltasuna aipatuko ditut. Gero, gai horri heltzean eta horri buruz hitz egitean eta eztabaidatzean kontuan hartu behar diren bereizketa-pare bat egingo ditugu. Horren ondoren, gai hori dagokion esparruan kokatuko dugu: legeak

betetzea eta eskubideen araberako ikuspegia. Azkenik, azalduko dut gezurren eta zurrumurruen aurkako estrategien inguruan sortutako **konfrontazio-espazioa** (gezurrak *versus* zurrumurruen aurkako estrategiak) funtsezkoa eta orokorragoa den zerbaiten parte dela: **fake news direlakoan eta egiaaren arteko borrokaren parte**. Borroka horretan gaude gaur egun⁴⁰.

1. Diskurtso xenofoboetan eta immigrazioaren aurkako jarreretan, immigratzaileek laguntzak **bereganatzen** dituztela edo laguntzez **abusatzen** dutela azpimarratzen da, bai eta, horrez gain, **pribilegioak eta lehenetasunak** ematen zaizkiela ere. Hori guztia baliatzen da diskurtso eta jarrera horietan, eta helburu hau lortu nahi da: bertako biztanleriak, kaltetuta sentitzean, immigrazioa eta EBtik kanpoko atzerritarrak gaitzestea, honako oinarri hau baliatuta: “hemen hartzen ditugu, eta gainera, pribilegiatu batzuk dira. Horixe bakarrik behar genuen”.

⁴⁰. Sentitzen dut “borroka” termino belizista erabili izana, baina ez dut hoberik aurkitu.

Diskurtso politiko, mediatiko eta, batzuetan, soziala da, eta, hor, baliabide publikoak eskuratzeko **lehia** adierazteaz gain, atzerritarrekiko ustezko **faboritismoa** azaltzen da.

Diskurtso hori datuen errealtatearekin bat ez badator ere –hala erakusten dituzte iruzkin hauetan aipatu ditudan iturri eta material ugariak–, immigrazioa hartzen duten hainbat herrialdetan erabiltzen da, Espainian, adibidez. Immigrazioaren aurkako jarreraren eta eskusioaren aldeko diskurtso xenofoboetan ageri da, eta, batzuetan, gorroto-diskurtso jakin batzuetan ere bai.

Duela hogeit hamar urte, esan genuen, biztanleria-sektore handi batzuen prekaritate- eta ahultasun egoera zela eta, oso zaila izango zela sektore horiei horrelako pribilegioak edo lehentasunak ez daudela sinestaraztea. Are gehiago gaur egun:

- a. bi krisi gertatu dira –krisi ekonomiko bat eta osasun-arloko krisi bat–, eta
- b. eskuin-muturrekoak kanpaina zabal eta setatsuak egiten ari dira, egoera horiek baliatuz.

Zaila da, baina ez ezinezkoa, eta, noski, zailtasun handiago horri aurre egiteko, egiazko informazio gehiago eta hobea eman behar da, bai eta gizalegez, sormenez eta eraginkortasunez jokatu ere, horiek guztiak zabaltzeko.

Horrez gain, lan-, gizarte- eta zerga-arloko politiken garrantzia azpimarratu behar da, lehen baino handiagoa baita, biztanleriaren bizi-kalitatea babesteko eta hobetzeko; batez ere, egoera ahulenean eta baztertuta dauden biztanleria-sektoreen alde egiteko. Politika horiek, ongizate-estatua mantentzeaz eta sendotzeaz gain, funtsezkoak dira gizarte-justizian (eta 2030 Agendan) aurrera egiteko, bai eta xenofobiaren eta polarizazioaren gorakada galarazteko ere.

2. Jarraitu aurretik, bereizketa bat egin nahi dut, aurreko iruzkinetan egin dudan moduan. Nire ustez, gai horiei buruzko eztabaida publikoetan eta pribatuetan kontuan hartu behar den zerbait da. Gezurrak direnez, **bereizi egin behar dira arazo sozioekonomiko larriko egoeran bizi diren pertsona jakin batzuen kezka legitimo eta ulergarrietatik.** Pertsona horiek edo haien senideek, egoera problematiko batean bizi direnez (pobrezia, langabezia, dirusarrera urriak eta eskasak, gizarte- eta osasun-arretarik eza, proiektu pertsonalak gauzatzeko ezintasuna, etab.), “ez dago denontzat” edo “hori guretzat kaltegarria da” pentsatzeko joera izan dezakete.

Segur aski, eta nire esperientzia pertsonalean ikusi dut, pertsona horiek “immigratzaile asko daudela” –dela beren ingurunean, dela albistegietan– eta haien beharrak asetzen direla hautematen dute, eta gerta liteke beraiei “gutxiago heltzen zaiela” pentsatzea edo **“gainera, are gutxiago heltzen zaigu”** pentsatzea. Hain zuzen ere, hor dago –dagoen prekaritatean, ase gabeko gizarte-premietan– gezurrek aurrera egiteko oinarria eta egoera sozioekonomikoa, eta hori oso ondo dakite gezur horiek sortu eta zabaltzen dituztenek. Hori baliatzen dute, entzulegoa eta babesa lortzeko.

3. Esan ahal izango da atzerritar gehiago daudela prekaritate-egoeran eta horregatik jasotzen dituztela gizarte-laguntza gehiago. Eta, neurri batean, hala da. Gizarte-laguntzak behar handienak dituzten pertsonak jasotzen dituzte, eta horien artean, bai, immigrazioko zenbait sektore daude, baina ez denak. Puntu honetan, **komeni da asmo txarrak eta gaizki-ulertuak bereiztea.**

Asmo txarrak daudenean, zenbait datu baliatu eta desitxuratu egiten dira, eskusio-kanpainak bultzatzeko. Gaizki-ulertuak daudenean, berriz, gauzak

nahasi egiten dira, baina baliteke, eta hori sinetsi nahi dut, asmo txarrik gabe egiten dela. Hau irakurtzen duenak ikus dezakeenez, garrantzi handia ematen diot **nahitasunari**, pertsonak lortu nahi dugunari –horretan, bat nator giza ekintzen alorreko zenbait tratatu-idazlerekin–. Puntu hori azpimarratu nahi dut; izan ere, aurreko puntuan egindako bereizketan bezala, garrantzitsua da hitz egiteko eta hitz egiteko modurako.

4. Sakon dezagun arrazoiketa-ildo horretan, elementu komunak baitaude. Bi kasuetan, asmo txarretan eta gaizki-ulertuetan, **estatistikak aztertzean, datu absolutuak eta datu erlatiboak nahasi egiten dira**. Hau da, gauza bat da pobrezia-arriskuan dauden atzerritarren proportzioa bertakoena baino handiagoa izatea (hori 5. iruzkinean ikusi dugu), eta beste bat laguntza gehienak haientzat direla esatea. Ikus ditzagun, hain zuzen, datu erlatiboak, eta, gero, absolutuak.

5. iruzkinean, 2018rako adierazle-sorta handi bat alderatu dugu, eta adierazi dugu migratzaileen artean pobrezia-arriskuan dauden pertsonen ehunekoa handiagoa zela.

Garrantzitsua da EBko herrialdeetako atzerritarrak eta EBtik kanpokoak bereiztea: 2019an, Estatistika Institutu Nazionalako datuen arabera, espainiarren %21,7, EBko herrialdeko atzerritarren %46,2, eta EBtik kanpoko atzerritarren %54,2 zeuden pobrezia- edo gizarte eskulsioko egoeran. Hori azaldu daiteke esanez migratzaileak lan-merkatuko bigarren mailako segmentuetan aritzen direla eta egoera sozioekonomiko okerragoa dutela (ikusi 10. eta 11. iruzkinak).

Baina atzerritar jatorriko biztanleria Espainiako guztiko biztanleriaren %11 baino zertxobait gehiago denez, biztanleria absolutuari dagokionez, espainiarrek laguntza gehiago jasoko dituzte, edo

zehatzago esanda, espainiarren gizarte-premietarako aurrekontu absolutua askoz handiagoa da.

5. Aurrekoaren korolariora, migratzaileek ez dituzte “gizarte-laguntzak bereganatzen, eta ez dituzte pribilegioak laguntzak jasotzerakoan”. **Lehen aipatu dugunez, gizarte-laguntzak emateko edo ukatzeko ez dira irizpide geopolitikoak kontuan hartzen (jatorria, nazionalitatea), baizik eta irizpide sozioekonomikoak (errenta, familia, desgaitasunak, mendekotasuna, etab.).**

Pribilegioak eta faboritismoak ez daudela argudiatzeko irizpideez eta protokoloez harago, **eskubide-berdintasuna** azpimarratzea da kontua; hain zuzen ere, lantzen ari garen gaian, titulartasun partekatua, “gizarte-zerbitzu eta –prestazio orokorre zain oinarritzoei dagokienez” (Atzerritarrei buruzko Legearen 14. kapituluak), “Espainian bizi diren atzerritarrak” espainiarrekin parekatuta. 1., 2. eta 11. iruzkinetan planteatutakoaren ildo berean, aipatuko dugu eskubide berdintasun horren oinarria ideia honekin bat egiten duela: **atzerritar jatorriko pertsonak ez direla** gizarte-sistemaren eta ongizate-estatuaren **erabiltzaileak edo hartzaileak soilik, zerga-ordaintzaileak ere badirela.**

Bestalde, kontuan hartu behar da, halaber, **atzerritarrek hesi, zailtasun eta oztopo asko gainditu behar dituztela gizarte-laguntzak eskuratzeko:** dokumentaziorik ez dutelako edo irregulartasun-egoeran daudelako, baliabideei buruzko ezagutzak eta informazioa ez dutelako, zenbait baldintza betetzen ez dituztelako, kontraturik gabe lan egiten dutelako, hesi linguistikoak dituztelako, egoera psikologiko zailtan daudelako (beldurra), gizarte nagusitik bakartuta bizi direlako, eta harremanak hirikideekin soilik dituztelako –edo gehienbat–, etab.

6. Azken bi iruzkinetako gogoetak laburbiltzeko, immigrazioaren errealitateei dagokienez, azpimarratu edo nabarmendu nahiko nuke **konfrontazio-eremu bat** sortu dela, nolabait esateko, honako hauen artean: batetik, oinarririk gabeko zurrumurruek eta faltsukeriak sortu eta zabaltzen dituzten eragileak, eta, bestetik, egiazko informazioa eta egin behar diren azalpenak bildu eta zabaltzen dituztenak. Eta, aldi berean, konfrontazio-eremu hori –diskurtso politikoan, argitaratutako iritzietan eta demokrazia deliberatiboan– egiaren defentsaren eta egiazkotasunaren defentsaren osagaietako bat da.

Finean, gizarte-laguntzen eta immigrazioaren auzi horretan –gezur eta faltsukeria ugari esaten dira horren harira–, gizarte-bizitzako beste esparru batzuetan bezala, konfrontazioa dago honako hauen artean: batetik, gaiak manipulaziorako –eta errentagarritasun politikorako– ematen dituen aukerak baliatzen dituztenak, eta, bestetik, egiazko informazioa eta gezurren eta faltsukerien kontra argudioak sortzen dituztenak –ditugunak–.

Modu zabalago, sakonago edo egiturazkoago batean, esan daiteke hori egiaren eta egiazkotasunaren aldeko defentsaren parte dela; hau da, bizitza duinaren, ongi bizitzearen eta demokraziaren funtsezko elementu bat dela. Ez gehiago ez gutxiago. Jokoa dagoena ez da soilik arrazakeriaren, xenofobiaren eta eskusioaren aurka egitea, baizik eta bidezko gizarte bat defendatzea eta bakean eraikitzea.

7. Horri guztiaren harira, Michel Foucault-en lan bikain bat aipatu nahi dut: **Egia esateko adorea. Norberaren eta besteen gobernu.** Lan horretan, Foucault-en (1926-1984) azken ikasturteetako irakurgaiak biltzen dira. *Collège de France* erakundearen eman zituen, *Pentsamendu-*

sistemen Historiako katedraduna izan baitzen hor. Lan horretan, frantziar pentsalariak **parresia** terminoak –“egiaz esan”– bizitza publikoen eta politikoan duen eginkizuna eta esanahia ikertu zuen. Gogoeta horietan, Foucaultek demokraziaren mantentzera eta garapenera bideratzen ditu bere pentsamendua eta ahaleginak. Horretarako, ados jartzearekin lotutako baldintza etikoen multzo bat ezarri behar dela defendatzen du, eta **adorean** eta **konbikzioan** sakondu behar dela.

Hemen, egileak, greziarren eta erromatarren garaiko zinismoa aztertu ondoren, **parresiaren** eta alteritatearen artean ezartzen duen lotura nabarmenduko dugu. Eta hori egiteko, “egiaz esatea”, probokatzailer eta subiranoa, “benetako bizitzaren eskandaluarekin”, “bizitza desplazatuekin”, “bestelako bizitzarekin”, “bizitza probokatzailerarekin” lotuta dagoela erakusten du. Foucault-en hitzetan: “Ez da egiaren ezarpena egiten, baizik eta alteritatearen funtsezko postulazio bat; egia ez da inoiz gauza bera; beste munduaren eta bestelako bizitzaren forman soilik egon daiteke egia”.

Gure gaira itzulita, **lehen esan bezala, Bestea eta aniztasunak zilegi eta egiaz aitortzea funtsezkoa da bizitza duinerako eta demokraziarako.** Adorez esan behar dugu pertsona migratzaileek eskubideak dituztela, eta eskubide horien artean, gizarte-laguntzak jasotzeko eskubidea, besteek bezala. Eta konbikzioz esan behar dugu migratzaileek guk dugun gizatasun eta duintasun bera dutela eta auzokide eta hiritar berriak balira bezala tratatu behar ditugula, etxe komunaren biztanle berriak balira bezala, beti aldatzen ari den eta beti eraikitzen ari garen etxe horretakoak.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

"Nacionalidad, "pisos gratis" y "paguitas": cómo desmontar los bulos que te hacen creer que los inmigrantes se quedan con tus recursos" (ElDiario.es egunkariko Desalambre ataleko artikulua, 2020ko uztailen argitaratua, zenbait alderdi politikok zabalduko gezur xenofoboei buruzkoa, <https://bit.ly/3A7EVZP>)

"Cuidado con este video que intentan colarte sobre ayudas a inmigrantes: cifras falsas y requisitos inventados" (El Diario.es egunkariko Desalambre ataleko artikulua, 2020ko urrian argitaratua, gezur xenofoboz betetako bideo bati buruzkoa, <https://bit.ly/3A65FtO>)

"Los cinco datos que desmontan los bulos sobre inmigrantes y ayudas públicas" (Diari de Tarragona egunkariko artikulua, 2021eko maiatzean argitaratua. Artikuluan, migratzaileei eta laguntza publikoei buruzko gezur nagusiak zehaztu eta ezeztatu egiten dira, <https://bit.ly/2VmQZYz>)

"No roban empleos ni lastran la economía: así contribuyen los migrantes al desarrollo de Europa" (El País egunkariko artikulua, 2019ko uztailen argitaratua, migratzaileek Espainiako gizartean duten eraginari buruzkoa. Artikuluan, migratzaileen aurkako zurrumurruak gezuratzatzen diras, <https://bit.ly/37qp2Bn>)

"Los cuatro bulos más extendidos sobre los inmigrantes" (Ethic webguneko artikulua, 2019ko abuztuan argitaratua. Artikuluan, Espainian zabalduko zurrumurru nagusietako batzuk biltzen dira, <https://bit.ly/2WYbFXv>)

"Los inmigrantes tienen más ayudas que los españoles" y otros bulos que la Junta quiere erradicar" (Diario Sur egunkariko artikulua, 2020ko urtarrilean argitaratua, Andaluziako Juntako Justizia Sailak migrazioekin lotutako gezuraren inguruan egindako kanpaina bati buruzkoa, <https://bit.ly/3rQX2Az>)

"Otro bulo de Vox sobre el Ingreso Mínimo Vital: "No podemos aceptar la inmigración que viene a vivir de las ayudas sociales" (La Sexta telebista-kateko artikulua, 2020ko ekainean argitaratua, Vox alderdiak Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren eta migratzaileentzako gizarte-laguntzen inguruan zabalduko gezur bati buruzkoa, <https://bit.ly/37grHxL>)

"La verdad frente a los bulos sobre la inmigración" (Contexto y acción aldizkari artikulua, 2018ko abenduan argitaratua. Artikuluan, immigrazioaren aurkako gezuraren atzean dauden egia azaltzen dira, <https://bit.ly/3ykhGLI>)

"Santiago Abascal y el bulo de las ayudas a inmigrantes" (Para inmigrantes atariko artikulua, 2019ko urrian argitaratua, Vox alderdiko presidentearen gezur baten harira, Madrilgo Erkidegoko alokairuetarako zerrenda batean migratzaileei lehentasuna ematen omen zitzaiela esan baitzuen, <https://bit.ly/3jic7XL>)

"El informe académico que desmiente seis bulos de la extrema derecha sobre los inmigrantes" (El Plural egunkariko artikulua, 2020ko uztailen argitaratua, PorCausa-ren txosten baten harira. Txosten horretan, eskuin-muturrekoek immigratzaile irregularren aurka esandako gezurak aztertzen ziren, <https://bit.ly/3luciC5>)

"¿Las personas migrantes tienen más facilidades para recibir el Ingreso Mínimo Vital?" (Desactiva.org erakundearen webgunean argitaratutako artikulua, migratzaileek Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerak lortzeari buruzkoa, <https://bit.ly/3jmnGhu>)

"No, el ingreso mínimo no podrán cobrarlo los inmigrantes en situación irregular, como dice Vox" (El Diario.es egunkariko artikulua, 2020ko ekainean argitaratua, Vox alderdiak zabalduko gezur baten harira. Hain zuzen ere, Voxek esaten zuten migratzaileek erraztasun gehiago dituztela Gobernuak onartutako Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerak lortzeko, <https://bit.ly/3jjeOsl>)

"El auge del populismo antimigratorio en Europa" (PorCausa fundazioaren artikulua. Artikuluan, honako hauek aztertzen dira: Europar ideologia xenofoboak izandako bilakaera eta ideologia horrek migrazioen kudeaketan duen eragina, <https://bit.ly/3xoEHfp>)

~txostenak

"Programas de ayuda a los migrantes" (Migrazioetarako Estatu Idazkaritzaren webgunean argitaratutako dokumentu ofiziala, Espainian bizi diren migratzaileentzako laguntza-programei buruzkoa, <https://bit.ly/37jeFiR>)

16.

“Espainiarrok arrazistak gara?”

LANDUTAKO GAIAK

arrazakeria, xenofobia, antigitanismoa, islamofobia, supremazismoa, diskriminazioa, gorroto-intzidentek eta -delituak, inklusio-plan eta -estrategia berriak

Abiapuntuko testua ~2003

Betidanik, bitxia iruditu zaigu galdera hori hain ohikoa izatea, bai kazetarien aldetik, bai berriketaldi eta tertulietan. Orokortzea arriskutsua da, oso zaila baita 39 milioi espainiarretako bakoitza arrazista den edo ez jakitea. Gainera, kuantifikatzeko helburua izaten da. Nor hartzen dugu eta zenbatzen dugu arrazistatzat, eta nor ez? Arrazista al da inkesta batean “bere alaba beltz batekin ezkontzea nahi ez duela” erantzuten duena [sic]? Kontrakoa erantzuten duena ez da arrazista? Nahikoa al da pertsona bakoitzak gai horri buruz egiten duen autodefinizioa? Ez dugu esan nahi inkestak baliagarriak ez direla, ez, egoera onenetan ere hurbilketak baino ez direla esan nahi dugu.

Horregatik, gaizki egindako galdera dirudi. Galdera espainiar batzuk arrazistak diren edo Espainian arrazakeriarik dagoen balitz, erantzuna oso erraza izango litzateke: bai, argi eta garbi. Arrazakeriaz gorago egin dugun definizioaren arabera, Espainian arrazakeria dago, bai bertako gutxiengoekiko, bai gutxiengo aloktonoekiko (atzeritarrekiko, alegia).

Lehen kasuan, “barneko” arrazakerian, ijitoen aurkako gaitzespena dugu, batez ere, eta hor, azpimarragarria da denbora luzez iraun duela eta oraindik ere irauten duela. Konpondu gabeko auzi bat da, bai eta ahulgune bat ere, immigrazioarekin lotutako erronkei aurre egiterakoan. Espainian badaude jardunbide arrazista eta xenofoboak ere atzeritar jatorriko gutxiengoen aurka; hain zuzen ere, EBtik kanpoko immigratzaileen aurka; batez ere, magrebtarren, Saharaz hegoaldeko herrialdeetako, eta Latinoamerikako pertsona beltz, mestizo edo indigenen aurka.

Zorionez, jardunbide horietako batzuk jada epaitu dira (esaterako, Lucrecia Pérez dominikarraren hilketa; 1992ko urrian gertatu zen), beste batzuk zigorrik gabe geratu dira, zoritxarrez (hala nola El Ejido herrian 2000ko otsailean hiru egun iraun zuen *pogroma*), beste batzuk salatu egin dira (*Movimiento contra la Intolerancia*, *SOS Arrazakeria*, arartekoen bulegoak eta beste erakunde batzuk egin dute hori), eta beste batzuk –gehienak agian– adituek arrazakeria “sotil” eta “ikusezina” deitzen duten horren parte izango dira (biktinek ondo ezagutzen duten arrazakeria hori, eta haientzat ez da ez sotila ezta ikusezina ere).

Har dezagun berriz goiburuko galdera, hori baita egiten eta eztabaidatzen den galdera. Ea espainiarrak arrazistak garen edo ez, galdera horren atzean bi kezka egon daitezke. Baliteke jakin nahi izatea ea Espainiako gizartean arrazistak gutxiengoa ala gehiengoa diren, edo baliteke jakin nahi izatea ea arrazakeriarik dagoen “gure izaeran”, “Espainiaren idiosinkrasian”. Lehenbizikoari dagokionez, inkesten arabera, Europar Batasunean, Espainia da xenofobia-indize txikienak dituzten herrialdeetako bat. Horrela adierazten da eurobarometroan urtetik urtera. Hori azaltzeko, Espainian politikoki zuzena izan behar duenaren gaineko presio handia dagoela esan ohi da. Nolanahi ere, Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) eta

CIRES erakundeak egindako inkestek ere adierazten dute gehiengoak ez dituela arrazakeria- edo xenofobia-jarrerak babesten, nahiz eta fenomeno horiek goranzko joera duten. “Immigrazioaren aurka” egotea eta arrazista izatea bereizi behar dira.

Bigarrenari dagokionez, esan behar da antropologia sozialak irmotasunez ezeztatu duela “izaera nazionalak”, “nazioaren idiosinkrasia”, “herri baten funtsezko bereizgarriak” edo kolektibo jakin baten “nortasun modala” existitzen direnik. Herri batek, nazio batek eta abarrek zenbait bereizgarri partekatzen dituzte, baina pertsona guztiek ez dituzte maila eta modu berean izaten, eta ez dira betirako. Espainia anitzegia eta aldakorregia da “espainiar izateko modu” bat argi eta garbi definitu ahal izateko eta horren barruan arrazismorik dagoen ala ez ikusteko.

Jendartean alemaniarren, marokoarren edo espainiarren izateko moduari buruz hitz egitea, egoeren arabera hurbilketa gisa, baina sakontasun handirik gabe eta zorrotasuna eta irizpide zientifikoak baliatu gabe, aurreiritziak izan dezakeen orokortzea da, nolanchi ere. Baina koiuntura historikoak, bai, horrelako egoerak badaude, eta, horien arabera, gizarte jakin batean, arrazoi politiko eta ekonomikoengatik, arrazakeria edo xenofobia sortzen edo garatzen da gizarte horretako sektore batzuen barruan, norbaiten aurka. Alde horretatik, hau izango litzateke galdera egokia: Espainiako gaur egungo egoeran, zerk sustatzen du arrazakeriaren edo kulturartekotasunaren gorakada?.

Arrazoiketaren laburpena

~2003

- 01 Galdera hori **gaizki eginda** dago.
- 02 Galdera espainiar arrazistak dauden edo Espainian arrazakeria dagoen bada, erantzuna **baiezkoa** da, argi eta garbi.
- 03 Espainian, arrazakeria dago, bai **bertako gutxiengo etnikoekiko** (ijitoak dira gutxiengo nagusia), bai **gutxiengo etniko aloktonoekiko** (pertsona eta kolektibo atzerritarrek).
- 04 **Antigitanismoa edo ijitofobia** aspaldikoa da, konpondu gabeko auzi bat, eta ahulgune bat da immigrazioarekin lotutako erronkei aurre egiterakoan.
- 05 Arrazakeria xenofoboko zenbait jardunbide epaitu dira, beste batzuk zigorrik gabe geratu dira, eta **arrazakeria “sotila”** dago, ikusgaitz geratzen dena.
- 06 Inkesten arabera, Europar Batasunean, Espainia da **xenofobia-indize txikienak** dituen herrialdeetako bat, baina **goranzko joera** dago (oharra: 2003an idatzia).
- 07 “Emigrazioaren aurka egotea” eta arrazista izatea **bereizi** behar dira.
- 08 “**Espainiar idiosinkrasian**” ez dago arrazakeriarik, ezta kontrakorik ere, idiosinkrasia hori ez baita existitzen: gizarte-antropologiak ustezko “izaera nazionalak”, “herri baten funtsezko ezaugarriak” eta abar ezeztatu egin baititu.
- 09 Hau izango litzateke galdera egokia: Espainiako gaur egungo egoeran, zerk sustatzen du **arrazakeriaren edo kulturartekotasunaren gorakada**?

Eguneraketa

~2023

Denbora luzea igaro da hori 2003an idatzi genuenetik. Nola gaude hoguei urte geroago? Espainiako arrazakeriari dagokionez, hobera egin dugu, ala okerrera? Lehenik eta behin, esan beharra dago kezka dagoela xenofobiaren, muturreko populismoaren eta eskusio-diskurtsoen esplizitazioaren gorakadarekiko.

Arrazakeria eta xenofobia zenbait modutan adierazten dira. Batzuetan, zuzeneko indarkeria fisikoaren bidez adierazten dira: beste tragedia edo bidegabekeria onartezin batzuen artean, Lucrecia Pérez dominikarraren erailketa (1992) ekar dezakegu gogora, bai eta duela gutxi beste batzuk ere, hala nola Mazarrónen tiroz hildako marokoar hiritar baten kasua edo Murtzian sastakatutako emakume migratzaile baten kasua. Beste batzuetan, pertsonen aurkako diskriminazioaren bidez adierazten dira, haien fenotipo edo jatorriagatik, etxebizitza bat edo lanpostu bat lortu nahi dutenean. Islamofobia, antigitanismoa eta antisemitismoa dira arrazakeriaren eta xenofobiaren adierazpenetako batzuk, eta horietako bakoitzak bere bereizgarriak ditu.

Orain, 2003ko argitalpenaren garaietan ez genuen adierazle bat dugu: **gorroto-delituen** kopurua. Barne Ministerioaren datuen arabera, 2019an, arrazakeriarekin eta xenofobiarekin lotutako gorroto delituen kopurua % 20,9 handitu zen, aurreko urtearekiko. "Erregistratutako" 1.706 "gertakarietatik", 596 "ideologia-delituak" izan ziren, eta 515, berriz, "arrazakeria- eta xenofobia-delituak".

2021eko ekainean, RTVE telebista-kateko webgunean "¿Somos racistas en España?" izeneko artikulua bat argitaratu zen (hau da, "Arrazistak gara Espainian?"),

2003an iruzkin hau sorrarazi zuen galdera bera. Artikulu horretan, *Centro para la Eliminación de la Discriminación Racial y Étnica* (CEDRE) erakundeak –Berdintasun Ministerioaren mendekoa da– 2020an argitaratutako txosteneko datu kezkagarriak azaldu ziren: inkestatutako pertsonen erdiak baino gehiagok adierazi zuen baztertu egin zituztela beren azalaren koloreagatik edo beste bereizgarri fisiko batzuegatik; Saharaz hegoaldeko herrialdeetako kasuan, ehuneko hori % 82 zen, eta ijitoen kasuan, berriz, % 71.

Abia dezagun iruzkin hau berriz. Proposatutako galderari helduko diogu berriz: **Espainiako gaur egungo egoeran, zerk sustatzen du arrazakeriaren gorakada?** Espainiaren kasua aztertzen hasi aurretik, ikus dezagun zer-nolako egoera dagoen Europan eta munduan, eta egiaztatuko dugu, zoritxarrez, gero eta arrazakeria- eta xenofobia- adierazpen gehiago daudela, larriak eta amorragarriak, eta supremazismoaren bereizgarri nabarmenak dituztela. **"Gorrotoaren internazionala"** delakoa ugaritzen eta gora egiten ari da.

Hitz horrek –gorrotoa- aurrerapen garrantzitsuenetako bat eta itxaropena ekarri ditu: **gorrotoa** eskusio-ideologia eta –jardunbideen bereizgarri komuntzat kontzeptualizatu da duela gutxi, Europar Batasunak gomendioak eman ditu arlo horretan, eta Espainiako zigor-kodean sartu da, **gorroto-intzidente eta -delituei** buruzko legedia eman baita –nolanahi ere, puntu horren inguruan, badago adierazi nahi dudana eztabaidaren bat-. Laster helduko diot berriz horri, baina, lehenago, ditxosozko galdera horri zuzenean erantzungo diogu, horri buruzko elkarrizketa eta eztabaida publikoa errazteko eta sustatzeko, beste behin.

Esklusioa/arrazakeria sustatzen duten faktoreak

Espainian azken bi hamarkadetan izandako aldaketak eta gai horren inguruan egindako azterketak eta argitalpenak kontuan hartuta (ikusirik honen eta hurrengoaren iturriak eta materialak), **arrazakeria eta xenofobia sustatzen duten hiru faktore** identifika daitezke. Lehenbiziko faktorea sozioekonomikoa da; bigarrena, politiko-instituzionala eta ideologikoa; eta hirugarrena, berriz, mediatikoa.

Lehenbiziko faktoreari dagokionez, **desberdintasun sozioekonomikoak gero eta handiagoak** dira – aurreko iruzkinetan aztertu ditugu –, 2008an abiatutako krisiaren ondorioak, COVID 19aren pandemiaren ondorioak eta Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoak (inflazioa eta erosahaltenaren galera) gainjarri egin baitira. Desberdintasun handiagoko testuinguruetan, errazago sortzen dira erruduntzeko eta koplak-burukoak aurkitzeko mekanismoak.

Praxi hiritar eta kulturartekoari dagokionez, korolariora argia da: berdintasun-politikak aldarrikatzea, eta erakustea politika horiek ondorio onuragarriak eta justizia sozialeko ondorioak eragiten dituztela, eta lagungarriak direla arrazakeria eta xenofobia prebenitzeko eta ez zabaltzeko.

Bigarren faktoreari dagokionez, **azken urteotan eskuin-muturreko jarrerak gora egin dute** politikagintzan, erakundeetan eta alderdietan, eta immigrazioaren, migratzaileen eta bidaiderik gabeko adingabeen aurkako diskurtsoak, adierazpenak eta gezurrak zabaltzen dira, islamofobiako osagai nabarmenak dituztenak, eta polarizazio-eta konfrontazio-kanpainak egiten dira, hala nola “etxekoak lehenbizi” eta “Stop immigrazioa”. Horren ondorioa da jarrera xenofoboak normalizatzea eta erakundeetan adieraztea, eta hiritarren

eta iritzi publikoko zenbait sektorek gaitzespen-, mespretxu-, arrazializazio- eta estigmatizazio-adierazpenak bultzatzeko **bide ematea**.

Hiritartasunaren eta kulturartekotasunaren praxirako, hemen ere argi dago zer lan egin behar den: zuzenbide-estatua eta demokrazia defendatzea, legeak bete daitezten eskatzea, erakundeetan eztabaidaz gain errespetua, zurrumurruen aurkako estrategiak eta abar izan daitezten aldarrikatzea...

Hirugarren faktorea, aurreko ataleko faktore politiko-instituzionalarekin lotuta dago eta **informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera erasokorra da**; hain zuzen ere, sare sozialetako erasokortasuna, gezurrak, irainak eta errespetu falta. **Subjektu arrazializatuen, kolektibo eta komunitate arrazializatuen** irudikapen- eta eraketa-prozesua hainbat esparrutan gertatzen dira – esate baterako, erakundeetan (tamalez) eta auzo eta udalerrietako eguneroko bizitzan-, eta esparru erabakigarri horietako bat sare sozialak dira.

Jada duela hogeit hamar urte idatzi genuen gai horren inguruan, baina gaur egun, are intentsitate eta eraginkortasun handiagoz heldu behar diogu, eta beharrezkoa da denon artean erakunde publikoen jardun zintzo eta eredugarriaren alde egitea (Garapen Jasangarrirako 16. Helburuarekin bat, berriz ere), herri eta hirietako komunitate-ekintzen alde egitea (udaletatik bultzatuta), eta IKTak inklusiorako eta bizikidetzarako erabiltzearen alde egitea.

Inklusioa/kulturartekotasuna sustatzen duten faktoreak

Aldi berean, eskusio-faktoreen hiru multzo horiek eragiten duten bitartean–arlotan sozioekonomikoan, politiko-instituzionalean

eta ideologiko-mediatikoan-, aipatu behar da badaudela haien kontra ari diren kulturarteko bizikidetzaren eta inklusioaren aldeko faktoreak ere.

Arlo sozioekonomikoan, **gizarte-politikak bultzatzen dituzten ekintza insituzionalak** azpimarratu behar dira; izan ere, desberdintasunei buruz esan dugunari aurre egiten diote. "Instituzional" hitzak adiera bikoitza du hemen, publikoa eta pribatua. Hain zuzen ere, justizia- eta ekitate-politika horien barruan sartzen dira programa eta neurri publikoak -hala nola, krisiari aurre egiteko erabili diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEE/ERTE), lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS/SMI) igoerak, mugagabeko kontratuen sustapena eta hedapena- zein fundazio eta erakunde pribatuen sare zabaleko ekimen sozialak. Neurri horiek, gutxienez, aringarriak izan dira, baina asko dago oraindik egiteko eta lortzeko berdintasun-politiketan, errenta-birbanaketaren arloan, ongizatean eta bizi-kalitatean. Alderdi hori ezinbestekoa da -berriz diogu- adiskidetasuna lortzeko eta arrazakeria indargabetzeko.

Bigarrenik, aipatuko dugu arlo politiko-instituzionalean badaudela albiste on batzuk (edo hiritarren artean kulturarteko bizikidetzaren eta inklusioa sustatzen duten faktoreak), baina horiek ere ez direla nahikoak. Hiru aipatuko ditugu. Herralde bakoitzean -beraz, Espainian ere bai-, administrazioek eta gizarte zibilak **2030 Agendaren eta Migrazio Seguru, Antolatua eta Erregularerako Mundu Itunaren markoaren barruan jarduten da**. Marko horrek inklusioa sustatzen du, arrazakeriaren kontrakoa da eta gizarte mobilizatzen du, baina adierazpidezko marko ez-lotesle bat baino ez da.

Bestalde, politika publikoetan, **"immigratzaileak integratzeko" planetatik ikuspegi zabalagoko ikusmolde batzuetarako aldaketa izan da**, eta ez da

jada kolektibo edo sektore hori soilik lantzen, baizik eta "sektore sozial osoa", eta, horren ondorioz, beste ikuspegi eta izendapen batzuk dituzten planak eta estrategiak eratu dira: "inklusioa", "hiritartasuna", "bizikidetzaren", "kohesioa", "giza eskubideak", "tokiko garapena", etab. Puntu horretan, **arrazakeriaren aurkako zuzeneko zenbait plan eta estrategia zehatz** esplizitatzeko erabaki batzuk azpimarratu behar dira. Esate baterako, Nafarroako Foru Erkidegoko Migrazio Politiketarako Zuzendaritza Nagusiak hiru ekimen osagarri jarri ditu martxan -parte-hartzearen bidez- 2021-2026 aldirako: Migratzaileak Hartzeko Plana, Kulturarteko Bizikidetzarako Estrategia⁴¹ eta Arrazakeriaren aurkako Plana. Nolanahi ere, asko dago egiteko oraindik ere politika eta planak birbideratzeko bidean.

Azkenik, gizarte-ehunari dagokionez, azpimarratu behar da nola edo hala **lortu dela elkartasun-sare zabalarri eustea**, bai eta gobernuz kanpoko erakundeei eustea ere, nahiz eta krisi ekonomikoak (2008. urtea eta hurrengoak) eta osasun-krisiak (2020. urtea eta gaur egun) pertsonen zein erakunde sozial askoei eragin dioten. Erakunde asko eta askok -txikiak batik bat- pairatu dute egoera hori, krisiek eragina izan baitute haien jarduteko aukeretan -gutziz edo neurri batean-, eta batzuk ere desagertu egin dira. Hala ere, hirugarren sektore solidarioa mantentzen ari da, eta hori Espainiako kasuaren funtsezko bereizgarri nabarmena da, bai eta elkarketaren eta bizikidetzaren sustapenaren funtsa ere. Sektore horren alde egitea supremazismoaren eta esklusioaren aurkako borrokaren alde egitea da.

⁴¹Hor parte hartzeko ohorea izan dut, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko (UAM) talde batekin batera. Makroesperientzia horretan, halaber, aipatu behar da Andalucía Acoge-ko taldearekin izandako lankidetzaren estua -Migratzaileak Hartzeko Planaren erakunde aholkularia da Andalucía Acoge-, bai eta plan horiek ezartzeko martxan dauden lankidetzaren prozesuak ere.

Arrazakeriaren aurka eta bizikidetzaren alde egiteko beste faktore-multzobat, hirugarrena, identifika daiteke, irudikapenaren eta ideien esparrukoa. Bi faktore azpimarratuko ditut. Batetik, bi hamarkada hauetan, aurrerapenak izan dira **gizartean aniztasunaren kudeaketa positiboa egiteko ikuspegi egokiagoak eta integralagoak** lortze aldera. Aurrerapen horiek lehen aipatu dugun aldaketaren oinarrian daude. Nolanahi ere, aurrerapen horiek hastapenak dira eta ez dira nahikoak, eta honako hauek falta dira, gutxienez:

- a. aniztasun-mota guztiak kontuan hartzea (etnokulturalak, sexu-generokoak, funtzionalak...), hori guztia lotuta, baina espezifikotasunak bereizita;
- b. aniztasunaren gaia eta kudeaketa desberdintasunekin, eskubideak erabiltzarekin eta arrazakeriaren aurka egitearekin lotzea.

Bigarrenik, aurrekoarekin oso lotuta, **zenbait erakundek arrazakeriaren aurka zuzenean egindako mobilizazioak** aipatuko ditut. Horren adibide da *“Impacto de los fundamentalismos y repertorios de odio en las políticas, narrativas y prácticas. Derechos de las mujeres y personas racializadas en España, vínculos transnacionales entre Europa y América Latina”* izeneko proiektua (hau da, “Fundamentalismoen eta gorroto-errepertorioen eragina politiketan, narratibetan eta jardunbideetan. Espainian arrazializatutako emakumeen eta pertsonen eskubideak, Europaren eta Latinoamerikaren arteko lotura transnazionalak). *Asociación de Investigación y Especialización sobre Temas Iberoamericanos* (AIETI) elkarteak koordinatzen du eta erakunde askok hartzen dute parte proiektu horretan⁴². Proiektu hori arrazakeriaren aurkakoa da, erabat, eta ikuspegi hauek uztartzen dira: eskubideen ikuspegia (“eskubideen aurkako politikak” aztertu eta salatzen

dira), genero berdintasunaren ikuspegia (emakume arrazializatuen egoerari dagokion garrantzia ematen zaio) eta kulturartekotasunaren planteamendua (kulturalismoak edo esentzialismoak alde batera utzita).

“Fundamentalismoak eta gorroto-errepertorioak” aztertzen dituen proiektu horrek hasieran aipatu dugun aurrerapena baino ez du: gorroto-delituen kontzeptualizazioa eta erregulazioa, eta horren inguruko eztabaida (orain jorratuko dugu hori).

Gorroto-sentimendu, -intzidente eta -delituei buruz

Gorrotoa sentimendu bat da; beraz, jarrera jakin bat dakar edo ekar dezake berekin, baina jokabide bat ere bada? XVII. mendean, Baruch Spinozak (1632-1677), sentimenduen sailkapen inspiratzailean, honela definitu zuen gorrotoa: “kanpoko kausa baten ideiarekin batera izaten den tristura”. Filosofo horrentzat, gizakion oinarritzko sentimendu eta afektuak hiru dira: desioa, poza eta tristura.

Sentimendu horiek abiapuntu hartuta, eta poza/tristura pareta kontuan hartzeko beste ezaugarriekin uztartuta, Spinozak sentimendu-tipologia baliagarria eta inspiratzailea adierazi zuen. Hala, poz edo tristura hori “kanpoko kausa” batek (bizitza soziala) ala “barneko kausa” batek (pertsonaren barrua) sortu duela kontuan hartuta, lau emozio edo sentimendu oso garrantzitsu sortzen dira. Honela definitu zituen Spinozak:

⁴² Proiektu horretan sistematizatzaile gisa hartzen dut parte, eta *“Mapeo de actores y repertorios de odio. El género y la migración en el epicentro de las políticas antiderechos en España y la Unión Europea”* delakoa egin dugu (hau da, “Gorroto-eragileen eta -errepertorioen mapaketa. Generoa eta migrazioa eskubideen aurkako politiken epizentroan Espainian eta Europar Batasunean”).

- ▶ **“Maitasuna”** = “kanpoko kausa baten ideiarekin batera izaten den poza”;
- ▶ **“Gorrotoa”** = “kanpoko kausa baten ideiarekin batera izaten den tristura”;
- ▶ **“Barne-asetasuna”** = “barneko kausa baten ideiarekin batera izaten den poza”;

- ▶ **“Ahaldura”** = “barneko kausa baten ideiarekin batera izaten den tristura”;

	Kanpoko kausa	Barneko kausa
Poza	Maitasuna	Barne-asetasuna
Tristura	Gorrotoa	Ahaldura

Gaur egungo koiunturari eta arrazakeriaren gorakadari berriz helduta, hor guztian dagoen gorroto sentimendua kontuan hartuta, bi gauza nabarmendu nahi ditut –Spinozaren ikuspegia baliatuta–.

Lehenik eta behin, **gorrotoak kanpoko kausa bat duela**, bai beste gizakien aurkako zerbait delako, bai eskusiorako erabilgarria delako, esplotazio ekonomikoko, nagusitasun politikoko edo supremazismo ideologikoko arrazoiak tarteko. Bigarrenik, **gorrotoa tristura dela**, eta horren aurka egiten dugunok pozez eta maitasuna zabalduz egiten dugula, maitasun hori gizakion arteko errespetua eta bizikidetzat dela ulertuta, gizakiok duintasun berdineko izakiak garelako. Halaxe aldarrikatzen da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, bai eta adierazpen demokratiko, etikaren filosofia eta erlijio-testu asko eta askotan ere.

Beste askotan bezalaxe, puntu honetan ere kontuan hartu behar dira gutxiengo etnorrazialetako pertsonen ahotsak, ikuspegiak eta sentimenduak, eta, kolektibo horien barruan, diskriminazioaren eta arrazakeriaren biktima izan direnak. Eta, hori egitean,

subjektu protagonistekin gauzak hobera ala okerrera egin duten aztertzean (dela etnografiaren bidez, dela elkarrizketa sakonen bidez, dela inkesten bidez), ikusten da guztiz garrantzitsua dela kontuan hartzea zer ikuspegiatik ematen duten beren balorazioa; hau da, konparazio-terminoak kontuan hartu behar dira.

Espanian duten egoera beren jatorriko herrialdeetako egoerarekin alderatzen dutenean, sarritan egiten duten balorazioa da hemen hobeto daudela –balorazio nagusia da–. Hala ere, alderaketa bertako biztanleriarekin egiten bada, zenbait iturrik diote gero eta gehiago direla gaitzespen- eta diskriminazio-pertzepzioak eta –sentimenduak. Zenbait egilek eta aktibistak **arrazializazio-prozesuak** direla diote, **subjektu arrazializatu** gisa tratatzen baitituzte.

Baina, sentimendu bat izateaz gain, gorrotoa jokabide bat da? Edo, zehatzago esanda, delituzko jokabide bat? Puntu horretan zuhurtiaz jokatu behar da. Hala dio Ruiz Soroa abokatuak *“Queda prohibido odiar”* artikuluan –hau

da, “Debekatuta dago gorrotatzea”-. Eta izenburuazpia askoz zorrotzagoa da: “*Castigar el odio es tanto como castigar estados de ánimo. Algo vedado al derecho*” –hau da, “Gorrotoa zigortzea aldarteak zigortzea bezala da. Eta zuzenbideak ezin du hori egin”- (*El País*, 2017.3.11).

Haren argudiaketan, hasteko, gogoratzen du zuzenbideko estatuan ez direla errorea, gezurra, sinesmen atzerakoiak edo duintasunik eza jazartzen, baizik eta delituak: “Egiek, erroreek eta gezurrek ez dituzte adierazteko eskubideak, pertsonak dituzte eskubide horiek”. Eta dagokigun erregulazio juridikoaren harira, hauxe dio egileak: “Zigor Kodean **“gorroto-delitua”** adierazita dagoen moduak “aukera emango lieke alkate bati edo epaile bati alderdi politikoen gaur egungo komunikazio eta berriketa guztiak debekatzeko, hala nahi izanez gero. Gure liderrek esaten dituzten gauza asko “beste pertsona-talde baten aurkako zuzeneko edo zeharkako gorrotoa edo diskriminazioa sustatzen dituzte, arrazoi ideologikoengatik, edo kolektibo horiek gutxiesteko dira.”

Gero, argudiatzen du ez dituela egoera batzuk eta besteak bereizteko irizpide juridikoak ulertzen. Eta honela amaitzen du: “Debekatzen badugu, desagertuko al da gorrotoa, besterik gabe? Zalantzan jartzeko modukoa da hori; izan ere, gorrotoa emozio politiko emankorrena da; batez ere, jendetza kohesionatzeko eta nazio edo masa bihurtzeko. Beti egongo da gorrotoa, maitasuna bezala, gure genetika emozionalak berekin dakarrelako.

Minorien aurkako gorrotoarengatik egindako delitu zehatzak zigor berezia izatea ondo dagoela dirudi;

baina gorrotoa bera zigortzea aldarteak zigortzea bezalakoa da. Eta Zuzenbideak hemen ezin du hori egin, duela mende asko. Hori uste nuen nik” (letra etzana geuk gehitua).

Azken finean, gorrotoaren errealitatearen edo izate beraren inguruan lortutako aurrerapenak argiak dira, baina ez dugu akatsik egin behar. Aurrerapenei dagokionez, laburbilduz, hiru direla pentsatzen dut:

- a. gorrotoa zenbait ideologia eta esklusio-jardunbideren ezaugarri komuna dela identifikatzea, gizarte-zientzien bidez;
- b. gorroto-intzidenteen eta -delituen nozioa eta haien inguruko araudi juridikoa egiten hastea –hori garatu eta zehaztu egin beharko da–; eta
- c. haiek politika publikoetan eta gizarte- eta komunitate arloko esku-hartzeetan kontuan hartzea. Akatsak ez egiteari dagokionez, gorroto-sentimenduak eta -emozioak gorrotoak eragindako jokabideetatik bereizi behar dira, argi eta garbi, ahalik gehien, eta irizpide juridiko zehatzak eman beharko dira, jokabideekin lotuta.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

El racismo en España pasa de los discursos a los crímenes (Público egunkarian argitaratutako artikulua, 2021eko ekainekoa, Espainian azken urteetan izandako delitu arrazisten gorakadari buruzkoa, <https://bit.ly/3xit7LO>)

La huella invisible de la discriminación racial en España (National Geographic aldizkariko artikulua, 2021eko maiatzean argitaratua, arrazakeriak munduan, eta bereziki Espainian, duen eraginari buruzkoa, <https://bit.ly/2VkfzJu>)

Todavía el racismo en España (Carles Marco-ren iritziartikulua, 2021eko martxokoa, El Diario egunkarian argitaratua, Arraza-bereizkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren harira. Artikuluan, Espainiako arrazakeriari buruzko gaur egungo zenbait errealitate azaltzen dira, <https://bit.ly/3jgWArk>)

El 81,8% de personas que sufren racismo en España no denuncian la discriminación (Newtral egunkarian argitaratutako artikulua, 2021eko urtarrilekoa, Espainiako arraza-bereizkeriari buruzkoa, <https://bit.ly/3ype1MN>)

Los rostros que combaten a la España racista: "Parece más incómodo señalar el racismo que ser racista" (Newtral egunkariko artikulua, 2021eko ekainean argitaratua. Espainian jaiotako eta hazitako baina atzerritar jatorriko gazteen testigantzak daude, Espainiako arrazakeriari buruzkoak, <https://bit.ly/2VnJ5xZ>)

Es momento de actuar contra el racismo en España (El País egunkariko artikulua, 2021eko otsailean argitaratua, Espainiak arrazakeriaren aurkako borrokan azken urteotan egindako ibilbideari buruzkoa, <https://bit.ly/3CiiGSO>)

¿Somos racistas en España? Los delitos de odio aumentan un 20% (RTVEko artikulua, 2021eko ekainean argitaratua, gorroto-delituei buruzko estatistikien eta arrazakeriaren errealitatearen harira, <https://bit.ly/3inhVjJ>)

¿Hay racismo en España? Sí, y así se lucha contra él (Esquire aldizkariko artikulua, 2021eko urtarrilean argitaratua, Espainiako arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako ekimenei buruzkoa, <https://bit.ly/3rSMoL2>)

¿Somos o no racistas los españoles? (Diario Sur egunkariko artikulua, 2020ko ekainean argitaratua. Artikuluan Espainian izandako zenbait gertaera arrazista dokumentatzen dira eta herrialdean arrazakeria ote dagoen galdetzen da, <https://bit.ly/2Vpqngp>)

España se abstiene de luchar contra el racismo (La Marea egunkariko artikulua, 2021eko urtarrilean argitaratua. Artikuluan, azaltzen da Espainiak, 2020ko abenduan, NBERen ebazpen baten kontrako botoa eman zuela. Ebazpena, hain zuzen, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkakoa zen eta horien kontra lan egiteko eskatzen zen, <https://bit.ly/3fuW4Vo>)

No es EEUU, es España: 40 casos de insultos, agresiones y discriminaciones racistas en los últimos cinco años (El Diario egunkariko artikulua, 2020ko ekainean argitaratua, arrazakeriak Espainian azken bosturtekoan izandako bilakaerari buruzkoa, <https://bit.ly/3fuePbR>)

España no es racista... ¿o sí? (Infolibre egunkariaren blog batean 2021eko martxoan argitaratutako artikulua, Espainiako arrazakeriari buruzkoa. Artikulua Arrazabereizkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren harira argitaratu zen, <https://bit.ly/37l6Edm>)

~gizarte-erakundeak

Lucha contra el racismo y xenofobia en España (Alianza por la Solidaridad erakundearen webgunean argitaratutako artikulua, Espainiako arrazakeriari eta xenofobiari buruzkoa, <https://bit.ly/3xp9FnA>)

~txostenak

Publicaciones del Observatorio Español del Racismo y la Xenofobia (Observatorio Español del Racismo y la Xenofobia behatokiak argitaratutako dokumentuak eta testuak, arraza-diskriminazioaren aurka egiteko eta Espainiara iritsitako migratzaileei buruzko datuak emateko, <https://bit.ly/3yCjIHr>)

17.

“Prestatuta al gaude Spainian immigrazioari aurre egiteko?”

LANDUTAKO GAIAK

erronka zaharrak eta berriak; elkarrekiko erantzukizunaren etika; gizarte-ehuna; prestakuntza eta ahalduak

Abiapuntuko testua ~2003

Gutxiengo xenofoboak isilpeko baieztapen gisa egiten du galdera hori: “Ez, ez gaude prestatuta, inola ere, eta horregatik gertatzen da gertatzen dena, eta immigratzaileak bidali beharko genituzke.” Sektore hori oraingoz alde batera utzita, agian dezente dira gai horren inguruan asmo oneko kezka dituztenak. Kezka-iturri horri arretaz erreparatu gero, bi alderdi bereiz daitezke. Batetik, batzuek pentsatzen dute oso fenomeno berria dela mendez mende emigratzaile izan den herrialde batentzat, herrialdea ez dagoela ohituta eta biztanleek ez dutela beste kultura batzuei buruzko informaziorik. Horri erantzutea nahiko erraza dirudi: horrelaxe hasi ziren immigrazioa hartu duten herrialde guztiak,

eta ikasiko dugu, denborak aurrera egin ahala. Antzeko zerbait esaten zen demokraziarako trantsizio politiko eta sozialaren garaian, eta egiaztatu ahal izan da herrialdea horretarako prestatuta zegoela eta sistema demokratikoaren alde egin duela, hala behar izan denean (otsailaren 23ko estatu-kolpea, terrorismoa, etab.). Nahiko ondo egingo zen, Espainiaren kasua eredu garrantzitsu edo inspirazio-iturritzat hartu baita.

Beste batzuek atzerritarak integrazteko behar diren baliabideen ikuspuntutik planteatzen dute gaia. Honelaxe esan zigun erizain batek: “Prestatuta al dago gure herrialdea hainbat sorlekutako pertsona asko eta asko hartzeko; hau da, pertsona horiek beren oinarritzako beharrak (etxebizitza, elikadura, lana) asetzeko modua bermatuta izanda, gatazkarik egon ez dadin?”. Ikuspuntu horretatik, hau da kontua: ea prestatuta gauden biztanle atzerritar asko gure antolamendu juridikora, lan-merkatura, ongizate-estatura eta bizitza sozialera gehitzeko erronka hartzeko, bizikidetzako modu bat ezarrita. Gaiari are zehatzago helduta, hau da galdera egokia (hitzaldi baten ondoren egin ziguten): Gure gizartean, aldeko edo kontrako zer faktore edo bereizgarri ditugu erronka horri aurre egiteko? Horrelako galderak eskertzekoak dira, pentsatzera behartzen baitute. Nola erantzun zenuke zuk, irakurle agurgarri horrek?

Hau proposatzen diogu irakurleari: AMIA analisiaren metodologia aplikatzea immigrazioaren eta gizarte-integrazioaren erronkari; hau da, zer Aukera, Mehatxu, Indar eta Ahulezia daude Spainian edo zure erkidegoan, udalerrian edo auzoan? Lehenago aukerak eta mehatxuak landu ditugunez, aldeko alderdiei (indarrak) eta kontrako alderdiei (ahuleziak) buruz eman genuen erantzuna jorratuko dugu hemen. Hartu hau ariketa kolektiboa bultzatzeko hasierako zerrenda gisa:

Aldekoak	Kontrakoak
▶ Immigrazioaren beharra lanerako.	▶ Gizarte-desberdintasun eta marjinazio-poltsa handiak.
▶ Permisibitate etikoa eta tolerantzia-jarrerak gizartearen sektore zabaletan.	▶ Ongizate-estatu hasi berria eta murriztua.
▶ Elkartasun-sarearen sendotasuna eta hedadura.	▶ "Ijitoen auziak" eta aspalditik datorren arrazakeriak irautea.
▶ Kosmopolitismoa eta besteekiko interesa zenbat sektoretan.	▶ Deskoordinazioa eta fragmentazioa integrazio-politiketan.
▶ Ezarpen-maila handiko eskuin-mutur xenofoboko alderdi politikoak ez egotea (oraingoz behintzat).	▶ Gatazkarekiko kultura zibiko urria (kontudentzia eta biszeraltasun handiegiak).

Taulari buruzko oharra: 2003ko testuan, hau idatzi genuen, aldeko faktore gisa: "ezarpen-maila handiko eskuin-mutur xenofoboko alderdi politikoak ez egotea". Eta hau gehitu genuen parentesi artean: "oraingoz behintzat".

Arrazoiak laburpena ~2003

- 01 Galdera honela birformulatu beharko litzateke: Prestatuta al gaude biztanle atzerritar asko gure antolamendu juridikora, lan-merkatura, ongizate-estatura eta bizitza sozialera **gehitzeko, bizikidetzaren modu bat ezarrita?**
- 02 Are zehatzago, hona hemen beste galdera egoki bat: Gure gizartean, **aldeko edo kontrako zer faktore edo bereizgarri** ditugu erronka horri aurre egiteko?
- 03 Iradokizuna: **AMIA analisiaren metodologia** aplikatzea (aukerak, mehatxuak, indarrak eta ahuleziak) immigrazioaren erronkarako.
- 04 Hauek dira **indarretako batzuk**: immigrazioaren beharra, tolerantzia gizarteko sektore zabaletan, elkartasun-sarea, zenbait sektoreren kosmopolitismoa... (1)
- 05 Hauek dira **ahulezietako batzuk**: gizarte-desberdintasunak, ongizate-estatuaren mugak, "ijitoen auziak" eta aspalditik datorren arrazakeriak oraindik irautea, deskoordinazioa, gatazkaren kultura zibiko urria...

Eguneraketa ~2023

Birformulatuta, "ea Espainian immigrazioari aurre egiteko prestatuta gauden" galderak erabateko zentzua zuen duela hogeita hiru urte, hazkunde- eta immigrazio-bolada bete-betean geundelako, eta, garai hartan, immigrazioa

gai garrantzitsua zen erakundearen agendan eta eztabaida publikoan.

Garrantzitsua al da guzuz egun planteatzea? Baietz uste dugu, lehen baino gehiago, gainera, lau arrazoi hauengatik:

1. migrazioaren auzia agenda politikoaren eta publikoaren gai garrantzitsua da oraindik ere, modu askoz konplexuagoan,
2. immigrazioaren aurkako diskurtsoak esplizituagoak dira eta gero eta gehiago errepikatzen dira,
3. ezaugarri berriak dituzten erronka “zaharrak” daude (irregulartasuna, sakabanaketa...), eta
4. erronka berriak sortu dira: iheslarien krisia, jende gabetutako Espainiarekiko lotura.....

Pertzepzioen eta jarrerren bilakaera

Lorenzo Cachón irakasle eta ikertzailea gairi buruzko aditu nagusietako bat da. 2003an, hain zuzen, migrazioek Espainian duten erronkei buruzko artikulua bat argitaratu zuen. Immigrazioak eta immigratzaileek Espainian duten egoeraren balantzea egiteko, «*España inmigratzailearen*» eraketaren hiru faseak eta fase bakoitzaren ezaugarriak identifikatu ondoren, egilea migratzaileen kokapena aztertu zituen, bai lan-merkatuan, bai hezkuntza-sisteman, hori funtsezkoa baita. Jada ordurako, adierazi zuen aniztasun handia zegoela diskurtsoetan eta espainiarrek immigrazioarekiko erakusten zituzten jarreretan. Halaber, immigrazioak sortzen zituen erronka politikoak eta politika publikorako erronkak aipatu zituen, diskriminazioaren aurkako politikak bereziki adierazita.

Geroztik, nola bilakatu dira diskurtso, pertzepzio eta jarrera horiek? Eskuin-muturreko alderdiak sortu eta aurrera egiten ari dira, eta, horren ondorioz, migrazio-gaiak garrantzitasun eta erasokortasun handiagoz ageri dira sare sozialetan, hauteskunde-kanpainetan eta zenbait hedabidetan, baina hala ere, ez dugu pentsatu behar

immigrazioaren aurkako jarrerak nagusi eta erabatekoak direnik hiritarren artean, ez, hori pentsatzea akatsa litzateke. Zenbait hamarkadatan, Espainiako iritzi publikoaren gehiengoak immigrazioa onartzearen eta haren inklusioaren alde egon da, eta kapital hori, neurri batean galdu bada ere, ez da xahutu, ez da desagertu.

Garai zailak diren arren, eta immigrazioaren aurkako jarrerak eragin publiko handiagoa badute ere, immigrazioa onartzearen aldeko jarrera gehiengo da oraindik ere. Hori bai, Espainian benetan dauden immigratzaileen kopuruari buruzko pertzepzioa distorsionatua da oraindik ere.

2019an argitaratutako artikulua batean, inkesta baten emaitzak jaso ziren. Emaitza horien arabera, espainiarrek uste dute atzeritarren kopurua benetan denaren bikoitza dela (puntu horri buruz, ikusi aurreko iruzkinak; batez ere, 1. eta 8. iruzkinak).

Baina horrek ez dakar immigrazioa onartzetik gaitzestera nabarmen aldatzea. “Iturriak eta materialak” atalean, hainbat inkesta adierazi ditugu. Inkesta horietako hiru aipatuko ditut, zabalak baitira, eta inkesta osoak kontsultatzeko gomendatu nahi diet horretan interesa dutenei.

María Ángeles Cea arlo honetako aditu nagusietako bat da, eta 2017an argitaratutako saiakera batean, immigrazioari buruzko pertzepzioak 1993tik 2014ra bitartean izandako bilakaeraren laburpena egin zuen. Horretarako, Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (CIS) inkestetan ageri diren adierazleen multzo handi baten jarraipen longitudinala egin zuen⁴³. Hau da azterketa horren ondorioetako bat: “immigrazioarekiko **tolerantzia** edo irekitasun handieneko jarrera bederlatzi puntu portzental igo da 2014an, aurreko

inkestaren aldean (2012ko azarokoa), eta 18 urtetik gorako inkestatutako 2.477 espainiarretatik %35 "tolerante" gisa sailkatu da."

Eta hausnarketa hau gehitu zen: 2014ko ehuneko hori (aztertutako serieko azken urtea) "2009ko ehunekoaren berdina da, eta aztertutako denborazko serie osoko igoera handiena da, bai eta ustekabekoa ere, ekonomiaren eta lan-arloaren testuingurua oraindik negatiboa zelako, eta, horren ondorioz, gatazkarako joerak handiagoa izan beharko luke tolerantziaren aldeko joerak baino..."

Orainetik gertuago, Ikerketa Soziologikoen Zentroak 2017ko irailean argitaratutako txostena dugu, Espainian migrazioen inguruan dagoen pertzepzioari buruzkoa.

Inkestatutakoen %61,1ek uste zuen immigratzaile-kopurua "handia" (%31,8) edo "gehiegizkoa" (%29,3) zela. Hala ere, zenbait adierazlek onarpena eta inklusioaren aldeko jarrerak erakusten zituzten. Hala, egoera irregularrean zeuden immigratzaileei buruz galdetu zitzaizenean, %77,7k nolabaiteko erregularizazioa egitearen aldekoa zen⁴⁴. Iheslarietako eta asilo-eskatzaileetako dagokienez, %84,9 pertsona horiek hartzearen aldekoa zen⁴⁵.

Bereziki aipagarriak iruditu zaizkit ea eskubideren batzuk izan beharko zituzten galdetutakoan emandako erantzunak, eskubide hauek izan beharko zituztela adierazi baitzen: langabezia subsidioa kobratzeko eskubidea (%87,1ek horren aldeko erantzuna eman zuen), familia ekartzeko eskubidea (%73,5), nazionalitatea eskuratzeko eskubidea (%73,5) eta udal-hauteskundeetan botoa emateko eskubidea (%69,2).

Hirugarren adibide gisa, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak Sigma Dos aholkularitzari 2019an enkargatutako azterketa bat aipatuko dugu. Azterketa

horri buruzko laburpen-artikulu batean, hauxe zioen María Martínek: "espainiarrak (...), "ekonomiaren bilakaera ona eta biztanleriaren zahartzea" kontuan hartuta, immigratzaileen kopurua handitzearen eta atzerritarrak herrialdean sartzeko legezko bideak sustatzearen alde daude. Inkestatutako pertsonen % 65ek proposamen hori onartzen du. Escrivá ministroaren apustuak bat da, pentsio-sistemari eusteko."

Interesgarriak dira, halaber, ideologiaren eta ideia politikoaren arabera: "Neurri horrek babes txikiagoa du PP alderdiari botoa ematen diotenen artean (%51), Podemos (%83,8) eta Ciudadanos (%74,5) alderdiei botoa ematen diotenen artean baino. Inkestan inkestatutakoen alderdi gogokoenak adierazi ziren (PSOE, PP, Ciudadanos, Podemos eta beste batzuk), baina ez da Vox ageri, artean ez baitzuen ordezkariarik Parlamentuan".

Aldekoak eta kontrakoak berraztertzen

Hasierako galderari helduta (ea Espainian prestatuta gauden immigrazioari aurre egiteko), eta guk planteatutako birformulazioaren arabera aztertuta, egiaztatu dugu indarrek eta ahuleziak, oro har, dirautela; hau da, erronkei heltzeko aldeko edo kontrako faktoreak. Indarrei dagokienez:

43. 2007tik aurrera, inkesta horiek Observatorio Español del Racismo y la Xenofobia (OBERAXE) behatokitik egiten dira. Garai hartan, behatoki hori orduko Lan eta Immigratio Ministerioaren mendekoa zen.

44. % 18,5 denak erregularizatzearen alde zeuden; % 20,7, Espainian zenbait urte bizitzen zeramatzenak erregularizatzearen alde; eta, %39,5, berriz, lana zutenak erregularizatzearen alde.

45. % 15,5 iheslariak eta asilo eskatzaileak mugarik gabe hartzearen alde; % 38,9, jazarpena jasaten ari zirenak hartzearen alde; eta % 30,5, berriz, kopuru mugatu bat hartzearen alde.

- a. immigrazioa beharrezkoa da oraindik lan-merkaturako eta ekonomiaren garapenerako,
- b. krisiak gertatuta ere, gizartearen sektore zabalek tolerantzia-jarrera dute oraindik,
- c. ahulduta bada ere, elkartasun-sareak irauten du, eta
- d. zenbait sektoretan, kosmopolitismoak eta hiritartasun globalerako nahiak irauten dute.

Berritasunei dagokienez –hori da puntu honetako salbuespen handia–, 2003ko liburuan hau idatzi genuen, aldeko faktore gisa: “ezarpen-maila handiko eskuin-mutur xenofoboko alderdi politikoak ez egotea”. Eta hau gehitu genuen parentesi artean: “oraingoz behintzat”. Baina hori aldatu egin da, eta garrantzitsua denez, zenbait ataletan aipatu dugu.

Ahuleziei dagokienez:

- a. gizarte-desberdintasunak, iraun ez ezik, areagotu egin dira,
- b. ongizate-estatuaren mugek irauten dute, eta gainera, eredu hori zalantzan jartzen ari dira, zerbitzu publikoen pribatizazioa sustatzen da eta zerbitzu horiek gero eta ahulagoak dira;
- c. “ijitoen auziak” eta aspalditik datorren arrazakeriak oraindik irauten dute, nahiz eta alderdi horretan aurrerapenak lortu diren (esaterako, hautagai eta kargu publiko ijitoei buruzko informazioa ematen da),
- d. oraindik lan handia egin behar da zenbait deskoordinazio gainditzeko, inklusio-politiko publikoetan ikuspegi berriak izan arren, eta
- e. oraindik asko dago egiteko gatazkekiko kultura zibikoa sustatu eta lortzeko eta bakerako eta bitartekaritzarako kultura zabaltzeko...

Zer egin

Finean, migrazioaren auziari dagokionez – eta gizarte-kohesioari eta hiritarren arteko bizikidetzari ere aplikatu dakieke– **inklusioa / esklusioa dilema** gero eta irekiago dago. hamazazpi iruzkinen eguneraketetan egin diren proposamenez eta gomendioez gain, amaitzeko, beste hiru iradokizun egin nahi ditut orain, prestatuta egoten jarraitzeko eta elkarrekiko erantzule izateko eta egoerei aurre egiteko moduan egoteko.

- ▶ **Zuzenbide-estatua baliatzea** eta legeak betearaztea, eta indarkeria inoiz ez onartzea, ez zuzeneko indarkeria, ez egiturazko indarkeria, ezta indarkeria kulturala ere⁴⁶,
- ▶ Behar-beharrezkoa da funtzionarioak eta zerbitzari publikoak **trebatzea, birziklatzea eta gaitzea** giza eskubideen, nazioarteko akordio eta agenden, eta inklusio-eredu eta -bideen arloetan.
- ▶ **Gizarte-ehuna babestea**; hau da, babeserako, elkartasunerako eta esku-hartze komunitariorako erakunde eta antolakunde sozialak babestea.
- ▶ **Giza mugikortasunari buruzko narratiba** edo errelatu berriak eratzea, giza eskubideak, justizia soziala, hiritartasun globala eta elkarrekiko erantzukizunaren etika abiapuntutzat hartuta⁴⁷.

⁴⁶. Johan Galtun-en tipologiaren arabera.

⁴⁷. Puntu horri dagokionez, besteak beste, Oxfam Intermón erakundearen dokumentu hau kontsultatu daiteke “La otra mirada. Compendio de percepciones sobre la migración en España y recomendaciones para el cambio de narrativas” (2020ko azaroa)

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

La percepción nos engaña: los españoles creen que hay el doble de población extranjera que la que hay en realidad (Maldita Migración proiektuko artikulua, 2019ko irailean argitaratua, Espainiako gizarteak Espainiako migratzaile-kopuruari buruz duen pertzepzioaren harira, <https://bit.ly/3fvd9Pd>)

La inmigración, elemento esencial para rejuvenecer la España rural (El País egunkariko artikulua, 2020ko abenduan argitaratua, migrazioek landa-eremuetako demografia berreskuratzeko prozesuan izan dezaketen eraginari buruzkoa, <https://bit.ly/37hhota>)

La percepción negativa de la inmigración se ha duplicado en estos dos últimos años (La Razón egunkariko artikulua, 2020ko otsailean argitaratua, Espainiako gizarteak migrazioekiko duen pertzepzioari buruzkoa, <https://bit.ly/3lq3Vrk>)

Un 65% de españoles es partidario de abrir vías legales para la inmigración (El País egunkariko artikulua, 2020ko urtarrilean argitaratua, Espainiako gizarteak migrazioen inguruan dituen iritziei buruzkoa, <https://bit.ly/3xiKh2l>)

~akademia

La inmigración en España: los desafíos de la construcción de una nueva sociedad (Madrilgo Universidad Complutense-ko Lorenzo Cachón irakaslearen artikulua, 2003an argitaratua, Espainiako migrazioek sortutako erronei buruzkoa, <https://bit.ly/3jixzfU>)

Actitudes hacia la inmigración en España a través de la Encuesta Social Europea (Granadako Unibertsitateko Sergio Moldes-Anaya, Francisco Jiménez Aguilar eta Francisco Jiménez Bautista irakasleen artikulua akademikoa, 2018an argitaratua, Espainiako biztanleriak migrazioen inguruan dituen jarrerari buruzkoa, <https://bit.ly/3ikzXTI>)

Actitudes hacia la inmigración y los inmigrantes: ¿en qué es España excepcional? (Consejo Superior de Investigaciones Científicas erakundeko Sebastian Rinken-en artikulua akademikoa, Espainiako gizarteak immigrazioarekiko dituen jarrerari buruzkoa, <https://bit.ly/37nK5op>)

~txostenak

¿Estamos preparados para enfrentar otra crisis de refugiados? (Banco Interamericano de Desarrolloen webgunean argitaratutako artikulua. Artikuluan, galdetzen da nola kudeatuko litzatekeen 2015-2016an gertatutako krisiaren antzeko krisi bat, <https://bit.ly/3CiwXlO>)

Actitudes hacia la inmigración (Ikerketa Soziologikoen Zentroaren txostena, 2017ko irailean argitaratua, Espainian migrazioen inguruan dagoen pertzepzioari buruzkoa, <https://bit.ly/3rEzFPb>)

Percepción social de las migraciones en España (Maria Angeles Cea-ren artikulua, 2017ko martxokoa, Fundación de Cajas de Ahorro fundazioaren blogean argitaratua, Espainiako biztanleriak migrazioez duen pertzepzioari buruzkoa, <https://bit.ly/3Cl4Nnh>)

El fenómeno migratorio en España. Reflexiones desde el ámbito de la seguridad nacional (Segurtasun Nazionalerako Departamentuaren dokumentua, 2019ko martxoan argitaratua, Espainiako migratzaileen egoera orokorrari buruzkoa, <https://bit.ly/3BQUt67>)

Actitudes ante la inmigración y comportamiento electoral en España (Barcelona Center for International Affairs ikerketa-zentroaren artikulua, 2019ko azaroan argitaratua, immigrazioarekiko jarreraren eta hauteskundeetan ematen den botoaren arteko loturari buruzkoa <https://bit.ly/3lwEQeq>)

Percepciones, discursos y actitudes hacia las personas migrantes en un barrio de Madrid (Lana, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioak Ministerioaren txostena, 2019an argitaratua, Madrilgo Puente de Vallecas auzoko migrazioen kudeaketari buruzkoa, <https://bit.ly/3yo8B4w>)


~gizarte-erakundeak

La otra mirada. Compendio de percepciones sobre la migración en España y recomendaciones para el cambio de narrativas (Oxfam Intermón erakundearen txostena, 2020ko azaroan argitaratua, Espainiako migrazioei eta migrazioetako elementu guztien egora orokorrari buruzkoa, <https://bit.ly/3fuw1hj>)

BIGARREN ZATIA

Iruzkin berriak

**Inklusioaren eta
bazterketaren artean**



Sarrera

Liburuki hau beste lan baten jarraipena da: *Zera esaten ari dira. Lehen atala*, EAEko ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sareak 2022an argitaratua. Lehen liburuki hartan, hogeitau urte lehenago *Qué es la inmigración* (RBA, 2003) lanean jasotako hamazazpi iruzkinak eguneratu genituen. 2003an esandakoa berrikusi eta eguneratu ondoren, azken 20 urteetan migrazioaren gaian izandako aldaketak eta jarraikortasuna aztertuz, **bigarren zati** honetan eztabaida berrien inguruko iruzkinak aurkezten dira. Eztabaida hauek gaur egun arreta-gunean daude, eta hazten eta are gogorrago bihurtzen ari dira..

Azken urteotan eskuin-muturreko jarreretatik immigrazioaren aurkako hainbat lelo sortu dira (“*Etxekoak lehenbizi*” edo “*American First*” eta “*Immigrazioa stop!*”, besteak beste) eta, nahiz eta aurreko liburukian aipatu eta kontuan hartu genituen, zeharka izan zen, hau da, 2003ko liburuan landutako iruzkinekin lotuta baino ez.

Oraingo honetan, zuzenean eta xehe-xehe landuko ditugu lelo horiek eta oraintxe gori-gori dauden beste lelo eta esan batzuk (etorkizunean ere halaxe jarraitzeko itxura baitute), bai eta horien aldaerak, ñabardurak eta ondorio agerikoak ere.

Zergatiak

Liburu hau idaztera (zehazki, bigarren atal hau), bi motatako arrazoiek bultzatu naute. Alde batetik, konpromiso sozial, politiko eta etikoko praxi bati erantzuten dio, eta helburutzat du giltzarri den auzi bati buruzko eztabaida publikoari argudioak ekartzea eta, beraz, demokrazia deliberatiboaren alde eta hiritartasuna libreki, modu aktiboan eta erantzukizunez baliatzearen alde ekarpena egitea.

Beste aldetik, bigarren atal hau **orientabide publikoko antropologia** deritzonoko ariketa bat da, uste osoa baitut gizarte-zientzialariek eta filosofoek (zuzenbidearen arlokoek, etikaren arlokoek) demokrazia deliberatiboaren alde lagundu ahal eta behar dugula, gure ideien eta nozioen bidez, datu eta gertaera egiaztatuen bidez, ikerketen emaitzen eta ebidentzien bidez. Horretan ez dago berritasunik batere, asko eta asko aspalditik ari baitira horretan; argi eta garbi adierazi nahi dut, besterik ez, neu joera horretakoa naizela eta lan hau justizia sozialaren aldeko borroka- eta gogoeta-hondartza horretan harea-pikor bat gehiago dela.

Bi zergati horiek etika eta zientzia batzen dituzte eta nahi bati erantzuten diote: hitzak indarraren gainean nagusitasuna izatea; hori funtsezkoa da *Bakearen Kulturean*. Liburu idaztean zera generabilen buruan, testua irakurtzen duenak “nahi dut gizarte hori” moduko zerbait sentitu ahal izatea eta pentsatzea ikuspegi eta proposamen hori “zientzian, zuzenbidean eta etikan ondo oinarrituta” dagoela; testuak ondo izendatzea izendatu beharrekoa den guztia, eta berrizendatzea, izenez edo esanahiz gaurkotu eta berrinterpretatu beharrekoa; egon ez dagoen perfektioetik urrun, argudioen aldetik sendoa izatea; testuko hitzek solaserako, elkarrizketarako eta eztabaidarako bide ematea eta, batez ere, demokraziaren, justiziaren eta bakearen aldeko praxia sendotzeko oinarriak ekartzea.

Aztergaia

Zein da gure aztergaia, gure gai-esparrua, zeri heldu nahi diete gure iruzkinak eta gogoetek? Bada, zehazki, **migrazioaren auziari buruzko eztabaida publikoa** jorratu nahi dugu, migrazioaren auzi delakoa lan honen lehen atalean definitu genuen moduan ulertuta¹. Auzi horrek gizarte osoari eragiten dio, ez bakarrik migratzaileei berei, eta erronka asko eta askotarikoak dakartza, bi gai edo kontu nagusirekin lotuak: lehenik, migrazioek **benetan zer ondorio dituzten** (migratzaileentzat nahiz biztanleria hartzailearentzat, etab.), bai demografiaren eta ekonomiaren nahiz lanaren aldetik, bai alderdi pertsonal, familiar, soziokultural eta komunitariotik ere; eta, bigarrenik, lege eta arauen ikuspegitik, migrazioei **nola heldu behar zaion**, zuzenbide-estatutik eta demokrazian. Eztabaida publiko hori Espainiako estatura mugatuko dugu, baina hala dagokionean Europaren testuinguruan kokatuko dugu, edo mundu mailan.

Eztabaida publiko horretan, bereizi egin behar dira **muina** edo eztabaida bera (solasaldiak, iritzi-trukeak, ika-mikak, polemikak, elkarrizketak, leloak, kartelak, etab.) eta eztabaidan eragina duten **faktoreak**, zeinek forma ematen baitie diskurtsoei eta iritzi publikoari edo, hobeto esanda, iritzi publikoei. Gai eta iritzien osotasun horretan dauden alderdiak aletuko ditugu hurrengo lerrootan.

Lehenik eta behin, iritzi publikoa, hedabideetan eta sare sozialetan adierazi eta argitaratua: prentsako artikulua eta erreportajeak, irratiko saiok eta tertuliak, telebistako albistegiak eta programak, txatak... **Diskurtso mediatiko** horri **diskurtso**

1. “Hau adierazi nahi dugu horren bidez: atzerritar jatorriko pertsonak etorri eta kokatzearekin eta pertsonarteko harreman eta gizarte-harreman berriak ezartzearekin lotutako arazo, gai eta erronken multzoa. Arazo, gai eta erronka horiek askotarikoak dira, alderdi asko sartzen dira jokoan (soziopolitikoak, lan-arlokoak, juridikoak, mugetakoak, dibertsifikazio soziokulturalaren arlokoak, eskubideak, itzulerak, bizikidetzak, etab.) eta auzi horrek gizarte-aldaketarako prozesu konplexuak dakartza berekin” (Giménez 2022, 8).

politikoa gehitu behar zaio; zehazki, indar politikoa (alderdiak eta haien fundazioak, koalizioak eta plataformak), adierazpen, hauteskunde-programa eta bestelako erregistroen bidez adierazia.

Bestalde, immigrazioari eta errefuxiatuei buruzko eztabaiden aintzira handi horretara urak isurtzen dituen beste elementu bat **diskurtso instituzionala** da, ezartzen diren plan, neurri eta politiken bidez nahiz kargu publikoen adierazpenen bidez adierazia, administrazioa lau mailetan: Europakoa, zentrala, autonomia-erkidegoetako eta tokikoak. Ez dago esan beharrik lotura estua dagoela diskurtso politikoaren eta instituzionalen artean eta, aldi berean, azken horien eta diskurtso mediatikoen artean.

Hirugarrenik, migratzaileen eta errefuxiatuen eremuan diharduten gizarte zibileko entitate, erakunde eta fundazioen hitzezko edo idatzizko ekintzak ere batzen dira migrazioaren auziari buruzko eztabaidara (**hirugarren sektore** deritzonak, beraz). Horien jarrerari eta argudioei **diskurtso zibil** deitzen diegu, eta hainbat eratarik jakinarazten dira: ahozko adierazpenen bidez, idatziz (beren aldizkari edo buletinetan), manifesturen bat sinatuz, zurrumurruen aurkako eskuliburuaren bidez, pankartetako eta manifestazioetako leloaren bidez, etab.

Horri **diskurtso solidario** ere deitu ahalko genioke, baina nahiago dugu **zibil** adjektiboa erabiliz izendatu, bi arrazoiengatik. Alde batetik, beste diskurtso-moten **mediatiko, politiko** eta **instituzional** kalifikatzaileekin parekatzeko, horiek ez baitira balio-terminoak: **zibil** ere ez da, eta **solidario** kalifikatzailea, aldiz, bai. Eta, beste aldetik, solidaritatea ez delako ez gizarte-entitate guztien ezaugarri (egon badaude immigrazioaren aurkako gizarte-erakundeak), ez gizarte-entitateena soilik den ezaugarri bat (solidaritate-jarrerak hiritarrek ere badituzte, eta zenbait talde politikok, udal-programa batzuek, etab.).

Diskurtso mediatiko, politiko, instituzional eta zibil horiei gehitu beharrekoak dira, azkenik, izatez eta berez ez ideologikoak ez soziopolitikoak ez diren beste batzuk, nahiz eta norberaren balio eta uste sendoek haietan eragina baduten, zalantzarik gabe. Hiru hauetatik ari naiz: **diskurtso akademikoa** (bai diskurtso filosofikoa eta bai zientifiko soziala), **diskurtso juridikoa** eta **diskurtso etikoa**. Hain zuzen, orain azalduko dudana bezala, hiru angelu edo ikuspegi horietatik aztertuko ditugu migrazioei buruzko eztabaida publikoko edukiak.

Ikuspegi hirukoitza: zientzia, zuzenbidea eta etika

Nondik azertu eta iruzkindu behar genituzke eztabaida publikoan migrazioaren auziari buruz dauden diskurtso eta eduki horiek? Lan honetan ikuspegi hirukoitz batetik helduko diegu: alderdi filosofiko eta zientifikotik, alderdi juridiko eta politikotik, eta alderdi etiko eta moraletik. Lehen gidaria, dudarik gabe, zientzia bera da eta, kasu honetan, gizarte-zientziek ematen dutena erabiltzea (datuak, gertaerak, nozioak, tesiak, azterlanak, argitalpenak), migrazioaren auzia ez ezik migratzeko ekintza bera –hain konplexua– ulertzeko eta azaltzeko; zeregin nekeza benetan.

Hori ez da nahikoa, ordea. Izan ere, eztabaida ez da gertatzen soilik eta ez du zerikusia soilik faktikoa den horrekin, errealitate benetakoarekin; aitzitik, lelo, esaldi, proposizio, argudio eta kontraargudioek testuinguru politiko eta boterezko batean gertatzen dira, botere-lehia eta konfrontazioko testuinguru batean, eta lege jakin batzuek zedarritutako marko batean gainera. Beraz, analisi zientifiko sozialaz gain, ikuspegi juridikotik ere egin behar da iruzkina ezinbestean: giza eskubideen sistema unibertsalaren eta

haren ondoren onartutako nazioarteko itun eta hitzarmenen ikuspegitik, eta demokraziaren defentsaren ikuspegitik edo, zehatzago, 1978ko Espainiako Konstituzioaren 1. artikulua dioen “zuzenbidezko estatu sozial eta demokratiko” horren defentsaren ikuspegitik.

Eta hori ere, **zientzia+zuzenbidea ekuazioa**, ez da nahikoa. Izan ere, immigrazioari, aniztasun soziokultural eta erlijiozko berriari eta etniarteko harreman gero eta handiagoei buruzko eztabaida horiek praxirako erronka jotzen digute: ekin diezaiogula, hiritartasun demokratikoa, kulturarteko bizikidetzeta eta gizarte inklusiboa sustatzen ahalegintzeko, eta ekin diezaiogula, baita ere, gezurra geldiarazten saiatzeko eta eskusiozko praktikak nahiz arrazakeriazko, xenofobiazko eta gorrotozkoak geldiarazten ahalegintzeko. Horrek guztiak gizabanakooi eragiten digu, pertsonoi eta gure *ethos*-ari eragiten dio, eta, beraz, zientziarekin eta zuzenbidearekin batera ezinbestekoa da **jarrera etikoa hartzea** ere: modu esplizituan agertzea, ez bakarrik **zer den** –zientziaren eta legeen aldetik *de facto*–, baita **zer izan behar duen** ere, eta ez bakarrik maila kolektiboan, baita maila pertsonalean ere, subjektu, pertsona eta hiritar garen heinean mehatxatzen gaituen horretan, alegia.

Bai, baina... zer etika? Eta nola lortu moralismoan ez erortzea? Erabaki genuenean **zientzia+zuzenbidea+etika ekuazioaren** bide multidimentsionala erabiliko genuela migrazioari buruzko eztabaida publikoari edo behintzat eremu zabal horren parte funtsezko batzuei heltzeko, gidaritzat eta inspirazio-iturritzat **egiaz esatea** jarrera izan nuen, *parrhesia*, eta, zehatzago, Michel Foucault-ek Antzinako Greziako *parrhesia* aztergai hartuta azaldutakoa *Collège de France* erakundearen emandako azken ikastaroetan; zehazki, 1982tik 1984ra bitartean (urte hartan hil zen).

Lan honen lehen atalean aipatu egin nuen hori; orain, aztertuko ditugun

eztabaiden eta diskurtsoen ikuspegi nagusirako inspirazio izango zaigu. Foucault premisa honetatik abiatzen da: “*parrhesia* nozioa [...], funtsean eta ororen gainera, nozio politikoa da”. 1984ko otsailaren lehen, lehen orduko eskoletan, honela azaldu zuen: “*Parrhesia* nozioarekin, jatorriz demokraziaren praktika politikoan eta problematizazioan errotua eta gerora etika pertsonalaren eremurantz eta **subjektu morala** eratzerantz eratorria, erro politikoko eta eremu moralera eratorritako nozio horrekin [...] aukera dugu subjektuaren eta egia-aren auzia **norberaren eta besteen gobernua** deitu dezakegunaren praktikaren ikuspegitik planteatzeko” (Foucault, 2014, 21; letra etzana gurea da)².

Eta, hain zuzen, egia-aren, politikaren eta etikaren triangulu hori garatzeari lotu zitzaion bere azken ikastaroko saioetako bakoitzean. “Uste dut *parrhesia* nozioa aztertzean ikus daitekeela nola dauden elkarri lotuta egiaz-esate moduak, gobernamentalitate-teknikak eta norberagintza-moduak” (*idem*).

Hauxe gehitu zuen azalpenean: “Aztertu beharrekoa [...] hiru elementu desberdinen arteko **harreman konplexuak** dira. Elementu horiek ez dute elkar murrizten, ez dira batzuk besteetan xurgatzen, baina haien arteko harremanek elkar eratzen dute” (*idem*, letra etzana gurea da). Konplexutasunaren aipua hori nahita nabarmendu dut, migrazioaren fenomeno multidimentsionalaz ari garelako, batetik, eta alderdi zientifikoa, juridiko-politikoa eta etiko-morala konbinatuz aztertuko dugulako, bestetik.

Konbinazio horretan Foucault izango dugu gidari eta inspirazio-iturri, hark esanak baliatu eta migrazioaren auziari buruzko iruzkinetan aplikatzeko. Foucaultek honela planteatu zuen: “Hona hemen hiru elementuok: **jakintzak**, beren egiaz-esatearen espezifikotasunean aztertuak; **botere-harremanak**, gizon-emakumeen portaera gobernatzeko erabiltzen diren

2. En Michael Foucault (2009) *El gobierno de sí y de los otros: curso en el Collège de France: 1982-1983* Buenos Aires, Fondo de Cultura Económica.

prozeduren aldetik aztertu beharrekoak, ez botere substantzial eta inbaditzaile baten emaitza gisa, eta, amaitzeko, norberegintzaren bidez **subjektua eratzeko moduak**” (*idem*).

Foucaultek itxaropena zuen hiru alderdiko ikuspegi horrek aztergaira egokiro hurbiltzeko modua emango ziola: “Uste dut desplazamendu teoriko hirukoitz hori eginez –ezagutzaren gaitik egiaz-esatearen gaira, menperakuntzaren gaitik gobernamentalitatearenera, gizabanakoaren gaitik norberegintzaren gaira–, azter daitezkeela, batzuk besteetara inoiz murriztu gabe, egia-aren, boterearen eta subjektuaren arteko harremanak” (2014, 21-22).

Hurrengo lerrootan, ildo bertsutik, hiru hauetara jotzen saiatuko naiz: **migrazioari buruzko azterlanak**, eta haiekin batera **giza eskubideen nazioarteko markoak**, eta haiekin batera **abegikortasunaren eta erantzunkidetasunaren etiken** defentsa. Oxala lagungarri balira deliberazio publiko, komunitario eta pertsona artekoa sustatzeko, ondo oinarrituta eta gorrotorik gabe, giza mugikortasunari, migrazioei, iheslariei eta asiloari buruz, bai eta aniztasuna bakez eta demokratikoki kudeatzeari buruz eta aldaketa soziokultural horiek guztiek berekin dakartzaten tentsio, gatazka eta erronkei bakez heltzearen inguruan ere.

Beste norabide bat eta egitura berria

Bigarren atal honek **beste norabide bat** du eta, aldaketa garrantzi handikoa delakoan, azaldu nahi nuke. Lehen atala argitaratuta eta jendartean zabalduta zegoela, Andrea Ruiz Balzolarekin eta Xabier Aierdi Urrazarekin hizketan (liburuaren bultzatzaile eta sustatzaile izan ziren hasieratik), ohartu ginen **hausnarketa eta idazkera positibo bihurtu** beharra zegoela; hau da, **arrazoibidearen segida eta testuaren egitura alderantzikatu**.

Izan ere, lehen atal hartan, ardatza, hasieratik, erasoei, gezurrei eta zurrumurruei aurre egitea zen; eskusio-jarrerak eta immigrazioaren aurkakoak dituztenek –edota zuzenean jarrera arrazistak eta xenofoboak dituztenek– sortzen dituzten eraso, gezur eta zurrumurruei kontra egitea, alegia. Bada, horren orde, elkarrekin gogoeta eginda hala adostu genuen, **lehen-lehenik alderdi positiboa jarri** behar zen; hau da, argi eta garbi adierazi behar genituen, beste ezer baino lehen eta betiere migrazioaren auziarekin lotuta, bai guk defendatzen eta nahi dugun gizarte demokratiko, inklusibo eta kulturartekoaren **gizarte-eredua**, bai gure asmo, nahi eta amets hori oinarritzeko eta funtsatzeko darabiltzagun **premisak eta argudioak**.

Jarrera erreaktibo edo defentsazkoa utzi, eta, erasokoa ez –ez dezagun terminologia eta logika militarra erreproduzitu–, jarrera **proaktiboa** hartu behar genuen. Horrek esan nahi du ditugun ideiak, gertaerak, datuak, legeak eta balioak lortu nahi dugunaren zerbitzura jarri behar ditugula lehenik, eta, gero, bigarrenik, kutsu baztertzailleko gezur eta proposizio horiek gezurtatzeko eta kontra egiteko erabili. Xede berberaren eta zeregin berberaren bi aurpegi dira, baina komeni da “*elkartzea, nahasi gabe, eta bereiztea, banandu gabe*”, Bruno Ducoli filosofo eta pedagogoa esan zuen bezala³. Beste modu batera esanda, ez hastea eztabaidatzen edo kontra egiten besterik gabe, ikuspegi etiko eta demokratikotik desiragarriena horixe dela markotzat hartuta baizik.

Horren guztiaren ondorioz, liburuaren bigarren atal hau bi bloketan egituratuta dago: lehen blokean, inklusioaren ereduari segitzen dioten adierazpen batzuk iruzkinduko ditugu, eta bigarrenean, eduki argiki baztertzailleak edo immigrazioaren aurkakoak dituzten esaldi eta leloak daude bilduta.

3. Sevilla Acoge fundazioaren leloa da, jatorrizkoan honela: “Unir sin confundir y distinguir sin separar”.

I. BLOKEA

Inklusioaren alde

Kulturarteko bizikidetzaren
eta kohesioaren aldeko
esanak eta proposizioak



18.

“Mugak ezabatzea utopia da agian, baina ez da kimera”

LANDUTAKO GAIAK

utopikoa eta kimerikoa; mugak, mugako erregimenak, burdin hesiak eta harresiak; mugako kulturak, giza eskubideak, mugikortasunaren erregulazioa eta igarotze-eskubidea...

Abiapuntuko testua

Utopiatik hasi nahi izan dut. Mugarik gabeko planeta baten ametsetik. Zalantzan eta duda-mudatan luzaroan ibili ostean erabaki dut hala. Ondo pentsatuta, zentzuzkoa da bigarren atal hau horrela hasteko zalantza izatea, guztiz sinetsita baikaude garrantzitsuena praktikoak izatea dela, posible diren gauzetara jotzea eta maximalismotan ez erortzea; azken batean, **errealistak izatea eta oinak lurrean izatea**. Baina, ikusiko dugun bezala, utopiak ere oso gauza erreala dira, ondorioak dituzte gizarte-errealitatean.

Zalantza eragiten zidan beste kontu bat da badakidala, jakin, gure mundu hau mugaz josita egoteaz gain (era askotako mugak dira, bide batez, ez bakarrik fisikoak edo lurraldezkoak), gero eta gehiago direla eraikitzen ari garen burdin hesi eta harresiak. Eta zalantzarako azken

arrazoi bat da jabetzen naizela mugarik gabeko mundu baten nahi eta utopia hori adierazten ari garelarik **onkeriaz** jarduteaz eta burugabe izateaz kritikatu gaitzaten –are, eraso gaitzaten ere– abagunea ematen ari gatzaiela muga nazional, etniko eta bestelakoak nahi dituztenei eta, orobat, mugak areago indartzea eta patruilaz, zelatatzeko bitartekoz, baita alanbre-puntaz eta kontzertinaz ere behar beste betetzea nahi dutenei.

Dena den, utopiarekin hasi dut, ez soilik askoren ametsa eta ilusioa ere badelako (*Mugarik Gabeko Medikuak*, *CEAR Errefuxiatei Laguntzeko Espainiako Batzordea*, *Mugarik Gabeko Ingeniariak*, *Acoge sareko taldeak*, *Mugarik Gabeko Suhiltzaileak*, eta beste asko), beste hiru arrazoik bultzatuta ere bai. Lehenik eta behin, **utopia eta kimera** bereizten ditudalako –Julio Anguita eta hiztegia eskuetan–; lehena posiblea eta baliagarria da, eta bigarrena, ezinezkoa eta desitxuratzaila. Bigarrenik, positibo deituko diegan utopiak –bizikidetzeta eta justizia handiagoaren aldekoak– **beharrezkoak eta baliagarriak** direlako, denak oro har eta hau bereziki eta oso. Hirugarrenik, giza mugikortasunari buruzko utopia hau adieraztea **bateragarria delako orain dauden mugak hobeto erregulatzearen aldeko epe laburreko proposamenekin** eta, zehazki, erregulazio hori **giza eskubideak** betez egiteko eskakizunarekin. Hurrengo lerrootan hiru puntu horiek garatuko ditut.

Utopiak eta kimerak

2020ko maiatzean Julio Anguita⁴ hil zenean, utopiaren eta kimeraren arteko haren bereizketa argitalpen askok nabarmendu zuten. *Corazón rojo. La vida*

4. Zintzotasun eta koherentzia betekoa izateagatik oso pertsona estimatua izateaz gain, hainbat kargu bete zituen eta, besteak beste, diputatu, Kordobako alkate eta Espainiako Alderdi Komunistako idazkari nagusi eta Izquierda Unida alderdiko koordinatzaile izan zen.

después de un infarto liburuan (Esfera de los libros, 2005), honela zioen Anguitak: “utopia teknikoki posible da. Utopia guztiak”. 2013ko azaroan, Julio Flor kazetariarekin batera idatzitako *Contra la ceguera* liburuaren aurkezpenean, honela esan zuen: “utopikoa naiz, utopia erreala delako; ez du zerikusirik batere kimerarekin, [...] kimerari zerbaite ezinezkoa da”.

Bereizketa hori bat dator hiztegietan bi hitzek dituzten esanahiekin. Espainiako Errege Akademiarenak (DRAE) bi adiera hauetan definitzen du utopia: “*gauzatzen oso zailak diruditen plan, asmo, doktrina edo sistema idealak*” eta “*giza ongiaren aldeko ezaugarriak dituen etorkizuneko gizarte baten irudimenezko errepresentazioa*”. Kimerari DRAEk ematen dizkion adieren artean, berriz, lan honetarako hauxe da aipagarria: “*posibleztat edo egiazkotzat proposatzen dena, benetan hala ez izanda*”.

Mugak ezabatzea utopikoa da, baina ez da kimerikoa; zaila da, baina ez da ezinezkoa. Aplikatu diezazkiogun utopia hitzaren bi adierak giza mugikortasunari. Bigarren adieraren arabera, beraz, zer dago mugarik gabeko mundu baten utopiaren oinarrian? Bada, lehenik, eskubidea dugula –eta, are, betebeharrasutsuki nahi dugun eta lortzearren borrokatzen garen etorkizuneko gizarte hori **irudikatzen eta amesteko: giza ongiaren aldeko ezaugarriak dituen** etorkizuneko gizarte bat, hau da, guztion ongi globala erdigunean jartzen duen gizarte bat, non guztiok bizimodu duina izango dugun eta justizia izango den nagusi (edo, gutxienez, justizia handiagoa).

Oraingo erronketara jo aurretik, gonbidatu nahi zaituztet, tartetxo batez bada ere, utopia horri gaurkotasunaren foku xehetik begiratzeari utzi eta begirada zabalago batetik begiratzera: **giza eboluzioaren ikuspegiaren** lanpara handitik, hain zuzen. Denborarik luzeenaren

irudimenezko ikuspegiaren aurrean jartzen bagara (ekar ditzagun gogora, berriro ere, Fernand Braudelen ekarpenak), ikusiko dugu **Homo generoaren denbora** gehien-gehienean (2,5 milioi urte) munduak ez zuela ez muga fisikorik ez harresirik izan. Eta fokua pixka bat estutzen badugu, baina begirada zabala galdu gabe, ikusiko dugu baita ere ez dela izan pasaportetik, ez bisarik, ez kontrolik, ez dorretxorik eta ez harresirik azken giza espeziearen denboraren gehien-gehienean; alegia, oraingoan eta geurean, *Homo sapiens*en (duela 250.000 urtetik gaurdaino). Muga fisiko, juridiko eta nazioartekoak inperioekin eta nazioekin batera sortu ziren (duela 5.000 urtetik hona bakarrik).

DRAE hiztegiko **utopia** hitzaren bigarren adierara itzulita –“giza ongiaren aldeko ezaugarriak dituen etorkizuneko gizarte baten irudimenezko errepresentazioa”– hauxe da galdetu beharrekoa: zergatik da mugarik gabeko mundu bat giza ongiaren aldekoa, zergatik da mesedegarri? Hau irakurtzen ari zaretenok galdera horri zuen kabuz erantzutera animatu nahi zaituztet. Beraz, etenaldi bat egingo dut, dagozkion etenpuntuekin...

Mugarik ez izatearen onurak

Nik neuk galdera horri bi modutara erantzungo diot. Lehenik eta behin, mugarik ez izateak gizabanakoen **askatasuna** handitzea dakar, **igarotze-eskubide** handiagoa izatea, zehazki; baina, gainera, identitate eta pertenezia partekatua sortzea laguntzen du, lurralde eta espazio amankomunean oinarrituak, zehazki, eta horrek **komunitate zabala sortzea** dakar, edo, nahiago bada, komunitateen komunitatea sortzea.

Hartu dezagun adibidetzat Europar Batasuna eta Schengengo Hitzarmenaren bidez barne-mugak ezabatu zirenekoa. 1985eko ekainean bost herrialdek sinatu

zuten hasierako akordioa (Alemania, Frantzia, Belgika, Herbehereak eta Luxenburgo), eta 1995eko martxoan, akordioa aplikatzeko hitzarmena indarrean sartu zenean, mugako kontrolak eta pasaportea erakutsi beharra zazpi herrialdetan kendu zituzten: hasierako bost sinatzaile haietan ez ezik, Espainian eta Portugalen ere bai. Handik aurrera, *Schengengo esparrua* deritzona zabalduz joan zen, apurka-apurka barne-mugak bertan behera utziz, eta, gaur egun, hura osatzen duten hogeitazazpi herrialdeetako lurraldeetan barrena murrizketarik gabe bidaiatu daiteke.

Horrek maila indibidualen dakarren onura izugarriaz gain, bai herrialde horietan guztietan bizi diren eta horretarako agiria dutenentzat eta bai nazionalentzat, nabarmendu nahi nuke **Europako hiritartasun** bat eraikitzea ere badakarrela horrek; **nazioz gaindiko hiritartasun** bat, alegia. Ordura arte, **hiritartasun** hitza hertsiki nazionalitatearekin lotuta zegoen; Europako Erkidegoa eta Europar Batasuna sortu zirenez geroztik, ordea, hiritartasunaren printzipioa, araudia eta hitzarmena nazioetatik haraindi zabaldu zen, Europar Batasuneko Hiritartasunaren Agiriaren bidez⁵.

Egia esan, aurrerapauso horrekin batera gertatu zen kanpo-mugetan kontrola handitzea eta apurka-apurka **Europa gotorlekua** deritzona eraikitzea, barruan irekia bezain kanporantz itxia. Inklusioan aurrera egiteaz batera eskusio berri bat sortuz joan zen. Hiritartasun global edo unibertsalerantz⁶ aurrera egiteari begira nazioz gaindiko entitateek duten garrantziaz gain, mugak ezabatzea **posible** izan zela eta dela azpimarratu nahi dut.

Bigarren onura bat, oraingo hau argudiketaren bide negatibotik; hau da, eragotzi beharreko aurreiritzietatik. Muga, berez eta izatez, **sailkapen** dikotomiko bat da (edota errealtatean hori dakar): **alde**

batekoak eta beste aldekoak multzoen arteko sailkapena, edo **barrukoak eta kanpokoak** multzoen artekoa. Eta, maizegi, sailkapena hierarkizazio bihurtzen da (edo hierarkizazioarekin lotuta dago), eta **hierarkizazioa**, berriz, menderatze eta eskusio⁷.

Hain zuzen, nazioarteko mugetan, bai historiaren joanean eta bai gaur egun, ez dira soilik sortzen antropologiak **mugako kulturak** gisa kontzeptualizatu, etnografiatu eta aztertutako horiek (trukeak eta hibridazioak; kontrabandoak eta igarobide klandestinoak; lurralde mankomunatuak⁸; hiritartasun bikoitzak⁹, etab.). Aitzitik, nazioarteko mugak injustiziatoki eta sufrimendu itzeleko leku ere badira (heriotzak eta feminizidioak, bortxaketak, lapurretak, polizia-agenteen ustelkeria, itzulketak **beroan** legez kontra, era guztietako gehiegikeriak...); aski da gogora ekartzea Melillako hesia gainditu nahi izan eta erreprimitu zuten azkenekoan jazotako gertaera tragiko, mingarri eta izugarri bidegabeak.

5. SESB eratu zenean ere antzeko zerbait gertatu zen: 1989an desegindako nazioz gaindiko entitate hartan ere Sobiet Batasuneko hiritartasun komuna arautu zen. Pena da Estatu Burujabeen Erkidegoaren altematibak aurrera egin ez izana, hiritartasun partekatua izateko aukera emango bailuke, baina beste oinarri batzuen gainean.

6. *Hiritartasun* nozioaz eta hori hiritartasun unibertsal eta/edo globalari aplikatzeaz nahiko idatzi da azkenaldian. Laburpen bat hemen irakur daiteke: Giménez (2020), "Movilidad humana y ciudadanía global", CTXT, abendua. Eta hemen ere bai: Giménez (2021) "Inmigrantes como nuevos ciudadanos. Derechos, responsabilidades, pertenencia, institucionalidad y participación", 65.-88. or., in Zenbait egile, *Migratorias. Miradas, Perspectivas. Propuestas*, Fundación Sevilla Acoge/ Adlibitum.

7. Bereizte/sailkatze/hierarkizate/menderatze-prozesu hori historian behin eta berriz gertatzen da. Adibidez, *arraz* nozioa, XVI. mendean ganaduaz aritzeko erabiltzen zen kontzeptu bat, europarrek hedatu ahala kolonizatu zituzten herriak sailkatze erabiltzen hasi ziren, eta, geroago, XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendean, gehiagotasun/gutxiagotasun ideia bat eta zapalkuntzazko eta arrazakeriazko kontzeptu bihurtu zen.

8. Adibidez, nazioarteko elkarrekiko edo fazeiak, Frantziarekin, Aragoiko Pirinioetan.

9. Esate baterako, Olivenza udalerrian (Badajoz). Portugalgo *marra* edo muga dago, eta, duela zenbait mendetatik Espainiakoa eta lehenago Portugalgoa izanik, bertakoek Portugalgo hiritartasuna ere izateko eskubidea dute.

Gaur egungo mugak modu egokian erregulatzearen alde

Jo dezagun orain DRAE hiztegiak utopia hitzari ematen dion lehen adierara. Hari jarraiki, onartu beharko genuke, bigarrenik, mugarik gabeko mundu baten utopia hori “*gauzatzan oso zaila*” dela. Hain zaila ere!, esango genuke gaur egun, alde horretatik inboluzioak eta atzerapausoek bizi gaituzten uneotan. Oraingo koiunturan, **mugako erregimenak** baitira nagusi (migrazioetan aditu diren zientzialari sozialek sortutako kontzeptu berrienetako bat erabiliz esanda), kontrollean, errepresioan eta itxikerian oinarrituak. Eta, horregatik, etorkizunean mugarik gabeko mundu bat izatearen utopia bateragarria denez gaur egun mugak **modu egokian erregula** daitezela eskatzearekin, ikuspegi juridikotik eskaera erraza da: bete ditzatela nazioarteko zuzenbidea, itun lotesleak eta hartutako konpromisoak. Horrekin, mundua asko hobetuko litzateke, mugak ez lirerateke bidegabekeria etengabeko eta hainbeste sufrimenduko leku, eta utopiaranzko bidean aurrera egingo genuke, esan dugun bezala, urrats batzuk jada eginda.

Lan hau ez da erregulazio horrek zer ezaugarri eta neurri izan behar litzuzkeen sakon lantzeko lekua. Aipatu nahi genuke, ordea, Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Itunean sinatutakoa (Nazio Batuak, Marrakex, 2018ko abenduak 10 eta 11) eta, batik bat, itun horretako 11. helburua, honela emana: “*Mugak modu integratu, seguru eta koordinatuan kudeatzea*”.

11. helburu horretan, Nazio Batuen Erakundeak eta estatu sinatzaileek konpromiso hau hartu zuten: “mugen kudeaketaren inguruan aplikatutako politikek erabat errespetatuko dituztela subiranotasun nazionala, zuzenbidezko estatua, nazioarteko zuzenbidean ezarritako betebeharrak eta migratzaile guztien giza eskubideak, haien migrazio-estatusa edozein izanik ere, eta politika horiek ez direla izango diskriminatzaileak eta kontuan izango dituztela genero- eta haur-ikuspegia”.

Konpromiso hori betetzeko zazpi ekintza-ildo edo -multzo baliatuko dituztela ere adierazten dute. Laburbilduta, gai hauekin lotuta daude:

- a. Lankidetzan hobetzea, migratzaileak behar bezala identifikatzeko, trebakuntza ematea, etab.
- b. Muga zeharkatzeko prozedura zehatz eta eraginkorrak daudela zaintzea (aurrekariak, jakinarazpenak, pribatutasuna errespetatzea, etab.).
- c. Estatu prozedurak berrikustea (ematen zaien tratua giza eskubideekin bat datorrela bermatzeko).
- d. Kooperazio teknikorako akordioak egitea (aktiboak eta ekipamenduak; batik bat, bilaketarako nahiz salbamendurako eta larrialdi-egoerentarako).
- e. Bidaiderik gabeko edo bidaideengandik banandutako adingabeen kasua (haurren babeserako agintaritzak eskudunen egitekoa, adingabearen interes gorena, haurren eskubideei buruzko prestakuntza, familiak ez banantzea, familia berrelkartzea).
- f. Legeak eta erregelamenduak aztertzea (zigorrik jarri beharko balitz, neurrikoak, bidezkoak, ez-diskriminatzaileak eta legezko bermeeikiko koherenteak izatea).
- g. Estatu mugakideen eta beste batzuen arteko lankidetzan hobetzea (kontuan hartzea Giza Eskubideen Nazio Batuen Goi Mandatariak Giza Eskubideei buruz Nazioarteko Mugetarako Gomendatutako Gidalerroak eta Printzipioak).

Gainera, mugak modu egokian erregulatzearen ildo horretatik, lehen aipatutako munduko ituneko beste helburu asko ere garrantzizkoak dira. Hauek azpimarratuko ditugu nagusiki:

- ▶ **3. helburua:** “Migrazioko etapa guztietan **informazio** zehatz eta egokia ematea”.
- ▶ **5. helburua:** “Migrazio erregularrerako **bideen** eskuragarritasuna eta malgutasuna areagotzea”.

- ▶ **7. helburua:** "Migrazioan gertatzen diren **zaurgarritasunak** lantzea eta murriztea".
- ▶ **8. helburua:** "Bizitzak **salbatzea** eta desagertutako migratzaileei buruzko nazioarteko ekimen koordinatuak egitea".
- ▶ **9. helburua:** "Migratzaileen legez kanpoko **trafikoari** aurre egiteko erantzun transnazionala indartzea".
- ▶ **10. helburua:** "Nazioarteko migrazioaren testuinguruan pertsonen **salerosketa** prebenitzea, eragozte eta desagerraraztea".
- ▶ **13. helburua:** "Migratzaileen **atxiloketa** beste aukerarik ezean baizik ez erabiltzea eta beste alternatiba batzuk bilatzea".
- ▶ **14. helburua:** "Migrazio-ziklo guztian babes, laguntza eta lankidetzak **kontsularrak** hobetzea".

Eta helburu horietako bakoitzean esplizituki adierazita dator Nazio Batuen eta estatu sinatzaile bakoitzaren konpromisoa eta xeheki zehaztuta daude egin beharreko ekintza-ildoak! Ikus daitekeenez, beraz, badaude irtenbideak, badaude moduak: borondate politikoa, ausardia eta baliabideak besterik ez da falta. Eta, horretarako, ezinbestekoak dira presioa egitea, mobilizatzea, exijitzea, beste alde batera ez begiratzea. Iruzkin hau amaitzeko, **erantzunkidetasunaren etika** galdegingo dugu, indibiduala nahiz kolektiboa, pertsona bakoitzarena nahiz erakunde bakoitzarena, gobernuena nahiz gizarte zibilena.

Arrazoiketaren laburpena

- 01 Utopiak eta kimerak bereizi** beharra dago: utopiak beharrezkoak eta baliagarriak dira; kimerak, ezinezkoak.
- 02** Ez dezagun ahaztu **giza eboluzioaren ikuspegia**, gure iraunaldi luzearen begirada zabala: munduak ez zuen ez muga fisikorik ez harresirik izan Homo generoaren denbora gehien-gehienean (2,5 milioi urte), ezta azken giza espeziearen denboraren gehienean ere; alegia, oraingoan eta geurean, *Homo sapiens*enean (duela 250.000 urtetik gaurdaino). Muga fisiko, juridiko eta nazioartekoak inperioekin eta nazioekin batera sortu ziren (duela 5.000 urtetik hona bakarrik).
- 03** Norabide horretan aurrera egin dezakegu: duela 40 urte zerbait utopiko emango zuen **barne-mugarik gabeko Europar Batasun** batek.
- 04** Guztiz bateragarriak dira mugarik gabeko mundu baten utopia eta mugak modu egokian **erregula** daitezela eskatzea.
- 05** Mugak ezabatzeak / modu egokian erregulatzeak (hau da, giza eskubideak errespetatuz eta nazioarteko itunak betez) **onura indibidual eta kolektibo handiak** dakartza.
- 06** Aurreko horren ildotik, mugak ezabatzeak / modu egokian erregulatzeak gizabanakoen **askatasuna** handitzea dakar; zehazki, **igarotze-eskubide** handiagoa izatea.
- 07** Mugak ezabatzeak / modu egokian erregulatzeak **identitate eta pertenezia partekatua sortzea laguntzen du**, lurralde eta espazio amankomunean oinarrituak, zehazki, eta horrek **komunitate zabala sortzea** dakar.
- 08** Mugarik gabeko mundu baten utopia, epe luzera, eta mugak modu egokian erregulatzea, epe laburrera, **hiritartasun unibertsal edo global bat lortzeko nahiaren eta ahaleginaren parte** dira.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

The case for open borders (Estatu Batuetako Vox egunkariko artikulua, 2014koa.
<https://www.vox.com/2014/9/13/6135905/open-borders-bryan-caplan-interview-gdp-double>)

Migrantes: diez razones para abrir las fronteras (Trasversales aldizkariko artikulua, 2015eko urrikoa.
<https://www.trasversales.net/t3610raz.htm>)

Open Borders: Definition, Pros and Cons (Thought.co-eko artikulua, 2022ko abendukoa.
<https://www.thoughtco.com/open-borders-84612#:~:text=Main%20Disadvantages%20of%20Open%20Borders&text=Large%2Dscale%20immigration%20from%20poorer,countries%20of%20an%20educated%20workforce>)

Extranjeros y ciudadanos. Un argumento a favor de las fronteras abiertas (Isonomía aldizkariko artikulua, 2009ko apirilekoa.
https://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1405-2182009000100003)

¿Y si no hubiera fronteras? (El Diario-ko artikulua, 2023ko martxokoa. https://www.eldiario.es/cultura/si-no-hubiera-fronteras_1_10014411.html)

¿Por qué el mundo debería eliminar las fronteras estatales? (El Ciudadano-ko artikulua, 2015ekoa.
<https://www.elciudadano.com/economia/por-que-el-mundo-deberia-eliminar-las-fronteras-estatales/11/18/>)

Por qué la humanidad y el planeta se beneficiarían en un mundo sin fronteras (y cómo reinventar el Estado): (BBC-ko artikulua, 2022ko abendukoa.
<https://www.bbc.com/mundo/vert-fut-63693374>)

~akademia

¿Es posible, es bueno un mundo sin fronteras? (Alfredo Jiménez Núñez-en artikulua akademikoa. https://institucional.us.es/revistas/rasbl/38/art_10.pdf)

The real cost of an open border: how Americans are paying the price (CATO Institute-ko artikulua akademikoa, 2023ko uztailera. <https://www.cato.org/testimony/real-cost-open-border-how-americans-are-paying-price>)

A Graphic Case for Open Borders (The Hoover Institution-eko artikulua, 2019ko azarokoa.
<https://www.hoover.org/research/graphic-case-open-borders>)

19.

“Ororen gainetik pertsonak dira, duintasun bereko gizakiak eta subjektu eskubidedunak”

LANDUTAKO GAIAK

pertsona, duintasuna, subjektu eskubideduna, irregularra, ilegala

Liburuaren bigarren atal hau hasteko lehen iruzkinean mugarik gabeko mundu baten utopia behar-beharrezko eta baliagarriari buruz aritu gara eta,aldi berean, oinak lurrean, mugak eta giza mugikortasuna modu egokian eta era bidezkoago eta eraginkorrago batean erregulatzeari buruz ere bai. Orain, joan gaitezen makro maila horretatik –makro izanagatik ere biztanlerian eragina duena, eta handia– mikro mailara, eta azter dezagun auzi soziopolitiko eta kultural orotan eta, beraz, migrazioaren auzian ere funtsezkoa den gaietako bat: **pertsonak**, alderdi pertsonala.

Argudiaketa hasteko, liburu honetan lantzen ari garen gaian “**pertsona**” **nozioak eta kategoriak** berebiziko garrantzia dutela aldeztuko dut, eta migrazioaren fenomenoari eta aniztasun berriari dagokienez zer hiru jarrera sozial edo tipo nagusi dauden ekarriko dut gogora. Zehazki, saiaturko naiz erakusten **pertsona** nozioa

gutziz estu lotuta dagoela aurreko lanaren sarreran bereizi genituen hiru tipo nagusi horietako bakoitzaren iritzi eta jarrerekin.

Esklusioa, inklusioa eta anbibalentzia... pertsona ororen duintasunaren aurreana

Hiru tipo nagusi horiek –bakoitza bere aldaerekin eta azpitipoekin– hauek dira:

1. nolabait **esklusio**-jarrerak dituztenak (bazterketa, polarizazioa eta konfrontazioa dira nagusi, eta/edo migrazioaren aurkako jarrera, xenofobia, arrazakeria, are supremazismoa...);
2. **inklusio**-jarrera dugunok (onartzea, eskubideak defendatzea, kulturartekotasuna, kohesioa, bizikidetzatza demokratikoa...), eta
3. jarrera **anbibalentea** dutenak (aurreko bi multzokoen ezaugarri batzuekin edo besteekin ados daude, zalantza egiten dute, ez daude erabat ziur, anbigutasun handia agertzen dute, ikusten dute baietz baina ez...).

Argi utzi nahi dut **tipo idealak** direla, Weberrek emandako zentzuan: pertsona bakoitza definizioz kasu bakarra da, eta, lehenengo orokortze analitiko eta metodologiko horren aldean, bakoitzaren ikuspegia eta jarrera ñabarduraz beteta egongo da.

Bada, 1 tipokoei (**esklusioaren aldekoak**) pertsona kategoria etiko eta juridikoa **kontrako arrazoi itzela** gerta dakieke. Izan ere:

- a. **Oinarrizkoa eta funtsezkoa da**, bai bizi diren sistema soziopolitikoan (1978ko Espainiako Konstituzioak aldarrikatzen duenez; gero ekarriko ditugu gogora Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna) dela beren ueste demokratiko, zibiko edo humanistikoetan, dela erlijio-sistemetan, pertsona

erdigunean egon ohi den balio eta jarraibide moralekin (adibidez, kristauak edo beste konfesio batzuetakoak).

- b. Gainera, **kolektiboka ez orokortzera** behartzen ditu (edo “presioa egin” behintzat), zeren, argudiaketa **pertsona** nozioaren unibertsaltasunean ardaizten denez, deliberazio publikoa edo pertsona artekoa beste maila batean kokatzen baita: gauza indibidual, partikular eta eguneroko gauzen mailan.

Premisa horretatik ondoriozta daitekeenez, migrazioaren deliberazioa eta aniztasunaren kudeaketarena denok pertsona-izaera izatean ardaizteak –argudiaketarako eta elkarrizketarako beste ildo posible batzuen artean– **estrategia eraginkor bat ekar dezake:** konbentzitzeko ez bada, gutxienez bai haien argudioak geldiarazteko, gezurtatzeko eta kontrako argudioak emateko, eta betiere inklusioaren aldeko beste argudio batzuk indartzearen alde edo osagarri gisa.

Azaldu dugun horretaz gain, 2 tipokooi (**inklusioaren aldekoak**) denok pertsonak garelako ezaugarri funtsezko horrek aukera ematen digu eztabaidetan eta ekintzetan duintasun, senidetasun, altruismo, abegikortasun, erantzukizun, solidaritate, bizikidetzeta eta era horretako printzipio eta balioetan oinarritzeko, denak ere **giza izaeraren hoberenarekin guztiz lotuak eta, gainera, sistema juridikoetan eta etikoetan aitortuak.**

Azkenik, 3 tipokoentzat ere (**anbibalenteak**) pertsona-izaera kontuan hartzea funtsezkoa da. Hori batik bat bi gauzatarako interesatzen zaigu:

- a. Eztabaida publikoan eta pribatuan inklusioaren aldeko jende gehiago sar dadin; hau da, anbibalentziatik inklusiora eta koexistenzia edo leku berean bizitze hutsetik benetako bizikidetzara igaro daitezen.

- b. Esklusioaren aldekoak direnen multzoa handitu ez dadin, gerta baitaiteke anbibalenteek, propaganda xenofobo ugariaren eraginez, haien bide eta modu askotarikoren bat babesten amaitzea.

Anbibalenteen multzo zabal horretakoentzat, beste multzoetakoak bezala askotarikoak baitira horiek ere, lotura- eta adostasun-puntu ona izan daiteke ikustea nola inklusioaren aldekoak, migratzaile, iheslari eta desplazatuak **orenen gaintik pertsonak** direla nabarmentzen dugunean, ez ditugula defendatzen **subjektu eskubidedun** diren aldetik bakarrik, eta bai, aldiz, inolako paternalismorik eta pribilegiorik gabe ere, hau da, baita giza-banako diren aldetik ere –haiek ere diren bezala–, nor bere ekintzen **erantzule**.

Beste modu batean esanda: dudamudatan dabiltzaneren tarteko multzo horretakoei tolentziarako eta elkar ulertzearen aldeko akuilu gerta dakieke sumina sentitzea ikusten dutenean 1 tipokoak –eta haien kanpaina xenofobo bidez– **pertsonen errespetua galtzen** ari zaiela eta, Amartya Sen-en hitzak erabiliz, **bidegabekeria lotsagabea** egiten ari direla, dena delako delitu edo ekintza gaitzesgarria egin duen pertsona zehatza –nazionala, binazionala edo atzerrikoa– aipatu beharrean **kolektibo osoak erruduntzat jotzen** dituztenean (adibidez, erdeinuz *mena, moro, beltz, sudaka* eta abar deitzen ditenean).

Sakondu dezagun horretan guztian, hiru argudiaketa-urratsen bidez :

1. pertsona nozioaren eta kategoriaren eduki filosofiko eta antropologiko sakona;
2. horrek migrazioaren auzirako dituen inplikazio etiko eta juridikoak, eta
3. hortik eratorrita, *pertsona ilegal* terminoaren gezurtapena.

Pertsona nozioa eta kategoria

Pertsona nozioak zentraltasun erabatekoa eta garrantzi itzela du. Nondik datorkio garrantzi hori? Bada, alde batetik, jakina, bere dimentsio etiko-moral eta juridiko bikoitzetik, eta presentzia nabarmena izan duelako bai ideien historian (filosofian, batik bat, baina baita beste jakintza-arlo batzuetan ere) eta bai mundu-ikuskeretan (*welstanschauung*) eta erlijioetan/espiritualtasunetan. Eta, bestetik, estuki lotuta dagoelako identitate, pertenezia eta subjektibotasunen eremuarekin eta gizabanako edo indibiduo, banakotasun edo indibidualtasun eta indibidualismoaren gaiekin.

Behar-beharrezkoa da, eta hori erronka klasikoa nahiz oraingoa da, analisi sozial eta kolektiboa pertsonen analisi partikularrekin batzea; bereizita joan izan ohi dira eremuok eta gogoetok.

Horri buruzko ikerketa-tradizio luzea dago: antropologian, adibidez, Marcel Mauss-ek egindako pertsonaren azterketa transkulturala¹⁰; pragmatisten artean, esaterako, John Deweyk subjektuaren esperientziaz egindako azterketa sakonak; Chicagoko Eskolako egileek eta haien jarraitzaileek elkarrekintza sinbolikoaren arloan egindakoak –adibidez, Herbert Mead-ek eta Herbert Blumer-ek (lehenak esplizituki adierazi zuen gizabanakoa ez dela pertsona jaiotzen)–; Erving Goffman-en mikrosoziologia; Emmanuel Mounier eta beste batzuen pertsonalismoa; liberalisten eta komunitaristen arteko eztabaida, azken horiek azpimarra pertsonan komunitateko kide gisa jarri zutelarik; Hannah Arendt-en ekarpena, subjektua eta pertsona bereizi baitzituen¹¹, etab.

Ez dugu hori guztia hemen xehatuko, ez baita horretarako lekua, baina esan beharra dago garrantzi handiko ekarpenak geratu direla zerranda horretatik kanpo.

Aipatu beharrekoa da, adibidez, Kultura eta Nortasuna antropologia-eskolakoen ekarpena (Ruth Benedict, Margaret Mead, Abram Kardiner, Erich Fromm, etab.). Eta aipatu beharrekoa da, halaber, Alfred N. Whitehead matematikari eta filosofo ingelesak **prozesu** nozioaz emandako teoria, nabarmendu baitzuen dena ibili dabilela eta aldatuz doala, eta eskuarki pertsona bakar gisa hartu ohi dena **gertaera gainjarrien multzo** gisa deskribatu baitzuen¹².

Azkenik, garapen pertsonalaren praxirako ekarpenen adibide gisa, aipatzekoak dira André Rochais-ek (1921-1990) sortutako PRH Nortasuna eta Giza Harremanak eskolaren kontzeptualizazio eta metodoak. Besteak beste, "pertsonaren eta bere funtzionamenduaren bost instantzia"¹³ bereizten dituzte.

Aipamen horiek eginez, soilik erakutsi nahi dugu zeinen garrantzitsua den **persona** kategoria, eta hala da ez bakarrik Mendebaldeko tradizio intelektualetan, baita Ekialdekoetan eta beste arlo geopolitiko eta munduko kulturaletan ere.

10. Giménez (2020), "Por un Nosotros Plural. Apuntes sobre pluralismo y unidad en la diversidad", *Tiempo de Paz* (MPDL), 139. zk. Lan horretan laburbilduta daude Marcel Mauss-ek 1938ko testu bikain eta eragin handiko honetan egindako ekarpenak: "Sobre una categoría del espíritu humano: la noción de persona y la noción del Yo". Hor, *persona* kontzeptuak izandako bilakaeraren azterketa historiko eta etnografiko zorrotza egiten du.

11. 1958an, Alemaniako liburu-saltzaileen Bakearen Saria Karl Jaspers filosofo eta psikiatrari eman ziotela-eta, haren *laudatio* Arendtek egin zuen. Hitzaldi hartan, Arendtek subjektua eta pertsona bereizi beharra azaldu zuen (lehena subjektibitatearen eta autokontrolaren eremuko litzateke, eta bigarrena, berriz, arlo publikoaren eta ez-kontrolaren eremuko) eta nortasunaren kategoria gizatasun edo *humanitas* kategoriarekin lotu zuen (Kantek eta geroago Jaspers-ek *humanität* deitu ziotena).

12. Whiteheaden esanetan, pertsonak etengabe aldatzen ari dira, une oro esperientzia berriak berenganatzen edo bizitzen; esperientzia-une horiek bereizgarriak dira, baina elkarren artean lotuta daude, Whiteheadek gertaeren *elkarte* deritzon. Horrek badu halako antzekotasun bat Niaren ilusioaren ikuspegi budistarekin

13. Hona hemen bost instantzia horiek: 1) *Izatea*, instantzia nagusi edo funtsezkoa da, nortasunaren muina; 2) *Ni zerebrala*; 3) *Gorputza*; 4) *Sentikortasuna*, eta, azkenik, 5) *Kontzientzia sakona* (ikus *La persona y su crecimiento* lan kolektiboa, PRH eskolaren beraren argitaletxeak emana; hemen, zortzigarren argitaraldia erabili dut, 2012koa).

Ekar ditzagun gogora, esaterako –eta adibide bakarra aipatzeak atsekabetzen nau–, India eta hinduismoa, eta haren filosofietako *Atman* partikularra eta horrek Brahman unibertsalarekin duen lotura, edota, zehatzago, Gandhi bera eta hark nola planteatu eta gauzatu zuen eraldaketa indibidual eta soziala; biak ere elkarren artean lotuta daude, ikuskera– eta ekintza–batasun baten bi zati balira bezala.

Gandhiren jarraitzaile Vinoba Bhave filosofoa (1895–1982), Acharya ere deitua –indarkeriarik ezaren eta giza eskubideen defendatzaile eta Bhoodan mugimenduaren sustatzailea izan zen–, *svaraj* edo **norberaren gobernua** ideiarri atxiki zitzaion. Hitz vedikoa da *svaraj*, eta **bakoitzak bakoitzaren gobernua** esan nahi du; gobernu–modu horretan, gobernua bakoitzak bere lege gisa sentitzen du, edo Guztion Gobernua da, edo Jainkoaren Erreinua (Ramrajya)¹⁴. Balio bezate ohar labur horiek aditzera emateko pertsona nozioaren gaineko **kulturarteko elkarrizketa behar–beharrezkoa** dela.

Edonola ere, pertsona indibidualaz ari gara (ez pertsona **juridiko** edo korporatiboaz), subjektu juridiko eta moralak diren heinean, bakoitza bere eskubide, erantzukizun, pertenezia edo kideztza eta eremu publikoko partaidetzarekin. Hau da, aurreko iruzkinetan azaldu dugun hiritartasun demokratikoaren nozioarekin oso lotuta. Pertsonak bere gizarte eta kulturara garamatza, eta horiek **pertsona** nozioa eta haren errealitateak kokatzen dituzte, baina ez dute agortzen. Horrekin guztiarekin lotuta, eta nabarmendu nahi dudana beste puntua da hau, **pertsona** kategorია eta nozioa giza eskubideen adierazpenean eta eskubideok garatu dituen nazioarteko sistematan dago, eta funtsezkoa da.

Gorago aipatutako artikuluan jorratu dut, 5. oharrean, “*Por un nosotros plural*” izenekoan. Utziezadazu honako sintesi–

aipu hau egiten: “Pertsonak duintasun bereko izakiak direla eta eskubide eta betebeharren subjektu izateko baldintza bakarra direla dioen nozioa argi eta garbi formulatuta eta garatuta ageri da 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean. Haren artikulua hogeita sei aldiz hasten dira, esaldi honekin: “*Pertsona orok...*” (Giménez 2020: 95). Ez du dena esaten “autoktonoa”, “nasionala”, migratzailea”, “asiarra”, “heterosexuala”, baizik eta “pertsona oro”.

Eta hau ere badiot, Europar Batasunaz ari naizela: “Adierazpen hori, baieztape irmo eta unibertsal hori, beste hainbat itun, hitzarmen eta aldarrikapenek ere errepikatzen dute. Horren adibide da, esaterako, Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutuna (2010). Bertako artikuluek hogeita bat aldiz jasotzen dute ‘Pertsona orok du [...] –t(z)eko eskubidea’ adierazpidea. Debekuez ari denean (tortura edo tratu laido garriak ezartzea, esklabo edo uztarpeko jartzea, bortxazko edo nahitaezko lanak egitera behartzea, etab.), hasieran erabiltzen den hitza *inor* da, hori ere unibertsala” (*idem*).

Bestalde, Gutunak sarreran adierazitakoa gogora ekarriz: “Batasuneko hiritartasuna eratuta, eta askatasun–, segurtasun– eta justizia–esparrua sortuta, Batasunak **pertsona du bere jardunaren ardatz**” (letra etzana gurea da). Hemen **Gu** hiritarra eta Pertsona bata besteaz ari dira: “**pertsona** kategoría ezin askatuzko moduan lotuta dago hiritartasun demokratikoa den zementu komun horrekin eta Gutunean aldarrikatutako hiru printzipio eta balio unibertsalekin: askatasuna, segurtasuna eta justizia” (*ibidem*).

14. *Vinoba o la nueva peregrinación* liburuan, Lanza del Vasto poeta, artista eta indarkeriarik ezaren aldeko ekintzaileak (Gandhiren jarraitzailea) “Fragmentos de los Svaraj –Shastra o Principios de la Independencia” sartu zituen, Vinobak diktatuak 1943an, Nagpurreko espetxean; errebeldiatik eta gerraren kontrako erresistentziatik espetxeratu zuten (Lanza del Vasto, 1958, 251)

Pertsonala denaren lotura sozial

hori, edo, Ortega y Gasset-en hitzetan, “ni eta nire zirkunstantzia”, oso ondo adierazi zuen Thornton Wilder-ek, honela: “Zaila da besteen ustez zu zaren hura bihurtzeari uztea”. Hor esplizituki adierazita dago kanpoko espektatibek norberaren identitatearen eraketan duten eragina. Pertsonala denaren konplexutasuna, bestalde, argi eta garbi adierazi zuen Claudio Rodríguez poetak elkarrizketa batean hau erantzun zuenean: “Baina, zer da irudia lantzearen esapide beldurgarri hori? Pertsona bat pertsona bat da, ez irudi bat”¹⁵.

Utziezadazue iruzkin hain zuzen pertsonal bat egiten. Antropologo gisa egin dudana ibilbidean, bai irakaskuntzan eta bai ikerketan, baita proiektu aplikatuetan eta transferentziakoetan ere, **pertsona bakoitza bere kulturaren berezko bertsioa** den ideia garatuz joan naiz. Esan nahi baita, garrantzitsuena, halako edo bestelako prozesu, egoera edo gatazkatan, ez dela abstrakziora jotzea ea zein den edo nolakoa den **haren kultura**, eragile jakin batena (marokoarra, euskalduna edo ijitoa den, adibidez), horrek ezinbestean sinplifikaziora eramango baikaitu, topikora, esentzialismora edo estereotipora, baizik eta **nola tartean den pertsona bakoitzak bere kultura-ondarea erabiltzen duen** testuinguru zehatz horretan eta bizitzen ari den esperientzia beti berezian. Hori bai, hori objektibagarria, behagarria eta esanguratsua da.

Idea horiek 2003an prestatu nuen **metodologia multifaktorialaren** parte dira. Metodologia hori Madrilgo Unibertsitate Autonomoan 1997tik sustatzen ari garen bitartekaritza komunitario eta kulturartekorako zerbitzuen praxitik sortu nuen, lantaldearentzat eta kulturalismoak gainditzeko ahalegin gisa, eta, hain zuzen, kultura-aniztasuneko testuinguruetan bitartekotza egiteari –edo, modu orokorragoan, esku hartzeari– dagokionez, **pertsona/egoera/kultura** triangulua hartzen

du kontuan, eta faktore idiosinkrasikoak, egoerazkoak eta etnokulturalak bereizten eta erlazionatzen ditu¹⁶.

Pertsona nozio horri buruz lanean jarraitzen dut, eta presente egon da GKEetako ekintzaile eta kideekin, teknikariek eta funtzionarioekin izandako aurkezpen eta mintegi batzuen azken zati horretan, gizartea hobetzeko konpromisoari hiru instantziatatik heldera animatzen ditudanean: “pertsona gisa, profesional gisa eta hiritar gisa”. Uste dut egin beharreko zereginetako bat dugula pertsonaren eta gizabanakoaren ikuspegia sakonago txertatzen joatea eta, zehatzago, ikuspegi hori hiritartasunaz dugun ikuskerarekin lotzea: **pertsona izatea hiritar izatearekin eta demokrata izatearekin batera.**

Inplikazio etikoak eta juridikoak

Ezin izan dugu *in extenso* aztertu *pertsona* nozioari buruzko ideien eta ikuskeren historia, baina, edonola ere, aurreko epigrafean azalduetakoa aski da pertsona kontzeptuaren inplikazio etiko eta juridiko garrantzitsu batzuk zerrendatzeko, zeinak –eta hauxe da hemen nabarmentzea axola zaiguna– estu lotuta baitaude migrazioari buruzko eta migrazioak gizarte-harremanetan eta dibertsifikazioan dituen ondorioei buruzko deliberazio publikoekin.

“Pertsona” nozioa eta dimentsio etikoa

Denok pertsonak bagara eta, horren ondorioz, denok duintasun eta giza eskubide berberak baditugu, hortik

15. *El País* egunkarian Miguel Morak artikulu (heriotza-ohar) honetan aipatua (1990/07/23): “Muere Claudio Rodríguez. Poeta de la claridad”. Krishnamurtik ere behin eta berriro esan zuen, *Comentarios sobre el Vivir* lanean, adibidez, zeinen akats handia egin ohi dugun Besterengan irudi bat bakarrik ikusten dugunean, eta ez haren nortasun eta konplexutasun guztia.

16. Metodologia horren xehetasunak eta kasuak ikusteko, hemen: Giménez (2003)

inperatibo etiko hau ondorioztatzen da: gizaki guztien arteko **errespetua eta tratu duin eta ez-diskriminatzailea**.

Inperatibo **unibertsala** da eta, beraz, aztertzen ari garen eremuan, nazionalei nahiz atzerritarrei dagokie. Lehen multzokoen barruan daude bai nazional **autoktonoak** eta bai kanpotar jatorriko nazionalizatu berrien multzo garrantzitsu eta handia, eta atzerritarren multzokoak dira bai Europar Batasunekoak eta bai Europar Batasunez kanpokoak, bai eta legezko paperak dituztenak eta egoera irregulartasun administratiboan daudenak ere (ikus aurreko iruzkinak; batik bat, 12.a). Berriro esango dugu: *pertsona* kategorია unibertsala bereizketa horien guztien gainetik dago; berdindu egiten gaitu, eta ez banandu; asmo txarrez egindako polarizazio eta bereizkeria guztien kontra presionatzen du.

Hori al da, ordea, ikusten eta bizitzen ari garena? Hemengo gizarte-bizitza, errespetuzkoa eta tratu duin eta ez-diskriminatzailekoa al da? Esan diezadakezue galdera erretorikoa dela, tranpatia, erantzuna begien bistakoa eta EZ argia dela; esan diezadakezue galderak berak inplizituki dakarrela EZ erantzuna. Izan ere, argi eta garbi ikusten ditugu kolektibo horiekiko errespetu falta etengabeak, gorrotzko jarrera, istilu eta delituak, errefuxiatuei, adin txikikoei, migratzaileei maiz ematen zaien tratu iraingarria, jasan behar izaten dituzten diskriminazio ugariak lan-munduan, etxebizitza eskuratzeko aukeretan, eskolan eta hezkuntzan, etab.

Jakin badakigu hori guztia (hala ez balitz, ez genukeen idatziko liburu hau) eta ulertzen dugu zalantza hori, baina ez dugu uste hala denik. Gure iritziz, oinarritzko errespetuzko jarrera hori, tratu onargarri eta ez-diskriminatzailea nagusi da gizarteko ekintza gehien-gehienetan, autoktonoen eta atzerritarren portaera gehienetan, udalen jardunbide eta politika publikoen planteamendu gehienetan. Garrantzitsua

da hori ez ahaztea eta aintzat hartzen jakitea. Besteak beste, negatibismoan ez erortzeko, horrek mesede eskusioaren aldeko jarrerei egiten baitie gainera. Gehienen tratu duin hori beste leku batean gizarte, hiri edo herri jakin baten **bake-ondare** gisa kontzeptualizatu dudanaren elementuetako bat da.

Inplikazio etiko orokor horretaz gain – pertsona guztiei errespetu/tratu duin eta ez-diskriminatzailea emateko inperatibo unibertsala–, hau ere gehitu dezakegu, jada etika espezifikoko edo adjektibatuen eremuan: *pertsona* nozioaren ikuskera erradikalak **solidaritatearen, abegikortasunaren eta erantzunkidetasunaren etiketatik** jardutera behartzen gaitu subjektu guztiok, gutako bakoitza.

“Pertsona” nozioa eta dimentsio juridikoa

Azter ditzagun orain *pertsona* nozioaren inplikazio juridikoak. Lehen ikusi dugunez, *pertsona* nozioak definitzen ditu mundu mailako nahiz Europako itun asko, garrantzi handikoak.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, eskubideei buruzko nazioarteko itunak, iheslari, migratzaileei eta ez-diskriminazioari buruzko nazioarteko hitzarmenak, Espainiako Konstituzioa... Corpus juridiko hori guztia kontuan hartuta, horien ondoriozko inplikazio juridikoen multzo zabala zerrendatu daiteke.

Bi alderdi garrantzitsu bakarrik aipatuko ditugu. Alde batetik, pertsona migratzaile iheslari, desplazatu eta iragaitzazkoen eskubideak, iruzkin bakoitzean aipatu ditugunak. Beste aldetik, ezin dela kolektibo zehatzen gainean jardun eta legearen kontrakoa dela, adibidez, **beroan** itzulketak egitea edo, Frantzian gertatu zen bezala, ijitoak kanporatzea, beste hainbat praktika bidegabe eta legez kontrakoaren artean.

Korolaria: ez dago pertsona ilegalik, egoera irregularrean dauden pertsonak baizik

Hori halaxe da, argi eta garbi. Gure iruzkina hortxe utzi ahalko genuke, besterik gabe, gure adostasun eta onespren osoko baieztapen labur horretan, zeina pertsona terminoaren nozio juridiko eta moral erabakigarrian oinarrituta baitago, baina garatu egingo dugu, defendatzen ari garena gauza handia eta oso garrantzitsua baita.

Lan-munduan sartzearekin batera, estatutu juridiko egonkor bat izatea migratzaileen inklusio-prozesuko bigarren dimentsio giltzarria da. Bi dimentsio juridiko-laboral horiekin batera, edota ondoren, integrazio/inklusio-prozesuko beste dimentsio batzuk etorriko dira: bizilekuarekin lotutakoa, hezkuntzarekin eta eskolarekin lotutakoa, osasun-arretari dagokiona, dimentsio zibikoa eta lurraldearena, soziokulturala... Baina inklusio juridikorik ez badago, migratzaileak alderdi juridikotik ezegonkortasun- edo irregulartasun-egoeran badaude, bai migrazio-proiektua eta bai testuinguru sozial berrian txertatzeko prozesua oso-oso ahulduta egongo dira, edo zuzenean erabat galarazita.

Horregatik bakarrik bagenuke nahikoa arrazoi legezketasunaren eta irregulartasunaren gaiari eta errealitateari buruzko iruzkin honetako hirugarren atal honetan luzatzeko, baina beste arrazoi bat ere gehitu behar diogu, ez soilik migratzaileei eta migratzaileak gizartean sartzeari buruz, haiek bakarka hartuta, baizik eta immigrazioaren fenomeno guztia buruz, hura osotasuntzat hartuta, hau da, kontuan izanda migrazioaren auzi delakoak gizarte osoari eragiten diola eta gizarte osoari dagokiola, eta ez migratzaileei bakarrik, behin eta berriz esaten dudana bezala. Izan ere, immigrazio ilegalaz eta migratzaile ilegalez hitz egiten denean, askotan erantzuten da, nire ustez

guztiz zuzen: "ez dago pertsona ilegalik, egoera irregularrean dauden pertsonak baizik". Ordenatu ditzagun, bada, gure gogoetak, lehenbizi maila orokorrean (immigrazioa) eta gero maila partikularrean (migratzaileak).

1. Ilegalak eta ilegaltasuna terminoak gero eta gehiago darabiltzate eskuin-muturrak eta jarrera xenofoboak dituztenek, bai eta iritzi publikoaren sektore zabalak ere. Gizarteari dagokionez, esan beharra dago jendeak halakoak darabiltzanean askotan ez dakiela ñabardura administratiboak zertan diren. Eskuin-muturrari edo jarrera argiki xenofoboak dituztenei dagokionez, berriz, garbi dago bi termino horiek erabiltzen dituztenean helburua immigrazioaren aurkako eta eskusioaren aldeko jarrerak zilegitzea dela, eta ez migratzaileetako asko behin eta berriro egon ohi diren irregulartasun administratiboko edo behin-behinekotasun juridikoko egoerak adieraztea. Hain zuzen, bi terminoak **immigrazio ilegala** aditzera emateko erabiltzen dira nagusiki, eta ez hainbeste immigrante ilegalez aritzeko.

Zehazki, termino horren erabilera aztertzen badugu, ohartuko gara hiru helburutarako baliatzen dela:

- ▶ Immigrazioaren fenomenoaren –edo, gutxienez, fenomenoaren aurpegietako bat– legeak ez betetzearekin lotzeko.
- ▶ Unean uneko gobernuaren migrazio-politikak kritikatzeko, esanez haien bidez ilegaltasun hori baimentzen edo, are, sustatzen ari direla.
- ▶ "Immigrazio ilegala" ustezko "hiritarren segurtasun-gabezia" batekin lotzeko".

Hiru erabilera edo konnotazio horietako edozeinekin, eta are gehiago hirurak batera badira, "immigrazio ilegala" aipatzeak –eta nabarmentzeak– hori diotenari indar handiko argudio bat ematen dio honako jarrera hauetakoren bat duten iritzi publikoko sektoreen babes sozial eta elektoralak lortzeko:

- a. Legez kanpo egotea ezin onartuzko gauzatat daukatenak (atzerritarrez ari garenean behinik behin, nahiz eta agian legez kontrako izate hori beste arlo eta egoera batzuei ez aplikatu).
- b. Gobernuarekiko lehendik ere kritikoak direnak (arrazoi bat gehiago topatzen eta gehitzen dute).
- c. “Delituak ugaritzearen kausa” delakoarekin bat egiten dutenak (horri buruz, ikus 6. iruzkina: “Immigrazioak delituak eta segurtasunik eza areagotzea eragiten du”).

Badago “immigrazio ilegala”? Jar dakiok *ilegal* adjektiboa fenomeno sozial bati? Gure iritziz, *ilegal* adjektiboaren bidez adierazi nahi dena zera bada, herrialde jakin batean modu klandestinoan sartzea (ezkutuan edo legezko dokumentaziorik gabe, alegia), orduan bai, legeak urratzearen eremuan gaude. Hori hala bada, jakin beharrekoa da klandestinitate edo dokumentaziorik ez izate hori guztiz minoritarioa dela, eta ez inondik ere mundu guztian hirurehun milioi pertsonaz osatutako fenomeno global baten ezaugarri. Bestalde, ilegala herrialdean **sartzea** da, edo, zehatzago, herrialdean sartutako batzuen modu minoritario bat, eta ez herrialdean **bizilekua izatea, egonaldia egitea, bertan jarraitzea eta finkatzea**: migrazioen fenomeno demografiko, ekonomiko eta sozialaren zati handiena kokatzen den eremua, hain zuzen.

Lurralde batean modu ilegalean sartze horretaz gain, ez dago ilegala den beste ezer. *Immigrazio ilegal* terminoaren bidez aditzera eman nahi dena zera bada, zenbait pertsonak “paperak behar bezala ez” edukitzea, hau da, une jakin batean ez daukatela beharko luketen bizileku-baimena edo lan-baimena edo egonaldia egiteko baimena eta abar, kasu horretan ez gara ari jokabide ilegal, delitu edo arau-hauste batez, baizik eta irregulartasun administratiboko egoera batez.

- 2. Maila orokorrean immigrazioa aztertu ostean, azter dezagun orain maila partikularra, pertsona migratzaileena, alegia. Nahiz eta

nagusiki erabiltzen den esaldia “immigrazio ilegala” den, partikularki migratzaileez ari-zeko ere erabiltzen da terminoa: “ilegal asko daude”, “langile horietako asko ilegalak dira”, “gobernuak ilegalak kanporatu egin behar lituzke”, “paperak dituztenak, ondo, baina ilegalak kanporatu egin behar lirateke”, etab. Edonola ere, nahiko agerikoa da hauteskunde-giroan eta jendaurrean “immigrazio ilegal” esatearen eragin eta ondorio soziopolitikoaren barruan dagoela **irregulartasun juridikoko** egoeran dauden pertsona horien eskusioa.

Migratzaileak, beste ezer baino lehen eta ororen gainera, pertsonak dira; hau da, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak 1. atalean aipagai dituen subjektuak, orrialde hauek irakurtzen ari zaren zu zeu bezainbestekoak –eta gogoratu dezagun Aldarrikapen hori sinatua duela Espainiak eta aipatzen duela Espainiako 1978ko Konstituzioak, 1. tituluko 10. artikuluan–: “*Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute*”. “Guztiak” horrek ‘guztiak’ esan nahi du, ez ‘batzuen batzuk’, baina badirudi zenbaiti zeharo ahazten zaiela.

Aldarrikapenak bigarren atalean aurreko hori garatzen du, irmoki garatu ere, honela baitio: “**Gizaki** orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko **arraz**a, **larru-kolorea**, **sexua**, **hizkuntza**, **erlijioa**, **politikako** edo **bestelako iritzia**, **sorteria** edo **gizarteko jatorria**, **ekonomia-maila**, **jaiotza** edo **beste inolako gorabeheragatik**” (hor *pertsona* terminoaren baliokide den *gizaki* hitzaz gain migratzaileekin eta iheslariekin zuzenki lotuta dauden ezaugarrietako batzuk ere letra lodiz nabarmentzeko atrebentzia hartu dut).

Eta ikuspegi juridiko nahiz moraletik erabakigarria den **gizaki** edo **pertsona** nozio horixe dago presente nazioarteko itun, hitzarmen eta akordio guztietan, lehenago esan dugun bezala. Gatozen auziaren mamira: badago pertsona ilegalik? Bada, ez.

Hori *oximoron* bat da, kontraesana terminoetan. *Illegal* terminoak nazioarte mailako ebazpen instituzionalek behin eta berriz adierazitakoa urratzen du. Horri buruzko ikerlan eta dibulgazio-lan bikainak egin dira (*Iturriak eta materialak* atalean jaso ditugu), eta horien artean Migratzaile Papergabeei buruzko Nazioarteko Lankidetzarako Plataformak egindakoa azpimarratuko genuke guk. Datozen lerroetan informazio historiko baliotsu hori laburbilduko dugu.

1975ean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak bere organo eta agenzia espezializatu interesdunei eskatu zien “*agiri ofizial guztietan erabil ditzatela ‘langile migratzaile papergabeak eta irregularrak’ terminoak*”¹⁷. 1994an, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia bildu zen, Kairon, eta nazioarteko migrazioari buruzko ordura arteko agiri zabalena onartu zuten

han; besteak beste, honela dio testuak: “*migratzaile papergabeak edo irregularrak helburuko herrialdeak bertan sartzeko, egonaldia egiteko edo jarduera ekonomiko batean aritzeko ezarriak dituen baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak dira*”¹⁸.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak ere (LANE edo OIT) termino horiek darabiltza, eta ez *immigrazio ilegal* edo *langile ilegal*. Lanaren Nazioarteko 92. Konferentzian, 2004an egina, “ekonomia globalizatu batean langile migratzaileentzat konpromiso ekitatibo bat” lortzera bideratutako ebazpen bat onartu zen, eta bertan erabilitako terminoak **estatus irregularra eta egoera irregularreko langileak dira**. Aipagarria da, halaber, 2006an Europako Kontseiluko Biltzar Parlamentarioak onartutako 509. ebazpena, “Migratzaile irregularen giza eskubideak” jasotzen dituen.

Arrazoiketaren laburpena

- 01 Pertsona oro gizabanakoa baino askoz** gehiago da: subjektu etiko-morala da (duintasun, identitate, pertenezia eta abar berbera), eta subjektu juridikoa (eskubideetan, erantzukizunetan, hiritartasunean eta abarretan berdina).
- 02 Neoliberalismoa hedatzen ari den garaiotan,** zeinak nabarmendu egiten baititu, besteak beste, indibidualismoa, batetik, eta komunitarioa eta publikoa den ororen haustura edo desegitea, bestetik, guztiz beharrezkoa da pertsona guztiok duintasun berbera dugulako ideia **proposatzea eta kontrajartzea**, kategoria horrek batu egiten baitu gizabanako partikular bakoitza haren lotura soziokultural eta politikoekin, komunitatean dituen erantzukizun eta eskubideekin.
- 03** Migrazioari buruzko eztabaidan, giza eskubideen aldeko kanpainetan eta zurrumurruen aurkako estrategietan, **persona** nozioa eta kategoria sartu beharra dago, eta haren baitako eduki sakonak gehiago garatu.
- 04** Gizarte-bizitzako beste esparru batzuetan bezala, migrazioaren auzian ere beharrezkoa da **maila kolektiboa** (eta makroa) eta **maila pertsonala** (eta mikroa) batzea. Erroka handia da hori, eta ideietan nahiz praxian irudimen eta ahalegin handiz jokatzeko eskatzen du.
- 05** Behin eta berriro **immigrazio ilegal** eta **migratzaile ilegal** terminoetaz aritzea diskurtso xenofobo eta eskuin-muturrekoaren estrategia giltzarrietako bat da, eta hiru helburu lortu nahi izaten dituzte horrekin: a) immigrazioa arauak urratzearekin lotzea; b) legezketasunik ez izate horren kausatzat migrazio-politikak joz, haiek kritikatzeko, eta c) “immigrazio ilegala” ustezko “hiritarren segurtasun-gabezia” batekin lotzea.
- 06** **Immigrazio ilegal** eta **migratzaile ilegal** terminoak erabiltzea, oximoronak izateaz gain (ez dago fenomeno sozial ez pertsona ilegalik), nazioarteko itun ugariren kontra doa, urratu egiten ditu.

17. Batzar Nagusia, *Langile migratzaile guztien giza eskubideak eta duintasuna errespetatzea bermatzeko neurriak*, 3449.2433 ebazpena, Osoko bilkura, 1975/12/09.

18. Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren ekintza-programa, Kairo, 1994

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

Los términos que deben usarse y los que no para describir a los migrantes (BBC-ko artikulua, 2015eko abuztuko, hedabideek migratzaileei buruz erabili beharreko terminologiari buruzkoa. <https://bbc.in/3kXkg6F>)

'Aliens' no more: Biden administration directs immigration officials to use 'inclusive language' (Forbes aldizkariako artikulua, 2021eko otsailekoa, Bidenen administrazioak migrazio-gaietan izandako irizpide-aldaketari buruzkoa. <https://bit.ly/3BOcty3>)

Hacia un nuevo lenguaje migratorio (Especie en Viaje atariko artikulua, 2021eko apirilkoa, migrazioen inguruko hizkeran izandako aldaketei buruzkoa. <https://bit.ly/3rDO61b>)

Chapter 4: Alien/Foreigner (David Bartram, Maritsa V. Poros eta Pierre Monforte-ren Key concepts in migration liburuko 4. kapituluaren erreseina. <https://bit.ly/3kZV0g3>)

This new year, let's stop using the word 'alien' (The Hill-eko artikulua, 2019koa, migratzaile ilegal terminoa ez erabiltzeko iradokizunari buruzkoa. <https://bit.ly/2TC9NIF>)

~gizarte-erakundeak

¿Por qué 'irregular' o 'sin papeles'? ¿Por qué no 'ilegal'? (Migratzaile Papergabeei buruzko Nazioarteko Lankidetzarako Plataformak egindako triptikoa. <https://bit.ly/374ueuQ>)

Por qué son tan importantes las palabras (Migratzaile Papergabeei buruzko Nazioarteko Lankidetzarako Plataformak emigrazioari buruzko lexikoari buruz egindako kanpaina. <https://bit.ly/3rCtK8A>)

Los inmigrantes ilegales no existen. Nadie es ilegal en el mundo (ABC egunkarian Rescate GKEak argitaratutako dokumentua, 2020ko apirilkoa, lehenago ilegalak aipatuz argitaratutako artikulua bati erantzuteko sortua. <https://bit.ly/2WfTj3B>)

Drop the I-Word (Race Forward GKEak egindako kanpaina, hedabideetan migratzaileez aritzean ilegal hitza erabiltzeari utz diezaioten eskatzeko. <https://bit.ly/2Wikw5l>)

~akademia

Sobre "ilegales", "irregulares" y "sin papeles": La lucha por la regularización documentaria de los inmigrantes extracomunitarios en España (Silvana Santi Pereyra-ren artikulua akademikoa, 2018koa; Espainiako migrazioak aztertzen ditu. <https://bit.ly/2VeSLKS>)

Undocumented vs. illegal migrant: towards terminological coherence (Mila Paspalanova Monterreyko Teknologia eta Goi-mailako Ikasketen Institutuko irakaslearen artikulua akademikoa, 2007koa. <https://bit.ly/3rAEgx4>)

From aliens to citizens: the political incorporation of immigrants (Pieter Bevelander-en eta Mikael Spang-en artikulua akademikoa, 2014koa; Malmöko Unibertsitateko irakasle dira biak, eta artikulua migrazio-gaietan erabiltzen den terminologiaren garrantzi politikoari buruzkoa da. <https://bit.ly/2UUY7Lp>)

El estatus "irregular" de los/as inmigrantes como una construcción socio-política (Zuzanna Jaegermann Granadako Unibertsitateko irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioei buruzko hizkeraren izaera politikoari buruzkoa. <https://bit.ly/3ycBhNR>)

~txostenak

La inmigración ilegal y el derecho de "protección internacional" en Europa (Ikerketa Estrategikoetarako Espainiako Institutuak migrazioari buruz argitaratutako agiria; hizkerari garrantzi handia ematen dio. <https://bit.ly/3l2lNau>)

20.

“Migrazioaren auziak eragin zuzena du zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoa deritzonaren muinean eta garapenean”

LANDUTAKO GAIAK

1978ko Konstituzioa, aukera-berdintasuna, parte-hartzea, eskubide politikoak, legearen inperioa, koiuntura eta egitura, politika publikoak

Espainiako 1978ko Konstituzioak 1.1 artikuluan honela dio: “Espainiak zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoa eratzen du”. Eta, jarraian: “beraren antolamendu juridikoaren balio nagusi bezala, askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa aldarrikatzen ditu”. Horixe da Konstituzioko artikuluen hasiera. Eta horrek dakar, beste hainbat gauzaren artean, jakina, migrazioa modu inklusiboan kudeatu beharra.

Esan izan da, nire ustez behar bezain maiz eta irmoki esan ez bada

ere, **migrazioaren kudeaketak eragin zuzen-zuzena duela demokraziaren eta zuzenbidezko estatuaren muinean. Baieztapen hori argudio guztiz giltzarria da migrazioaren auzian inklusio sozialaren alde eta jarrera xenofobo eta baztertzailen kontra gaudenontzat.**

Horren arrazoietan sakonduko dut iruzkin honetan, oraingoan ere helburu garbi batekin: saiatzea deliberazio publikora oinarri sendoak ekartzen, edo, gutxienez, oinarri zabalagoak; eta, batez ere, eskusioen kontrako ahalegin antirrazistak sendotzea eta hiritarren arteko kohesioaren eta kulturarteko bizikidetzaren aldeko praxia indartzea.

Konstituzioko formulak eta definizioak migrazioan dituen implikazioak

Lehenbizi, azter dezagun normalean zer dakarten berekin hiru adjektibo horiek: sozial, **demokratiko** eta **zuzenbidezko**. Eta, ondoren, aplika ditzagun horiek migrazioaren auzira.

Estatu soziala eta migrazioak

Estatu bat **soziala** izatea zenbait modutara interpreta daiteke, baina Konstituzioko artikulua askok argi eta garbi uzten dute helburua gizarte kohesionatu, bidezko eta guztion ongian oinarritutako bat taxutzea eta bermatzea dela. Gai hori zehatz aztertzea liburu honen xedeetatik askoz haragoko zeregina litzateke, baina bi adibide esanguratsu erakutsiko ditut, lagin modura¹⁹.

19. Konstituzioko definizio eta xede sozialaren beste hainbat alderdi alde batera utziko ditugu, beraz. Esate baterako, 10.1 artikuluan balio sozial guztiz erabakigarri batzuk adierazten ditu, hala nola “gizabanakoaren duintasuna, hari datzekion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea [...]”, eta hori estu lotuta dago 19. iruzkinean adierazitakoarekin: “Ororen gainetik pertsonak dira [...]”

Bereziki esanguratsua da, lehen lagin modura, 9.2 artikulua: “Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, **gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen** askatasuna eta berdintasuna **benetakoak eta eragingarriak** izan daitezen [...]” (letra etzana gurea da). Aske dira? Badute askatasuna jatorriz atzerrikoak diren pertsonak? Jasotzen duten tratua berdintasunezkoa da? Badute aukera-berdintasuna? Ez dut modu erretorikoan galdetzen, erantzuna inplizituki EZ delakoan. Izan ere, hein handi batean badute askatasuna eta badute aukera-berdintasuna (askok halaxe adierazten dute eta harrera-leku gisa Espainiaz modu positiboan hitz egiten dute); nahiz eta horren inguruko gabeziak larriak diren, era askotako zenbait instantziak garbi adieraziak eta salatuak (gizarte-erakundeak eta zurrumurruen aurkako kanpainen, batik bat), eta halaxe ari gara gu ere lan honetan behin eta berriz esaten. Galdera horiek egin badituzte, ez da erantzun erraz bat indutzitzeko, baizik eta Konstituzioak agindutakoaren eta immigrazioaren erronken arteko loturei buruzko gogoeta eta deliberazio publikoa sustatzeko.

Konstituzioko 9.2 artikuluan ezarritakoa aztertzen badugu, ados egongo gara azpimarragarriena –eta zailena– askatasunaren eta berdintasunaren funtsezko balioak erretorika hutsean ez geratzeko eta benetakoak eta eragingarriak izateko xede horretan datzala: hori guztiz bat dator **estatu sozial** delakoa definitzen duen izaerarekin. Dena den, beste zerbait ere idatzi dut etzanez: “gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen”. Nire ustez, konstituziogileek bete-betean asmatu zuten **taldeak** aipatuta, hau da, askatasunaren eta berdintasunaren errealitate sozialak **gizabanako** hutsera ez murriztuta. Neoliberalismoa hedatzen ari den garaioan, eta neoliberalismoaren enfasi eta etengabeko azpimarra indibidualismoa²⁰ eta egiturak nahiz instituzioak desegin beharra den honetan,

funtsezkoa da ikuspegi komunitaristari eustea eta hura garatzea, eta, aurreko iruzkinean adierazi dugun bezala, baita pertsona nozio eta kategoria erlazionala sartzea eta gehiago garatzea ere, pertsona oro testuinguru sozial eta kultural zehatz batzuetan hazten eta garatzen den heinean.

9.2 artikuluari buruzko gure parafraasi eta oharretatik, idatz dezagun esaldiaren azken zatia. Izan ere, artikuluan zehazten denez, botere publikoei dagokie zer eta “oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta hiritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere”. Garrantzitsua, bidezkoa eta inspiratzailea da bai **osotasuna** aipatzea –askatasunarena²¹ eta berdintasunarena²²– eta bai gizarteko zenbait arlo eta mailatako **parte-hartzea** aipatzea. Horrek guztiak era askotako gogoeta eta behar-beharrezko ekintza ugaritarako bidea zabaltzen du, migratzaileekiko (ere); batik bat, haien askatasuna, berdintasuna eta parte-hartzea eragozten edo izugarri zailtzen duten “**oztopoak** kentzea”-ri dagokionez: oztopo juridikoak, lan-arlokoak, informatiboak, kognitiboak, hizkuntzakoak, psikologikoak, etab.

1.1 artikuluan **sozial** adjektiboa gehitzeari buruzko gure bigarren lagin edo adibide azpimarragarri gisa I. tituluko hirugarren kapitulua aipatuko dugu, “Politika sozial eta

20. Gogoratu dezagun Margaret Thatcher-en 1987ko esaldi erradikal hura: “Gizarterik ez dago. Gizabanakoak daude, gizonezkoak eta emakumezkoak, eta familiak daude”.

21. Askatasunaren osotasun horrek, askatasun eta eskubide guztien multzo zabalarri erreferentzia egiteaz gain (ikus 1978ko Konstituzioko 1. titulu guztia, hau da, 10. artikulutik 54.era), Erich Fromm-ek iradokitako bereizketa dakarkigun gogora: askatasun negatiboa edo *zerbaitetatik askatzea* (tiraniatik, zapalkuntzatik, esplotaziotik, diskriminaziotik, indarkeriatatik, etab.) eta askatasun positiboa edo *zerbaitetarako askatzea* (zerbaiten parte izateko, elkarrekin denon etxea eraikitzeo, etxe horretan norberaren identitatea eta kultura adierazteko, etab.).

22. Berdintasunari dagokionez, osotasun horrek berekin dakar hauek guztiak bermatzea eta eraikitzea: eskubideen eta betebeharren berdintasuna, tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna, genero-berdintasuna...

ekonomikoaren gida-oinarriak” izenburukoa, 39. artikulutik 52.era bitartekoak biltzen dituena. Titulu guztia zehatz aztertzea ezinezkoa denez, zer gai lantzen diren zerrendatuko dugu, hori nahikoa baita ikusteko zer lotura estua duen Konstituzioko erabaki horrek jatorriz atzerrikoak diren pertsonen kokapen **sozialari** dagokionarekin.

Izenburuak dioten bezala, hirugarren kapitulu horretan zenbait gida-oinarri zehazten dira, hainbat arlori buruz: familiaren eta haurren babesa, errentaren birbanaketa, enplegu osoa, lanbideko heziketa, lan-baldintzak, gizarte-segurantza, atzerrian ari diren langile espainiarrak, osasuna babestea, kirola sustatzea, kultura eskuratzea, ingurumena eta bizi-kalitatea, ondarea, etxebizitza, gazteria, desgaitasunen bat duten pertsonak²³, zahartzaroa, kontsumitzaileak eta lanbide-antolakuntzak.

Ezin dut hemen egin, baina hauxe iradokitzen dut: eztabaida publiko eta demokratikoan pertsona migratuen inklusioaren aldeko oinarriak emateko eta zurrumurruen aurkako estrategiak sendotzeko, oso baliagarria eta eragingarria izango litzateke informazio fidagarria erabiliz aztertzea zer arazo dauden eta zenbateraino egin den aurrera “politika sozial eta ekonomikoen” gaineko agindu konstituzional horien betetzean, eta bi ikuspegitatik aztertzea gainera: biztanleria guztiaren ikuspegitik, eta nazional autoktonoen, nazionalizatu berrien, Europar Batasuneko atzerriarren eta Europar Batasunaz kanpoko atzerriarren arteko antzekotasunak (puntu partekatutakoak) eta desberdintasunak (gai espezifikoak) ere aztertuz.

Estatu demokratikoa eta migrazioak

Estatu **sozial** kalifikatzailearekin gertatzen den bezala, **sistema demokratiko** edo oro har **demokratiko** zer den ere modu askotara uler daiteke

eta hori ere 1978ko Konstituzioko artikulua ugaritan garatzen eta zehazten da²⁴. Kasu honetan ez diogu aurreko arrazoibideari jarraituko, eta, bereziki esanguratsuak diren artikulua batzuk migrazioen ikuspegitik iruzkindu beharrean, **demokraziaren lau ezaugarri**²⁵ oinarri hartuta arituko gara.

Lehenik eta behin, demokrazia “herriak herriarentzat” **gobernatzeko sistema** den heinean, galdera hau sortzen da: *herriaren parte al dira jatorriz atzerrikoak diren migratzaileak?* Izan ere, *herri* kategorია –bide batez esanda, 1978ko Konstituzioan zenbait aldiz aipatzen da²⁶– oso polisemikoa da eta zenbait saiakera zientifiko-sozialetan aztertu da; batik bat, antropologiaren eremutik²⁷. *Herri* nozio eta terminoa estatu-nazioekin lotuta dator batzuetan (frantses edo alemaniar herria, adibidez), baita estaturik gabeko nazioekin lotuta ere (bretoi edo hanburgotar herria, esaterako); hor ditugu, hain zuzen, *pueblo español* edo espainiar herria eta, orobat, euskal herria, *poble catalá*, *povo galego*, *pueblo andaluz*, *pueblo murciano*... Baina udalerrri jakin baten adiera ere izan dezake, edota bestelako kategoría batzuk aditzera eman: sozioekonomikoa, gizarte-klasea, behe-mailakoena, etab.

23. Horrela adierazi dugu jada hemen, 2024ko urtarrilaren 18an Kongresuko osoko bilkura bereziaren erabakiz aldarazi egin zirelako Espainiako Konstituzioko 49. artikuluan lehen zetozen terminoak: “elbarri fisiko, zentzumen-elbarri eta elbarri psikiko”.

24. Demokrazia-sailkapen eta -adierazle bat baino gehiago daude. *Democracy Index* delakoak, adibidez (*The Economist* hedabideak egiten du), 167 herrialdetako informazioa biltzen du, hirurogei adierazletan oinarrituta. Adierazle horiek bost kategoriatan sailkatzen ditu (hauteskunde-prozesua eta pluralismoa, askatasun zibilak, gobernuaren funtzionamendua, parte-hartze politikoa eta kultura politikoa), eta, emaitzen arabera, herrialdeak lau multzotan sailkatzen ditu: demokrazia osoak, demokrazia inperfektuak, erregimen hibridoak eta erregimen autoritarioak.

25. Demokraziaren lau ezaugarri horiek zehatz samar landu nituen hemen: Carlos Giménez (2020), “La mediación y las metodologías participativas de resolución de conflictos como vía para el fortalecimiento de la democracia”, *Riesgos globales y multilateralismo: el impacto de la COVID-19*, Madril, CEIPAZ urtekaria, 2019-2020, 127.-144. or..

26. Hitzaurrean bertan, “Espainiako herriak” eta “Lurreko herriak” aipatzen dira, baita “Espainiako herria” ere. Eta 1.2 artikulua, berriz, honela dio: “Nazioaren subiranotasuna Espainiako herrian datza, eta hortik sortzen dira estatuaren botereak”.

27. Adibidez, hemen: Velasco Maillo (1992), “El significado de cultura y el significado de pueblo. Una historia inacabada”, in REIS, *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 60. zk., 7.-26. or.

Nazioarteko migrazioei buruz ari garela, galdera da ea jatorriz atzerrikoak diren pertsonak eta haien taldeak **herriaren** parte diren edo ez, ea **bertakoek** herri horretako kide izaten diren edo ez, ea pertsona migratuek (eta jada bertan finkatuak eta errotoak daudenek) orain bizileku duten herri horretako kide izatearen sentimendua duten edo ez... Erantzuna ezezkoa bada, demokratikoa al da (“herriak herriarentzat gobernatzeko sistema”) subiranotasunaren oinarri den herri horretatik kanpo sektore zabal-zabal bat uzten duen nazio bat, gizarte bat, estatu bat?

Bigarrenik, demokrazia, gobernu-modu bat izateaz gain, **hiritartasuna egiaz gauzatzea** da; hots, “gizaki aske eta berdin”-en arteko harreman aldarrikatu eta irrikatu hori bizitzea, eskubideen eta betebeharren titulartasun partekatu eta amankomun hori izatea. Alde horretatik, galdera da ea gizarte bat, biztanleriaren zati handi bat ez-hiritartzat edukita (*denizens*), erabat demokratikoa den. Modu positiboan honela esan genezake: migratzaileak **hiritar gisa** gizartearen barnean egoteko eta sartzeko egiten den aurrerapauso orok (hiritartasun politikoaren eta hiritartasun sozialaren ikuspegitik) sistema demokratikoa sendotzea dakar, eta hori beti da garrantzitsua, are gehiago gaur egun, demokraziaren aurkako erasoak eta autokraziarako inboluzioa gero eta nabariagoak diren honetan.

Hirugarrenik, demokrazia bakearen aldeko apustua ere bada, gatazkei bakez heltzeko eta konpontzeko hainbat mekanismoren multzoa eta sistema den heinean (epaitegiak, arbitrajea, lagundutako negoziazioa, adiskidetzeta, bitartekaritza, etab.). Bada, demokraziaren beste alderdi eta balio handi horren ikuspegitik, galdera da ea migrazio-prozesuekin lotutako tentsioei eta gatazkei horrela heltzen zaien (ikastetxean edo

lantokian *hijaba* erabiltzea, hiri-espazioen erabilera, gazte-taldeak...) edo, aitzitik, eraso eta indarkeria erabiltzen diren (dela zuzeneko indarkeria fisiko edo hitzekoa, dela diskriminazioaren eta segregazioaren indarkeria egiturazkoa, edo dela indarkeria ideologiko, sinboliko edo kulturala, berdin dio mediatikoa, politikoa edo bestelakoa).

Azkenik, demokrazia ideia moral bat eta bizitzeko modu bat ere bada, eta, alde horretatik, gizartearen eta estatuaren izaera demokratikoan –1978ko Konstituzioko hasierako artikulua eta adierazpenak dioen bezala– zerikusia du baita ere pertsonok –gizarte, nazio, herri horretako kideok, alegia– nola jokatzeko dugun eta geure burua nola gobernatzeko dugun eguneroko bizitzan. Horrek maila mikrosozial, hurbileko eta egunerokoan dakarrenaz gain, pentsa dezagun zer nolako erronkak dakartzan demokraziaren beste dimentsio horrek, kontuan izanda biztanleriaren zati bat (autoktonoak nahiz jatorriz atzerrikoak direnak) ez dela sentitzen erabat demokrata, eta nahiago duela demokrazia ahul edo faltsu bat, edo **erregimen hibrido** bat (ikus 24. oharra) edota erregimen autokratiko bat.

Zuzenbidezko estatu eta migrazioak

Konstituzioaren hitzaurrean bertan, beste zenbait helbururen artean, honetarako nahi edo borondatea aldarrikatzen da: “**Bizikidetasun demokratikoa** bermatzea, Konstituzioaren eta legeen barruan, ordena ekonomiko eta sozial **zuzenaren** arabera” (letra etzana gurea da). Bizikidetzaren aipua nabarmendu dut, artikulua zehazten hasi baino lehen adierazia, gizartearentzat orokorrean balio izateaz gain zehazki **kulturarteko bizikidetzak** ezinbestekoak ere ari delako; alegia, adierazpen soziokultural askotarikoak dituzten pertsonen eta biztanleria-segmentuen arteko bizikidetzak (eta ez koexistentzia edo leku berean bizitze

hutsa, beste leku batzuetan ere adierazi dudan bezala).

Horretarako, harreman sozialek eta etnietatekoek errespetuzkoak eta lankidetzazkoak izan behar dute, ez bakarrik autonomia-erkidegoen berezitasun historiko, kultural eta linguistikoei dagokienez (Konstituzioak 2. artikuluan bertan aipatzen dituen “nazionalitate eta herrialde” horienak), baita gutxiengo autoktonoei (ijito-herria eta beste batzuk) eta gutxiengo aloktonoei (jatorriz atzerrikoak diren kolektiboak) dagokienez ere.

Zuzena adjektiboa ere nabarmendu dut (bidezkoa, alegia), nolako ordena ekonomiko eta soziala lortu nahi den adierazten ari baita hor, eta ez dago inondik ere sobera gogoratzea ez direla gauza bera **zuzenbidezko estatua eta justiziazko estatua**. Edonola ere, garbi dago estatuaren hirugarren kalifikatzaile hori, **zuzenbidezkoa**, zabal garatuta dagoela (legearen inperioa, botereen independentzia, etab.²⁸), eta ezin izan zitekeen bestela **demokratikoa** den eta helburutzat **soziala** izatea –hau da, ordena ekonomiko eta sozial zuzena izatea– daukan konstituzio batean.

Baina, ehunka mila pertsona behin eta berriro eta etengabe behin-behinekotasun juridiko itzelean eta gerora sortutako irregulartasun-egoeran bizi badira, zuzenbidezko estatu erabatekoa da? Oinarrizko eskubideak parekatuta ez badaude, bada? Gai horretan ere gauza on asko dago eginda eta abian, baina oraindik asko dago egiteke.

Laburbilduz, egin berri dugun analisi horrek nahikoa behar luke ondo oinarrituta baieztatzeko migrazioaren auziak eragin zuzena duela **zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoaren** muinean eta, are, haren garapenean. Edonola ere, gogoeta horiek beste bi argudio-ildorekin ere osa daitezkeelakoan gaude, eta horri ekingo diogu orain.

Egiturazkoa da

Migrazioaren fenomenoaren eta biztanle migratuak **egiturazko zerbait** dira; hau da, **Espainiako gizartearen osagai** dira. Immigrazioa eta pertsona migratuak ez dira ez hondarreko ez noizean behingo zerbait, edo, beste modu batean esanda, ez dira izaera edo iraupen koiunturalekoak izanik desagertzera joko duten zerbait.

Gogoratu dezagun zer den egitura zientzian, bai materiaren eta biziaren zientzietan eta bai gizarte-zientzietan: elkarren artean antolatuta dauden hainbat zatiz osatutako osotasun bat. Eta definizio labur eta aho batez onartutako horretatik abiatuta baieztatu dezakegu biztanle migratuak (gaur egun sei milioi pertsona baino gehiago) **estatua den osotasun sozialaren “parte” bat** direla (estatua nazio edo herrialde gisa ulertuta), eta estatu **horrek zerbitzatzen duen gizartearen parte garrantzitsu bat** ere bai (estatua, hor, botere, administrazio eta zerbitzu publikoen multzo gisa ulertuta).

Gainerakoan, gehitu behar da jatorriz atzerrikoak diren biztanleak Espainiako gizarte-egituraren *parte* direla, ez bakarrik sektore soziodemografiko eta kultural zabal eta garrantzitsua direlako (barne-aldaera guztiekin, ez dezagun ahaztu), baita beste arrazoi batengatik ere: migrazioaren auzia ez delako pertsona migratuei bakarrik dagokien eta pertsona migratuetara bakarrik mugatzen den estatu-gai bat (bizileku-estatusa, baimen-motak eta baimen horiek lortzeko izapideak, behar espezifikoak, jokabideak, akulturazio-prozesuak...), baizik eta biztanle autoktonoak, **biztanle ez-migratzaileak bai edo bai barnean sartzen dituzten** hainbat prozesu, gertaera eta egoeraren multzo bat.

28. Adibidez, 9.1 artikulua honela dio: “hiritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta antolamendu juridikoaren gainerako arauen menpe daude”. Eta 9.3 artikulua, berriz: “Konstituzioak bermatzen ditu legezketasun-printzipioa [...]”.

Eta hainbat mailatan eragiten die gainera: paisaia sozial berrira eta dibertsifikazioaren egunerokora egokitu behar da; pertsonarteko harremanak eta harreman sozialak aldatzen dira; nahasketen ondorioz, familia mistoak, fusioko arte-adierazpenak eta abar sortzen dira; gehiengoaren aldetik inklusioko edo esklusioko portaerak gertatzen dira; zerbitzu publikoak partekatu behar dira; ikastetxe, ospitale, gizarte-zerbitzu, polizia eta abarretan egokitzapenak egiteko erronka profesional eta tekniko berriak sortzen dira... Horrek guztiak gizarte-bizitza guztiari eragiten dio; egiturazkoa da, sakoneko zerbait.

Beste zerbait ere badago, egiturazkoa den horren ikuspegitik. Migrazioaren auziak izatera estrukturala duela esaten ari gara –eta ez soilik koiunturala edo jazoerazkoa (*événementielle*)²⁹– eta egiturazkoa izate hori are argiago eta sendoago ikusten eta ulertzen da egituraren nozio horretan sakontzen badugu, **pentsemendu konplexuaren paradigma berrien** ikuspegitik.

Horretan Edgar Morin filosofo eta soziologoaren ekarpenei jarraituko diegu. Bere bizitza luzean (gaur egun 103 urte ditu) konplexutasunaren teoria gehien aztertu eta garatu duen pentsalaria da beharbada Morin. Zenbait lanetan³⁰ pentsemendu sinplearen hiru printzipioak³¹ eta pentsemendu konplexuaren zazpiak³² bereiziz eta aplikatuz joan da.

Jakina, liburu honen xedeak erruz gaintzen ditu konplexutasunaren teoria hori azaltzeko, labor-labor balitz ere, baita aztergai dugun gaian teoria horren aplikazioa zehatz samar garatzeko ere. Nire helburua da, alde batetik, gaur egun pentsemendu konplexua gero eta beharrezkoagoa dela adieraztea, eta, bestetik, eredu bidez erakustea hori migrazioaren auzi konplexuan aplikatzea zeinen aberasgarria izan daitekeen (ikuspegi heuristikotik). Hemen adibide

bakarrarekin erabiliko dut: egituraren nozioarekin lotuta, eta **osotasunaren** (Espainia eta munduko ingurunea) eta **zatiaren** (giza mugikortasuna eta immigrazioa Espainian) arteko loturari dagokionez.

Pentsemendu sinplean, osotasuna eta zatiak bereizi egiten dira, eta pentsemendu konplexuan, aldiz, zatien ezagutza sistematikoki osotasunaren ezagutzarekin erlazionatzen da, eta alderantziz. Aztertzen ari garen gaira aplikatuta: **ezin uler daiteke bete-betean Espainia migrazioak kontuan izan gabe, eta alderantziz**. Beste modu batean esanda: migrazioaren auzian nola doakigun (esklusioa/inklusioko), Espainiako gizartearen eraketan bide onetik edo okerrekotik goazen erakusten du, eta alderantziz.

29. Fernand Braudel historialariak emandako zentzuan ari gara. Hark sortutako teoriaren arabera, historian denborak hiru dimentsio ditu, elkarren artean lotuak: *jazoerazkoak* (edo *epe laburrekoak*), *koiunturalak* (edo *epe ertainekoak*) eta *egiturazkoak* (edo *epe luzeak*). Hain zuzen, migrazioaren fenomenoaren egunerokoa, Espainian adibidez, badira, denak aldi berean: a) oso unean uneko jazoerak edo gertaerak (albiste jakin hori, arau-aldaketa jakin hura...); b) koiuntura aldakorrek (ez dira gauza bera nazioarteko immigrazioa hasi zeneko koiuntura eta hasierako etapak, 1973tik 1990era bitartekoak, eta ordutik gertatu dena eta orain hasten eta zehazten ari den migrazio- eta gizarte-zikloa), eta c) oso iraupen luzeak egitura batzuk, orain arte adierazi eta nabarmendu dugun bezala (errotze familiarra, bikote mistoak, bigarren eta hirugarren belaunaldiak, nazionalizatu berriak, gizarte-eremu transnazionalak, etab.).

30. Ikus, adibidez, hau: Edgar Morin (1994), *Introducción al pensamiento complejo*, Bartzelona, Gedisa. Eta printzipioen laburpen xehea kontsultatzeko, beste hau: Eduardo A. Ibáñez (2008), *Las teorías del caos, la complejidad y los sistemas*, Homo Sapiens Ediciones.

31. Labor-labor esanda, pentsemendu sinplea da: 1) *analitiko-abstraktiboa* (osotasuna eta zatiak bereizten ditu); 2) *erreduktiboa* (ez ditu kontuan hartzen antolamenduaren goi-mailan gertatzen diren *propiedade emergenteak*), eta 3) *disjuntiboa* (aurkakoez elkar baztertzen dute, kontraesankorrak balira bezala) (Ibáñez, 2008, 113. or. eta hurrenak).

32. Labor-labor esanda, pentsemendu konplexua da: 1) *sistemikoa* edo *antolakuntzako* (besteak beste, zatien ezagutza osotasunaren ezagutzarekin erlazionatzen du, eta alderantziz); 2) *hologramatikoa* (osotasunak eta zati bakoitzak konfigurazio berbera dute); 3) *atzerageraginekoa* (kausak efektuak gainean eragiten dute, eta efektuek kausen gainean atzeragaitzen dute; zirkularitatea); 4) *errekurtsibitatekoa* (prozesu konplexuetan, produktuak ezinbestekoak dira produktuak berak produzitzeko; autopoiesia); 5) *dialogikoa* (aurkakoez elkar osatzen dute); 6) *subjektu epistemikoa* (ezagutza-objektuan birsartzeko (subjektu ezagutzaileak ez du errealtatea islatzen; aitzitik, errealtatea hizkuntza jakin batean itzultzen du), eta 7) *autonomiako* edo *menpekotasuneko* (sistema auto-eko-antolatua sistema irekiak dira, eta ingurunearekiko autonomia erlatiboa eta menpekotasuna dute) (Ibáñez, 2008, 113. or. eta hurrenak).

Hau da, hasierako esaldira itzulita, migrazioak eragin zuzena du zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoaren **muinean eta garapenean**. Eta atzeraeraginaren printzipioaren ikuspuntutik pentsatuta, nazioarteko kausek eta estatuko faktoreek eragina dute migrazioaren auzian, eta, aldi berean, efektu edo ondorio horiek (gorroto-delituak eta istiluak versus bizikidetzak, ghettoak versus nahasketa, diskriminazioa versus tratu-berdintasuna, etab.) eragina dute horien onuradun edo kaltetu partikularrengan, bai eta estatuko errealitatean eta nazioartekoan ere. Ikus dezagun hori xeheago eta politika publikoen ikuspegitik.

Migrazioaren kudeaketaren inpaktuek osotasun guztian dute eragina

Konstituzioa aztertu dugu eta migrazioaren fenomenoaren izaera estrukturalaz aritu gara. Orain, migrazioaren auziak gure sistemaren muinari eta bihotzari eragiten diola azaltzeko beste argudio-ildoari eta arrazoi osagarriari helduko diogu, eta politika publikoekin eta esku-hartze sozialarekin du zerikusia; zehatzago, **migrazioen erronken**

kudeaketak nolako inpaktuak dituen gizartearen osotasunean: positiboak edo negatiboak. Biztanleriako subjektu berriak gizartearen barnean egoteko planetan, politiketan eta programetan asmatzen ez bada, hortik aterako den estatua ezin izango da **sozial, demokratiko** eta **zuzenbidezko**-tzat hartu (ez behintzat erabatekotzat), Konstituzioak halakoa behar duela esan arren, egokiro esan ere.

Hori erakusteko, hiru laburpentxo erabiliko ditut, Espainiako errealitateak estatua soziala, demokratikoa eta zuzenbidezkoa izateari dagokienez zer indargune eta ahulgune dituen azaltzeko, betiere giza eskubideen, inklusioaren eta bizikidetzaren ikuspegitik. Laburpen horiek taula banatan ikusi aurretik, hiru ohar argigarri egitea komeni da:

1. ez dira behin betiko tesiak, baizik eta **gogoetarako eskemak**;
2. ez dira inondik ere taula sakon eta zehatzak, baizik eta funtsezkoak iruditzen zaizkidala-eta hautatu ditudan gai batzuk, eta
3. ez daude lerroz lerro kontrajarrita edo parekatuta (salbuespenak salbuespen, hala nola udal-hauteskundearen gaian boto-eskubideari buruz adierazitakoa).

17. taula. Espainiako errealitatearen indarguneak eta ahulguneak, Estatu soziala izateari dagokionez

	Alde onak	Alde txarrak
1	Inklusioaren aldeko jarrerak eta jokabideak, bai hiritarrek eta gizarte zibilean, bai erakundeetan (udalerrriak, ikastetxeak...).	Diskriminazioak (enpleguan, etxebizitza eskuratzean, polizien zenbait jokaeratan...).
2	Harrera egiteko, bizikidetzak zaintzeko, kulturartekotasunaren aldeko eta zurrumurruen aurkako plan, politika eta neurri ugari.	Segregazioak (hezkuntza-sistemako desorekak, auzo baztertuak...).
3	Profesionalak prestatzeko eta birziklatzeko ekintzak (aniztasunari arreta egokia ematekoa, bitartekaritzaren arloan...)	Diskurtso eta eraso arrazistak eta xenofoboak.
4	Sentsibilizazio positiboko kanpainak eta zurrumurruen aurkako estrategiak.	Gorroto-delituak eta istiluak.

18. taula. Espainiako errealitatearen indarguneak eta ahulguneak, Estatu demokratikoa izateari dagokionez

	Alde onak	Alde txarrak
1	Udal-hauteskundeetan botoa emateko eskubidea zenbait kolektibo nazionalak.	Udal-hauteskundeetan botoa emateko eskubiderik ez kolektibo askok.
2	Jatorriz atzerrikoak diren pertsonak sartzea alderdi politikoetan, hauteskunde-zerrendetan eta kargu publikoetan (parlamentuak, udalak...).	Parte hartzeko oztopo espezifikoak (informazioari buruzkoak, juridikoak, psikologikoak...).
3	Jatorriz atzerrikoak diren pertsonak parte hartzea hainbat esparru eta elkartetan.	Ideologia eta jokabide antidemokratikoak autoktonoen eta atzeritarren zenbait sektorek..

19. taula. Espainiako errealitatearen indarguneak eta ahulguneak, Estatu zuzenbidezkoa izateari dagokionez

	Alde onak	Alde txarrak
1	Eskubideen aldeko erakunde ofizialak eta zibilak egotea; besteak beste, jarraipenak eta salaketak egiten dituzte, baita migratzen ari diren pertsonen dagokienez ere.	Behin-behinekotasun juridikoko egoerak eta irregularren sektorearena behin eta berriro gertatzea.
2	Erregularizazio -prozesuak, zenbait formularen bidez.	Mugan arreta juridikoa emateko dauden hutsuneak eta jendea "beroan" itzultzea.
3	Segurtasun-gorputzen prestakuntza aniztasunari arreta egokia emateari dagokionez, eta polizia-unitate espezifikoak sortzea.	Mugako zenbait gertaeratan indarkeria neurrigabe erabiltzea.

Arrazoiketaren laburpena

01 1978ko Konstituzioa, eta hartatik eratorritako legeen multzoa, guztiz estu eta zabal lotuta dago migrazioaren fenomenoarekin, eta aplikatu eta bete dadila zuzenean interpelatua da, hiru alderditatik, borondatea aldarrikatzen baitu: a) "ordena ekonomiko eta sozial zuzena" izateko; b) "gizarte demokratiko aurrerakoia" ezartzeko, eta c) "Zuzenbidezko Estatu" indartzeko.

02 Migrazioaren fenomeno eta biztanle migratuak **egiturazko zerbait** dira; hau da, Espainiako gizartearen osagai dira. Eta, beraz, gizartearen osotasunari eta herrialde, nazio eta estatu gisa duen definizioaren muinari eragiten diete.

03 Biztanleriako subjektu berriak gizartean bertan egoteko planetan, politiketan eta programetan asmatzen ez bada, eta bizikidetza, hiritartasuna eta kulturartekotasuna sustatzekoetan ere kale egiten bada, hortik aterako den estatua ezin izango da **sozial, demokratiko eta zuzenbidezko**-tzat hartu -ez behintzat erabatekotzat-.

Iturriak eta materialak

~txostenak

El efecto de la inmigración en la sostenibilidad a medio y largo plazo del sistema de pensiones en España (Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzaren dokumentua.
<https://www.seg-social.es/descarga/100618>)

The fiscal impact of immigration in OECD countries (OCDEren dokumentua, 2013koa.
<https://www.oecd.org/els/mig/IMO-2013-chap3-fiscal-impact-of-immigration.pdf>)

La inmigración en España hoy. Reflexiones más allá de la pandemia (Alternativas fundazioaren dokumentua, 2022koa. <https://fundacionalternativas.org/wp-content/uploads/2022/07/fbee6512272af04d96b410d21cbf808d.pdf>)

La contribución de la inmigración a la economía española (Herriaren Defendatzailearen laneko dokumentua, 2019koa. https://www.defensordelpueblo.es/wp-content/uploads/2020/05/II_Estudios_documentos_de_trabajo_2019)

~akademia

El impacto de la inmigración en una sociedad que se transforma (Nafarroako Gobernuaren artikulu akademikoa. <http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/DB78932D-2BBE-4387-B9D9-761FB8A5D52E/189154/INTRODUCCION.pdf>)

El impacto demográfico de la inmigración en la España rural despoblada (Elkano Errege Institutuaren artikulu akademikoa, 2010eko irailekoa.
<https://www.realinstitutoelcano.org/documento-de-trabajo/el-impacto-demografico-de-la-inmigracion-en-la-espana-rural-despoblada/>)

~gizarte-erakundeak

¿Cómo contribuyen los migrantes a la sociedad? (OIM Nazioarteko Migrazio Erakundearen artikula.
<https://rosanjose.iom.int/es/blogs/como-contribuyen-las-personas-migrantes-la-sociedad>)

~prentsa / komunikabideak

Health and Social Effects of Migration (Faculty of Public Health elkartearen artikula.
<https://www.healthknowledge.org.uk/public-health-textbook/medical-sociology-policy-economics/4c-equality-equity-policy/migration>)

Las políticas de integración en España según el índice MIPEx (CIDOBen artikula, 2020ko abendukoa.
https://www.cidob.org/es/publicaciones/serie_de_publicacion/notes_internacionales_cidob/244/las_politicas_de_integracion_en_espana_s_egun_el_indice_mipex)

La paz social de España no durará sin esfuerzos por integrar a los migrantes (El País egunkariko artikula, 2023ko uztailakoa. <https://elpais.com/planeta-futuro/3500-millones/2023-07-12/la-paz-social-de-espana-no-durara-sin-esfuerzos-por-integrar-a-los-migrantes.html>)

La migración, un fenómeno estructural (Esglobal hedabideko artikula, 2020ko azarokoa.
<https://www.esglobal.org/la-migracion-un-fenomeno-estructural/>)

21.

“Migratzaileak eta migrazioak garapenaren eragile eta koprotagonistak dira”

LANDUTAKO GAIAK

garapenaren teoriak, postgarapena, transnazionalismoa, migrazioen ekarpenak eta ondorioak, demografia, ekonomia, fiskalitatea, diru-bidalketak, berrikuntza; koprotagonismoa

Inklusioaren alde eta migrazioaren auziari dagokionez balia daitezkeen argudio-ildo zorrotz eta eraginkorrenetako bat da erakustea migrazioek –estatu barrukoek nahiz nazioartekoek– eta, beraz, migratzaileek nahiz migratzen ari direnek garapena gerta dadin laguntzen dutela, bai orokorrean edo mundu mailan, bai estatu mailan; hau da, jatorriko herrialdeak garatu daitezzen laguntzen dute, eta herrialde hartzaileak edo helburukoak garatu daitezzen ere bai.

Gure hausnarketaren hasiera gisa, esan dezagun argudiaketa-**eskema** horrek gutxienez hiru **ahulgune** dituela; kontuan izan beharreko –eta aurreikusitako eta gaitutako beharreko– hiru eragozpen, beraz. Azter ditzagun.

Lehenik eta behin, **utilitarismoan** erortzeko arriskua dago. Jarrera hori honela parafrasea daiteke: “onartzen ditugu migratzaileak edo migrazioa, baina soilik edo nagusiki gure ekonomiarako **onuragarriak** direlako”. Kasu honetan, berriro ere **bihurketa-efektu** baten aurrean gaude, Pierre Taguieff politologo eta historialariak oso modu egokian emandako hitzak erabiliz. Hau da, elkar ulertzea, onartzera eta inklusiora bideratutako argudio bat (“migratzaileek lagundu egiten dute”, etab.) itzulipurdikatu egiten da (parafraseatuz, “onartzen zaitut, baina onuragarria bazara bakarrik”), eta hori jarrera baztertzailerako edo politikaren xenofoboetarako oinarri izan daiteke: adibidez, “lanean ari badira, tira; baina lanean ari ez badira, zer egiten dute hemen! Doazela beren herrira!”.

Kontuan izan beharreko bigarren kontu edo ahulgune bat, gure argudio ditxosozko hori ez idealizatzeko, hau da: **migrazioen ondorio guztiak ez dira positiboak** (nahiz eta horiek askotarikoak eta garrantzitsuak diren, gero ikusiko dugun bezala), eta nahi ez genituzkeen ondorioak ere izaten dituzte askotan; adibidez, jatorriko herrialdeetan ‘talentua’ galtzea edo aditu-ihesa gertatzea, eta harrerako herrialdeetan talentu edo aditu horiek baliatuz soldatak apaltzea edo izoztea, edo lan-baldintzak hobetzeko ahaleginak geldiaraztea edota okertzea (**“erreserbako armadaren faktorea”**)³³.

33. Karl Marxek, 1870eko gutun batean, honela idatzi zion Sigfrid Meyer eta August Vogt burkideei: “Irlandak bertako soberakina etengabe bidaltzen du lan-merkatu ingelesera, eta, beraz, jaitsarazi egiten ditu Ingalaterrako langile-klasekoen soldatak eta maila material eta morala”. Aurreko urtean, Engels adiskide minari hauze idatzi zion gutunez, ez hain tonu analitikoan, AEBko trenbideetako langileen esplotazioarengatik kezkatuta eta haserre: “Kaliforniarako trenbidea egiteko... jendaila txinatarra inportatu zuten, soldatak apaltzeko”.

Hirugarren alderdia sakoneko eragozpen bat da eta bereziki kezkatzen gaitu: joan den mendearen amaieratik aurrera, zenbait autore eta hedabidetan, **garapenaren nozioaren beraren aurkako kritika erabateko bat sendotuz joan da**. Kritika horietan, garapena Modernizazioaren garaiko kategoriatzat hartzen eta aztertzen da, eta Mendebaldearen menderakuntzaren nozio bat da, inperialismo kolonialistarekin estuki lotua. Horregatik, gure argudio bat baldin bada, hain zuzen, migrazioa eta migratzaileak garapen-eragile direla, baita **garapenaren koprotagonista** ere (ausartuko naiz hori esatera), ezinbestean azken hori argitu behar dugu, eta, beraz, iruzkin honetan **garapen** guretzat zer den definitu.

Garapenaren gaineko eztabaida

Gaur egungo garapen kategorია, jada XVI. mendean ingelesez erabili bazen ere³⁴, XX. mendearen hasierako hamarkadetan sortu zen indartsu, ekonomiaren eta plangintzaren zientziarekin eta praktikarekin lotuta, 1929ko Depresio Handiaren osteko AEBko *New Deal* delakoaren eta Sobietar Batasuneko plangintzaren pean³⁵. Ordudanik, ekimen, kontzeptualizazio eta makina bat adjektibazioren zerrenda luze eta polimorfoa izan ostean (**nazio-, eskualde-, toki-** eta **landa-garapena** nahiz **garapen komunitarioa, behetik gorakoa...; giza garapena, etnogarapena, identitateduna, kogarapena, garapen jasangarria**, etab.), nozio eta tresna hori ardatz eta muin bihurtu da erakundeen nahiz lankidetzaren munduaren plangintzetan eta diskurtso eta praktiketan.

Hainbesterainoko zentralitatea hartu du, bereizgarri unibertsaltzat edo gizarte globalaren ezaugarritzat ere hartu baitzen, **proiektu** terminoarekin eta kategoriarekin batera (Robertson, 1984). Zalantzarik gabe,

zentralitate osoa du bai nazioarteko erakundeetan (Nazio Batuen Garapen Programaren Milurtekoko Helburuak) eta mundu mailako agendetan (2030 Agenda eta hango Garapen Jasangarriako Helburuak), bai estatuen eta instituzio eta erakunde publikoen ekintzetan, baita gizarte-erakunde, fundazio eta aholkularitza ugariren diskurtso eta ekimenetan ere (garapenerako plan orokorrak, politika ekonomikoak, hiri-garapena eta auzoena...). Bestela esanda, garapen hitza eta kategoria nonahi dago, eta masiboki erabiltzen da

Bada, ordutik –eta dagoeneko **garapenaren garapenean** mende luze daramagu–, eztabaidagai izan da garapentzat zer ulertu behar dugun. Gainera, ez da soilik etenik izan ez duen eztabaida bat, *in crescendo* joan den eztabaida bat baizik. Hainbesteraino, azken hamarkadetan zenbait giro eta eremu akademikotan, gizarte-mugimenduetan nahiz ekintzaileen artean eta, azken batean, pentsamendu kritiko eta alternatiboko mugimenduetan indar handia hartuz joan baita garapenarekiko kritika erabatekoa, salatuz Modernitatearen ideologia eta praktika bat dela, Mendebaldearen menderakuntza kolonialistaren kategoria bat, alegia. Jarrera kritiko hori hasieran kontrahegemonikoa izan zen; duela urte batzuetatik, ordea, eragin ia hegemonikoa du arlo geopolitiko eta pentsamendu-esparru batzuetan, eta, edonola ere, garrantzi handikoa da. .

34. Development hitzaren historiaz gehiago jakiteko, lan hau kontsulta daiteke: Raymond Williams (1985), *Keywords. A vocabulary of Culture and Society*, Oxford University Press (argitalpen berrikusia; lehen argitalpena, 1976).

35. Gaur egungo garapen, plangintza eta proiektu nozioei buruz, lan hau kontsulta daiteke: Alexander Robertson (1984), *People and the State*, Cambridge University Press.

Egia da **garapenaren** teoria **klasikoez** edo berriez ari diren lanak argitaratzen jarraitu dela (esaterako, Kearneyrena, 1986koa, hiru teoria nagusiri buruz³⁶, edo Massey, Arango eta beste batzuek 2000n argitaratua, askoz teoria gehiagoren ikuspegi panoramiko bat emanez³⁷, edo Bustelorena, 1998koa, garapen ekonomikoan ardaztuta³⁸), baina berrikuspen gehien-gehienetan eztabaiden eta jarrera kritikoen berri ematen da. Aipa ditzagun, adibide modura, 1990eko hamarkadako lan batzuk: Latouchek, 1993an (duela hogeita hamar urte, beraz), postgarapenaren nozioa eman zuen³⁹; Sachsek koordinatutako bilduma batean, 1996koa, ezagutzaren eta boterearen arteko loturak aztertu ziren⁴⁰, eta Gimeno eta Monrealek taxututako testu-bilduman, 1999koa, eztabaidak sistematizatu ziren⁴¹.

Mende honetako lehen hamarkadan ildo kritiko horretan izandako mugarririk biltzen baditugu, aipatu beharrekoak dira, besteak beste, lau hauek: Risten ekarpen historizista (2002), garapena *Mendebaldeko* sinesmen gisa azaldu zuena⁴²; Uncetarena (2009), garapenaren gaineko eztabaidak eta haien ondorio askotarikoak diziplina-zeharkakotasunaren ikuspegitik lantzen dituen⁴³; zenbait egileren artean 2009an argitaratutako lan kolektibo bat, “mito baten azken hatsa” eta “garapena nola birformulatu” aztergai dituen⁴⁴, eta Bretónek apailatutako antologia (2010), garapenari nahiz garapenak hitzematen dituen etorkizun ederrei buruzko ikuspegi kritikoen ingurukoa⁴⁵. Eta gerora ildo horretako beste lan batzuk argitaratzen jarraitu da; adibidez, Gudynasena (2011), Latinoamerikan ardaztua eta *Más allá del desarrollo* izenburu esplizitua duen liburu kolektiboaren barruan argitaratua⁴⁶, eta berehala aipatuko ditudan beste batzuk, espezifikagoak.

Paradigma berri eta multzo guzti horretan bereziki garrantzi eta eragin handia dute, nire ustez, Arturo Escobarrek **garapenari** egindako kritikek eta ekarpenek (1997, 2000, 2005, 2006, 2012 eta 2014)⁴⁷. Jarrera eta iritzi horiei bestelako kritika batzuk gehitu zaizkie, beste ertz eta ikuspegi batzuetatik eginak:

36. Kearney, M. (1986), “From the Invisible Hand to Visible Feet: Anthropological Studies of Migration and Development”, *Annual Review of Anthropology*, VI. liburukia, 331.-361. or.

37. Massey, D.S.; Arango, J., et al. (2000), “Teorías de la Migración Internacional: Una Reseña y una Evaluación”, *Migraciones y Mercado de Trabajo* monografikoa, Trabajo aldizkaria, 2. urtea, 3. zk., 5.-50. or.

38. Bustelo, P. (1998), *Teorías contemporáneas del desarrollo económico*, Bartzelona, Síntesis.

39. Latouche, S. (1993), *El planeta de los naufragos. Ensayo sobre el postdesarrollo*, Madril, Acento.

40. Sachs, W. (ed.) (1996), *Diccionario del desarrollo. Una guía del conocimiento como poder*, Lima, Proyecto Andino de Tecnologías Campesinas. Antologia horretan, nire ustez, bereziki garrantzitsua da Gustavo Esteva-ren saiakera (52.-78. or.).

41. Gimeno, Juan Carlos eta Monreal, Pilar (ed.) (1999), *La controversia del desarrollo. Críticas desde la antropología*, Madril, Libros de La Catarata, UCM Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko IUDC Garapenerako eta Lankidetzarako Institutu Unibertsitarioa, UAM Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Teknologia Berrien Soziologiako Institutu Unibertsitarioa.

42. Rist, G. (2002), *El desarrollo: historia de una creencia occidental*. Madril, Libros de la Catarata.

43. Unceta, K. (2009), “Desarrollo, subdesarrollo, maldesarrollo y postdesarrollo. Una mirada transdisciplinar sobre el debate y sus implicaciones”, *Carta Latinoamericana*, 7. zk.

44. Zenbait egile (2009), *La agonía de un mito. ¿Cómo reformular el “desarrollo”? Agencia Latinoamericana de Información*.

45. Bretón, V. (2010), *Saturno devora a sus hijos. Miradas críticas sobre el desarrollo y sus promesas*, Madril, Icaria. Lan horren barruan dago P. Vries-en saiakera hau: “Redimir la promesa utópica del desarrollo: hacia un mundo, una mundialización, una modernidad”.

46. Gudynas, E. (2011), “Debates sobre el desarrollo y sus alternativas en América Latina: Una breve guía heterodoxa”, in Miriam Lang eta Dunia Mokrani (ed.), *Más allá del desarrollo*, Grupo Permanente de Trabajo sobre Alternativas al Desarrollo, Quito, Ediciones Abya Yala eta Fundación Rosa Luxemburgo, 21.-55. or.

47. Escobar, A. (1997), “Antropología y desarrollo”, *Revista Internacional de Ciencias Sociales*, 154. zk. Haren ondoren argitaratu zuen, 2000. urtean, *La invención del Tercer Mundo. Construcción y deconstrucción del desarrollo*, Bogotá, Grupo Editorial Norma. Gerora, *Más allá del Tercer mundo*, Bogotá, Kolonbiako Antropologia Institutua. Eta “El postdesarrollo como concepto y práctica social”, in Daniel Mato (koord.), *Políticas de economía, medio ambiente y sociedad en tiempos de globalización*, Caracas, Venezuelako Unibertsitate Zentrala, 17.-31. or. Horiei gehitu zitzaizen, 2012an, “Más allá del desarrollo: postdesarrollo y transiciones hacia el pluriverso”, *Antropología Social*, UCM, 21. liburukia, 23.-62. or. Eta 2014an, Fals Borda-ren kategoria erabiliz, *Sentipensar con la tierra*, Medellín, Unaula.

- a. **behetik ahalduntzea** deritzonetik, adibidez, Kabeerrek (1998)⁴⁸;
- b. **feminismotik** eta **ekofeminismotik**, esaterako, Aguinaga, Lang, Mokrani eta Santillanak (2011)⁴⁹, eta
- c. **etnogarapenetik** eta, zehatzago, **andetarren mundu-ikuskeratik**, adibidez, Violak (2011)⁵⁰, Martínezek (2011)⁵¹, Rivera Cusicanqui (2014)⁵², Ulloak (2014)⁵³ eta Toledok (2014)⁵⁴.

Eta horiei gehitzekoak dira proposatu izan diren beste alternatiba batzuk ere, hala nola **eredu komunala** ardatz dutenak (ikus Patxi, 2011)⁵⁵ eta gaur egungo egoeratik **trantsizio** posibleak proposatzen dituztenak, esaterako, Gudynasek azaldutakoak (2012)⁵⁶.

Nire ustez, orain arteko eztabaidak aztertuta, **garapenaren auzia** dei dakiokkeenari buruzko hiru jarrera, korrante edo iritzi nagusi bereiz daitezke, oso modu eskematikoan laburbilduta eta kontuan izanda bakoitzaren barruan hainbat aldaera eta ñabardura daudela:

1. *De facto* planetan eta proiektuetan garapen kategoria lehengo berean **mantentzen** dutenak. Horien barruko azpimultzo batek garapena ia hazkunde ekonomiko hutsarekin parekatzen du, eta beste bat, hortik abiatuta, hazkunde ekonomikoaren inpaktu sozial eta ekologikoa nolabait zaintzen edo sartzen ahalegintzen da.
2. **Esanahia gaurkotzearen edo berrinterpretatzearen** alde gaudenak. Esanahiz berritze horretan, kontuan hartu behar dira, jakina, orain arte aurkeztutako alternatibak eta egin diren kritikak, eta gerta liteke zenbait alderditan bat etortzea bai kontinuitista berriztatzaileen azken azpimultzo horretakoekin eta bai haustura proposatzen dutenen ekarpen eta bertsio batzuekin.
3. Garapenaren nozioari berari, erroari eta praxiari buruzko ikuspegi kritiko horretan oinarrituta (lehen laburbildu dudana),

garapena erabat gainditzearen alde egiten dutenak, dela hura **deuseztatuz** (izaeraz koloniala eta menderakuntzako delako), dela beste ikuskera eta praxi batean eraldatuz. Lehen esan dudan bezala, azken aldaera hori bat etor liteke –ez eztabaidarik eta ñabardurarik gabe– berrinterpretatzearen aldeko jarrera dutenekin eta kontinuitista berriztatzaile deitzera ausartu naizenekin.

Hemen ezin dudanez eztabaida zabal eta garrantzitsu horretan guztian sakondu, soilik esango dut iruzkin honetako izenburutik bertatik hasita (“Migrazioak eta migratzaileak **garapenaren eragile**”) jada ari garela **garapen** kategoria erabiltzen, eta horrek berekin dakarrela garapentzat zer ulertzen dugun esplizatzea⁵⁷.

48. Kabeer, N. (1998), “El empoderamiento desde abajo: lecciones de las bases populares”, *Realidades Trastocadas*, Mexiko, Paidós, 237.-272. or.

49. Aguinaga, M.; Lang, M.; Mokrani, D. eta Santillana, A. (2011), “Pensar desde el feminismo: Críticas y alternativas al desarrollo”, in Miriam Lang eta Dunia Mokrani (ed.), *Más allá del desarrollo*, Grupo Permanente de Trabajo sobre Alternativas al Desarrollo, Ediciones Abya Yala eta Fundación Rosa Luxemburg, Quito, 55.-82. or.

50. Viola, C. (2011), “Desarrollo Bienestar e identidad cultural: del desarrollismo étnicida al sumaq kausay en los andes”, in Pablo Palenzuela eta Alessandra Olivi, *Etnicidad y desarrollo en los Andes*, Sevillako Unibertsitatea.

51. Martínez, C. (2011), “Etnodesarrollo en la revolución ciudadana en Ecuador: avances, ambigüedades y retrocesos”, in Pablo Palenzuela eta Alessandra Olivi, *Etnicidad y desarrollo en los Andes*, Sevillako Unibertsitatea, 173.-201. or.

52. Rivera Cusicanqui, S. (2014), *Mito y desarrollo en Bolivia. El giro colonial del gobierno del MAS*, Piedra Rota Plural Editores.

53. Ulloa, A. (2014), “Conocimientos, naturalezas y territorios. Repensando las alternativas al desarrollo a partir de prácticas y estrategias de los pueblos indígenas en Colombia”, in María Luisa Eschenhagen eta Carlos Eduardo Maldonado (ed.), *Un viaje por las alternativas al desarrollo*, Unibertsitate Pontifikal Bolivartarra eta Rosarioko Unibertsitatea, Bogotá, 119.-142. or.

54. Toledo, V. (2014), “Latinoamérica como laboratorio socioambiental: pueblos indígenas, memoria biocultural y cambio civilizatorio”, in María Luisa Eschenhagen eta Carlos Eduardo Maldonado (ed.), *Un viaje por las alternativas al desarrollo*, Unibertsitate Pontifikal Bolivartarra eta Rosarioko Unibertsitatea, Bogotá, 143.-162. or.

55. Patxi, F. (2011), *Tercer sistema. Modelo comunal: propuesta alternativa para salir del capitalismo y del socialismo*.

56. Gudynas, E. (2012), *Transiciones para salir del viejo desarrollo*, Centro Peruano de Estudios Sociales.

57. Eta are gehiago esaten ari garenean migrazioak eta migratzaileak **garapenaren koprotagonistak** direla.

Gure definizioaren eta berrinterpretazioaren arabera, garapena da **modu induzitu edo planifikatuan zenbait aldaketa multidimentsional lortzeko prozesuen multzoa**, zeinak, zenbait jardunbide tekno-ekonomiko, azpiegiturazko eta konektibitatezkoatik abiatuta,

1. aberastasuna eta enplegua sortzen duten, eta
2. jardun-ildo eragingarriak kontuan hartzen eta baliatzen dituzten, hauek hobetzeko:
 - a. biztanleen bizi-kalitatea;
 - b. ondasunen eta zerbitzuen banaketa ekitatiboa;
 - c. hiritarren sarea, tokiko demokrazia eta gizarte-kohesioa;
 - d. lurraldeen, komunitateen eta pertsonen ahalmena eta aukerak;
 - e. jasangarritasun ekologikoa.

Migrazioaren eta garapenaren arteko lotura

Garapen kategoria mantendu eta marko horretan berrinterpretatuta ulertzeak bide ematen digu migrazioaren auziaren inguruan zientoka orri idatzi diren gaietako bati heltzen jarraitzeko, eta ertz berrietatik heltzen ahalegintzeko, gainera. Zientoka orri idatzi baitira, etenik gabe idatzi ere, batik bat joan den mendeko berrogeita hamarreko hamarkadatik, Chicagoko Eskolaren duela ehun urteko migrazio-ikerketen hastapenetatik ez esatearren (Thomas, Park, Burgess, Tryer, etab.), edota, lehenago ere, XIX. mendearen amaieratik (Marx, Ravenstein, etab.). Eta zer gai da hori? Bada, *de facto* zer **harreman dauden** eta zein egon litezkeen edo zein egon beharko liratekeen **migrazioen eta garapenaren artean**; hau da, zabalago, giza mugikortasunaren fenomeno geldiezin eta konplexuaren eta aldaketa tekno-ekonomiko eta soziokulturaleko patroien artean.

Migrazioaren eta garapenaren arteko lotura horiek gizarte-aldaketei eta migrazioei buruz dauden marko teorikoetako bakoitzetik interpretatu, azaldu eta adierazi dira. Labur jorratu nuen hori duela hogeitaz urte, orain gaurkotzen ari garen *Qué es la inmigración* lanean (2003); batik bat, migrazioen kausei eta zergatiei buruzko kapituluan. Hiru teoria nagusitatik abiatuta jorratu genituen: modernizazioa, mendekotasuna, artikulazioa/transnazionalismoa.

Hemen ez dugu azalpen hura guztia errepikatuko, jakina. Soilik aztertuko dugu marko teoriko eta azterlan horiek –desberdinak eta osagarriak– zer ekarpen egiten duten gure argudioaren harira: migrazioak eta migratzaileak garapenaren eragile eta koprotagonistak direla, bai mundu mailan eta bai herrialde hartzaile nahiz jatorriko herrialde bakoitzean.

Modernizazioaren ikuspegitik

(zenbait alderditan kritikatu eta gainditua, zuzentasun osoz) azaldu zen, **push** eta **pull mekanismoen** bidez, migrazio-fluxuen kausak ez dautzala soilik jatorriko herrialdeetako gabezetan, eta bai, horietaz gain, leku garatuagoen erakargarritasunean ere. Ikuspegi horren arabera, migratzaileek, aukera gehien eskaintzen duten lekuetara joatea erabakitzen dutenean, **erakarri dituen garapen hori bera sustatzen dute** eta, aldi berean, beren **bidalketen** bidez, jatorriko herrialdeak garatzea laguntzen dute; izan ere, dakigun bezala, diru-bidalketak munduko fluxu-ekonomiko nagusietako bat dira, eta kontuan hartzekoak dira, **diru-bidalketak** ez ezik, **bidalketa sozialak** ere.

Beste modu batzuetan ere laguntzen dute, gainera, ez soilik bidalketen bidez. Zenbait azterlanek erakutsi zuten, migratzaileak beren herrialdeetatik joateak **zenbait tentsio arintzen ditu** (espektatibarik ezak eragindako gizartegatazkak eta gehiegizko presioa); gainera,

jatorriko herrialdean **aldaketa-prozesuak gertatzea errazten** edo **ahalbidetzen du** (adibidez, Espainiako kasuan, hirurogeiko hamarkadako lursail-kontzentrazioa), eta, aldi berean, mantentzen dituzten **loturen bidez** (senideen artean, elkarteen bidez, komunikazioen bidez, etab.) eta sorterrira **itzultzeak** (aldian behingo bisitak egitera edo behin betiko), jatorriko herrialdean **berrikuntza** askotarikoak gertatzea eragiten du.

Ikus dezagun orain **mendekotasunaren ikuspegitik**. Asko laburbilduz, ikuspegi horretatik egin diren azterlan teoriko eta askotarikoetan migrazioak, makroestruturalki, esplotaziorako, errenta-erazketarako eta plusbalioa lortzeko mekanismo itzel eta intentsibo bat dira eta jatorriko herrialdeetan zer-nolako ondorio negatiboak dituen azpimarratzen da: langileak erazutetz eta talentu-edo aditu-ihesaz gain (lehen aipatu dugun bezala), emigratio-herrialdeen **mendekotasuna areagotzen** da; herrialde garatuek azpigaratu izan dituzten herrialde horiexena, hain zuzen (**azpigarapenaren garapena**, Gunder Frank-ek esango lukeen bezala). Migrazioaren kausa, azken batean, munduan aberastasuna eta boterea modu desorekatuan banatuta egotea da.

Tesi horietan ikus daitekeenez, **mendekotasunari** buruzko azterlanak, postgarapenaren ikuspegi kritikoaren berme izateaz gain, horien jatorrian bertan egon dira. Edonola ere, ohartu gaitezten migrazio-fenomenoari buruzko ikuskera kritiko eta negatibo horrek – zeinak saihestu beharreko fenomenotzat baitauka, eta hori marko teoriko horren ahulgune nabari bat da–, alde batetik, ez duela ukatzen **garapen** kategoria, eta, bestetik, baieztatzen duela migrazioek eta migratzaileek garapena gerta dadin laguntzen dutela, baina hori bai, erdiguneko herrialdeen mesedetan eta periferiakoen kaltetan.

Modernizataile dei dakiekeenek, beraz, migrazioen eta garapenaren arteko **lotura positiboak** nabarmentzen dituzte. Mendekotasunaren teoriariek, berriz, bi fenomeno horien arteko **lotura negatiboetan** jartzen duten azpimarra. Bada, horiek ez bezala, ikuspegi integral eta konplexuago bat agertzen dute artikulazioaren teoriek, lehenik, eta transnazionalismoaren teoriek, ondoren⁵⁸.

Ikuspegi horiek ideien eta azterketen historian berriagoak dira (azken lau hamarkadak), eta gaur egun erabiliagoak. Horien arabera, migrazioek artikulazioak islatzen dituzte –ekoizpen-moduen artikulazioak, eremu geopolitikoarenak, lurralde-komunitateenak–, eta artikulazio horien loturek **gizarte-eremu transnazionalak** sortzen dituzte, nazio-estatuaren dinamikak eta logikak gainditzen dituztenak.

Aztergai dugun gaiari dagokionez –migrazioak eta migratzaileak garapenaren eragile eta koprotagonista gisa–, ikerketa transnazional horiek oinarri zientifiko sendoa ematen dute migrazioen ondorio askotarikoen ikuspegi osatuago eta konplexuago bat izateko; tartean, ondorio **positiboan** ere bai. Eta hori bakarrik ez: gizarte-eremu transnazional horiek dituzten potentzialtasunak ere adierazten dituzte, eta, adibidez, lankidetzaren modu berriak sortu dira ikerketa horiei esker, hala nola **ko-garapena**, lankidetzaren modu horren aldaera guztietan.

58. Horri buruzko lehen testu bat 1997an idatzi nuen: "Migración y desarrollo. Su vinculación positiva. Propuesta para la participación de inmigrantes en proyectos de cooperación", *Ingeniería sin Fronteras* (ISF) – Revista de Cooperación, VI. urtea, 9. zk., 6.-10. or. Geroago, 2003an, sakonago garatu nuen, *Qué es la inmigración* laneko 3. eta 8. kapituluetan.

Migrazioak eta inpaktu positiboak jatorriko herrialdearen nahiz herrialde hartzailearen garapenean

Orain eguneratzen ari garen liburuan “bi ertzetako ondorioak eta aldaketak” labur-labur irakurtzera gonbidatzen zaituztet hemen irakurleok⁵⁹. Amaitzeko, migrazioek eta migratzaileek garapenari zertan laguntzen dioten zerrendatuko dut.

Jatorriko herrialdeen garapenari dagokionez, gutxienez alderdi hauetan:

1. tentsioak arindu eta espektatibak irekitzen dituzte;
2. diru-bidalketa handiak egiten dituzte, eta horrek eragin itzela du familiako, komunitateko, herriko, eskualdeko eta herrialdeko ekonomian;
3. enpresa-berrikuntzarako eragile bat dira, eta
4. askotan, ez beti, elementu demokratizatzaile bat dira.

Herrialde hartzaileen garapenari dagokionez, gutxienez alderdi hauetan:

1. biztanleria-piramidea gaztetzen dute;
2. krisialdian dauden enpresa eta sektore askok haiei esker jarraitu dezakete aurrera, bizirik iraun;
3. ekonomia-sektoreen hedapena indartzen dute;
4. autoktonoek lan-aukera gehiago izatea eragiten dute;
5. gizarte-segurantzian afiliazio eta kotizazio berriak izatea dakarte;
6. kanpotik ekarritako formakuntza, trebakuntza eta talentua dira;
7. kultura-aberastasuna eragiten dute, gutxienez 23. iruzkinean adierazitako hiru dimentsioetan, eta
8. krisi-egoeretan ekarpen nabaria eta baliotsua dira (COVID-19aren pandemia da horren adibide argia).

Arrazoiketaren laburpena

01 Abiapuntuko premisa, **garapena** honela ulertzea eta **berrinterpretatzea**: aberastasuna eta enplegua sortzen duten zenbait aldaketa-prozesuren multzoa, zeinek hobekuntzak ere eragiten dituzten bizi-kalitatean, ekitatean, hiritartasun demokratikoan, hiritarren sarean, lurraldeak eta komunitateak indartzean, eta jasangarritasun ekologikoan.

02 Migrazioaren eta garapenaren arteko loturak, alderdi negatiboak ez ezik, **alderdi positiboak** ere baditu; horrek ez du esan nahi lehenak ezkutatzea.

03 Migrazio-fluxuen kausa bakarrak ez dautza jatorriko herrialdeetako gabezietan. Aitzitik, garapen-maila handieneko lekuetako **erakargarritasunean** ere badautza; leku horietan, migrazio hori **behar eta eskatzen da**.

59. Giménez, C. (2003), “Efectos y cambios en las dos orillas”, *Qué es la inmigración*, RBA, III. kapitulua, 1. grafikoa, “Ventajas e inconvenientes de las migraciones”, 59. or.

04 Migrazioek eta migratzaileek **jatorriko herrialdeetan** garapena gerta dadin laguntzen dute, gutxienez lau arrazoiengatik: 1) tentsioak arindu eta espektatibak irekitzen dituzte; 2) diru-bidalketa handiak egiten dituzte, eta horrek eragin itzela du familiako, komunitateko, herriko, eskualdeko eta herrialdeko ekonomian; c) enpresa-berrikuntzarako eragile bat dira, eta 4) askotan, ez beti, elementu demokratizatzaile bat dira.

05 Migrazioek eta migratzaileek **herrialde hartzaileetan** garapena gerta dadin laguntzen dute, gutxienez bederatzirengatik: 1) biztanleria-piramidea gartzetzen dute; 2) krisialdian dauden enpresa eta sektore askok haiei esker jarraitu dezakete aurrera, bizirik iraun; 3) ekonomia-sektoreen hedapena indartzen dute; 4) autoktonoek lan-aukera gehiago izatea eragiten dute; 5) gizarte-segurantzian afiliazio eta kotizazio berriak izatea dakarte; 6) kanpotik ekarritako formakuntza, trebakuntza eta talentua dira; 7) kultura-aberastasuna eragiten dute; 8) krisi-egoeretan ekarpen nabaria eta baliotsua dira, eta 9) gizarte-eremu transnazionalak sortzen dituzte, baliagarri gerta daitezkeenak (ko-garapena).

06 Horregatik guztiagatik, migrazioek eta migratzaileek ekonomia eta gizarte globalean laguntzen dute, garapenaren koprotagonistak dira, eta halaxe hartuak izango beharko lukete narratiba publikoetan.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

Cataluña ingresaría 10 millones al mes si regularizara a inmigrantes sin papeles y el resto de España, 50 (El Periódico egunkariko artikulua, 2019an argitaratua, migrazioek ekonomiari dakartzkieten onurei buruzkoa. <https://bit.ly/3iR6Juu>)

Así contribuyen los inmigrantes a la economía (Cadena SER hedabidearen artikulua, 2018an argitaratua; immigranteek helmugako gizarteei eta batik bat Espainiari zer ekarpen egiten dieten xehe aztertzen du. <https://bit.ly/3eXIKZu>)

Cuentas y no cuentos: lo que el inmigrante aporta a la economía (El País egunkariko artikulua, 2019ko azarokoa; pertsona horiek helmugako gizarteetan duten pisuari buruzko zenbait estatistika dakartza. <https://bit.ly/372UeXu>)

¿Cuánto aportan los inmigrantes a la economía española y cuánto gasto suponen realmente? (The Objective-ko artikulua; immigranteek Espainiako gizarteari egiten dioten ekarpenari buruzko informazioa dakar. <https://bit.ly/2UQ52ph>)

Los inmigrantes aportan más de lo que reciben (El Diario hedabideko artikulua; migratzaileek harrera-gizarteetan eragiten dituzten inpaktuei buruzko zurrumurru batzuk gezurtatzen ditu. <https://bit.ly/3y5YW2v>)

~gizarte-erakundeak

Las migraciones como factor de desarrollo -El caso de África Septentrional y Occidental (Lanaren Nazioarteko Erakundeak 2010ean argitaratutako liburua, Iparaldeko eta Mendebaldeko Afrikaren kasu zehatzari buruzkoa. <https://bit.ly/3xonxEw>)

Cómo los inmigrantes contribuyen a la economía de los países en desarrollo (OCDEren aurkezpena, migrazioek Argentina, Costa Rica, Boli Kosta, Ghana, Kirgizistan, Nepal, Dominikar Errepublika, Ruanda, Hegoafrika eta Thailandiako gizarteetan dituzten inpaktuei buruzkoa. <https://bit.ly/3zCJVpf>)

¿Cómo contribuyen las personas migrantes a la sociedad? (Nazioarteko Migrazio Erakundearen blog batean argitaratutako artikulua; gaiari buruzko definizio labur bat dakar. <https://bit.ly/3zCKuzn>)

~akademia

¿Puede la migración ser un factor para el desarrollo de los países expulsores? (Ana María Aragonés eta Uberto Salgadoren artikulua akademikoa; Mexikoko irakasle unibertsitarioak dira biak, eta migrazioak jatorriko herrialdeen garapenerako eragile izan ote daitezkeen aztertzen dute artikuluan. <https://bit.ly/3x6UlvI>)

Migración y desarrollo: una revisión conceptual de la evidencia (Alejandro Portes soziologoaren artikulua akademikoa, migrazioek helmugako gizarteetan duten eraginari buruzkoa; estatistika asko dakartza. <https://bit.ly/3l24Wpd>)

~txostenak

Informe Anual del Defensor del Pueblo 2019. Volumen II: La contribución de la inmigración a la sociedad española (Herriaren Defendatzailearen dokumentu ofiziala; datuen bidez, migratzaileen kontrako zurrumurru batzuk gezurtatzen ditu. <https://bit.ly/3BKdl1a>)

El veredicto es claro: la inmigración favorece a la economía (Garapenerako Banku Interamerikarraren blog batean argitaratutako artikulua; gaiari buruzko informazio pixka bat dakar. <https://bit.ly/3kVCRQv>)

La migración hacia economías avanzadas puede estimular el crecimiento (Nazioarteko Diru Funttsaren blog batean argitaratutako artikulua; migrazioek helmugako gizarteetan dituzten inpaktuei buruzko estatistikak dakartza. <https://bit.ly/3kTTLZn>)

Inmigración y Estado de bienestar en España (La Caixa Gizarte Ekintzak 2011n argitaratutako txostena; migrazioen osagai ekonomikoak aztertzen ditu. <https://bit.ly/3ryM9Dj>)

22.

“Immigraziorik gabe, krisi demografikoa are larriagoa litzateke”

LANDUTAKO GAIAK

biztanleria-stocka eta -fluxua; defizit demografikoa; defizit demografikoaren erronkak eta ondorioak; migrazioaren ekarpenak

Zalantzarik gabe. Bi hitz horietan utz genezake hemen iruzkina: demografi-krisia. Gauza **ziurra** da immigraziorik gabe Espainian erronka demografikoa guztiz kritikoa izango litzatekeela. Hau da, Espainiako biztanleriaren zahartzea askoz handiagoa litzateke, eta horrek, jakina, nabarmen larriagotuko lituzke biztanleria-piramide zahartu baten ondorio negatiboak: enpleguan, fiskalitatean, gizarte-segurantzian, pentsioetan, zaintzetan... Ziurgabetasun-garaiotan ez datorkigu batere gaizki zerbaitetaz hain ziur egotea, barkatuko didazue ironia. Irnotasun erabateko horrekin lasai asko amaitu ahalko baikenuke 22. iruzkin hau: “*immigraziorik gabe, krisi demografiko larria izango genuke*”, inolako zalantzarik gabe.

Dena den, komeni da, alde batetik, hori ziurtatzen duen informazio estatistikoa erakustea, eta, bestetik, immigrazioak demografiaren ikuspegitik ere zer ekarpen

positibo dakarren sakonago azaltzea. Bigarren atalean immigrazioaren kontrako leloetara iristen garenerako ondo etorriko zaigu arnas pixka bat hartzea eta demografiatik migrazioen alderdi positibo batzuk kontuan hartzea.

1. Biztanleriaren zahartzea ez da Espainian bakarrik gertatzen ari den kontu bat; beste herrialde askotan eta gero eta gehiagotan dagoen prozesu bat da. Nazio Batuen Erakundeak taxututako “*Forjando nuestro futuro juntos*” txostenean, UN75. *Mas allá de 2020* saileko argitalpenen barruan, honela ageri da aldaketa demografikoei buruzko atalean⁶⁰: “Gaur egun, mundu guztian azkarren hazten ari den adin-taldea adineko pertsonena da (65 urte edo gehiago). Mundu mailan eta lehen aldiz, 2018an, adineko pertsonen kopurua handiagoa izan zen bost urtetik beherako haurren kopurua baino, eta 2050erako, berriz, adineko pertsonen kopuruak nerabeena eta gazteena gaindituko du (15 urtetik 24ra bitartekoak). Zenbait eskualdek, hala nola Europak eta Ekialdeko Asiak, dagoeneko erronka handi samarra dute pertsona horiei laguntza eta arreta emateko. Bizi-itxaropena handitzen doan heinean, baliteke adineko pertsonak gizarteetan eta ekonomietan duten egitekoa garrantzitsuagoa izatea. Hezkuntza-sistemak, osasun-arretakoak eta gizarte-babeseakoak egokitu behar ditugu, gero eta handiagoa den adin-talde horretako pertsoneri gizarte-babeseko sare bat emateko”.

Espainiari dagokionez, azken hamarkadetan ugalkortasun-tasek baxu jarraitzeak eta bizi-itxaropena handitzeak biztanleria zahartzea ekarri dute, baita ekonomiarako giltzarri diren adin-tarteetako biztanleria gutxitzea ere. Elise Gazengelek (2015) honela laburbiltzen du: “Espainiako biztanleek orain XVIII. mendearen amaieran baino seme-alaba gutxiago dituzte;

60. Nazio Batuen Erakundeak (2020/09/16), “*Forjando nuestro futuro juntos*”, UN75. *Mas allá de 2020* saila

Espainian garai hartako biztanleria oraingoaren laurdena zen. Umeak izateko adinean dauden emakumeen ugalkortasun-tasa 1,27 da orain Espainian, eta horrek Europako herrialdeen zerrendan azken kokatzen du, Portugalekin batera, Eurostaten arabera. Tasa hori Europako 1,5eko batezbestekoa baino askoz txikiagoa da, eta Europako tasa hori, berriz, munduko batazbestekotik puntu bat behera dago, *World Population Data Sheet*-en arabera. Espainiako bizi-itxaropenari dagokionez, gizonezkoena 80 urte da eta emakumezkoena 85 urte, INEren arabera. Ondorioa: 2010etik, Espainia 25 urtetik 40ra bitarteko biztanleria galtzen ari da, eta tarte hori funtsezkoa da kontsumorako, berrikuntzarako eta produktibitateko⁶¹.

Espainiako ugalkortasun-tasa txikituz doa 1990etik. Eurostaten arabera, joan den mendeko laurogeiko hamarkadan 2,2ko tasa izatetik 1,3kora jaitsi zen laurogeita hamarrekoko hamarkadatik aurrera. **Erronka edo defizit demografiko** deritzenak (Espainiak dituen handienetako bat) osagai eta ondorio ekonomiko eta laboral, fiskal eta soziokulturalak ditu. Ekonomiari erreparatzen badiogu, ondorio negatiboak agerikoak dira. Joaquín Arangok dioen bezala: “[...] ez da ona ekonomiarako. Kostuak alde batera utzita, gogoan izan behar da dinamismoa, berrikuntza eta bulkada galtzea dakarrela eta eskariaren indarraren aurka doala”⁶². *Renacimiento Demográfico* fundazioak ondorio hau nabarmendu du, beste batzuen artean: “zer-nolako arazoa den pentsioak ordaintzeari dagokionez, gero eta adineko jende gehiago eta gero eta biztanleria aktibo gutxiago badugu”.

2. Azken bost hamarkadetako immigrazioak –hau da, jatorriz atzerrikoa den biztanle ugari iritsi eta bertan finkatzeak– berekin ekarri du, alde batetik, biztanleria gaztea ugaritzea, eta, bestetik, ugalkortasun- eta jaiotza-tasak handitzea. Ekarpen demografiko hori onartua izan da beste

herrialde batzuentzat, hala nola Britainia Handia eta Frantzia. Espainiaren kasuan, mende honetako lehen hamarkadan –hau da, 2000-2010eko urteetan– bereziki gorakada handia izan zuen biztanleriak oro har, immigrazioa asko handitu zelako. Hain zuzen, INE Espainiako Estatistika Institutuaren arabera, atzeritarren kopurua 2000n milioi bat pertsona izatetik 2010ean 5,7 milioi izatera igaro zen.

Ikus dezagun konpentsazio demografikoko efektu hori mikro mailan eta denbora-aldi jakin baterako. Hartu dezagun, adibidez, 2018ko urtarriletik ekainera bitarteko sei hilabetea, *ad hoc* prestatutako argitalpen bat baitugu aldi horretarako (Baena, 2018): “INEk 2018ko lehen sei hilabete hartan Espainian haxe gertatu zen: a) hazkunde begetatibo negatiboa izan zen (jaiotza baino heriotza gehiago), eta b) migrazio-saldoa positiboa izan zen (joandakoak baino jende gehiago iritsi zen).

Eta azterlan monografiko horretan gehitzen dutena irmoa eta biribila da migrazioen ekarpen demografikoaren onurari dagokionez: “Kopuruak xeheki aztertuz gero, urtarriletik ekainera bitarteko biztanleria-hazkundera 46.273 **pertsonako saldo begetatibo negatiboaren ondorio** izan zen (178.939 jaiotza eta 225.212 heriotza), hori 121.564 **pertsonako migrazio-saldo positiboak konpentsatu** zuelako (287.882 immigrante iritsi ziren –immigrante-kopurua 2017ko lehen sei hilabetearen aldean %23 handitu zen– eta 166.318 emigrante joan ziren –emigrante-kopurua %15,6 txikitu zen–)” (letra etzana gurea da).

61. Gazengel, E. (2015, iraila), “La inmigración acude al rescate demográfico”, *CTXT*, 31. zk.

62. Hemen aipatua: Gazengel (2015).

Bestalde, aldaketa demografiko horiek nazionalizatuen eta atzerritarren arteko ratioa aldatu zuten, nahiz eta nazionalizazio ugari izan ziren: "Horrela, lehen seihilekoan, Espainian bizi diren biztanle atzerritarrak 123.254 gehiago dira orain, eta nazionalitate espainiarra dutenenak, berriz, 26.173 gutxiago, nahiz eta horien barruan zenbatuta dauden denbora-aldi horretan nazionalitate espainiarra lortu zuten 43.882 pertsonak"⁶³.

3. Hori hala izanda ere, immigrazioa erronka demografikorako irtenbide gisa ikustea akatsa litzateke. Konponbidearen parte gisa ikusi behar dugu. Zenbait txosten eta adituk garbi adierazi dute immigrazioak ondorio onuragarriak dakartzala, baina ez dela inondik ere konponbidea.

Espainiak 46,5 milioi biztanle ditu: *World Population Data Sheet*-en aurreikuspenen arabera, 2030erako milioi bat galduko ditu, eta 2050ean 43,7 milioi bakarrik izango ditu. Migrazio-fluxuak joera hori aldarazten du, baina aditu guztiak bat datoz honetan: Espainiako biztanleria aktiboa gutxitu egingo da "immigrazioarekin nahiz immigrazioerik gabe", nahiz eta gutxitze hori immigrazioaren ondorioz askoz txikiagoa izango den. Horregatik hitz egiten dute arintzeaz, eta ez konpontzeaz.

Migrazioen ondorio onuragarri hori Espainian handiagoa da Alemanian edo Frantzian baino. Eurostatek egindako azterketa proiektibo batean alderatu egiten da nolako bilakaera izango duen hiru herrialde horietan **sostengu-erlazioak** (hau da, 15 urtetik 64ra bitarteko biztanleria aktiboaren eta 65 urtetik gorako adineko biztanleen arteko zatidura), eta, emaitzetan ageri denez, beste bi herrialdeetan baino gehiago aldatzen da Espainian erlazioa.

Umeak izateko adinean dauden emakumezkoen jaiotza-tasa baxua (1,27 Espainian; 1,5 Europan eta 1,6 munduan) zenbait arrazoiren ondorio da: gaur

egungo gizarte-eredua, egiturazko zenbait faktore, eta lana eta familia-bizitza uztartzeko zailtasun itzelak dira kausa nagusiak. Hain zuzen, emakumezkoek lana eta familia-bizitza uztartu edo moldatu ahal izateko neurriak eta politikak hartu izan dituzten lekuetan (Frantzian, adibidez) ugalkortasun-tasa handitu egin da. Modu korrelatiboan, horrelako politikarik ez duten herrialdeetan (esaterako, Alemanian) ugalkortasun-tasa batezbestekoa baino txikiagoa da⁶⁴. Ez da faktore bakarra, baina bai faktoreetako bat, eta bereziki garrantzitsua gainera.

Migrazio-saldoa ez da beti positiboa izan Espainian. 2010etik aurrera, 2008ko krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioz, Espainiako migrazio-saldoa negatiboa izan zen, hau da, Espainiatik irten zirenak Espainiara sartutakoak baino gehiago izan ziren. Joan zirenen artean kontuan hartzekoak eta zenbatzekoak dira beren sorterrira itzuli ziren ehunka mila atzerritar, baina baita emigratu zuten beste ehunka mila espainiar ere⁶⁵. 2014an migrazio-saldoa berriro positiboa izan zen, hau da, jende gehiago sartu zen irten baino.

Egiaz, Espainiara migratutako atzerritar jatorriko emakumeen ugalkortasun-tasa altuak mende hasieratik beheranzko joera hori arintzea eragin zuen. Ohartarazpen bat: emakume migratzaileen ugalkortasun-tasa nabarmen handiago hori bertako emakumeenarekin parekatzerantz egiten ari da.

63. Macarena Baena, *El Periódico*, 2018/12/13.

64. Ikus Gazengel (2015).

65. Kotsuletxeetan 250.000 inguru erregistratu ziren; baina egindako kalkuluaren arabera, milioi-erdi espainiarrek baino gehiagok emigratu zuten 2008ko krisiaren ostean, gehienak lan egiteko adinean.

Arrazoiketaren laburpena

- 01 Espainiak erronka eta defizit demografiko handia du, eta horrek ondorio negatiboak ditu arlo ekonomiko, laboral, fiskal eta sozialean: immigrazioarik gabe, are larriagoa eta kaltegarriagoa izango litzateke.
- 02 Demografiaren ikuspegitik, immigrazioak biztanleria-piramidea gaztetzea dakar, baita ugalkortasun- eta jaiotza-tasak handitzea ere (hasierako faseetan behintzat).
- 03 Konponbidea ez bada ere, immigrazioaren ekarpen demografikoak defizit horren parte bat betetzen du eta erronka horren ondorio negatiboak arintzen ditu. Immigrazioa ez da konponbidea, baina **konponbidearen parte** da.
- 04 Defizit demografikoa erronka bat da epe ertain eta luzerako. Horri begira, estatu-politika publikoak sortu beharko lirateke, ez politika koiuntural hutsak, eta politika horietan, beste neurri batzuekin batera, immigrazioaren ekarpen positiboa kontuan hartu behar da.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

La inmigración acude al rescate demográfico (CTXT hedabideko artikulua, 2015ean argitaratua; migrazio-fluxuek historiaren joanean izandako onura demografikoei eta etorkizunean izan ditzaketen inpaktuei buruzko datuak ematen ditu. <https://bit.ly/2WppRbD>)

La inmigración, salvavidas de la crisis demográfica española (EFEren artikulua, 2018an argitaratua; egoera horri buruzko estatistikak ematen ditu. <https://bit.ly/3x7w3By>)

Invasión migratoria y envejecimiento demográfico (zenbait egileren artean idatzi eta 2021ean argitaratutako liburu baten erreseina; migrazioek demografian izan dezaketen inpaktua du aztergai liburuak. <https://bit.ly/3BIDzX7>)

La inmigración sale al rescate de España y su crisis demográfica: la población extranjera registra el mayor aumento desde 2008 (El Economista hedabideko artikulua, 2019an argitaratua, urte hartako lehen sei hilekoan migrazioak biztanlerian izandako biztanleriari buruzkoa. <https://bit.ly/3eZyz6X>)

La inmigración, salvavidas de la crisis demográfica española (Artículo de EFE publicado en 2018 que ofrece estadísticas sobre esta situación, <https://bit.ly/3x7w3By>)

Immigration swan song (Nazioarteko Diru Funttsaren blog batean argitaratutako artikulua; migrazioek biztanlerian duten inpaktua aztertzen du, baina hori posible egiteko politikak egin beharra azpimarratzen du. <https://bit.ly/3f1UNF9>)

~txostenak

Demography and migration (Europar Batasunaren dokumentua, migrazioek Europa mailan duten inpaktu demografikoei buruzkoa. <https://bit.ly/3i4WONW>)

~gizarte-erakundeak

Generación sueños rotos. Consecuencias demográficas (PorCausa fundazioaren dokumentua, migrazioek helmugako herrialdeetako demografian izan dezaketen inpaktuari buruzkoa. <https://bit.ly/2TGCaW>)

Cambios demográficos. (Nazio Batuen Erakundearen dokumentua; migratzaileak gizarte berrira iristeak biztanleria zahartzearen krisi demografikoa eragozteko balio ote dezakeen aztertzen du. <https://bit.ly/3y3sZYy>)

Atzerritar jatorriko pertsonen ekarpen ekonomikoa EAEn BPGd-ren bidez (2018) (Ikuspegiaren dokumentua, EAeko egoerari buruzkoa. <https://www.ikuspegi.eus/eu/migrazioa-eta-asiloa/ikerketak/ikusi/atzerritar-jatorriko-pertsonen-ekarpen-ekonomikoa-eaen-bpgd-ren-bidez-2018/175/>)

~akademia

Crisis económica y emigración: la perspectiva demográfica (Andreu Domingo Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslearen eta Albert Sabater Manchesterko Unibertsitateko irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioen alderdi demografikoari buruzkoa. <https://bit.ly/2WkFHUN>)

La contribución demográfica de la inmigración: el caso de España (Ikerketa Soziologikoen Zentroko ikertzaile Beatriz León-ek 2004an idatzitako artikulua akademikoa, migrazioen inpaktu demografikoei buruzkoa. <https://bit.ly/2URaRCV>)

The demographic effects of international migration (David Coleman-en artikulua, Oxford Review of Economic Policy aldizkarian argitaratua. <https://bit.ly/3x1vkly>)

Migration and demographic swift (Migrazio-joerei buruzko liburu bateko kapitulua. <https://bit.ly/3f1jeTg>)

23.

“Kultura-aniztasuna aberasgarria da”

LANDUTAKO GAIAK

aniztasuna eta dibertsifikazioa; aukerak; berrikuntza eta sormena, bestetasuna eta norberaren kultura, giza izaera

Inklusioaren aldeko eta **positibotasun-iruzkinez** osatutako lehen atal honetako azkena da hau, eta esaldi eta iritzi horri helduko diogu. Izan ere, kultura-aniztasuna aberasgarria delako baieztapena maiz entzuten da, batik bat inklusioaren eta kulturartekotasunaren alde diharduten erakundeetako kideen eta ekintzaileen ahotan; solasaldi informaletan ere entzuten dugu, migratzaile-taldeen kulturei buruz eta musika, janari edo ohitura jakin batzuen presentzia gero eta handiagoari buruz, besteak beste.

Aniztasun edo **dibertsitate** nozioa gero eta maizago ageri da diskurtso publiko nahiz pribatuan. Beste leku batean (Giménez, 2020) hitz horren bilakaera aztertu dut: XIX. mendeko lehenbiziko kontzeptualizazioak (hala nola **aniztasun biologiko** eta *de facto*-ko **kultura-aniztasun** terminoak, nagusiki biologiaren eta antropologiaren arloetatik egindako ekarpenak), XX. mendeko hirurogeiko hamarkadako erabilera

normatiboa (pluralismo kulturalaren eta politika multikulturalen oinarriari buruz, batik bat) eta, azkenik, gaur egunera etorrira, **sexu/genero-aniztasunaren** eta **dibertsitate funtzionalaren** inguruan sortu berri diren formak.

Gu, hemen, kultura-aniztasunaz arituko gara. Kultura-aniztasuna aberasgarria dela esaten denean, gauza positibotzat hartzen da gizartea dibertsifikatzen ari delako fenomeno agerikoa. Immigrazioarekin lotuta erabili ohi da, eta aditzera ematen da hemengo gizartean pertsona marokoarrak, latinoamerikarrak, txinatarrak, senegaldarrak eta bestelakoak egoteak bizitzeko, sentitzeko eta pentsatzeko modu berriak dakartzala, bakoitza bere aldaera eta adierazpideekin, dela agurtzeko moduan eta janzeran, familia-bizitzan eta ahaidetasunean, arte-adierazpideetan, hizkuntzetan eta hizkerako doinueta, sinesmenetan eta erritueta...

Migrazioek dibertsifikazio soziokulturala dakartela-eta horien arteko loturaren ikuspuntutik landuko dugu guk hemen kultura-aniztasuna, baina zehaztu beharrekoa da gai hori modu orokorrean landu daitekeela eta hala landu behar dela, migrazioetara mugatu gabe. Espainiaren kasuan, duela mende askotatik kultura-, etnia- eta hizkuntza-aniztasuna nabarmena da, iraupen edo tradizio luze eta sakonekoa. Baina... zergatik esaten dugu kultura-aniztasuna aberasgarria dela?

Hain da begien bistakoa, erantzuteak alferrikakoa ematen baitu. Dena den, zer erantzungo zenuke zuk, irakurle? Aurrera jarraitu aurretik zuk galdera horri erantzuteko tartetxo bat hartzea nahi nuke. Noiz edo noiz solasaldi eta aurkezpenetan galdetu izan dut, eta nahi nuke noizbait horri buruzko tailer bat antolatu, gaiari buruzko ideiak biltzeko; pentsamendu kolektiboa horretan emankorra izango da, seguru. Oraingoan, argudio batzuk emango ditut, labur-labur.

Nire ustez, kultura-aniztasuna gutxienez hiru arrazoiengatik da aberasgarria.

1. Lehenik eta behin, **ditugun aukerak ugaritzen dituelako eta berrikuntza eta sormena sustatzen dituelako**, eta hori nahiko positiboa da. Hartu dezagun, adibidez, musika. Tradizio etniko, kultural eta erlijiozko guztiek beren musika-ondarea eta -ezagutzak dituzte, beren abesti eta doinuak, beren erritmo-motak, instrumentu, kantu eta dantza jakin batzuk. Pentsa dezagun ijitoen kulturen eta flamenkoan, edota Afrikako erritmoetan, bluesaren eta beste hainbat musika-estiloren sorburu. Musikaren aldetik **eskaintza** zabala dugu horri esker; goza dezakegun eta gozaten dugun musika-eskaintza zabala. Baina gainera, musika-kontsumo hutsetik haratago joaten bagara eta zertan diren **aberasgarri** aztertzen badugu, ohartzen gara musika-aniztasunak aukera ugari zabaltzen dizkigula: ikasteko gai berriak, ikertzekoak, lanbideak, elkartrukerako aukerak, instrumentu berriak...

Beste horrenbeste esan daiteke gastronomiaz eta janariaz, hain dira ugariak errezetak, ongailuak, usainak, estetikak, errituak, komentsalitateak, lexikoa... Baita gatazkei heltzeko moduez ere, herri orok arbitraje- eta bitartekaritza-moduak sortu baititu: hortxe ditugu, adibidez, Espainian Erdi Aroko kontzeju eta landa-ingurueta *hombres buenos* zirelakoak, ijitoen arteko *personas de respeto*, Kolonbian wayu etniako *palabrero* direlakoak, Hawaiiko *ho'oponopono* ohitura, Latinoamerikako kultura batzuetako adiskidetzailak eta erraztaileak...

Elementu edo ezaugarri soziokulturala edozein dela ere, azpimarratu nahi dudana, aztertzen ari garen esaldiaren argudio gisa, zera da: dibertsifikazio soziokulturalak **aukerak** ugaritzea eta askotarikoagoak bihurtzea dakarrela.

2. Kultura-aniztasuna aberasgarria dela edo baliatzen jakinez gero aberasgarri gerta daitekeela ziurtatzeko bigarren arrazoi bat honetan datza, nire ustez: **aniztasun horrek norberaren kulturari begiratzeko ispilu bat jartzen digu begien aurrean**. Eta ez naiz hori esaten ari iritzi subjektibo gisa edo irudipen hutsean oinarritutako aburu moduan, horrelaxe bizi eta sentitu izan dudalako baizik, eta pentsatzekoa da hau irakurtzen ari zaretenok ere horrelaxe bizi izan duzuela.

Esan nahi dudana da beste kultura batzuetako jendearekin gertuko, enpatiazko edo adiskidetasunezko harreman iraunkor samar bat dugunean, harreman horri esker gu aberasteaz gain (1. argudioa), geure buruari begiratzen diogula, konparatzea edo kontrastatzea ekidin ezinezkoa den heinean. Batzuetan nolabaiteko **distantzia kultural** bat hartzen da -zenbait modutara deitu izan zaio horri, hala nola **urruntzea** edo **aldentzea**-, baina ez **bestetasunarekiko**, baizik eta norberaren ondare eta ezagutzekiko, **norberarekiko**. Beste batzuetan, berriz, **kritika** edo **autokritika kulturala** egitera iristen gara, eta hori onuragarria da, antidoto on askoa soziozentrismoaren, chauvinismoaren eta supremazismoaren aurka. Hala gertatzeak ez gaitu harritu behar, bai baitakigu identitateak, eta horien artean identitate etnokulturalak, **erlazionalak** direla.

Zuen baimenarekin horri buruzko ekarpen pertsonal batzuk egingo ditut, eta autogogoetaren ikuspegi horretatik nork bere biografia edo beste batzuen berrikustera animatu nahi zaitzuet. Antropologo-jardunean iraupen luzeko landa-lanak egin izan ditut Espainiako zenbait lekutan, Mexikoko goi-lautadan eta AEBko Kalifornian. Burgosko mendialdera joan eta hogeita hamarren bat biztanleko herri batean bizitzeak hirikume sentiarazi ninduen. Laborari mexikarren eta hispano migratzaileen artean bizitzeak neure burua europar eta espainiar ikusten

lagundu zidan. Iraupen-luzeko landa-lan profesionaletatik kanpo egin izan ditudan bidaia nolabait etnografikoak ere –hau da, bidaiatzean tokiko hiritarrek egiazko harreman errespetuzkoa izan dudanean, ez azaleko harreman hutsak–, dela Grezian barrena edo Tanzanian zehar, dela Txina edo beste zenbait herrialdetan barrena, ibilbide horiek ere baliagarri gertatu zaizkit neure jatorri kulturala eta Mendebaldeko Europako guztia pixka bat **kanpotik** ikusteko.

Guatemalan askotan egon nintzen 1996tik 2004ra bitartean, zenbait lan-konturengatik. Bada, maien komunitateko kideekin eta buruzagi indigenekin egindako lan eta elkarrizketa sakonek hainbeste astindu ninduten, neure burua behartuta ikusi bainuen, nolabait esatearren, argi bereiztera Europako eta Espainiako tradizioetatik zeinetaz nagoen harro eta zeinetaz inola ere ez. Azken hamarkadetan migrazioak aztertzen eta aniztasunaren kulturarteko kudeaketaren arloan esku-hartzeko eta bitartekaritzako proiektu aplikatueta murgilduta jardun dut nagusiki, eta jardun horrek zenbait auzotan migratzaileekin eta migratzaileen kolektiboekin harremanetan jarri nau. Haiengandik asko ikasi dut, baina ez hori bakarrik: Espainia aniztasun handiko lekua den kontzientzia eta irudipena, lehendik neukana, biziagotu egin dit horrek. Eta orain are aniztasun handiagokoa eta aberatsagoa da gainera.

Azkenik, azken urteotan ijitoekin eta ijito-erakundeekin estuki lan egiten ari naiz. Horrek, ijitoen kultura-ondareaz ikasteko aukera ez ezik, modua eman dit berriro begiratzeko –ispilu batean bezala, berriz diot– eta ikusteko Espainia ere bai eta ni neu ez-ijittoa naizela, *payoa*, ijito-herriaren adiskide eta mireslea. Neure esperientziara jo badut, argudioa hurbilagokoa eta esanguratsuagoa gerta dadin lortzeko besterik ez da, eta irakurtzen ari zaretenok zuen kulturarteko esperientzia aztertzerantz animatzeko ere bai, esperientzia hori elkar entzutekoa, errespetuzkoa eta bzipenezkoa izan bada.

3. Kultura-aniztasuna aberasgarria zergatik den azaltzeko hirugarren arrazoi bat iradoki nahi nuke oraindik: **kultura-aniztasuna kontuan izanda bakarrik jakin dezakegulako, ondo antzean, giza izaera zertan den.** Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Garrantzi itzeleko zerbaitetaz ari gara, betierekoa da, muina: **zer gara?** Auzi konplexu eta erabakigarri horri diziplina, ideologia eta mundu-ikuskeraren ugaritatik heldu zaio eta hemen ezin dut sakon jorratu, ezta hurrik eman ere, baina bai baieztatu dezaket hau, antropologiaren arlotik: *sapiensak* gure aniztasun sakonean batasun handiko espezie bat gara.

Denok gizaki gara, eta gizaki izate horretan antzekotasun eta ezaugarri komun nabarmenak ditugu, eta, aldi berean, milaka adierazpen kultural: inuitak, ijitoak, txinatarrak, tuaregak, wolofak, samiak, berbereak, aimarak... Levy-Straussek gure **izaera duala** esan zion horri. Aniztasun eztabaidaezin eta nonahiko hori gogoan ez badugu, zer garen edo giza izaerari buruzko ikuspegi mugatu, partzial eta etnozentrikoa izango dugu. Eskolak, liburuek, bidaiak eta hedabideek horren berri ematen digute, egia da; baina nago, eta uste dut ados egongo zarete, askoz zuzenagoa, biziagoa eta aberasgarriagoa dela hortxe gure aurrean dugun aniztasuna, gure eraikin, kale, auzo, elkarte, enpresa edo herrialdean dugun horixe.

Laburbilduz, beraz, aberastasuna, baina ez ekonomikoa baizik eta **giza aberastasuna** –Amartya Sen-ek egindako bereizketari jarraituz–, **aniztasun** deritzogun aktibo batez edo hartzeko batez osatuta dago, eta haren balioa aukeretan, ispiluetan eta guztion gizaki-izatean datza. Horra hor niri bururatu zaizkidan hiru arrazoiak; gehiago ere izango dira, seguru. Horiei buruz gogoeta egitera animatu nahi zaituztet hau irakurtzen ari zaretenok.

Arrazoiketaren laburpena

- 01 Aniztasunak eta dibertsifikazioak ditugun **aukerak** ugaritzen dituzte eta **berrikuntza** eta **sormena** sustatzen dituzte.
- 02 Aniztasunak norberaren kulturari begiratu ahal izateko **ispilu** bat jartzen digu begien aurrean.
- 03 Kultura-aniztasuna kontuan izanda bakarrik jakin dezakegu, ondo antzean, **giza izaera** zertan den.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

La inmigración como un beneficio para un país (InfoLibre hedabideko artikulua, 2019an argitaratua; immigrazioari buruzko datuak dakartza. <https://bit.ly/3l5SHrB>)

Cinco aportaciones de la inmigración a una sociedad moderna (COPE irrati-katearen artikulua, 2018ko urtarrilean argitaratua, migratzaileek helmugako gizarteei egiten dizkieten bost ekarpen zehatzi buruzkoa. <https://bit.ly/3xe0juG>)

Las aportaciones de la inmigración al proceso de metropolización: el caso de Barcelona (Bartzelonako Unibertsitatearen Scripta Nova geografiako eta gizarte-zientzietako aldizkari elektronikoan argitaratutako artikulua, Bartzelonako migrazio-esperientziari buruzkoa. <https://bit.ly/2TKi1sc>)

Inmigración y diversidad en España. Una aproximación desde el extrañamiento cultural (Francisco Checa-ren artikulua, Mexikoko Estatuako Unibertsitate Autonomoaren Convergencia gizarte-zientzietako aldizkarian 2003an argitaratua, Espainiako migrazio-aniztasunari buruzkoa. <https://bit.ly/3kZLEkq>)

Migrants brings cultural diversity, but is it beneficial or detrimental to the host country? (Munduko Ekonomia Foroaren webgunean 2016an argitaratutako artikulua; kultura-aniztasuna helmugako herrialdeentzat onuragarria ote den galdetzen du. <https://bit.ly/3zL0Tlc>)

~txostenak

La mezcla de culturas en España (Cervantes Institutuaren blog batean argitaratutako artikulua, integrazioaren fenomenoari buruzkoa. <https://bit.ly/3l4NIHK>)

Diversidad migratoria. Distintos protagonistas, diferentes contextos (Deustuko Unibertsitatearen dokumentua, migrazio-aniztasunari eta integrazio-ereduei buruzkoa. <https://bit.ly/3l509n6>)

The inclusion of migrants and refugees: the role of cultural organisations (Europako Batzordearen dokumentu ofiziala, migratzaileen eta iheslarien intergrazioari buruzkoa. <https://bit.ly/3BNgvGT>)

~gizarte-erakundeak

¿Benefician los inmigrantes a la vida cultural de un país? (DIVEMen 2017ko abuztuan argitaratutako artikulua, migratzaileek helmugako gizarteei egiten dizkieten ekarpenei buruzkoa. <https://bit.ly/3zOJTUF>)

~akademia

Diversidad cultural y migraciones: investigación con menores migrantes a través de enfoques biográfico-narrativos (Hegoaldeko Rio Grandeko Unibertsitate Pontifikal Katolikoaren artikulua akademikoa, 2012ko urtarrilean argitaratua; adingabeen integrazioaren ikuspegitik landuta dago, batik bat. <https://bit.ly/3i8mA8X>)

Inmigración y diversidad cultural en España. Un análisis histórico desde la perspectiva de los derechos humanos (Pedro Garridok Salamancako Unibertsitatean aurkeztutako doktore-tesia, migratzaileek kulturari egiten dizkieten ekarpenei buruzkoa. <https://bit.ly/2UO2PLf>)

La inmigración y la diversidad cultural (Eduardo Domenech Kordobako Unibertsitateko irakaslearen liburu bateko kapitulua, migrazioak ematen duen kultura-aniztasunari buruzkoa. <https://bit.ly/3y9q4h5>)

La inmigración y su contribución a la riqueza cultural (Hadi Adanali Ankarako Unibertsitateko irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioek kultura-aberastasunari egiten dioten ekarpenari buruzkoa. <https://bit.ly/3l0Eht3>)

La migración y sus efectos en la cultura (Yerko Castro Neira Mexikoko Metropoliko Unibertsitate Autonomoko irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioek helmugako kulturari dituzten ondorioei buruzkoa. <https://bit.ly/3y9wVXX>)

La identidad cultural y la migración. Una visión desde las experiencias de la Educación Intercultural Bilingüe en el Ecuador (Alberto Conejo Arellano Ekuadorko Unibertsitate Politekniko Salesianoan irakaslearen artikulua akademikoa, Ekuadorko kasuan migratzaileen integrazioari buruzkoa. <https://bit.ly/3iVw4n9>)

II. BLOKEA

Esklusioaren alde

Immigrazioaren aurkako
esanak eta proposizioak



24.

“Immigrazioa Stop!”

LANDUTAKO GAIAK

zer den posible eta zer den ezinezko; migrazioen onurak; erruduntze-mekanismoak eta pagaburuak

Bi hitz baino ez, kaleetan eta bestelako espazio publikoetan jarriak modu grafikoan, bide-seinale gisa, debeku-seinale forman zehazki. Bi hitz baino ez, baina argi eta garbi adierazi nahi dute badagoela errealitate bat geldiarazi beharrekoa, zerbait txarra delako, kalte egiten duen zerbait. Izurriekin eta inbasioekin berdin gertatzen da; aurre egin behar zaie, geldiarazi egin behar dira.

Hiru gauza ikusarazten saiatuko naiz: lelo horretan migrazioen nolakotasunari buruz azpian dagoena faltsua dela; lelo demagogikoa dela, ezinezkoa den zerbait proposatzen ari delako, eta Bestea erruduntzat jotzeko mekanismo eta estrategia bat dela.

1. Leloak migrazio-fenomenoa kaltegarritzat jotzen du eta aditzera ematen du pairatzen ari garen zerbait dela, ondorio txarrak eta are zoritzarrekoak eragiten ari den zerbait. Baina migrazioa ez da izatez negatiboa. Hori diogunean, ez dela izatez negatiboa, ez da ez dugulako ikusten zenbait erronka eta zailtasun dakartzala, edo arazoak, nahiago bada; hori bistakoa baita. Zer prozesu sozial konplexuk ez dakartza erronkak eta zailtasunak? Zer aldaketa-prozesuk ez dakartza berekin?

Migrazioa oso-oso aspaldiko errealitate historiko bat da eta fenomeno konplexua da. Konplexutasuna nabarmena da: migrazioaren auziak osagai pertsonal, familiar eta komunitarioak ditu; tartean dira mugikortasuna, mugak eta igarotze-ibilbideak; garrantzi handia dute alderdi juridikoek, lan-arlokoek, bizilekuarekin lotutakoek, hezkuntzazkoek, kulturalak... Norberaren bizitzako aldaketa-prozesuek ere –etxez aldatzeak, lanez edo bikotekidez aldatzeak, ume bat izateak, bikotekidearengandik banantzeak...– zailtasunak, erronkak, tentsioak eragiten badituzte, zer espero dugu migrazioak bezalako prozesu soziokultural konplexuetatik?

Migrazio-prozesuek hainbat aldaketa-prozesu dakartzate berekin, ez bakarrik protagonista nagusientzat –migratzaileentzat eta haien familientzat–, baita gizarte hartzaileentzat eta haietako administrazioentzat ere: mugetarako eta baimenetarako arau berriak, dibertsifikazio soziokulturala kaleetan eta espazio publikoetan, ikasle berriak... Eta, lehen esan dugun bezala, aldaketa orok erronkak eta tentsioak dakartza.

Orain, erronka badela eta konplexua dela onartu eta gero, eta fenomenoaren idealizazioan erortzea ekidinda, beraz, gatozen harira, Immigrazioa Stop esaldian adierazitako balorazio negatibo horretara. Zergatik gerarazi nahi edo beharko genuke immigrazioa, gizarte hartzailearentzat ere zalantzarik gabe onurak dituen prozesu bat da eta? Zeren hori erakusten baitute harrera-herrialdeei migrazio-fenomenoak zer ekarpen eta onura ematen dizkien aztertu eta kuantifikatu dituzten azterlan ugariak.⁶⁶

Migrazioak eragotzi behar dira

esaldiari buruz 2. iruzkinean emandako argudioez gain, laburbil ditzagun 21, 22. eta 23. iruzkinetan emandakoak: biztanleria-piramidea gaztetzea (eta horrek pentsioetarako dakarren onura), zenbait sektore eta enpresak aurrera jarraitu ahal

66. Migrazioen abantaileri eta eragozpenei buruz gehiago jakiteko, hona jo daiteke: Giménez (2003), “Efectos y cambios en las dos orillas”, *Que es la inmigración*, Bartzelona, RBA, 3. kapitulua

izatea (ekarpen hori gabe askoz nekezagoa gertatuko litzaikeela jakinda), negozio- eta jarduera-ildo berriak sortzea (eta horrek autoktonoentzat sortzen dituen lan-aukera berriak), kanpotik prestakuntza, trebakuntza eta talentua etortzearen ekarpena (kontuan izanda gizarte hartzailearen ekonomiari ez zaiola ezer kostatzen), gizarte-segurantzako afiliazio berriak, kultura-aberastasuna... Horra hor geurtatzen ari garen leloak bazter uzten dituen alderdi positiboetako batzuk.

Beraz, alderdi positibo edo onuragarri horiek guztiak baditu, zergatik geldiarazi immigrazioa? Edo beste modu batean esanda: lelo xenofobo, erasozko, baita guztiz txepel eta batere burutsu hori aintzat hartzen badugu, ez ote gara ariko geure buruaren kaltetan? Ez ote gara uko egiten ariko giza mugikortasuneko prozesuek sortzen dituzten aukerei? Hain luzaroan gertatu izan den fenomeno unibertsal eta konplexu horren ondorio negatibo posibleak eta eragozpen nahiz erronkak nahikoa arrazoi ote dira, bada, haren aurka irmoki egiteko? Zeren arazoak eta eragozpenak, berriro diogu, aldaketa sozial orotan baitaude.

2. Bestalde, **migrazio-prozesuak arautu daitezke, eta arautu behar dira, baina ezin dira geldiarazi.** Aberastasuna eta boterea oso modu desorekatuan banatuta egotearen ondorio dira; aberastasunaren eta boterearen aldetik desparekotasun itzelak, etengabeak eta gero eta handiagoak baitaude eremu geopolitikoaren artean, izan eremu horiek herrialdeak (nazioarteko migrazioak) edo izan eskualdeak eta hiriak (barne-migrazioak). Horri buruzko ebidentzia ugari dago era askotako azterlanetan; batik batik, *mendekotasunaren teoriaren* ikuspegitik egindakoetan. Norbaitek **immigratioa geldiarazi** nahi badu, mundu bidezkoago baten alde lan egitea du onena.

Migrazioak eragiten dituzten kausetatik beste bat **kanporatze-faktoreen** (*push*) **eta erakartze-faktoreen** (*pull*) konbinazioa da; lehenak emigrazio-lekuari

dagozkio (langabezia eta azpienplegua, askatasun falta, familiakoekin elkartzea...), eta bigarrenak, berriz, helmugakoari (langile beharra, demokrazia eta egonkortasun politikoa, senideak jada han finkatuta egotea...). Baieztapen hori sendo oinarrituta dago duela ehun urtetatik, **modernizazioaren teoriaren** hastapenekin eta Chicagoko Eskola Sozioantropologikoarekin. Ordudanik, egin diren ikerketa oso ugarietartean diren faktoreen kopurua eta aniztasuna zabaldu besterik ez dute egin: sexu/genero-rolak eta -egoerak, emigrazioa abentura gisa edo maitasunagatik, klima-aldaketa... Faktore horiek guztiak edo behinik behin gehienak ez baleude edo eraginik ez balute, migrazioak gutxitu egingo lirateke, beharbada. Baina *Immigratioa Stop* dioten demagogoei horri buruz ez diote ezer.

Gainera, globalizazioaren garaiotan eta garraioen eta komunikazioaren teknologia berrien (IKT) iraultza betean, migrazioak konexio berrien eta konektibitate itzelaren ondorio ere badira. Kritikatu nahi dugun leloa ahaztu gabe, *Immigratioa Stop*, esan dezagun migrazioak eta giza mugikortasuna inoiz baino errotuago daudela. Hor ditugu azterketa bipolar eta multipolarrak (jatorrian eta helmugan), etnografia multikokatua eta sare-analisiak, guztiak ere **transnazionalismoaren teoriaren** ikuspuntutik eginak, eta, denek erakusten dutenez, sendotasun guztiz erakutsi ere, migrazioek **eremu transnazionalak** sortu dituzte, nazio-estatuaren lurralde-mugaketaz haraindikoak.

Eremu horietan, **transmigratzaileek** eta haien familiek eta komunitateek, hangoek eta hemengoek, lehengo loturei eutsi, berregin eta era guztietako harreman eta errealitate modu berriak sortzen dituzte, ahaidetasunezkoak, komertzialak, elkarrean artekoak, identitarioak, politikoak... Azterlan transnazionalak erakusten dute aukera-desberdintasunak bultzatzen dituela zenbait pertsona migratzerantz: jatorrian dituzten aukeren –edo aukerarik ezaren– eta

hedabide, IKT eta jada emigratu dutenen mezuek hala pentsarazita helmugako lekuan ustez izan ditzateken aukeren arteko desberdintasunak, hain zuzen.

Hori guztia geldiarazi? Kanoikadaka, Italiako Ipar Liga alderdiko Umberto Bossi politikari xenofoboak proposatzen zuen bezala? Edo Espainiako oposizioko alderdi nagusiko bozeramaileak proposatu bezala armada bidalita? *Immigrazioa Stop* leloaren eta horrelakoen aldeko ez dut uste argudio hauek interesatzen zaizkien. Jarrera demagogikoa da haiena. Hitzegiak esaten digunez, demagogia da "lausenguak, herri xehearen gogokoak baina betetzen zailak diren hitzemande faltsuak eta antzeko beste prozedura batzuk erabiltzea, herria konbentzitzeko eta hura norberaren anbizio politikorako tresna bihurtzeko". *Immigrazioa Stop* diotenek, beraz, etsai bat eta pagaburu bat sortzeaz batera, faltsua den zerbaite hitzemande ari dira: geldiezina den zerbaite gelditzea; hori, "betetzen zaila" bakarrik ez, bete ezinezkoa da. Eta horrela, bide batez esanda, jarrera arduragabe eta kaltegarri bat hartzen ari dira: ez dute migrazioaren erronkari heltzeko ardura beren gain hartzen, zeren migrazioa ezin baita eragotzi, baina bai arautu.

Arrazoiketaren laburpena

- 01 Migrazioa **faltsukeriaz** beteta aurkezten da; hau da, ez da aurkezten arautu beharreko fenomeno konplexu gisa, fenomeno erabat eta osoki negatibo eta kaltegarri gisa baizik.
- 02 Zergatik geldiarazi zerbaite, onura handi eta askotarikoak baditu, migratzaileentzat eta jatorriko gizarteentzat ez ezik, baita gizarte hartzailearentzat ere?
- 03 Ezinezkoa den zerbaite aldarrikatzen dute, demagogikoki. Migrazio-prozesuak, giza espeziearen eboluzioari eta historiari lotuak, arautu daitezke, eta arautu behar dira, baina ezin dira geldiarazi: eremu geopolitikoaren artean dauden

- 3. Ohart gaituzen horrelako leloak gure gaituzen **errudunak kanpoan bilatzeko mekanismoak** direla, **pagaburuak** aurkitu nahiari emandako aterabideak. Mekanismo horien oinarrian jendearen nahigabea dago, gizarteko sektore batzuek beren bizi-egoerarekiko duten atsekabea. Ezinegon edo haserre pertsonal eta sozialen ondorioz (langabezia, pobrezia, bizitzaren garestitzea, familiarik emantzipatu ezina, gaixotasunak, gatazkak...), zenbait pertsonak eta/edo kolektibok egoera txar horren esplikazio bila kanpo-faktoreetara jo dezakete.

Ikuspegi horretatik, historiaren joanean eta hainbat testuingurutan, migrazioaren errealitateak pagaburu bilakatzeko aukera handi-handiak dauzka: nahikoa gizarte-laguntza ez baldin badago... "lehentasunez immigranteei ematen dizkiete eta!"; kaleetan edo halako lekuan segurtasunik ez badago... "bidaiderik gabeko adingabe horiek daude eta!"; COVID-19aren pandemian, halako nekazaritza-eskualdean birusa hedatu bada... "sasoikako langile atzerritarren errua izango da!", etab.

- aberastasun- eta botere-desberdintasun itzel, etengabeko eta gero eta handiagoen ondorio dira.
- 04 Horregatik, lelo hori aldarrikatzea arduragabekeria da, besteak beste, ez diolako aurre egin nahi arautu beharreko zerbaitei.
- 05 Beste zenbait bezala, lelo hori gure arazo, zailtasun edo gabezien **errudunak kanpoan bilatzeko mekanismoak** dira, **pagaburuak** aurkitu nahiari emandako aterabideak.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

50 bulos sobre inmigrantes y refugiados que te pueden intentar colar (Maldita hedabideko artikulua, 2019ko urtarrilean argitaratua; migrazioei buruzko gezur nagusietako batzuk azaltzen ditu. <https://bit.ly/3iaVTAr>)

“Somos funcionarios y estamos hartos de oír que los inmigrantes tienen más ayudas” (El Confidencial hedabideko artikulua, 2019ko martxoan argitaratua, zenbait funtzionariok migrazioei buruzko zurrumurru batzuk gezurtatzeko idatzia. <https://bit.ly/3l7PR5z>)

La inmigración compensa la caída de la población en España al año de la pandemia (EFEren artikulua, 2021eko ekainean argitaratua, migrazioen onura demografikoei buruzkoa. <https://bit.ly/3rHHa3l>)

Ni roban el trabajo ni las ayudas: bulos económicos contra inmigrantes (VerificaRTVE-ko artikulua, 2021eko apirilean argitaratua; immigranteen kontrako gezur batzuk ezeztatzen ditu. <https://bit.ly/3zPKqMW>)

Datos: qué ayudas reciben los inmigrantes en España (Newtral hedabideko artikulua, 2019ko urtarrilean argitaratua; migratzaileek Espainian ustez jasotzen dituzten gizarte-laguntzei buruzko gezurrak ezeztatzen ditu. <https://bit.ly/3l3HPuy>)

~estatistikak

Población extranjera de 2020 y 2021 en España, por nacionalidad (Statista atariko estatistika-taula bat. <https://bit.ly/2VknINX>)

Estadística de migraciones / Indicadores demográficos básicos. Datos provisionales año 2020 (INE Espainiako Estatistika Institutuaren datuak, Espainiako 2020ko migrazioei buruzkoak. <https://bit.ly/3jgyRrt>)

Estadísticas de migraciones (Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazioen Ministerioaren Immigrazio Atariko datuak. <https://bit.ly/3j48HrJ>)

~txostenak

Las políticas de integración en España según el índice MIPEX (Barcelona Center for International Affairs erakundearen laneko dokumentua, 2020ko abenduan argitaratua, Espainian migratzaileak integratzeko neurriei buruzkoa. <https://bit.ly/3iXqWix>)

Borders and the mobility of migrants (Barcelona Center for International Affairs erakundearen laneko dokumentua, 2019ko abuztuan argitaratua, migratzaileek Espainian aurre egin beharreko errokei buruzkoa. <https://bit.ly/379EaD7>)

~akademia

La inmigración y su contribución a la riqueza cultural (Hadi Adanali Ankarako Unibertsitateko irakaslearen artikulua akademikoa, migrazioek kultura- aberastasunari egiten dioten ekarpenei buruzkoa. <https://bit.ly/3l0Eht3>)

La contribución de los migrantes al IRPF (artikulu akademikoa, Mercedes Sastre Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko irakasleak, Teresa Pérez IEF Azterketa Fiskalen Institutuko kideak eta Luis Ayala Juan Carlos Erregea Unibertsitateko irakasleak idatzia, migrazioen onura fiskalei buruzkoa. <https://bit.ly/3i8xmfu>)

Gasto sanitario e inmigración: una mirada en clave de integración (Artikulu akademikoa, IEF Azterketa Fiskalen Institutuko Ángela Blancok eta Osasun eta Gizarte Politikaren Ministerioiko Israel John Thuissard-ek idatzia, migratzaileek osasun-sistema publikoan duten pisuari buruzkoa. <https://bit.ly/3zOSgdS>)

Inmigración y servicios sociales. Entre el estereotipo y la realidad (artikulu akademikoa, Xavier Montagud Kataluniako Generalitateko Gizarte Ongizate Saileko kideak eta Francesc Torres Valentziako Unibertsitateko irakasleak idatzi eta 2002an argitaratua, migratzaileak Valentziako gizarte-zerbitzuetan integratzeari buruzkoa. <https://bit.ly/3fa0PDJ>)

25.

“Lehenbizi etxeakoak!”

LANDUTAKO GAIAK

konfrontazio-estrategiak; binomio antagonikoak
sortzea; faltsukeriak; dinamismo soziala;
nazionalizazioak; abegikortasunaren etika; globalizazioa

Beste lelo horrek gauzei buruzko ikuskera oso bat eta haiekiko jarrera erradikala laburbiltzen du. Zeharo baztertzailea eta xenofoboa bada ere, hala dela ikusaraztea espero dut, eraginkortasun komunikatiboaren ikuspegitik lelo ona da; izan ere, bi hitz bakarrik dira, gogoratzen eta esaten erraza da, eta, mezu guztiz irmo baten bidez, mundu-ikuskerara bat erakusten du: beti norberarena lehenestea, nork bere-berea duena, hurbilen zaion hura.

Lelo moldaeraza da, gainera, hemen eta han aplikatuta, hitz bakarria aldatuta: “*lehenbizi espainiarrak*”, “*lehenbizi hemengoak*”, “*American First*”, etab. *Plataforma per Catalunya* (PxC) talde politikoaren immigrazioaren aurkako kanpaina xenofoboetan entzun nuen eta ikusi nuen idatzita aurrenekoz; ikusi berri dugun Immigrazioa Stop leloa zeraman osagarri orduko hartan.

Hitzek garbi adierazten duten bezala, aldarrikapen horretako eduki esplizituena da zer **lehenesten** den: nazionalak, autoktonoak, **hemengoak**. Horren bertsio ustez onbera edo *light* bat litzateke, adibidez, orain parafraseatuko dudan honen moduko

zerbait: “lehenbizi arduraz gaitzen geure premiez, kezkatu gaitzen geure jendeaz, eta, gero, zerbait geratzen bada, hartuko dugu kontuan beste batzuek soberazko baliabide horiek erabiltzea”. Bertsio zertxobait *light*ago horrek ere probokazioetarako bidea ematen du, dena den. Halakoxe kanpainak egin zituzten, adibidez, “elikagaiak espainiarrentzat bakarrik” lelotzat hartuta, eskuin-muturreko zenbait erakundek: *España 2000* (*Alimentos para Mi Pueblo eta Hogar Social Patriota izeneko bere GKEen bidez*), *Alianza Nacional eta Movimiento Social Republicano*. Kanpaina horiek guztiz bat zetozen Greziako *Amanecer Dorado* alderdi neonaziko militanteen praktika homologoekin (haietan inspiratuta zeuden beharbada); gogoratu dezagun Grezian liskar handiak eragin zituztela eta buruzagiei espetxe-zigorak ezarri zizkietela.

España 2000ko buruzagiak honela justifikatu zuen kanpaina hura: “Pepelero herri honetan halakoxe egoerara iritsi gara: lehenbizi kanpokoak dira, eta gero etxeakoak... Iritsi da aldatzeko ordua, nazionala lehenestearen printzipioa printzipio orokorra izatekoa”⁶⁷. Ikus daitekeen bezala, lelo horren oinarrian –maila publiko nahiz pribatuan immigrazioari buruz dauden diskurtso askotan bezala– bi kategoriaren arteko aurkaritza eta antagonismoa dago, gu eta haiek, eta pertsonak bi multzotan sailkatze bat: **barrukoak, nazionalak** edo espainiarrak, eta **kanpokoak, atzeritarrak** edo **arrotzak**.

Lelo horri eraginkortasuna, guk behintzat hala uste edo interpretatzen dugu, ez datorkio bakarrik mezu esplizitu horretatik –lehenespenak zehaztea eta gu/haiek konfrontazio-binomioaren dikotomia erradikala–, baita beste eduki inplizitu eta posible batzuetatik ere. Esaldi horretan inplizituki dagoen ideia bat da,

67. Hedabideetan oihartzun handia izan zuen. Ikus, adibidez, “Partidos de ultraderecha reparten ayudas solo para españoles”, David Ríos, *InfoLibre*, 2013/10/05

esaterako, hiritarren premiei erantzuteko baliabideak ez direla nahikoak eta, beraz, lehentasuna etxekoei eman behar zaiela. Horrek eraginkortasuna ematen dio, zeren hori, ustez behintzat, erraz ulertuko eta onartuko baitute hiritarren arteko sektore batzuek: horixe da helburua. Beste zerbaite ere ezkututzen eta elikatzen du esaldiak (edo ezkuta eta elika dezake), **lehenbizi nor** horretaz gain: **nagusitasun-zentzu edo -konbikzio** bat; eta hori, hain zuzen, giza harremanetarako ezin kaltegarriagoa da, eta arrazakerien osagai erabakigarri bat.

Duela hirurogei urte baino gehiago, antropologia sozialean komunitate-azterketak edo nekazari-azterketak (*peasant studies*) goren-gorenean zeudenean, Edward C. Banfield-ek (1958), Hegoaldeko Italiako landa-komunitate txiki bati buruzko bere azterlanean, **familismo amoral** kontzeptua proposatu zuen; garai hartako eztabaida zientifikoan oso polemikoa izan zen. Nozio horren bidez, nekazari-herri hark bere-bereak zituen oinarrizko jarrera batzuk bereizi eta adierazi nahi izan zituen Banfieldek, eta Mediterraneoko beste gizarte batzuetara hedatu ote zitekeen iradoki zuen: landa-giroko familia-unitateak dira, zeinetan gauza guztien gaineratik lehen-lehenbizikoa familia den eta, gero, komunitateko besteak eta mundua. Italiako nekazarien ustezko ideologia eta balio horietan, Banfieldek esanetan, justifikatuta zegoen publikoa denaz baliatzea, amarruz izanda ere.

Aztergai dugun leloak horrekin zerikusi handia du. Lehenbizi geure buruaz eta gutarrez arduratu behar dugulako iritzia zentzuzko jokabidetzat aurkezten du eta horretan ezinbestean ustez ados egongo direnen babesa eta oniritzia lortzea du helburu. Hain zentzuzkoa bada, ordea, zergatik da beharrezkoa lelo horri kritika egitea, aurre egitea? Nire ustez, izugarri eta errotik xenofoboa delako eta sustatzen dituen balioak norberekeria eta polarizazioa direlako, eta ez altruismoa eta abegikortasuna.

Eta hori egiaztatzeke aski da ikustea leloa zeinek sustatzen eta erabiltzen duten (eskuin-muturreko alderdiak edo alderdi ultrakontserbadoreak), zer testuingurutan (hauteskunde-kanpainak, immigrazioaren kontrako jarrerekin eta aldarriekin botoa lortu nahian), eta zer asmo eta ondorio dituen: konfrontazio eta zatiketa soziala.

Orain, galdera da: nola egin aurre lelo horri –eta nola ezeztatu, gainera–, kontuan izanda xenofoboa eta konfrontaziora bideratua dela eta, aldi berean, erraza eta eraginkorra ere bai? Beste ezer baino lehen, baieztapen horretan baliozko zer dagoen edo egon daitekeen onartu behar da. Aurreiritzi eta estereotipo negatiboekin gertatzen den bezala (baliagarriak izango badira, errealitatean heldulekuren bat edo egiazko zerbaite izan behar dute), sumatzen ditugun premiekin konektatu behar dute leloek ere. Lelo hori sustatzen dutenek badakite Espainiako hiritar askok eta askok ez dituztela beren premiak aseta eta, horretaz baliatuta, gizartearen babesa lortzen saiatzen dira honelakoak esanez: “zuk duzu lehentasuna; immigrante horiek pribilegiatuta daude eta zuri behar dituzun laguntzak kentzen ari dira”.

Zalantzarik gabe, ezin gara ahaztu **etxekoak** diren horiez, immigrante-hartzaile den gizarteaz. Immigrazio-politikek –eta, horien artean, gizarte-integrazioarekin lotutakoek (Europako eta Espainiako politiken bigarren ardatza izan dira orain arte)– beste zenbait printzipioren artean *statu quo*a bermatu behar dute; hau da, biztanleria hartzailearen bizi-kalitatea eta bizi-maila. Bidezkoa ez izateaz gain, ezer onik nekez ekar lezake migrazio-fenomenoaren ondorioz biztanleria hartzailearen bizi-baldintzetan atzera egiteak. Baina nago, lehen esandako arrazoiengatik (zein diren sustatzaileak, testuingurua eta helburuak), leloa ez dela horretaz ari.

Hasi gaitezen, bada, leloaren izaera zatitzaile eta xenofoboari kritika egin

eta erantzuten. Horretarako, nire gogoetak bi multzotan bilduko ditut: alde batetik, **lehenbizi** horri buruzkoak, hau da, **lehentasunaren** gainekoak; eta, bestetik, **etxearen metafora** indartsu eta iradokitzailea erabiltzeko moduari buruzkoak.

1. Esaldi horretan abiapuntua da immigratzaileak pribilegiatzen direla; alegia, espainiarrek baino laguntza gehiago jasotzen dituztela, hau da, lehenbizi haiek daudela. Hori argi eta garbi gezur biribila da, eta, horri dagokionez, bi iruzkin hauetan azaldutakoa kontsultatu daiteke: 14.a, “Immigranteek eta haien familiek gizarte-laguntzak bereganatzen dituzte”, eta 15.a, “Lehentasuna ematen zaie immigranteei, programa gehienak haientzat dira”.
2. Beste lau gogoeta osagarri azalduko ditut orain, laurak ere etxearen metaforaren erabilera baztertzailerari buruzkoak. Erabilera baztertzailerak diogu, zeren etxearen ideia, ederra ez ezik, oso baliozkoa ere bai baita munduko gizarteak izan behar lukeen eta izan litekeen **komunitateen komunitatea** eraikitzeari begira.

“Lehenbizi etxeok”, diote. **Etxearen metafora oso indartsua da, esanahitan eta emoziotan oso aberatsa.** Kasu honetan, figura erretoriko horren bidez, **herrialde** edo **nazio** kontzeptua edo errealitatea adierazten ari dira, bizipen edo errepresentazio unibertsal baten bitartez: etxea, **domusa, bizilekua, ostatua.** Errealitate zabal, orokor eta publiko bat –nazioa–, errealitate txiki, partikular eta pribatu baten bidez adierazia. Horregatik, “Lehenbizi etxeok” esaldiak ukitu egiten gaitu, gertukoa zaigu: gure **familiaz** ari da, edo gure auzo, herri, hiriaz, edo kasu honetan, komunitate nazionalaz, etxe gisa ulertua, familia gisa. Baina, zer da etxe hori eta nor bizi dira etxe horretan?

Metafora hori hainbat modutara erabil daiteke, jakina, beste metafora batzuekin gertatzen den bezala. Sinplifikatzearen,

esango dugu bi erabilera bereiz daitezkeela, zer duten helburu kontuan hartuta: inklusioa edo eskusioa. Lehenaren adibide da duela urte asko Ágnes Heller filosofo hungariarrak idatzitako *Diez tesis sobre inmigración* (1992) artikulua; etxeaz ziharduen, hain zuzen, eta immigrazioaren auziari **etxeok** arauen eta arau horiek betetzearen ikuspuntutik heldu zion. Gai horretan sakondu nahi duenari artikulua irakurtzea biziki gomendatzen diot. Bigarrena, berriz, etxearen metafora eskusiorako, zatiketarako eta konfrontaziorako erabiltzea, dioxosozko gure lelo horrek egiten du, adibidez, edota AEBko presidente ohi Donald Trump-en *American First* ezagunak. Azter ditzagun lehen aipatutako lau gogoetak.

1. Lehenik eta behin, **etxea gauza amaitutzat aurkezten da, zerbait konkretu eta jakina balitz bezala, eta ez errealitate dinamiko, aldakor, etengabe eraikitzen ari den zerbait bezala.** Munduko leku eta garai guztietan etxeak (hiriak, nazioak) eraiki egin dira, eta eraikitze etengabe jarraitzen dute, ez bertan jada badaudenekin bakarrik, baita iristen doazenekin ere. AEB etxe bat bada, leku hori ez dute eraiki herrialde berri gisa fundatua izan aurretik bertan bizi ziren talde etnikoek bakarrik⁶⁸ (1786ko uztailaren 4an independizatu zen Ingalaterratik); aitzitik, eta AEBren kasuan nagusiki, Europatik, Latinoamerikatik, Asiatik eta beste zenbait lekutatik AEBra joan eta bertan finkatutako **immigranteen** ekarpen askotarikoek ere eraiki dute hango **etxea.**

Gainera, nazioa den etxe hori, baita herri-hiriak diren etxe horiek ere, **emigranteek emandakoarekin ere eraiki da, eta eraikitzen jarraitzen du** (diru-bidalketak, berrikuntzak...). Pentsa dezagun, adibidez, Espainian: 1960ko hamarkadatik aurrera izandako garapen ekonomikoa, bertakoen lanari ez ezik (barne-faktorea, alegia), zenbait kanpo-faktoreri zor zaie (atzerriko inbertsioak, turismo masiboaren hasiera...),

68. Bide batez esanda, engainatuak, gaizki tratatuak eta bereiziak nahiz sarraskituak ere izan zirenak

eta emigranteen diru-bidalketa itzelei ere bai. Denboran atzerago joanez gero, berriz, hor ditugu **indianoak** (XIX. mendearen amaierako eta XX.aren hasierako emigrante galiziarrek, asturiarrak...) eta beren jaioterriei egindako ekarpenak. Beraz, etxea, etxearen eraikuntza, **dinamikoa da eta giza mugikortasunarekin lotuta dago**, ez harekin aurrez aurre, haren aurka.

2. Bigarren gogoetak **nazional izatearekin eta nazionalizazio berrien prozesuekin** du zerikusia. "Lehenbizi etxeokak", "*American First*" eta horrelako leloen aldekoek esan dezakete diru-bidalketen ekarpena egiten duten emigrante horiek azken batean nazionalak direla, hain zuzen horiexek defendatzen dituztela edo horiexei ematen dietela lehentasuna... edo nagusitasuna. Hor garrantzi handiko bi gauza ahazten dituzte, ordea. Bata, **orain atzerritarrak direnak etorkizunean nazionalak izango direla, gehienak behintzat**. Pentsa dezagun Indiatik Mendebalderantz egin zuten ijitoen migrazioan eta diasporan. Iberiar penintsulako erresumetara XV. mendean iritsi zirenean⁶⁹, ijitoak kanpotarrak ziren; gaur egun, ostera, eta aspaldidanik, lurraldeko gutxiengo etniko handiena dira, 800.000 ijito espainiarrez osatua, eta ez da nolana hikoia Espainia deritzon etxe horretan kultura, arte, musika, gastronomia eta hizkuntzei emandakoa.

Lehenbizi nor esaka dabiltzanek ahazten duten bigarren gauza, aurrekoaren ildotik, zera da: **dagoeneko gertatzen ari den nazionalizazio-prozesu handia**. Izan ere, INE Espainiako Estatistika Institutuaren datuen arabera, 2020ko urtarrilean espainiarraz bestelako nazionalitatea zuten biztanleak 5.235.375 ziren; biztanleria guztiaren % 11,4. Kopuru horri nazionalizatuta daudenak gehitzen badizkiogu, hau da, nazionalitate bikoitza dutenak, "jatorriz atzerrikoak diren biztanleak" 6.995.647 dira. Azpimarratu dezagun, bada, milioi eta erdi nazionalizatu berri horiek. INEren arabera, 2013tik 2019ra bitartean bakarrik,

953.098 pertsona nazionalizatu ziren; 953.098 **espainiar berri** eta, beraz, Europar Batasuneko eskubide osoko hiritar.

Etxekoak dira. Leloaren aldekoek hitz horiei ematen dieten zentzuan bai behinik behin: **etxekoa = nazional espainiarra**. Jatorri marokoar, ekuadortar, kolonbiar eta abarreko espainiar berriak dira, eta ez jatorriz bakarrik, pertsona eta hiritar horietarik gehienek bi nazionalitate eta bi kultura baitituzte. **Etxea dibertsifikatu egin da, eta dibertsifikazio hori estrukturala da, ez bakarrik koiunturala**: etxea egokitu beharko da, eta moldatzeko zeregin konplexu horretan ez dute ezertan laguntzen lelo horrek aurkezten dituenen moduko jarrera baztertzailak edo polarizazio bidegabeak.

3. Hirugarren argudioak etxearekin lotura estua duen zerbaitekin du zerikusia: **abegikortasunaren tradizioa**. Auzitan jartzen ari naizen etxearen zentzu baztertzaille, estatiko eta mugatu horrek etxeak soziabilitatearen aldetik egiaz duen izaerarekin hausten du. **Lelo horrek abegikortasunaren tradizio eder eta giza balio handiarekin hausten du**. Munduko herri eta kulturek abegitsu izateko ohitura ederrak sortu dituzte; hau da, bisitari, gonbidatu, bidaiari, ibiltari, kanpotar, atzerritarrak abegi onez eta arretea egokiz hartzeko ohiturak.

Liburu epiko eta erlijio-liburuetan ugari dira liskar, gatazka eta gerrei buruzko kontakizunak, baina horrenbeste dira abegikortasunaren berri ematen dutenak. Leloaren aldekoek agian esango dute ez daudela abegikortasun horren aurka, beren printzipio eta jokabideak ez doazela abegitsu izatearen kontra, esaten duten bakarra lehenbizi barrukoak dela. Orduan, ordea, gogorarazi behar zaie espainiarrek hamaika bider eta hamaika emigrazio eta

69. Lehen ebidentzia dokumentala 1425koa da, Alfontso V.a Aragoiok emandako igaro-baimen edo gomendio-gutun bat, dirudienez ijito bati Iberiar penintsulan sartzeko emandako lehen

erbestealditan jaso dutela abegi ona, eta maiz askotan baliabide urrirenako pertsonak direla abegitsuenak, hori ere bai.

Eta horri buruz, norbaitek esango dit: “bai, baina ez dira gauza bera egun baterako edo batzuetarako etorritako gonbidatu batekin abegitsu izatea eta bizitzen hemen geratu nahi duten milioika pertsona abegi onez hartzea, denontzat ez dagoenean”. Hori dioena, ordea, lehen ere aztertu dugun kontu erabakigarri bat ahazten ari da: kanpotik etorritako horiek asko ematen diote gizarte hartzaileko ekonomiari, demografiari, fiskalitateari eta, oro har, garapenari. Zenbait azterlanek garbi erakutsi dute jatorriz atzerrikoak direnek jasotzen duten baino gehiago ematen diotela ongizate-estatuari (horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, iruzkin hauek kontsulta daitezke: aurreko liburuko 1.a, 14.a eta 15.a, eta liburu honetako 14.a).

4. Honi buruzkoa da laugarren gogoeta: **etxearen idealaren nozioa gaur egungo mundu globalizatu eta mehatxupeko honetan.** “Lehenbizi etxeokak” mezuaren eduki esplizitu eta inplizituak hein handi batean gaur egungo mundu globalizatuarekiko kontraesankorrak

dira, eta mundu globalizatu honetan ezin eginezkoak. Alde bakarretik eta norberekeriaz lehentasuna barrukoei edo nazionalei eman nahi izatea, lehen azaldutako guztiaz gain, **zentzugabekeria edo eragozpen hutsa da globalizazio betean.** Herrialde bakoitzak, autonomia-erkidego bakoitzak, **lander** eta hiri eta auzo eta familia bakoitzak printzipio hori aplikatuko balu, indar zentripetu, etxezulo eta chauvinista bat erabiltzen ari ginateteke, gaur egun munduan gertatzen ari den interrelazio eta interdependentzia gero eta handiagoaren aurka doana.

Are gehiago. Gizadiaren aro berriak –historiako ziklo-aldaketa betean, klima-aldaketaren erronkari aurre egin eta trantsizio sozioekologiko ezinbestekoei ekin behar diegun honetan– inoiz baino zentzu handiagoa, oinarri hobea eta zimendu sendoagoa ematen dio hamaika testu, diskurtso eta filosofia baliotsutan behin eta berriro agertu den ideal eder eta ideia aspaldikoari: *Denon Etxea*, Etxe Handia (gure Planeta, gure Espeziea); hortxe dute zentzua, zentzu inklusibo eta plurala, norberaren familia, eskualde, nazio eta gainerako **etxe txikiek.**

Arrazoiketaren laburpena

- 01 **Konfrontaziorako lelo bat** da: marko diskurtsibo xenofoboko gehienak bezala, **gu/haiek** aurkaritzan eta antagonismoan oinarrituta dago.
- 02 Abiapuntutzat dauka immigranteak pribilegiatzen direla (espainiarrek baino laguntza gehiago jasotzen dituztelako zentzuan), hau da, immigranteak daudela lehenbizi, eta hori **faltsua** da.
- 03 Etxea gauza amaitutzat aurkezten da, zerbait jakina eta konkretua balitz bezala, eta ez **errealitate dinamiko, aldakor eta erakitze etengabearen dagoen zerbait** bezala.
- 04 Garrantzi handiko bi gauza **ahazten** dituzte: 1) orain atzeritarrak direnak etorkizunean **nazionalak** izango dira, gehienak behintzat; 2) aurreko horren ildotik, ahaztu egiten dute dagoeneko gertatzen ari den **nazionalizazio-prozesua.**
- 05 Lelo horrek **abegikortasunaren** tradizio eder eta giza balio handiarekin hausten du. Munduko herri eta kulturek bisitari, gonbidatu, bidaiari, kanpotar, atzeritarrak abegi onez eta arreta egokiz hartzeko ohiturak sortu dituzte.
- 06 “*Lehenbizi etxeokak*” mezuaren eduki esplizitu eta inplizituak gaur egungo **mundu globalizatuarekiko** kontraesankorrak dira, eta ezin eginezkoak.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

¿Cuánto aportan los inmigrantes a la economía española y cuánto gasto suponen realmente? (The Objective-ko artikulua; immigranteek Espainiako gizarteari egiten dioten ekarpenari buruzko informazioa dakar. <https://bit.ly/2UQ52ph>)

Preguntas frecuentes en migración y cómo responderlas (Mundukos atariaren bideoa, migrazio-mugimenduetan izan ohi diren galdera ohikoenei buruzkoa. <https://bit.ly/3zOHgx6>)

Los datos sobre el impacto económico de la inmigración de los que no habla Pablo Casado (El Diario egunkariko artikulua, 2018ko uztailen argitaratua; Pablo Casadok migrazioaren aurka emandako argudio batzuk gezurtatzen ditu. <https://bit.ly/3idhAA5>)

Los datos que demuestran los beneficios de la migración en España: "No cobraremos una pensión futura si no recibimos más inmigrantes" (La Sexta hedabideak 2021ean argitaratutako artikulua; PorCausa fundazioko ikerketa-saileko buru Gonzalo Fanjuli egindako elkarriketa dakar. <https://bit.ly/3zHVv8M>)

~txostenak

El fenómeno migratorio en España. Reflexiones desde el ámbito de la seguridad nacional (DSN Espainiako Segurtasun Sailaren dokumentua, 2019ko martxoan argitaratua, Espainiako migratzaileen egoera orokorrari buruzkoa. <https://bit.ly/3BQUt67>)

La asimilación salarial de los migrantes en España (Espainiako Bankuko Azterketa Zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusiaren dokumentu ofiziala, 2009an argitaratua, Espainiako migratzaileen integrazio ekonomikoari buruzkoa. <https://bit.ly/3f8U2KD>)

Demografía, inmigración y viabilidad del sistema de pensiones. Análisis y proyecciones para España (Espainiako Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren laneko dokumentua, migrazioek pentsio-sisteman duten inpaktuari buruzkoa. <https://bit.ly/3faPS54>)

~gizarte-erakundeak

¿Cuál es la situación de la migración en España? (Ayuda en Acción elkartearen webgunean 2016ko ekainean argitaratutako artikulua; Espainiako migrazio-datuak dakartza. <https://bit.ly/3rlcoac>)

Movimientos migratorios en España y Europa (CEAR Iheslariei Laguntzeko Espainiako Batzordearen dokumentua, Espainiako eta Europako migrazio-joerei buruzkoa. <https://bit.ly/374N3Of>)

Las aportaciones positivas de la inmigración: miradas desde Andalucía (Andaluziako zenbait GKEren laneko dokumentua, Andaluziako migratzaileen integrazioari buruzkoa. <https://bit.ly/3f56Amf>)

La integración de los inmigrantes en España: una propuesta de medición a escala regional (OPI Immigrazioaren Behatoki Iraunkorraren laneko dokumentua, Espainiako immigranteen integrazioari buruzkoa. <https://bit.ly/3rEpi9r>)

Inmigración y emigración: mitos y realidades. Anuario de la inmigración en España 2013 (Barcelona Center for International Affairs erakundearen laneko dokumentua; immigrazioari buruzko zenbait gezur ezertatzen dira. <https://bit.ly/3zSWPzH>)

Los efectos de la COVID-19 sobre la inmigración en España: economía, trabajo y condiciones de vida (Barcelona Center for International Affairs erakundearen laneko dokumentua; COVID-19aren pandemiak migrazio-mugimenduetan izandako eraginak azaltzen dira. <https://bit.ly/3l9aXAE>)

~akademia

Vivienda y condiciones de vida de los inmigrantes en España (Iñaki Iriondo-ren eta Marta Rahona-ren artikulua akademikoa, 2009an argitaratua; Espainian migratzaileak zer baldintzatan ostatatuta dauden azaltzen du. <https://bit.ly/3jzR1V>)

26.

“Horrek erakartze-efektua eragiten du”

LANDUTAKO GAIAK

immigrazio-politikak; migrazioen kausak; nazioarteko arauak; kanporatze-efektua; irtete-efektua; migrazioen ondorioak eta ekarpenak

Esaldi hori behin eta berriro errepikatzen da eta behin eta berriro agertu ohi da hedabideetan. Noiztik esaten da? Nork errepikatzen dute? Noiz esaten dute? Zer garrantzi du?

Erakartze-efektua esaten dutenean, aditzera ematen ari dira erabaki, ekimen edo politika publiko jakin baten ondorioz immigrante gehiago erakarriko direla eta, beraz, migrazio-fluxua handituko dela. Gobernu batek erabakitzen badu, adibidez, itsasoan jitoan dauden pertsona batzuk erreskatatzen laguntzeko itsasontzi bat bidaltzea eta pertsona horiek abegi onez hartzea, batzuek kritikatu egingo dute, “horrek **erakartze-efektua** eragiten” omen du eta. Hala gertatu zen *Aquarius* ontzia Valentziako portura iritsi zenean, 2018an, koalizio-gobernua hasi eta gutxira.

Ez da Espainiako migrazio-politikara mugatzen den zerbait. AEBn, adibidez, Trump presidenteak migrazio-neurri zorrotzak ezarri zituen (mugako hesiak eraiki; Mexiko gogor presionatu, karabanak geldiaraz zitza; haurrak

familiakoengandik banandu...); bada, Biden presidentea neurri haietan atzera egiten saiatu zenean, jarrera berri horrek **erakartze-efektua** eragingo zuela esan zioten eta zuzen zebiltzala uste izan zuten, gainera, AEBko mugaranzko fluxua handitu egin baitzen berriro.

Erregularizazio-prozesuen harira eta iheslariak hartzeko zentro eta neurri berriak direla-eta ere erabili izan da esaldi hori. Kontua ez da gezurra dela, baizik eta ikuspegi desegoki erabatekoa, jarrera immoral edo etika falta, eta immigrazioaren aurkako eta eskusioaren aldeko estrategia oportunistak hutsa. Horri gure iruzkina egiteko, beti bezala baterako ikuspegi hirukoitza aplikatzeko prozedurari jarraituz (alde zientifiko eta soziala, juridiko-politiko eta etiko-normatiboa elkartuta), hiru alderdi hartuko ditugu kontuan.

Lehenik eta behin, hau: esaldi horretan egiazkorik badela onartuta ere (nahiz eta irakurri dudan guztiak abiapuntutzat daukan delako erakartze-efektu hori egon ez dagoela), ikusaraziko dugu lelo horrek txikikeriari erreparatzen diola eta benetan potoloa dena alde batera uzten edo ezkututzen duela: zerk eragiten duen migrazioak gertatzea eta fluxuak handitzea, zein diren benetako kausak. Bigarrenik, esaldiaren immoralitasuna seinalatuko dugu, eta zergatia azalduko: betebeharrak juridiko eta etiko bat betetzeari uko egiten dio, efektu posible bat beste arrazoirik gabe, eta “helburuak bitartekoak justifikatzen ditu” immoralean erortzen da horrela. Azkenik, ikusaraziko dugu esaldi oportunistak dela, ahalegintzen baita gertaera batetik eta praktika onuragarri edo ezinbesteko batetik probetxua ateratzen, immigrazio-politika guztia zikintzeko edo, are okerrago, immigrazioarekiko eta migratzaileekiko arbuioa bultzatzeko (ikus 24. eta 25. iruzkinak: “Immigrazioa Stop” eta “Lehenbizi etxekoak”).

Egia txikia, egia handia: “Erakartze Efektu Handia”

Aurreiritzi eta estereotipo guztiekin gertatzen da: eragina izango badute, errealtatearekin nolabaiteko lotura izan behar dute ezinbestean. Erakartze-efektu deritzonarekin ere halaxe gertatzen da. Bada **nolabait** erreala, baina **batez ere** iritzi aldebakarreko, sinplista eta desitxuratu bat da. Beste modu batean esanda: erakartze-efektuarena ez da gezurra, baizik eta iruzurra, “egia-itxurako engainu bat”.

Demagun, adibidez, migrazio-bide eta -egoera jakin batean, nazioarteko legedia betez, jitoan dauden migratzaile batzuk jaso, salbatu eta portura eramaten dituztela. Hori, zalantzarik gabe, gertaera bat da, **informazio bat**, eta **gerta daiteke** jatorrian kontuan eta aintzat hartua izatea, dela emigrantegaiek, dela gizaki-trafikatzaileek eta mafiek.

Demagun, gainera, oraingoan ere nazioarteko hitzarmen eta arauak eta giza eskubideak betez, migratzen ari diren pertsona horiei arta pertsonal, mediko eta juridikoa eman dietela eta kondizio egokiko zentro, aterpetxe edo pisu batzuetara eraman dituztela, beren gizatasuna eta eskubideak errespetatuz, bakoitzaren kasua tramitatu arte. Hori ere **gertaera bat eta informazio bat** da, eta **gerta daiteke** han edo hemen kontuan eta aintzat hartua izatea. Itsasoko migrazio-bide batez aritu gara, baina berdin izan zitekeen lehorrekoa edo airekoa.

Herrialde jakin batean erregularizazio-prozesu bat abiatzen bada (Espainian gertatu den bezala), batzuek laster batean esango dute, horren aurka egiteko, sekulako **erakartze-efektua** eragingo duela. Ikus eta azter dezagun kasu bat. 2005ean, Rodríguez Zapateroren gobernuak agintera iritsi eta gutxira,

atzerritar jatorriko 600.000 pertsona baino gehiago erregularizatzeko prozesua egin zen. Gobernu-ekintza handi horrek erakartze-efektua eragin zuen? Bada, Bartzelonako eta Pompeu Fabra unibertsitateetako ikertzaile Joan Monràsek, Javier Vázquez-Grennok eta Ferran Eliasek azterketa sakon batean⁷⁰ ezetz diote, zenbait arrazoirengatik. Hurrengo urteetan, Espainiaranzko migrazio-fluxuak gehiago hazi ziren erregularizazioak eraginik ez zuen zenbait herrialdeetan –Erresuma Batuan, adibidez– Ekuadorkoa, Errumaniakoa edo Marokokoa baino (Espainiako hiru kolektibo ugariak, hain zuzen). Berehala itzuliko gara lan bikain horretara.

Jarrera, politika, erabaki edo ekimen hori, ustez **erakartze-efektua** eragiten duena, hainbat erakartze-faktoreren artean bat da, izatekotan, eta, egiturazkoak, iraupen luzekoak eta eragin itzelekoak diren beste batzuk ez bezala (ekonomia, enplegua, bizi-maila, askatasun demokratikoak, bake-egoera, etab.), ekimen jakin hori elementu koiunturala da, oso unekoa.

Orain arte egindako azterlanak kontuan hartzen baditugu, bi ildotan argudia daiteke: bata, efektu hori (txikia, koiunturala, izatekotan) **gerta daitekeela edo ez**, zeren giza mugikortasunean (leku horretan, kolektibo horiekin, bide horietan, etab.) **faktore asko eta askotarikoak** baitaude beti tartean, eta **aldakorrak** gainera; hau da, hamaika koiuntura, gorabehera eta gertakari dago jatorrian, bidean eta helmugan, baita migrazio-sarean bertan ere. Bestea, harrigarri edo barregarri samarra gertatzen dela arreta eta azpimarra efektu horretan jartzea, jendea migratzera bultzatzen duten

70. Monràs, J.; Vázquez-Grenno, J. eta Elias, F. (2021, ekaina), *Regularizar la situación de la población inmigrante no provoca un efecto llamado*, La Caixa-ren El Observatorio Social behatokia.

kausak eta azken batean erakartzen dutenak beste batzuk izanda.

Migratzaileak eta iheslariak zerk erakartzen dituen, migrazioen eta lekualdatze behartuen atzean zer faktore, arrazoi eta motibazio dauden, sakon aztertu da gizarte-zientzietan eta, horien barruan, migrazio-azterlanetan, Chicagoko Eskolaren hastapenetatik, joan den mendearen hasieran; duela ehun urte baino gehiago, beraz. Horri buruz gehiago jakiteko, liburuan zehar esandakoetara jo dezake irakurleak; bereziki, 2. iruzkinera, migrazioen kausei eta arrazoiei buruzkoa.

Labur esanda, giza migrazioaren oinarrian eta babes bila ihes egiteko prozesu askotarikoen oinarrian era askotako faktore ugari daude, elkarren artean lotuak, eta lau hauetan laburbil daitezke:

- a. kanporatze- edo **push faktoreen** eta erakartze- edo **pull faktoreen** konbinazioa;
- b. aberastasunaren eta boterearen aldetik nazioen eta eskualdeen artean dauden desberdintasun itzelak;
- c. herrialde batzuen eta besteen artean bizi-baldintzei dagokienez desparekotasun erabatekoa dagoelako pertzepzio gero eta handiagoa (ekonomiaren, lanaren nahiz kontsumoaren ikuspegitik eta alderdi soziopolitikoan eskubideen nahiz askatasunaren aldetik), eta
- d. krisi ekonomikoek, gatazkek eta gerrek, hondamendiek eta klima-aldaketak eragindako lekualdatzeak.

Horrek guztiak bai, erakartze-efektu bat eragiten du: **Erakartze Efectu Handia**. Horregatik, eztabaida publikoan erakartze-efektuaren argudioa agertzen denean, artikulugile batzuek, izan akademikoak edo kazetariak, beste bi efektu kontrajartzen dizkiote, ironiaz: **kanporatze-efektua** eta

irteera-efektua. Lehenaren adibide da, esaterako, Granadako Unibertsitateko irakasle Félix Fernándezen eta María Jesús Santiagoren saiakera (2011): *Niveles de desarrollo e inmigración: “efecto expulsión” versus “efecto llamada”* (esteka jasota dago beheago, *Iturriak eta materialak* atalean).

Ildo beretik, kazetaritza kritikoaren esparrutik eta terminoa aldatuta, beste batzuek **erakartze-efektu** horri **irteera-efektua** kontrajartzen diote, esan dugun bezala. Esate baterako, Ángeles Caballerok (2020), Las Palmaseko Arguineguín portura immigranteak iritsi eta pilatzen ari zirenekoa kontatzen ari dela, lehenbizi argi uzten du: “ez datoz gustuz, inor ez baita bere etxetik irteten itxaropenik ez eta etsipen moduko batengatik ez bada. Ihesi datoz; pobreziatik, gerratik ihesi”. Eta gero dio: “Eta miseria-giro honetan, giza miseria eta literala, **betikoek berriro ere erakartze-efektuaz ohartarazteko aprobetxatzen dute**. Arduratzea geneukan **irteera-efektuaz**, zeina ez baita inondik ere haietaz lehenbailehen libratzea, baizik eta **immigrazioa jatorritik ordenatzen** saiatzea eta, bide batez, beste herrialde batzuekin egiten diren akordioak zertan dautzan esplikatzea behingoz. Horrela eragotziko genuke ihesi doazenen beren bizitzekin trafikatzan duten sareei ordaintzea beste erremediorik ez izatea” (letra lodia jatorrizkoa da; etzana, gurea)⁷¹.

Non dago etika? Helburuak ez ditu bitartekoak justifikatzen

Erakartze-efektuaren leloak, errealtatea eta haren kausak ezkutatu ez zik, jarrera immoral bat du berekin. Giza eskubideen kontra doan premisa

⁷¹ Caballero, Á. (2020/11/19), “Migrantes en Canarias: no es el efecto llamada, es el efecto salida”, *El Confidencial*

bidegabeko batean oinarrituta dago: "ondo tratatzen baditugu, gehiago etorriko dira". Hau da, behar den bezala tratatzen baditugu (giza eskubideak eta nazioarteko nahiz estatuko legeak betez), errazago animatuko dira etortzera. Korolariora: ez ditzagun tratatu behar den bezala, hartara ez dira etorriko-eta... Eta guk gehitzen dugu: horrek eragotziko balie bezala etortzea!

Migratzen ari diren pertsonen edo asiloa eta babesa behar dutenei arreta egokia ematen zaienean, nazioarteko zuzenbide humanitarioan ezarritako arauak betetzen ari gara. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak (GEAU) 6. atalean dioenez, "edozein gizon-emakumek du, **nonahi**, lege-nortasundun dela aitortu diezaioten eskubidea" (letra etzana gurea da). Hori itsas zabalean nahiz mugetan ere aplikatzekoa da, eta pertsonak subjektu eskubidedunak direla nagusitu behar da testuinguru zail eta tragiko horietan. GEAUko 7. atalak dioenez, berriz, "gizon-emakume guztiak berdina dira legearen aurrean [...]" eta "denek dute [...] **edozein bereizkeriaren aurka [...] babes berbera** izateko eskubidea" (letra etzana gurea da). Beraz, bereizkeriarik ez egitera eta tratu-desberdinkeria orotatik babestera behartuta gaude. Balio juridiko eta etiko bat da: agindua agindu da, eta betebeharra bete behar, horrek ondorio hau edo beste eragiten duen gorabehera.

Norbait erreskatatu eta arta pertsonala ematen zaionean, arreta medikoa, mantak eta jatekoa, informazioa eta aholkularitza, errespetu eta afektu oinarrikoa, ez gara beste batzuk etor daitezzen erakartzen ari, humanismoaren eta abegikortasunaren etika oinarrikoa betetzen baizik, nazioarteko itun, hitzarmen eta protokoloetan ezarritakoa betez, gainera. Eta berdin, eta are ardura handiagoz, adingabeak direnean. Eta zaurgarrienak. Gizarte-erakundeetako eta instituzio publikoetako agintarien ordezkariak eta profesionalek, boluntarioek

nahiz kontratatuek, behar bezalako arreta ematen dietenean migratzen ari diren adingabeei (errespetuzko tratua, jatekoa, lotarako lekua, informazioa, interpreteak, etab.), bai bidaideekin daudenei eta bai bidaiderik gabekoei –azken horiekin are nahitaezkoagoa eta espezifikoagoa behar baitu arretak!–, horrelakoetan, besteak beste, 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko 22. artikuluan ezarritakoa betetzen ari gara.

Xehetasunak aitzakia eta estrategia dira, osotasunari erasotzeko

Egongo da esaldi hori fede onez erabiltzen duenik, "dagoeneko gehiegi" direlako irudipena duela-eta kezka zilegia adierazteko edo. Horrelakoak salbuetsita, baina, kontua da esaldi hori erabiltzea immigrazioaren kontrako eta eskusioaren aldekoen estrategia bat gehiago dela. Hori baieztatzeko oinarri aski sendoa dugu, orain arte azaldu ditugunez gain, ikustea esaldia nork eta noiz baliatzen duten. Eta beste zerbait ere bai: arreta (balizko) erakartze-efektu (negatibo) horretan jartzen dute, baina sekula ez erregularizazio-prozesuek edo bestelako neurri batzuek (ziur) dituzten efektu (positibo) zein ahitan.

Lehen aipatu dudana azterlanera itzuliko naiz. Erregularizazio-prozesuak **benetan eragindako efektuak** identifikatu eta kuantifikatu zituzten ikerlan hartan, besteak beste, eta horiexek nabarmendu nahi ditut nik: efektu positibo ekonomiko, laboral eta fiskalak. Erregularizazioaren ondorioz, zergetan bildutako diru-kopurua nabarmen handitu zen. Errentaren gaineko zergetan bakarrik, ogasun publikoak migratzaile erregularizatu berri bakoitzeko 4.100 euro baino gehiago bildu zituen. Biderkatu hori 600.000z.

Bestalde, gizarte-segurantzan afiliatutako atzerritar jatorriko biztanleen kopurua % 6tik % 9ra handitu zuen, eta horrek ondorio positiboak dakartza, jakina, pentsio-sistemari dagokionez, esate baterako.

Lan-arloari dagokionez, berriz, erregularizazioak migratzaileen lan-baldintzak eta lan-aukerak hobetzea ekarri zuen, nabarmen. “[...] lan-aukeren eta -baldintzen hobekuntzak ere agerikoak izan ziren oso denbora gutxiren buruan”. Eta hau ere bai: “Araudia indarrean sartu eta urtebetera, etxe-langileen sektorean erregularizatutako

immigranteen erdiek, gutxi gorabehera (sektore horretan afiliatuen kopurua hirukoiztu egin zen eta zergetan bildutako dirua % 50-100 bitartean handitu zen), beste ekonomia-sektore batzuetako enpresa handiagoetan lana lortu zuten” (2021, *ibidem*).

Nahiago nuke erakartze-efektuaren aldarria zabaltzen dihardutenak itzultzen diren aldiro deliberazio publikoan **garrantziko efektu guztiak** kontuan hartuko balira: Erakartze Efektu Handia, irtete- eta kanporatze-efektuak, zenbait erabaki eta neurriren efektu positiboak... Hala izango ahal da!

Arrazoiketaren laburpena

- 01 “Dagoeneko gehiegi etortzen dira” eta halakoen kezka zilegitik esaten bada, hauxe litzateke koherentea: a) etsi-etsian eta behartuta migratzea eragiten duten **kausei** heldu diezaietela eskatzea, eta b) migratzaileei harrera egiteko nahikoa **baliabide** eta koordinazioa eskatzea.
- 02 Normalean, ordea, esaldi horren atzean **immigrazio orori aurka egiteko** asmoa (ikus 24. eta 25. iruzkinak) eta **esklusioa sustatzeko** nahia daude.
- 03 **Erakartze Efektu Handia** munduan dagoen desparekotasun gero eta handiagoa da, eta, zehazki, jatorriko herrialdeetako gabeziak, bidegabekeriak eta arriskuak (**irtete-efektua, kanporatze-efektua**). Horri buruz ez dute ezertxo ere esaten erakartze-efektuaren aldarria zabaltzen dihardutenek.
- 04 Jarrera xenofoboak dituztenek **erakartze-efektua** seinalatzen dute, izatekotan ustezkoa, mugatua eta koiunturala den efektu bat, baina ahaztu –edo ezkutatu– egiten dituzte migrazioek eta erregularizazio-prozesuek dituzten **efektu ekonomikoak, laboralak eta fiskalak**, nahiz eta horiek positiboak, ugariak eta estrukturalak diren, estatistikek eta azterketa zientifiko-sozialek behin eta berriz erakutsi duten bezala.
- 05 **Etikoki**, kritikagarria da “ez dezagun hori egin (adibidez, immigratzaileak erreskatatu), bestela agian beste batzuk etorriko dira-eta” jarrera, kontuan izanda hori dela hain zuzen egin beharrekoa, giza eskubideak eta nazioarteko akordio eta arauak beteko baditugu.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

No, no hay "efecto llamada" en Andalucía por mucho que lo diga ABC (El Salto Diario egunkariko artikulua, 2018an argitaratua, Aquarius itsasontzia Espainiara iritsi ondoren ABC egunkarian ustezko erakartze-efektu bat salatuz artikulua bat argitaratu ostean. <https://bit.ly/3kSHj2o>)

Efecto llamada y devaluación laboral: los grandes bulos sobre la migración (CTXT hedabidean eta El Observatorio Social behatokian argitaratutako artikulua, migrazioen inguruko gezurrei buruzkoa. <https://bit.ly/3rBd7dn>)

Migrantes en Canarias: no es el efecto llamada, es el efecto salida (El Confidencial hedabidean 2020an argitaratutako artikulua. <https://bit.ly/3kX3xQU>)

El 'efecto llamada' llama de nuevo (Iheslariei Laguntzeko Kataluniako Batzordeko presidente Miguel Pajares-ek Público hedabidean 2020an argitaratutako artikulua, berriro terminoa erabiltzen hasteari buruzkoa. <https://bit.ly/3BJWgOz>)

La impostura del 'efecto llamada' (Gonzalo Fanjul-ek El País hedabidean 2020an argitaratutako artikulua; kontzeptua garatzen du. <https://bit.ly/3zzlUy1>)

Inmigración: el efecto llamada, ¿qué es y por qué no existe? (El País Canario hedabidean argitaratutako artikulua; kontzeptua aztertzen eta gezurtatzen du. <https://bit.ly/3BKCFDo>)

¿Existe el efecto llamada? Todo lo que sabemos indica que no (Newtral hedabidean 2019an argitaratutako artikulua; termino horren kontrako ebidentzia guztiak biltzen ditu. <https://bit.ly/3xbloGI>)

Los efectos del "efecto llamada" (Enrique Martino Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko irakasleak The Conversation hedabidean 2019an argitaratutako artikulua. <https://bit.ly/3y5thON>)

~legeria

No hay "efecto llamada" en Canarias: los letrados canarios no detectan un aumento de solicitudes de asilo (Espainiako Abokatutzaren webgunean argitaratutako dokumentua; fenomeno hori gezurtatzen du. <https://bit.ly/2VfPcUA>)

~akademia

Niveles de desarrollo e inmigración: "efecto expulsión" versus "efecto llamada" (Félix Fernández eta María Jesús Santiago Granadako Unibertsitateko irakasleen artikulua akademikoa. <https://bit.ly/3eSFoXB>)

Definición de "efecto llamada" (hiztegia. <https://bit.ly/3x5Fp0E>)

Regularizar la situación de la población inmigrante no provoca un efecto llamada (Joan Monràs Pompeu Fabra unibertsitateko irakaslearen eta Javier Vázquez-Grenno eta Ferran Elias Bartzelonako Unibertsitateko irakasleen artikulua. <https://bit.ly/3x70rFB>)

¿Qué es lo que produce el 'efecto llamada'? (CSICeko Filosofia Institutuko ikertzaile Juan Carlos Velasco-ren artikulua akademikoa, 2006an argitaratua. <https://bit.ly/3rzBg40>)

27.

“Lanean ari badira, tira; baina bestela, doazela hemendik, ezta?”

LANDUTAKO GAIAK

enplegua eta langabezia; eskubideak eta hiritartasun soziala; onartzea edo ez onartzea

Hori ere entzuten da. Batzuen ustez, horixe da zuzena. Alegia, itxura batean immigrazioa eta migratzaileen lana onartzen dituzte; baina enplegurik ez badute, hau da, “hona ekarri dituen hori” ez badute, orduan “egin dezaketen onena beren jaioterrira itzultzea da”, haien iritzian. “Ez dut ulertzen lanik gabe baldin badaude hemen geratzea”. Ziur asko, esan nahi dutena ez da hainbeste hori ez dutela ulertzen, baizik eta ez zaiela ondo iruditzen, eta benetan aditzera ematen ari direna da ez daudela ados lanik gabe egonez gero bertan geratzearekin.

Azter dezagun xeheki esaldia. Inplizituki esaldiaren azpian dagoen arrazoiketa hauxe da:

- ▶ 1. premisa: “Immigranteak lan egitera etorri dira”.
- ▶ 2. premisa: “Esaten dute, hedabideek diote edo badakit immigrante batzuek ez dutela enplegurik, lanik gabe daudela”.

- ▶ Ondorioa: “Bada, orduan, jakina, beren jaioterrira itzuli behar dute”.

Alabaina:

- ▶ 1. premisari dagokionez, ñabardura txiki bat: jatorriz atzerrikoak diren pertsona guztiak ez dira lan egitera etorri; kontuan izan behar da asko eta asko **bidaide moduan etorri direla, edo familia elkartzeko**, izan zuzenbidezkoa, izan izatezkoa.
- ▶ 2. premisari dagokionez, gogoeta bat: langabezia dagoen beste edonorekin gertatzen den bezala (langabe nazionalekin, alegia), **aldi baterako egoera** bat da hori, **ez behin betiko egoera** bat.

Ondorioari dagokionez, kontrako hiru arrazoi eta sakoneko iruzkin bat:

- ▶ Lehenik eta behin, aurrekoaren ildotik, ez dirudi ez arrazoizko ez bidezko horrela ebatzea –egoera koiuntural batean oinarrituta hain zakar– **inoren bizi-ibilbidea**, inoren epe ertain eta luzeko migrazio-proiektua eta proiektu pertsonal eta familiarra; azken batean, inoren bizitza, etorkizuna eta espektatibak.
- ▶ Bigarrenik, legeen eta politika publikoen ikuspegitik, norbait langabezia dagoenean (izan nazionala edo atzerriarra) **jokabide egokia egoera horri erantzun bat ematea da** (langabezia-prestazioa edo beste batzuk), eta pertsona horri **lan-munduan sartzen laguntzea**, ekimen edo programa zehatz batzuekin; ez, ordea, egoera horretaz baliatuta pertsona hori kanporatu dezatela eskatzea. Ez dezagun ahaztu langile migratzaile gehienak kotizatzen eta ongizate-estatuari beren ekarpena egiten ari direla (ikus 10., 11. eta 14. iruzkinak).

▷ Hirugarrenik, arinkeria handiz esan ohi da “bada, orduan, doazela”. Baina, joan, nor? Ustezko logika hori, nori buruz ari da, hemendik nor bota nahi da? Izan al da gogoan pertsona horren laneko **ibilbideak eta prozesuak**, langile gehienak bezala, gorabeherak izango dituela, enplegu- eta langabezia-uneak? Behin lana galdu eta gero, ez al du eskubidea, besteek bezala, **beste enplegu bat bilatzeko**? Eta zer gertatzen da pertsona horrek bereganatutako **eskubide sozialekin**? Hemendik alde egin eta hemen utzi behar ditu? Ez du eskubidea, besteek bezala, langabezia-prestazioa edo langabeentzako beste prestazio batzuk jasotzeko?

Norbaitek esango du jaioterrira itzuli behar duena edo kanporatu behar dena migratzailea dela, langabezia dagoena, baina pentsa dezagun astiroago eta izan dezagun kontuan bizitza erreala. Zer gertatzen da pertsona horren familiarekin? Eta haren bikotekidearekin? Bikotekidea lanean ari bada, kanporatu egin behar da hura ere? Banantzer behartu behar ditugu? Ez dirudi hori guztia kontuan hartu denik. Eta seme-alabak zer? Haiek ere kanporatu? Eskolatik aterarazi? Behartu daitezke seme-alabak gurasoen jaioterrira joatera, kontuan izanda gainera beharbada ez zirela han jaio, Espainian baizik? Adingabe horiek ez ote dituzte, bada, eskubideak? Laburbilduz, aitaren, amaren edo tutorearen lan-egoera iragankor baten ondorioak familiek ordaindu edo jasan behar dituzte? Bidezkoa da hori? Badu horrek zentzurik batere?

Bestalde, lan-kontu hutsetatik harago joanda, hau ere galdetuko genioke esaldi hori diotenari, gure **migrazio-onartzaile arras partzialari**: eta pertsona horren bikotekidea zer? Aipagai dugun gure subjektu hori orain lanik gabe baldin badago eta bikotekidea lanean ari bada,

zer egingo du, bikotekidea utzi? Lanik gabe geratu dela-eta alde egin behar duelako Espainian utziko du? Eta seme-alabak badituzte, zer gertatzen da haiekin? Aita edo ama alboan egotea galduko dute, hura enplegurik gabe geratu delako? Familia desegingo dugu? Denek joan behar dute? Azken batean, jarrera horren azpian dagoena jatorriz atzerrikoak diren pertsonen **onarpen arras partziala** da, ia ia batere begirunerik gabeko utilitarismo egoista hutsa.

▷ Iruditzen zait **auziaren mamia are larriagoa** dela, esaldi horrek **persona bere langile-izaerara murrizten** duen neurrian, erabat alde batera utziz subjektu eskubideduna dela, leku batean bizi eta leku horretan erroak dituen norbait, hau da, leku bateko bizilaguna dela eta, alde horretatik, **tokiko hiritar bat**⁷². Beste modu batean esanda, **personaren legitimazioa, onarpena eta aitortza murriztu egiten da, ez bakarrik haren langile-izaerara, lanaren aldetik aktibo egotera baizik**. Azaldu ditudan beste kontuez gain, horretan da kezkarriena, nire ustez, iruzkintzen ari garen iritzia. Pertsonen legitimazioa – eta, beraz, migratzaileena ere bai – ez datza haien lan-egoeran, enplegurik baduten edo ez, baizik eta haien giza duintasuna guztiz errespetatzean eta subjektu eskubidedun izatean.

72. Migrazioari eta hiritartasunari buruzko (zehatzago, migratzaileak hiritar berri gisa) eta tokiko hiritartasun, hiritartasun zibiko eta bizilekuaren arabeko hiritartasun kategoriei buruzko azalpen gehiago, hemen: Giménez (2021), “Inmigrantes como nuevos ciudadanos. Derechos, responsabilidades, pertenencia, institucionalidad y participación”, *Migratorias. Miradas. Perspectivas. Propuestas*, Sevilla Acoge fundazioa.

Amaitu dezagun. Itxura batean, azal-azaletik ikusita, aztergai dugun esaldia entzuten duen norbaiti iruditu dakioke zentzuzko samarra dela, zeren, migrazio ekonomiko eta laborala baldin bada, lan egiteko eta jaioterrira dirua bidaltzeko migratu badute, bada, “orduan –dio gure solaskideak–, lanik ez baldin badago, denak behea jotzen du eta ez du zentzurik hemen gelditzeak”.

Azaldu dugun bezala, horrexetan datza iritzi horren arazoa eta ahulgunea: migratzailearen legitimazioa egoera zehatz, aldizkako, koiuntural eta ausazko batera **murrizten** du. Eta are gehiago, gainera; pertsona horren mundu pertsonal eta erlazional guztia haren errealitateko datu bakarrera murrizten du: **une jakin batean** enplegua baduen edo ez.

Arrazoiketaren laburpena

- 01 Pertsonaren **prozesu eta ibilbide soziolaboral guztia hartu behar da kontuan**, eta ez bakarrik haren une jakin bateko langabezia-egoera edo -koiuntura.
- 02 Lanean ari den norbaitek enplegua galtzen duenean, **jokabide egokia ez da pertsona hori kanporatzea, baizik eta bere eskubideak erabil ditzan ziurtatzea**: langabezia-prestazioa jasotzea, beste enplegu bat aurkitu dezan laguntzea, etab.
- 03 Esaldi hori dioena ez da kontuan hartzen ari langile horrekin batera gehien-gehienetan beste pertsona batzuk bizi direla: bikotekidea, seme-alabak, bere ardurapean bizi diren beste pertsona batzuk... Denak kanporatu behar dira kideetako bat aldi baterako langabezian dagoelako?
- 04 Esaldi horrek **pertsona alderdi bakarrera murrizten du** –pertsonaren langile- edo enplegatu-izaerara–, gainerakoa alde batera utzita: subjektu eskubideduna dela, leku bateko bizilagun, familia-unitate bateko kide, etab.
- 05 Migratzailea onartzen duela dirudi, baina ez da hala inondik ere, jarrera hori honetan laburbiltzen baita: langile moduan bai, hiritar moduan ez. Eta langabezian gertatuz gero, langile moduan ere ez.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

El futuro empleo en España, coto privado de los inmigrantes (El Español hedabidean argitaratutako artikulua; biztanleriaren zahartzearen aurrean migratzaileek lan-merkatuan izango duten inpaktua seinatzen du. <https://bit.ly/3rClgOY>)

El 75% de los migrantes desempeña trabajos elementales y precarios, según un informe de Cáritas (El País hedabidean 2019an argitaratutako artikulua; migratzaileen inklusio sozioekonomikoari buruz Caritas-ek idatzitako txosten bati buruzkoa da. <https://bit.ly/3y1NwwC>)

Trabajadores migrantes en España, una importante fuerza laboral en el campo (France 24 hedabidean 2020an argitaratutako artikulua, migratzaileek merkatuan duten eraginari buruzkoa. <https://bit.ly/2VFVjZ2>)

~txostenak

La situación laboral de los inmigrantes en España (2005ean argitaratutako txostena, Espainiako immigrazio-fenomenoari eta immigranteak lan-merkatuan sartzeari buruzkoa. <https://bit.ly/3i6RiiA>)

¿Cómo los extranjeros pueden acceder al mercado laboral? (Educaweb-en argitaratutako dokumentua; migratzaileak lan-merkatuan sartzeko informazio praktikoa dakar. <https://bit.ly/3zyIPQ0>)

Informe La inmigración en España: efectos y oportunidades (Espainiako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak 2019an argitaratutako txostena, Espainiako immigrazioari buruzkoa; egoeraren azterketa xehea dakar. <https://bit.ly/3eYSzGN>)

~estatistikak

Total de ocupados en España en 2020 por nacionalidad y tipo de trabajador (Statista atariko taula estatistikoa. <https://bit.ly/3BHU05V>)

~akademia

Migrants at work: Perspectives, perceptions and new connections (Alessio d'Angelo Nottinghamgo Unibertsitateko irakaslearen eta Eleonore Kofman eta Janroj Yilmaz Keles Middlesexeko Unibertsitateko irakasleen artikulua akademikoa, British Sociological Association elkarteak argitaratua. <https://bit.ly/3wZH1cs>)

Políticas laborales en España para los inmigrantes latinoamericanos (Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Informazio Zientzietan doktore Francisco Sacristán-en artikulua akademikoa, migratzaileak lan-munduan sartzeari buruzkoa. <https://bit.ly/3BCLiGp>)

El acceso de los inmigrantes irregulares al mercado de trabajo: Los procesos de regularización extraordinaria y el arraigo social y laboral (Raquel Aguilera Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle titulararen artikulua akademikoa. <https://bit.ly/3y8Nx1P>)

La "España inmigrante": marco discriminatorio, mercado de trabajo y políticas de integración (Lorenzo Cachón-en liburu baten erreseina; migratzaileak lan-merkatuan integratzeari buruzkoa da. <https://bit.ly/3i4EMjV>)

Inmigración y mercado de trabajo en España: del boom a la Gran Recesión (Rafael Grande Málaga Unibertsitateko irakaslearen eta Tania Paniagua eta Alberto del Rey Salamancako Unibertsitateko irakasleen artikulua akademikoa, migratzaileak lan-merkatuan sartzearen bilakaera historikoari buruzkoa. <https://bit.ly/2V694tr>)

28.

“Mena horiek delinkuenteak dira, bortxatzaileak, pribilegiatuak”

LANDUTAKO GAIAK

adin txikikoak, doilorkeria; erruduntzea eta estigma; politika publikoak eta esku-hartze soziala

Oraingo iruzkin hau ez dut hasiko argudioak emanez, sentimenduak adierazten baizik; zehazki, lotsa eta amorrua: ondo doilorra eta ustela izan behar du pertsonak hauteskundeetan-eta jendearen babesa lortzearen bidaiderek gabeko migratzaile adingabeen egoeraz baliatzeko! Ondo doilorra, ez bakarrik adin txikikoak direlako, nahiz eta hori jada izugarria den, baizik eta gainera zaurgarritasun-egoera pertsonal, sozial eta juridikoan daudelako.

Migratzaile adingabeak

Argudioak ematen hasi aurretik, terminologia argitzea komeni da eta, zehazki, bi hauek bereiztea: “bidaiderek gabeko migratzaile adingabea” (gaztelaniaz MMNA, *menor migrante no acompañado*), lehen erabili dudana, eta

“bidaiderek gabeko atzerritar adingabea” (gaztelaniaz MENA, *menor extranjero no acompañado*), iruzkin honen izenburuan ageri dena, gaztelaniazko akronimotik hartuta ahozkoan maiz erabili ohi den bezala⁷³. **Mena** terminoaren estigmatizazioa dela-eta, azterlan akademikoetan aspaldi utzi zitzaion “bidaiderek gabeko atzerritar adingabe” kategorია erabiltzeari, eta, haren ordez, “bidaiderek gabeko migratzaile adingabe” erabiltzen da orain⁷⁴. Halaxe jasotzen du esplizituki, adibidez, García de Diegok (2010)⁷⁵, eta lehendik ere termino hori erabili zuten lan batzuk aipatzen ditu, 2006⁷⁶, 2007⁷⁷ eta 2009⁷⁸ urteetakoak. Aldaketa horretan zerikusia du Brubakerrek (2012)⁷⁹, Europako musulmanei buruzko azterlan batean bi kategoría bereiztea proposatu baitzuen: **analisi-kategoriak eta praktika-kategoriak**.

Guk halaxe egin dugu, argi bereizi nahian erabilera politiko eta ideologikoko kategoría (“bidaiderek gabeko atzerritar adingabea” edo **mena**) eta **azterketa**

73. Lankide dudak Virtudes Téllez irakasleari eskerrak eman nahi dizkiot, bereizketa garrantzitsu horretaz ohartarazi ninduelako. Testuaren lehen bertsio bat berrikustean adierazi zidan bi terminoak bereizi gabe nerabiltzala, eta Brubaker-en ekarpen interesgarriaren berri eman zidan gainera.

74. Gero eta gehiago erabiltzen den beste termino bat “erreferente familiarrik gabeko migratzaile adingabe” da.

75. García de Diego, J.M. (2010), “«Bajo el casco de Hades»: Menores migrantes no acompañadas como posibles víctimas de trata y su triple invisibilización”, *Migraciones*, 28, 193.-223. or.

76. Alonso, A. (2006), «Rutas de pequeños sueños. Relatos de vida de menores migrantes no acompañados en Europa (227.-251. or.)», in Francisco Checa y Olmos, Ángeles Arjona eta Juan Carlos Checa Olmos (ed.), *Menores tras la frontera. Otra migración que aguarda*, Bartzelona, Icaria. Eta hau: Bargach, A. (2006), «Los contextos de riesgo: Menores Migrantes “No” Acompañados (51.-62. or.)», in Francisco Checa y Olmos, Ángeles Arjona eta Juan Carlos Checa Olmos (ed.), *Menores tras la frontera. Otra migración que aguarda*, Bartzelona, Icaria.

77. Monteros, S. (2007), *La Construcción Social de un nuevo sujeto migratorio: Los Menores Migrantes Marroquíes No Acompañados* doktoretesia, Espainiako Pentsamendu Filosofikoa eta Antropologia Soziala saila, Madril, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

78. Quiroga, V. (2009), «Menores Migrantes no Acompañados: Nuevos perfiles, nuevas necesidades», *En la Calle*, 14. zk., 8.-14. or.

79. Brubaker, R. (2012), “Categories of analysis and categories of practice: a note on the study of Muslims in European countries of immigration”, *Ethnic and Racial Studies*, 36. liburukia, 1. zenbakia, 2013ko urtarrila, 1.-8. or.

zientifiko-akademikoko kategoria

(“bidaiderik gabeko migratzaile adingabea”); azken hori estigmatizaziotik aldentzen da, eta pertsonak beren egoeragatik eta bizitza erreagatik identifikatzen ditu, ez haiei buruzko errepresentazioengatik. Hau da, ez genituzke bi kategoria horiek bereizi gabe erabili behar, gauza berberaz ariko balira bezala, eta bai, aitzitik, terminoaren politizazio interesatua –doilorra eta ustela– nabarmendu, eta horretatik aldentu. Lan honetan zehar ahalegindu naizen bezala, bereizi egin behar dira **erabilera sozialeko kategoriak** (antropologian *emic* deritzenak) eta **kategoria analitikoak** (*etic* deritzenak), ez dadin gerta diskurtso publiko eta politikoko kategoriak (*emic*) konstruktuko teoriko ez-problematizatutzat hartzea.

Erruduntzea eta estigma

Lehen ere aipatu dut **bestea errudun bihurtzeko** mekanismoa edo, beste modu batean esanda, **pagaburua** bilatzearena⁸⁰. Oso mekanismo kognitibo eta jarrerazko ohikoa da. Behin eta berriz erabiltzen da bizitza pertsonal eta egunerokoan, eta barra-barra ageri da gainera deliberazio publikoan, eztabaida parlamentarioetan eta lehia alderdikoietan: nire arazoan errua, edo gure arazoena, besteena da. Bada, hitzetik hortzera esaten den zerbait da, hain zuzen, immigrazioa eta migratzaileak direla hau edo hura gertatzearen errudunak, delituak eta segurtasunik eza areagotu izanarenak, adibidez⁸¹.

Estigma sozial terminoak aditzera ematen du kolektibo jakin bati ezartzen zaion marka gutxiesgarria, irainez, laidoz, desohorez, lotsaizunez edo ignominiaz betea. Estigmatizazioa askotan erabili izan da historiaren joanean, era guztietako konkista-, gerra- eta gatazka-testuinguruetan. Gizarte-hierarkiei buruzko usteetan ere presente dago; pentsa dezagun, adibidez, Indiako ukiezinetan.

Estigmatizazio-kontu bat izan zen, eta da, antisemitismotik juduei gizatasuna kentzea ere, edota ijituekiko gutxiespena adieraztea, onenean, edo mespretxua eta arrazakeria, txarrean. Gauzak izendatzeko modu batzuk ere bai: auzo madarikatu, baztertu eta zokoratuei behe-auzo deitzea, adibidez. Eta nola ahaztu hiesak gaixotutakoen estigmatizazioa.

Estigma hitzak latinezko *stigma* du jatorri, eta latinezko horrek, grezierazko ‘ziztada’ hitza. Analisi-kategoria gisa, estigmaren kontzeptua Erving Goffman (1922-1982) soziologoak emandako desbideratzearen teoriako ardatzetako bat da. 1964an, hain zuzen, izen bereko lan bat argitaratu zuen, eragin handikoa: Estigma. *La identidad deteriorada*⁸²; identitate kaltetu edo hondatuei heldu zien lan hartan.

Eta horixe da, hain zuzen, esaldi hori dioen jende baztertzailerik eta oldarkorra egiten ari dena: adin txikiko horien identitatea kaltetu, hondatu, birrindu. Edozein gazte bezala, horiek ere ezaugarri jakin batzuk dituzten adingabeak dira. Horien kasuan: pasaeran daude edo migratzen ari dira; gehienak mutilak dira, baina badira neskek ere; holako edo halako izaera dute, honetan edo hartan dira trebeak, auzo eta gizarte-klase honetakoak edo hartakoak dira, ikasketak dituzte edo ez, herrialde honetatik edo hartatik datoz... Esparru juridiko-instituzionalak, ordea, gazte horiek izendatzeko, falta zaiena bakarrik hartzen du kontuan: bidaiderik gabekoak

80. Ikus, batik bat, 19. iruzkina, “Immigrazioa Stop”.

81. Ikus 6. iruzkina, “Immigrazioak delituak eta segurtasunik eza areagotzea eragiten du”.

82. *Estigma* nozioa Goffman baino dezente lehenago erabiltzen zen azterketa sozialetan (Amorrortu, Buenos Aires, 1989), bai azterketa medikoetan, konnotazio fisikoei eta lesio organikoiei zegokionez, eta bai delinkuentziari buruzko teoretan (Lombroso) eta portaera desbideratu eta anormal deritzonari dagokionez ere. Horri buruzko laburpen bat eta bibliografia hemen kontsulta daiteke: G. Malgesini eta C. Giménez (1997), *Guía de conceptos sobre migraciones racismo e interculturalidad*, La Cueva del Oso (edo hemen: Los Libros de la Catarata, 2000).

dira. Norbait gabeziaren teoria aplikatuz definitze hori nahikoa ez eta bada are okerragoa den zerbait gainera. Lehengo erredukzionismo eta negatibismo horrek (“bidaiderik gabekoak”) gutxienez adierazten du adingabeak direla eta beren pasaera- eta migratze-prozesuan bizitzako egoera zaurgarri batean daudela. Baina jende doilor eta oportunistak horrek, gazteok pribilegiatu gisa, delinkuente gisa eta bortxatzaile gisa estigmatizatu bakarrik ez, bere estrategia politiko-elektoralistarako erabiltzen ditu.

Estigmatizatzeko prozesuak dituen ondorioen artean hiru nabarmendu daitezke:

1. Lehena, jomugan kolektibo bat jartzea, balizko kolektibo hori osatzen duten pertsonen aniztasuna bazter utzita. Horren helburua garbia da: errepresentazioaren, diskurtsoaren eta iritziaren ardatza **talde edo kolektibo estigmatizatu** izatea, eta ez zer zirkunstantzia biografiko eta egoerazko dituen gazte bakoitzak, pertsona bakoitzak, azken batean.
2. Bigarrena, tasun sozial negatibo horrek estigma ezarri dioten gizarte-partaidearen **identitatea debaluatzen** du. Horren helburua beste bat da: talde-identitate negatibo bat ezartzea, marka bat jartzea, jendeak alde aurretik defentsiban eta beldurretik erantzun dezan.
3. Azkena, aurrekoarekin lotuta, estigmatizazio horrek subjektua gizartean sartzetik eta onartua izatetik deskalifikatzen du. Hori, subjektuarengan eragiten dituen ondorioei dagokienez. Horri gehitu behar zaizkio ingurune sozialean eta iritzi publikoan eragindakoa (nahita, argi eta garbi): beldurra eta gorrotoa sortzea, eta, aldi berean, kolektibo txikiago batek, immigrazio oro eta migratzaile guztiak arbuiatzea.

Alternatiba bila. Arbuioaren aurrean, politika publiko egokiak eta instituzioen nahiz hiritarren ekimena

Duela urte batzuk, 2017an, albiste bat jaso genuen nire seme-alabak ikasle ziren irakaskuntza ertaineko institutuaren: Madrilgo Erkidegoko Gizarte Integratioko Sailak sei-zortzi **mena** bidali behar zituen oso gutxi erabilita zegoen egoitza batera. Egoitza institutuaren ondo-ondoan zegoen, Ciudad Escolar hezkuntza-esparruaren parte zen, eta sekulako iskanbila sortu zen: gurasoen zati handi samar bat hasieran kezkatuta, gero kexu, eta ondoren erabat aurka agertu zen; beste batzuek, haiek kritikatzeko, solidaritate falta eta esajerazioa leporatzen zieten eta egoera hura elkartasunaren eta bakearen kulturaren hezteko aukera moduan baliatzearen alde egin zuten.

Ez da hau lekua orduko tirabira, esajerazio eta deskalifikazio haiek xehe aztertzeke. Beste arrazoi batengatik ekarri nahi izan dut gaia hona: guraso batzuek bazekiten unibertsitate-garaitik migrazioaren auzia aztertzen dihardudala, eta eskatu zidaten –gazte haiek onartzearen, elkartasunaren eta elkar aditzearen aldekoek– antolatzen ari ziren mahai-inguru batean beste gonbidatu batzuekin parte hartu nezan. Beste gonbidatuen esanak entzuteaz eta haiengandik ikasteaz gain, zera egin nuen: munduko, Europako eta Espainiako migratzaile adingabeen fenomenoari buruzko zenbait tesi planteatu, eta nola heldu eta bideratu zitekeen proposatu.

Interesa piztu zuen, eta nago, jendearen arreta eta iruzkinak kontuan izanda, gustatu ere egin zitzaizela, batzuei izugarri gustatu ere. Bada, orduantxe eman nien ezustekoa, argitu bainien aurkezpenean egin nuen bakarra azterlan baten ondorioen pasarte bat irakurtzea izan zela: Madrilgo

Unibertsitate Autonomoan egin genuen azterlan hura, 1999an, eta ondorioak 2000ko abenduan aurkeztu genituen; alegia, zuela 17 urte! Nola liteke gaia arretaz aztertu ostean 1999-2000 urteetan iradokitako neurri eta jardunbide batzuek 20 urte geroago oraindik zeharo egungoak, beharrezkoak eta urgenteak iruditzea?

Ikerketa hark *Menores no acompañados que han entrado en territorio español sin representación legal* zuen izena, eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko *Migrazioa eta Kultura Aniztasuna* programari enkargatu zion Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioko Gizarte Ekintza, Adingabe eta Familiaren Zuzendaritza Nagusiko Ikerketa Zerbitzuak, Haurren Behatokiaren gogoeten ondoren eta *Dossier sobre la problemática de los MENA* txostena egin ostean.

Orduan jada azaldu zen, sintesi eta ondorioen txostenean jasota dagoen bezala: “Estatuko lurraldean apurka-apurka gero eta gehiago dira bidaidetik gabeko adingabeak, gehienak Magrebetik etorriak, eta behar eta premia espezifiko batzuk dituzte. Horrek eragin zuzena du autonomia-erkidegoetako adingabeen babeserako zerbitzuetan. Aldi berean, fenomeno sozial horrek garrantzi handiko inplikazioak ditu zenbait instituzioren eskumenetan: Barne Ministerioa, Kanpo Gaietarakoa, Osasun Ministerioa, Hezkuntzakoa, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, Fiskal Nagusia eta Botere Judiziala, etab.”.

Lantalde zabal batek egin zuen ikerketa, diziplina ugaritako adituz osatua: antropologia soziokulturala, soziologia, psikologia komunitarioa, atzerritarren zuzenbidea eta haur-nerabeena, gizarte-langintza⁸³. Sei kasu-azterketa egin genituen, lau autonomia-erkidego eta bi hiri autonomo hauei buruzko bana: Andaluzia, Kanariak, Katalunia, Madril, Ceuta eta Melilla⁸⁴.

Emaitzak bost txostenetan aurkeztu ziren; horietako batek jasotzen zituen ondorioak. Azken txosten horretan, 93 orrialdekoa, gomendio ugari eta iradokizun orokor batzuk azaldu eta oinarritu genituen zortzi orrialdetan (85. orrialdetik 93.era); autonomia-erkidego eta hiri autonomo bakoitzerako neurri eta jardunbideei buruzko xehetasunak nahi izanez gero zer liburukitara jo behar zen ere zehaztu zen⁸⁵.

Emaitza haiek argitaratu gabe geratu zirenez –eta ez preseski lana egin genuenok nahi ez genuelako⁸⁶–, eta ikusita, zoritxarrez, mena deritzen horien erronka gaur egun oraindik bideratua ez egoteaz gain areagotu ere egin dela eta, lehen esan dugun bezala, estigmatizatu eta probetxu politiko-elektoralistetarako erabiltzen dituztela, egoki ikusten dut, zuen baimenarekin, ikerlanean egindako ekarpen batzuk xehe antzean azaltzea.

Gomendioak zazpi bloketan multzokatu genituen, “elkarrekin lotuak eta elkarren artean halako logika batez erlazionatuak”. Laburpen hau zuten hitzaurre gisa⁸⁷:

83. Zuzendari zientifikoa Carlos Giménez Romero irakaslea izan zen, eta proiektuko ikertzaile nagusia, Lilibiana Suárez-Navaz irakaslea.

84. Azterlan horietako bakoitza koordinatzeko ardura ikertzaile hauek izan zuten: José Domingo González Benasco (Kanariak), Aleix Ripol-Millet (Katalunia), Mercedes Jiménez Álvarez (Andaluzia), Maria Jesús Pérez Crespo (Madrilgo Erkidegoa) eta Raúl Rodríguez Mateos (Ceuta eta Melilla).

85. Azken txosten horren sarrerako 2. atalean “bidaidetik gabeko adingabe” kategoria definitzen da. Horretarako, Europar Batasuneko Kontseiluak 1997an emandako definizioa hartu genuen oinarri: “Hirugarren herrialderen bateko 18 urtetik beherako haur eta nerabe adingabe nazionalak, legez edo usadioak eta ohiturak betez haien zaintzaz arduratu ohi den ezein heldu erantzularen edo senideren babesik gabe daudenak herrialde hartzailean”. Europar Batasuneko Kontseiluaren ebazpena, 1997ko ekainaren 26koa, hirugarren herrialdeetako bidaidetik gabeko adingabe nazionalen buruzkoa (97/C 221/03). Horren ondoren, kolektiboaren heterogeneotasuna eta egoeren askotarikotasuna kontuan hartuta, definizio operatibo bat eman zen, Kontseiluaren definizio ofiziala errespetatu baina aniztasun hori guztia jasotzen zuena.

86. Emaitzak eta gomendioak argitaratzea komenigarria zela zenbait aldiz adierazi ostean, Haurren Behatokiako presidentek “datuak zaharkituak geratu” zirela erantzun zuen. Tartean ginen guztiontzat begien bistakoa zen txosten horiek ezagutzera emateko borondate politiko-instituzionalik ez zegoela, txostenen izaera deliberatiboagatik eta hamaika kontu zalantzan jartzen eta proposatzen zutelako.

87. Giménez, C. eta Suárez, L. (2000), *Menores extranjeros no acompañados en España. Informe final y análisis general*, argitaratu gabea, barne-dokumentua, Cuadernos de Investigación, UAMeko Migrazioa eta Kultura Aniztasuna programa.

“Hasteko, **adingabeei buruzko politika publiko bat egiteko premia** azalduko dugu, guztiz ezinbestekoa baita eremu konplexu horretan eraginkortasunez jokatzeko, bai eta gai horretan **ekintza-plan koordinatuei** oinarri emateko ere. Horren ondoren, eta jada maila zehatzagoan, funtsezko gai eta hobekuntza batzuk landuko ditugu, kontuan izan beharrekoak **esku-hartze prozesu globalean (esku-hartzeen zirkuituak)** edo **zentro, programa eta zerbitzuak** diseinatzean eta antolatzean. Laugarren blokerako utziko dugu prozesu horretako eta unitate horietako beste alderdi erabakigarri bat: **profesionalen jarduna eta gaikuntza**. Politikei eta programei buruzko bloke horien ostean, gai espezifikoko batean jarriko dugu arreta, hori ere garrantzi handikoa: **jatorriko herrialdeetan egin beharreko ekintzak** (batik bat, Maroko). Azkenik, aurreko hori guztia gauzatu ahal izateko ezinbestekoak diren beste bi baldintza: **ekintza modu eraginkorrean koordinatzea** (seigarren puntua) eta **errealitatea ondo ezagutzea** (zazpigarren puntua)” (letra etzana gurea da).

Hori guztia aspaldi proposatu zen, 2000. urtean! Pena bikoitza: alde batetik, argitaratu ez izana, eta, bestetik, horrekin lotuta, aplikatu ez izana, balio ez izana –erronka hasi berritan!– politika publiko egoki, efikaz eta efiziente bat taxutzen laguntzeko, arlo horretan diharduten gizarte-erakundeekin jardunarekin ondo koordinatuta.

Kontsolamendu bikoitza: txostenak prestatu genituenetik hona, eskatu izan dizkigutenei eman izan dizkiegu, eta zenbait aurkezpenetan azaldu; eta, bestalde, urte hauetan guztietan, jardun instituzionalak eta sozialak ez du etenik izan. Lehen egindako galderak hortxe jarraitzen du, ordea: nola liteke 1999–2000 urteetan iradokitako neurri eta jardunbide batzuek gaur egun oraindik zeharo oraingoak, beharrezkoak eta urgenteak iruditzea?

Migratzaile adingabeen iragana eta oraina

Duela egun batzuk, liburuko azken iruzkin hau idazten ari nintzela, zerbait bitxia gertatu zen. Unibertsitateko lankide batek, UAMen antropologia-irakasle eta beste zenbait gairen artean migrazioen nahiz migratzaileen seme-alaben aztertzaile ere baden nire adiskide Virtudes Téllezek esan zidan bost urteko alabari *La historia de Marco* irakurtzen ari zitzaioela. Mundu mailan ezaguna den kontakizun baten bertsio laburtua da, komiki-formatuan: *Marco. De los Apeninos a los Andes*, Japoniako telebistak marrazki bizidun moduan sortu eta mundu guztian hedatua.

Istori hori *Cuore* edo *Corazón*, *diario de un niño* kontakizunean inspiratuta dago. 1886an argitaratu zen, eta Edmundo de Amicis (1846–1908) du egile: Italiako kazetari eta politikaria, poeta eta bidaiari-liburuen nahiz haur-literaturako idazlea. Lan hura zinemara eta telebistara eramane zen, eta kapitulu haietako batzuetan oinarrituta sortu zuten gerora marrazki bizidunen bertsioa, niri bezala orriak irakurtzen ari zareten askori ere hain oroitzapen onak dakarzkiguna.

Bada, adiskide horri aipatu nionean hain zuzen ere bidaidetik gabeko migratzaile adingabeei buruz idazten ari nintzela, biziki hunkitu ninduten zenbait gauza esan zizkidan: alabak, bidaiari doan mutiko horren istorioaren aurrean eta lapurtu egiten diotela jakindakoan, harenganako **pena** sentitzen zuela eta Marcori gauza guztien gainetik dena ondo joatea desio zuela. Horrek ikusarazi zidan irakurgai horretan, telebistan Marcoren marrazki bizidunak eman ziren garaian, mutiko haren alde jartzen ginela: ama migratzailearen bila Ozeano Atlantikoaz haraindi bidaiatzen ari zen mutiko hura **bidaiari adingabea da, ausarta eta abenturazalea**, horixe zen **hari buruz nabarmentzen zen bakarra**, eta ez gaur egun indartzen den ikuspegia,

migratzaile izatearena. Eta, hain zuzen, Argentinako aduanara iritsitakoan Marcori lapurtzen dion pertsona hori **lapurra ez ezik doilor hutsa ere bada**, bere ekintzetan indarrak parekoekin neurtzen ez dituelako...

Arrazoiketaren laburpena

- 01** Migratzaileak baino lehen adingabeak dira.
- 02** Haienganako jokabide erasokor eta baztertzaille horiek 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena urratzen dute, Espainiak ere sinatua.
- 03** Ematen zaien arreta **ez da pribilegio bat, eskubide bat baizik**, eta eskubide horri instituzio publikoek bete beharreko eginbehar batzuk dagozkie.
- 04** Haietako batek delitu bat egiten badu, modu partikularrean epaitu behar da, beste edozein adingabe bezala; **kolektiboaren kontra** egitea estigmatizatzea eta bidegabekeria da.
- 05** **Erronka sozial** gisa eta **kolektibo** moduan jaso behar duen bakarra **politika publiko eta esku-hartzeen ildo egoki bat** da. Hori da zalantzan jarri eta egokitu behar dena.

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

Quiénes son los “menas” y por qué se han vuelto el blanco de ataques racistas en España (BBC hedabidean 2019ko azaroan argitaratutako artikulua; mena deritzenei buruzko informazioa ematen du. <https://bbc.in/3l5S5SQ>)

Cómo el término “mena” invisibiliza a los niños migrantes (El País hedabidean 2019ko azaroan argitaratutako artikulua; bidaiderik gabeko adingabeak izendatzeko modu hori gutxiesgarria izan daitekeela salatzen du. <https://bit.ly/3rGhJ1K>)

Los menores extranjeros ni cobran 740 euros ni pueden percibir ayudas públicas (EFE Verifica-ko artikulua, 2020ko uztailan argitaratua; bidaiderik gabeko adingabeei buruzko zurrumurru batzuk gezurtatzen ditu. <https://bit.ly/3x9gSlh>)

MENAS: Desmontando bulos sobre los niños y niñas migrantes en situación de desamparo (Amnistia Internazionala erakundearen blogean 2021ean argitaratutako artikulua; bidaiderik gabeko adingabeei buruzko gezur batzuk ezeztatzen ditu. <https://bit.ly/3ibfbWC>)

Los niños migrantes solos no disponen de 4.700 euros al mes en Madrid (VerificaRTVE-ko artikulua; bidaiderik gabeko adingabeek jasotzen zuten ustezko pagari buruz Vox-ek zabaldutako gezurra ezeztatzen du. <https://bit.ly/3j0MNFT>)

Mentiras sobre los mal llamados menas (El País hedabidean 2019ko azaroan argitaratutako artikulua; bidaiderik gabeko adingabeen kontra sareetan zabaldutako zurrumurrak gezurtatzen ditu. <https://bit.ly/3zJ3Wub>)

Los 10 bulos sobre migrantes que han intentado colarte este verano (El Diario hedabideak 2019ko irailean argitaratutako artikulua, 2019ko udan zabaldu ziren 10 gezurri buruzkoa. <https://bit.ly/3iZP7wu>)

Bulos, criminalización y odio: la ultraderecha pone en la diana a los menores migrantes (Público hedabideak 2019ko uztailan argitaratutako artikulua, bidaiderik gabeko adingabeak kriminalizatzeari buruzkoa. <https://bit.ly/374ropx>)

La criminalización de los menores no extranjeros que llegan solos a España (Newtral hedabideak 2019ko abuztuan argitaratutako artikulua, bidaiderik gabeko adingabeen kontrako gezurrei buruzkoa. <https://bit.ly/2VgRvH8>)

Los datos oficiales niegan la alta delincuencia de los menores extranjeros no acompañados en Andalucía (Newtral hedabideak 2019ko azaroan argitaratutako artikulua; Vox-ek Andaluziako hauteskunde-kanpainan erabilitako eslogan batzuk gezurtatzen ditu. <https://bit.ly/3iTHwjf>)

Los ‘MENA’, la nueva diana favorita para los bulos de los haters (Accem erakundearen blogean argitaratutako artikulua; migratzaileen kontrako gezur batzuk aipatzen ditu eta nola gezurtatu azaltzen du. <https://bit.ly/3i7xOdO>)

Más de 200 bulos y desinformaciones sobre migrantes, refugiados y minorías religiosas que te están intentando colar en el Día Internacional del Migrante (Maldita hedabidean 2020ko abenduan argitaratutako artikulua; bidaiderik gabeko migratzaileen kontrako gezur asko aipatzen ditu. <https://bit.ly/3f5seqv>)

Datos que desmienten un “problema social” con los menores extranjeros como el que la Justicia ve en el cartel de Vox (El Diario hedabideak 2021eko uztailan argitaratutako artikulua; bidaiderik gabeko adingabeen kontrako Vox-en kartel baten berri ematen du. <https://bit.ly/3jd5JBp>)

~estatistikak

Barne Ministerioaren kriminalitate-estatistikaren ataria (<https://bit.ly/3rDkFFL>)

29.

“Gure arteko bizikidetza nahikoa zaila ez eta... Pentsa hain jende desberdinarekin bizitzea”

LANDUTAKO GAIAK

bizikidetza, harremanak, jarrerak, balioak, arauak, parte-hartzea, komunikazioa, gatazkak, identitateak, pertenezkiak, instituzioak, hiritarrak, demokrazia

Esaldia parafraseatuta:

- ▶ “Gauza bakarra esango dizut: hainbeste immigraziok gauzak zaildu besterik ez du egiten. Lehendik ere Espainian saltsa ederra ez daukagu, ba, orain gainera zer eta beste **bizikidetza-arazo** hori edukitzeko!”
- ▶ “Immigranteen kontra ez daukat ezer, benetan, baina ez duzu ukatuko gu ez bezalako hainbeste jende egotea, ez direnak hemengoak eta gainera ez dituztenak ezagutzen gure tradizio eta ohiturak, beste izateko modu bat dutela, alegia, hori ez denik **bizikidetzarako arazo** handi bat.”
- ▶ “Migrazioen kontu honek guztiak **bizikidetza-arazoak** sortzen ditu; izan

ere, beren kultura inposatu nahi digute, beren ohiturak gure arauen kontra doaz, delituak egiten dituzte, tira...”. Esaldi horren bertsio leunago batek, ez hain erradikala eta orokortzailea, ez lituzke migratzaile guztiak aipatuko, baizik eta “haisetako batzuk”, etab.

Iritzi hori zenbait modutara adierazten da, eta modu horietako batzuk parafraseatzen saiatu naiz. **Immigrazioa arazotzat**⁸⁸ daukan ikuspegiaren beste bertsio baten aurrean egoteak sorrarazitako hasierako erreakzioaz gain, esaldi horiek arretaz aztertuta poz harrigarri bat ere sentitzen dut; izan ere, azken batean, bizikidetzaz ari gara, gizarte-bizitzako auzi handiaz, edo funtsezko auzietako batez behinik behin. Eta horri buruz hitz egitea, eztabaidatzea eta, are hobeto, elkarrizketan jardutea beti da ona soziabilitaterako eta demokraziarako.

Zer suposatzen dute iritzi horiek? Zer dago horien azpian? Dilema bat aurkezten da. Horrelako iritziek, baliteke immigrazioa eta jatorriz atzerrikoak diren pertsonak arbuiatzeko arrazoi gehigarri bat ekartzea, edo baliteke borondate oneko benetako kezka bat adieraztea, lekualdatze, migrazio eta erbesteratzeekin lotutako gizarte eta kulturarteko bizikidetzaren erronkei heltzea beharrezkotzat jotzen duelako.

Esaldi horietan inplizituki zer egon daitekeen modu intuitiboan hipotesi batzuk egin ostean, haiek aztertzea da egokia. Horretarako, esaldietako bi termino edo osagai oinarrizkoak aztertuko ditugu:

1. **gizarte-bizikidetza** nozioa eta haren nolakotasuna, eta
2. migratzaileak “oso jende desberdina” direlako ustea, edo, beste zenbaiten kasuan, “portaera onartezineko jendea” direlako iritzia.

88. Ikus 1. iruzkina, “Immigrazioa arazo handi bat da”.

Zenbait idatzitan kontzeptualizatu dut bizikidetza nozioa eta ideia, beste bi soziabilitate-modutatik bereizitako harreman-mota gisa: **koexistentzia** da bata, eta **etsaikeria** edo **liskarra** da bestea (Giménez, 1997, 2005). Sakondu nahi izanez gero, testu horietara edo beste batzuetara⁸⁹ jo dezake irakurleak, baina hemen interesatzen zaiguna da geure buruari galdetzea, ahalik zuzenen, immigrazioak zergatik eragin ditzakeen, egiaz, bizikidetza-arazoak.

Saiakera teoriko-praktiko horietan (esku-hartze sozialeko proiektuak kontuan hartuz baliozkotu eta doitu baititugu saiakerotan garatutako ideiak) **bizikidetzaren bederthi alderdi** bereizten dira: harremanak, jarrerak, arauak, balioak, parte-hartzea, komunikazioa, gatazkak, identitateak, eta instituzioak eta politika.

Matrize multidimentsional horrek lehengo galderari erantzuten lagundu diezaguke. Ariketa hau proposatu nahi diot hau irakurtzen ari denari: alderdi bakoitzean hausnartzea, alde batetik, gizarte-errealitatean zer dagoen **egiaz** -edo nola doazen gauzak-, eta, bestetik, posible den edo ez, eta nola, autoktonoen eta migratzaileen arteko benetako bizikidetza (ez koexistentzia hutsa). Luzeegi ez jotzeko eta irakurketa errazteko, harira joko dut zuzenean eta ezinbestean eskematiko samarra izango naiz.

1. Harremanak

Hiritartasuna eta kulturartekotasuna bezala, bizikidetza batez ere harreman-kontu bat da. Harremanik ez badago, edo harremana urria bada, ez dago bizikidetzarik, baizik eta koexistentzia eta **bizitza paraleloak** (Ted Cantlek dioen bezala⁹⁰) edo, nik gogoko dudan terminoa erabiliz, **endogamia erlazionala**. Aldiz, harremana baldin badago baina harreman txarra bada, indarkeriazkoa

eta oldarkortasunezkoa, bazterketazkoa eta menderakuntzazkoa, orduan, dagoen soziabilitate-modua etsaikeria da.

lruzkintzen ari garen iritzia honela parafrasea daiteke: “[...] kolektibo eta migratzaile jakin batzuek bertakoekin ez dute harremanik. Beren artean bakarrik bizi dira, edo nagusiki beren artean, eta ghettoak sortzeko joera dute. Eta horrek ez du bizikidetzatik ezer”.

Hori ere gertatzen da, ez dago zalantzarik, baina honetan ados egongo gara. Jokabide hori oso gutxiren kontua da, eta eskulsioko jarreraren eta politiken ondorio da nagusiki. Bestalde, ez da migratzaileek bakarrik duten jokabide bat, baizik eta gizarteko sektore jakin batzuen; gogoratu gaitezen, adibidez, *zurien ghetto* deritzenez (luxuzko urbanizazioak, komunitate itxiak edo *gated communities*, etab.).

Edonola ere, gainditu daitezke erronka horiek, bi gogoeta hauek kontuan hartuta. Migratzaileak finkatzeko prozesuetan behin eta berriro ikusi izan da, hainbat leku eta garaitan, etengabe sortzen direla egokitzapenak eta gurutzaketa- eta mestizaje-eremuak (bikote mistoak, auzo multikulturalak, fusio-arteak...) eta migratuak apurka-apurka gizarte-bizitzako arlo guztietan sartzen direla. Esan dugun hori, bestalde, askoz errazago gertatzen da gizarte-berdintasuneko eta inklusioko

89. Giménez, C. (1997), “Convivencia”, 57.-60. or., in G. Malgesini eta C. Giménez, *Guía de conceptos sobre migraciones racismo e interculturalidad*, Madril, La Cueva del Oso.

Giménez, C. (2005), “Convivencia. Conceptualización y sugerencias para la praxis”, *Cuadernos Punto de Vista*, Madril, Madrilgo hiriko Migrazioen eta Kulturarteko Bizikidetzaren Behatokia.

Giménez, C.; Álamo, J. eta Pérez Del Olmo, F. (2015), “Convivencia y cohesión social”, 1. liburukia, *Juntos por la Convivencia*, Madril, La Caixa Gizarte Ekintza, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

Giménez, C. (2019), “Del ideal de la convivencia a la praxis de la mediación comunitaria intercultural: un proceso dialéctico”, 85.-103. or., in I. Luján (koord.), *Conflictos y mediación en contextos plurales de convivencia*, Las Palmas Kanaria Handikoko Unibertsitatea.

90. Cantle, T. (2008), *Community Cohesion: a New Framework for Race and Diversity*, Palgrave Macmillan. Eta egile berak eta argitaletxe berean (2015): *Interculturalism: the New Era of Cohesion and Diversity*.

politika publikoak egiten direnean, baita elkar ezagutzeko, elkar topatzeko, esku-hartze komunitarioko eta harremanetarako guneak sortzeko proiektuak, ekimenak eta neurriak abian jartzen direnean ere.

2. Jarrerak

Bizikidetza-harremana egongo bada, ezinbestekoa da jarrera besteak **onartzea** izatea. Jarrera nagusia axolarik eza, saihestea edo aintzat ez hartzea bada, dagoena koexistentzia da. Eta jarrera erabateko arbuioa edo ukoa eta mespretxua bada, orduan, bizikidetza ezinezkoa izateaz gain, soziabilitate-moduetan hirugarrena eta okerrera dago: etsaikeria.

Bizikidetzaren jarrerazko alderdiari dagokionez, eragozpena edo kezka honela adieraz daiteke: “[...] *migratzaile batzuek ez daukate gure gizartean integratzeko prestasunik*”, “*eta gizarte hartzaileko izateko modua arbuiatu ere egiten dute batzuek*”.

Egia esan behar bada, jarrera-kontuetan, pilota gizarte hartzailearen teilatuan dago gehienbat. Hamarkada luzez, Espainian immigrazioaren fenomeno errealitate nabaria denetik, hau da, 1990etik (fenomenoa askoz lehenagokoa den arren), Espainiako hiritar gehienek onarpenezko jarrera zutela agertzen zuten inkestek eta barometroek, bai ofizialek eta bai akademikoek eta erakundeek eginek. Azken urteetan, ordea, ugaritu egin dira arbuiozko jarrera dutenak (nahiz eta ez diren inondik ere gehienak), ultraeskuinaren jardun politikoaren ondorioz, besteak beste.

Jatorriz atzerrikoak diren pertsonen dagokienez, integratzeko prestasuna nabarmena da. Ohikoa da asko eta asko Espainian egoteagatik pozik agertzea, nahiz eta horrek ez duen esan nahi

lanaren eta ekonomiaren aldetik egoera zailak bizi ez dituztenik eta inklusioaren aldetik gabeziak ez daudenik. Lehen aipatutako eragozpena itzulita: migratu batzuek edo migratuen sektore jakin batzuek orain bizi diren gizartera zabaltzeko prestasunik ez izateari edota zenbait gauzari buruz kritikoak izateari dagokionez, gutxienez bi gauza ditugu esateko. Lehenik, horrek ez dakarrela inondik ere bizikidetza-arazo masibo bat. Bigarrenik, horretarako eskubide guztia dutela: hemengo biztanle eta hiritar sozial diren aldetik –horietako batzuk, gainera, eskubide osoko hiritarrek, zentzu juridiko-politikoan, nazionalizatuta daudenez gero–, hau edo hura gogoko ez izateko eskubide guztia dute, gainerako guztiek bezala...

3. Arauak

Zabalik egoteko eta onartzeko jarrerak garrantzitsuak izanagatik, ez dira nahikoa bizikidetza sendo eta benetakoa eraikitzeko. Bizikidetza egongo bada, ezinbestekoa da denok ezagutzen ditugun arau komun batzuk izatea eta horiei lotzea.

Kanpotarrei arau jakin batzuk ez betetzea leporatzen zaie askotan. Sakoneko auziak dira batzuk, hala nola “ezkontza behartuak dituzte” eta “alaba adingabeak ezkonarazten dituzte”, eta eguneroko bizitzako kontutxoak ere bai, “ez dute zaborra jaisten”, adibidez. Eskoletan eta beste zenbait lekutan *hijabaren* erabilera eztabaidagai izan da, eta da, eta udalbatzetan *nikabaren* erabilerari buruzko ordenantzak ere bai. “Beren arauak inposatu nahi dizkigute-eta” esanez kezaka ere entzun ohi da norbait tarteka.

Aurretik jada azaldu dut zergatik den okerra heldu beharreko erronka bat arbuiorako aitzakia bihurtzea edota gutxi batzuen kontu bat esajeratu eta gauza orokor moduan aurkeztea, eta ez dut horri

buruz besterik gehituko orain. Nire iruzkina hemen beste ildo batetik joango da: arauak betetzeari dagokionez, gizarteko partaide guztien **erantzunkidetasuna sustatu** beharra. Duela urte batzuk, eginbeharren eta betebeharren kategoria hiritarren arteko itunaren parte gisa landu nuen⁹¹, eta, alde horretatik nazioarteko xedapen, adierazpen eta hitzarmenetan eman diren urratsak laburbildu ostean, honela esan nuen: “[...] horretan lan-ildo handi bat dugu, migrazioaren erronkei hiritartasun demokratikoaren ikuspegitik heltzeari dagokionez: bakoitzari dagozkion eginbeharrek, betebeharrak eta erantzukizunak bete ditzan gogoraraztea, azpimarratzea eta eskatzea: agintariei, biztanleria hartzaileari, immigrantei, enpresaburuei, hedabideei...” (2021,76).

Eta hori baliozkotzeko, esperientzia baten berri eman nuen: “Kulturarteko Eskuhartze Komunitarioko Proiektuan (2010–2020) ‘hiritarren kulturarteko bizikidetzatza’ sustatzen da, eta, hiritartasun-printzipio hori gauzatzeko, **hiritartasun soziala** azpimarratzen da, hots, auzotar guztien eskubideen eta betebeharren kategoriak eta **erantzunkidetasun**-printzipioa, komunitateko hiru protagonisten gizarte-kohesioari eta hauen prozesu komunitario eta partaidetzazkoari dagokienez: arduradun politiko eta instituzionalak, lurraldean diharduten profesional eta teknikari publiko edo pribatuak, eta hiritarrak” (*idem*).

Proposamen horrekin amaitzeko: “[...] komenigarria litzateke udaletako sailetan gizarte zibileko erakundeekin batera tailerrak egitea, gorago aipatutako neurri horiek irakurtzeko eta, **erantzukizunaren etika** baten alorrean, bakoitzari zer eginbehar eta betebehar dagozkion ondorioztatzeko. Horrek aukera emango luke elkarrekiko eskakizunetan aurrera egiteko eta eginbehar, betebehar eta erantzukizunen kategoria hori diskurtso nahiz jardunbide instituzional, tekniko eta

sozialean sartzeko bidean urratsak egiteko” (*ibidem*).

4. Balioak

Bizikidetzaren oinarri ezinbestekoak dira, besteak beste:

- a. zenbait balio zibiko eta demokratikotan bat etortzea;
- b. beste pertsona eta kolektibo batzuen balio partikularrak errespetatzea, baldin eta norbera haiekin bat ez etorri arren giza eskubideen kontrakoak edo itun konstituzionalaren kontrakoak ez badira, eta
- c. adostasunez zenbait kontrabalio arbuizatzea, hala nola totalitarismoa, gorrotoa, indarkeria...

Bizikidetzaren gaiaren gaineko kezak, balioen alderdi honetan, ildo honetatik jo dezake: “*espainiarrek eta atzerritarrek, bertakoek eta migratzaileek, ez ditugu balio berberak, eta, horregatik, zaila da bizikidetzatza, ezinezko ez bada*”. Bitxia da gero, ez zela halako kezkarik sortu erosahalten handiko atzerritar europar, amerikar, arabiarrek heldu zirenean, Europar Batasunaz kanpoko erosahalten apalagoko atzerritarrak iritsi zirenean baizik.

Hori alde batera utzita, esaldi horren azpian dauden bi falazia salatu behar dira. Alde batetik, bizikidetzaren izaerak berak berekin lotuta dakar, zenbait baliotan bat etortzeaz gain, badakigula harremana izaten gu ez bezalakoekin, hau da, bestelako ohitura, balio eta identitate batzuk dituztenekin.

91. Giménez, C. (2021), “Inmigrantes como nuevos ciudadanos. Derechos, responsabilidades, pertenencia, institucionalidad y participación”, 65.-88. or., in Sevilla Acoge fundazioa, *Migratorias. Miradas. Perspectivas. Propuestas*, Sevilla, Ad Libitum.

Bestetik, zer demontre da “ez ditugu balio berberak” hori? Bizikidetzaren oinarrietako bat zenbait baliotan bat etortzea dela esaten denean, lau *corpus*-ez ari gara:

- ▶ Kultura guztiek dituzten oinarritzko balioak: ororen gaintetik, besteak **errespetatzea**, orokorrean, eta, zehazki, haurrak, adinekoak, gutxiengoak, desgaitasunen bat dutenak eta abar errespetatzea.
- ▶ Giza Eskubideen Aldarrikapenean eta nazioarteko zuzenbide humanitarioan jasotako balioak.
- ▶ Balio demokratikoak, bai orokorrean eta bai Espainiako Konstituzioan edo migratu den herrialdekoan adierazitakoak (askatasunak, pluralismoa, hizkuntza koofizialak, etab.).
- ▶ Balio zibikoak eta eguneroko bizitzakoak.

Hor ere bitxia da migratu **batzuk** balio horietako **batzuekin** bat ez etortze horretan jartzea azpimarra, dardo salatzailea, eta ez hartzea abiapuntutzat gizarte hartzailekoak bertakoak diren zenbait pertsona ere ez datozela bat zenbait balioekin. Hori ez al da arazo bat bizikidetzarako, immigrazioa egon edo ez? Eta gainera: gizarte hartzaileko hiritar gehien-gehienak balio-corporis horretan bat baletoz (oinarritzko balioak, nazioartekoak, demokratikoak, konstituzionalak eta zibikoak), horrek ez al luke berrmatuko bizikidetzara, kanpotar batzuk bat ez etorri arren edota kontrabaliok izanda ere?

Migratzaileetara etorrira, ziur egon gaitezke –hala da giza talde orotan!– denak ez datozela bat balio guztiekin, baina:

- a. hori gutxi batzuen kontua bakarrik baldin bada –eta hala dirudi gizarte-errealitatea ikusita eta aztertuta–, ez da inondik ere gizarte- eta kulturarteko bizikidetzarako onartu ezin den zerbait, eta

- b. balioetatik portaerretara igarotzen bada, eta norbaitek –migratzaile edo ez– jokabide okerrak baditu, alegia, errespetua galtzea, giza eskubideak urratzen dituzten jokabideak, demokraziaren edo Konstituzioaren aurkakakoak edo gizalegearen kontrakoak, bada, orduan, jokabide horien gainean eror dadila gure kritika eta, hala badagokio, legearen pisua.

5. Komunikazioa

Bizikidetzaren ezinezkoa da elkarrekin bizi direnen arteko komunikazioa egokia edo nahikoa ez bada, nahiz eta komunikazio hori ez izan erabatekoa eta are gutxiago perfektua. Komunikazioak berekin dakarren gutzia dago jokoan: hizkuntzen bidezko hitzezko komunikazioa, hitzik gabeko komunikazioa (gorputz-jarrerak, keinuak, etab.), eta era guztietako mezuak eta sinboloak.

Maila honetan, kulturak bateraezinak direla uste dutenek eta kulturen arteko bizikidetzara zailtzat edo ezinezkotzat daukatenek honelako zerbait esanez adieraz dezakete beren kezka edo, kasurik muturrenekoan, aurkakotasun erabatekoa: *“hizkuntza-aniztasunak gauzak zaildu besterik ez du egiten”* edo, beharbada, *“nola ulertuko dugu elkar, zeharo kode kultural eta linguistiko desberdinak ditugu eta!”*. Beren aldeko argudio gisa esango dute, beharbada, hizkuntzak ez direla bakarrik bitarteko fonologiko eta semantiko bat, munduari buruzko ikuskera eta balorazio jakin batzuei estuki lotuta daudela, eta horiek “bateraezinak” direla.

Eguneroko bizitzako ikuspegi zehatzera etorrira: duela zenbait urte, batzuk haserretu edo deseroso sentitzen ziren beste hizkuntza batzuk entzuten zituztenean garrario publikoan, kalean edo parkean. Badirudi orain ez dela hain ohikoa, baina ikusten dira oraindik halako

batzuk. Jakina, horrek ez du garrantzi handirik eta horretara jartzea besterik ez da, ohitzea gizarte gero eta aniztasun handiagoko eta multikulturalago honetara, maila guztietan, baita hizkuntzenean ere, eta zer esanik ez komunikazio mailan! Betiere, jakina, gauza larriagotzen ez bada, hau da, anekdota kategorian bihurtzen ez bada, Eugenio d'Ors-ek esango lukeen bezala⁹².

6. Parte-hartzea

Benetako bizikidetzaren nekez egongo da, gainera, **partaide** ez bagara, bakoitza bere munduan bizi bada, errealtate paralelotan bizi bagara, gai eta arlo komunetan parte hartzen ez badugu, maila txikian bada ere. Horrek guztiak esan nahi du harremanik ez dagoela eta, gure abiapuntua zen, hain zuzen, bizikidetzaren harreman-kontu bat dela batez ere.

Alabaina, jatorriz atzerrikoak direnen parte-hartze falta ezin kritikatu dezakegu, baldin eta, berriro ere, iritzi hori pertsona konkretu bati edota sektore edo profil oso minoritario bati zuzenduta ez badago. Eta hori ez da zilegi, gutxienez bi arrazoirengatik. Lehenik eta behin, parte-hartze urritasuna gizartean orokorra delako, eta ez kanpotarrei dagokien bereizgarri bat. Eta, bigarrenik, migratuak parte hartzen ari direlako, ez bakarrik beren eremuetan (immigrante-elkarteak), baita bestelako eremu batzuetan ere autoktonoekin batera, eta gero eta gehiago.

7. Gatazkak

Antzekoak dira bizikidetzaren bakea, haren ahizpa biki edo *alter egoa*. Biak –Bakea eta Bizikidetzaren– ez dira eta ez dakarte gatazka falta hutsa (edo “hilerrietako bakea”); aitzitik, indarkeriarik ez izateaz gain, gatazkak bakez kudeatzea edo lantzea ere badira.

Immigrazioa bizikidetzaren arazo gisa ikusten denean, zenbait gatazkaren adierazpenak ikustearen ondorio izaten da hein handi batean; adibidez, banden arteko istiluak gertatu ondoren. Lehen aztertu dugu delituen eta segurtasunaren gaia.

Eguneroko bizitzari dagokionez (etxebizitza-blokeetan, kaleetan eta espazio publikoetan, eskoletan...), ezin esan daiteke jatorriz atzerrikoak diren pertsonak egotea eta bertan finkatzea bizikidetzarako erronka bat gertatzen ari denik. Alderantziz; garbi ikusten da gehienek portaera baketsua dutela, migratuen beren interesengatik, besteak beste: aurrera ateratzea, bizimodua hobetzea, han eta hemen beren familiei etorkizun hobea zabaltzea eta, azken batean, orain bizi diren gizarteko aukerak baliatzea.

Nolanahi ere, tentsioak eta gatazkak sortzen direnean, migrazio-egoerekin eta -prozesuekin lotura handiagoa edo txikiagoa dutenak (etxebizitzetan, eskoletan, espazio publikoetan eta abarretan). Pertsonen arteko, komunitateko eta gizarteko gatazken beste edozein esparrutan bezala, horiei modu baketsuan heltzea da kontua, dela zuzenean elkarriketaren eta negoziazioaren bidez, dela hirugarren alderdi baten bidez (epailetza, arbitrajeari, adiskidetzeari, bitartekaritza, erraztea, etab).

92. Lago, A. (2004), *Eugenio d'Ors. Anécdota y categoría*, Madril, Marcial Pons

8. Identitateak eta pertenezia

Bizikidetzak ona izango bada –positiboa, egiazkoa eta sendoa; hiritarra, soziala eta kulturartekoa–, ezinbestekoa da, aurreko epigrafeetan esan dugun bezala, bat etortzea zenbait jarreratan (**desberdina onartzea**), arautan (**gizalegea eta zuzenbidezko estatua**) eta baliotan (**errespetua eta tolerantzia**), eta, gainera, zenbait identitate eta pertenezia (edo partaide-izate) partekatzea. Balioen atalean egin dugun bezala, hemen ere honela parafrazea dezakegu horrekiko kezka edo eragozpen posiblea, edo, kasu muturrekoenetan, aurkakotasun zuzena: *“beren identitateak dituzte eta ez dira ‘gurearekin’ identifikatzen”*.

Bada, horri dagokionez, zera gogorarazi behar da: identitate eta pertenezia partekatutako sortzeko prozesu pixkanakakoa, denbora-kontu bat izateaz gain, hiru subjektu egin beharreko zerbaite dela. Izan ere, alde batetik, prozesu hori bi noranzkoko bide bat da, elkarrengana moldatu behar dugu, eta moldatze horretan:

- a. jada finkatuta daudenak eta iritsi berriak gizarte hartzaileko errealitateekin, gustuekin, sentimenduekin eta sinboloekin identifikatuz joango dira (auzokoak, udalerrikoak, autonomia-erkidegokoak, herrialdekoak...), eta
- b. nagusi den biztanleria –hartzailea edo harrerakoa– pertenezia hori onartuz joan behar da, hori gerta dadin utziz eta ez oztopatuz; azken horretarako, funtsezkoa da haiek behin eta berriz kanpotar gisa ez tratatzea eta ikustea, eta bai, aldiz, bizilagun **berri** gisa, hiritar berri, andaluziar edo murtziar edo galiziar berri eta, hala direnean, espainiar berri gisa.

Eta pertenezia partekatua elkarrekin eraikitze horretan, identitate komunak sortzeko ezinbestekoa den hirugarren subjektua instituzioak dira. Izan ere, administrazioei dagokie, maila guztietakoei, identitate-prozesu borondatezko eta aske horiek eta pertenezia-sentimendu horiek pizteko edo errazteko politikak, planak, programak eta proiektuak egitea. Hasteko, ordezkari politikoek eta funtzionarioek, hau da, herriaren zerbitzariak, pertenezia berri hori onartu behar dute, benetan, bai ikuspegi kognitibotik, bai jokabidez. Horrez gain, diskurtso, hizkera eta komunikazio politikoan haiek **hiritar berri** gisa hartzearen ikuspegia sartu behar dute. Eta, amaitzeko, hori ekimen eta neurri zehatzetan gauzatu behar dute: nazionalizazioak, erregularizazioak, jatorriz atzerrikoak diren pertsonak funtzio publikoan sartzea...

9. Instituzioak eta politika

Azkenik, bizikidetzak egongo bada, demokrazia marko politiko bat behar da, eta instituzioek, batetik, bizikidetzak horretan harremanetan dauden pertsona guztien eskubideak bermatzea, eta, bestetik, bakoitzari dagozkion erantzukizunak bete ditzan eskatzea. Bizikidetzaren alderdi politiko-instituzional hori kanpotik etorritakoei ezinezkoa dela uste dutenek, edo kezka bizi dutenek, honela argudiatuko dute beharbada: haiek, migratzaileak, *“ez dituzte errespetatzen ez hemengo marko politikoa ez instituzioak”* edo *“gizarte ez-demokratikoetatik datoz, zer itxaron daiteke haiengandik”*.

2000. urte inguruan, multikulturalismoari buruzko eztabaida pil-pilean zegoen, hari egindako kritikengatik, bai zientzialari sozial batzuek, hala nola Sartorik eta Azurmendik, bai politikari zenbaitek, hala nola Aznarrek

eta Cameronek. Ni multikulturalismoaren alde idazten nengil (antirrazista eta asimilazioaren aurkakoa), baina baita, eta batez ere, kulturartekotasunaren alde ere. Testuinguru horretan, ATIME⁹³ elkarteak antolatutako batzar batean, indar handiko esapide bat topatu nuen: “berdinen arteko bizikidetzaren demokratikoa”.

Izan ere, hortxe dago bizikidetzaren auziaren koska: demokrazian. Lehenago esan dudana bezala, binomia ez da –edo ez luke izan behar– espainiarrak/atzeritarrak, baizik eta demokratikak/

ez-demokratikak. Jatorriz atzerrikoa den norbaitek zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoa eta horrek Espainian bizikidetzaren arauari dagokienez dakarrena errespetatzen ez badu, haren jokabidea kritikatu egin beharko da, baina... autoktonoa balitz kritikatu genukeen neurri berean; hau da, **berdintasuna** aplikatu dugu, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 1. artalari, Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunak eta beste hainbat adierazpen eta corpus juridikok aldarrikatzen duten moduan.

Arrazoiketaren laburpena

- 01 Bizikidetzaren alderdi bakoitza arretaz aztertzen badugu, hiru gauza ikusten dira garbi. Lehenik eta behin, Espainiako gizarte-bizitzan, **egiaz**, jende **gehienaren eta eguneroko egoera** bizikidetzaren dela edo, behinik behin, koexistentzia.
- 02 Garbi ikusten da, bigarrenik, **minoritarioak diren jarrera edo arazo** batzuk areagotu, esajeratu eta aprobetxatu egiten dituztela batzuek, etsakeriatik, immigrazioa eta atzeritar jatorriko pertsonak arbuiatzeko estrategia gisa.
- 03 Garbi atera daitekeen hirugarren ondorio bat da benetako bizikidetzaren **posible dela, baldin eta** tartean diren partaide instituzional eta sozial guztiak **erantzunkidetasunaren** etika bati lotzen bazaizkio.
- 04 Migratzaileak ez dira autoktonoen aldean “hain desberdinak”, ez arauak betetzeari dagokionez, ez interes, motibazio eta balioetan.
- 05 Gizarte- eta kulturarteko bizikidetzarako giltzarria, garrantzi handiko beste alderdi batzuk ahaztu gabe (ikusitako bezala), demokrazia eta pluralismoa errespetatzea da.
- 06 Deliberazio publikoan binomia ez da –edo ez luke izan behar– espainiarrak/atzeritarrak, baizik eta demokratikak/ez-demokratikak.

93. Espainiako Langile Immigrante Marokoarren Elkarteak

Iturriak eta materialak

~prentsa / komunikabideak

Los españoles y la interculturalidad (El Diario de la Educación atarian 2017an argitaratutako artikulua; kulturartekotasuna aztertzen du, hezkuntzaren ikuspegitik. <https://bit.ly/3l6wTMO>)

~txostenak

II Plan Madrid de Convivencia Social e Intercultural (Madrilgo Udalak 2009an egindako dokumentua, oraindik indarrean, hiri-bizikidetzako ereduari buruzkoa. <https://bit.ly/3730NJJ>)

Programas de integración (Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazioen Ministerioak eskainitako migrazio-integrazioarako programen xehakapena. <https://bit.ly/2V870w>)

Inmigrantes en España: participación y convivencia (CECA Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioaren dokumentua, 2009an argitaratua; bizikidetzari buruzko informazioa dakar. <https://bit.ly/2VhejGC>)

~akademia

Transatlantic Trends: Immigration, 2011 (Ikerketa Politiko eta Sozialerako Unibertsitatearteko Partzuergoaren dokumentua, migrazio-joera orokorrei buruzkoa. <https://bit.ly/3f2LHrG>)

Migraciones, estereotipos y rumores: combatiendo la Hidra-xenofóbica en Andalucía (Juan Ramón Jiménez-García Pompeu Fabra Unibertsitateko irakaslearen eta Juan Ramón Jiménez Vicioso Huelvako Unibertsitateko irakaslearen artikulua akademikoa, Andaluzian migratzaileak integratzeko ereduari buruzkoa. <https://bit.ly/2WtqX6e>)

El desafío de la convivencia intercultural (María José Aguilar Gaztela-Mantxako Unibertsitateko irakaslearen eta Daniel Buraschi Paduako Unibertsitateko irakaslearen artikulua akademikoa, integrazio- eta bizikidetzaren ereduari buruzkoa. <https://bit.ly/2V0Clk1>)

La "adaptación" del migrante, un compromiso entre varias representaciones de sí mismo (Bartzelonako Unibertsitatearen Scripta Nova geografiako eta gizarte-zientzietako aldizkari elektronikoan argitaratutako artikulua akademikoa, migratzaileen gizarte-integrazioari buruzkoa. <https://bit.ly/3xg2gql>)

~gizarte-erakundeak

Convivencia inmigrantes (Dontknow sarean argitaratutako dokumentua; migratzaileekin bizitzeari buruzko zenbait galdera dakartza. <https://bit.ly/3rGaXt5>)

SALAM: Promoción de la convivencia intercultural e interreligiosa y prevención de la intolerancia por motivos religiosos (islamofobiaren kontrako integrazio-proiektu baten memoria. <https://bit.ly/3xbxC1k>)

Convivencia y espacios públicos (Zurumurruek Stop estrategiaren artikulua, bizikidetzaren inguruko ekimenei eta espazio publikoen antolaketari buruzkoa. <https://bit.ly/3zE8Ube>)

Las aportaciones positivas de la inmigración: miradas desde Andalucía (Andaluziako zenbait GBEk prestatutako laneko dokumentua, Andaluziako migratzaileen integrazioari buruzkoa. <https://bit.ly/3f56Amf>)

Cohesión social e inmigración. Aportaciones científicas y discursos políticos (GEDIME migrazioei eta gutxiengo etnikoei buruzko azterketa-taldearen dokumentua, migrazioaren aldeko diskurtso politikoei buruzkoa. <https://bit.ly/3x7szyX>)

Informe 2021: las personas refugiadas en España y Europa (CEAR Iheslarietako Laguntzeko Espainiako Batzordearen dokumentua; Espainiako migrazio-egoeraren erradiografia orokorra dakar. <https://bit.ly/3BM2b00>)

Glosarioa

Hau ez da glosario oso-oso bat. Irakurleen informaziorako erabilgarritzat jotzen ditugun zenbait kontzeptu dira, migrazio-fenomenoa ulertzeko eta demokrazia inklusiboaren eta hiritartasun plurikulturalaren aldeko argudiaketa egiteko.

Ahaidetasun-sarea

Pertsona jakin batek bere ahaideekin dituen harremanen multzoa, odolkidetasun- edo ahaidetasun-loturetan oinarrituak. Lehen, bigarren eta hortik aurrerako mailak daude.

Aitortza

Desberdinak direnak diren moduan onartzea.

Apartheid-a

Hegoafrikan aplikatutako eskusio etnorrazialeko sistema ofizial eta instituzionala. Hedaduraz, arrazaren, etniaren eta kulturaren arabera sailkatutako taldeen diskriminazio eta segregazio erradikaleko politika praktikatzeko duen erregimen orori aplikatzen zaio.

Arraza soziala

Talde bati buruz sortzen den konstruktua soziopolitiko eta ideologikoa (beste talde batek egin dezake, bai eta taldeak berak ere, edo biek).

Arraza

Ezaugarri fisiko batzuk berdinak dituen giza taldea.

Arrazakeria berria

Arrazakeriaren gaur egungo modalitatea, ez biologizista, baizik eta instituzionala, kulturalista eta xenofoboa.

Arrazakeria

Talde batek beste batzuen gainean aplikatzen duen nagusitasun-sistema, gehiagotasun-ideologia batean edo arraza edo kulturaren arabera eskusio-jardunbideetan oinarritutakoa.

Artikulazionismoa

Migrazioak jatorriko lurraldearen eta helmugako lurraldearen arteko loturak eta sareak sortzen dituen fenomenotzat hartzen duen teoria.

Asimilazioa

Beste kultura batean txertatzeko prozesua. Norberaren kultura desagertzea edo asko aldatzea dakar berekin.

Barne-desplazatua

Gatazka armatuen, barne-borroken, giza eskubideen urraketa sistematikoen, hondamendi naturalen edo gizakiak eragindako hondamendien ondorioz beren etxeetatik edo ohiko bizilekuetatik bat-batean edo ustekabean ihes egin behar izan duten pertsonak edo pertsona-taldeak, aitortutako nazioarteko muga bat zeharkatu ez dutenak. (Nazio Batuen idazkari nagusiaren txostena, barne-desplazatuari buruzkoa, 1995eko otsaila)

Baterako garapena

Migrazioa hartzen eta igortzen duten herrialdeen arteko kooperazio- eta lankidetzak-politika berrien sustapena, immigratzaileek garapen-bektore izateko duten ahalmena baliatuta.

Bi egoitzak dituen familia

Migrazioaren ondorioz osorik ez dagoen familia-unitatea, baina senideen arteko loturak estuak izanda, naiz eta herrialde desberdinetan kokatutako etxeetan bizi diren.

Bidalketak

Immigratzaileek beren herrialdeetara egiten dituzten diru-bidalketak, dela eskudirutan, dela postazko igorpenen, banku-transferentzien edo beste prozedura batzuen bidez.

Desberdina izateko eskubidea

Norberaren identitatea eta kultura eremu publiko eta pribatuetan adierazteko eskubidea, eta horregatik errespetatua izateko eskubidea.

Diskriminazioa

Desberdintasunezko tratua ematea eskubidetan berdinak izan beharko zituztenei.

Egoitzaren arabera hiritartasuna

Hiritartasun berriaren arloko mugimendu zibila. Ideia hau sustatzen du: pertsonak hiritartatzen hartzeko, nazionalitatea gorabehera, egoitza non duten, non dauden errotuta eta non egiten duten eguneroko bizitza hartu behar direla kontuan.

Erakartze-faktoreak

Herrialde jakin bateko errealitate demografikoak, ekonomikoak, laboralak eta soziopolitikoak, beste herrialde batzuetako pertsonak erakartzen dituztenak, herrialde horretara emigra dezaten.

Erlatibismo kulturala

Beste kultura bere terminoen arabera ulertzea (termino historikoak, normatiboak, baloraziokoak), eta ez -etnozentrismoan egiten den moduan- norberaren koordenatu kulturalen arabera, beste kultura horiek normalizat, naturalizat edo unibertsaltzat hartuta.

Erregularizazioa

Irregularitasun-egoeran dauden atzerritarrei legezko estatutu bat eskuratzeko aukera emateko prozesu ofiziala. Estatutu hori lortzeko, zenbait eskakizun eta izapide bete behar izaten dira.

Etxeko taldea

Etxebizitza berean bizi diren pertsonen multzoa, senideak izan edo ez, etxeko antolaketa, ekonomia eta antzeko elementuak partekatuta.

Garbiketa etnikoa

Esklusio-politikak eta -jardunbideak (diskriminazio-neurriak, mehatxuak, erasoak, beldurraraztea, etab.), talde jakin bat lurralde batetik joan dadin lortzeko edo lortzen saiatzeko.

Generoa

Konstruktua sozial eta ideologikoa, gizonen eta emakumeen rolei eta haien arteko harremani buruzkoa (genero-rolak eta -estereotipoak, genero-hierarkizazioko sistemak, sexu-sistemak, genero-sistemak, etab.) Desberdina izaten da gizarte eta kultura bakoitzean.

Ghettoak

Etnia eta kultura desberdina izateagatik marjinatutako biztanleen kontzentrazioa (zenbaitek aberatsen eta boteretsuen ghettoak ere badaudela planteatzen dute).

Giza garapena

Pertsonen aukerak areagotzea; batez ere, egoera ahulenean dauden pertsonenak. Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) eman zuen kontzeptu horren definizioa, 1990ean.

Gizarte-eremu transnazionalak

Beren izaera eta dinamikagatik, estatu-nazioen mugak eta logika gainditzen dituzten errealitate ekonomikoak, familiarrak, asoziatiboak, identitarioak, etab.

Hiritartasun berria

Ilustraziotik eta Frantziako Iraultzatik heredatutako hiritartasunaren nozioaren birkontzeptualizazioa. Birkontzeptualizazio horretan, hiritartasunaren nozioa errealitate berriei egokitzen saiatzen da, bai eskubideen titulartasunari dagokionez, bai subjektuen pertinenziari dagokionez, eta formula-sorta zabala eskaintzen da, hala nola tokiko hiritartasuna, hiritartasun desberdindua, egoitzaren arabera hiritartasuna, hiritartasun multikulturala eta beste batzuk.

Hiritartasuna

Pertsonen eskubideen eta betebeharren titulartasuna, estatu batek ordeztu duen komunitate politiko baten kide diren aldetik. Estatuak eskubide horiek bermatzen ditu eta kidegiz hori aitortzen du.

Iheslaria

"Arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, talde sozial jakin bateko kide izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarria izateko beldur sendoa duen pertsona, bere naziotasun-herrialdetik kanpo dagoena, eta, beldur horien ondorioz, herrialde horren babesa jaso ezin edo nahi ez duena". (1951ko Hitzarmena, Iheslarien Estatutuari buruzkoa.)

Itzulera lagundua

Migratzaileen itzulera babesteko programak dira. Herrialde hartzaileetako erakundeek edo jatorriko herrialdeetako erakundeek babesten dituzte, edo batzuen eta besteen arteko lankidetzaz egiten dira.

Itzulera

Migratzailea bere jatorriko lekura aldi baterako edo behin betirako itzultzea.

Itzuleraren mitoa

Migratzaileak itzultzeko beti duen itzaropena, ilusioz, idealizazioz eta sentimendu sakonez betea, baina behin eta berriz geroratu.

Izatezko familia-berrekartzea

Immigratzaileen senideak immigrazio-herrialdera joatea, elkarrekin bizitzeko.

Jatorriko eta harrerako testuingurua

Herrialde igorleen edo hartzaileen ezaugarriak (demografikoak, ekonomikoak, politikoak, etab.), migrazio-fluxuetan eragiten dituztenak eta migratzaileen ibilbideak eta onarpena edo gaitzespena baldintzatzen dituztenak.

Kanporatze-faktoreak

Herrialde jakin bateko errealitate demografikoak, ekonomikoak, laboralak eta soziopolitikoak, jendea beste herrialde batera emigratzera bultzatzen dutenak.

Kultura

Portaera-jarraibideen eta errealitatearen esanahia adierazteko moduen multzoa (arauak, balioak, sinesmenak, etab.). Sinbolikoki adierazten da eta erlatiboki egituratutako osotasun bat eratzen du, biztanleria batek partekatzen duena –modu berezian, sexuen, adinen, gizarte-klaseen eta abarren arabera– eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen dena. Giza ingurunera eta ingurune naturalera egokitzeko mekanismo bat da; beraz, errealitate aldakor bat.

Kulturartekotasuna

Pluralismo kulturalaren barruko esamolde berria. Alderdi desberdinez gain, alderdi komunak ere nabarmentzen ditu, eta kultura desberdinetako banakakoen edo kolektiboen artean berdintasunezko, askatasunezko eta elkarreragin positiboko harremanak sortzeko praxia sustatzen du.

Lan-merkatuaren segmentazioa

Biztanleria aktiboa egituratzea multzo desberdinetan –lehen mailako segmentuak, bigarren mailakoak, etab., enpleguen kalitate handiagoa edo txikiagoa kontuan hartuta (kualifikazio-mailaren, soldata-mailaren, egonkortasunaren eta beste ezaugarri batzuen arabera)–.

Lanaren kulturak

Lanbide-sektoreekin lotutako portaera-jarraibideen, bizi-estiloen, araudien, balioen, hizkuntzen, errituaren, ikurren eta beste osagai batzuen multzoa.

Mendekotasuna

Herrialde jakin batek bere garapenerako duen kanpo-baldintzapena.

Migrazio-eremua

Migratzaileen kolektibo jakin baten loturek eta sareek hartzen duten hedadura (nazionala eta nazioartekoa).

Migrazio-ibilbidea

Pertsona edo familia baten migrazio-esperientzian egindako ibilbidea edo izandako gertaera- eta jarduerasekuentzia eta, oro har, aldaketak.

Migrazio-katea

Jatorriko lurralde jakin bateko immigratzaileen arteko lotura, non aitzindariak erakartzeko funtzioa betetzen duten eta beste batzuei migratzen laguntzen dieten; bigarren horiek beste batzuei laguntzen diete, eta horrela jarraitzen da katea.

Migrazio-kultura

Bi adiera: a) emigrazioaren fenomenoarekin lotutako ezagutzak, jarrerak eta jardunbideak, jatorriko komunitate edo eskualde batean daudenak, emigratuen bisiten eta itzuleren eraginez eratuta; b) emigratutako talde baten kultura, harrera-herrialdean egiten den moduan. Aldaketa handiak ditu jatorriko lurraldeko kulturarekiko, aurreko bereizgarri batzuk desagertu edo aldatu direlako, eta bereizgarri berri batzuk sortu direlako.

Migrazio-proiektua

Pertsona edo familia migratzaileak beren migrazio-ibilbidearen une bakoitzean dituzten orientabide orokorra, zirkunstantziak, plana eta etorkizunerako espektatibak.

Migrazio-sistemak

migrazio-fenomenoen multzoa eta fenomeno horren ezaugarri bereizgarriak eremu geopolitiko jakin batzuetan. Ipar Amerikako, Europako, Ekialdeko Asiako eta Persiar golkoeko sistemak bereizten dira.

Migrazio-erako familia-estrategiak

Familia-unitate bateko kideek beren migrazio-proiektuan helburu jakin batzuk lortzeko hartzen dituzten erabakien eta egiten dituzten ekintzen multzoa, helmugako zein jatorriko lurraldean.

Multikulturalismoa

Pluralismo kulturalaren lehen adierazpidea. Honako hauek sustatzen ditu: arraza- edo kultura-arrazoiengatik ez diskriminatzea, kultura-desberdintasunak aitortzea eta ospatzea, eta kultura-desberdintasunerako eskubidea izatea.

Onarpen-egiturak

Langile immigratzailearen eta enplegatzailearen adostasunezko egoera, non lehenbizikoak lan-baldintza gogorak onartzen dituen, diru-sarrera horiek eta lanbide horrek berarentzat bere migrazio-ibilbideko une horretan duten balioaren eta esanahiaren arabera.

Ongizate-estatua

"Hiritarren bizi-baldintzak hobetzera eta aukera-berdintasuna sustatzera bideratutako legedia eta gizarte-politikak hornitzen dituzten estatu-erakundeen multzoa".

Ordeztea/osatzea

Langile atzerritarren presentziak izan ditzakeen esanahietako bi, lan-indar atzerritarrak aurretiko lan-indar autoktonoarekin duen harremanaren eta lan-indar horretan eragiten dituen ondorioen ikuspegitik.

Pluralismo kulturala

Kultura-aniztasuna positiboa dela onartzen duen planteamendua. Eskubide-berdintasuna eta diskriminaziorik eza uztartuko dituen gizartea eratzea proposatzen du, kultura-identitate eta -adierazpide guztiak errespetatuta.

Segregazioa

Desberdinak direnak bizitza publikoko esparru jakin batzuetan fisikoki edo espazialki bereizteko eta isolatzeko jardunbide instituzional edo soziala.

Soldata-diferentziala

Helmugako lurraldean eta jatorriko lurraldean jasotako soldaten arteko aldea, jatorriko lurraldeko erosahalmen-oinarriaren arabera kalkulatuta.

Xenofobia

Etimologikoki, atzerritarrak gaitzestea edo haiei higuina izatea (grezierako hitz hautatatik dator: xenós, atzerritarra, eta fobos, higuina, gaitzespena). Zenbait egilerentzat, hala nola Balibarrentzat, gaur egungo arrazakeria berriaren ezaugarrietako bat da.

Zuzenbidezko familia-berrelkartzea

Dagozkion arauen eta izapideen arabera egiten dena.



Zurrumurrueen Red Vasca
Aurkako Sarea antirumores



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO